

**DANTE ALIGHIERI**



**JAINKO ANTZERKIA**

DANTE ALIGHIERI

# JAINKO-ANTZERKIA

Itzultzaille:

AITA ONAINDIA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN BABESPEAN

Bear diran baimenakin

Marrazkiak:

- A2alekoa, Rafael'ena.
- Laugarren azalekoa, J. Sumol'ena.

Depósito Legal: BI 1958 / 85

IGARRI, S. C. L. — Rafaela Ybarra, 1 — Deusto - Bilbao

## SARRERA

Ertilari aundí bat daukagu aurrean; ez gero idazle narratibo lez, baita gizaseme legez be. Amaíru-amalau mende-koa da, ta gaurkoa dirudi, pentsakeraz ta idatziz. Berau agertzen jaku mundu litératuren txuntxurrean, gaurko poesi-joeran ain zuzen, diñoenez. Esakun onek ba-dau bene susterra: Batikano'ko *Enciclopedia Catolica*'k onela baiesten dau: «Katolikotasuneko olerkaririk aundiena» dala esatean. Mendez mende poeta aundiak ezagutu ditu munduak: Homero, Bergili, W. Goethe, Shakespeare... Dante ren lana, *Jainko-Antzerkia*, or daukagu betiereko oroigailu goieneko.

*Gizona*.—Florenzia'n jaio zan Dante 1265'an eta Ravena'n il zan 1321'an. Etzan sendi leiñargikoa, baiña bikainen artekoa bai, ez bait dakigu ziur zein iUetan ez zein eguntan munduratu zan; ezta ez dakigu noiz geratu umezurtz, ama gaztetxo zala il jakon arren. Bere aita, Alighiero Bellincione, bigarrenez ezkondu zan, seme bat eta alaba bi itxura danez eukirik ezkontza onetatik.

Ikasle errimea agertu zan gaztetan, eta gero bizitza guztian. Nun ikasi ete eban Ienengo asi-masiak? Bertako Franziskotarren ikastetxean, uste danez, olan erakusten bait dau bere idatzietako joera mistikuak. Erretorika ta inguruko gaiak ikastean Brunetto Latini izan eban maisu; gaztetatik baita ar-emon aundia izan eban Guido Cavalcanti ta Iapo Giaani'rekin. Eder jakon garai aretan latindar olerkari kiasikuak irakurtea, Bergili batez be, ta ortik jadetsi euskun idazkera berezi maitasunezko olerkigintzan, «dolce stile» de-ritxonean.

Dante'k aurrenik, orduko oitura zanez, poesi mota ori landu eban, etenbage. Ba-eban nori kantatu be: bederitz ur-

teko zala, jazokun bitxi bat izan eban. Kanean zear ibilliz joiala neskatx zoragarri bat aurrez-aurre, ta bertatik geratu zan maitez lilluratua; berak edesten dausku au «Bizitz Barria-n». Diñoenez Bice zan neskatillea, Folko Portinari'ren alaba, gero Simon Bardi'gaz ezkondu ta, oraindik gazte, 1290'an il zana.

Neskatx au Dante'rentzat «bere pentsamentuen andera aintzatsua» izan zan. Ez dakigu Bize (Zorione) edertasunaren eta Jainko-zaletasunaren eredu noraiñokoa izan zan; alan be, maitasun eder, on, zintzoak erakusten dausku ondo be zelako kemena ta arnasa emon oi dauan bizitzan. Emakume onek, Dante bitarteko, ezilkortasuna lortu eban oleskariaren poeman, bene-benetako ezilkortasuna.

Porrot-aldiak geienik izugarrizko irakatsiak dabez ondorio. Dante'k be izan eban, diñoenez, olako zerbait. Aldiak alan be dana zuzen-azten. Bizimodu zabar samarra zati batez eroan ondoren, eta irakatsi arriskutsu artean ibilli ostein, ezkondu zan azkenik Gemma Manetto Donati'rekin, iru seme beronekin eukirik.

Dante'k orduan, sendiko aita, klasikoen ildotik ibilliz maite-kanta ka idatzi zituan. Ogetamar urtetik gora eukazan, ta jakintza bidez joian, matematika, jeografi, izar-gai, teoloji ta olako gaietan oso zaletua; politikan be ez ebillen etzerengo. Ba zan bai uriko goraberetan esku artzeko gai. Eta izan be, 1293'tik bere uriko garatzetan buru-belarri sartua dabilkigu.

Ori zala-ta, 1300'en, San Gimignano'ra mandatari bialdua izan zan, eta ango nagusi autatua, Zurien eta Baltzen arteko burrukak ixil-azteko. Ta ixildu ziran alderdi bieta-ko buruzagiak erbestera bialduz. Siziliatz jabetzeko asmoz Valois'ko Karlos Florenzia'ra eldu zanean, berau izan zan beste bigaz Bonifazio Aita Santuarekin egoteko aukeatua; Aita Santuak baituta euki eban bere ondoan pertsona arriskutsua zala-ta.

Bere alderdikoak Florenzia'n azpiratuak izan zirala jakin ebanean, Errroma'n eta Siena'n bizi bear izan eban, agintariak erbestera bota ebelako; ondasunak baitu eutsoezan,

iru egun barru urian aurkezten ezpazan. Eta auzitegiak ospatu eban bigarren epai baten bizirik erretera zigortua izan zan Florenzia'ko lur-barruan aurkitzen ba'eben. Erbestera-tua Verona'ko jaunen etxean egon zan lenengo; Kasantino'n ondoren, Guido kondearenean, eta azkenez, Ravena'n, Guido Novello'ren etxean. Egun baten bertan, zingirako sukargaitzez gaixotu ta ortixek il zan 1321'ko irailaren 14,an. Bere gorpua uri atako San Frantzisko eleizan datza.

Laterri txiki bat zan orduan Florenzia, aziaz joian erdi-aro-koa, gerotiar laterri guztién eredu, legez, oituraz ta ekonomiz. Burrukalariz ta jauntxo-za berea, oi danez, beñiola oi-ñaztarrak eta ganboatarrak gure artean lez, guelfotarrak eta gibelindarrak liskar bizitan ebiltzan garaia; burruka ta katra-milla gordifio-ak argi ta garbi azaltzen dauskuz Dante'k bere jainko-za poeman.

*Idazlanak.*— Italiciaz eta latiniez idatzi eban Dante'k. Oneik italiciaz: «Antzerkia», «Bizi barria», «Oturuntza» ta «Ots-kideak» edo «Rimak»; beste oneik latiniez: «De vulgari eloquentia», «De Monarchia», «Eskutitzak» eta «Unai-kantak». «Bizi barria»-n datoz Dante'k Zorione ri izandako maitasuna, bertsoz eta prosaz, 25 moltzo eta abar, sinboloz, irudiz eta metaforaz gaiñezka.

Literatura gaiak edertzen dabe «Oturuntza» be. Asieran lau zati azaltzeko gogo-za erakutsi arren, eukan gogo-za amaitu barik gelditu jakon, bigarren liburuko amalaugarren saillean. Latiniez idatzita be, erriko izkuntz arrunta go-osten dau beti. «Monarchia» iru liburut-za dago, ta gizonaren elburuak bi dirala diño, arimearen almenen ardurea ta lurreko zoriona, ta elburu biok lortzeko ta aurrera joteko, monarkia dala jaurbiderik onena. «Eskutitzak» antza e^ dira gitxi besterik, eta «Unai-kantak» ez dira bereak, naizta Boccaccio'k orrela nai Petrarka\*ren aurka.

Danteren lanik bikaiñena «Antzerkia» da, dudarik bage. Berak «Commedia» deitu eutson, baiña Boccaccio'k, poema goitar, zerutar, bikain-bikaiña zalako, «Jainko», «jainko-za» edo «jainkotiar» izenlaguna ezarri eutson; ortik guk

«Jainko-Antzerkia». Leendik añaturiko idazti guztien bilduma lez dogu berau, ementxe bait datoz Dante'k buruan erabilittako uste ta ideia guztian guna, irakurriz ta ikasiz, maisuak erakutsia ta berak bere kasa ausnartu ta iraulien gaien sorpen borobilduak. Poema onek, erdi-aroko buru-euntza sinbolu ederrez jantzi onek, algebra berarizko aberatsa dau, iru ta beronen aunitzkoitzez ornidua. Iru kantagai dira: «Infernua», «Garbitokia» ta «Paradisua»; irukoetan osotua dago; Infernuak (34) ezik, beste biak 33 kantu daukiez. Infernua bederatzi obotan bereiztuta daukagu, Garbitokia bederatzi esknaldetan, lurreko Parasidua gain-gaiñean daukala, eta azkenez Paradisua bederatzi zeruk osotua da. Infernuan dagoz, oiñazetan, betiko gaiztetsiak; Garbitokian, arimak, penitentziz dagie euren garbiketa, eta Paradisuan maillako dagoz ipiñiak lurrean merezitako irabaziai dagokiez. Iru tokitako kantuak «stele» —izar— itzez amaitzen dira.

Darabiltzan egitura ta metrika ez daukie esateko korapillorik. Poemak kantua darabil. Amaika silabako, esan dogunez, irukoetan; klasiku joerari dagokionez, garbi ta eder, apain ta soiñutsu burutu ebazan lerro ta pikuak oro. Bertso mamiña orraitino, ezta orren garbi ta doiñuisua, au bada, oso aberats jori ta oparoa dalarik be, daroazan nortzuak, pertsonak, barne-bizia ta abar, eta oneik jazteko darabiltzan irudi, alegi ta adibideak ez dira beti ulert-errezak. Gaurko gizonaren izaera nabarmena margazten dauskula, esan daikegu. LiJluraturik izten gaitu, gaur, poema orrialde askok, bete-bete eder baten barruan gaurko munduari zuzen-zuzenean itz dagitsoe-ta. Dante, idazle batek diñoanez, antxiñako munduaren eta gaurkoaren atarian daukagu, arek eta onek, alkar agurtu ta eskua emonez, mezu aundi bat damotsela. Atxurizko lan zoragarria dozu «Antzerkia».

Oitura ta moral-gizona zan Dante, oso ertsia, arteza. Onek sarri eztabaida, barruko kezka ta liskar latzetara eroan oi eban, baita enparaunegandik urrindu ta baztertzer a be. Gero ta pozago bizi bakartasunaren altzoan, bere sorpen eta oldozkun sakonetan murgildua, arraiña itxas-ondoan le-

gez. Eta, jakiña, aurrean daukan gizarteari begira jartean, bien arteko bide-arloa neurtzeko bakar-bakarrik; ortik dator ondorenaz bere idatziaí darien latz-apar jasan -gaitza.

Zer asko azpimarratu daikeguz Dante'ren poema bipil onetan; baiña naiko bitez guretzat ikuspegi biok batez be: burutapenez aseá dago, barne-egitura bete-beteá osotua eta gero elebarri oso antzez egiñaren ukapenik ezin leikela jasan: pertsona batzuk edestitik artuak dira, beste batzuk kronfka ta liburu santuetatik, eta beste irugarren batzuk bere irudimen bizi-sorgiñak asmatuak; mamiña gertari ta jazoz bitxiturik daukagu dana, edozein gogo, edozein kultur eta eritxikoa izanik be, erakarri ta loriatan jarten dabenak, ain zuzen. Eta ikuspegi bíok dagoz, ez banatuak, alkar ondo kateatuak baiño.

+ + +

Merezi eban gure izkuntzak poema gorenengo onen itzulpena. Irakurie, emen daukazu berau. Nilc aspaidídanic nerabilJen gogotan; bai, Daníe'ren lan ikaragarria nai neban euskeraz jarri. Urteak dirala nintzan orretan; an «Karmel»-en leenengo urteetan datoz Infernuari buruzko kanta guztiak, nik uste. Gero «01erti»-n emon nituan beste batzuk Garbitokitik artuta. Ta orain emen daukazuz iru kantu luzeak oso-osorik.

Dante'k bertsoz ondu euskun bere poema; euskera<sup>2</sup> be etzan zailla, baiña prosaz asi nintzan asti-uneetan itzultzen eta olaxe dator lan guztia. Onek, itzultzean, beti galtzen ei dau zerbait, ez ei da iñoiz be jator-jatorra. Orrela izango, ta orrela da, izan be; nik dagoneko iru klasiku itzuli ta argitartu ditut: Bergili'ren *Eneida*, Homero'ren *Odisea* ta Dante'ren *Jainko-Anizerkia*, ta egi-egia da iru lanok zerbait, edo geitxoago, galtzen dabela. Iru izkuntza oneitako lanak, iru maisu aundik egiñak, barne-igiera, doiñu, neurri ta azken-amaiz obeto eziñik taiutuak daukaguz, eta jtzuli ezkeró,



pentsamentuak, alegi, sínbolu ta abarri eutsíta be, barruko gatz eta apaindura berarizko ori, or gelditzen da galduta. Izkuntza bakotxak bait dau grazi berezi-berezia. Alan eta guzti be, nik ikusi ditudan itzulpenik geienak izkuntza guztietan itz-lauz ikusi ditut. Bego orrela, ba, euskeraz be.

Azkenik, esan dagígun: poema au garrantzi. itzalekoa dozu, Dante'k berton ereiten ditun ainbat bitxi —esakun, bulko zorrotz, alderakizun, antz, alegi, iduri, metafora ausart, istori jazokun— eder, jakingarriz betea dalako. Gure izkuntzak bear dau olako zerbait, gure literatura apain, jori ta oparotsuago egin dagigun. Munduko literatura aundi guztietara itzulia da. Emen guk be euskeraz!

Larrea, 1985-10-25

AITA ONAINDIA

# I N F E R N U A



Gaien laburpena beti egokt. Era ta bide jakintzuz jar-  
duna da Dante bere idatzielan\ poema ontan batez be. Lurra  
geldi egoan Dante'rentzat munduaren erdian; olantxe uste  
zan orduan Tolomeu'ri jarraituz. Beronen biran dabiltz in-  
guruka zeruko oboak, izarrak eta izarbelak.

Basarte illun baten da Dante; ez daki zelan urten berta-  
tik. Or Bergili, Andra Mariaren bitartez, Zorione'k bialduta;  
onek, Bergili'k lagunduko dautsa Dante'ri goitar erreñuetat-  
tik zear. Lurpeko bide-zidorrez doaz olerkari biak. Dante'k  
ez dau eriotzarik izan, eta Injernuko ateraiño daroa Bergi-  
li'k. Eta biak arakatzen dabez ango leku-gorde ta zurkuluak.

Txonil baten iduria dau infernuak, baiña goitik estua  
beetik zabal, inguruak gerota medarrago egiñik doazala.  
Ate-buruan au dakuse: «Barrura zoazenok, itxi emen itxaro-  
pen oro». Leenengo inguruan Linbua dago; emen ez dozu  
oiñazerik, ez intziririk, baiña bai illunpeak; ementxe bizi  
dira egiazko fede barik Kristoren aurretik il ziranak. Lizu-  
nak dagoz bigarren inguruan, oiñaze aundiakaz\ irugarre-  
nean, asekeria, jan-edana zigortzen da; laugarrenean, zeke-  
nak, eta bostgarrenean, asarrekorrak.

Leen-kantuak, oianean zear sudezaren atariraiñoakoak do-  
zuz. Gero, ba-doz olerkari biak —Bergili ta Dante—, urrats  
labur, gero ta barrurago; bidean aurkitzen dabez ainbat pe-  
katarari oiñaze ezbardiñakaz, inguruz inguru sakabanatuta.  
Zazpigarren biran aurkitzen dabez urko lagunaren aurka,  
nobre buruaren eta Jainkoaren aurka zakar jokatu ebenak.  
Zortzi ta bederatzigarren inguruetan, amar taldetan bereizita  
ikusi ebezan pekatariak. Azken-azkenean Dite'ren egoitza,  
Txerren nagusia bizi dana.

Oso aberatsa dogu Dante tokiak eta oiñazeak asmatzen.  
Orrez gaiñ, zergaitik ez esan?, amorrugarri nabarl da sarri  
gizarte eratsuaren aurkako griña ta jasik. eza edestean. Zuri,  
koipetsu ta goratzaille guzurti, merkeak zorrotz jipoitzen  
ditu, korotz-osin loitsu baten leku emonik. Zortzigarren in-  
gurua amazortzigarren kantutik ogetamarrerakoak artzen  
ditu, eta bederatzigarrenak oetamaikatik ogetamalaugarre-  
rañoakoak. Lenengo zati onek. beste biak baiño kantu bat  
geiago dauka, esan dogunez.

## I KANTUA

Muiña.—*Olerkaria, baso naastu ta zirristu bakoan zear dabil, gau osoan. Egun-urratzean, baiña, muiñorantza artzerakoan, iges dagi andik. Eta, bidez doala, iru pizti, nabarra, leoia ta otsemea —Lizunkeri, Arrokeri ta Zikoizkeri— bideratzen yakoz, urten-barri dan oian baltzera barriro be bultz-eragin nairik. Ontan Bergili agertzen yako, ta asitako bideari jarraitzeko diñotsa; berberak lagunduko dautsa Su-leza ta Garbitoki zear\ Paradisu zear, ostera, Zorione doke bidari.*

Gure bizi aldiaren erdira, basarte ilun batean aurkitu nintzan, zidor zuzenetik aldegin nebalako. Ai, ta nekezko jat egiaz oian naspil a zein itxi ta latz zan esatea! Gogoratzu bakarrik izu-dardar jarten naz barriro! Eriotz ikara baizen mingotza! Baiña an aurkitu neban onaz jardun aurretik, begipean jarri jatazan beste gauza batzuk azalduko ditut.

Zíur ezin daiket gaur erasan an zelan sartu nintzan; egiazko bidea galtzean, loaren bendeko bait-nintzan osorik. Baiña, biotza izukor jarri eustan ibarra amaitzen zan aldatz oiñera eldu nintzanean, zerurantz jaso nebazan begiak, eta orduko dirdiratsu nekusan mendi-bizkarra bide orotan zear arteztu oi gaituan eguzkiaren izpi-erraiñu joriz.

Orduan arindu zan pi^kat nire izu-laborria, ots, neke-  
neketan igaro neban gau osoz biotz-osiñean iraun eustana. Ta ni itxaso apartsua larri ta estu itxi ta ur-ertzera eldurik, ibilli dan kresal-olatu arriskutsuetara begiratzeko biurtzen danaren antzera nengoan, igeska oraindik, igarotakora begira, iñor bizirik iñoiz urten ez dan bidera, aurki.

Neure gorputz nekatuari zerbait atsedan emon ostean, ondartzu bakar zear ibilli nintzan oindiño be, beti beerengo

oiña tinkoen nerabilleJa. Eta ona, aldatz-gora artzean, lun<sup>1</sup> nabar bat agertu jatan otoz-otoan, txit bizkorra ta narru orbandunez estalia; bere begiak nigandik kendu barik, bidea eragozten eustan, eta askotan itzuli nintzan atzera biurtu naiean.

Goiz-miña zan, aurki, ta igonaz joian eguzkia, Jainko-maitasunak izadiko gauza guztiei len-zirkiña ezarri eutsenean beragaz egozan izarrez inguratuta. Ordu ta aro bigunak nunbait, pizti narru margoztu arek uste ona sort-erazten eustalarik. Alan be, larregi ez, bat-batez agertu jatan leoiaren bertarteak ikaraz jarri ninluan eta, Au nire aurka etorren, zirudienez, buru-zut eta gose-alakaz: eguratsa bera be bildur yakola emoten eban.

Eta otseme<sup>2</sup> bat aurreratu jatan ondoren, aul ta jausia; gurariz oso zamatua zirudian, eta orduko makiña bat beartu ebazana urritasunean bizi izatera. Aren begi-suak guztiz artegatu nindun, tontor gañera eJtzeko itxaropena gahzeraíño nunbait. Eta orduan niri, atsegiñetan aberastu bai, baiña galdu-garaiz oso jausi ta zernaitara negar dagianarena jazo yatan, bidera urtenik, eguzkiak argia galtzen dauan mugaruntz saka eragin enstan pizti unduri aregaz.

Ibar sakonerantza nentorrela, ona begi aurrean norbait, luzero ixil-bearrez mutu emoten ebana. Maurtu zabaJean ikusiaz, ots egin neutson: «Zareana zareala, geriza naiz egizko gizon erruki zakidaz»—. Eta arek erantzun: Ez gizon, izana nazan arren; nire gurasoak lonbardarrak zenduzan, eta biak Mantua izan eben sorterri. Juli'ren menpean —sub Julio— jaio nintzan, naiz-ta zerbait berandu, ta Erroma ikusi neban August onaren agindupean, jainko-aizun-iruzurti garaian. Olerkari izan nintzan, eta Ilion arroputza erre ostean Troia'tik itzu zan Ankeselin<sup>3</sup> seme zintzo a abestu neban. Baiña zu, zergaitik orrenbesteko oiñazetan sartzen? Zer dala-ta etzara igoten mendi zoragarrira, atsegiñak oro an baitdabe zio ta sustrai?

—Orduan zu zaitut arako Bergili, itz-jario sakonezko iturri oparoa? —erantzun neutsan lotsakor—. O zu, beste olerkarien omen ta zuzi! Naikoa bekit zurekiko ikaste eten-

bakoz, zure lana irakurri ta gogoz-nartu dodan maitasun-mina. Zu zaitut irakasle ta idazíe begiko; zuregandik soilki artu ta ikasí dot ainbat omen ta goratarre-bide zabaldu daustazan idazkera joria. Begira itzultzera beartu nauan pizti ori; jagon nagizu beragandik, ospe andiko jakintsu orrek, zan-tintin arexek dardarazten nau-ta.

—Beste zador batetik ekitea oba yatzu —erantzun eustan, ni negar-malko íkusirik—, leku basati ontatik aldegin nai ba'dozu. Ain bildurgarri yatzun abere orrek, ba, ez dautso iñori be itxiko bere bidetik igaroten: ortara azartzen danari eriotza damotso. Setaz dozu gaizto ta muker; beraren gose-irritsa ezín dau sekula ase-bete, ta jan ondoren jan aurretik baiño gose biziagoa dau. Abere mota askotara jo ta arekin alkartzen da, ta oraindik askoz geiagora joko dau, oiñaze gorritan ilgo dauan Erbikari datorkeño. Au ezta lurrez ta diruz alikatuko, jakituriz, maitasunez ta onbidez baiño; ta aren aberri, ortzi ta zeru artea. Berak gaizkatuko dau Itali zori bako ta apal au, Kamile neskatxak, EuriaTek eta Turno'k eta Nisu'k beronen alde bai eben bizia emon. Uriz uri jazarka erabillico dau otsema, su-lezara amildu arte, bekaitzak bai eban beiñola andik aterazo. Orain, zeure onerako, uste dot eta argi dakust, neure jarrai ibilli bear zeunkela: nerau naia-tzu bide-erakusle; emendik atara ta ustebakoen ulu-marrualc entzungo dituzun toki betilcorrera eroango zaitut; an ikusiko dozuz antxiña galduen gogo oiñazetuak, oiú bizitan bigarren eriotzari deiez. Bai ta íkusiko do2uz sugarretan pozilc dagozanak be, garaia eltzean, zoriondunen artean etzana izango dauanaren uste betez askorturik. Eta zuk beingoan aretaraiño igon gura ba'dozu, ni baiño duiñago dan arima batek lagunduko dautzu, ta beragaz itxiko zaitut, nik zugandik alde egitorduan; goietan errege dan Nagusiak, bada, ez dau nai bere urian nire bitartez iñor sartzerik, Aren legearekin muker-bigurri izana bai nozu. Goian errege da ta alde guztietan agintzen dau; goian dauka bere uria; bai ta bere aulki jasoá be. Oi, zorionsu Alc bere aginterrirako aulceratua!

Eta nik onela jardetsi neutson: —Olerkari, arren, e2agutu etzendun Jainko orren izenez, urrindu nagizu gaitz ontatik eta beste txarragotik; zuzen nagizu, otoi, esan daustazun tokira, Kepa donearen atea<sup>4</sup> ikus dagidan, bai ta, diño-zunez, onen errukarrí dagozanak be.

Bideari ekin eutson gero, ta ni aren atzetik.

- (1) Leoi nabarra (pantera). lizuokevia dozu.
- (2) Au da, zikoizkeria.
- (3) BergLli.
- (4) Garbitokikoa.

## II KANTUA

Muiña.—*Goi-argi eske.—Danfe izuaren mende kizkur, Sulezara doala pentsatuz.—Bergili'k senaralzen dau, Zorio-ne'k bidali daula esanaz. Aren itzetan ustetsu, maixuari jarrai doakio.*

Beeruntz joian eguna, ta or gau-giro otz epela lur gainez, lan-nekeak auldutako sorkari guztiei atsedenera deiezka. Neuk niarduan bakarrik biderako gertatzen, ene oroimenak al bait zeatzen edestuko daustazan gorabera arrigarriak eroapenez artzeko bear nebana antolatzen.

O maitagarri! O goi-argi, zatorkidaz lagun! Eta zuk, ikusi. nebana idatzi zendun orrek, ager egizu orain zerorren zintzotasuna!

Ni onela asi nintzakon: —Bide-erakusle zaitudan olerkari: ain arazo latzari ekin aurretik, begira, otoi, bear aiña kementsu nazan. Zuk diñozu Silbi'ren aita (Enea), oindiño-krren ustelkor, betíraun il-eziñera aldatu zala, ta sumagarri alan be. Baiña gaitz guztien etsai dana onbera izan jakon aurki, ortik sortzeko ziran asmo, gaitasun eta ondorenak —aundiak ziur asko— gogotan arturik; zeru goietan izan

zan, bada, Erroma argiko ta onen aginterriko aitatzat aute-  
tsia: bi oneitan, egia esan, errotu zan gero toltzi santua,  
Kepa garaiaren ondorengoari egokion ezarleku dedutsua.  
Zuk goraipatu dozun ibillaldi ontan, gauzarik asko entzun  
ebazan aren garaipen-zio ta Doipuru-jantziaren dirdaia ira-  
garten ebenak. Gero, Langille autatua be andik ibilji zan,  
osasunaren asi-bidea dan siñistean sendoagotzeko. Baiña ni,  
zergaitic joango na? Nok damost ortarako baimena? Ez  
naz ni Enea, ezta Paul\* be: enaz omen orren duin ez neure  
kautan, ez inoren aurrean. Arlo ortara ba-nlñoalce ausarti  
zurrean, ba'leiteke ori be zorakeri izatea. Jakintsu zara zu,  
ta ulertu egizu nik jaulki ezin dodana.

Eta len opa ebana nai ezta, asmo barri batek burura  
jotean, lengo eritxia aldatu ta asitako guztia bertan-bera izten  
dauanarena jazo jatan niri be ondartzaz zurbil aretan: buruan  
erabilliarren erabilliz, laga neban ain gar biziaz asi neban  
egitekoa.

—Ondo barneratu ba'dot zure itzen sakona —erantzun  
eustah glzaki leiñargiaren itzaJalc—, zure gogoa koldarke-  
riaren mende dago, ta onek sarritan eraso oi dauitsa gizonari,  
eginkizun txalogarrietatik be jeurt eragiñik: itxura utsak  
be iñoiz atzera biurtu dau kerizpetan sartu dan piztia. Bildur  
ortatik askatzeko, bada, zergaitik etorri zan esango dautzut,  
eta zer ikusi neban zugaz lenengoz biotz-errikitu nintzanean.  
Ni, ez neke ez poz, dingilizka dagoanen arteko nintzan;  
eta ontan, andera linele ez poz, dingilizka dagozanen arteko nin-  
tzan; eta ontan, andera iirain done<sup>2</sup> batek dei egin eustan, ta  
ni esanera jarri nintzakon berealakoan. Izarrak baizen diz-  
tikor ziran aren begiak, eta mee-leun, aingeru-abotsez, onela  
asi jatan solasean:

—O mantua'r gogo argi! Munduan dirau orañdik zure  
izen-ospeak, bai ta iraungo be arile eta ak zirkin dagian arte-  
giño. Nilc maite dodana ezta zorioneko> txit urduri aurki-  
tzen baita ondar gorri bakarrean, bide erdian doiala izuak  
jota larri bizian; bildur naz, orren bidekatua ibillirik, ze-  
ruan entzun dodanez, beranduegi ete dan laguntza emoteko  
be. Zoaz, ba, bizkor, ta berezko dozun itz-jario ederrez lagun



egíozu izu-korapilloa puskatzen, arí ta riiri poza ekarririk. Zorune dozu bialtzen zaituna; osterá be biurtu gura neukean lekutik nator. Maitasunak naragi, berak itz eragiten daust. Nire Jaunaren aurrera osterá noakenean, zutaz mintzatuko naiako sarri asko, ta zure gorapenetan beti».

Ixillera zan onenbestez, eta nik jardetsi: —O emakume doe bakanez jantzia! Zugaitik guren baita gizakia, inguru kaxkarrenak daukazan goi urdin aren azpian dagozan sorkari guztiak baiño geiago! Oso jat atsegin zure agindua, ta zuk esana betea ba'neu be, luzatu nintzala irudituko litzakidan: ez niri ager-azo areago zer nai dozunik. Baiña, esaídazu nola bildur etzarean, barriro be ítzuli-rnin zarean mugabako leku nasai orrein erpiñetik beera, erdi onen ondoraíño jasten.

—Sakonki jakin naf dozun ezkeró, —erantzun eustan— labur-labur esango dautzut zelan ez dodan leza ontara etorteko bildurrik izan. Iñoren kalterako izan leitekezan gauzak bildur emon bear dauskue; ez, osterá, izukor eztiranak. Jainkoak egiña naz —Ari eskerrak— zuen zoritxarrak ez ikutzeko eran, ezta leza ontako garrak be ezin dagike nigan surik ixio. Zeruan ba-da Andera jator bat, nik bialtzen zaitudan eragozpen aurkakoaz errukitzen dana, ta Jainko zuzenaren epai gogorra gozatzen daustana. Lutzi-gana jo dau onek eskaríka, esanik: «Zure bearrean daukazu adiskide leiala: zure eskuetan izten dot». Eta Lutzi, edozer gaiztakeriren etsai, biotz-ikuturik, ni Errakel<sup>3</sup> antxiñakoaren ondoan ezarrita nengoan Jekura etorri jat. Etá esan daust: —«Zorione, Jainko-gorapen egiázko, zegaitik ez dozu begiratzen, zu onen gartsuki maite izanik, bee biribil arruntetik alderatu zana? Ez al dozu entzuten aren negax-espá erdiragarria? Ez ete dozu ikusten eriosuar, burrukan, ítexasoa bera baizen lazgarri dan uiol onetan?». Ezta munduan iñor joan mesede bat betetera, itzok entzunda ni joan nintzan baiño bizkorrago, ezta arrisku batetik ariñago aldegin be; jatsi nintzan, bai, neure egongu zoriontsutik, zure ítz garbian ustetsu, zu ta bera entzun daben guztien goragarri noski.

Burutapen aneik niri irauli ondoren, bere begi dirdira-tsuak nigandik ítzuli ebazan negar-malkoz, eta *m* oraindik

bizkorrago zure alboratu niaitzu, ak opa ebanez. Mendi zoragarriako biderik laburrena eagozten eutzun piztiagandik gorde zinduzan. Zer dozu, bada? Zergaitik, zergaitik zalan-zan? Zelan da zure biotz ori koldarkeriaren abi? Zergaitik etzara ausartí ta kementsu, zeru-jaurerrian iru emakume onetsi zaintzaille dituzun ezkeru, ta níre agotiko mintzoak ainbateraiño on eskíni?

Loratxoak, izotz-ikutuz makur ta ertsi, eguzkiak argitu orduko buru-tente zabaltzen diran lez, rúre arima auldua be orobat indarbarritu zan; eta arnas andiz. biotza yatan ezkeru, ezetarríko bildur bage, oiuka asi nintzan: —Oi, níri eskua emon daustana bai on! Eta zu, arima ongille, ak esandako egiazko itzak ain laster bete dituzuna! Zeure itzez ondo be ondo azkortu daustazu biotza, ta zuk emon garrez ixioturik, lenengo asmora itzulia nozu. Zoaz, ba, zu aurretik; naí bakarra baita gu bion artean: zu zaitut zuzendari, jaun eta maixu.

Orrela esan neutson; eta tbilten asi zaneko, bide zail oitsuan sartu nintzan.

- (1) Andra María.
- (2) Lut2i donea.
- (3) Errakel, Jakob'en emaztea, otoizlarien bi2ia adierazten dauskuna.

### III KANTUA

Muiña.—*Olerkari biak inpernuko atean. Ango irakitterria.—Su4ezak onil edo enbudu baten antza dau, Dante'ren eretxiz\*—Atartez landa bederatzi bira ditu; oneik, osterá, estuago ta neke-oiñazeak anditzenago.—Ez on ez txar bizi izan ziran areikaz topoz-topo.—Akeront.—Karon'ek ez dau ontzian bizirik gura\ alan be, amor dagi, Jainkoaren aginduz>—Dante lo-zorro.*

«Neuk daroat oiñazezko urira; neuk daroat betiko nekera; neuk daroat osabiderik ez dabenen bizitegira, Zuzentasunak ortaratu eban nire Egille gurena; Jainko-indarrak, jakituri garaiak eta len-maitasunak egin ninduen. Nire aurretik etzan ezer irazanik, betikoa baizen; eta nik beti dirauket. Zuok, ona zatozenok, itxi emen itxarokizun oro».

Itz aLzarotsu oneik ikusi nebazan ate-buruan idatzita, ta nik oiú: —Latza deritxot, Irakasle, itz orrein guna! — Eta ak, zuurra izaki, erantzun eustan: —Bildurra, azken-izpiraiño eratzi bear dozu emen, koldarkeriari osoan agur egiñik. Len be esana dautzut: goiko ona galdu dabena gaixo errukarriak dagozan lekura eldu gara. Eta, gero, bere eskua nireaz alkatuturik, betarte alai —adore emoilie nitako—, gauza ezkutueta sartu ninduan.

Izar bageko egurats atan asperen, zinkurin eta ulu ozenak entzuten ziran; eta nik, sartu-ala, malkoz neukazan begiak. Autu erarik asko, birao izugarri, itz samin, asarre-aiuska, mintzo gordin eta txalo-zartada bizi, iskanbil ezin-esana sortzen eben, zokoz-zoko, bira ta bira ebiltzala, beti goibel illun aretan zear, ondar-zirimolak eragiña bailitzan nunbait.

Eta nik, burua ikusi lazgarriz astun, esan neutson: —Zer dantzut, Irakasle? Nortzuk dozuz neke-lorpean dagozan oneik? Eta ak niri: —Era larri onetan samintzen dirn, ez irain ez gorapen bizi izan ziranen arima çalxoak. Oneik aingeru-talde iguingarri aregaz naste dagoz, au da, ez Jainkoaren aurka jagi, ez Aren alde jokatu, euren egon erosoan dagozanakaz batean. Zeruak beregandik erauzten ditu, eder naiko ez diralako; leza-barrenak ez dau2 gura, ortik errudunai zelanbaiteko aintza lertorkielako.

Gaiñeratu neutson nik oindiño: —Irakasle, zetariko oiñaze gordiñek neke-erazten ditu onen eiagora andiz?—. Erantzun eustan: —Itz bitan esango dautzut. Oneik ez dabe uste ilgo diranik, eta, itsu ta erukarri bizi diralako, enparauen zoria damuz begiratzen dabe. Lurbirak ez dau arein oroitzapen-izpirilc; errukiak eta zuzenak berenez muker nar-datzen ditu. Ez daiguzan geiago aitatu, so ta aurrera baiño.

Bitartean nik, begi-zoli, ikurrin bat ikuskatu neban aize-tan arat-onat zakarki, itxuraz atsedeen oro aizatzen ebana; gizatalde ikaragarria ekarren atzetik, eta egundo ez neban nik uste eriotzak ainbeste zuzitu legikeanik. Batzuk ezagutu nebazan ezker, begiak geldiroago zorrozturik, txaldan-zurrean berea itxi ebanaren itzala ikusmeneratu jatan. Beingoan uJertu neban, ziurrik asko, talde au zala bai Jainkoaren begi aurrean, bai ta euren arerio aurrean be, naskagarri biur ziran zorigaiztoko areitakoena. Egundo be egiaz bizi etziran adubageko areik bilosik egozan, eta aspertu barik sistaka eukezan bertako euli ta usterle ugariak; oneik ataratako odola, barriz, arpegi-beera etorkien eta, euren malkoz nasi, oifietaraiño eltzean, ar iguingarriak batzen eutsoen.

Onenbestez, urrunago begiraturik, or arima barriak ibai andi baten ertzean. Orduan nik: —Maixu, erakustazu, otoi, zergaitik nai daben orreik ibaia ain laster igaro, argi zurbil tartetik dakustanez—. Eta ak<sup>l</sup> niri: —Bai, azalduko dautzut, baiña Akeronte'ko ur-egal baltzean oifiak jar-terakoan.

Orduan, lotsor ta begi-makur, galdezka gogait eragingo neutsolakoan, ez neutson geiago tautik miurtu edo esan, arik eta ibaira eldu arte. Ta arako atan, agure buru-soil bat ikusi gendun, ontziska baten geugana etorten, oiuka: —Zuon zorigaiztoa, arima dongak! ez uste izan, bein ez bein, zerurik ikusiko dozuenik! Zuok beste egalera eroaten nator, betiko ilunpera, su ta izotz artera. Eta zu, orrela bizi emen zagozan gogo, alde egizu ilda dagozanen artetik—. Baiña nik ez nebala zirkinik egiten ikusiaz, arek diñost: —Beste bidetik, beste kai-aidetik elduko zara ondartzara. Emetik etzara igaroko: zu eroateko, ontzi ariña-goa bear baita.

Nire gidariak jardetsi eutson: —Karon, etzaitte sumindu. Nai dan guztia al dan tokian onelaxe erabagia da-ta, ez egizu geiago itandu—. Orduan zingira ubeletako ontzizaifaren matrail uletsuak baretu ziran, begi bitartean sugarrezko inguruak aukazanak aurki. Baiña arima areik, bilois ta abailduak, itz lazgarri oneik entzutean, kolorea be

aldatu ta agin-ortz-karraska asi ziran. Jainkoaz ta euren gu-rasoetaz, gizadiaz, sorleku ta egunaz, euren seme ta ondo-rengoz birau egien. Gero, guztiak nasi, negar-zotínka, Jainkoaren bildur ez dan edonoren zain dagon ertz madarika-turantz joiazan. Karon txerrenak, su-txiñarrezko begiz, danak sar-azten ditu aginduzko kiñuz, atzera geratzen dJranai arraun-muturrez erasorik. Uda-goienez orriak oro banan-banan jausi oi diranez, adar guztiak euren ondakiñak lurrari erantzirik ikusteraifio, Adan'en enda gaitzetsia be, orobat, banan-banan, txori erakarriaren antzera egotzi ziran ur-ertzetik. Taiu onetan joiazan ur baltzean zear urriñeratuz; ta andikaldeko ertzean areik oiñak jarri orduko, aldra andia egoan barriro be emengo alderdian batuta zain.

—Emen seme, esan eustan txit samur Irakasleak, Jainkoaren asarrean ilten diranak ememxe batzen dira errialde guztietatik; eta leiaka igaro nai dabe ibaia, Jainko zuzenak zirikatzen bait-ditu, bildurra gurari biurtzeraiño. Emendik ez da sekula be arima oruk igaroten; beraz, Karon'ek nardatzen ba'zaitu be, ba-dakizu oraingo ontan aren itzen esangurea.

Solas au amaitu ebanekoxe, zabaldu goibela zakar ifarro-si zan; ta nik orduan asmatu neban izu-laborriak, oindiño be, izerdiz beteten daust bekokia. Negar-lur atatik oineztu gorriskak sortu ebazan aizea atera zan, ni konorte bage, loak goi-azpiratutako gizon baten gisan lurrera egotzirik.

(1) Karonte, mítuzko untzilaria, arima gaitzetsiak eroaten zituna.

#### IV KANTUA

Miuffá.—*Ilen ibaia igaro ía gero, Dante esnatu. Su-lezako len-birara jasten da, ols, Linbura.—An aurkitzen di-ta ugutza artu bagarik il ziranen arima errubageak.—Arun-*

*tzago, gudari azkar, olerkari ta jakintsuak bizi dira zelai ezoetan, Kristo'gan siñistu ez ebenak.*

Bat-batean, burua dardar jarri eustan trumoi burrunbatsuak iñarrosi eban nire lo astuna, ta indarrez jasotako gizonaren antzera iratzartu nintzn. Zutik jarri ta soa ingurura zorrozturik, begiak kakotu nai izan nebazan, nun nengoan jakin-min. Ibar ilunaren aurrekaldean aurkitzen nintzan, egiazkí, oiú bizi amaibakoz ots dagian oiñaze-leza egalean. Txit ilun, sakon ta laiñotsua zan, eta aren ondarra arakatu nairik begiratua zorroztu neban, baiña alperrik, ez bait-neban ezertxo be banandu al izan.

—Orain jatsi gáitezán ludi itsura —asi jatan Olerkaria, arpegi-ubel—, Neu noake aurretik, eta zu gero—. Eta nik. aren betarte laru bízia ikusiaz, erantzun neutson: —Zelan noake ni aurrera, zu, ezpai ta kezka oro aizatzen daustazun ori be, izu-ikara ba'zakustaz?—. Eta ak niri: —Nire betarte-margoak darakusana ezta bildurra, zuk alan uste arren, or bean intzirika dagozan zori gaiztokoenganako errukia baiño. Goazan bein, bide luzeak ori deskagu-ta—. Besteko barik sartu zan, eta beragaz sar-erazo nindun ni be, osin baltza inguratzen dauan lenengo biran.

Emen, nabari izan nauanez, etzan ulu-garrasirik entzuten, baiño bai egurats betikoa dardarazten eben asperen soilak; oiñaze bageko atsekabez egozan oneik, konta-ezin alako taldea, aur, emakume, gizon. Irakasle onak niri: —Ez daustazu itanduten begi aurrean daukazuzan gogo oneik nortzuk diranik? Jakin egizu, bada, aurrera baiño len, ez ebela oneik obenik egin; eta irabazi ta meritu batzuen jabe izan arren, ez naikoa nunbait, bateo-urik arru ez ebelako, ta au bai da, zure siñestez, Fedeko ate. Kristautasuna baiño lenago bizi izan ziralako, ez eben bear lez Jainkoa gurtu ta jauretsi: neu be onein arteko nozu. Uts origaitik, eta ez beste erruz, gaiztetsiak gara, ta itxarokizun bageko leiaz bizitea dozu gure nekea.

Au entzuckeran, min itzalak larritn eustan biotza; oar nintzanez, an egozan, ba, Linbu aretan dingilizka, omen

ta balio andiko arimak. —Esaidazu, ene maixu, esaidazu, ene jaun —jardetsi neutson nik, oker oro azpiratu oi dauan arako slñestean sendotzearren—; iñoiz urten da bateren bat emetik, bere irabaziz naiz besterenez, gero zoriontsu izateko?—. Eta ak, nire itz estaliak ulert-antz, erantzun eustan: —Toki onetara eldu-barri nintzan ni, Izaki altsu<sup>x</sup> bat, garaitz-abarrez burestundua, ona etorten ikusi nebanean. Emendik aterazo ebazan len-aitaren itzala, aren seme Abelen, ta Noerena; Mois legelari ta esanekoarena, Abraan erkabarena ta Dabid erregearena; Israel, bere aita ta semeakin, eta arek ainbat lagundu eutson ErrakePena; baita beste zeinbatenak be, guztiei betiko atsedena emonik. Arein aurretik, jakin egizu, etzan giza-gogorik gaizkatzen.

Era onetan, alkerregaz autu-mautu, ba-genbiltzan oian nasi zear, alan esan, gogo-talde zarratuzkoan zear. Ez gengoan oindiño trumoia entzun neban lekutik urrin, eta ona dirdira bizia ilunpe-kolkoan garaile. Au ta guzti be, oraindik urruti samar egon arren, naiko argi nekusan toki aretan bizi ziranak eukien omen-dedua.

—O zu, jakintza ta erti oro duintzen dozuzana! Norzuk doguz oneik, euren irabaziz antza, besteakandik banaz bizi izatea merezi daben oneik?—. Eta arek jardetsi eustan: —Zu bizi zarean munduan ba-dirau oindiño be onein tzen bikaiñak, eta bere esker joriaren zordun diralako, onela bereizten ditu zeruak—. Bitartean, au zirauan abotsa entzun neban: «Gorets egizue Olerkari garaia; ona aren geriza, gugandik aldendu zana». Abotsa ixildu zanean, geuregana urbilduz etozan lau itzal andi ikusi nebazan: aren betartea, ez itun ez poz.

Maixu ona onela asi jatan esaten: —Begira, ezpata eskuan, beste iruren zerbitzari lez, aurretik datorrena; Omer dozu ori, olerkari<sup>2</sup> gailena; jarrai yatorkona Orati dozu, zirilaria; Obidi da irugarrena, ta Lukan, atzena. Bakotxak merezi dau, nik añean, len ao batez esan daben izena; omena damoste ta ondo dagie—. Era onetan ikusi neban

eresí nagusiaren jabe azkarra, ikasgu bikaiñak inguratua, danen gaiñez arrano antzera egan.

Pizka baten alkarrekiko autuan jardun ondoren, nigana biurtu zan a, nire maixuari irriparra ezpaneratu eutson agur txeratsua egiñik. Eta, azkenez, —au aintza niretzat!— oso adeitsu euren lagungoko artu ta jakintsu guren arein arteko seigarren jarri ninduen. Orrela, urrats-labur, argia nabari zan lekuruntz giñoazen, ordun itzegitea on zan lez, gaur íxiltzea oba dogun gauza askotnz solasean.

Gaztelu garai baten oiñera iritxi giñan; au, ostera, zazpi biran arresi goí-goituz inguratua ta baranoan errekarro lerdan bategaz aldeztua egoan. Erreka onen gaiñetik lur tinkoz lez igaro gintzazan, lagungo bikain aregaz zazpi ate ibili ta zelai orlégi ezera eldurik. Gizon so nagi astunezkoak egozan an, arpegitik aginpide andia erioenak: astiro ta aopeka itz egien.

Gero, zelaiko egal baten egokitu giñean, lau jagi argitsuan, an bizi ziran arima guztiak ikusi gengikezan lekuan. An, orlegi ezean zut, ikusi neban Elektra, lagun askogaz, ta onein artean Ektor ta Enea; Kaisar be baí, izkilotua, egazti arrapakiaren begiakaz. Bestekaldean Kamile ta Pentesile ikusi nitun, eta Latitar erregea, Labiñe bere alabaren auzoan ezarria. An zan Bruto be, Tarkin Erroma'tik bota ebana; bai ta Lukrezi, Jule, Martze ta Kornele be; ta Saladin, zoko baten bakarrlk. Begiak zolitu are geiago ta jakintsuen maixua<sup>3</sup> ikusi neban, jakintza-sendiaren erdian jazarria. Danak daukaz ingurumari, so ta dedu. An ikusi nirun Sokarte ta Platon, maixu aregandik besteak, baiño urrago egozanak; Demokrit, ludia alan-bearrez egiña da Ia diñoana; Diogene, Anaxagora, ta Tale, Enpedokel, Eraikli ta Zenon. An ikusi nebazan bai ta Dioskoride, gaitasunaren begiratzaille bikaiña; Orpeu, Tuli ta Seneka oituzaz; Euklide daneurtizlaria, Tolomeu, Ipokrate, Abjzena, Galen ta Averro, iruzkin andia egin ebana.

Baiña ezin nengikez danak emen aipatu, esku arteko gai luzeak bai narakar; eta, gaiñera, itzak labur izan oi di-



ra sarritan ikusia azaltzeko. Laster, damurik, <sup>^</sup>ei laguneko taldea bitan zatitu zan. Nire bideerakusle azkarrak, beste bide batez, atsedean atatik aize dardaratira eroan nindun, argi-izpirik be ez dan zabalunera eldurik.

- (1) Jesukristo.
- (2) Homero.
- (3) Aristotele.

## V KANTUA

Muifía.—*Bigarren obo edo bira, lizunkoiena.—Arat-onat dabilta eten barik, alderrai lez, aizeak eraginda.—Mino arimen epaikari.—Dante'k Rimini'ko Pantzeske ta onen maitale Paul aurkitzen ditu.—Onein edesti zorigaizto-koa\ Dante, ezin entzunik, lurrera jausten da, zorabioak artuta.*

Orrela jatsi nintzan leenengo biratik bigarrenean; tokiz medarrago dozu au, oifíazez baiña latzago, garrasi erdiragarriz betea. An egoan Mino \* maketsa, ortz-karraska; sarreran aztertzen ditu erruak, ebatzi ta dantzunez epaia ezarten. Au da, arima gaizto bat aurrera doakionean, erru guztiak autortzen dautsoz, ta oben-ezagule arek ikusten dau bakotxari zein toki dagokion sulezan, eta ara bialtzen ditu, bakotxari joan bear dauan inguruko maila buztan-oboaz iragarririk.

Asko dira, beti be. aren aurrean ikusten diranak; epaizain dagoz txandaka; mintzo ta entzun. ta ondoren osiñera.

—Oi zu, min-ostatu ontara zatozan ori!—otsegin eustan Mino'k, ni ikustean, bere arazoa etenik—. Begira gero zelan sartzen zarean, eta norengan uste izanik; etzaizala, arren, sarbide nasaiak itzali! — Eta ntire zuzendariak ari:

—Zergaitik deadar ort? Ez egiozu bide galazo, aduak orre la nai dau ta; bai, nai dana al dan tokian orrela erabagi dabe, ta ez egidazu besterik itandu.

Gero negar-otsa sumatzen asi nintzan oso sarkor; eta, pizkaka, garrasi biziak txunditu ninduen lekuraiño eldu nintzan. Argi guztiz uts zan tokiratua nengoan, itxaso elcaiztuan lez aizeak alkar jorik orru egien tokian nunbait. Leza-zirimolak, zakar ta iñoiz gelditzeke, biurrian darabiltz arimak; bira etenbagean, iñarrosi ta erauzten ditu, inguraten dituan esi jauskorraren buruz-buru idoro arte guztian; ta ara eltzerakoan, arein deadar, negar-marraska ta Jainko-alaren aurkako aiñenak sumin bizi biurtzen dira. An entzun nebanez, olako neke-lorretan tgozanak pekatari aragikoiak ziran, enren adín-argia lizun-griñapean jarri ebenak aurki.

Eta zozabarrak, otz-aroan, talde andi ta nasian egaz dabilzan lez, zirimol arek be gogo gaiztetsiak, ara ta ona, gora ta bera, eraso aspergarrian darabiltz, egundo be ez atsedenic ez oiñaze-arintzerik izango daben itxatokizun barik. Ta itxasantzarrak, aidean lerro andika, eurekto lelo-kantari doazen antzeta, bardintsu ikusi nebazan nik, ulu-jaurtika, uiol arek eroiazan itzalak be.

Augaitik nik itaun: —Irakasle, zeintzuk dira arima areik, aize baltzak aín gordin zigortzen dabeznnak?—. Eta arek niri: —Beratzaz zerbait jakin nai dozun lenengo ori, izkuntz askoren agintari zana dozu. Loikerira txit joa zalako, atsegin dakarren edozer ont2at emon eban bere legeetan^ onela bera bizi zan zitalkeria estali egian. Semiramis dozu, diñoenez Nino'ri jarrai eutsona, ta onen emazte, ta gaur Sultan'ek daukan lurraldean agindu ebana. Bestea<sup>2</sup>, barriz, bere burua maitez il ta Sikeu'ren errautsai agindutakoa ausi ebana. Kleopatra likitsa dator ondoren. Ikusi an Elene be, ainbat eta ainbat gaitz-iletan ama; bai ta ikusi Akileu andia, maitasunak azkenez burrukara eroan ebana. Ikusi Paris, ta Tristan—. Eta eundaka ta eundaka erakutsi eustazan, eta atzamarrez izentau, maitasunak bizitza onetatik eroan ebazanak.

Gero, nik neure maixuari antxiñako andra ta zaldunak izentatzen entzun neutsozanean, errukiak jo nindun, sarrakioaren mende. Ta asi nintzakon jaulkiz: —Olerkari, gogo bi areikin pozik itz egingo neuke, alkarregaz ta besteak baiño bizkorrago antza, aize-egoz doazen areikin—. Eta arek au erantzun eustan: —Itxaron, urrago datozela, ta eskatu gero daroazan maitasunarren, eta urreratuko yatzuz—. Aizealc guregana bultz-eragin eutsienekoxe, abotsa jasorik esan neutsen: —Oi arima oiñazetuak! , zatoze gugaz itz egitera, iñok galazo ezik beintzat—. Iski bardiñak jota, egozabal ta ermo, uso bilc, aide-zear guztizko gogara, euren abi gozora egaz dagien lez, arima bi areik be, neure dei txeratsuari erantzuki, Dido egoan aldratik urten ta egurats nasagarri zear guregana zuzendu ziran.

—Oi izaki biotz-zabal ta onbera, egurats baltzizka zear, mundua odolez gorritu gendunok ikertzen zatoran ori! Lurbirako Erregea geure adiskide ba'gendu, bakea eskatuko geunskio zuretzat, gure oiñaze latz-gordiiñez erruki zarean ezker. Eder jatzuna entzun nai esan, guk gogoz esan nai entzungo dautzugu, aizeak orain baizen mee dirauño. Ni jaio nintzan lurra<sup>3</sup>, Po ibaia gaiñerako erreka guztiakin itxasadarrera atsedan bila doan tokian aurkitzen da. Biotz leialen jaube bertatik egin oi dan Maitasuna, geror ebatsi eustien gorputz lerdengaz be zaletu zan, eta oraindik be mingarri jat au. Maitasunak egin eban —maitatuari maitatzera bultz bai daragio— ni maitalearanako atsegin-mozkorrean ain bi-ziro amiltzea, ta oindiño be, dakusunez, ez nau saiets laga. Maitasunak eroan ginduzan eriotz bardiñera: Kain, bizia kendu euskunaren zain dago—. Onetxek izan ziran ariraa bi areik emondako itzak.

Itzal samindu arei entzutean, burua makurtu neban, luzaro olan iraunik; eta, azkenez, Olerkariak esan eustan: —Zer gogoeta darabilzu?—. Ai! zoritxarrekoak— otsegin neban erantzunaz—. Zenbat gogai ezтик, zelako nailcunek erakar ebezan oneik samintegi ontara. Gero, areikana zuzendu nintzan esanaz: —Pantzeske, zure barren-oiñazeak malkotan jartren nabe, goibel baizen errukior. Baiña esaida-

zu: intzíra gozoaldian, zelan eta zergaitik maitasunak eza-  
gun-azo eutzuezan barru-leia ezkutuak?—. Eta arek niri:  
—Ez dogu, antza, oiñaze biziagorik gaitz larrian, zorion-al-  
dia gogoratzea baiño; au badaki zure maixuak. Baiña gure  
maitasunaren len-susterra jakitea onenbestean opa ba'dozu,  
esango dautzut itzak malkoz nasi. Irakurten gengoan gu  
egun batean, aldi-aspertuz, maitasunak zelan atzemon eban  
Lanzarote; bakarrik giñan an ta etzan ezetariko susmorik.  
Irakur-aldi arek sarri batu ebazan gure begiak, bai ta gure  
arpegiak gorritu be; baiña ango irakur-une soilak gurea  
erabagi eban. Laztanaren irribar leiatua maitalearen mosuak  
eten ebalá irakurtean, nigandik iñoiz be bananduko ez dan  
onek aoan mun egin eustan, ilcara bizi. Liburua ta a ida-  
tzi ebana Galeot izan ziran guretako; egun aretan ez gen-  
duan geiago irakurri.

Arima baták au erausalarík, besteak negarrari ekion oso  
saminkiz; ta ni, arein errukiz, il-zoriraiño indargeturik. lu-  
rrera jausi nintzan, gorpu ila jausi oi danez,

(1) Mino, Kreta'ko erregea, epaikari zorrotz gordifia.

(2) Dido, Kartago irasi ebana, iñoiz etzala geiago ezkonduko  
itza bere senar SiketAi emon eutsona.

(3) Ravena.

## VI KANTUA

Muiña.—*Olerkaria, seneraturik, irugarren obo saloberen  
zigor-tokian aurkitzen da.—Aterrik ez dauan euri mende  
dagoz, ta lokatz-arteá dabe obi\ Kerber iru burudun txak-  
kurrak miazkatzen dauz, atsedén barik.—Irunsle ta salo  
onein artean Ciaccio daurki Dante'k; Plorentzi'ko baiezta  
ta ikus-eziñak.—Azkenez, laugarren birara jasten.*

Itunaren indarrez oso Jarritu ninduen ezkon neba-arreba bien errukiz galdutako senera, barriren barri biurtu nintzanean, atsekabe ta atselcabetu barriak dakustaz nainun, zein ara zein ona jo, naiz so. Irugarren biran nengoan, euri betikor, madarikatu, otz ta nasizkoan: beti mara-mara ta indar bardiñez bai daragoio. Inñetasi zarratu, indriska, ur loi ta edurra dator bota-alean, goi zurbilletik; eta atsa darío Ioi-erauntsi ori artu daroaji lurrari. Kerber<sup>1</sup>, pizti anker bakana, an murgil sarturik dagozanei zaunka dabil bere iru baltz ta nasia; sabela, eskerga, ta eskuak, atz-oskolez beterik; oneikaz oratuta, urratu ta sakailtzen dauz gogoak. Txakurrak bailitzan alarauka jarten ditu euriak; gaitzetsi egal, geratu bako jirabira azkengean.

Kerber, narrasti andiak, gu ikusiaz bat, agoa zabaldu ta agin-ortzak erakutsi euskuzan, bere atzbegi guztiak dar daratzen ebazaJa. Nire biderakusleak, eskuak edatu ta beetik lurra arturik, patari gosetiari autzetara bota eutson eskukada bat. Eta, amorru bízi, zaunka diarduan txakurra bein janaria oratu ezkeru, axe zaindu ta irunsten arazoturik beingoan baretzen dan lez, alan egin eben, gor izan naiago Jeukeen arimak gisa artan zorabiatzen dabezan, Kerber gaizkiñaren ago izugarri. areik be.

Euri-jasa lazgarriak ingatu ta zapaltzen ebazan itaaletan zear ibilli giñan, geure oiñak arein soin uLsal gizon-itxurazkoen gain jarririk. Zelaian zetzazan, nasi ta itzulipurdilca guztiak, gu aurretik igaroz ikustean jagi ta arae baten jezari zana izan ezik. —Oí zu, suleza ontatik zabil-tzan ori! —esan eustan—. Ezagun naizu, konruratzen baldin ba'zara; ni ezera baiño len, zu egifía bai zintzan—. Eta nik ari: —Nabari dozun larriak, ausaz, urrintzen zaitu ene gormutamenetik, eta etzaitudala iñoiz be ilcüst iduri jat. Baiña esaidazu nor zaitudan, olako naigabe mende toki ain oiñazetsuan zagozan ori nor zaezan; lor andiagorik ba'da be, iguingarriagorik ez baita ziurrik asko.

Eta erantzun eustan: —Zeure uriak<sup>2</sup>, gaur inñartsiz ta gorrotoz gaiñez egiñik, beregan atotsi nindun bizialdi nasaia-

goan. Zuok, ango errikideok, Ciacco deitzen ninduzuen. Jan-edan larregizko pekatu kaltekorragaitik, gaur eurí-zigorpean nakusazu abaildua. Eta ni, arima zurbil, ez nago bakarrik; beste guzti onek be, gaitz ber-beragaitik, neke-oiñaze bar-diñean dagoz. Ez eban tautik geiago urratu.

Nik, barriz, jardetsi neutson: —Ciacco, mingarri jat zure oiñaze ori, negar eragiteraiño alan be; baiña, esaidazu, jakin ba'dakizu beintzat, noragiño elduko diran uriko biztanle bananduak; bai ta esaidazu, an zintzorik gelditzen baldin ba'da, uria zergaitik eraso daroan ainbesteko Uskar ta eretxi-aurkakok.

—Jardun ta eztabaida luze ostean —arek niri—, odola be ixuriko dabe, ta alderdi basatiak eratziko dau bestea, ondamendi ikaragarriz. Ondoren, iru eguzkialdi igarotakoan, egoki izango da noski au be jausi dadín, eta azpiratua gaillendu, orain goratu daroanaren laguntza bidez. Alderdi onek luzaro, arro ta zut erakutsiko dau bere bekokia, bestea txit astun, naiz-ta negar egin ta lotsagarri izan, buzta-rripe erabillirik. Oindiño ba-dira zintzo bi, ta ez dautse iñok entzun oi; arrokeri, bekaizkeri ta zekenkeri iru txingar dituzu biotzak su-ixiotzen dabezanak—. Onela amaitu eban illeta malkotsua.

Eta nik ari: —Oraindik, arren, autuari areago ekiñik, jalcin-erazo ta argi nagizu. Farinata ta Tegghiaio, ain duin izanak; Jakob Rusticucci, Arrigo, Moska ta on egiterren iñolaz be saiatu ziran besteak, esaidazu nun dagozan, eza-gun-azo eidazuz; isi biziak lauskit2en bai nau, zeruak poz-tu ala inpernuak rniñerazten dauzan jakin-naiean—•. Arima baltz gaiztoen arteko dozuz —erantzun eustan—; aitz bana-ko ta alditakoak barren-ondoraiño murgilduta dauka2. Aragi-ño jatsi ba'zaiz, antxe dakuskezuz. Baiña blzi leunean zago-kezanean, besteeri be gogorazo nire oroitzapena, otoi. Ez dautzut onezkero, ez esan ez erantzungo arean—.

Alboratu ebazan, orduan, ararte geldi eukitako begiak; pizka batean niri begiratu ta, burua makurturik, taiua orre-tan jausi zan enparau itsuen artera. Eta gidariak niri:

—Onezkero ez da jagiko geiago, aingeruaren turut-soifíua entzun eta obenaren etsai-indarra datorken arte guztian: bakotxak bir-ikusiko dau orduan bere obi ituna, bakotxak lengo aragi ta itxura bir-artuko dauz, ta azkenik betiraun osoan durunduka dagokena entzungo—.

Otrela igaro gendun, asti-astuo, itzal ta eurt nasketa satsua, etorkizun dan biziari zerbait gogo-emonik. Ortan nik erausi: —Maixu, oiñaze oneik geitu egingo al dira epai andi ostean, gitxiago dirakez ala erabat neketsu jarraituko dabe?—. Ta arek jardetsi: —Jo zeure jakitera, gauzea osoago ta atsegin naiz neke obeto nabaritzen dala díñauskuna noski. Enda gaiztetsi au, naiz-ta egiazko osotasunera sekula eldu ez, epai ostean orain baiño osoago izateko ustez dagokízu.

Itzul-bira osoa egin genduan estarta atatik zear, emen ez díñodazan beste gauza askoretaz autuan. Beeruntz aritzen dan bitarteraiño eldu gintzan, azkenean; an idoro gendun Pluto,<sup>3</sup> arerio itzal.

- (1) Kerber, Íniernua zaintzen dauan txakuna.
- (2) Bakzak eta zuriak eritxen alderdiak luzaro ondatu eben
- (3) Pluto, ondasunen jainkoa.

## VII KANTUA

Muiña.—*Laugarren bira, ondatzaile ta esku-eutsiak dagozana.—Betiraun guztian alkar joka bizi bearra.—Eskualdiaren iduri makarra.—Estigi-zingira.—Bergili ta Dante bosgarren obora.*

«Papé satan, papé Satan alepp!»<sup>1</sup>, esaka asi zan Pluto, abots zakarrean. Eta guztia dakian jakintsu maitagarriak, ni bizkortzearren antza, esan eustan: —Etzaizala gero

izuak kezka. Orrek, bada, indartsu dan arren, ez dauku galazoko inguru ontara jastea—. Ondorren, arpegi itxura bako aregana bíurturik, onako au bota eutson: —Ago ixilik, otso<sup>2</sup> gáíztetsi; aitu adi eure kautako erremiñean! Zeozegaitik gayatozak leza sakonera; órrela gura bai dabe an goian, Mikel arroputzezko matxiñadaz aspertu zan lekuan—. Masta ausiezgero, aizeak puztu oialak nastean jausi oi diran lez, olantxe lurrera eratxi zan pízti ankerra be. Ta orduan jatsi gintzazan laugarren obira, ludiko gaitzoro iruntsi daroan ur-ertz oiñazetuan barrurago sarturik,

—Ai, Jainkoaren zuzena! Nok bestelan moltzotu daikez, ak ezik, nik ikusi neban aiña oiñaze ta atsekabe barri? Ta zergaitik gaitue gure erruak orrela zapal-austuten? Karibdis<sup>3</sup> arkaitz gaiñez alkar jota olatuak zatitzen díran antzera, arima galduak emen be alkar zuzitu daroe. Iñoizkorik lagun-aldra andiena ikusi neban berton; alderdi batelcoak eta bestekoak, irrintzi íkaragarriz uluka ebiltzan, aztakin edo pixu astunak euren bularrez eutsirik. AUkarri zirti-zartako galantak emonda gero, atzera biurtzen zan bakotxa, garrasika: —«Zergaitik gorde?» ta «Zergaitik ondatu?»—. Orrela joiazan alde batetik bestera birako, inguru zurbil aretan zear, ozenki deadaturik euren lelo iguinkorra; gero, bakotxa bira-erdira eldukeran, danak batera itzultzen ziran, barriro be irain-txilioka asirik.

Eta nik, biotza errukiak jota neukan onek, onela ots: —Ene maixu, erakustazu, arren, zer ozte-taiu dogun au, ta gure ezkeretara dagozan burumotz guztiok eleiz-gizon genduzan—. Eta niri ak: —Guztiok izan yatzuzan oso adin-kamuts euren len-bizialdian, eta ez eutzuen eralketa bat bera be bearrezko neurriz egin. Argiro diñosku, ostezko erruak banatuten ditun birako ertz bietara eltzean, garrasika diñoen deadar arek. Buru-as dagozan oneik eleiz-gizon, aita santu ta janzkordidun dituzu, zikoizkeriak mende euki ebazanak—. Eta nik: —Irakasle, onein artean arako likitsak loitu ebazanak, batzuen batzuk nik ezagutu neinkez ziurrik asko—. Ta egotzi eustan ak: —Alperriko gogapena zuk berotzen dozuna: naskagarri egin ebazan bi-



zi satsuak, zurbil ta ezezagun dagiz orain. Alkar joka dalcus-keguz betiraun osoz: oneik ikubil-itxi obitik urtengo, ta areik buru-motz. Txarto eralgi ta txarto gorde ebelako, ludi ederra galdua dabe, ta burruka ontan jarriak: au zelan dan zuri azaltzeko, ez nabilke itz geiagoren bila. Or ikusi zeinkez, ene: seme, Eskualdiari baituran ipiñitako ondasunen iraute laburra, gizasemeak onenbeste saiatzan diranena noski. Ilargipean dagoan eta egoan urre guztiak aríma atsekabe oneitako bateri be ezin dagikeoe atsedan izpirik ekarri.

—Maixu, esan neutson nik, esaidazu oñdiño aitatzen daustazun .Eskualdi ori zer dan, ots, munduko ondasunak orren estu beso artean daukazan ori—. Ta arek níri: —Oí, gizaki zoroak! Zelako ezjakiñak zaukiezan lauso! Zeuretu egizu, arren, orain diñotzudan au. Jakituriz oro gailendu daroan Arek, zeruak irazan eta onei nok zuzendu emon eutsen, eta orrela alderdi orok alderdi oro istatzen dau, argia bardin ta eratsu banandurik. Munduko dizdiz argiai erabat zuzendari ta artezlari bat jarri eutsen, aldiz-urren ondasun utsalak aberri batetik bestera ta sendi batetik bestera aldatu egizan, giza-zurtasun ta senez gaiñetik; eta ona zergaitik aberri bat goi-goi dakusgularik, bestea erkinduz doian, bedartzan sugea lez ezkutu datzan naimenari eder dagokionez. Zure jakiteak ezin legio ari buru emon: onek aurrez ikusi, ebatzi ta jarraitzen dau bere aginpidean, beste jainkoak eurenean lez. Aren aldaketak ez dabe atsedetik: beartasunak ariña ezarten dautso; orrela dakusgu munduan ain aldakuntza ugari. Ta auxe da, izan be, goratu bear leukienak eurak, zio barik marmarrez ta biraoka, sari gurutzean ipiñia. Bera, baiña, zoritsu da, ta eztau olakorik entzuten: leenengo izakien artean pozik, bere borobila bete ta atsegintsu datza. Jatsi gaitezán orain neke andiagoetara^ beruntz doiaz, ba, onezkero bidean jarri giñanean jagi ziran izar guztiak, eta lar luzatzea debekauta daukagu.

Igaro gendun ingurua, bestaideko ertzeraíño; iturri bat dago emen, bolbolka, ta andilc sorturiko erretenez itzuli

doa. Ura, urdiña ez baiña, baltza zan areago; ta gu, uin arreak lagun, bide bakan batean sartu gintzazan. Errekazto baltz arek, ondartzaz arre atsituen oiñera jastean, Estigi deritxon zingira dagi. Ta nik, adi-adi begira nengoalarik, lagun loituak ikusi nitun arigo lokatzartean, danak narrutsik, betondo suminkorraz: Alkarjoten eben, ta ez eskuz bakarrik, buruz ta bularrez ta zankoz be bai, agiñakaz aragi-zatiak urraturik.

Nire irakasle onak oiú: —Begira, seme., asarxeak menperatu ebazanen arimak. Bai. ta jakin egizu —gogo baitot<sup>^</sup>, urpean ba-dirala arimalc euren intziriakaz gaiñekaldea irakiten jarten dabenak, begiak noranai biurtu dirautzuenetz. Lupetz-erdokan sartuta, au diño: —Betilun egon giñean eguzkiak poztuten dauan egurats leunean, ke-arnas ugerra bai geroan barrenean kirats; eta emen be ilun bizi gara idoi baltzean—. Ileta au jotzen eben eztarri-barrena gargaratuz, ezin baitabe itz osorik oguzi.

Gisa onetan, ustai andia marratu gendun, ondartzaz legor ta ur-ertzez, basaz ok egindakoeri begira, putzu atsítu aren ingurumari ibilirik. Torre baten oiñera eldu giñean, atzenez.

(1) Deabruen izkunt<sup>2</sup>-mordoillo ulert-eziña.

(2) Otsoa. zikoizkeriaren ikur.

(3) Mesiha'ko hxas-2Int<sup>2</sup>urra. Joniko ta Tirreno'lco urak alkar jotzen daben lekua.

## VIII KANTUA

Muñña.—*Bosgarren bira, asarrekorrrena.—Vlegi'ren ontzian igaroten dabe Olerkari biak Estigi-ztngira.—Dite uria.—Txerrenak, Bergili sor ela lor itxirik, uri atako atek izten dautsiez.*

Oindiño jarraturik, diñot, gu torre garai aren oiñetara eldu baiño askoz lenagotik, gure begiak gailurreraíño jaso

ziran, an ikuskatu genduzan argi bik erakarita; beste irugarren batek, ostera, oso urriñetik, arei biai guk doi-doi be-reiztu al geinkean eran erantzuten eutsen. Eta nik, jakin-itxaso yatan maixuagana biurturik, au esan neutson: —Zer diñoe argi orreik? Zer darantzutse arek besteak? Eta nor-tzuk dira zantzu areik dagiezanak?—. Eta arek niri: —Ur zikin orrein gaiñez igarri zeinke jazotekoa, zingirako lu-rrun-jarioak ezkutatu ezik.

Ez dau gezi batek iñoiz, ustaitik urtenda, aize zear egin, nik urez geugana etorten ikusi neban batel txikiak baizen azkar; arraunlari batek ekarren bere mende, garrasika iñoa-larik: —Eldu az bein, arima doilor!—. Eta nire ugaza-bak: —Plegi<sup>1</sup>, Plegi, alperrik dok ire orru ori, oraingoz beiñik-bein; lokaztia igaro baiña etxoagu egingo—. Ziri ga-lanta sakatu dautsoela igarririk seneratzen danaren antzean, Plegi'k be gaíndu.eban bere asarrea. Nire zuzendaria jatsi zan batelera, ni be an sar-azo nindun bere atzetik, eta ni sartzean bakarrik pixu artu ebalá zirudian.

Gidaria ta biok ontzi-barruan artuaz bat, branka zarrak beste bidariak eroatean baiño sakonago urratzen asi zan ur gaiña. Zingira ilean zear giñoiazala, basaz loituriko ge-riza bat jagi zan nire aurrean, esanaz: —Nor zaitut zu, al-diz aurretik zatozan ori?—. —Ba'nator be, erantzun neu-tson, ez nozu emen geratzeko. Baiña nor zaitut zu, lupetzez ain loi zagozan ori?—. Gaiñeratu eustan: —Dakuszunez, negar dagienen arteko nozu—. Eta nik ari: —Gelditu ádi, ats gaiztetsi, negar ta ileta artean. Lokaztua oso egon arren, ezagun aut.

Orduan ontzirantza edatu zitun esku biak, baiña maixu zurrak asagotu eban, au esanik: —Oa emendik beste txakurrakaz—. Gero bere besoak niri samara egotzi ta ni laz-tandu ostean, esan eustan: —Gogo naskagarri! Onetsia be-di zu erraietan eroan zinduzana! Au munduan arropuztu bat izan zan; ez eban gaur gogoratzen dan ezetariko onik egin, eta auxegaitik dago emen bere itzal asarréz betea. Zenbat daukiez an goian errege anditzat gaur be, ta emen

egongo dira gero txarri antzera lokatzean, erdeiñu gorria atzetik itxiaz!—. Eta nik: Irakasle, guk zingira itxi aurretik, atsegin lítzakit, a loi-istilean murgiltzen ikustea. Eta arek niri. —Zuk ur-ertza ikusi baiño len, aseko dozu iski ori, ortaz gozartzea on yatzu-ta—. Gerotxoago ikusi neban itzal a beste itzal loituak eraso, ta oindiño be Jaínkoa goratzen dot, ori dala-ta eskerrak egiñik. Danak iñoen, deadarka: —«Pilipe Argentí'ri! »<sup>2</sup>—. Ta florentziar gogo zakarrak bere burua aginkatzen eban biziro.

An itxi genduan guk, eta ez dot a geiago aitaturko. Orduan asperen naibagetsuak zauritu eustazan belarriak, eta nik begiak zorrotz aurrerantza. Maixu onak esaustan: —Onezkerero, semé, Dite<sup>3</sup> izena dauan urira urreraturik goiaz; lagunik asko dozuz bertan ta guztiak biurri-biurriak—. Eta nik: —Irakasle, argi dakustaz oindixek arein gaztelu ta torreak, an aran barrenenean kiskali daroazan su amaigeak gorri biurtzen ditu, dakuszunez, suleza ondar onetan.

Sartu gifían, atzenez, lur zorigaiztoko a esitzen daben obi sakonetara, ta ango orma-murruak burdiñezkoak iruditu yatazan. Ingurumari luzea lenengo ta bein egiñik, eldu giñean ontzizaiñak abots zoli oiú egin eban lekura: —«Urten! Eraen daukazue sarrera!». Atean ikusi nitun milatik gora, zerutik jausiak, suminkoi iñoenak: —Nor dogu, il barik, ildakoen erreñuz dabilen au?—. Ta nire maixu jakintsuak k-iñu egin eutsoen, eurekaz ixil-mixilka mintzatu nai leukela adierazoz. Ontan, etsai-itxurari zerbait amore egiñik, mugatueben: —Zatoz zu bakarrik, eta beioa erreñu ontan sartu dan azarri ori. Doala, bai, bakarrik bere zorakerizko bidean zear. Saia daitela, baldin ba'dazau; zu, bada, bide zurbil oneik erakutsi dautsazuzan ori, emen geratuko zara.

Oar zaitetz, irakuele, izu-laborriak zelan artuko nindun itz madarikatu areik entzunik, ez neban uste ba iñoiz atzera itzuliko nintzanik. —Oi, ene gidari laztan!— esan neutsen nik; zazpi aldiz gitxienik eskiertasuna emonaz, ingurutzen ninduen arrisku gorrietatik onez atera nozun orrek,

ez nagizu orain estuasun ontan itxi! Ta aurrera jarraitzea ukatu ba'dagiskue, biur gaitez an artez lengo oiñatzetatik—. Eta aragiño eróan nindun jaun arek esaustan: —Ez izan bildurrik; gure oiñak ezin daikez iñortxok be .geldiazo; orrela baita guri ala emon dauskuna: Itxaidazu emen pizT katen, eta baretu uste onez ats jausi ori, nik etzaitut ba mundu ain sakonean itxiko.

Urrindu zan ontan, eta bakarrik itxi nindun an áita samurrak; an nintzan ni zalantzaz, bai ta ez barnean ziri-ka'. Ezin entzun- izan neban erauzi eutsoena; baiña eura-kaz luze egon, ta danak batera, norgeiagoka, uri barrura sartu ziran. Itxi eben atea gure areioak neure jaunaren begi aurrean, au kanpotik lagatzen ebela; ta gero, nigana biurtu zan urrats-nagi. Begiak lurrean tinko ekazan, gogolun ta uste bagea, intzirika iñoam —Nok ukatzen daust oiñaze-etxerako sarrera?—. Eta nigana zuzendurik; —Zu, barriz, ni atsekabetan ikusi arren, etzaitz ikaratu; edozein dala barrutik jarten daustien eragozpena, garaile nokezu auzi onetan be, Lotsabakokeri au ez dozu barria; lenago be egiña dabe orrela ate ezkutu-ezago baten aurrean, baiña a gaur morroilo barik<sup>4</sup> aurkitzen da. Aren gaiñéan ikusi zendun zuk eriotz-idazkuna. Ta andik dator bidez beera, laguntzaile barik bira ta inguruak ígarorik, guri uria zabalduko dauskunái

(1) Plegi, Marte'ren seme. Sumin-alcll baten, ApoPen jauretzea erre ebana.

(2) Felipe Argenti, ikusten danez^ Dante'ren izterbegi zan.

(3) Díté edo Plutb, Dante'k Estigí erdi'erdian jarten dauah su-lezeko uria.

(4) Kristok suntsitu. eban ate au.

## IX KANTUA

Múíña,—*Irú Asarre agertzen yakez oíerakarieri, zemai-ka.—Aingeru bat datorkie sorosle, ta Dite uriko atea edegiten dautsez.—Seigarren bira: siñausle ta siñisgogorrek dagoz emen, obi ixiotuetan ertsita.*

Bide-erakusle nebana atzera egiten ikusiz arpegi-margoa akktu eustari izuak, arek arin bere kolorea artu eiala egin eban. Adi-adi jarri zan, entzun-gogo dan gizona iduri; ezin eban, baiña, soa urrutiratu. egurats baltz eta laino naspiltsu artan bannjna. <^Alan be, oiuka iñoan, garaile gelditzea dago-ki.gu; be.stelan.. Orre.la agindu dauskue. Oi, bestea bai. luzatzen dau, guregana barik! »

Ondo ikusi neban nik, zelan esatera joiana ebagi ta gero senera yakonez asi zala, ta azken-itzak ez ebazala asíta-koen kideko. Aren mintzoa, alan be, bildurkor jatan, esae-  
ra erdi-ebagi areik, euken baiña zentzun txarragoan jaso bait-nitun bear bada. Nik itandu neutson: —Lenengo mailakorik jatsi al da iñoiz maskor zurbiltzu ontara, ots, itxaro-izarra galdu dabelako bakarrik oiñazetan dagozanen lezabafreh oritáfa? —Gitxitan gerta oi da, erantzun eustan, ni noian bidetik norbait ibiltea. Beste bein be, egia esan, egoná naz emen, itzalak euren soifietara deiez biur-azo oi ebazan Erikton<sup>1</sup> gordiñak aztikeriz erazota. Nire aragia gogotik jarein-barrizalarik, arék sar-erazo nindun orma orrein barrenera, Judas dágon ingurutik arima bat erakarteko. Bira au dbzu sakon ilunena, bai ta oro igitzen dauan zerutik urriñena be. Ondo dazaut bertoko bidea; zagoz, ba, bildurrik bage. Dana kirats-jario dozun zingira onek, oinazezko uria estutzen dau ingumz-inguru; uri ortan, osterá, ezingo gara sartu asarrea gorbiztu barik.

Gauza geiágo be esan ebazan, baiña ez ditut gomutamenean; arri ta belarri negoan ni, torre zut gailur dizditsúan begiak zorrotz; an bai yatazan agertu bat-batean iru su-lezatiko Asarre burrundan, odolez blei-blei, soin ta jan-

tzi eraakume iduriz. Ur-suge muskerrez inguratuta egozan; ule motots ordez be, suge gorri ta larrangilak eukezan, garazur biran bildurgarriro kiribilduta. Ta atzenik ez dauan oiñazetako erregiñaren otseiñak ederto ezagutzen dabezana arek: —Ona emen, esan eustan, Erine ankerrak<sup>2</sup>. Ezker-aldekoa Megera dozu; eskuman negar dagiana, Alet, eta erdikoa, Tesipone. Ta au esanik, ixildu zan.

Asarre areik, erpaka urratu ta sakaihen ebezan euren bular-gaiñak; bai ta, esku zartaka, garrasi andiak atara be; ni, bildurrez, olerkariari urbildu naiákon. —Betor Medusa ta atxarri biurtuko dogu, iñoen danak, beera begira; Teseu'ren sarkuntza azartua ez gendun, damurik, bear lez apendu.

—Itzul zaitetz sorbaldaz, ta itxi begiak; Gorgone ager ba litzakizu, ba, ta zuk a ikusi, ezingo ziñake gaiago, gora biurtu—. Onela mintzo yatan irakaslea, bera be itzulirik; eta nire eskuetan uste larregi ez ebalako nunbait, bereakin estaldu eustazan begiak.

Oi zuok, adimen zindoko zarienok!, ager-azo egidazue, otoi, bertso bakan onein estalgipean ezkututzen dan irakaspena!

Uin naspiltsu artetik burrundara latza etorren, oso izugarri ertz biak iñarrosi ta dardar jarten ebazana; olan nunbait, aize zakarrak, aurrez-aurrezko bero putzak eraginda, basoak sumin-jario astindu ta zugatz-adarrak arterik bage ausi, morrlztu ta urrin jaurtiaz, autsetan arro dabilela, ango pizti ta artzaiñak iges-erazten dabezana lez. Gero^ begiak erakutsi ta esan eustan: —Zuzen egizu orain zeure ikusmen-kirioa aspaldiko bits atara, kea gaizkiñago dozun tokirantza.

Ez dozuz ikusi igelak, suge etsaiz nabari diranean, uretan zear igeri, ezkutu-bila, guztíak zingirako lokatzean moltsotzeraiño? Bardin ikusi nitun nik arima zori gaiztokoak, milaka, oiñik busti бага Estige igaroten eban batengandik, igesi. Egurats lodia arpegi aurretik uxatu ta etenik, esku ezkerre maiz luzatzen eban aurrerantza, ta indarketa pitin

au be neke yakola zirudian, Laster konturatu nintzanez, zerutíko geznari bat neban, eta irakasleagana biurtu nintzan; burua makur, geldi egoteko esan eustan onek. Ai!, duintasunez kuin-kuin iduritu yatan bera! Atera eldu ta makiltxo bategaz edegi eban, iñondiko eragozpenik aurkitu barik.

—O enda ezegarri, zerutik jaurtia!, oiú patarraka asi zan zori txarreko ate-aurrean: oraindik be zeuon arrokkerian dirauzue? Zergaitik zabiltze, egundo be, bere ataza jarritxi barik izten ez dauan nai orren aurka? Lendik be, ez al dautzuez sarri askotan neke-oiñazeok geitu? Zoriaren kontra jokatzea ez ete yatzue alperriko? Zuen Kerber'ek<sup>3</sup>, gogoratzen baldin ba'zarie,, soil darabil gaur be okotza, ta musturra motz.

Ondorenik, bide loiturantza biurtu zan, guri tautik be esateka; gizon arazo aunitzez lotu ta kezkatua emoten eban, inguruan daukazanakaz artu-emonik nai ez dauana, noski. Eta guk, itz doneetan ustetsu, Dite urirantz bidegin genduan. An sartu giñan ezetariko liskar barik; eta nik gaztelu atan atxilotuta egozanan zoria jakin nai neban ezkeru, barnera nintzanez, begiak ara ta ona zorrozturik, zelai andi bat atemon neban luze ta zabal, oiñaze ta aidura mingotsez betea. Rodano ibaia zingirutzen dan Ar'j. aldean lez. naiz Pola'n, Karnaro'tik urre, Itali zarratu ta aren mugak bus-titen dabezan tokian obi zarraklur gaina arrotzen daben lez, emen be obiak agiri dira nun-nai; alde onegaz, arein itxura oso bildurkor yatzun, soil ta okil bait-egozan, burdiñea er-ti-arragoan baiño geiago, osoan ixiotuten ebezan sugar-itxaso erdian. Goian dingilizka agiri ziran arlosa guztiak, eta arein barrutik garrasi ta adia ertunak etozan, urkatzeko dagozan errukarriak emoten dabezanen antzeokoak, aurki.

Eta nik: —Irakasle, nortzuk dira orreik, kutxa barruan obiratuta, axanpa izugarritz deadar dagienok?—. Eta arek erantzun eustan: —Siñausleak dituzu, ta uste oker guztien jarraitzaileak: zupu edo obi orreik, zuk uste baiño askoz beteago daukazuz. Bakotxa bere kideakaz da obiratua, ta



gitxi-asko obítegi bakotxak dau bere su berarizkoa—. Eta ondoren, eskumara arturik, obi íxetu ta arresi zut arein erditik igaro giñan.

(1) Eríkton, Tesaiia'ko aztrua; Lukan'ek difioskunez, ildako bat berbiztu ebana.

(2) Adardun sugeak.

(3) Herkul'ek, Íotzeko, ípiñi eutsozan kateiakaitik.

## X KANTUA

Muifía.—*Seigarren bbra, suzko obietan.. atxilo, siñausleak dagozana.—Dante'k, Yarinat.a ta Cabalcante ourkitzen ditu bertan.—Yarinata'k aldez aurreúk diñotsaz olerkariak izango ditun erbesteratze ta zori makurrak. . .*

Bidexka ezkutuan zear aurreratu zan ordun, nire mai-xua, uriko orma ta gaiztetsien obi tartetik; eta ni, ari. jarrai niñoian. —Oí indar guren, ots negian, bira zabaletan zear zeure naierara narozuna! Mintzo zakidaz, dodan jakin-miña aserik. Ikusi al daiket obi oneitan datzan jentea? Jasorik dagoz, ba, arlosa guztiak, eta ezta iñundik zaintzailerik agiri—. Ta arek jardetsi: —Ziur be zíur, danak estaliko dira arimak an goian itxi ebezan gorputzakaz Josafat'etik itzultzerakoan. Arimea gorputzaz ilten dala uste dabena, ots, Epikur ta onen jarraileak, alderdi ontan daukie euren zupua. Baiña, emen barruan, laster emongo dautse erantzuna dagistazun itaunari, bai ta ostenduten daustazun guraria bete be—. Ta ník onelantxe: —Zuzendari on, bear bada biotzmuiña gordeten ba'dautzut be, itz larregirik ez egitearren baiño eztozu; jokabide ontara, gaiñera, zeuk ekarri nozu sarri emondako aolkuz.

—Oi toskatar, suzko uri zear bizirik, ain itz-ezti tn erabetsu zoazan ori! Oraingo ontan geldi zakidaz, otoi. Izkerak be argi ta garbi salatzen zaitu zein errialde leiñargikoa zarean zu, ni ari bear bada gogañkarri izan ba'nintziskon be—. Areitako kutxa batetik urten ziran itz oneik bat-batean; eta ni, ikararen mende, zuzendariagana urreratu nintzan are geiago: Ta arek esaustan: —Biur zaitez: zer dagizu? Or Farinata \*, bere obitik jngita; gerritik gora dan bestean ikusi daikezu.

Afeñetan neukazan nik orduko neure begiak, eta bular ta.buru, inpernu guztiari zemaika lez, goi-goi eukazan burnikarako. Nire zuzendariak, beraz, esku garbal-arin, aren álhora sakátu nindun obi tartetik, au esanaz: —Itz égiozu albait neurritsuen—. Areñ obi-oiñera nintzaneko, begiratn nindun pizkaten eta gero, muker samar, itandu eustan: —Nortzuk izan ziran zure aurretikoak? Nilc," esaneko, ez neutsn ezer gorde, óro azaldu baiño; ta berak, bepuruak zerbaít makotu ondoren, taiu onetan mintzatu yatan: —Etsai zital izan yatazan guztiak, bai ta neure senitarte-koenak eta aldérdiarenak be; orregaitik erkatu nitun bi aldiz. —Erbesteratuak izan arren, andik naiz emendik, bat eta birritan erriratu ziran areik barriro be; zureak, ostera, éz eben antze (arte) ori ondo ikasi.

Orduan obi-aotik itzal bat jagi zan neure begi aurrean, lengoaren aldean nunbait, okotzeraiño agertzen zana; belau-niko egoala zirudidan.. Ara-ona neure ingurura begiratu eban, nigaz iñor ete.egoan jakin. nairik, antza; eta zalantza aienatu . ebanean, malko-jarip. esaustan;.. —Espetxe illun onetan zear zeure asmamenaren indarrez ba'zabiltz,..esaidazu, arren: nun dago nire semea? Zergaitik ez daukazu alboan?— Erantzun neutson: —Neurez ez nator; an zain daukadanak naroa toki oneitan zear. Zure Gido <sup>2</sup>, apika, lar mukerra izan zan beragaz.

Arako itz eta oiñaze-motak iragarri eusten, ziuurrik asko, aren izena; nire erantzuna, beraz, oso betea izan zan. Otsotsean jagi ta deadar egin eban: —Zelan? *izan zan* esan

dozu? Ez al da orain bizi? Eguzkiaren argi eztiak ez ete ditu aren begiak zauritzen?— Nik erantzuna luzatzen ne-bala ikusirik, obi gaiñera sorbaldaz jausi ta etzan geiago agertu. Baiña beste aundikiak —agaitik bai nengoan ni an— ez eban itxurarik aldatu, ez samarik igitu, ez saietsik tolestu; eta, izti-miztian jarraiki, esan eustan: —Antze ori ez ikasteak, oge onek baiño geiago oiñazetzen nau> Baiña, emen agintari<sup>3</sup> dan emakumearen betartea berrogei ta amar aldiz argitu ordukoxe, jakingo dozu zuk trebetasun orrek zenbat pixu.dauan. Eta iñoiz mundu atsegingarrira biurtu ba'zadiz zu, esaidazu, zergaitik da erri a onen zitaJa niretarren kontra, euren lege baktotxean?— Eta nik ari: —Arbia gorritan margoztu eban triskantza ta erailketa izugarriak iñarrosi ditu olango erabagiak gure jauretxean.

Buruari eragin eta, asperenka, esan eban: —Artarakoan ez nintzan bakarrik egon; eta, gaiñera, ez nintzan zio barik aurkitu bestekaz leku aretan; baiña, beste guztiak Fiorenza ondatu nai izan ebenean, aren alde kementsu arpegia emon ebana be bakarra izan nintzan—. Jardetsi neutson: —A!, zure ondorenak beuko zorionez bake ta atsedean; baiña aska eídazu, arren, gogamena matazaten daustan korapilloa. Entzun dodanez, aldiak dakarkena igarten dozula deritxat; oraiñagaz, ostera, ez yatzu bardin jazoten—. Arek niri: —Ikusmen nekatua daukienen antzekoak gara gu: urriñekoak ikusten doguz, Zuzendari gurenak argitzen gaitun dizdira bati eskerrak; gauzak urreratu edo diranean, alperrikoa da orduan gure adimena osorik; eta, beste norbaitek argirik ez ba'damosku, ez dogu iñolaz be giza-jazoeren barririk. Au dala-ta, ulertu daikezu, gure ezaugera guztia aituko da, etorkizujaren atea iztorduan.

Ondoren, neure uts-egiñaz damutua nunbait, nik ari ots: —Esaiozu, arren, len murgildu danari bizien artean aurkitzen dala oraindik bere semea; bai ta ari adierazo be, len erantzun-mutu izan ba'naz, zuk askatu daustazun oker-mataza buruan nebalako izan zala bakar-bakarrik—. Zuzendaria deiez neukan onezkero, ta itzal ari eskatu neutson esan egistala beingoan nortzukin egoan toki aretan. Eta gaiñeratu eus-

tan: —Milla ta geiagogaz nago einen; barruan datzaz bigarren Federiko ta Kardinala<sup>4</sup>, ta besteetaz oba tautik ez esan.

Au maskaldurik, ostendu zan; eta nik aspajdiko olercariagana zuzendu nebazan neure urratsak, etsaikor íruditu jatazan itz areik gogo-osiñean irabilduaz. A be ibilten asi zan, eta bidez giñoazala, onela esan eustan: —Zergaitik zagoz orren gogoetatsu?—. Eta aren itauna asebeste nebanean, ene zuzendari jakintsuak agindu eustan: —Gorde zeure gogamenean zeure aurka entzun dozuna; eta, orain, zagokit adi-adi—. Eta atzamarra jasorik, jarraitu eban: —Dana ikusten dauan begi-ederdun aren<sup>5</sup> betarte gozo aurrean zagokeanean, gerora jazoko yntzuna ezagutuko dozu.

Beingo baten, eskuniarantza zuzendu zan. Eta, arresiak itxirik, sunda atsitu jasan-eziña erion íbar batera eroan bidezidoretik zear, uri erdirantza joan glñean.

- (1) Farinata Ubevti, gibelindarren buruzagi bat.
- (2) Guido Cabalcanti, etzan latin-letren zalea.
- (3) Proserpina ta Illargia bat dira infèrnuan.
- (4) Oktabian Ubaldi gibelindar amorratua.
- (5) Zorione.

## XI KANTUA

Muiña.—*Seigarren hiraren jarraipena.—Anastasi doipuariaren ilohi.—Emen lotzen dira Olerkari biak, eta Bergili'k azaltzen dautso Dante'ri ondorengo iru biretan nola zigorkatuak diran zndarkeria ta iruzurra.*

Arkaitz-morko aundi zartatuz inguraka egiñiko ugalde garai baten egaletik, gaiztetsi-talde atsekabetuago bateraiño eldu giñean biok. Eta emen, osin salconetik etorren ats-jario

naskagarriagaitik, obi eskerga baten arlosa ostean egokitu gintzan; arlosa onek au zesan idazkuna eukon gaiñean: «Anastasi doipurua gordeten dot nfk, Fotin'ek bide zuzenez<sup>^</sup> kotik saiestua».

—Orain egoki yakn, polito polito, cmendik jastea, ats iguingarri ontara gure zentzunak oitu daitezana, eta gerora ez dokegu orren ardurarik. Onan nire maixuak; nilc, ostera, esan neutson: —Billa egizu norajoa, aldia ezer egiteke galdu ez daigun—. Eta ak erantzun: —Orren arduraz nabil, da<sup>^</sup> kusazunez.

—Ene seme, asi zan gero, iru bira dagoz arri orrein erdian, maillaz mailla, itxitakoen antzera pizkaka estutuz doazanalc. Arima gaiztetsiz beterik dagoz danak; baiña gero eurok ikusiaz bakarrik be naiko izan dagizun, entzuizu orain zelan eta zergaitik dagozan emen atxillotuak. Zeru-asarrea erakarten dabena gatxetan iraiña dozu azlcena, ta olango azkenak oro, zein indarrez zein iruzurrez, urko laguna iraintzen dabe. Baiña íruzurra, gizonari dagokion gatxa baita, iguiñago dau Jainkoak; iruzurtiak áugaitik beerago dagoz, oiñaze ta elorrio biziagoz zimikotuak. Zakarraic daulcie lenengo bira osoa; baiña, iru eratako pertsonak zakar ta indarrez artu daitekezan ezkerok, bira ori iru zatitan dágo eraikea ta banandua. Izan be, Jainkoari, geure buruari ta urkoari gogor egin dagikeogu, ots, euren ondasunetan edo pertsonetan errazoi argiz adierazoko dautzudanez. Urkoari indar egiten yako, eriotz odolkorre<sup>2</sup> edo zauri gordíñez; bai ta aren ogasunak alperrik gaJdu, erre edo osturik be. Augaitik, giza-eraille, zauritzaille, su-emoi]le ta bide-lapur, guzti oneik Jenengo biran dagoz neke gorritan, lerroz-lero. Gizonak bere burua edo bere ondasunak artu leikez zakarkiro, ta orregaitik egoki yako bigarren bíran bere errua' txautzea; ezip daike bada zori obarik itxaron bere oldez edo gogora mundu au itxi dauanak, bere onibar'rak jokatu ta iruntsiten ditunak, eta poztu bearrean negar dagianak. Jainkotasunari be indarka egin dagikeo, biotzean Ari uko edo birao egiñik, eta izadia ta ontako ondasunak aintzakotzat ez arturik. Eta ona egoitza txikienak zergaitik daukazan Sodoma ta

Kaorsa<sup>1</sup> bere ikurrazpean, bai ta beste edozein Jainkoa barrutik nardatuz ítz dagiana be. Iruzur guztiak arra izten giza-barrenean, naiz uste ondunari sartu ziria, naiz uste edo konfiantza bakoari. Azken-era onek ausi bide dau soilki izadiak dagian maítasun-lokarria; ta oneik bigarren biran dabe euren abia, ots, azaluts Jabantzaille, aztru-zale, guzurti, lapur, simonti, andrati, txerpolar.í ta antzeko saisuak. Iru-zurak, ain zuzen be, eztau bakarrik jatorriak emoniko maítasuna aitzu-erazten, bai ta oneri jarraitzen dautsona be, au da, uste ona sortzen dauan berezia; beraz, bira txikienan( ots, Dite datzan ludiaren ardatzean, beti-betikoz dago erreten iñor saldu dauana.

Eta nik erantzun neutson: —Irakasle, naiko argizko dí-tuzu errazoi oneik; ondo be ondo adierazten dabe, bai, leza au zer dan eta bertoko jentea zelakoa dogun. Esaidazu, alan be; aizeak igi ta euriak jo, aintzira loian murgil, alaru sarkorrak emonik eureri artean zartaka diarduenak, Jainkoaren sumiña eurenkana erakarri ba'dabe, zelan ete dabez suzko urian zigorrazten? Eta erakarri ez baldin ba'dabe, zergaitik dira onela oiñazetuak?

Arek jardetsi eustan: —Zelan dabilkizu asmamena alderrai, besteetan oi ez dozunez? Ala beste zerbaitetan dozu gogoa? Ez ete dakizu zeure Etika'k erakutsíta, zeruak nai ez ditun iru makurkeri areik, lizunkerik, dongakeri ta piztikeri zantarra, ta zelan lizunkeriak gitxiago iraintzen dauan Jainkoa ta, beraz, zigor. txikiagoa merezi? Esan au ondo aztertzen ba'dozu, ta emendik Janda neke-elorrio bizitan dagozanak nortzuk diran gogora ekarri, laster jakingo dozu zergaitik dagozan areik gaitzetsi oneikandik bananduta, ta Jainko-zumentasunak nola zigorkatzen dabezan asarre gitxiagoz.

—Oi eguzki, ikusmen urduri oro sendatzen dozuna! ; osoan poztuten nozu barne-zalantzak askatzen daustazuzanean, eta jakitea baizen eder jat zalantza bera. Oraindík itzul zaitetz atzerantza pitin bat —oiu nik\*— eta azaldu eidazu lukurreriak zelan iraintzen dauan Jainko-ontasuna: jarreidazu, arren, korapijlo au.

—Jakintzak, esan eustan, ikasten dauanari erakusten dautso, ta ez toki batean bakarrik, izadiak bere jatorria ar-  
tzen dauala jaínko-adimenean eta aren antzean; eta zuk,  
zeure Pisia ondo ikasten baldin ba'dozu, olako azterketa an-  
di barik ikusiko dozu, antzea sortitzari jarraika dabillega,  
al giñoan, ikaslea maixuari Iez; ta zure antze edo ertia  
Jainkoaren billoba dozula doi-doi. Asiera deritxon liburuko  
len-atalak gogora ba'dakazuz, berez ateratzen da oiñarri bio-  
tatik, ziñetan egoki dala norbere bizia onurakortu ta ugari-  
tzea; ta lukurreri-zalea zelan doan beste bide batez, izadia  
ta ertia (arte) ezetsiaz, ta beste zerbaiti bere ustea emonik.

Baiña jarrai nakizu orain, ibiltea eder jat-eta. Arraiñak  
dagoneko osertzean agiri dira, ta Taldea datzan gain Burdia.  
An, urrunerantza, arako ezbaizko ertza meetuaz doala dirudi.

(1) **Kaorsa, frantses uria; onpe aundikoa Dante'ren egunetan, iu-  
kurreru asko egozalako bertan.**

## XII KANTUA

Muiña.—Zazpigarren birako len-egonlekua, errosoak eta  
urkoaren kaltezko odolzaleak samintzen dirana.—Minotaur  
aurkitzen dabe, ango zain.—Odolezko ibaian dagoz kaltegille  
oneik.—Beerago, Kentaur aldra bat aurkitzen dabe olerka-  
riak; onetariko batek, Nesu'k, igaroten dau Dante bere bas-  
tan, Plegeton zear.

Arri mokortsuz ereiña zan amil-beera jatsi giñean pen-  
diza, ta, bertan bizi zanagaitik<sup>l</sup> batez, edozein begi lauso  
izteko erakoa. Andige ibaiak, Trento'ra orduko, ertzez-ertz  
miazkatzen dabezan arri-ondarrak —lur-ikara edo luperiak  
pillotuak nunbait— tontor gaillurretik beeko lauraiñoko  
atxarte guztian zartatuta agiri dira oso, ta arein gaiñez le-

bilkenak ez leuke igaro-biderik aurkituko; antzekoa zan aurki gu ibilli gintzazan arru artako beera-bidea be. Leza ago-zabalaren buruan luze zetzan, ostera, bidutzia, Kereste'ko lotsagarria, arako guzur-bei batek sortua. Gu ikus-ala, bere kautan ozkatu zan, sumiñak janaren gisako.

Orduan, nire gidari jakitunak ots: —Ik uste dok, bear bada, Atenai'ko dukea dokala au, an goian, eriotza emon euana? Alde egik, piztitzar; au ez yatork, ba, ona ire arrebak<sup>2</sup> eskolatua, ire ta iretarren oiñazeak ikuskatzera baiño. Eriotz-zartakoa artukeran, igesi eziñik, ara ta ona ikotika diarduan zezenaren antzera ikusi neban nik, beregan iñarrosika, Gizazezen edo Minotaur eskerga; onetan, zuzendariak ots niri: —Zoaz arin ertzerantza; on litzakizu, ba, au asarre mende dagoalarik, zu jastea.

Ortaz, amillaga beerako bidea artu genduan; azpiko arriak, ostera, nire oiñen pixu barria artzerakoan, etenbage igitzen ziran. Oldozkor niñoian ni; eta lagunak esaustan: —Zure gogoa, apika, arri-mokortza onetan ebillan, nik arestian itzalitako pizti suminkor arek zainduan noski. Jakin daizun nai dot, bada, arako beste artan leza-barren ontaraiño jatsi nintzanean, arkaitz au ez egoala oraindik zartatuta. Baiña, aazkor ez ba'naz, goi-birako arrapakin aundia Dite'ri kendu eutsona<sup>3</sup> onera eldu baiño lentxoago, aran sakon kutsutua alde alde dardaraztua izan zan; eta, nire eritxiz, lurbira orduan maite-miñeran egoan, eta laster naspillera biurtzeko zorian. Eta, ain zuzen be, orduantxe zatitu zan arkaitz .tzar au, ainbeste ataletan. Batña zorroztu zeure begiok ibarrerantza, odolezko ibaira<sup>4</sup> urreratuaz goiaz-eta; emen daukazuz borbor ta irakin baten urkoari indarrez kalte egin eutsoenak.

Oi, zekenkeri itsu! Oi, asarre zoro, bizitz labur onetan orrela sakatu ta, gero, betikoan, ainbesteko neke-intziratan murgiltzen gozuzana! Uztai antzera egiña ikusi neban obi zabal bat, eta, zuzendariak esaustanez, lau osoa besarkatzen eban beronek. Onen eta pendiz-erroitzaren barrenean irra ta irra ebiltzan Kentaur-taldeak, bizi zirala eizara joaterakoan



lez geziakaz orniduak. Gu jasten ikusiz, geldi lotu ziran guztiak; gero, taldetik iru aurreratu ziran uztaiakaz eta aurretiaz aukeratutako azkonakaz; azkenez, euretariko batek urrun samarretik oiu egin euskun: Ze oiñazetara zatoze zuok, aldapa beera? Esan ortixik; bestelan, uztai erauzi-oska nozue.

Nire maixuak erantsi eutson: —Urrago aurkitzean, Kiron'i emongo yautseguk erantzuna; gaizto dok beti be ire gogo erre ori—. Gero ni ikutu nindun, esanaz: Nesu da ori, Deianira ederragaitik il zana, bere eriotzaren asperra (bengantza) berak bere buruz artu ebana; erdikoa, buru-makur bularrera begira dagoana, Akil azi ta iñutu eban Kiron andía dozu; beste a, ostera, Folo, asarre-ontzi. Millalca dabiltz obi inguruan, odol-zingiratik euren erruak laga baiña geiago urteten diran arima guztiak geziturik.

Urreratu giñean, atenez, btdutzi (mostru) arin areikana. Kiron'ek gezi bat eskuratu eban, eta arén erpíñez bere bizarrak alboratu ebazan, matrail-azurretarantza. Ago esker-ga erakutsi ebanean, lagunei esan eutsen: —Konturatu al zarie, atzeko arek zelan zirkin eta ikara daragion ikutzen dauan guztiari? Illen oiñak ez dabe orrela egín oi—. Ta nire gidariak, bularreraiño, ots, izate biak alkartzen diran lekuraiño beintzat eltzen yakonak, jardetsi eutson: —Bai, ziur be, bizia dok; eta nik soilki ibar goibela erakutsi bear yautsat; ontara be bearturik yatork, ez jolaskara. *Aleluia* abestea itxi eban norbaitek, agindu bairi au niri egoztean: ezta berau lapur, ez ni arima gaiztetsi. Baiña, nik zidor basaka ontan zear oiñak zuzentzeko dodan Kemen agaitik, emoidazu lagun zuretako bat, igaro-bidea guri erakutsi ta au bere bastan eroan dagian, ez baita arnas aizez dabillena.

Kiron'ek bere eskumaruntz biurturik, Nesu'ri agindu eutson: —Oa ta artez egizak; eta guretariko taldeen bategaz topo ba'dagie, nasai beukie bidea.

Ortaz, genkarren bideari jarrai ibilli gintzazan, Nesu'k leial arteztuta, bits gorri aren egalez; an irakin bizi egoz#nak, barriz, deadar-oiu ikaragarriak goratzen ebezan. Batzuk bularretaraiño murgil ikusi nebazan, eta Kentaur andiak esan

eustan: —Orreik dozuz odolez ta arrapakiz bízitako ankerak. Emen ordain-negartzen dira errukirik ezeko gatxak; emen dago Alesander, emen dago Dunixi zakarra, Sikili ainbat urtez zigorpean euki ebana. Azzolino'rena dozu ule baltz-dun bekoki a; gorridun beste a, ostera, Esti'ko Opizzo'rena, egiaz an goían bere seme-ordekoak illa izan zana.

Ontan Olerkariagana biurtu nintzan, eta arek jiiri: —Au begizu orain aurreneko, ta ni bigarren—. Urrintxuago, irakin-leku aretatík at buruak samaraiño ager-azo bide eb.ezan arima. gaiztetsi batzuen gain kokatu zan Kentaur, eta bes-teekandik bananduta egoan irzal bat erakutsi euskun, esanaz: —Arek Jainko-etxean zauritu eban Tamesise aldean gaur be omendua dan biotza—. Itzak geiago ikusi nebazan gero, burua, ta beste batzuk bularra be bai, ur-azalean eukienak; eurotatik asko ezagunak yatazan. Odola, pitinka, gixituaz joian, oiñak besterik ez estaltzeraiño; ta obi inguru ontatik bide egin genduan, —Dakusazunez, esan eustan Kentaur'ek, alderdi ontatik ur-korronta meetuaz doian lez, beste aldetik, neuk diñotzut, aren ondarra gero ta salconago dozu, ankerkeria egokiro zigortzen dan bigur-une artan, apurka, alkar artzera eldu arte. Jainko-zuzentasunak an nekerazten dau Atila, lurrean naitara txibita erabilli ebana; ta Pir ta Sextu; bai ta betiko malkotan dagoz, borbor onek aterazota, Rinier Korneto ta Rinier Pazzo<sup>5</sup>, bideetan makiña bat lapurreta ta liskar erabilli ebezanak.

Eta au esanik, atzera biurtu ta ubidez ber-ibilli zan.

- (1) **Minotaur, mamua; erdi-zLzon, erdi-zezen.**
- (2) **Ariadna.**
- (3) **Jesukristo.**
- (4) **Flegeton, su-leseko irugarren ibaia.**
- (5) **Bide-lapurrak bata erromar eta florentziar bestea.**

### XIII KANTUA

Nesu oraindik bestekaldera doi-doi eldua zala, bide-zido-buruekaz *biurriak izan ziranak oiñazetzen dira.*—*Buru-erailleak atxillo dagoz zugatz eta sasi-arteetan.*—*Ondatzailleak, txakur-eraso artean dabilta.*—*Desvignes'tar Kepa, Sienda'ko Lano, Padua'ko Jakob.*

Nesu oraindik bestekaldera doi-doi eldua zala, bide-zidorez zearkatu bako basartean sartu giñean gu. Ango ostraila etzan orlegi, illunkolorezkoa baiño; adarrak etziran artezak, lakatz-begitsu ta eiotuak baiño; igalirik ez egoan, pozoizko elorri ta arantzak baizen. Told landuak begitan dabezan piztiak bizi diran oianak ez dira orren usi ta itsu, Zezina ta Korneto<sup>1</sup> bitartean. Arpi ankerrak, troiatarrak etorkizun ziran gaitz goibelak iragarriaz Estrofade-ugarteetatik bota ebezanak, basarte ortan daukiez euren abiak. Ego zabalak ditue, giza-arpegí ta samak, erpez jantzita zangoak eta Iumaz estalirik sabela; zugatzetara igonda, garrasi bakanez diardue zoli.

Maixu ona onela asi yatan esaten: —Aurrerago jo baiño len bigarren egonlekuan aurkitzen zareala jakin bear dozu; emendik ibilli bear da, ondartza izugarrira eldu arteño. Adi ta zur zabiltz, beraz; ta ikusiko dituzu nire itzen autorra emongo daben gauzak. Or ta emen nentzuzan ai-otsak, adiakatzen ebezanik begiz jo ez arren; augaiik zjikin barik geratu nintzan bildur-ikaratua. Niri deritxat, arek uste izan ebalá zugatz artean gugandik gordeten ziranen aotsak zirala areik nik uste nebala. Ta ortaz esan eustan Maixuak: —Lan-dara orreitako edozein ádarño ausi ba'dagizu, laster dakuskezu zein erratuak diran zure gogaketak.

Orduan aurrerantza luzatu neban eskua, basokaran andi batetik adar txikitxo bat arturik; eta aren enborrak otsegin eban: —Zergaitik ausi nagízu?—. Odolez gorritu zan beingoan, eta barriro be ots: —Zergaitik urratzen nozu? Ez al dozu onezko biotz-zirradarik? Gizaseme izan giñean, eta enbor biurturik gaukazuz orain; gu suge-arima ba'gintzaz be, esku obeagokoa ízan bear zenduan.

Mutur batetik erreten dagoan egur ezeak, barruan sar-  
tzen yako aizea dala-ta, intzíri ta kirriská dagi beste mutu-  
rretik; itzak eta odola batera erioen enbor atatik be. Onek  
eraginda, beera jausten itxi neban adarra, gizon koldartu  
antzo gelditurik.

—Gogo zauritu, erantzun eutson nire Jakitunak; siñis-  
tu al izan ba'leu, jakiña, nire bertsoetan irakurri dauana  
egitzat artu ba'leu, ez eban onek zugaraiño luzatuko esku-  
rik: zer ain siñisteziña izateak beartu nau, orain damu do-  
dana bete egiala oni aolkatzeko. Baiña esaiozu ordaiñez nor  
izan ziñean, itzultzea zillegi yakon munduan zure ospea ba-  
rriztatu dagiantzat be—. Eta enborrak: —Itz eztiz losinga-  
tzen nozun ezkeró, ezin naz ixillik egon; eta ez egizue txar-  
tzat artu, zuekin pizkat aututan luzatu arren. Federiko'ren  
biotzeko giltz biak euki ebazana, nozue ni; itxi ta edegi,  
txit bigun erabilli oi nitun giltzok, arekiko uste onetik ia  
danak saiesturik: egikizun aintzagarri ari griña bizia bait-  
neutson, loa ta bizitza be bertan galdu nebazan. Kaisar'en  
jauregitik bere begi loiak<sup>2</sup> —errege-etxeetan izurri ta gaitz  
arrunta noski— egundo aldendu ez ditun emakume andiki  
arek, gogo-barren guztiak ixetu ta asaldatu zituan nire kal-  
tez, eta onela ixetuok eurenez biztu-azo eben August bera.  
Eta zelan! Nire dedu zoriontsuak illeta zurbil biurtzeko eran  
biztu-azo be. Nire arimeak, narda-bero-aldi baten, lotsari  
atetik illez askatuko zala-ta, zuzena izanik zuzen etzana egi-  
tera beartu nindun. Egur onen suster bigunakaitik zin da-  
gitzuet, neure ugazaba dedugarriaz ez nintzala iñoiz be doi-  
llorra izan. Eta zuetako iñor ludira biurtzeko ba'da, goretsi  
begi nire gomuta, ikus-eziñak egotzi eutson zartakopean  
oraiño bai datza.

Olerkariak, pizkat itxaronik, esaustan: —Ixillik dagoan  
ezkeró, ereti au ez egizu alperrik emon: geiago jakin nai  
ba'dozu, mintzo zaite ta itandu berari—. Nik jardetsi neu-  
tson: —Zeuk galde egiozu níretzat on deritxazuna, nik ezin-  
go neuke-ta: orrenbesteraíño bai nago, orrenganako errukiz  
jo ta naigabetua!

Ortaz, barriro asi zan onela: —Zure arrenak eskatzen dauana atsegin ta beratz betetu dagian gizon onek, esaiguzu oraindiño, arima atxillotu orrek! , nolatan estali oi dan go-goa enbor adabegitsu orreitan; baitn esan egidazu, al ba'dozu beiñik-bein, iñor danentz atzbegi orreitatic azke geratzen danik—. Enborrak orduan arnas artu eban, eta ondoren aize a abots ontan kokatu zan: —Labur erantzungo dautzuet: arima oilla, berenez erauzi dan gorputzetik urtetean, Mino'k artu ta zazpigarren birara bialdu daroa. Basartean jausten da, toki izentaturik ez daukan lekuan; baiña adurrak jaurtzen dauan unean, galtxurí-azia lez ernetan da; muskil antzera ernebarritu ta ziltzen da lenengo, ta gero basa-landare búrtu. Arpiak ondoren, aren orriak jan eta min emonik, oiñaze-arnas-ateak edegitzen dautsoez. Gu be, beste arimak lez, geure ondakifíak batzera goakez; areikaz, baiña, guretariko iñor ezta barriro jantziko, zuzen ta egoki ezpailitzake noberrak bere oldez kendu dauana barriz eukitea. Tarraz ekarriko doguz onagíno; eta oian ontan dagokez gure gorputz bako-txa, bere arimak oiñaze artzen dauan basokaran berberetik dingilizka.

Zerbait geiago esango euskunaren ustez, enbor ari begira oraindik gengozala, olako iskanbilla batek iñarrosi ginduzan; eiztariak, zelataka dagon lekurantza basurdea ta txakurrak etorten nabaitzean, piztien orrua ta zugatzen abarrotsa batera entzun oi ditunaren antzekoa bera. Ta ona nun agiri yakuzan ezkerrentz doakabe bi, billois ta zarrastatuak, oia-neko abar-kimuak oro ausi bearrez, astrapalada izugarrian ígesi. Aurrekoak iñoan: —EI, erio, el!—; eta besteak, baldarrago ebillenak, deadar:. —Lano, ire bernak etzebiltzan orren arin Toppo'ko ernsoaldian—<sup>3</sup>. Eta, bear bada, arnaseak uts eginda, moltso bat egin eban bere buruz ta zugatzoz.

Arein atzetik egoan basartea txakur baltzez beteta; gose ziran oneik, eta katea kendu yaken erbikariak lez ebiltzan aringa. Ostendu zanari aginkada ikaragarriak emoten asi ziran; eta, guztiz sapitu ondoren, aren gorputz-atalak eroan ebezan oraindik dardar.

Zuzendariak ordun, eskutik artuta, zauri odoksuakaitik alperrik alakatzen zan abetxoagana eroan nindun. —O, San-Ander'ko Jakob!, iñoan. Zer on ekarri dautzu nū gordeleku arteak? Nik al. yoat íre odol-jariozko bizitzaren erru?

Níre Maixuak, abetxo aren aurrean geldí jarri zanean, esan eban: —Nor izan intzan i, eure odolaz batera ainbat zauritik olako itz erdiragarriak asperentzen dokazan ori?—. Arek erantzun euskun: —Ene orrietatik berezi nauan triskantza negargarria ikustera etorri zarien gogoak!, batu egitez oneik abetxo zurbillaren oiñera. Bere Jenengo zaindaria Joan Bateatzalleaz<sup>4</sup> aldatu eban urikoa izan nantzan ni; ori dala-ta, arek betí itun-azoko dau bere antze gordiñez; eta Arno'ko zubian oraindiñokarren bere ikusgarriren bat zutik dagolako ezpalitz, Atila'k artaz itxi ebazan auts gainean uria barríro eragi ebenen lan guztia alperreko litzakean. Nik neuretako urkabe biurtu neban neure etxea,

- (1) Toskana'ko padura edo zngira.
- (2) Bekaizkeria.
- (3) Igesari emon eutsan sienatar onek.
- (4) Fiorenzia.

#### XIV KANTUA

Muiña.—Zazpigarren birako irugarren egonlekua\ area-tza zabala.—Etentzeka kiskaldu daroan su-esparru ta erre-teak.—Jainkoaren, Izadiaren eta Gizartearen aurka zakar jokatatu ebenak emen dabezán neke-miñak.—Onein artean Kapaneo aurkitzen dabe lenengo.—Kerete izaróa.—Mendipeko leza-zuloak.—Akeront, Estigi ta Plegeton.

Sorlekuagazko maite-suak biotz-samurtuta, batera nitun ostó sakabanatuak, dagoneko eztarri garratz egoanarí biur-tuaz.

Andik, bigarren egonlekua irugarrenetik bananduten dan unera zuzendu giflean; zuzentasunaren indarra ikaragarriro somatzen da emen.

Ikusi nitun gauza barriak zeatz azaltzeko, azalean landararik artzen ez dauan lau batera eldu gintzazala diñot. Oian oiñazekorrak lora-gingil antzera eban zabaidia, au obi odoltsuak biratzen eban lez. Zirkiñik bage geratu yakuzan oiñak oianaren eta lauaren ertzean bertan. Usgunea ondarrez estaldurik egoan, Katon'en oiñak <sup>l</sup> beiñola zapaldu ebena baizen idor ta lodiz. O, Jainko-asperkunde! , bildur izan bear zaitu bai, niri begi aurreratu yatana irakurten dauanak! Arima billois talde andia ikusi neban, doakabe ta negarrez oso: zirudienez, askotariko zigor-epaiak beteten egozan. Batzuk lurrean egozan aratin, beste batzuk jesarrita guztiz nahasi, eta irugarren batzuk arat-onat ebiltzan eten barik. Biraka ebiltzanak naiko geiago ziran, gitxiago barriz oiñazeren bat jasateko etzunik egozanak; azken oneik, baiña, azkeago eukien miña intziri-jariorako.

Aretza oro gain, jauskera nagiz, su-maluta zabalak etozan euri antzera, aize bako edurra Alpe mendietan jausten dan lez. India'ko eskualde sutsuetan Alesander'ek bein, lurrean itzaltzen etziran su-txingarrak jausten ikusi ebazan, bere gudarien gaiñera; ta zapaldu egiezaJa agindu eutsen onei, lurratsa bakarrik zan bitartean errezago itzaltzen zala-ta. Orrelaxe jausi zan betiko sua be, sukarriak ardaia lez ondarra kiskaldu ta arimen oiñazea kemen geiagotzeko. Aspertu barik dantzari erabillezan esku baldarrak, su-txiffar maiz barriztatu areik ezker-eskuma aldendu nairik.

Ni asi nintzan esaka: —Maixu, txerren zibilkaitzak uriko atean ipiñi euskuna izan ezik, eragozpen guztiak mende jarri dituzun orrek, zer itzal dogu a, suaren ardura bage ta euri orrek naigabetuko ezpaleu lez, ain matxar ta arroputz dartzana?—. Itzal arek orduan, nik Zuzendariari beretzaz itz nengiola oarturik, gedar egin euskun: —Bizirik nintzana, axe naz ilda be. Jupiter'ek, bere asarre gordiñean, ni neure bizitzako azken-egunean zauritu nindun ifar zorrotza aterazo

eutsan errementaria<sup>2</sup> nekerazoko ba'leu be, edo-ta Mongibelo'ko langille baltzak oro<sup>3</sup>, orain bat gero bestea, urrenez urren, nekalduko ba'litu, Flegra'ko burrukaldian egin ebanez, onela: «Lagun zakit, lagun zakit, Bullcan on» deika, ta ondoren ni be bere kemen osoz gezitu, eleuke nitaz jaritxiko bear besteko asperkundera.

Zuzendariak ontan, nik egundo entzun ez neutson eran, guztiz bizi ots egin eban: —Oi, Kapaneo! , eure artokería emaro ezten ez dokalako dok ire zigor andia. Etxagok martirí-oifiazirik ire sumiñak eroan-azten dokanaz bardintzekorik.

Nigana zuzendu zan gero, bigunago esanaz: —Tebas ínguratu eben erregeetatik bat, auxe izan zan; Jainkoa ezetsi eban, eta gaur be, eskaririk zuzentzen ez dauksan ezkeru, erabat ezesten dauala dirudi; esan dautzudanez, alan be, asarrea da biotz orrentzat sari merezia. Orain jarraitu neuri artez ta ernai: ez egizu, arren, are errean oiñik ipiñi; zabiltz beti oianari derautsazula.

Mutu lez eldu gintzazan errekazto batek, oianez landa, bere urak ustuten dabezan tokira; aren gorriak oraindiño be ikaraz jarten nau. Aran zear doaz Bulikame'tik urtendako urak, émagaJduak banantzen dabezanak<sup>4</sup>; edu orretan joian ibai a be ondarrez ondar. Arrizkoak ziran barrena ta muna biak, arrizkoak baita alde bietako ertzak, eta nik uste neban andik ibilli zeitekela.

—Iñori be sartzea galazoten ez yakon atetik sartu giñeanetik erakutsi dautzudazan zer guztien artean, eztabe zure begiak ikusi sugar oro il daroan ur-ibilli ori baiño gauza nebarmenagorik—. Itzok zuzendu eustazan ene Biderakusleak; beraz, jakin-miña barnean arrotu eustan ezkeru, iñoana argiroago azaldu eistala eskatu neutsan.

—Itxasoaren erdian eskualde matxartu bat aurkitzen da, esan eustan ordun, Kerete deritxona; errege bat izan eban onek txit on-zalea, ta mundua bera be aren agintzaldian oitura onez garbiago agertu zan. Mendi bat ba-da an, Ida izenez, beiñola uretan eta ostotan guztiz atsegin izana; gaur osteru, antxiñako gauza guztiak lez, lekaro soil, basamortu



da. Rea'k axe artu eban bere semearen kuma seguru; eta, obeto ostondu ta zaintzearren, umeak negar egianean, zaratost andiak atarazten ebezan. Mendi barruan zar bat dago zutik, sorbaldak Damieta'runtz itzulia, izpillu antzera Erroma aurrez-aurre. Urre soilJez egiña da aren burua, ta zidar utsezkoak aren bularra ta besoak; bo-rontzekoa da gero iztarperafño, eta andik beera burdin autuzkoa oro, eskumako oiña ezik, au lupetz egosizkoa baita;. zarra, ostera, onegan geíago tinkatzen da, bestearen gain baiño. Alderdi bakotxa, urrez eratua ezik, malko-jario dagoan arrakala batek zearkatzen dau; malko orreik, barriz, bateraturik, esandako mendia zulatu daroe. Ango urak aitez aitz ibar ontarantza datoz, Akeront, Estigita Plegeton osoturik; ígarobide medar ontatik jatsiz doaz gero, geíago jatsi ezin daikean tokirafño, ta an Kozito dagie; zingira a zer dan zeuk dakuskezu, ta ez dautzut orain adierazo gura.

Eta erantzun neutson: —Errekazto ori gure mundutik orrela datorrena ba'da, zergaitik ezta bera agiri oian onen muturrean baiño?—. Eta arek niri: —Zuk ba-dakizu leku au biribilla dana, ta asko ibílli zarean arren, ezkez-aldeetik beti beerantza jatsiz, bira osoari ez dautsazu oindiño itzulia egin; au dala-ta, ikusi bagako gauza barriren bat agertu arren, etzara origaitik arritu bear—. Eta nik jardetsi: —Mai-xu, nun aurkitzen dira Plegeton ta Leteu? Bataz ez diraus-tazu ezer, ta besteari malko-euri orrek asiera damotsala di-ñozu bakar-bakarrik. —Eder jataz zure itaun guztiak, erant-zun eustan; baiña euretatik baten korapilloa ur gorri orren irakiñak askatu bear eutzun. Leteu ikusiko dozu, baiña leza onetatik kanpo, arimak damuturiko erruak parkatu yakeza-nean garbitzera doazan tokian.

Gero gaiñeratu eban: —Ordua dogu onezkero oiana iz-teko; erdu artez neure ondoren; ertzak bide dagiskue; ez-tira, ba, kiskalkor, ta arein gain lurrats oro ito-azten.

- (1) Libia'ko basamortua, Katon urtikarrak aurretik zearkatua.
- (2) Bulkan-
- (3) Kiklopeak.
- (4) Viterbo'tik laster dagoan urberuaga.

## XV KANTUA

Muiña.—*Olerkari biak, areatza zear dabiltzala, izadiaren aurkako zakar-talde bat aurkutzen dabe, ta talde ontako Bru-110 Latini, Dante'ren maixua.—Irakasle ta ikasle, alkarregaz.—Firenze dabe autu-gai.—Dante, bere erritik, erbestera botako dabe.—Latini'k, Dante'ren eskuetan izten dau bere Altxor (Tesoro) iiburua.—Bere gaiztctsi-taldeagaz ezkututzen da.*

Arrizko ertz areitako batetik abiatu giñean; errekaiztoko lurrinak, aren gaiñean, ura ta muiñoak sutatik aldendu eroiazan gandua eratzen eban, Flamenkuak, eurekana aurreratuz doan itxasoaren bildurrez, Gizant eta Brujas bitartean, arresiak jaso oi dabez urari eusteko; Padutarrak be, Chiarentana'k<sup>1</sup> bere gain beroa nabari izan baiño len, Brenta ren ertzez-ertz bardin dagie euren gaztelu ta uriak jago teko. Edu orretan eratu ta egiñak ziran muiño areik; arein, baiña, jasotzailleak, zalakoa zala, etzitun egin orren jagí ta lodiak.

Oianetik urrintxu gengoan-eta, begiak atzera biurtu arren, aren aztarrenik be ezin neikean onezkero ikusi; ontan, baiña, muiñoan zear etorren arima-taldea idoro gendun: banan-banan begiratzen ninduan areik, gizakiak gabaz illazki barritako argi exkaxean batak besteari begiratzen dautson antzera; eta , jostun zarrak jostorranantza lez, gureganunt<sup>2</sup> zorrozten ebezan euren betulak.

Arima areik ni orrela azterturik, euretariko batek eza-gutu nindun, eta jantzitik oratuta esan eustan: —Au arri-garria!—. Nik, barriz, arek besoak luzatzen eustazan bitartean, adi-adi so egin neutson betarte kiskaldura; oso errea ta itxura gabekoa egoan arren, ez yatan orraitíño ezagun gaitz izan, eta aren arpegirantza neurea makurturik, erantzun neutson: —Zu emen, Brunetto jaun?—. Eta arek jardetsi: —O ene seme!; ez egizu begitan artu Brunetto Latini zugaz pizkat atzera biurtu ta beste arimai aurreratzen itxi ba'da-

gitsoe be—. Eta nik, erantzuki: —Bai, bene-benetan eska-tzen dautzut; nai ba'dozu jarri gaitzean, orreia dagiket batez be lagun dodanari ondo ba'deritxa. —O seme! , bir-esan eban, une batean be guretatik atzera lotu oi dan edonor, gero euri onen zigorpean geratzen da eun urtez, errekin yakon sua uxatu eziñik. Jarraitu, bæ> aurrera; neu noakizu ondoz-ondo, eta gero betfko oiñazea negartuz zarpastaka doan neure taldeaz batuko naz.

Aregaz dendun edo pare ibilteko niñoiari munitatik jasten ez mintzan azartu; neure burua makur euki neban, alan be^ begirune andietan, arek onela asi bitartean: —Zer zori edo asmo dozu azken-ordua baiño len ona beera zakarjazna? Nor da bidea erakusten dautzun ori? —An goian, bizi barean, erantzun neutson, nire adiña betea zan aurretik ibar baten bidegaldu nintzan. Baiña atzo goizetik atzez-atze jarri na-kion; eta ni arengana barrero biurtzean, laguntzen daustana agertu ta egiazko bidera itzuli nindun—. Eta arek niri: —Zeure izarra jarraitu ba'dagizu, uts egiteke kai aintzatsura elduko zara, zu gogotan bazaitut beintzat bizi ederrean. Eta ain arin il ezpa-nintz, goiak orren begiko zinduzala ikusirik, arnas-kemena emon izango neutzun zeure lanean jarraitzeko. Baiña bein batean Fiesole'tik jatsi ta oindiño be ango mendarte ta aitz-malkar latzen zerbait daroan erri doillor ta esker bakoa, zuk dagiozun onagaitik, arerio izango yatzu; eta au berezkoa da, izan be, piku gozoari ez bai-yako egoki otsa-lizar latz artean arnari ekartea. Entzute zarrak itu-izena damotse munduan; erraza zeken, bekaiztia arropuz; ez zaie-zala arein ekandu txarrak egundo loitu! Zoriak gerorako zuretzat omen andia dau, ta batzuk eta bestetzuk zure zale izango; baiña astoakandik bedarra, urrin dagoke. Fiesole-tar abereak euren gorputzez egin begi nabaza-bedar; lan-darea ezingo dabe ikutu, euren sats-artetik oindiño be olan-goren bat urten ba'dadi, gaiztozko abi a jaso ondorean ge-ratu ziran erromatar arein azi donea ernebarritu dagiana nunbait.

Nire naiari guztiak bete ba'litzaz, erantzun neutson, ez zengokez oindiño giza-semeakandik banakatua; gogoan za-

kartaz, ba, beti geldi ta tinko, ta orain negargarri jat ezil-kortasuna zelan jaristen dauan gizonak munduan erakusten eustazuneko zure iduri maite, on eta aitakorra olan ikustea. Ortaz, bizi nazan eta al dodan artean, neure itzak azger-azoko dot zor dautzudan esker ona. Oroimenean daroat josia etorkizunaz diraustazuna, Andere batek azaldu dagian beste idazti baten; arenganaño eldu ba'nadi, bada, arek jakingo dau zelan adierazi. Auxe diñotzut bakar-bakarrik: barruak txarretsi ezik, zoriaren edozein gotabera ta azi-orrazi eroateko gertu nagoala. Ez dantzut lenengoz olako iragarkizuna; beraz, eder yakon lez igitu begi Alanbearrak bere gurpila, ta baserritarrak bere atxurra. Ene maixuak orduan, eskumarantz biurtu ta niri so egifik, esan eban: —Ondo zaindu dagianak eztau alperrik entzun oi.

Alan be ez neban nik Brunetto jaunagaz neukan autua eten; eta bere lagun nabarmen ta garaienak zeintzuk ziran galde egiñik, erantzun eustan: —Ondo yatortzu zuri eurtariko batzuk ezagutzea; besteai buruz, oba da tautik ezesan; ainbat alkar-izketarako epe laburra dogu-ta. Oneik danok jakizu, ospe andiko eleiz-gizonak eta ertilariak izan zirala eta munduan pekatu bardñak kutsutu ebazanak. Gizatalde maskar atan doa Prisziano, baíta Acorso'ko Prantzisko be; eta samalda ain saskarra obeto ezagutu nai ba zendu, Jainkoaren morroien morroiak Arno'tík BachigHone'ra<sup>2</sup> aiatu ta bere soin-atal gaizki edatuak itxi zituan a be ikusi zengike. Geiago be esango neuskizu; baiña ezin dot onezkerero ez aurrerago jo ez itz-egin, ondarretik ba ke barria dakust urteten,, eta orrek saiestu bear ditudan arima batzuk urreratuz datozela iragarten daust. Zeure ardurape izten dot ene *Altxorro*; <sup>3</sup> ortxe bizi naz ni oindiño: ez dautzut geiago eskatzen.

Gero besteakaz, Verona'ko zelaian, *ikurrin* orlegia norgeiagoka lortzen dabenen antzera itzuli zan; ibilían, barriz, irabazten eztabena ez, baiña irabazten dauana emoten eban.

(1) **Alpes'ko mendia.**

(2) **Ander Mozzi, Florentzia'ko gotzaiña.**

(3) **Brunetto Latini'ren idazlana.**

## XVI KANTUA

Muiña.—Zazpigarren birako irugarren egonlekuaren azkenera ia eidurik, Plegetorieko ur-ots sorra entzuten dabe Olerkari biak.—Florenziako gualari argi izan ziran Guidogerra'gaz, Tegghiaia'gaz eta Rusticucci'gaz itz dagie.—Gerion, ots, Iruzur dakuse leza-ertz-ertzean.—Geriorien gizantza.—Asarrekorren egoitzean atxilo dagozan lukurak.

Beste egonlekuan jausi uraren zaratots sorra, erleak erlauntzetan atera oi dabon durundu antzeko zurmurra argi entzuten zan tokira ni eldu-ala, oiñaze ekaizpe latzetik igaroz joian gizataldetik íru ítzal banandu ziran lasterka.

Guganaturik, bakotxak deadar egian: —Geldi zaitetzazu, jantzí-itxuraz geure lur zabarreko seme zarean ori—. Ai! , zenbat zauri zar ta ezo ikusi nitun aren gorputz-ataletan, sualc eginda! Naigabez zurbildu naroa oindiño bearen gomuteak. Garrasi areik entzunaz gelditu egin zan nire Irakaslea; ta, arpegia niregana biurtuz, esaustan: —Itxaizu emen, oneikaz adeitsu izan nai ba'dozu; alan be, esango neuskizu, toki au txingar-izpiz gezitzen dauan suagaitik, orrei baiño zuri obeto dagokizula alkar-topatze leia-korra.

Itzalak, gu geldituaz batera, lengo leloa ber-asi eben; gure ondoratu ziranean, barriz, irurak olako bira bat egin ez itzulinguruka ekin eutsen. Kirolzaleak, bilois ta alkar-artuak, ezpata-puntaen burrukara orduko, batak bestea zaindu oi dau, etsaiaren gaiñera egozteko abagune egoki bila; itzal areik be, era berean, neugana zuzentzen eben arpegia, beti biraka, oiñak aruntz ba'erabilezan samak onantz itzulirik eukiezala.

—Toki irriskoi ontako baldartasunak eta gure itxura zurbil loiak gu ta gure eskariak naskagarri egin arren, iñoskun areitako batek, gure izen andiak biotza adoretu bear dautzu, inpernuan ain seguru oiñak jarten dituzun ori nor

zaitugun esan daiguzan. Ni atzetik noakion eta bilosik, guztiz niirrindua dakusazun au, zuk uste baiño maila goiagokoan bízi izan zan Gualdrada \* garbiaren biloba zendun, Guidogerra izenez, bere bizitzan zentzunez aiña ezpatatz egin ebana; nire atzetic area zapaltzen dauan beste ori Tegghiaio Aldobrandi dozu: onen aotsa eskertu bear leukie munduan. Eta oneikaz bat gurutzean naukazun au, Jakobo Rusticucci izan naiatzun; eta, egiaz, iñok baiño kalte geiago egin eustana, neure emazte ankerra.

Sujasetik gordeta egon izan al ba neu, beekoekana, zuzenduko nintzakean, eta au ez dot uste nire Irakasleak txartzat artuko ebanik; baiña suak erre ta kiskalduko ninduelako bildurrak eratxi eustan areik besarkatzera bultzeragistan gogo beroa. Gero aulan asi nintzakon:

—Ezta narda, atsekabea baiño, zuen egokeraren barri emon daustana, ta min ori askotxo luzatuko jat osorik deuseztu orduko. Orretzaz konturatua naz, ene jaunak itz batzuk esan eustazanez gero; arein bidez ulertu neban, bai gureganantza zentozenok nortzuk ziñien. Zeuon lurrekoa naz, eta atsegiñez entzun eta gogoratu ditut beti zuen egiñak eta izen omengarriak. Beaztuna itxirik, Zuzendari zintzoak eskiñi daustazan igalí gozo bila noa; baiño egoki jat aurretiaz erdi-erdiraiño jastea.

Orduan arek: —Orrela irauñ beizu luzez arimeak, zeure gorputz-atalai baturik, orrela baita dizdiz begi zure entzuteak, eriotz ostean be. Adeirik eta kemenik, esaiguzu, ba al da oindiño gure errian, oi zanez, edo-ta osoan bota ete dabe kanpora? Gulielmo Borsiere'k, ba, oraintsutik geugaz antzi dagianak eta an beste lagunakaz doanak, asko bai asko naigabetzen gaitu bere esanakaz.

—Jente barriak eta bat-bateko irabaziak, arrokeria ta neurririk-eza sortu dabe zurean, Florenzia, eta orregaitik zeuk be negar dagizu dagoneko!—. Onan ots nik, arpegia goí; ta iru itzalak, au entzunik, so egin eutsoen alkarri, egi biribil.bat adítzean lez.

Erantzun eustien danak: —Beste eretietan be, edozei-  
ñen itauni ordain ain betea emotea orren ba'yatzu, zorion-  
tsu zu, barne dozuna diñozun ori! Baína leku aizarotsu  
oneik itxi ta izar ederrak barriz ikusi ba'dagizuz, an goian  
«An egon nintzan» esatea eder yatzunean, gizasemeak,  
arren, mintzo daitezala gutaz. Itzetik ortzera ingurua ausi  
ta bernak ego zirudiela iges egin eben, ameneko baten ez-  
kutatuaz. Nire maixuari orduan andik aldegittea otu yakon.

Ník ari jarraitzen neutson, eta oinkada batzuk egin or-  
duko, uraren zaratotsa gugandik txit urre egoala oartu nin-  
tzan; beraz, guk abots zoli izketan jardun arren, ez eus-  
kuen areik entzungo.

Veso menditik urtendako ibaia Apenino'ren ezker-alde-  
tik zear goizerriruntz doa, beeragoko laban-oean murgildu  
orduko Acquacheta izena artu ta izen au be Forli'n galdu-  
rik; gero, barriz, ur-jauzi eskerga dagi mila bat gizonek  
euren bakartegia idoro bear leukien Deun Benedito gaiñe-  
ko Alpes-ertzean. Era orretan entzun genduzan ur odolez  
gorritu aretk be, arkaitz Iabartsu baten erraietan, txit za-  
kar ots egiten; bertan asko luzatu ba'nintz, belarriak sor-  
azoko eustazan aurki.

Lokarri bat<sup>2</sup> neroían soiñean lotuta, onegaz atz emon  
uste bai neban narru orbanduzko pantera. Ene Zuzendariak  
esaustanez, bera askatu nebanean, biribil ta moltsotua esku-  
ratu neutsan; arek, ostera, eskumaruntz itzuli ta ur-egaje-  
tik urruti samar jarriaz, leza sakon aretan jaurti eban. Nik  
neure kautan niñean: maisuak ain arduraz begiz jarraitu  
dautsan egiteko barri oni naitaez barriren batek erantzun  
bear. Al, gizasemeak bai izan bear leukiela zurrak, egiñak  
ikusi ezezik, burutapenak adimen-indarrez irakurri be egin  
oi dautsiezanen aurrean!

Eta gaiñeratu eustan: —Laster datorke goitik nik itxa-  
ron ta zuk gogoan darabilzuna; egoki da ori zuri begi au-  
rrean jar-aztea.

Gizonak, albait, guzurra esateko arriskuan jarri baiño  
len, bere ezpanak ixil-ikurraztu bear ditu; bestela, erru ba-

rik lotsaraz-zori ipinten dau bere burua. Orain, baiña, ezin ni ixilik egon; eta *Antzerki* onen bertsoakaitik eta gizar-tean arrera txeratsua ízan daian, zin dagitzut, irakurle, iduri bat, biotzik osoena dardaraztuko leukean iduria ikusi nebala egurats nahasi arrean zear etorten; bear bada arri-mokor baten edo urpean gorderiko beste edozein gauzakin kakotu dan aingura askatzera itxaspera jatsi ta ur-gaiñeratzean bernak batu ta besoak goruntz zabaldu daroazan urpekariaren antza emoten ebana.

(1) Alke ta begirune aundiko emakumea.

(2) Zer adierazo ete nai lokarri onek? Battuen gardLz, biotz-aunditasuna, ta beste batzuk diñoenez, garbitasuna.

## XVII KANTUA

Muiña.—*Gerioríen argazki.*—*Bergili pizti onegaz dagon bitartean, Dante'k irugarren egonlekuan aurkitzen diran lukurreri-zaleakaz itz egiten dau.*—*Olerkari biak piztilzarren lepo gaiñean.*—*Gerioríek zuzenduta urteten dira zazpigarren biratik.*

Orra or pizti buztan zorrotza, mendiak zulutzen dituna, arresiak eta iskiluak ausi; or, bai, Judi osoa izurritzen dauana.

Orrela asi jatan berbaz Maisua, eta ziñu egin eutson patariari, gu gengozan arri-bide emera urreratu zedila aitzen emonez. Marrokeriaren iduri.<sup>1</sup> atsitu a gugana eldu zan, eta buru-gorputzak aurreratuta be, buztanik ez eban ertz-gaiñean ipiñi. Gizon zintzoarena zan aren betartea, kanpotiko itxuraz txit samur-bera; gaiñerantzeko soin guttia, barriz, sugearena zirudian. Erpa bi eukazan galtzarpe-raiño uletsu, ta lepoa, bularra ta atbo biak korapilo ta or-



ban biribilez galñezka. Tartar eta turkarren artean be ezta iñoiz ikusi, gain ta a^pi, kolore ain ederrezko miesarik;

Arakne berak<sup>2</sup> eiotako oialak be etziran orrenbestekoak izan.

Txalupak sarri ikusi oi dira itxas-ertzean, erdi-ur, erdi-lur, baita katardak be tudeskar salobereen lurraldean arra-ñai lepo egiteko gertu; patari iguingarri a be, antzera, lau ondartsua Lngurratzen eban arri-esparruaren gain egoan: us-gunean ara-ona erabillen buztana oso, muturra ískillotzen eban ezten pozoitsua arrabia lez jasorik.

. Zuzendariak niri: —Egoki yaku orain, an etzunik dagon pizti ikaragarriagana bide egitea—. Beraz, eskumaran-rza jatsi giffean, eta amar oinkada emon genduzan egal-ertzez ertz, aretik eta sugarretik al giñoan igeska; ta, bidutziagana eldu giñanean, zerbait aruntzago jente-pilloa ikusi neban ondarrean, amilburuan kukurumixo jarririk.

An bota eustan maisuak: —Leku onen andítasanaz oso-rik konturatu zaitez, zoaz eta aztertu egizu orain orreïn era ta gisa; laburrak beitez, baina, zure errazoiketak. Zatozan bitartetan, nik pizti onegaz itz egingo dot, bere bizkar sendoak egokitu daiskuzan.

Ortaz aurrera jarraiturik, soil-soil ibilli nintzan jente zurbilla zetzan zazpigarren birako azken-erpiñeraiño. Oiña-ze-ixuri egozan arein begiak; su-lama ta are-galda, eskuakaz kentzen ebezan arat-onat: udan txakurrak, orain muturrez gero zangoz, ozka daukiezan ardi, euli ta mandeuliak uxatu oi dabezanez edo.

Gero, barriz, areitan su minkorrek jo batzueri arpegira adi adi begitu arren, ez neban iñortxo ezagutu al izan; bai-ña, oartu nintzanez, baktokak kolore ta ezaugarri berezizko katanarru bana aukien samatik dingilizka, ta euren begiak areitan asetzen ziran. Obeto aztertzearren urreragotu nitzakien, eta zisku orail baten iduri beillegia somatu neban, leoiaren antz-itxura osoa eukana bera. Are geiago, neure begi-azterketari ekiñik, odola baizen gorri ikusi neban

beste bat, esnea bera baiño zuriago yatzun erakusten eban antzarra, Euretarike batek, zisku zurian jmakera beilJegi izorra eukanak, esan eustan: —Zer degizu obi ontan? Zoaz ondiño bizi zarata, jakitu nire auzoko Vttaliano emen, neure ezker-aldean jarriko dala. Ni, florentziar onein artean, padutarra nozu, ta trumoi-antzo naigabetzen daustiez belarri-min-tzak ekin latzean deadarka: «Betor zaldun gurena, iru pikudun ziskua daroakena». Gero, aoa biur-azorik, idiak bere sur-zilloak miazkatzeralean lez, miiña atera eban. Baiña ni, astiroegi ibillirik, lar ez luzatzeko esan eustanari gogaikarri ez izatearren, bizkar-gaiña erakutsi neutsoen arima doakabe arei.

Orduko piztitzarraren zerrara igonda aurkitu neban Zuzendaría; eta erausi eustan: —Kementsu ta ausart zaitetz orain. Onelango mailladiz ezta emendik jasten; igon aurrekaldera, buztenak kalterik egin ez daizun, erdian neu joango naz-ta. Lauerdeneko min otza aurrez sentiaz atzazkaletako margoa galdu ta aínubea gogoratuaz bakarrik osoan dardarazten danaren antzera gelditu nintzan itz oneik entzutean; itzok, baiña, ugazaba onaren begi-aurrean mirabe mazalak senti oi dauan lotsaria oar-azo eusten niri.

Onenbestez bidutziaren lepo nasaian jarri nintzan, eta «Eutsi, otoi!» esan nai izan neutson; neure ustez beste, alan be, ez yatan abotsik etorten; eta ori, galzori guztietan onez atera nindunak, igon nintzaneko, oratu ta bere besoe-kin eusten eustala. Ondoren, arek ots: —Geri.on, asi ibliten, bira zabal ta astiro jatsiaz: gogora egik daroakan sortabarria.

Ur-ertzetik urrinduz doan ontzia lez atzeraka joan zan piztia, ta bere zirkin-igiera guztiak azke somatu ebazanean, len bularra eukon lekurantza buztena biratu ta edaturik, aingira lez dardarazo eban, erpakaz aizea erakarriez. Faeton'ek<sup>3</sup> bildur andiagoe ez dot uste izan ebanik, oindiño be ikusi daikenez zerua errerik galgak itxi ebazanean; ezta Ikar zorigaiztekoak<sup>4</sup> be, argizaia urtu ta bere aitak «Bíde txarez zabiltz» didar egitsola, gerritik egoak jausten yakozala

oartu ebanean; sor ta lor, ízuak jo nindun, bai, aidean oso ta begi-aurrean, pjztiaz landa, eusgarri bage neure burua ikust nebanean.

Au astiro, astiro ibilten asi zan; biraka joian jatsiz, baina betartean eta gorputz-azpian sentítzen neben aizeaz ezik, ni ez nintzan konturatzen. Urak leza-barnean ateraten eben oskar-barbuiUa ikaragarria entzuten asi nintzan eskumara; beraz, burua makurtu ta beerantz zuzendu nebazan begiak: lipar aretan, amiltegi aren aurrean osorik izu-ikaratu nintzan; an ikusi nitun sutzarrak, an entzun nitun negar-aiak! Dardar-laztua, neure baitan kiríbildu bear izan neben. Eta orduan oartu nintzan, lenago ikusi ez nebana, biraka giñoiazala beeruntz; oiñaze andiak nainun moltsotuta geugandik urre bai geunkozan.

Ez dei ez txori ikusi bage, luzaro egon yatzu mirotza goian egaz; bere zaiñari esan-azo dautsa: «E! , jatsi bein! ». Eta txoría azkenez, nekatua, eun bira iasterrez goiak artu ta zearkatu ostein, beera jasten da, esaneratu ebanagandik urrín, muker ta zaputz, kokaturik. Orrelaxe itxi ginduzan Gerion'ek leza-barreanean, arkaitz zartatu baten ondo-ondoan; eta gure soiñez askaturik, uztaiak erauzitako gezia lez urrindu zan.

(1) Gerion, mitu-mamua; azpLkeria adierazten dausku.

(2) Arakse, lidítar neskatzá. Euna eioten Minarba'ri irabazi eutsolako, onek aramu biurtu eban.

(3) Faetan, Eguzkiaren seme; bein suburdia zuzentzen ziararduala, edeak uts-egiñik, lur gaiñera jausi zan.

(4) Dedalo'ren seme. Argizalako egoz egazka, Eguzkira lar urre-ratu zalako, itxasora amildu zan

## XVIII KANTUA

Muiña.—Zortzigarren bira\ iruzur edo marrokeri-zaleak dagoz emen.—Amar obi biribil daukaz.—Lenengoan, zantarrak eta lilluratzailleak txerrenen zigorpean bizi dira.—Dante'k an aurkitzen dauz Caccianemico ta Jason.—Bigarrenean, legunkari ta loúngazaleak sats-obian murgil dagoz.

Leku bat ba-da inpernuan, Malebolge (zisku-gaizte-tsi) deritxona, ingurumari daukan esia ezik, beste guztia arrizko ta metal-kolorezko. Oxin naikoa zabal sakona edegiten da zelaiguna its aren erdi-erdian; oxin orien mana ta egikera abagunez adieraziko dot. Biribilla da osin eta esi jagi ermoaren bitartean dagon zabal-unea, ta batrun amar aranetan berezita dago. Gaztelu batek, seguruago egiñik, inguruko ormak jagoteko euki oi ditun luban-obi askoren antzera, nunbait; eta obi oneik, ate aurretik beste aJderaiño doazan zubiak daukiezan lez, emen be bardin arkaitz batzuk aurreratzen ziran mendi-oiñetik, ertzak eta obiak zearkatuz, areik ebagi ta alkar-batzen ebazan oxiñeraiño eldurik.

Gerion'en zerratik jaskeran, auxe zan gu aurkitzen giñean tokia. Olerkariak ezkerrera artu eban, eta ni ari jarraika orpoz orpo. Eskumatara erruki-zio barriak ikusi nitun, ots, lenengo obia asetzen eben oiñaze barriak eta iruzurraren adiskide barriak. Ondoan billois egozan pekatariak; emengo erdikoak gure aurrez aurre etozan, angoak barriz geugaz bat ebiltzan, baiña oinkada luzeagoz.

Erromatarrak, Urte santuz, Sant'Angelo zubitik gizatalde andiak igaroten diralako, erabagita daukie, gaztelutik zear Kepa Deuneruntz doazan guztiak alde batetik eta Mendi'runtz doazanak bestetik ibilli daitezala. Arkaitz baltzaren alde batetik eta bestetik edu orretan ikusi nebazan deabru adardunak zaaro-zigor andiakaz, gaiztetsien lepazurrak erruki barik astintzen ebezalarik. O, areik bai bizkor bernak jaso, lenengo zartakora! Ez egoan an iñor ez bigarrenaren ez irugarrenaren zain.

Nire begiak, nenbillela, gaiztetsi batenakaz gurutzatu ziran; kolkorako nik: «Au ez dok lenengoz ikusia». Eta zeataago a ikusi naírik, oiñak tinkotu nebazan; Maisu onak be bardin egin eban, baita niri zerbait atzeratzen itxi be. Zigortuak uste 'eban burua makurtuaz ostenduta egoala, baiña orrek ez eutson balio, ta bota neutsan: —Zu, begiak bean josten dozuzan ori, guzur-malo ta sasi-itxuraz ez ba' zabiltz, Benediko Caccianemico zaitut. Zek, baiña, ekarri zaitu bazi (xaltza) ain pipertsura? Eta ak niri: —Gogo otzez diñot; baiña zure izkera argiaren aurrean, beste aldíko mundura gogora dakarstan orren aurrean, amor dagit, Jazokun ontaz nai dana esan arren, neu izan nintzan Ghisola liraiña markesaren guraria egitera beartu nebana. Eta ez naz emen negar dagien boloñarren artean bakarra; alde-rantziz, toki au areitarrez beterik dago-ta, Savena ta Reno tartean gaur ezta obi ontan beste miin, *sipa* (ederto) difíoenak; eta diñotzudanaren autor edo agiririk nai ba'dozu, gogora egizu gure zikoizkeri oia.

Olan mintzaten zala, txerren batek, atzetik zigortuz, esan eutson: —Aurrera, zantar; emen ez daukazu, ba, diruzko emakumerik.

Neure Gidafiagaz batu nintzan orduan; ta urrats batzuk egiñik, menditik urteniko arkaitz baten ondora eldu giñean. Aren gaiñera igon astiro, astiro, ta gero aren lepazur Likn rrean eskumatara biurturik, egoitz betikor atatik atera gintzazan. Morkaitz a, gaiztetsieri bide egiteko, zubi antzern azpitik arrotzen dan lekura jo gendunean, Zuzendariak c^an eustan: —Geldi emen, eta égizu, al dala, zugan kokatu dni-tezala gaizki-jaijo guzti orrein begiak; eztozu oindiño orre'n betarterik ikusi, oraiñarte geu gentozan bidez ibilliak dira-ta

Zubi zarretik begiztatu gendun beste aldetik gugana etorren erreskada luzea, eta a be erabat zigorrez astindua. Maixu onak, nik ezer itandu bage, esaustan: —Begira or datorki-gun ítzal andi ori: oiñazetua dala, eztau raalkorik ixuriten. Orrek bai, oindiño be, atzbeigi ederra! Jason<sup>l</sup> da ori, bere antze-kemenez Kolkida'n urrezko zamarra ostu ebana. Lemnos izarotik igaro zan ugarte atako emakume azarri biotz-

bageak ango gizasemeak oro il ondoren. Antxe arteziz ta itz apaiñez atzipetu eban aurretik bere lagun guztiak iruzur-tu ebazan Ipsipile<sup>2</sup> gaztea; antxe itxi eban izor ta bakar. Gaitz árek, ordez, olako oiñázea damotsa orain; Medea be, baita, orrela apentzen da. Berakin doaz antzeko ziri-sartzaille izan ziranak; lenengo obiz ta berton atsekabetzen diranai buruz, asko bekizu au jakitea.

Zidor estua bigarren ertzagaz gurutzatu ta beste ustai baterako eúskarfi lez dan unean aurkitzen giñan onezkero. Sur-aizeka ta eskuz alkar joka/an ikusi genduzan obi barri batean pillotuta dagozanak. Ertz-egalak lizunak janda agirí ziran, beeko lurfun-jario kirátsak egiñik urrean, begí-surren naskagarri. Obi au txit sakona da-ta, arkaitz guztia gáin-beera ikusten dan uztaiaren guenaJdetik so-egin ezik; ezin daiteke ondo begiz jo.

An egokitu giñan, ta andik ikusi gendun giza-iroldeditik etorrela zirudían sats-artean murgildutako jentea. Eta an azpian begiak zorrotz neukazala, buru bat ikusi neban oso kakaztu, enitar ala eleiz-gion zanentz ezin igarteko erara. Kaskar arek esaustan: —Zer dozu, malo orrei baiño zorrotzago, ni begiratzeko?—. Erantzun neutson: —Oroia zintzo ba'jat, beste iñoiz ikusi zaitut ule aratz be, ta zu Luka'ko Ales Interminei zaitut; orregaitik so-egin dautzut besteai baiño biziágo.

Orduan ak, kaskarreko bat bere buruari emonaz, ots: —Losingak murgildu nabe emen, neure miiña ezpai-neban ortan eguno ase.

Ortaz, Zuzendariak egotzi eustán: —Zabiltz burua apur bat áurrerago dozula, mirabe loi tximaz bete aren arpegira zure begiak eltzeko eran; orain kiribil orain teink, bere atzazkal loi-zikiñakaz gorputzeko aragia urratzen diardu. Taide<sup>3</sup> dozu, emagaldua, bere mailaleak: «Doe andiko naia-tzu?» itandu eutsonean, «Oso zoragarri» erantzun eutsana.

Eta onegaz asetua beite gure ikusmera.

- (1) Jason, gerkar prjnt<sup>ea</sup>, urrezko zamarra beregandu ebana.
- (2) Toante, Lemnos'ko erregearen alaba.
- (3) Taide, urdaska ospetsua.

## XIX KANTUA

MuLña.—Zortzigarren bivako irugarren obia: *simonkeri-zaleak dagozana*.—*Onein gorputzak, buruz beera sartuta dagoz obian; bernak, ostera, suak irunsten dautsiez*.—*Nikola HVgarren Aita Santua*.

O, Simon aztru! O, aren jarraile doakabeak! , zuok, onbidearen bizi-lagun ízan bear leukien Jainko-gauzak urre ta zidar orde zatatzen dozuezan gogo arrapakariok! Iru-garren obian zagoze-ta, egoki yatzue zuoi turutaren trumoi-otsa.

Aren urrean gengozan egon be, leza erdira zuzenik jausten dan arkaitzaren armora igonda. O, Jakituri goren-gorengo! Bai darakusazula era ta antze zeruan, Iurrean eta ludi gaiztetsian! Zuk bai neurritz indarra banakatu! Ertz eta barne zuloz beteriko arri laru bat ikusi neban, zabalez danak bardin ta biribil erabat. Zabal ta andi, neure Doniane apaiñean bateo-arria osotzen dabenen antzekoa, egin-egiñean be. Urte askorik ez dala, onetariko bat apurtu neban nik, aren barruan ito-zorí aurkitzen zan umetxo bat salbatearren; eta asko bei diñodan au, edozein gizaseme artaz etsian egon daiten.<sup>1</sup> Zulo arein ao bakotxetik pekatari baten oiñak, eta bernak isterreraíño, ateratzen ziran, beste soín-alderdia barru geraturik. Oin biak ixiota eukiezan oso; beraz, lo-kazurrai eragiñik gogor astintzen ziran, edozelako biurri ta lotura apurtzeko eran. Koipez ígurtzi zerkien gain-azala sumiiñak miazkatu oi dauan antzera, arein orpo ta beatz-erpiñetan suak bide egian.

Nik esan neban: —Nor dogu, Irakasle, oiñazetan dagon a? Beste bere lagunkideak baiño bízi-minkorrigo agerturik, sugar ixetuagoak iruntsiz igartuten dauana?—. Eta ak niri: —Leza-azpttik urrago dagon labar-zear eroan zagidazan nai ba'dozu, berberak esango dautzu nor dan eta zeintzuk diran bere gaiztakeriak—. Eta nik: —Zuri atsegin yatzun guztia, ondo derist; jabe zaitut, ta ba-dakizu zure gogo danetik al-

denduten ez nazana; baita ezagun dozu barruan ixil gorde oi dodana be—. Orduan laugarren ertzera igon giñean; gero, itzulia eginda, ezkerretik obí zuloturantz jatsi. Irakasle onak, barriz ez ninduan bere albotik itxi, ain bizi oin-eraginka negar egienen obi-egalera eroan nindun arteño.

—O!, zareana zareala, soin erdia lurpean daukazun ari-ma gaixo, asi nintzan esaten; taket iduri lurean sarturik zagozana: bare zaitez, al ba'dozu.

Gizaeraille okerra autortzen dauan lekaidea lez nengoan ni; lurean buruz beera sartuta daukiela, autorrentzuleari dei dagitso arek, orrela eriotzea luzatu egingo daulakotan. Eta ak deadar: —Emen zara noiz-bait, emen zaitut zutik, Bonifazio? (2). Idatziak guzurra diñost, urte batzuk ezkerero. Orren arin asetu ondasun areik? Azpikeriz zeuganandu zendun Andera líraíña (3), ta gero be etziñan bildur izan bera loiazteko.

Au. entzunez, esan jakena ulertu ezta, erdi-lotsaturik, zer erantzun ez dakienen antzera geratu nintzan. Bergili'k ots orduan: —Erantzun au bizkor: «Ez naz ni, ez naz ni zuk uste dozuna»; nik agindu eustanez erantzun neutson. Gogoak, barriz, oso biurtu zituan oiñak; gero, antziz ta negar-mintzoz, esan eustan: —Zer da, ba galdetzen daustazuna? Nor nazan jakin bear ba'dozu, ta arkaitz malkartsu zear ortarako jatsi, jakizu ni mantu andiz jantzia izan nintzala; eta, egiaz. Otsemearen séme, on-gosez irrikatua; an goian, otsokumeen ondasunak<sup>2</sup> ugaritzearren, urrea sartu neban ziskuan, eta emen bean neure burua. Neure kaskapean dagoz obiratuta beste doipuruak be; nire aurretjk simonkeria egin ebenak zulo medar onetan dagoz ederto zapalduak. Ni be or murgilduko naz, ots-otseko itauna egin dauztudanean bera ziñala uste izan dodana etorri daitenean. Baiña ni emen oiñak erreten zilipurdi nagoanetik, a oiñak sugorri emen egongo dan baiño aldi geiago igaro da; aren ondoren etorriko da, ba, sarkaldetik, lege bageko artzain bat, gaiztakeriz makur; a ta ni berak estali bearko gaitu. Jason barria naitaez, Makabeitarren liburuan aipatzen danaren.



ideko; eta bere erregea onegaz txepel izan zan lez, Prantzi zuzendu ta jaurriko dauna aínbesteko izango yako besteari be.

Ez dakit zoroegi izan nintzan, itz oneikaz jardetsi neutsonen: —E! , otoi, esaidazu: zenbat diru eskatzen eutson gure Jaunak Kepa deunari, giltzak onen eskuetan ipíni áurfetik? Ez eutson, ziñez, ezer eskatu; esan bakar-bakarrik: «Zatoz beingoan». Ez Kepa'k ez besteak ez eutsoen Matia'ri be urre edo zidarrik eskatu, saltzaillearen<sup>3</sup> tokirako zotzean aukeratu ebenean. Zagoz ba or, ondo zigortu ori, ta zaindu arretaz Karla'ren aurka orren lotsabako egin zinduzan diru gaizki irabazia. Eta zuk zeure bizitza alaiian euki zenduzan giltz gurenai oraindik dautsiedan lotsa ta begiruneagaitik ezpalitz, itz askoz mergatzagoak erabilliko neukez; zure on-goseak illun dauka mundua, beragaitik ona ost.iko-petua ta txarra goretsia da-ta. Artzaiñak. Ebangelariak zuok zindukezan gogoan, ur gaiñean jarten dana erregeen aurre loi-orbandna ikusi ebanean; zazpi burugaz jaióa nunbait. eta amar adarrez al izatea euki ebana, senarrari<sup>4</sup> ona eder izan yakon bitartean. Urrezko ta zidarrezko jainkoak jaso dozuez; zer alde daukagu, ba, zuen eta jainko-aizun gurtzailleen artean? Areik bat gurtzen dabela ta zuek eun. A, Konstantin! Zenbat gaitz sortu ebazan, ez zu kristiñau egiteak, aberats izan zan lenengo doipuruak zugandik artu eban emariak baiño!

Onela argi ta garbi mintzatzen nakion bitartean, arek, sumin-oldez edo barru-kezkaz, zango biak iñarrosten ebazan gogor be gogor. Eder izan níntzakola uste dot neure Gidariari, arpegi alaiz entzun eban ba, aldioro, nire itz egitien soiñua. Ordun beso biakaz artu ninduan, eta, bere bular gaiñenn zan barriro be; bere bular gain estutzen nindun ni, laurçarren arri-b.idetik boskarrenera doan zubiaren goialdera eldu

arte. An, morkaitz Jakar soillean itxi eban leun-leun bere sorta laztana; zidor au auntzentzat be nekeza, egiaz: bertatik obi barri bat begiperatu jatan.

(1) Guraso-eraileak bizirik lurperatuak izaten ziran, eta buruz bera

(2) Orsini famijikoak.

(3) Judas.

(4) ApokaJipsi ta Erroma dakaz gogora.

## XX KANTUA

Muiña.—Zortxigarren birako laugarren obia: azti ta sorgiñak.—Atzerantza dabiliz, burua bestera dabelarik.—Tiresia, Aronta, Manto: Bergili'k, Mantua\*ren jatorria ta izena azdtzen ditu.—Euripil, Mikel Scott, Guido Bonatti.—Olerkairak aurrera doaz.

Nire bertsoak orain oiñaze-era barrí bat edatsi bear: lengo abestiaren ogeigarren kantu-gai, sutan buruz-beera murgil dagozanena.

Axanpa ta zotin arminduz ezo dan leza estalgetua ikuskatzeko gertu nengoala, orra nun dakustan ibar biribillean onuntz, ixil-negarka, etorren gizataldea: letani-ibildeunetan munduan baizen astiro ebiltzan oiñez oin. Urragotik begisista egiñez, gaiztetsi bakotxa, bizarretik papar-arteraiño, taiu gelgarriz biurturik egoala begiratu yatan; bizkarreruntz eukien arpegia, ta atzerantzaka ezik ezin ziran ibilli, aurrekaldeko ikus-indarra galdua ebelako.

Gizonen bat, bear bada, elbarriz aurkitu leiteke oso erkinduta; baiña eztot antzekorik ikusi, ta eztot uste daitekenik be. Jainkoak bemoizu, irakurle, irakurkizun onek dauan

etekiña! Gogora zeuk, zelan euki neikezan begiak negar barík, gure giza-iduria orren bíurtua, bizkar erreten beera malkoak labantzeraiño, ur-urretik ikusi nebanean.

Orduan negar negian nik gogoz, arkaitz zorrotzeko mo-kor bat eusgarri nebala; au ikusiaz, bide-erakusleak esan éustan: —Zu be memeloen arteko al zaitut? Nor dozu gaiz-kiñago, Jainkoak ebatziaren aurrean biotz ikutzen dana bai-ño? Jaso burua, jaso; begítu gizon a: beragaitik bait-zan tebatarren begi aurrean lurra edegi, oneik, danak batera, deadar egiela: «Nora jausten, Anfiarao? Zergaitik izten dozu guda-zelaia?». Ta etzan geratu suzko lezan ondatu ta errudun baktotxa sardez artu daroan Minos'engana eldu arte. Ara, sorbaldak bular biurtu dauz; geiegi ikusi nai izan eban aurrerantza, ta orain atzera begira dago: iruntzietara bide dagi.

«Begira antza aldatu eban Tiresia \* be; ar zala eme egin zan, burutik beerako soin-atal guztiak aldaturik; eta<sub>n</sub> gizaki-ulea osterá lortu aurretik, makillaz azpiratu bear izan ebazan suge alkarbatu biak.

«Arona da txilborra beste aren sorbaldaratzen dauana; arpe bat izan eban egonleku, an bizi dan karraratarrak lan-tzen ditun Luni'ko mendietan; begiak ez eukien an ezetari-ko zoztorrik izarrak naiz itxasoa ikuskatzeko. A, ule-txima nahasiz zuk ikusetik bere bularrak ostendu ta alderdi ortan narrua oso uletsu daukana, Manto<sup>2</sup> izan zan, lurralde askotaz ibilli ta gero ni jaio nintzan tokian kokatua. Eder zakidaz pitin baten diñotzudana entzunez. Aren aita bizitzaz aldatu ta Bako ren uria<sup>3</sup> mirabetu zanean, luzero ibilli zan neskatxa munduan zear alderrai. An goian, Itali ederrean, ba-da zin-gira edo urtegi bat, Alpes'en oiñean, Tirol goi-alderantza, Benako deritxon lekuan Alemani besarkatzen dauana. Milla ta geiago errekak, nik uste, aitaturiko zingiran batzen dan ura ugaritzen dabe, Garda, Val-Camonika ta Apenino artean. Urmael orren erdian ba-da toki bat Trento'ko artzaiñak, baita Brescia ta Verona'koak be, bide atatik ibilterakoan, euren onespena emon dagikeena. Birako ur-ertza beerago

dagon lekuan jarrita dago Peschiera, gaztelu eder sendo, Brescia ta Bergamo'ri bekoki emoteko bein-beiña. Araxe dator, ain zuzen, Benako zingirak artu ezin dauan ur guztia, zelai-pentze orlegietan zear oparo dabillen ibai egiñik. Ibai oni, Benako ez, Minzio deritxo, bide bereziz Governo'raiño dabillenean, urten-ao yakon Po'n bere emaia itxi arte. Asko ibilli bage sakostak aurkitzen ditu; oneitan lotzen da zabal ta zingiratsu: udan kirats izan oi da.

«Neskatx gordiñak, ba, andik igarotean, lurra ikusi eban, lantzar ta iñor bagarik, zingiraren erdirantza. Gizarteko ar-emon guztitik iges egitearren, inguru soil atan geratu zan mirabeakaz, bere azti-lanari ekiteko; antxe bizi izan zan, ta antxe itxi eban bere gorputz utsnla. An inguruetan sakanaturik egozan gizonak gero, toki orretan alkartu ziran, alde guztietatik biratzen eban zingiragaitik segurua zan una artan noski; gero zanaren azurrak oiñarri arturik uria jaso eben, lenengoz beretzat autu ebanaren izenez, geiagoko aztizio barik, Mantua deituaz. Beiñola izan zan an arima geiago, Casalodi <sup>4</sup> ergelak Pinamonte'ren ziri-sartzea izan aurretik batez be. Aurretiaz diñotzut au, nire sorterriari beste jatorriren bat ezarten iñoiz entzun ba'dagizu be: guzurak ezin lausotu egirik.

Erantzun neutson: —Irakasle, zure errazoi-ariak egizko yataz oso ta nik siñistu egin bear: beste guztiak illinti itzali lez litzakidaz. BaLña esaldazu, zuk ikusten dozun, igaroz doan jente artean, nabarmengarri danik, auxe baita orain kezkatzen nauan gogai bakarra.

Ordun esaustan: —A, arpegitik sorbalda baltzeraneta-raiño bizarrez beterik dagoana, Grezia, ia seasketan be, gizezko barik geratu zanean, azti izan zan; eta, Kalka'gaz batera, lenengo lokarri ta бага ebagiteko zantzua berak emon eban Aulide'n. Euripil dau izena, ta antzerki garai itsak be orrela izendatzen dau nun edo nun. Ondo dakizu zuk, a buruz dakizu-ta. Bestea Mikel Scott izan zenduan, orain ain matxar ba'dakusazu be; bete-betean ezagutu zitun aztru-antzearen azpi-marro ta guzurak. Or dozu Guido Bonatti, baita an

Asdente be; orain gurago Jeuke, ausaz, bere narru ta aria itxi ezpa-leuz, baiña beranduegi damu da. Ikusi, baita, azti biurtu ta bedarrez ta iduríz begizkoak eta egiteko, jostorratza, aiñezka ta gorua bertanbera itxi ebezan sorgin gai-xoak.

Baiffa erdu orain, dagoneko Kain arantzaz<sup>5</sup> ikusten dan izarkia boronbil-erdi bien mugan dago, ta Sevilla baiño beera-go ítxasoa ikutzen. Biribilla zan iUargia aurreko gabean be; zuk ondo gogora bear dozu, bein baten, oian itzaltsuan zear zenbiltzala, zelan lagun izan jatzun.

Onela mintzatzen jatan, eta bitartean bidez bide genbiltzan.

(1) Teresia, Tebas'ko sorgiña, suge bi esku-zigorrez banatu ebalako, emakume biurtua..

(2) Tiresia'ren alaba, Bergili jaiio zan mantua sortu ebara.

(3) Tebas, Bako'ri eskiñitakoa.

(4) Albert Casalodi, mantuarra, Pinamonte'k atziperua, uriaz jabetu zan.

(5) Iliargia, onen orbanak dozuz Kain'ek bizkar gaiñ daroazan sasiak

## XXI KANTUA

Mutña.—*Zortzigarren birako boskarren obia, zuzena txar-to erabill ebenak dagozana.—Pike irakiñezko zingara baten bizi dira, pulunpatuta.—Txerrenak, asarre bizi, Olerkarien aurka datoz, eskuan arpoiak dituela. Gero, baiña, euren buru egiten dauanaren aginduz, bidea azke izten dautsoe.—Suleza zakarra.*

Orrela, zubi batetik bestera, ta nire Antzerkiak zetan edesturik ez daukan gai askotaz izketan, joan giñoazen aurre-ra, boskarren obi erpiñera eldu arte. Emen gelditu giñean, Malebolge'ko beste sakona, alperrikako negarrez nasia, ikus-teko; izugarri il'luna iduritu yatan.

Benetzi'tarren ontzietian neguz, esaterako, itxasoan ibilli ezin diran ontzi zartatuak egokitzeko dan pike zaillak irakin dirakin bitartean, onek bere ontzi-egiteari daragoio, ak barriz joan-etorri berein egindakoaren saietsak pikez lardatzen diardu; angoak aurreko aldea begiratzen dau, emengoak atzeko aldea; urliak arraunak dagiz, sandiak txikotak biurtu; oneik, azkenik, atzeko aga nagusia artezten dabe. Era berean, eta ez su-bidez, Jainko-gurariz baiño, irakian an bean be alde guztietatik ertzak loiz itsasten zituan lerdo edo erretxin lodiak.

Nik ba-nekusan, baiña ez neban ezer somatzen irakiñak aterazten eben gurgulu, jagi baizen laster, beera joiana ezik. Begi-zorrotz ara soka nengoala, nire Zuzendaria oratu ta nengoan tokitik beregana erakar nindun, esanik: —Kontuz, kontuz!—. Bertatik itzuli nintzan, itzuli bear dauana ikusteko nagi ibilki, beingoko izuak astinduta, ikustearren, alde egitea luzatzen ez dauan gizonaren antzera; eta, geure atzean, zubitik zear arin etorren txerren baltz bat ikusi neban.

Oi, aren baso-iizi antza! Ta zemaika neukan, zirudienez, ego-zabal ta oin-arin! Bere bizkar konkor arroa pekatari bat eroan istar-tolaka, ister-mamiñetik gogor oratuta. Gu gengozen zubira eldurik, esan eban: —O, Atzapar-gaizto! , ona emen Zita doneko zarretatik bat; ezar egizu azpian, ni ba-noake ba barriro be orreitakoz oraindik ondo ornidua don lur atara. An danak dituzu salkorrek, Bontur izan ezik; eta *ez*, diruagaitik, *bai* (1) biurtu oi dabe—. Beera jaurti eban, eta arkaitz latzetik itzuli zan txit azlcar, txakur azke batek lapurrari jarraitzen dion baiño be azkarrago, nunbait.

Pekataria, oster, murgildu zan pike-pertzan, eta barriro gora uztai antzera; baiña zubi ostean gordetako txerrenak garrazika iñoen: —Emeñ ez daukak Arpegi santurik; \* emengo eztok Serkio'n<sup>3</sup> lango igeri egitea; gure burdin-puntetatik burua gorde nai baldin ba'dok, ez egik pike-azalik ikutu—. Ondoren, eun arpoiz gitxienez, eraso ta ziztatu eben, esanik: —Naitaez gorderik dantzatu bear dok emen, eta, al ba'dok, ixillean uko. Sukaldariak be bardintsu egin daroe: mutil

areik lau-ortzeko andiz zaintzen dabez maskeluan egotzi-tako aragi-zatíak, gain zear igeri agertu ez daitezzen. Maixu onak esan eustan: —Zu oneik emen ikustea on ez da-ta, ba-bestuko zaitun arkaitz ostean gorde zaitez; eta niri kaltarik ekar baldin ba'leuste be, ez arean izutu; lendik be, ba, gauza oneik ezagun ditut, gogo utsal orrein artean egona nozu-ta. Au esanaz, zubiaren beste aldera igaro zan, eta seigarren ertzera eldu zanean, bere azkartasuna erakutsi bear.

Ate aurrean, beingoan geldi, eske dagon txiroaren atzetik urten oi diran txakurren ortz-karraslea ta oldar antzekoz urten ziran txerrenak be zubipetik, arpoiak aren aurka itzulirik; baiña, arek oiú: —Ez bei gero zuotatik iñor ausartu! Zuen sardangak ni sastatu baiño len, betorkit bat aurrera ta entzun begist, ta gero gogoznartu begi iraindu bear nauan ala ez. Areik danak garraxí: —Oa, Buztan gaiztetsi!—. Eta orduan areitatik bat igitu zan, besteak geldi egozala, eta aurreratuz esan eban: —Nok aterako ete zaitu gure erpeta-tik?—. Ik ikusi, Buztangaitz —dirautso nire Irakasleak—; Jainkoak orrela nai ezik eta norbere alanbearrak ortara bulztatu ezik, zuen iskillu guztiak gorabera, toki ontara ezere kalte bagarik etorriko nintzokala uste ete dok? Itxi nagik aurrera joaten, bide oil au beste bati be erakutsi dagiodan.

Ontan, oso abaildua ikusi neban txerrena bere eraso arroan; arpoia bere oiñetara jausten itxi ta lagunai diñotsoe: —Goazen, ez begio iñok kalterik egin—. Eta Zuzendariak niri: —O zu, zubi ondoko arkaitzpean ain ostonduta zagozan ori, zatorkit ona biidur bagarik—. Abiatu nintzan, ba, ta ari urreratu nintzakon bertatik; txerrenak, alajaiña, aurrera etozen eta nik uste neban areik ez ebela esana bateko. Ordun izuak jo ninduan oso, beiñola, egi-une bat bide, arerio taldez ingurutatuta, Kaprona'tik urten ziranak bildur-ikaraz ikusi nituan lez, edo geiago.

Zuzendariari urreratu nintzakon arik geiago, soiñez soin, eta ezer onik eskintzen ez eustien areingandik ez nitun neure begiak aldentzen. Areik, kakoak eratxirik, batak besteari iñotsoen.—Kurkuluxean sartuko al dautsat?—. Eta danak

batera erantzun: —Bai, sar egiok—. Baiña nire Zuzendari-kin aututan ziarduan txerrenak, bertatik itzuli ta ots egin eban: —Geldi, geldi, Ule-erazule—. Gero, esan euskun: —Galezpen ontatik zear ezingo zarie urriñago joan, seigarren makoa apurtuta bai daukazue barrenean. Aurrerago joan gogo ba'dozue, zoaze alderdi malkartsu ontatik; urbil samar do- zue beste oztopo bat, eta andik igaroko zarie. Atzo, garai ontaz bost ordu goroago, milla berreun ta irurogei ta sei urte bete ziran, bidea ausi zala.<sup>4</sup> Nire orieitako batzuk ara bial- tzeranoakizu, iñok bururik piketik aizetara ateratzen dauan ikustera; zoaze areikaz, ez dautzue kalterik egingo-ta. —Au- rrera, Makurtzaille, Intz-zapaltzaille —asi zan oiuka—; baita zu be, Zakur-txar; Bizar-kiskur'ek zuzenduko zaitue ama- rrok. Betoz gaiñera Nai-bizi ta Suge-pozoi be; Basauntz, betagin andiduna, ta Zakur-urratzaille ta Itz-ontzi, ta Su-bizi zoroa; ibilli aspertu barik, pike irakin biran burrunbatsu. Oneik, batriz, beioaz azke ta nasai, obi gaiñez osoan doan uarri atara eldu arteño,

—O, Irakasle! Zer da dakustana?, esan neban; bide baldin ba'dazaguzu, goazen zaintzaille barik; nik neuk ez dot bear. Zu oi lez zur ba' zaitut, ez dakusazu zelan karras- katen dabezan agin-ortzak eta alkarri kiñu, gaitzeren bat gain dogula adierazo naiean?—. Eta ak niri: —Etzaitze bildurtu; karrask begiez naitara agin-ortzak. Olan ba'dagie be, irakiten dagozan errukarri orreingaitik dozu.

Ezkerreko aldetik gorde ziran, danak astrapalada uts; aurretik, baiña, bakotxak bere miña usiki eban agiñez, bu- ruzagiaren eutsoen leialtasuna erakustearren, eta onek uzkia turut-adar biurtu eban, joatorduan.

- (1) Im-mirrí2ko esana. Bontur zan, antza, g12asemerik salkorrena.
- (2) Luka'n jauresten da Arpegi Santua
- (3) Luka'tik doan ibaia.
- (4) Kristo gurutzean ii 2anean, suntsitua.



## XXII KANTUA

Muiña.—*Boskarren obian darrai.*—*Zianpol aurkitzen da be olerkariak\ napartarra au, Teobaldo erregeren otseiña, aren babespean salerosle izana.*—*ZianpoVen amarru gaitza, deabruen kakoetatik iges egiteko.*—*Deabru bi, alkar-joka, ui edo pike irakiñean jausten dira.*

Ikusiak ditut lendik zaldizkoak zelaia izten, burrukan asi ta liskartzen, baita iñoiz atzeruntz toles egiten be; lasterka ikusi ditut, o aretiarrak! , zuen lurralde zear, eta oinpean berori sakailtzen; eraso ta saíoetan ikusi ditut baita igitu ta gudukatzen, turut kanpai tuntun-otsera, bai gaztelu-ikurrez, bai geure oituraz eta bai atzerritarrenez. Baiña txirul ain bakanez ez dot sekula ikusi zaldizkorik ez oiñezkorik; ez lurrean ez ortzean, ez dau iñoiz itxas-ontziak olako zuzen-argirik izan.

Amar deabruekin giñoazen gu —bahzu izugarri!—; baiña elizan deunakin eta ardangelan mozkorrakin, esakuna danez. Alan be, iu-pertzara adi-adi nengoan ni, obiak artzen eban dana ikusi ta aren barnean nortzuk egozan jakin-nairik. Izurdeak uretatik at jauzi-saltu egin oi dabe, ustai egiñik, itxas-gizonei ekaitz-arrtskua adi-erazoz; olaxe gaiztetsi batzuk be, euren oiñazea samurtzearren, bizknrra erakusten eben, baita gorde be tximista baizen arin. Eta ur-potzu er-tzean igelak, esaterako, anak eta gorputz osoa uretan euki arren, burua azalean agertzen daben lez, pekatariak be buruzut egozan, or-emen; baiña Bizar-kiskur alderatzen yakene-koxe, ui-irakinpean ondatzen zíran barriro.

Areitako bat ikusi neban —eta gaur be dardaraz dot biotza—, lagunak baiño geiago luzatu zana, igelen gisara, bat geldi ta murgil bestea. Zakur-urratzaillek, agandik urre egoan-eta, uia mara-mara erion uleditik sardeaz oratu ta kanpora atera eban, ngabere bai'litzan. Nik ba-nekizan orduko deabm guztien izenak, Buztangaitzek autu zitunean zelan dei egin eutsoen gogoan nebalako.

—O Subizi! , sar egiok sarde-punta bizkarretik, eta jnarutu egik —deadarka iñoen gaiztetsi guztiak batera.

Eta nik oles: —Ene Irakasle, jakizu nor dan, al ba'dozu beíntzat, etsaien eskuetan jausi dan zori gaiztoko ori.

Nire Zuzendariak, urrerago joanik, nungoa zan galdetu eutson; arek erantzuna: —Napar erreiñuan jaio nintzan. Jaun baten zerbítzari jarri nindun amak; bere buru ta ondasunak suntsitu ebazan banatzaille bategandik sortua. Teobaldo errege onaren aldeko izan nintzan geroago, eta aren babespean salerosi aizuan jarclun neban; salda irazeki ontan zuritzen dot orain gaiztakeria. <sup>1</sup>

Eta Basaunt'ek, ao-mutur bietatik, urde antzera, betagin zorrotzak erakusten zitunak, ondo oar-erazo eutson zein saminki barentzen eban areitako batek.

Katu gaizto artean jausi zan arratoia, nunbait; Bizarkiskur'ek, bada, beso artean estutu eban, au esanik: —Geldi or, sardekatzen auteño—. Eta arpegia nire Maixuagana itzulirik, geitu eban: —Itaun egiok, ezer geiago jakin nai ba'dok, nik eta orreik zartaka zatitu baiño len,

Nire Zuzendariak galde: —Esaidazu, otoi, ui ortan egotzita dagozan errudunen artean, iñor latitarrik ezagun dozun—. Arek erantzun: —Arestian alde egiña nozu, andik urrekoa dozun bategandik. Uipean ba'nengo egon oraindik, aren antzera, ez nintzake ez atzapar ez sarde-butu bildur izango.

Nai-bizi'k otsegin eban orduan: •—Laregi jasan zaitugu—. Ta besotik oratu eutson arpoiaz, lenengo zartadaz ukondo osoa erauzirik. Sugepozoi'k be zangoetatik eldu nai izah eutson, baiña amarburuak guztiengana itzuli ta begirakun asarrekorra jaurti eutsen inguru-minguru. Arein barruak zerbait baketu ziranean, nire Zuzendariak, egin etsoen zauria arakatzen egoan agana zuzendurik, beingoan itandu eutsan: —Nor dozu, baiña, ertzera etorteko, zeure zoritxarrez, itxi bear Lzan dozula diñozun ori?—. Eta ak erantzun: —Gomita <sup>2</sup> anaia da, Gallura'koa, gaitz-ontzi, bere ugazabaren areloak

eskumende eukirik, danak a goratzea jaritxi ebana, Urrea artu eban, ta jarei itxi ebazan, berak autortzen dauskunez; beste egikizunei buruz be, etzan edozelakoa izan, itz-ausle zakar baiño. Sarri askotan diardu Mikel Zanke'k<sup>3</sup> Logodoro jaunagaz autuan, eta Zerdeña aitatzuz ez dira iñoiz aren miiñak nekatzen. Ai, ene! , ikus beste orren ortz-karraska! Are geiago esan nai neuskizu, baiña barriro be ezkabia urratu gura ete daustan, bildur naz.

Eta txerren-buruzagi andiak, nun zauritu billa begi-ernai ebillen. Itz-ontzi'gana biurturik, otsegin eutson: —Ken adi, egazti tzar! —Toskatar edo lonbardarren bat ikusi edo arein aotik ezer entzun nai ba'dozue —ebagi eban gero gaiztetsi izutuak—, neuk ekar-azoko ditut ona. Baiña begoz atzapar madarikatu orreik pixkat baztertuta, bildurrik bage etor daitezcan areik; nik, erabat, toki ontan jesarrita nagola, bat nazanez, zazpi erakarriko ditut, txistua joaz bakarrik, gutari-koen batek uitik at (kanpora) burua ateratzen dauanean jo oi dogunez jota.

Zakur-txat'ek, au entzutean, musturra jaso, buruari eragin eta deadar: —Zagoze ernai, ta oar zelako maltzurkeria asmatu dauan barriro murgiltzeko!—. Arek, ostera, maltzurlakioz astun, jardetsi eutson: —Maltzurra nozue, bai, egiaz, batez be min-oiñazeak neuretarrei andiagotzean!—. Makurtzaillek orduan, barne-isiari ezin eutsiz ta besteen aurka, erantzun eutson: —Uira egozten baldin ba'az, ni ez noakek ire ondoren lau-oinka; bestera, egaz nabilkek ui-gaiñez. Mal-karra izten yoagu, baita ruiñoa be babesleku, ta ikus daigun i bakarrik gu baiño geiago azen!

Oi zu, au dirakurzuna! ; ikus egizu maltzur-joku barria! Txerren guztiak bestekaldeko erripara itzuli ziran, eta danen artean lenen, biurri-mukerren agertu zana. Ez eban napartarrak aldirik galdu: lurrean oiñak tinko, saltu bat emonez, etsaien menetik txirrist egin eban. Amarru onegaz goibe) egozan txerrenak, batez be oker aren errua ebana; augaitik, aren ondoren joan ziran, oiuka: —Atzemon aut! —. Ez eban, baiña, ezer lortu; egoak ezin cragin, ezin gainditu bildurra.

Zianpol uipera zan; Makurtzaille, barriz, buru-zut, gorantza egaz. Orrelaxe aatea be bat-batez murgildu oi da uretan, sa-pelaitza urreratzean; onek gero atzera egin bear, gogo-jausi ta musin. Intz-zapaltzaille, sumin bizi ixekagaitik, txerrena-ren atzetik egaz joan zan, lislar billa, gaiztetsia igestu ya-kolako pozik. Eta ítz-auslea gorde zanez, lagunaren kon-tra itzuli ta obi gaiñean bertan sartu eutsozan atzaparrak. Baiña besteak be, mirotz trebea bai zan, eratziki eutsozan bereak, eta biak jausi zíran zingira irakiñaren erdian. Laster asko banandu zitun beroak; baiña ezin jagi iñolaz be, pike-darío bai eukiezan euren egoak. Bizar-kiskur be asarre, bes-teak lez, ta andikaldeko erripara bialdu zitun lauraiño, euren sardakln; eta ara eldurik azkar bai azkar, erdi kiskalduta obi gaiñean zetzaen oiñazetu bie euren sarda-muturrak lu-zatu eutsiezan.

Guk an itxi genduzan oraindik, sumin gorrian.

(1) Zianpolo bat, Naparroa'ko erregearen aldeko.

(2) Nino Visconti'ren kantzillera, GaUura'ko epaikari, gero bere biurrikeriakatik urkatua

(3) Logodoro-ZerdeñYko jaurlaria.

### XXIII KANTUA

Muina.—*Zortzigarren birako seigarren obia: azalutsak dagoz emen, azalez urrezko diran berun-mantupean buru-makur dabilzala.—Olerkariak an aurkitzen dabez Boloni'ko Katalano ta Loderingo anaiak.—Kaipas ta Kristo gurutzera epaitu eben besteak, lurrean josita dagoz inpernuan.*

Ixil, bakar ta jagole barik, bata bestearen atzetik giñoia-zan, lekaide txikiak bidez ibilli oi diran antzera. Aurrera-txuago ikusi gendun alkar-liskarrak, Esopo'ren alegia, uga-

rasioa ta satorra aitatzen dituna, gogora ekarri eustan; *mo* (orain) ta *rissa* beingoan itz-atalak, bi onein asi-amaiak arduraz begiratu ezker, ez dira jazoera biok baizen antzekoak. Eta burutapen batetik bestea beingoan datorren lez, beste barri bat sortu zan onegandik, aurreko bildur-ikara bikoiztu eustana. Ona orduan gogoak emona:

—Txerren orreik geugaitik artua dabe txulut ori, kalteko ta erdeñagarri, ta uste dot oso irainduta dagozala. Gaizkinnaiari sumiñá erantsi ezketiño, txakurrak erbiari samatik baiño bizi-zakarrago erasoko dauskue.

Orduko uleak kískurtzen sentitzen nitun nik bildurrez, ta adi-adi atzera begira nengoala, esan neban: —Irakasle, arin bai arin ostonduten ez ba'gara, atzetik datorkiguzan deabruen bildur naz ni; bai, atzetik datoz, ezta ídurikizun bakarrik, egiz somatzen ditut eta—. Ak niri: —Leiar berundu (ispillu) ba'nintz, ez neuke neuregan neure iduria ikusiko zure barruan dakustana baizen bizkor. Oraintxe berton zure burutapenak neureakaz gurutzatzen ziran itxura ta arpegi bardinpean; ori dala-ta, biotatik aolku edo konseju bat bera atera dot. Gure eskumako aldatza gu seigarren obira jasteko eran makur baldin ba'dago, begitantzen yakun eizetik iges egingo dogu.

Onela mintzatzen zala, ego-zabal ta ur-ur deabruak etorten ikusi nitun, gu atzemon nairik. Zuzendariak ots-otsean eldu eustan, zarateak esnatu ta sua alboan dizdizka ikustean, semea artu ta aregaz bere buruaz baiño ardura geiago daua iges egiñik, bere biiloistasuna estaltzeko be astirk ez dauan ama baten antzera. Arribide gaiñetik sorbaldaz jatsi zan, urrango obia egal batetik bananduten eban aitz maikortsuan beera.

Andapara zear bolu-arritik urrago ta bizkorrago doan ura etzan egundo ibilli, muiño-aldatz atatik beera, bular gaiñera ni nindaroala, seme ta ez lagun ba'nintzakon, nire Maixua baizen laster. Aren oiñak leza-barreneko azpia ikutu-ala, arkaitz-lepo agertu ziran deabruak gure gain; onezker, baiña, ez yakuzan bildurgarri; bosgarren obirako morroi egin zituan goiarduratasunak, bada, andik urrintzeko eskua kendu eutsen.

Beian, txit artiro biraka ebiJen jente margoztua <sup>1</sup> aurkitu gendun, negarrez, arpegi matxar ta eratxi. Txanoak begi-beera itzuliriko txartes edo soin-gaiñekoak eroiezan, Koloni'ko lekaideak darabillezan antzera. Kanpoz urreztatuak díra kapusaiok, begiak lausotzeraíño; barruz, osterá, berunezkoak eta oso astunak, Federiko'renak onein aldean lastozkoak<sup>2</sup> zirudiela. Oi, mantu armiña, betí-betikoz! Ezkerrera biurtu giñan oraindik, eta arima areikaz batera genbihzan ibilli, euren ulu-intziri goibelak entzuten. Itzalak, baiña, pixuz eratxita, oso geldiro bide egien, eta emon geroan oin-urrats baktotxean laguna aldatu bear.

Zuzendariari esan neutson: —Onein artean ia aurkitzen dozun, egitez edo izenez ezagun dozunen bat; zabiltzan bi-tarttean, so egizu ortarako, ingurumari—. Eta toskar izkuntza aitu eban norbaitek, gure atzetik deadar: —Geldi-azo, arren, zeuon oiñak, egurats illun zear ain bizkor zabiltzenok; nigandik bear bada jaritxi zeinke opa dozuna—. Nire Zuzendaria bat-batez itzuli zan atzerantza, ta ots: —Itxaron, ta neurriiu zeure urratsa (pausua), arenagaz bardindu arte—. Geratu nintzan, eta euretariko bi ikusi nitun, nigaz egoteko gurari bizia begietan erakusten ebenak; baiña euren kargak eta bidearen estuak atzerazoten zitun. Niganañotu ziranean, betosko baltze<sup>2</sup> begiratu ninduen, itzik atera bage; gero, eurengan itzuli ta alkarri zirautsen: —Orrek bizia dirudi, bere eztarri-zirkiñez; eta illak ba'dira, zergaitik ez daroeguk lez txartes astuna?

Ondoren esan eusten: —Oi, azaluts gaixoen batzarrera etorri zarean toskar! Esaiguzu, lotsa barik, nor zaitugun—. Eta nik areí: —Arno ederraren ur-ertz ondoan, uri andian jaio ta azi nintzan, ta beti euki dodan gorputza daukat gaur be. Baiña zuok, ikusi daikedanez, tanta-tantaka aren negar samintsua ixuritzen dozuenok, nprtzuk zarie, eta orren argiro agirí yatzen zer oiñazek naibagetzen zaitue?—. Eta areitako batek erantzuna: —Ai, ene bada! Berunezkoak dituzue urre-antza daben kapa oneik, oso astunak, eta aztakin zamatuak legez intzirika jarten gaitue euren pixuak. Anai Pozkorrak<sup>3</sup> izan giñean, eta boloñarrak. Katalano neri-

txon ni, eta au Loderingo. Zuzenburu izendatu ginduzan zure uriak, gizon on-eritxiko bat bakeak egiteko ta aukeratu oi dan len; olakoak ízan gintzazan, baí, Gardingo<sup>4</sup> inguruan oindiño be ikusi daikenez.

Jardetsi neutson: —O anaiak! Zuon gaiztakeriak... Alan be, ez neban geiago oguzi; zelaian iru taketez gurutz-untzaturik gizon bat ikusi bai neban. Oartu nindunekoxe, biurritu zan osorik, antzi-indarka bere bizarra dardarazoz; eta onegaz konturatu zmn Katalano anaiak bota eustan: —Or begira zagozan gurutzatu ori, erriagaitik gizon baten odola ixuritzea egoki zala pariseutarrai aolkuz esan eutsena dozu. Dakusazunez, bide gaiñean datza, zearkatua ta billoisik; eta gain naitaez nabari izan bear ortik igaroten dan bakotxaren pixua. Bere aitagarreba<sup>5</sup> oiñaze bardíñez dago obi onetan, baita judutarrentzat zoritxar-azi izan zan Aolkuan sartu ziran enparauak be.

Bergili zur ta arri neukan ordun ain lotsagarri gurutzatua betiko atzerrian egoan agandik begiak kendueragin eziñik. Gero, itz oneikaz jo eban lekaideagana: —Esango zeunskigu, mesedez, aingcru baltzai gu leza ontatik aterateko esan aurretik, gu btontako eskumarantza urten-biderik ete dagon?—. Eta ak erantzun: —Bai, emendik zuk uste baiño urrago, bira anditik asi ta obi ízugnrri guztiak zearkatzen ditun arkaitz bat jasoten da; alan be, obi onetan ebagita dago, ta eztau beronen gaiñez jarraitzen. Igon zaitekeze aren aldatzeko erripan dagozan eta barrua estaltzen daben arri-mokor ondakiñetatik zear—. Nire Zuzendaria, zatitxo baten buru-makurr egoník, onela mintzatu zan: —Pekatariak bere sarde-makoz biurritzen dauazan arek bai adarra jo dauskula!—. Eta lekai-deak gaiñeratu: —Bolonia'n entzun nebazan iñoiz deabruaren berein gaiztakeri, ta euren artean txikiena, azal-zuri ta guzur-atta dalakoa. Orduan, betarte sumin-asaldataz Zuzen-

daria ikusi neban arin ta iradu urrutiratzen. Ni be, pixu es-  
kergaz zamatu areikandik alde egiñik, oin laztanen lorratzez  
jarraika joan nintzan.

(1) Azal-utsezkoz dabiltz euren kolorean, beste bates baiño.

(2) Federiko ITgarrenak, erregeren kalteko obendunai berunez-  
ko kapak jantzi erazten eutsezan, gero sutan uttu-ezoz.

(3) Malevoki sendikoak ziran, guelfotar lenengoa ta gibelindar  
bigarrena.

(4) Cberti etxeak. gibelindnr.

(5) Anas.

## XXIV KANTUA

*Muiña.—Zortzigarren birako zazpigarren obia, lapurrak  
dagozana; suge saierrez aginka ta usika.—Pistoiako Vanni  
Fucci.—Aren iragarkizunak bere aberriaren eta Florentzia'ren  
aurka.*

Urte barri alderuntz eguzkiak bere adatsa Urtegi-pean  
arintzen dauan garaian, eta gau-egunak bardintsu samar di-  
ranean; antziggarrak lur-gain, naizta epe laburrez, bere aítza<sup>l</sup>  
zuriaren itxura artu daroanean, onezkero mandio-uts aurki-  
tzen dan baserritarrak, jagi ta begiraldi bat dagitse zelai-  
landai, baiña oneik zur-izuri ikusiz istarra zartatu ta etxera  
biurtzen, ta arat-onat biraka negar dagi, zer egin ez da-  
kian gaixoaren antzera. Barrero urten ta begiraturik, baiña,  
itxaropentsu jarten da ordu gitxiren buruan lur-azala arpe-  
giz aldatu dala ikusiaz; eta orduan, esku-makilla arturik,  
ardiak bazkatzera doia larrara. Taiu beretan kezka bete nin-  
duan Maixuak be bekoki ain lainotuaz nik ikusi nebanean,  
baita ak laster nire gatxari osakaia ezarri be; ain zuzen,  
zubi apertura eldukeran, atzera itzuli yatan mendi-oiñean  
lenengoz nik ikusi nebanean eukon lakoxe arpegi maiteko-



rrez. Artutekoa zan erabagia ondo auznartu ostean, lendikango ausiabarrek arduraz ikuskatuz, bere besoak zabaldu ta atzetik oratu nindun; eta, bertatik ekin bear dautson lanari gogoia ezarrita daukon langillearen antzera, arkaitz baten gainera igon-ala beste bat ikuskatzen eban, esanez: —Oratu oni gogor, baiña ikusi aurretik zuri eusteko lain dan.

A etzan, ez, berunezko txartesdunentzako bidea, guk biok be, Bergilí ain ariñak eta nik ak eutsiak, arriz arri, doi-doi igon al izan genduan eta. Toki atako bidea iñongoa baiño laburrago izan ezpalitz, ez diñot bera, neu be gainditua jausi izango níntzaken.

Malebolge, baina, beti beerantza makurtuaz osin sakon-sakonaren aoraiño doian ezker> zearkatzen dogun obi bako-txak ertz bi erakusten dauskuz, bata goranzkoa ta beeranzkoa bestea. Eldu giñean, atzenez, azken-arria nabarbertzen dan mugaraiño. Aren gaiñean nengoala, nire bular-auspoak ezin eben arnasarik artu; eta, ezin bestean, elduaz bat jarri egín níntzan atsedeen-gale,

—Nagia astintzea dagokizu, esaustan Maixuak; lurna bigunetan ezta osperik jaristen, ezta oe-estalkipean be; ta aintza barik bizia urtu dagianak, keak aidean edo bitsak uretan lakoxe aztarrena itxi daroa atzetik. Ea, bada, zutitu zaitez; garaitu neke ori, soin-astunpean doillortzen eztan bitartean eragozpenak oro azpiratu oi dauazan kemen bizíz. Goragoko mailladia igotea dagokizu oraindik; ez baita naikoa su-lezako arima artetik igaro izana. Ulertu ba' dagidazu, bekizuz arnagarri nire itzok.

Jagi nintzan ba, neure burua neukan baiño erabagitsuago ikusirik, eta miazkatu neban: —Goazen, orain kementsu ta ausart nozu-ta—. Asi gintzazan ar-mokor gaiñez ibiltzen; latz, medar ta malkortsu zan bidea, ta aurrekoa baiño erri-peago. Neure aultasuna estaltzearren solas niñoían ni, ta ona nun dantzudan beste obitik urtendako abotsa, ulertzen etziran itzak total-narras esaten zituna. Ni andik igaroten zan ustaiaren gaillur-gaillurrean nengoan arren, ez dakit zer esan eban; baiña itz egiana sumiñak artua zirudian. Ara

begíra ni; bizi baten begiak, alan be, ezin eban bertako illunpe nasi zear barrena ikuskatu; au dala-ta, esan neban: —Goazan, Maixu, beste egonlekura; jatsi daigun orma au, emendik entzun ba-dagit, baiña eztot ezer ulertzen: beera begitu arren, ezin ezer ikusi—. Opa dozuna egiñaz erantzun-go dautzut, esan eustan; eskabide leiala, ízan be, ixillilic go-goia beteaz erantzun bear.

Jatsi gíñean goitik zubiz beera, onek zortzigarren ertzaz bat egian uneraiño atan be; orduan bai agiri izan yatan obia, ta suge-ore ikaragñria (kusi neban barruan, mueta ez-bardiñekoak oso: aren gomuteak oraindik odola izoztzen daust.

Libia ezpei geiago bere are-ondarrez illarraindu; arek sortzen baldin ba'dauz suge-bilo, zugatz-bipera, ustaizko, sugetzar ta erensugeak, ez Etiopi osoan, Itxas gorritz gaiñeko eskualdeaz etzan iñoiz izan toki oneitan beste ta aiña kr-rats kaltegarri. Suge-moltso zakar-anker aretan zear jente narrugorri izuak joa ebillen arín bai arin, ez babes ez suarri<sup>2</sup> itxarotzeka. Usugez bizkarrera lotuta eukezan eskuak, eta usugeok koikaldetik orapilioak egiñaz guntzurrunetan josten eutsezan buztana ta burua. Eta ona, gugandik urre egoan doakabe areitariko bati usiki egin euton suge batek samea sorbaldakaz bateratzen dan unean. Eta O bat eta I bat idazteko bear dan laingo epe ezerezean, ixetu, kiskaldu ta errauts biurturik jausi egin zan. Baiña bean aitu-ta geratuaz bat, auts areik barrero alkartu ziran eurenez, ta gogo a lenera biurtu zan beingo batean.

Jakitun andiak diñoenez, olan il oi da Bakunegaztia (Fenix), baita bir-jaio be bere bosgarren eunkira urrera-tzean. Eztau bere bizian ez bedarrrik ez garirik jaten; kedatsez, malkoz ta amonoz janaritzen dn, ta akaraz ta mirraz egiña dago aren azken-abia. Lurrera jaurti dauan gainkiña-ren oldez edo bere izate gexotiaren beste edozein eragiñez jausi ta zelan jausi dan ez dakiana zur ta arri geratzen da, jagikeran, arturiko aldi txarragaitik; ingurura begiak zorroz-

turik, ostera, bular betean arnasaz ase oi da. Pekatari a be olan jagi zan gure begipean. O Jainko-alaren zorrotza, bere asperkundera olako zigor-bidez erakusten dau-ta!

Zuzendariak gero nor zan itandu eutson, eta ak eran-tzun: —Zintzur gorri onetan oraintsu jausia nozu Toska-na'tik. Eder yatan basa-bizikera ta ez gizartekoa; mandar antzera bizi ízan nintzatzun: Vanni Fucci<sup>3</sup> nozu, aberea, ta Pistoia izan zan nire saizulo duiña,

Eta nik Zuzendariari: —Esaiozu, arren, ez daitela emen-dik urrindu; itandu egiozu zer erruk amildu dauan emen, ník bada ezagun dot ori lendik be, gizatxar asarrekor odol-zale—. Entzun ninduan pekatariak ez eban burua ostondu; zorrotz jarri eustazan begiak, eta lotsa gorritz margoztu ya-kon betartea. Ondoren egotzi eban: —Biziaz gabetzea bai-ño mingarriago yat nakusazun taiu larrian zuk aurkitzea; baiña eskatzen daustazuna ezin daiketzut ezelan be ukatu. Jantzi eder batzuk jauretxean ostu nebazalako nago emen murgilduta; txarkerí orren errua, gaiñera, beste norbaiti ezarri eutsoen maltzurkeriz. Alan be, toki illuntsu oneta-tik urten ba'zintzakez be, nire zoritxar au pozbide izan ez dakizun, edegi begiok diragartzudanerako, ta entzun: —Pistoia lenengo Baltz barik geratuko da; Firenze'k gero bere endak ta erak barriztatuko ditu. Marte'k lurrin bat jal-gi-azoko dau Magra aranetik, odei zurbil baltzez ingura-tuaz, eta ondoren ekaitz oldartsu ta izugarrian Pizen-zelaian sartuko da ikaragarriro; eta an, ots-otsean odeia urratuz, Zuriak oro suntsituko dauz. Zuri jasan-eragitearren, diño-t2ut au.

(1) Edurra.

(2) Laguntzarik bage.

(3) Vanni Fucei, Fucci Lazzeri'ren errisemea, Pistoia'ko ontzi sagaratuak ostu ebazana.

Muiña.—*Zortzigarren birako zazpigarren obian darrai.—Lapur eta azpikeri-zaleak dagoz emen\ olerkaiak Kako aurkitzen dabe bertan, Kentaur balen itxuratan, soinburuan erensuge bat daualarik.—Baita an dagoz besle jlorenziar batzuk be.—Gogo batzuen antz-aldatze izugarria.*

Lapurrak, ítz oneik amaítzean, esku biak jaso zituan lotsagarrizko ziñu egin ta oiukaturik. —Ar egik, Jainko, au euretzat—. Arrezkero maite ditut sugeak, bat bada idun biran kiribildu jakon, onela edo esanez: «Ez egidak, otoi, orrela itz egin»; beste batek, bitartean, besoetatik oratu eutson txit gogor, beregan kizkortu ta, gaiztetsiari zirkiñik be egiten ez izteko eran, eurrekalderuntz estuturik.

A, Pistoia, Pistoia! Nola ez dozu zeure burua auts biur-tzen, eta bizia itxi, zeure semeak aurretikoen aldean biur-gaizto dituzun ezker? Su-leza zurbilleko bira guztietan be ez dot, Jainkorekiko, arima arro ta iguingarriagorik idoro, Tebalco arresietatik eratxia jausi a ezik,

Igesari ekin entson lapurrak, itzik be geiago esateka. Kentaur bat ikusi neban orduan, erresumiñez betea; dea-darka etorren: —Nun dago, nun dago arroputz ori?—. Zingirak ez dot uste daukazanik, Kentaur'ek bere zerran, gizaitxura asten yakon uneraiño, eroazan aiña narrazki; bizkar-buruan, lepazur ostean, bidutzi bat eukan ego-zabal, eta inguratzen yakon oro erre ta kiskahzen eban.

Nke Irakasleak: —Kako \* dozu ori, Aventino mendiko arkaitz-pean, bein ta barriz, odol-intzira egin ebana. Ez doa bere anaïen bidetik, egoitza jasoteko aukeratu eban tokitik ur larratzen zan artalde andia maltzurkeriz ostu ebalako, baiña bere egipen biurriak, azkenik, ErkuTen makilpe-  
ra eroan eban; eun zartako gitxienez emon eutsozan, baiña amargarrenerako arenak egin eban.

Bergili'k au iñoan bitartean, Kako ezkutatua zendun; eta, bat-batean, gu gengoan egalaren azpitik irm gogo eto-

zen aurreratuz, gu bíok, ez ni ez nire gidaria, konturatu bage, oiú oneik entzun genduzan arte: —Nortzuk zarie?—. Ortan autua ebagi gendun, eta arei zorroztu geuntsezan soilkí begiak. Nik ez nitun ezagun; baiña, iñoiz jazo oi danez, gertatu zan orduan be, batak besteari dei egin bearra izan eben, esanik: —Zianfa,<sup>2</sup> nun ostondu aiz?—. Nik, ostera, neure Bide-erakuslea ernai egon ekidan, sudur ta okotz attean jarri neban neure beatza.

Orain, irakurle, esango dautzudana siñisgaitz ba'yatzu, ez dokezu arritzekoa noski, ikusi neban onek be doi-doí siñisten dot-eta. Gogo biei adi-adi nengola, sei atzapardun sugetzar batek oldartu eutson areitako bati, alde alde lertzeraiño zearkatuz. Erdiko atzaparrakaz sabela zanpatu eutson, eta, aurrekoakin besoak loturik, matrail biak ausiki. Gero gibel-zangoak ister gaiñez edaturik, buztana igaro eutson bien artetik, eta gultzurrunpean estutu gogor ta tinko.

Iñoíz etxako untzorria ain sendo zugatzari itsatsi, pizti izugarriak bere soin-atalak errudunarenean egokitu ebazan bestean; ondoren, bata ta bestea nasi ziran, argizari leuna iduri, eta euren margoak be ainbesteraiño naspildu bai ebazan, bietarik batek be ez eban orain emoten len zelakoa izan zan: suaren berotasunaz ingi gaiñean zabaldu margo illuna, oraindik baltza ezarren berezko zuritasuna galduaz doanarena, emoten eben.

Beste bialc begira eukozan, eta batera oiuz iñotsoen: —Ai, Angel!,<sup>3</sup> nolatan aldatua i! Etzaz orain ez bat ez bi—. Buru biak bat egiñik egozan; eta arpegi bat-bakarreko iduñu bi agertzen zirala be, bi-bietarik nor nor zan ezin zeitekean igarri. Lau besoetatik bi gelditu ziran bakarrik; ister zango, sabel ta soin-enbor, iñoiz ikusi bageko zati biurtu ziran. Lenengo itxura osorik galdu eban: iduri antz-alduak bietatik eukan zerbatt, ez bata ez bestea izan bage; ta taiu ortan, urrunduz joian urrats-nagi.

Udako egun bero zigorpean, sasitza aldatzen dauanean tximista baizen bizkor bidea zearkatzen dauan muskerra zirudian beste gogo biren sabelerantza zuzentzen zan suge txi-

ki asarrekor batek, laru-baltz piper-ale antzekoak. Areitariko bati ozka egin eutson jaio aurretik janaritzen garean gorputz alderdí atan, ta gero aren oiñetara jausi zan, luze-luze. Ezer esateke begiratu eutson zaurituak; eta geldi iraun eban, zutunik eta arrausika, loak edo sukarrrik artu baleu Iez. Bera ta sugea alkarri begirm egozan, batak zauritik eta besteak agotik, batean alkar-nastuten zan ke lodi trinkoa jnuvtiz.

Bego xrlilik Lukan, Sabell ta Nasidi'ren zovitxavra<sup>4</sup> edes-tean, ta entzun begi adikor emen diñodana; ixilleva beite Obidi be, Kadmo ta Aretusa'z javdutean; arek a suge biur-tu ba'eban, olerkitan, efa au iturri, ez dautsot bekaitzík: itxura ez-ezik, gaiak be, arek ezpaizitun aldatu izate biak bekoz-beko jarteraiño.

Gizon ta suge osoan alkar-nastu bai ziran, onek savde entzera buztana edatu ebanean, zauvítuak bere oin biak batu zituan. Onek zango ta ister guztiz alkartu bai zitun, bertatik etzan an berezko banatzearen aztarrenik be. Sugearen buztan arraituari, gizonagan galtzen zan iduria arturik, narua leun biuritzen yakon; latz, osterá, besteari. Gaiztetsiaren besoak gero gakzarpetan savtzen ilcusi nitun; eta piztiaren zango biak, oso tipi bait-ziran, arek kuskuvtu-ala, luzeagotuz joiazan. Aren atze-zangoak, barriro kiribildurik, giza-semeak gorde oi dauan soin-zatia osotzen eban, eta gaxoaren zango bíetan zatitu. Keiak, bitartean, kolove barriz estaltzen ebazan bata ta bestea, eta sugeagan sor-erazten eban gizonari kentzen eutson narua, eta ondoren bata jagi zan ta bestea itauli; alan be, baiña, begiratu suminkarrik egozten eutsoezan alkarri, onejn bidez bakotxak betoskoa aldaraziz. Zutik egoanari lokietaraiño zimurtu yakon arpegia, eta gaiñetiko aragiz belarriak eratu yakozan matrail launetan. Sugearen okotz aldea, ots, buruan kizlcuvtu etzana, kanpo geratu zan giza-arpegiaren sudurra osoturik, eta batera ezpanak anditu zitun txit egokiro.

Bean zetzanak aurrerantza zabaldu eban bere agoa, eta buruan sar-azo zitun bere belarriak, barakuilloak bere evroak

lez edo; eta míngaiña, len batua ta itzerako egoki zana, zaitu egin zan; sugearen mingaiñ zartatua, barriro be alkavutuz joian, kea botateari itxirik.

Piziti biurtu zan gogoak, xistuka, igesari emon eutson ibar zeaf; eta bestea, aren atzetik mintzoz, istu-jario. Itzuli eutsozan, azkenik, bere sorbalda egin-barriak, beste gaiztetsfari au esanez: —Ni ibilli nazan Jez bebil Buoso be, bide ortatik narras-irulka.

Bai, onetatxe ikusi nitun nik, zazpigavren obian, izaki bi bata besteagan sartu ta itxura aldatzen; eta loretsu ez baldin ba'da nire mintzoera, jazoaren bavritasuna bekit akia-kuillu.

Eta begiak lausoz ba'neukaz be ta gogo urduri, beste itzal biak ezin eben iges al izan, ixil-mixilka, Puccio Sciancato nik ondo ezagutu barik: aurretiaz eldu ziran iru goetarik antza aldatu ez eban bakar noskí: bestea a zan, zuk, o Gaville!, negartzen dozuna.

- (1) **Kako, Bulkan'en seme, Aventino'ko art2uloan bizi izan zana. Erkul'ek il eban mailluka.**
- (2) **Zianfa, Donati, Florent2ía'ko ondasunak txautu zituna.**
- (3) **Zianfa bera, suge anrzero kiribildua.**
- (4) **Farsalia'ko gudariak, Lukan'ek aitatzen dítunak, sege batek Lfbia'ko lekaroan illak.**

## XXVI KANTUA

Muiña.—Zortzigarren birako zazpigarren obia, onulari gaizloakugar biurtuta dagozana.—Ulise'k Olerkariari azaltzen dautsoz bere bizi arona, ta eriotza.

Poztu zaite, Firenze; andi bait-zara, ur ta luz egan zabiltza, ta su-lezan be zure izena barbar dabilkizu! Lapur artean, zure bost uritar aurkitu ditut; au, jakiña, lotsaki-

zun yat, eta zuretako be ezta ain omengarri. Baiña, goizal-dera amestu oi dana egia baldin ba'da, aldí gitxi barruan jakingo dozu Patro'k,<sup>1</sup> eta ez bestek, zuretzat nai dauana. Eta gaitz ori onezkero burutua ba'litz, elitzake goizegi. Ai, jazo ba'litz dagoneko, jazoteko dana! Nj zarrago, bada, ta astunago izango noski.

Abiatu giñan; eta jasteko lagundu euskuen arkaitz-mailladíetan gora joian nire Zuzendaria, niri tíraka; eta, bi-be bakar soila, aitzmokol ta uarri bizi zear jarraiki, ezin eitekean ifiolaz be, eskurik bage oiñik erabilli. Beazun larrí izan yatana orduan, eta orain be bai, an ikusi nebana gogoraztea; eta oi dodan baiño geiago sendalazten dot ene gogoa, on-bideak zuzentzen ez dauan tokira jo ez dagian; izan be, izar onak edo zerbait obeago batek onez ornidua ba-naz be, orren bekaitzez ez nadin ibilli.

Lurbira argitu daroan izarrak bere arpegia gitxiago esaltzen dauan garaian, eta euliak eltxoarí Ieku-emoten dautson orduan, nekazariak, muiñoan tinko atsedeen-zur dagoala, an beeko aranean, berak agian matsa-batu ta lurra lantzen dauan tokian, ipurtargi moltsoa dakus arat-onat; orrelaxe ikusi nitun nik be sugar diztikorrak zortzigarren obian, aren barrena ondo ikuskatzeko tokiraiño eldu nintzanean. Eta artzakaz apendu edo zigortu ebazanaren antzera,<sup>2</sup> Eliren burdia ikusi baí ikusi eban zerura igoten, zaldiak zut-zut joiazalarik; baiña begiz ezin izan eutson jarraitu ta odei makal antzeko sugar arina zertzen eban soil-soillik. Bardintsu nik be somatu nitun areik dardarka obi-aoan, bakotxak pekatari bat gordeten ebalarik, baiña ezkututzen ebenik azaldu bage.

Zubi gaiñean nengoan ni ikusiaz zurturik, eta aitz-mutur bati oratu ezpa-neutson, iñolc bultz-egin barik, ondarreraiño amildua nintzakean.

Nire Zuzendariak, ni orren adi ta oartun ikusirik, esan eustan: —Gogoak, suaren barruan dagoz; bakotxa, erreten dauan sugarrez jantzita, noski. —O Maixu —jardetsi neutson nik—, zuri entzunik zígurrago naukazu; baiña, len-



dík be, buruak emon eustan, ta orrela iragarri nai neutzun. Baiña esaidazu: nor dago, goitilc bitan banatutako su atan? Eteokel eta onen anain erre ziran sutatik jagitakoa dirudi—. Erantzun eustan: —An barruan oiñazetzen diranak Ulise ta Dumene dituzu; alkarregaz daroe emen euren zigorra, asarrerako alkartu ziran antzera, alegia, Sugar ortan eiagoratzten da baiña zurezko zaldiairen maltzurkeria, a bai da erromarren azi bikaiña urten zan atea. Deidamí'k an negartzen dau, illa dalarik, Akileu'kiko zínkurin-arte, baita Paladi'gatico zigorra be antxe daroe.

—Su-lama orrein erditik mintzatu al ba'itzaitez, esan neban nik, Maixu, eskatzen dautzut arren bai arren, milla bidar deskatzut, eta ez egidazu uka, datorrela niganaiño gar adardun ori, dakusazunez bada irrirts biziak naroa beragana!—. Eta niri arek: —Omengarri nunbait zure eskarí, ta on joten dautzut; ba'ña ezi egizu mingain ori. Itxi egidazu itz egiten, opa dozuna igarten bai dautzut, eta orreik bear bada, gerkarrak dira-ta, muker azalduko litzakiguz zuri erantzuteko.

Garra alderatu yakunean, eta nire Zuzendariari noiz ta nora ondo eritxi, onan mintzatzen entzun neutson: —O zuok, su ber-berean bi zarienok! Bizi nintzala zuengandik ezer merezi izan barieban, neure Olerki andia munduan idatzi nebanean zuen eskerraren duin izana ba'naz, etzaiteze, otoi, urrundu; eta zuetatik lenenak esan begist nora joan zan iltera, bere kemenak eroana.

Aspaldiko garraren motots guena zalantzan asi zan; mar-marka, aizeak eraginda lez, ta gero bere muturra ara ta ona igituz, mintzo dan miiñaren antzean, au esan eban: —«Urte bete ta geiago Gaeta'n (Enea'k onela deitu baiño lenago nunbait) atxilo euki nindun Kirke'gandik banandu nintzanean, ez semeaganako samurtasunak, ez aita zarrakiko errukiak, ez Penelope zoriontsu egin bear neban maitasun zintzoak, ez eben garaitu al izan mundua ta bertako giza-griña ta on-bideak ezagutu ta jakiteko neban isi eutsi-

eziña; augaitik, itxaso zabal barrena oldartu nintzan, bakar-bakarrik, ontzi batekin eta sekulan itxi ez ninduen lagun gitxi batzuekin.

«Itxas-egirik asko ikusi nitun, orain bat, gero bestea, Espaiña ta Mauri'erri, Sardi'ko ugartea ta itxaso arek biran ezkotzen ditun gaiñekoak. Ni ta nire lagunakideak zaartuta gengoan, sor ta astun, gizalci bat be aurrerago igaro ez zedin Erkul andiak zutoin bi jarri ebazan zintzur estura eldu giñanean.<sup>4</sup> Sevilla itxi neban eskumara, lendik be Zeuta ezker itxia neban lez. «Oi, anaiak; •—esan neban— aleun arriskuri bekoki emonik sarñaldera eldu zarienok! : gure zentzunak onezkero ibillaldi laburra bai dabe, ez egiezue arren uka eguzkiari jarraiki aurkitzen dan gizaki bako mundua ezagutzea. Ekar gogora zeuon jatorria; etzarie jaio pizti antzera bizi izaleko, on-indarra ta jakituria lortzeko baiñ».

Itzaldi labur onegaz, txangoari jarraitzeko gurari bizia sortu neutsen laguneri, gero geldiaz eziñerakoa nunbait. Eta, gibela goizaldera itzuliaz, arraunak ego biurtu genduzan egada txororako, beti be ezker alderantz makurtuaz. Beste ardatzeko izarrak oro dizdizean ekusan gauak orduko; gurea, barriz, oso bee zetzan, ur-azalean ozta-ozta agertzen zala. Itzuli atan sartu giñanetik, bost bidar ixiotu zan illargiak emoten dauskun argia ta beste ainbestetan itzali, urrutiak iliunazotako mendi bat begi aurrean agertu yakunean: oso jagia iduritu jatan niri, beste bat iñoiz ikusi ez dodan lakoxea.<sup>4</sup>

«Poztu giñean onegaz, baiña poz ori malko biurtu yakun laster: lur barritik zirimol biurri bat jagi ta aurrekal-detik zakar astindu euskun ontzia; iru aldiz bira eragin eban uin eta olatu kizkurrekin, eta laugarren aldizkoan gibela jaso ta muturra murgildu eban, Arek opa ebanez, itxasoa barriro gure gain alkartu zan arteiño».

(1) FJorent2ía ondoko erritxoa.

(2) ELiseu igarleak, gazte batzuk ixeka egin eutsuelako, art-pillo baten bitartez, suntsitu egin ebazan.

(3) Gibraltar.

(4) Zein 2an mendi au?

## XXVII KANTUA

MuLña.—*Zortzigarren bira, zortzigarren obi.*—*Aolku edo onulari gaitoak zigortzen dira emen.*—*Oneitariko bat, Montefeltro kondea.*

Garra, geiago ezer esateke, zut-geldi lotua zan, eta Olerkari eztiaren baimenagaz, ba-joian guregandik urrunduz. Baiña atzetik etorren beste bat, eta onek laster beraganatu zituan gure begiak, aren erpiñari erion barbar nasia zio. Si« kili'ko zezena zirudian nolarebait; ak, bada, lenengo orrua (ta zuzen alan be) karrakaz landu ebanak negar-intziri egitean, atara eban; eta gero be, orru egian, barruan zitun naibagetuen aoz, ta ain zuzen, oiñazeak borontzezko soña zulatuko ba'leutso lez. Orrelaxe nunbait, gar atan gordetako gogo aren itzak be suaren murmura antzeko biurtzen ziran, len-lendik itoa bai egoan, urteteko ez bide ez zillo.

Alan be, erpiñeko kantalera eltzea jaritxi ebanean, miñak ígarotzean emoniko indar-zirkiñez, au entzun genduan esaten: —Oi, zu!, mintzo nakizun ori, arestian lonbarderaz jardun ziñana, onela esanez: «Oa onezkeru, ez aut geiago nekatu nai». Ni berandu samar etor ba'naz be, ez bekizu damu izan nigaz itz egitea, niri ez yat bada, naiz-ta kiskaltoki onetan egon. Zu, aurki, nik neure errn ta oker guztiak jauki nituan laterar bazter gozo atatik amillondo zurbil ontara jausi-barri ba'zara be, esaidazu erromañarrak bakean ala gudan dagozan; ni, bada, Urbino ta Tiber askatzen dan buztarri arteko mendietan jaioa nozu.

Ni oraindiño adi ta makur nengolarik, Zuzendariak saiets-albo ikutu ta esan eustan: —Itz egiozu, laterarra baita—. Eta nik, erantzun-gertu, geiagoko barik ekin neutson: —Oi, gogo!, or bean gordeten zareana! Zure Erromaña ez dago, ezta egundo egon be, bere etoi-ankerren biotzetan gudu barik; alan eta guzti be, ni ona etorkeran, ez dot gudu agirian itxi. Ravena dozu an urte luzez izan dana: Polenta'ko aranoak an egokitu dautzu bere abia, ta Cervia oraindik bere

egalez estalia dau. Ainbat eta ain luzaro gorriak ikusi zitun lur-bazterra ta parantsez gorputz-il zeinbat odol-jario daukazana, atzapar musker mende aurkitzen da. Eta artzaiñora zar ta Verrucchio ga2teak, Montaña'ri kakerik asko ekarri eutsoenak, an diardue oi eben lekuan ortz-agiñak odoltzen. Lamone'ko ta Santerno'ko urien buru ta aurrelari, udatik negura alderdi aldaketa egin oi daben kabizuriko leoiakumea dozu; eta beste a, Savio ibaitik ertzez-ertz ureztatzen dauana, lau ta mendi tartean datzan lez noski, erdi jopu erdi azke bizi da. Orain, barriz, nor zarean esaidazu, arren; etzaitez izan besteak baiño gordiñago; dirdaitsu bego munduan zure izena.

Suak bere erara surmurra ateratzean, arat-onat igitu eban izpi zorrotza, ta ondoren mintzatu: —Nik uste ba'neu ludara biurtu bear dauan gizaki bategaz mintzo nazaJa, sugar au ez litzake pitin bat be geiago igituko; baiña barne amiltzu ontatik sekulan iñor atera al izan ez dan ezkerro, entzun dodana egia baldín ba'da, alke-bildur barik erantzungo dautzut. Gudari izan nintzan lenengo ta gero pantzeskar, jantzi onegaz neure nts-erruak zurituko nitulakoan; eta nire uste au etzan ustela izan aurki, nolanaiko gaitzak opa dautsodazan Apaiz andiak lenengo uts-obenetan jausi-azo ez ba'nindu; eta au zelan eta zergaitik izan zan zuk jakin dagizun, garbi azalduko dautzut.

Amak emon eustan aragi-azur-itxura izan neban artean, nire egiteak etziran egiz leoiarenak, azeriarenak baizen. Guztitariko bide makur ta iruzurrez jakitun nengoan, zelata ta maltzurkeri guztiak nekizan; eta zoztor-bide guztietaz trebeki ta artez<sup>2</sup> nenbillelako, lurbiraren azken mugaraifio eldu zan nire izenaren aipu-otsa. Alan be, bakoxtak bere ontzi oialak eratxi ta batu bear leukezan adinetik ur neure burua ikusirik, len atsegin nebana nazkagarri biur yatan; eta, garbai bizitan, neure oker-egiteak autortu ta lekaretxe bateko zoko illunean gorde nintzan.

«Orduan, ene zori gaizto!, gaizkatu nindekean. Baiffa parisaitar barrien buru zana gudan egoan Lateran'dik urre, ta ez gero sarrazendar edo judaitar endakoen aurka: kista-

rrak ziran aren etsai guztiak, eta etzan iñor joan Akre uria menderatzera, ez Soldan'en lurraldeetan ziskuak gízentzera; ez, ez eban onek deduz eroan bere anditasun gurena, ez aintzat artu bete apaiz-ikur donea, ez eta niregan ikusi eroienak argaldu oi ebazan gerrilotura be. Bestera, Konstantino'k Sorakte mendian SLlbester'i, legenarra osatu egion, dei egin eutsan lez, niri be dei egin eustan, sukar arroa sendatu nengion; onu-eske etorri yatan, eta nik ez neutson tautik be esan, aren itzak ordituarenak ziralako. Eta berak diñost: «Ez izan zalantzarik; alde aurrez azkestent dautzut; baiña naitaez esan bear daustazu zelan ondatu neikezan Preneste'ko arresiak. Neure esku dago, dakizunez, zeruak itxi nai zabaltzea, bi dira ba.nire aurretikoak olako apeta andi barik erabilli ebazan giltzak». Biziro zauzkatu ninduen errazoi sakon oneik, eta ixildu baiño itz-egin oba litzakidalakoan, au esan neutson: «Aita, zuk ortaratuz dagidan obena garbitzen deustazun ezkeru, ona zer egin bear dozun zeure ezarleku garaian irauteko: asko agindu (ítz emon), ta agintzen dozunetik gitxi bete».

«II nintzan, eta billa etorri yatan Pantzeska<sup>4</sup>; baiña kerubin baltzetatiko batek esan eutson: «Ezin daiek eroan; ez egidak olako okerrik egin. Ara beera joan bearra dau, neure gaiztetsien artera, oalku maltzurra emon ebalako; une atatik bai dnukat uleetatik atxikia. Damutan sartzen ez danari ezin daieko ezer azketsi; orobat, ezin iñolaz be damutu ta pekatua nai izan batera, aurkakoak dituk eta». Ene zori txarra! Zenbateraiño izutu nintzan, orattuta, esan eustanean: «Ez indun uste, nunbait, ni ain arteza nintzanik!».

«Minos'en aurrera eroan nindun; ta onek zortzi bira emon eutsozan bere buztanez soin latzari, ta sumin-sumin, buztanari usika, jalki eustan: «Orrek, sutarako errudunen artean egon bearra yok». Or zergaitik nagoan ni dakusazun leza ontan obiratua, ta zergaitik negar dagidan jantzi onegaz batua».

Era onetan, solasaldia amaitu-ala, urrindu zan sugar eros-taria, bere izpi zorrotza oker-igituz,

Zuzendariak eta biok aurrera segi genduan, arrí-artez, euren biotz-zokoak, lazka ta matraka sorturik armindu ebezanak zigortazo oi diran obia estaltzen dauan beste ustaira eldu artean.

- (1) Guido Montefeltro.
- (2) Rimini'ko zalduna, gibelindarren buruzagia.
- (3) Konstantin'ek, Iegenarrez gaixorik, Silbester Deunari dei egin eutson osasun biLla, diotenez.
- (4) Frantzisko Deuna.

## XXVIII KANTUA

Muiña.—*Zortzigarren birako bederatzigarren obia.—Asarre ta lazka ereilleak oiñazetzen dira emen.—Baita guzur-siñesle, targo-zale ta labantzailleak be.—Mahoma, Ali, Medizina'ko Kepa, Kuri Moska ta Born'eko Bertran.*

Nok egundo adierazoko ete leukez, naiz-ta sarri alegindu ta itz.lasoz izan, nik orduan ikusitako odol guztia ta zauriak? Ez dago, ziurki, a itzez azaldu dagikean miiñik, ezta adimenik be eukitzeko, irudimenak doi doi artu dagikena. Origaitik, ba, Pulla'ko lurralde zori gaiztokoan odola ixuri eban jentetzan batu al ba'ledi be, erromarrak egindako gudu luze atan, jakiña, Tit Libi'k zuzen diñoanez, ereztun pillo galanta eskuratu ebenekoan; baita Robert Guiskardo'ri bekokia emotearren, zartada ain zitalak artu ebezan artakoa; edo-ta beste artan, Zeperan'en pullar bakotxa saltzaille zalarik egindako burrukaldiko azurrak oindiño be baten diranekoan, eta Tagliacozzo ibarrean Aíardo zarrak iskillu barik irabazi ebanekoan: aitaturikko burrukalarí guztak euren soin ausi-zulatuak al ba leuskiguez erakutsi, olan be ez genduke izango bederatzigarren obiak eukan itxura zurbil izugarriaren erdia. Erdiko pipolak galdu ditun upe-

la ez da ustutzen, okotzetik sabel azpiraiño arrakatuta nik ikusi neban arimaren pare; zango-beera eukazan dindíl es-teak; biotza agiri yakon pilpilka, baita jaten dogun dana korotz biurtzen dan zaku illauna be. Ni ari so nengoalarik, begira eustan, ta paparra edegi eban eskuakaz, au esanez:

—Ikus zelan urratzen nazan; ona, Mahoma bai zarbail-dua! An doa Ali<sup>2</sup> be nire aurretik zotinka, koskotik okotzeraiño burua zabal; emen ikusten dítuzun beste guztiak be iñoiz bizi izanak dira; baiña era bardiñean arrakatuak dagoz, lurtar zirala gaitzerako bidea erakutsi ta targo-ereille izan ziralako. Atzetik datorkigu zakar zauritzen gaitun deabrua; pekatarien moltso ontan aurkitzen dituneri olako ebagi bat egiten dautse bere ezpata zorrotzez obi negargarri ontatik guk itzuli bat egitean, gure zauriak bada deabruarekin gu barriro idorotzera orduko ertsi oi dira. Baiña zu, arriarte jagi ortatík usmaka zagozan ori, zeure erruengaitik ipifíi oiñaze bidea luzetzarren bear bada, nor ete zaitugu?

—Eriotzak eztau oraindikarren atzemon —jardetsi eutsan nire Irakasleak—. ezta ez dakarre ona bere gaiztake-riak, zigortua izan dedin; oiñaze ta neke-miñen barri ikas-tearren ontaratu yatzu bakar-bakarrik. Neronek, il onek zuzendu bear dot Su-Iezako bira sakon bakotxetik; eta au egia dozu, ni zurekin itzez nagona baizen egia.

Itzok entzunik, eun gaiztetsi gitxienez, obi aurrean lotu ziran ikusmin, euren oiñazearen itsumustua aantzi naiean.

—Ona bada, zuk, Iaster antza, barriro be eguzkia ikusiko dozun orrek, esaiozu Doltzin anaiari,<sup>3</sup> laster, oso laster, ementxe neugaz nai ez ba'dau alkarterik, bizikaiz ornidu bearra dauala ta ez dagiala edurrak inguratu ezelan be; gose-edur bagarik, gaitz yako a garaitzea,

Mahoma'k esan eustazan itzok, alde egiteko gert-gert, oin bata jasorik ebala; itz-jarioa amaitu ala, oiña beean sendotu ta joan zan bidez bide.

Beste arima bat, zintzurra zearkatua, sudurra bekañe-taraiño ebagia ta belarri-soil, begira geratu yatan, gogo-talde a lez arri ta zur; eta, areik baiño len, bere ao odolez gorri-gorritua edegirik, jaldi eustan:

—Oi, erru-izpirik bageko ori, lendik be an goian, latin lurrean, antz andi batek iruzurtzen ez baldin ba'nau beintzat, ikusia zaitudan ori! Oroi zaítez Medizina'ko Kepa'z, Vercelli'tik Markabo'ra makurtzen dan zabalune ederra barríro ikustea jaristen ba'dozu; eta Fano'ko onei bieri, Guido ta Angioletto'ri, jakin-eragin, otoi, aurrez ikusia alper emen ez ba da beñik-bein, euren ontzitxoetatik jaurtiak izango dirala, ta anker etoi baten saldukeriz Katolika'tik ur ito. Neptun'ek ez eban egundo itsuskeri andiagorik ikusi izango Kiper'tik Maillorka ugarteraiño ez itxas-lapurak ez gerkar odolzaleak osatuta. Begi bakanez ikusten dauan saltzaille arek, eta nigaz dagoan batez ez ikusi gurago leukean eskualdean jaurilaritza dauanak, beragaz mintzatzerá dei egingo dautso, eta ondoren Forkara'ko aizea eskintz-otoitzez zetan bíraokatu izango ez dauan eran jardungo dau.

Nik au esan neutson: —Nik am gora zure izparrík eroatea nai ba'dozu, garbi azaldu ta erakustazu nor dan, errialde a ikusi ebalako, negar dagian ori. Eskua jarri eban orduan bere lagunetatik baten matrail-azur gaiñean eta aoa edegi eutson, ots egiñez: —Ona bera; baiña ez dau itzik egiten. A zan, Erroma'tik erbesteratua, Kaisat'en biotzean zalantza ito ebana, gertu dagonak, egiteko bat osatzea atzeratzean, bere buruari kalte dagiola esaník. Oi! , kikul ta jausia bai begitandu yatala Kurion izketarako ain ausarta izan zan a, bere mingain zintzurrean ebagíagaz!

Beste eskuak ebagita eukazan batek, bere beso motzak arpegia odoltzeraiño goi ozpelera jasoaz, oiú egin eban: —Gomuta zaitetz Moska'z; esan bai eban gaixoak: «Gauza egiña, burutua». Itzok izan ziran, alegia toskatarren arteko ezin-ikusi ta lazkerien sorburu. —Eta zure endaren eriotza! —ots nik. Eta bertatik, nekea nekez metatuaz, zoro bat baizen zurbil urrindu yakun.



Su-leza zínagoaren azterketan jarraitu neban ník, eta neure banen-zígurtasunagaitik ez ba'Htz, beste agiri barik jalgiten azartuko ez nintzakean gauzak ikusi nitun; lagun on ori, osterá, bere garbitasunean ustekor, giza-biotza ain zintzoki kementzen dauana dogu: ikusi neban, izan be, ta gaur be ikusten nagola dirudit, gorputz bat buru barik, taJde baltza osotzen ebenakaz bat; esku batean eroian buru ebagia, uletatik oratu ta kruselu antzo dindilizka; guri so egigun, garrasiz: «Ai, ene!» Argontzi lez eban bere burua, ta bi ziran baten ta bat bitan. Au zelan leikean, gure ardura ta axoladun Arek daki bakar-bakarrik.

Zubiaren oiñera eldu-ala, gorantza jaso eban bere besoa buruagaz, guri are geiago bere itzak urreratzearren antza; onela iñoan: —Begira ene oiñaze gordiña; zuk, bizirik zaigozan arren, illak ikuskatuz zoazan orek, ikus egizu au bestekorik beste bat badan. Eta neugandiko albistek emon daikezuzan> jakizu Born'eko Bertran<sup>4</sup> nazala ni, errege gazteari aolku ain dongak emon neutsozan a. Aita ta seme neuk Hskartu nitun bata bestearen aurka: Akitopel'ek ez eutson Dabid'i ta Absalon'i areago egin bere eragin eta ziri lotsagalduekin. Onen alkaturik egozanak banandu nitulako daroat, ai, ene! , burua bere errotik banaztuta, mukur ontan itxia dagon errotik bereizia; orrela gordeten da nigaz ordaingo nekala.

(1) Guiskardo, Normandia'ko dukea, Pulla azpuatu nai zan ebana.

(2) Mahoma'ren suifia, mahomar tergo baten buru.

(3) Doitzin Tornielli. Novara'koak mendian atzemon eta bizirUk iDa.

(4) KohJakari ta guda-gizon.

## XXIX KANTUA

Muiña.—Zortzigarren birako amargarren obia.—Barripurdi, itzontzi ta guzurtiak oiñazetzen dira emen, legenez kuin-kuin.—Geri del Bello.—Sabelzuri ta meazki-aizuntzailleak\ Griffolin ta Kapoki.

Jentetza ítzal a ta arein zaurtu erdirakorrak berebat íkusiaz, malko-lausoz illundu yatazan begiak oso, ta bertan geldi, nagarrari joteko írritsak artu ninduan, Baiña Bergilík ots: —Zeri begira oraindiñokarren? Zure begiratu, zergaitik onen setati or beean itzal zurbil moztuak ikustatu nairik? Etzendun ori egin beste obietan; baiña arima orreik bat-banatzea uste baldin ba'dozu, gogora egizu ibarrak oindiño ogeta bi milla daukazala ínguruz inguru. Itargia, barriz, onezkero gure oinpean dabilkizu; txit laburra dozu emon dauskuen epea, ta ikusia baiño geiago daukagu ikusteko.

—Adi ta zur egon ba'ziña —erantzun neutson bertatik—, ta orra begira ain indartsu zek jarten nauan ba'zenki, bear bada itxiko zeuskikedan geiago be ortan luzatzen.

Ba-joiari beraz nire Zuzendaria ta ni aren atzetik, erantzuki ta gaiñeratuz: —Nik onen gotor begiak neukazan leza areñ barrenean, neure sendiko bat uste neban egoala negarjario, urrean, or beean saminkiro zigorkatzen dan erruagaítik. Maixuak díñost orduan: —Arima orren zoriak ez bekizu geiago kezkarik emon: zagoz zur dakuski-zunera, ta bego beste ori dagoan lekuan. Zubiaren oiñean ikusi dot nik, zu beatzez berezi ta gogor zemaitzen zindula; Geri del Bello deitzen eutsoelakoa dot. Baiña zu, beiñola Altaforte jaurri ebanarengan ain sor-gortua zengozan ezkerro, ari jaramonik egin bage, bere ibilliari ekfn eutson,

—Oi, ene Zaindari! —esan neban—. Bere erio biurrak, irain bizitan erdikide garean guretariko iñok be oindiño apendu bageak sumin-erazo dau nunbait; ona zergaitik aldegin dauan, nik uste, tautik be esateke; ta onek samurtzenago ni arekiko erruki-leraz.

Onela izketan giñoazen, beste ibarra argitasun geiagoz ondoraiño berezì legikean arkaitzaren len-zabalunern eldu arte. Malebolge'ren azkenengo barruti gaiñean, an ziran antzaldatuak ikusteko gisan kokatu giñanean, eun motako intziri-dcadarrak arantzatu ninduen, biotza erruki-uretan gezatzeraiño aurki: ori zío, esku biakaz estaldu bear izan nitan belarriak.

Garil-irail bitartean Valdichiana'ko gexotetxeetako ta Marema ta Sardiña'ko<sup>1</sup> gaixoak oro obi bakarrean baturik ba'legoz, geienik be nik ikusi neban oiñaze naasi meta langoa egingo leukie; ta ikuskizun nardagarri atatik etorren sunda mergatza gorpuzki aratustelak ixuri ta pufatzen dabenen antzekoa zenduan.

Ezkerrera jatsi giñean, arkaitz luzearen amai-muturretik; eta olan, bizikiago ikusi al izan neban leza barneko sakan-tasun aizarotsua, ots, Goikoaren esku zuzen uts-eziñak zelan zigortazten ditun bere izen-lerroan jarritako guzurtzailleak. Ez dot uste atsekabe andiagoa emongo ebanik Egina<sup>2</sup> erri osoa gaixorik ikusteak, eguratsa pozoiz txit kutsutu ta, abere ta piziti, zomorro kaskarretaraiño guztiak garbitu ziran: gero, olerkariak gauza ziurtzat daukienez, ugarte atako aintziña bateko erritarrak txiñurri-azitik<sup>3</sup> ngaldu ei ziran: zin-zinëz biotza lertzen bait-yakun ibar zurbildu atako gogoak aunitz moltsotan piratu ta igartzen ikuskatzeagaz. Bata sabelgain zetzan narraz; lagunaren sorbaldan etzunik bestea; areik eta oneik, bide illun grumean usar itxaloztuka.

Ibilliz giñoazen bide zear, itzik esateke, baiña belarri-zur, ta euren soiñak be euki eziñik egozan gaixoeri begira. Jesarririk ikusi nitun oneitariko bi, alkarri eutsi ta laguntzen, teillak gardosteko alkarri dautsela egon oi diran lez ta buru-koxkotik beatzetaraiño maskuilluz orbanduak. Ez dot eguno nagusia begira dauan morroirik edo-ta aldarte gaiztoz aren zain dagozenetarikorik ikusi zorigaiztodun areitako bakotxa baizen arin burkoa kentzen, bein ta barriz atz egin ta geiagoko osabiderik ez dauan erre-sumiñaren koskatze etengabea leuntzearren. Atzazkalez aienatzen ebezan

urbatuak, eskaroaren narrua edo oraindik ezkata andiagoak ditun beste edozein arrain-motarenak aitzoz erauzi oi diran lez.

—Oi zu, beatzez iskillusten zarean ori —bota eutson nire Zaindariak areitako bati—, ta gorriak bai'liran eurakaz daragoiozuna: esaidazu, otoi, emen dagozanen artean latin-darrrik ba ete dan; eta, ai! , zeregin ori beteteko aiña daki-zuzala atzazkal orreik, betiraun guztian!

—Latindar gara ain erabako ikusten gaituzun biok —me-zu-azo eban areítako batek, negar baten—; baiña nor zaitut zu, gugaitik galdezka?—. Eta nire Zaindariak erantsi: —Izaki bizi onegaz bat, pendizez pendiz ona jatsi nazana nozu, ta Su-leza erakutsi bear dautsot, norbaiten aginduz.

Itzal biak orduan alkarri laguntzeari itxi eutsoen; eta neuregana itzuli zan bakotxa; baita beste batzuk be, erantzuna arei zuzendua izan ez arren, entzun eutsoenetakoak ziuurrik asko. Maísu ona urreratu jatan, au esanez: —Esaiezu nai dozuna—. Eta aren baimenagaz, onela así nintzan.

—Zuen oroimena ez bedi txolindu len munduan izan eban giza-indarretik; bego bestera, urte askotaz orla izanik; esaidazue nortzuk eta zein aberritakoak zarien; nigaz argi izanik be, ez zuek lotsatu, ez bekizue zoztor ezelan be zeuen oiñaze jasangaitz aalkekor ori.

—Arezzolcoa izan nintzan —erantzun eban batek—, eta Siena'ko Albertolc su-sendorrera egotzi nindun; baiña nire eriotzagaitik ez naukazu Su-leza ontan. Egia da esan neutsona, txantxetan lez: «Jakingo neuke nik aidian egaz egiten»; eta ak, jakin-mintsu ta adi-labur zanez, ezkutu ori nik erakustea nai izan eban; eta geiago, berbera Dedal biurtu ez nebalako, semetzat eukan baten aginduz erre-azo ninduan sutzar andian. Mino'k, baiña, epaikari uts-eziñak, amar obietatik azkenengora bialdu nindun, munduan alkimira griñatua bizi izan nintzala-ta.

Nik neurez Olerkariari: —Izan ete da sekulan Siena baiño erri uts pardaillagorik? Ez ziuurki, prantses erria bera be ez, a besteko.

Beingoan, adikor neukan beste legendunak jardetsi eutson nire esanari: —Atera Stricca, onek bada neurria za-induz biziten jakin eban; baiña Nikolo be, au bait-zan untzeongarriaren ekandu aberaskorra gaur ain egunekoa dan urian sartu ebana; orrezaz gaiñera, baita atera Caccia Ascianarrak bere maasti ta oianak eralgi ta ondatu zitun gizartea, eta Abbaghiato'k bere zentzuna noraiño eltzen zan erakutsi eutsona. Baiña sienatarren aitzi (kontra) taiu ontan aize-erazten zaitun au nor dan jakin daikezun ezar egizuz enegan begi orreik, ni ezagutzeko dozun irrika aiñean ene betarteak berebat erantzun daizun; laster ikusi dagikezunez, Capocbio ren itzala nozu, alkimi bitartez metal-meazkiak guzurrastu zitunarena; baiña gomuta bear dozu, uste dodana ba'zara, izatez antzemoile trebe izan nintzatzula.

(1) Toki kutsuduraz betea; zingiretako sukar gatak errez artzen ziran berton.

(2) Peloponeso'ko ugartea; enen Juno\*ren zigorrez, abere ta piztiak be gaixotzen ziran.

(3) Jupiter'ek Balco erregeari egindako esker onez.

### XXX KANTUA

Muiña.—Jarraipena.—*Iru zuriketari mota: Vgoak, beste norbaiten izena nal antza artzen dabenak, atertu barik batak bestea eraso daroe aginka.—2 'garrenak, guzurrezko txanpongilleak dira, ta ur-miñez egarri ito eziña jasan bear da-be.—3'garrenak, iraintzailleak dira, ta alkarren gain mctaturik, sukarrak edoski ta klaskatzen ditu.— Adam maixua ta Troia'ko Sinon.*

Juno'k, Semele zala-ta, tebatar odolaren kontra, bein baiño sarriago erakutsi ebanez, minkaiztunk egoan garaian, Atamante'k, oso zentzun bage, emaztea seme biak eskutik eba-

zala, beragana urretatzen ikusirik, gedar au egin eban: «Bota daíguzan sareak, leoi-ama bere leoi-kumeakaz atzemon daidan»; eta gero, atzapar errukibageak edatuaz, areitako bati, Learko eritxonari eldu ta aidean bira-azorik, arkaitz baten kontra jaurti ta txirtxillatu eban; amak be, ondoren, beste semeaz batera bere burua ito egin eban.

Zernaitarako kementsu ziran troiarren anditasuna zoriak eratxi ebanean, arein erreñua erregeaz bat zuziturik, Ekube doakabea, oso errukarri ta atxilo, Polixene ílik eta bere Polidoro'ren gorpua itxas-ertz etzana ikusitakoan, guztiz bitz-urratua geratu zan, eta bere senetik joana, txakur antzera asi zan zaunkaka: elorrioak aínbeséan nastazi eutson burua.

Baifia tebatar ta troiar suminduak, nik itzal billois laru bitan ikusi neban beste bioLz-gogorkeri ez eben erakutsi ez abereak akuillatzean ez giza-soiñak zizatzean; ariñeketan ebiltzan gogo bi areik, txarritokitik iges egiñiko urde antzera, alkarri aginka. Euretán batek Capocchio'ri oratu, garondoan egiñak josi ta bertatik tiratuz, sabelez arramazkazo eutson soru zakarra. Daldai geratu zan aretarrak esan euscan: —Gianni Schicchi<sup>1</sup> dozu zorozko ori; sumiñak artua, edonori erasoka dabil.

—Oi, bota neutson nik, esaidazu bildur barik, ezkutatu baiño len, nor dan berakin doan beste itzala, ta ai ez ba'letor zuri gorputzean agifiak zulkatzera—. Eta jardetsi eustan: —Mirra gaiztoaren gogo zarra da, maitasun garbizko legeen aurka bere aitaren maitale Ízan zanarena; olako pekatua jaukiteko (egiteko) beste emakume baten itxurea artu eban; baita an doan ak be Buoso Donati'ren antza euki nai izan eban, *Torma'ko andera* irabaztearren, supertzean, aren orde z ilburukoari era emonik.

Nik neure begiak josirik euki nebazan arima asarretu bi areik igaro 2Íranean, atzera egin neban beste errukarri batzuen itzalak be ikusi naita. Ta or bat, gizona zatibitzen dan lekuan gorputza ebagita euki ba'Jeu, lautaren iduria emoten ebana. Zorna ta gesal zikiñez gaitz biurturiko ur-

miñak, oso ezbarðiñak, betarteak sabelari ez erantzuteko aiñean egitsozan soin-atalak, bingaitzez dagoanak, egarri danean, ezpan bata okotzerantza ta bestea surrerantza zuzentzen ditunaren antzera, aoa beti zabalik eukí-azoaz.

—O zuok, neke bage (ta ez dakit zergaitik) Iudi doakabe ontan zagozenok! , esan euskun, adi ta zoli zagokeze, begira Adam<sup>2</sup> maixuaren lazeria; nik, bizi nintzala, eurrez ta ugari euki neban, opa neban guztia; eta orain, ai, ene! , urtanta bat besterik ez dot gura. Uberka ezo atsegingarriak eraturik, Kasentin muiño orlegietatik Amo'raiño jasten díran errekaotoak begi aurrean daukadaz beti, ta ez alperrik; arein iduriak, bada, arpegia aragi-bizitzen daustan gatxak baiño geiago elkortzen nau. Zigortzen nauan zuzenbide zorrotzak nik pekatu egindako tokia bera autetsi dau, niri antzi geiago aterazteko. Or Erromena, Bateatzaillearen íduriaz ikurrazturiko dirua guzurrezko biurtu ebana; lurrean orixegaitik itxi neban neure gorputza errerik. Baiña emen ba'nekus beiñipein Guido'ren gogo larria,<sup>3</sup> edo Alesander'ena, edo onen anaiarena; oneik neure auzo ikustearren, poz ori ez neuke, ez, Branda iturria beragaitik be trukatu. Areitako bat emen barruan dago onezkero, berton biraka dabiltzan itzal suminkorrek egia ba'diño; baiña, niri zer, gorputz-atalak kateaturik daukadaz ta? Obi onek biran amaika milla ta zearka milla-erdi baiño gitxiago ez ditun arren, eun urtean atz bete ibilteko baizen azkar ba'nintz be, onezkero zidorrez joana nintzan aren billa, gizatalde itxurabako orretan zear. Beragaitik nago gaiztetsi onein moltsoan; iru nas-ore urre-azta edo kilate ondo beteak dabezan flornek ikurraztera, eurak buitzez egin eustien.

Eta nik ari: —Zeintzuk dira zoritxardun bi orreik, neguan esku busti batek lez lurruna darioela, ain alkartuta, zure eskuman etzunik dagozanok? —Emen idoro nebazan, arek erantzun, ondape ontara jatsi nintzanean; eta arrezkerro guztian eztabe zirkiñik egin, ezta ez dot uste beti-betiko egingo dabenik be. Bata Josep salatu eban guzurtia dozu; Sinon maltzurra bestea, Troia'ko gerkarra: sukar biagiagaitik darioe ainbeste lurrun kirastu.

Eta areitan batek, izen laidotsu a ezarri eutsoelako iraindua bear bada, zartako bat emon eutsan ikubillez gilborpean, tanbor baten antzera ots-eragiñik. Adam maixuak, bere aldetik, latz-ezago zirudian besoz arpegian jo eban, esanez: —Astun daukadazan soin-atal batzuekaitik ibilli ezin nazan arren, olako zeregiñerako nasai yaukat besoa—. Arek jardetsi: —Surtara iñoianean ez eukan ain azke ta nasai; dirua ikurrazten endunean, baiña, askoz nasaiago eukan—. Umindunak onela: —Ortan egia diñok; baiña ez intzan i be ain egi-atorle izan Troia'n egia esateko eskatu euenean. —An guzurra esan ba'naioan be, i beste edozein txerrenek baiño uts-okar geiagogaitik ago emen. —Zaldiaz gomuta adi, zin gaiztoko ori, bota eutson sabela puzturik eukan arek; eta mundu guztiak ire errua jakitea bekik zigor-bide. —Baita bekik iri be zigor-bide, erantzun eban gerkarrak, ire miña zartatuta yaukan egarria, eta txanketa lez ire begien aurrean ire gilborrak jasoten joan nr atsitu—. Txanpongiñak orduan: —Ire agoa be bai urratzen dok, oi dokanez gaizki itz egitegaitik; ni egarri ba'nok eta zornak puztu ba'naroak, sukarrez ago i ta buruak mín emoten daua; ik ez dok asko eskatzerik bear, Narkis'en ípillua mia2katzel<o.

Belarri-zolí nengoan oraindik arei entzun-min, Maixuak esan eustanean: —Jarrai, jarrai oindiño orrei begira, 2ure lepotik barre egin-2ori naukazu-ta.

Asarre samar mint2atzen ent2un neutsonean, guztiz lotsatuta biunu nint2an beragana: oindiño be bizi-bí2Í gorde daroat neure oroimenean lotsakÍ2un aren gomutea; eta, bere 2oritarrean ames dagianak, amesetan be ames geiago egin nairik, amesa besterik e2tana ames izatea txit gartsuki nai daunaren ant2era nengoan ni, neure burua 2urit2eko atxakiren bat naí Í2an arren, tautik be esan eziñik; eta ixilla bera akiakuillu neban arren, e2 neban uste orrela nengianik.

Maixuak esan eustan: —Lotsari gitxiag02 be garbitu legikean 2urea baiño uts andiagoa; beraz, astindu neke



oro; ta aurrerantzean, bear bada, olako negar-uluetan sarturik dagozan jenteakaz topoz ba'dagizu, jakizu ni beti zeurre alboan naukazula; ta olako gauzak entzun nai izatea, gurari zatarra dala.

(1) Cavakanti sendikoa, Florentzia'n; il-burukoak izundu oi ebazan.

(2) Breszia'koa, Florentzia'ko florinak izundu ebazalako, bizirik erre eben.

(3) Guido, Erromeña'ko kondeak, bere anaiakaz, duuak andeatu zituan.

### XXXI KANTUA

Muiña.—*Bederatzigarren bira, etoi-saltzaillena.—Lau egonleku ditu, beste ainbeste errudunentzat.—Ara orduko or osin bat, eta onen inguruan Nemrod, Efialtu, Anteu ta beste erraldoi batzuk aurkitzen ditue olerkari biak.—Anteu'k, olerkari biak bere besoz artu ta beatzigarren biraren ondora daroaz leunik asko.*

Aurrez nire matrail biak zauriz gorritzatu eustazan miin bat berak, bertatik ezarri eustan osakaia be; alaxe Akileu ta aren aitaren iguna, lantza be, entzun izan dodanez, k-nengo min-iturri zan antza ta gero atsegin goxo.

Bizkar itxi genduan ibar zorigabea, esi emoten dautson ertzezpanaren gaiñekaldez, tuatik esan bage, genbiltzala. Ez gau ez egun an etzan, eta begiak gitxi baiño ez ebiltzan aurrera; adar zolia, alan be, ikaragarri oska aditu neban, edozein ostots be ixil-erazoko leukeana; eta begiak, orren oiartzunari jarraiki, toki bat-berera zorroztu nitun osoan. Ausiabartza odoltsu ostean, Karlomain'ek bere egiteko donea<sup>j</sup> alperrik galdu ebalata, OrJando'k ez eban ain izukor dardarazi turuta.

Artara burua ítzul-urren, aurútz torre garai nekusala iruditu yatan; eta nik esan neban: —Maixu, zer lur dogu au?—. Eta ak niri: —Illun zear urrunegi begira zagozalako, uts dagizu tduri yatzun ortaz. Argi dakuskezu ara eldutakoan, urrutiak zelan dautson ikusmenari ziria sartzen; origaitik, arren, bizkortu egizuz oiñak.

Gero txeratsu eskutik oratu ta esan eustan: —Aurreragotu baiño ien, ta jazotzekoa arrigarri izan ez dalcizun, jakizu orreik ez dirala torre, erraldoi baiño, eta muiño inguruko osiñean dagozala diran bestean gilborreraiño sartuta.

Laiñoa urtuten danean, begíratuak pixkaka antz egiten dautso aizeak batutako lurrenak estaltzen ebanari; era be-rean, egurats lodi illuna zearkatuz obirantza niñoalarik, nire utsegiña be ígesi joian ta bildurra azi-andituaz; izan be, Monteregion bere gerri biribiiiean torrez koroatzen dan lez, obiak inguratzen ditun ertz gaiñean torre egien, oraindik be ostots danean Jupiter'ek zerutik zemaitzen ditun erraldoi izugarrien soin-erdiak. Eta nik begiztatzen neban orrezkero areitako baten arpegia, sorbaldak, bularra ta sabelik geiena ta besoak albo bietan dindil. Sortitzak zuzen jokatu eban, jokatu be, olako abereak irazateko antzea itxi ta Marte'ri taiu ontako laguntzailleak kendu eutsozanean; eta a elepante ta baleak sortzeaz damu ez ba'da be, mee ta barrenkor begiratzuz gero, zuzen ta zurrago dogu ortan; adin-irabioa, bada, gaitz-nai ta indarrakin buztartzen danean, gizasemeak ez dabe ari ezarri legikeoen atzerapiderik.

Bere burua, luze-lodi, Erroma'ko Kepa Deunareneko piña<sup>2</sup> zirudian, neurri bardiña ebela beste soin-atalak be; au da, muiñoak amantal antzo gorputza erditik beerakoa estaltzen eutson arren, oraindik asko erakusten eban goitik, iru frisarrek be, bat besteren gain, aren uleetara jaritxi ezindako bestean noski; ogeita amar arra luze baitnekusan nik osin-kareletik gizonak soin-gaiñekoa kakotxez lotzen dauan lekuraiño. «Raphel may amech zabi aalmi» (Alajaiña! Zergaitik ni emen? Biur atzera ta gorde), asizan garrasiz ao zakarra, itz gozoagorik ez egokiona.

Eta nire Zuzendariak esan eutson: —Arima txoro!, jarduizi turut-jolasean, eta beragaz azaskatu, asare nai beste griñaren batek larritu zaizanean. Begira ama ori, ta or didorokezu, oi arima baldar, loturik zaukan txikota; ikus, zelan estutzen dautzun bular eskerga ori—. Ondoren niregana itzulirik, gaiñeratu eban: —Berak bere butua salatzzen dau: Nemrod<sup>3</sup> dozu au, bere gogorakizun gaiztoagaitik ez darabilgu munduan izkuntza bat bera. Itxi daigun dagon tokian, ez daiguzan aizetara egotzi geure itzak; arenztat oro baita izkera, besteentzat arena lez, iñok ulertzen eztauna.

Ekin geuntson bada ibilli ta ibilli, ezkereruntz okerturik; eta, gezi-era uzi barruan lez, beste erraldoi bat aurkitu genduan, zatar andiagoa. A nok an lotu al izan ebanik, nik ezin dagiket esan, baiña ezkerreko besoa aurretik eta bestea atzetik katez korapilloturik eukazan, eta kate orrek leptotik beerako gutzia inguratzen eutson, obitik at agiri yakon atala an bost biraraiño emonik. —Arroputz onek, altsua zala-ta, saio bat egin nai izan eban Jupiter garaiaren kontra, esan eban nire gidariak; beraz, or dauka irabazia. Efialtu<sup>4</sup> deritxa; eta bere saio ausarditsua egin eban, erraldoiak jainkoeri be bildurra sartu eutsoenean: ainbeste igitu zitun besoak, geiago ez ditu iñoiz igituko.

Eta nik esan neutson: —Al ba'litz, neronen beginlc.z ikuskatu nai neuke Briareu<sup>5</sup> neurribagea—. Ak erantzuki dinost: —Anteu<sup>6</sup> ikusiko dozu emendik ur, itz bait-dagi ta azke bait-dago, arek eroango gaitu gaitz osoaren ondoraiño. Zuk ikusi gogo dozuna urrintxoago aurkitzen da, loturik dago ta onen antzekoa do2u, baiña arpegiz izukorrigo dirudi.

Ez da iñoiz izan lurrikara ain kementsurik, Efialtu bere kasan iñarrosi zan le2 torre bat 2akarki astintzeko. Ordaun izan nintzan egundo ez bestean erio-bildur, eta izuz gaiñera ez neban besterik bear izango noski, kateak ikusi ez ba'nitu, Beraz, aurrera jarraiturik, Anteu-gana jaritxi giñan, bost ego gitxienez, burua bat-banatu bage, arpetik ate-

raten zanarengana. O zu, Anibal eta bereak igesari emotean, Eskipion'ek ainbesteko izen andia beretu eban ibar doatsuan arrapakitzat milla leoi llago zenduzana, ta zeure anaien arteko beste gerra gordiñean izan ba'ziña, ba-dira oindiño Lur'aren semcak irabaziko ebela uste dabenak; eroan gágizuz ondoraíño, eta ez emon txartzat, otzak Kozito gogortzen dauan lekuraíño. Ez eiguzu Tiki ta Tifeu'gana jo eragin. Onek emon dagikezue emen irrirts dozuen a; makur zaite ba, ta muturrik ez bigurtu. Oindiño barriztu dagike zure aomena munduan, bizi baita ta gaurgero be bizitza luzea ditxaro, Eskerrak epe aurretik bere baitara dei ez ba' dagio.

Orrela esan eban maixuak; eta erraldoiak, beingoan, noizbait Erkule ain zakar takatu eben eskuak zabaldu ta nire zuzendaria atzemon eban. Bergili'k, aren eskuetan somatu zanekoxe, esan eustan: —Urren zakit, ar zaidazan—. Bertatik besarkatu nindun, lotura antzo biok bat egiñik.

Makur dagon aldetik Garisenta'ri (3) begira ezker, aren gaiñean odei bat jarten baldin ba'da, gure buru gain jausi ez jausi daukagula dirudi; era berean, irudi yatan Anteu nik makurtzen ikusi nebanean, ta une a txit latza izan yatalako, naiago neukean beste alde batetik iblli. Baiña samurki egokitu ginduzan Luziper ta Judas biotz mintzen diran zurrunbillo ondoan; eta ez eban an buru-makur luzaro irauan, ontzi-masta lez barriro zítitu baiño.

- (1) Orreaga.
- (2) Orduan Batikano'ko ateetan egoan; gaur ango baratzctan.
- (3) Babiloni'ko errege, Babel torrea eregiten asi zana.
- (4) Efialtu, Neptuno'ren seme. Zerura igon nai izan eban.
- (5) Briareu, bost beso ta berrogei buru eukazan mamua.
- (6) Anteu, afrikar erraldoia; leoiak eizatu ta jatzen zituan.

Muiña.—*Bederatzigarren bira, azpisaltzailleak dagozana, lau egoitzetan banatuta.—Lenengoari «Kainena» deritxo, Abel bere anaia erail eban Kain bertan dagolako.—Senideekin etoi izan diranak zingira izoztuan dagoz murgil.—Bigarren egoitza «Antenor'ena» da, ta euren aberria azpikeriz saldu ebenak dagoz oiñazeian.*

Idazkera gordin zakarra ba'neu, arkaitz guztiak ilten diran osin zurbillaren auzi-manziak azaltzeko langoa, askoz obeto adierazoko neuke neure burupenaren mniña; orrelakorik ez dot, baina, ta arlo orreri nakio izu samar. Gaudi osoaren barrena azaltzea ezta, izan be, joku lez artu dagikeguna, ezta mingain totelak erasoteko zeregiña be; baiña betoz nire bertsoak indartzera Ancion'i\* Tebas moltzotzen lagun izan jakozan emskume areik.

—Oí zuok, gaffetikuok baiño ezetsiago izanik, aitatzea be latz oso yatan tokian zagozenok: oba zuentako, ardi edo auntz berton biurtuak izan ba'ziñie!

Osín illunaren barrenera eltzean, erraldoiak oiñak eukazan baiño beerago, alegia, ni oindiño muru jagira so nengoalarik, aditu neban au zesaidala: —Arretaz zu zelan zabilzan; ez egizuz, arren, zanpatu gure anai doakabe ta oiñazetuen buruak—. Itzuli neban burua, au entzuckeran, eta neure aurrez ta oiñetan zingira bat ikusí neban, ta izoztua egoalako, urezkoa ez, baiña leiarrezkoa zirudian. Danubi'k ez dau neguz, Austri'n, ezta Tanais'ek be an, ortzi otzitupean, zingira ak baizen zapi naasiz bere ibiLlia estaltzen; emen, izan be, Taberniek edo Pietrapana<sup>2</sup> jausi balitzaz be, ez eben ezelango arrakalarik egingo. Eta baserritar emakumek galburu batzen diarduala ames dagian aroz, igelak, ur gaiñean buru-zut, korronka egin oi daben antzera, itzal negarkoi zurbil areik be orlaxe egozan, lotsa agertzen dan soinuneraiño izotzean murgil, euren ortz-agiñakaz amianokoak pikuz egin oi dauan lakoxe zarata aterarik.

Arpegia beera biurturik eukien danak: arein agoak, osterera, sumatzen eben otzaren ezaugarri emoen; baita begiak be, euren biotz-goibeltasunarena. Unekada baten ingurua arakatu neban, eta neure oiñetan begiak zorrotz, itzal bi ikusi nitun alkarri batunk, itsatsiak, bien uleak be bategi-teraiñoan.

—Esaidazue nortzuk zarien zuok, zerorren bularrak ain estu alkarri erantsirik daukazuezanok, esan neban nik—. Burua jaso eben, ta niri begíratu bat bota ondoren, arein begiak, barnez ezo, malko-íxuika egozan ezpan-beera; otzak, osterera, lei biurtu eban onein nigurua oro, aoa ertsiz.

Burdin-itsaski batek ez ditu sekula ain gogor loturik itxi egur-mukulu bi; augaitik edo, gaiztetsi bi areik alkarri eraso eutsoen, aari bik lez. Ainbestekoa bait-zan areikin jabetu sumiña. Beste batek, osterera, otzak belarriak be gal-erazi eutsozanak, au egotzi eustan bururik be jasotzeka: —Zergaitik orren tinko ta zoli guri begira? Oneik biok nortzuk direan jakin nai baldin ba'dozu, Bizensio ibaiak ibilliz dabillen ibarra bere aita Alberto'rena ta areiña izan zala diñotzut. Biak atera ziran gorputz beretik; eta «Kaina» osorik ibilli arren, ez dozu noski idoroko it2al bat bera, izotzean murgil, onek baiño geiago merezi dauanik, ezta arenak be, ots, Artur'en eskuak zarta batez bular ta itzal ausi eutsozarenak, ezta Focaccia'renak be, ezta Sassolo Mascheroni erítxon arenak be; toskarria baldin ba'zara, nor dan jakingo dozu ondo be. Eta geiago mintzarazo ez nagizun, ni Camicione de Pazzi<sup>3</sup> nazala jakizu, Karlin'en zain nagola ta aren erruak nabari-azoko ditue nireak astun-ezago nunbait.

Ondoren, beste milla arpegi ikusi nitun, otzak ubel; eta, arrezkeroan, ezin ditut begiztatu, izu-ikara bage, urtegi izortuak. Eta lurraren astuntasun guztia batzen dan erdirantz gíñoazen bitartean, ni bai zakar dardarazo bildur-ikarak, zurbiltasun etenbage atan! Jainko, Alanbear edo Zori, ez dakit nok erabagt eban; baina, buru arein artetik zear igarotzean, zartada gogorra emon neban oiñez areita-

riko batean, eta negartsu zesaidan: —Zergaitik zapaltzen nozu? Monte Aperto'ren asperkuntza areagotu naiean baldin ba'zatoz, zer dala-ta kezkatzen nozu?—. Orduan nik: —Ene Irakasle, itxoidazu emen, onek zalantza bat argi dagidan, gero jarraituko dautzut znk baizen bizkor.

Gelditu zan nire gidaria, eta oraindik be biraoka egoan ari, au esan neutson: —Nor zara zu, enparaueri orrela akar egiteko? —Eta zu, Antenor'en egoitza zear zoazen ori, erantzun eustan, edu ontan besteak argian zartaturik, gizaki biziá ez ba'ziña be, zakarregia lítzakelarik, esaidazu, nor zaitut? —Ni bizi naz, erantzun neutson; eta eder bekizU) aomena opa ba'dozu beintzat, zure izena be oroimenean gordeten ditudanen arteko jarrea—. Ak oneri ziplo: —Oso bestelan naigo dot; oa emendik, eta ez akit areago gogai-karri izan, ire loxingak ots gaizkia bait-dagíe Ieza ontan—. Ordun atzeko uletatik oratu neutson, au esanaz: —Naí-taez esan bear daustazu izena, osterantzean ez dautzut itxi-ko ulerik bat bakarra. Ak, baiña, okatu eustan: —Ule bari-rik izten ba'nozu be, ezdautzut nor nazanik esango; ez dozu nire arpegirik ikusiko, naizta zuk niri burua mirrindu.

Nik orduko eskuan neukazan aren uleak kizkur, eta areitako esku-bete gitxienez erauziko neutson, arek begiak izotzean tinko auli egian bitartean, beste gaiztetsi batek otsegin e2 ba'eustan: —Zer dozu, Bocca? Etxatzu naiko ortz-karraskaz, zaunka be egiteko? Nundiko txerrenek nabi-bagetzen zaitu orrela? —Orain, esan neban, ez dot nai, saltzaille doiJlor, ik itz egin dagikanik: ire betiko lotsakizun, ludira eroango bai ditut irekiko izpar ziurrak. —Oa bizkor, jardetsi eban, eta erausi egik nai dokana; baiña emendik urtetekoa ba'az, ez adi egon mingaiña orren azke eulci yoan ortaz mlntzatu barik, orain bai dau negartzen prantsesengandik artu dirua: «Nik ikusi neban, esan daikezu, Due-ra'ko Buoso,<sup>4</sup> an pekatariak Ízoztuta dagozan tokian». Emen dagozan bestengaitik galde ba'dagizue, zeure aldamenean daukazu Beccaría'lcoa, Florenzia bait-eban ebagi onen ezta-

rriak. Aruntzago daukazuz, uste dot, Gianni Soldaniero, Ganelon ta Tebaldello'gaz batera, bertakoak lo egozala Faenza etsaien eskuetan itxi ebana.

Agandik urrin samar gengozalarik, beste izoztu bi ikusi nitun obi berberean, olako era barregarrian, bataren buruak bestearen kapela emoten ebala. Eta gose danak ogian lez, goikoak beekoari ortzak josi eutsozan, kaskoa lepazur-rekin alkartzen dan tokían. Tideu'k be ez eutsozan gogor-rago Menalipu'ri<sup>5</sup> lokiak ozkatu, onek bere areioaren bu-rua baizen gogoz ta suminkortsu.

—Oi zu, ain zitalki irunsten zagozanari dautsazun amorr-u bizia erakusten dozun ori! Esaidazu, zek zaroaz ortara, bota neutson, eta itz damotzut, egiazki ortaz alakatzen ba'zara, orren gaiztakeria zeín dan eta nortzuk zarien nik ja-kiñik, munduan aspertuko zaitudala, ene miña lenagotik txigor ez baldin bada.

- (1) Musak erakutsi eutsoen Anfion'i kitaia jotén.
- (2) Toskana'ko inendia.
- (3) Albert Camiccione, giza-íltsatleá.
- (4) Kremona'ko jauntxoa frantsesai aiako bidea aske itxi eutsena.
- (5) Tideu, Tebas'ko erregeak aginka il teban Menalipu.

### XXXIII KANTUA

Muiña.—*Ugolin ta Ruggieri gongotzaiña.*—*Ugolin kondearen edestia.*—*Irugarren egoitza, Vtolomcu'rena: bertan dagoz adiskideak eta arrotzak aspika saldu ebezanak.*—*Alberigo anala.*

Pekatarí arek baztertu eban aoa jateko erlazgarritik, atzealdea miazkatu barri eban buruko uleetan bera garbi-tuaz. Gero, onela asi zan izketan:



—Zuk nai dozun antza nik barriztatu daidan, oldoztuz soilki, itzez asi aurretik be biotza sakatu ta larritzen daustan min etsía. Baiña nire itzok, irusten dodan saltzaillearentzat irain-azi izan bear ba'dabe, mintzo ta negar ikusiko nozu aldi berean. Ez dakit nor zaitudan, ezta onaiño eltzeko zer bíde ekarri dozun be; zuri entzunaz, alan be, florentziarra zereala íduritzen jot egiazki,

«Ni Ugolin kondea<sup>1</sup> izan ninfzala jakitu, ta beste au Ruggieri gongotzaiña da; neure auzoaz zergaitik nazan ain gordin. oraíntxe esango dautzut. Ez dot zetan esanik: bere gogapen gaiztoakaitik eta berari siñistu neutsolako, lenengo giltzapean sartu ninduen ta gero erail. Baiña orainarte jakin al izan ez dozuna edestuko dautzut, au da, zein ankerria izan zan nire eriotza, ta orduan jakingo dozu ak zenbateraiño iraindu nindun be.

«Torre-sabelean egifíko zulo txiki baten sartu ninduen: gaur be onek neugaitik daroa Gose izena, eta oindino beste batzuk be bertan snrtuko dabez. Aren zirrikitutik illargi asko ikusiak nitula, etorkizun-miesa zear-zabaldu eustan ames txar bat izan neban. Nagusi ta buru lez Ruggieri agertu izan yatan, pisatarrai Luka ikustea galazoten dautsen mendian otso ta otsokumak eizatzen. Arek ipiñita noski, aurretik joiazan txakur goseti, mazal menakaz Gualandi'tarrak, Sismondi'tarrak eta Lanfranchi'tarrak.<sup>2</sup> Lasterka pitin bat egin ondoren, oso abailduta begitandu yatazan aita-semeak, baita euren agin zorrotzakaz saietsak urratzen ebezala iduritu be.

«Egun-senti orduko itxartu nintzan; eta, ames bitartean, alboan ogi eske somatu nebazan neure semeak. Oso biotzgea, zu, nire biotzari iragarten eutson a gogoraturik, miñetan sartu ez ba'zagiz; orain negarrik ezta, zek izan be zuci negar eragingo? Itxarrik onezkero, ta jatekoa ekarri oi euskuen ordua urreratuz joian; alan be, bakotxak antzeko amesa egin baí genduan, ezpaian gengoan danok. Eta somatu nebazan nik torre bildurganiko atea untzatzen; beraz, semeai arpegira so egin neutsen tutik esateka. Nik ezin

negarrik egín, oiñazeak arri biurtua neukan-eta; semeak, bai negar egien, eta ene Anselmotxu'k esan eustan: —Zer dozu, aita, orrela begiratzeko?» Alan be, nik *tzln* negarrik egin; ezta, ez neban egun guzti aretan itzik erantzun, ezta urrengo gabean be, beste eguzkiak ludia argitu eban artegiño. Aren erraiñu erbal bat espetxe naibagetsuan sartu ta lau arpegi areitan neureak euki bear eban itxura larria ikusi nebanean, etsi-etsian neure eskuak aginkatzen asi nintzan. Areik, barriz, nik goseak eraginda au ne.ngiala uste izanik, beingo baten zutitu ta esan eustien: «Gure miña> aita, txikiagoa izango da nunbait, geure gorputzez janaritzen ba'zara; zeuk jantzi zeuskuzan aragi kixkil oneik, eta zeuk erantzi eiguzuz,

«Ordun baretu nintzan, eurak geiago ez zurbiltzearren; egun atan eta urrengoan mutu egon giñean danok. Ai, lur latz! Zergaitik ez ziñan edegi? Laugarren egunera jaritxi giñanean, neure oiñetan etzun zan Gaddo, au esanik: «Ene aita, zer dala-ta ez nozu sorosten?» An il zan; eta zuk orain nakusazunez, irurak jausten ikusi nitun, banan-banan, bosgarren eta seigarren egun tartean. Lauso dagoneko, itsu-itsuka joan nintzan bakotxaren billa, ta eriotz ostean be im egunez dei egin neutsien; goseak, azkenez, oiñazeak baiño geiago al izan eban».

Autu au buka ondoren, barriro artu eban kasko kixkilla begi makurrez, ta txakur batek lez azurrean josi ebazan bere agiñak. A, Pisa!, *si'k* ots<sup>3</sup> dagian eskualde ederreko gizadiaren laido ta erpil! Auzoak zu zigor-azten nagi dituzun ezkerro, bebiltz bizkor orretan Kapraia ta Gorgona, eta kai bat be eratu begie Arno'ren itxas-agoan, zure biztanle oro bere uretan ondatu daizan. Ugolin kondea zure gazteluak saldu ebazala-ta obendun egin ba'eben be, zuk ez zenduzan zeure semeak gurutze ain negargarrira eroan bear. Arein urte samurrak argi darakuse, Tebas barri!, Uguccion eta Brigata'ren errurik-eza, baita goragoko kantuak aitatu ditun beste biena be.

Aurrera igaro giñan gu, izotzak gordinkiro beste gaitzetsi batzuk zapaltzen zitun lekura; arpegi beer a ez egozan

oneik, gora begira baiño. Negar-uluak berak ez eutsen negar egiten izten; urteieran malkoen zoztorrez topoz egian oiñazea, ba, barrurantz biurtzen zan, atsekabearen lorra aziagotuz; lenengo negar-anpuluak lubana lez egian eta bezatal azprietan, leiarrezko txapel-egal antzera, begi-arroil guztia asetzen eben.

Eta nire betarteak, otz andiz maskor biurtu ta oarmena oso galdua neban arren, aize zerbait somatzen nebala iduritu yatan; beraz, esan neban: —Ene maixu, zek daragi au? Lurrun oro ez al da emen igatu ta ezereztua?—. Eta ak niri: —Bertatik elduko zara, aize orren zergaitia ikusiz, zeure begiok erantzuna emongo dautzuen Iekura—. Eta urtzulo izoztuko zori gaiztoko batek deadar egin euskun: —O, azken bira ontara erru andiz beterik egotzitako arima doillorak! Jaso egidazue zapi latz au begietatik, malkoak barriz izoztu baiño len, biotza puztu daroastan oiñaze au arindu daidan.

Itzokaz batera nik ari: —Nik miña arintzea nai ba'dok, esaidak nor azan; eta poz ori barik izten ba aut, murgil bekust neure buru au izoztegi irren ondarrean—. Ak ordun erantzun: —Alberígo anaia nozu; bere baratzak igali ain txarra emon ebana nozu bai, ta emen datil bat artu daroat piku baten orde—. O! , esan neutsan: zu be illa zara? —Ez dakit, jardetsi eustan, zelan egongo dan nire gorpua an goian; Ptolomeu-enea onek, Atropo'k<sup>4</sup> bere atzamarrak igitu baiño len arimak sarri bertora erakarazoteko lege berezia dauko; eta, betarteko malko leituak pozago kendu dagistazuzan, jakizu au: arima batek, ník egin neban antzeko salkeriren bat egiterakoan, txerren bat egin oi da aren gorputzaren jabe; gero, txerrenak berak zuzendu daroaz alakoaren egitada guztiak, bere bizitz-azkenera eldu arteño. Gogoari dagokionez, urtzulo onetan jausten da; eta augaitik, bear bada, munduan ikusi daiteke oindiñokarren neure atzetik izotz ontan dagoan itzal orren gorpua. Zuk ezagutuko dozu berau, Su-lezara etorri barri ba'zara: Oria'ko Branka jauna dozu, urte asko dirala emen ertsia.

—Nik uste dot, esan neutson, ziria sartzen daustazula; Oriako Branka, ba, ezta oindiño il: jan ta edan dagi, baita lo be, ta jantzirik doa.

—Mikel Zanche jausteko egoan oraindik, ak jardetsi, Malebranche'ren obian, uia beti irakiten dagon lekuan, eta Oriako Branka'k itxia eban deabru bat, bere ordez, bere gorputzean eta bere salkerian lagunkide izan eban senidarteko batenean. Zabaldu orain esku ori ta edegi egidazuz begiak—. Ez neutsozan edegi, eta leialtasuna deitu bear yako, nire aburuz, olako norbaitegaz zintzoez agertzeari.

A, genobatarrak, oituretan enparauez bestelako, ta gaiztakeri guztiz beteak! Zergaitik etzaituez mundutik atzeriratzen? Erromaña'ko gogorik gaiztoenaren ondoan, zuetarikoa bat aurkitu dot: bere egitez, Kozito'n murgildua dauko arimea, munduan bere gorputza oraindiño bizirik agertzen dalarik.

(1) Ugolin, gueKotarren alderdi-buru, Pisa'n. Ruggieii'k atzipetu eban, eta bere semeakaz espetxeturik, an il zan gosez.

(2) Pisa'ko iiu sendi, Ruggieri'ren adiskideak.

(3) Italtarren izkuntza.

(4) Atiopo, erioetatik bat, bizi-aria ebaten ebana.

#### XXXIV KANTUA

Muiña.—*Bederatzigarren birako laugarren egonlekua, edo «Judas'ena».—Bertan oiñazetzen dira Judas ta ongilleakaz azpi-jale izan diranak.—Luzifer, katez lolua.—BergilVk, inpernuua zelan sortu zan azaltzen dau.—Olerkarriak, negarmalkozko uria itxirik, barrero ikusten dabez izarrak dtzdz.*

*Vexilla regis prodeunt injerni* (su-lezako erregeren ikurriñak) or datorkiguz. So aurrara, esaustan Maixuak, ia berezi-azten dozuzan. Gandu lodia danean, edo gure lurral-

dea gautu, aizeak darabiJjezan errota-matazurak urriñera agertu oi diran Jez, antzeko mukulu montxor bat zear-iduritu yatan níri be; ta gero, aizez gordeteko, beste babes-lekurik etzan eta, neure biderakuslearen atzean ostondu nintzan,

Izuak joa nengoan ni (ta izuz diñot itz-neurtu oneitan be) itzalak, oso-osorik izotzez estalita egozalako, lastoa leiarrean lez garden ziran tokian. Batzuk etzunik egozan, zutik beste batzuk; areik buruz beera, oneik oiñez beera; beste batzuk, ostera, betartea oiñetara itzulirik ustai antzo, Orrela gu naikoa aurreratu ta len arpegi ain ederra euki eban izakia niri eroso erakusteko uneraiño eldu giñeala Irakasleari begitandu yakonean, aurrean jarri yatan au, ta bertan geldi-azo ninduan. —Or Dite, esan eustan, ta sendotasunez jaztea egoki yatzu emen.

Une aretan zein otz eta igartua gelditu nintzan, ez eida-zu itandu, írakurle; ezin daiket idatzi, esango neukeana utsaren urrengo Íitzake-ta. Ez bizi, ez il geratu nintzan; oldoztu zeuk, idurimen izpirik baldin ba'dozu, zer jazo izan-go yatan edu ortan neure burua ikusirik.

Nekeirun-erreñuko buru2agiak izotzez kanpo ataraten eban bular erdia; ta nire gizabetea egokiago etorren erraldoi batenagaz, Luzifer'en besoakaz oneitariko batena baiño; or, zelakoa izan bear dauan onako zatiari erantzun bear dautson osoa. Gaur erabako ba'2en eder len izan ba'zan, ta bere begiak Irazaillearen kontra jaso ba'zitun, bere arruz datorkio gaitz oro. O, ak bai ni arritu, buruan iru betarte eukazala ikusi nebanean! Bat aurretik eukon, ta gorrizka zan berau; beste biak sorbalda erdi gaiñean onegaz korapillotu ta buru-ttunturrean alkartzen ziran atzetik, eskumakoa zirudienez erdi zuri-larua izanik, eta ezkerrekoak Nil' ibarreko biztanleen itxura emonik. Betarte baktxaren azpitik alako egaztiari egokiozan ego zakar bi sortzen ziran: ez dot iñoiz ikusi arein antzeko itxas-oialik. Ez eukien lumarik, saguzarren edukoak ziran eta; igitu, barriz, Kozito gutzia izozten eben iru aize atereaz igitzen zi-

ran. Luzifer'ek sei begiz negar egian, eta iru okotzetatik beera jausten yakozan negar-arpuluak, lerde odoltsuz nahasi. Ao bakotxeko ortz-agíñakaz, sapin antzera, pekatari bat mírrintzen eban, iru doakabe batera neke-azorik. Iñoiz narrua osoz kentzeraiño atzaparrak sorbaldan egitsezan zauri míngarrien aldean etzan ezer aurrekaldeko aginkatze ori,

—An goian oifiazerik gordiñena eroaten dagon arimea, esan eban Irakasleak, Judas Iskariot'ena dozu; Luzifer'en ao barruan dauka onek burua, ta zangoai kanpoan zirkin daragioe. Burua beerantza daukien beste bietatik, Bruto dozu bata, ao baltzetik dindil dagoana; begira zelan biurritzen dan, tautik be esateka; bestea, zozko ederreko agertzen dana, Kasio dozu. Baiña gaba datorkigu gain, ta joateko ordua da, ikustekoa ikusia dogu-ta.

Arek naia egifík, bere samara itsatsi nakion; arek, barriz, ez une ez toki etzitun alperrik galdu: Luzifer'en egoak naikoa zabal izan ziranean, saiets uletsuetatik ari oratu ta ulez ule jatsi zan oian zurdatz eta zolda karraldotu tartetik zear. Eperdi-mamiflean doi-doi isterra nasaitzen dan lekura eldu giñanean, gidariak, neke-larri, arek zangoak eukazan lekurantza burua biurtu ta igonez doan gizonaren antzera aren uleari oratu eutson; nik, beraz, barrio be Su-lezara giñoiazaJa uste izan neban.

—Eutsi gogor, esaustan Irakasleak, nekatua lez arnasestuka; oiñazezko toki onetatik, mailladi ontaz urten bearra dogu.

Ondoren, arri baten arrakalatik kanpora urtenik, aren ertzean jarri-azo ninduan, ondoan bere oin zurra ipintn eustala. Jaso nitun begiak, Luzifer itxi genduan lez ikusiko nebalakoan; baiña berna-goi egoan. Esan bei, arrituko nintzanez, nik izan neban une estua zein dan ez dakian jente xeak. —Jagi zaitetz, esan eustan Maixuak; bide luzea daukagu oraindik, eta zador latza; onezkero, gaiñera, irugarren erdira elduaz doa eguzkia.

Etzan jauregiko soiLlaru gengoan tokia, azpi badaezpadao ta argi urriko amiltegia baiño.—Leza ontatik urten

orduko, ene Maixu, esan neutson zutundurik, zalantza bat daukot eta berau uxatu bear daustazu. Nun dago izotza? Ta zelan dago au azpikoz gora tinko? Ta gabetik goizera, epe ain laburrean, eguzkiak zelan egin dau bere ibillallda?

Erantzun eustan: —Zuk uste dozu, dudarik bage, munda zearkatzen dauan ar galgarri orren ule-zurdari oratu neutson erdiko bestaldean aurkitzen zareala oindiño. Ta an aurkitu ziñan, ni berutz nentorren bitartean; atzera biurtu nintzanean, lurraren astuntasun guztiak joten dauan unea igaro zenduan; eta orain eremu legorra estaltzen dauan borobil-erdiaren kontrako unepan aurkitzen zara, eta pekatu barik jaió ta bizi izan zan Gizona<sup>2</sup> illazoa izan zan unerik garaienaren azpian. Borobil txiki baten gaiñean, beste aldetik Judas'enera begiratzen dauan unean daukazuz oiñak. An illuntzean, emen goiz da; ta mailladi Jez izan dogun uletsu arek, lengo antzera dirau oraindik tinko. Alderdi ontan beera jausi zan zerutik; eta len emen agertzen zan lurra, a ikusirik izulaborritua, itxasoaz zapi bat egin ta geure biribil-erdirantza baztertu zan; eta bear bada, an aruntzago jasoten dakusazun mendiak be, arengandik igeska, usgune au itxi eban emen.

An bean ba-da usgune bat, bere obia dan giñoan Luzifer'gandik urrintzen dana; usgune au ezin daiteke begiz ezagutu, baiña bai oker gitxiko arkaitz baten, jira-bira makurrekaz, berberak edegitako uberkaz jasten dan errekazto baten zumurrez. Biderakuslea ta biok sartu giñean bide ezkutu atan, ludi argitsura barriz biurtu geintezkan; eta atsedean apurrik be geure buruari emon bage, igon gintzazan, a aurretik eta ni atzetik, zirrikitu borobil batetik ze ruak daukazan edertasunak ikusi al izan nitun arte, ta andik urten genduan izarrak ber-ikustera.

- (1) Nil íbai ingurukoak, balzak dira.
- (2) **Jesukristo.**

# G A R B I T O K I A

V-N i  
• ...m- \*S\* > *Wm*

**M \***

*.ú*



*Dante ta Bergilik, lurraren sabel-barne ibillaldi ikaragarria burutu ta gero, bestekaldeko borobil-erdira jo dabe, andik urtenik. Or Garbitokiko mendia, biribil ta eskerga; onen oiñeko ondartzatik izarrak ikusten dira.*

*Garbitokia txuntxur moztua da, mendi inguru guztia zurubi antzera eregita, inguru ta karel askogaz ornidua. Gorago ta inguak laburrago ditu mendiak\ alde batetik daukie arresi jagi bat, goiko karelari zutoin egiten dautsona\ eta bestetik, sakonean amaitzen amildegi izugarria. An goian daukagu txuntxur urratuaren koroia, ta onek dauka lurreko atsedentegi edo paradisua.*

*Utika'ko Katoriek zaintzen dau ugartea. Bta Dante'k kantu bitan margozten dausku berau. Garbitokiaren aurrekaldean, barrura baiño leen, larrin bat aurkitzen da, ta ementxe garbitzen dira bizitz-azken-azkenean damatu ziran arimak\ bizi izan ziran beste denpora egin bear dabe emen, garbi-bidean sartu aurretik. Arma onei buruz ariltzen ditu Dante'k irutik bederatzigarren kanturakoak. Aurrera dagie olerkari biak. Or karelak eta birak, zazpiraiño: pekatu buruak garbitzen jatzuz berton\ leenengo arrokeria de (lau kantu), bigarren bekaizkeria (kantu bi), irugarren asarrea (kantu bi), laugarren alperkeria (kantu bi), bostgarren zikoizkeria (iru kantu), seigarren sabelkeria (lau kantu), eta zazpi-garren lizunkeria (sei kantu).*

*Konta-ezin-ala arimakin itz egin dabe olerkariak. Baita agintza asko artu be, Dante'k baitipat. BergiVik ia amaitu dau bere egitekoa, zeruan sartzerik ez dauko-ta Orretan konturatu barik, lurreko paradisuko azken epean (azken kantuetarí) Bergili ostendu egiten da, Dante bakarrik itxiaz. Eta, azkenez, olerkariaren begi izutuen aurrean dager Zorione, Teologia nunbait, onek lagunduko dautso zeruko egonlekue-tatik zear.*

## I KANTUA

Muñña.—*Musai deika.*—*Olerkariak diñorskunez, bidariak (Bergili'k) eta berak, egun-urratzez ugarte baten dagozala, Utika'ko Katon atzemoten dabe.*—*Garbttokira igoteko baimena dau, ta itxasora doa Bergili'rekin.*—*An, Katon'ek esana egiñaz, Bergili'k arpegia txautzen dautso Dante'ri, baita iizko gerrikoa soiñeratu be.*

Ur obeak zearka-naiez oialak jasoten ditu orain nire as-mamen-ontzixkak, atzera itxiz itxaso egiazki zakarra; eta bigarren erreifü artaz dot abestuko, giza-espirtua gardostu ta zerura igoteko gai egin oi dauanekoa. Zuzper begi emen Musa deunak! , olerki illa, zeuona nozue-ta; betorkit emen KaJiope<sup>1</sup> bidera lagun, itza eskinka, zori gaiztoko Mike<sup>2</sup> areik euren parkamen-itxaropidea galtzeraiño eraxita itxi ebazan abots aregaz, ain zuzen be.

Sortaldeko zafir kolore leunak, egurats-kera geldia, leen, zeruraiñoko guztian garbi ixuria ta urtua agertu jatan, oso atsegintsu, biotz-begiak min-azo eustazan arnas-aize bíġgetik urten nintzanean. Maitasunera deragigun izar ditzitsuak sortalde guztia jarten eban irripartsu, jarraika etorkion Arrain-moltsoa astalpe arturik. Eskuirantz nintzan itzuli, beste goi-buruan begiak ezarriz, eta leen-gizonak ezik iñoiz ikusi bageko lau izar ikuskatu nituen. Eztitan zirudian zeruak bere argizko zirt-zirt betean. Oi iparralde leku its, ezin dituk ik tokiok ikuska!

Arei begiratzea etenik, beste goi-bururantz bíurtu nintzan pizkat, dagoneko Burdia agertuz joianerantza noski, ta neugandik urtxo zaar bat ikusi neban, bakarrik eta be-

giramen-duin oso, seme batek be aitari zor ez dautson ainbat, nik uste. Luze ta urdiñez zuritua zan aren bizarra, zuriak baita txeilu bitan ari bular-gaiñ jausten jakozan uleak be. Lau argi santuen erraiñuak, ainbesteraíño estaltzen bait eben argiz aren arpegia, eguzkía aren aurrean ba'legoken nekusán rúk.

—Nor zarie zuok ibilli dabillen ibaiaren aurka, betiko espetxetik ospa egin dozuenok? —jalgi eban ak, bizar agur-garri a dardarazoz—. Nok zuzendu zaitue ona? Edo nok argi egin dautzue sulezako ibarra betí zurbil iraun-azten dauan gau naasitik urteteko? Barren-legeak ausi ete orrela? Edo-ta lege barriren bat emon ete da zeruan, gaiztetsiak nire arpeetara etorri daitezán?

Nire bidariak ordun oratu eustan, eta itzez, eskuz eta kiñuz, belaunak tolestu ta begiak beeratu nengizala, begirunerik lotsenaz adierazi eustan. Erantzun eutsan ondoren:

—Ez naiatzu neure oldez etorri; emakume bat jatsi jat zerutik, nere laguntza oni eskiñi neiola eskatuz. Alan be, zure naia dan ezkeru gure izaera egiazkoa dan bezela azal daiguzula, ezin dagikezut ezelan be nik ezer uka. Onek ez dau oraindik bere azken gaua ikusi; bere erokeriz, baiña, ur-ur ibilli zalarik, arte laburra gelditu jakon biurtu al izateko. Esan dodanez, onengana bial ninduen salbatu nengian eta ez egoan beste biderik sartu naizan au ezik. Gaiztetsi guztiak erakutsi neutsozan, eta orain erakutsi nai dautsodaz zure zainpean garbitzen diran espiritu orreik. Luzea litzakit onaíño zelan ekarri dodan esatea; goitik datorkit zu ikusi ta zuri entzuteraiño ekarten lagun egin daustan indarra. Ar eizu, ba, adeiz beronen etorrera; oso maitagarri dan askatasunaren billa dabil, beraugaitik bizia be utsean emon dauanak dakianez. Zerorrek be ba-dakizu, orixegaitik ez bait jatzun mingatz izan Utika'ko eriotza, an itxi zenduan-eta egun aundian dirdaitsu jagiko dan gorputza. Gugaitik ez dira atzera laga betiko erabagiak; au bizi da, bai, eta Minos'ek ez nau lokarrizkatzen ezertan, zure Marzia'ren<sup>3</sup> begi garbiak dagozan birundan naukazulako: emakume au, oraíndiño be,

zeuretzat euki daízüla, bíotz aundi!, eska dago, itxura danez. Beronen maitasunarren, ar eizuz gure naiariak: ítxi eigu-zu zeure zazpi erreíñuetatik ibiiten. Geure esker-ona eroango dautsot ari, zillegi itxi ba'zengigu an beean znre aitatzetik.

—Marzia —esan eban orduan—>, an izan nintzan bitar-tean guztiz bait zan atsegingarri nire begientzat, eder naiz atsegin eskatzen eustan guztia egiten neutson. Orain, ibai zurbillaren andikaldean bizi dalarik, ez dau aalik niregan, gorputza itxi nebanean emona izan jatan legeagaitik. Alan be zerutiko emakume batek eragin eta zuzendu ba'zagiz, esan dozenez, ez dozu laztan-txera bearrik; naiko jat zuk aren izenean neuri eska daidazun. Zoaz, ba, ta eizu beste onek gerrira daiala eia-zume aratz bat, eta ikuz egiozu arpegia daukan loi guztia itzungi arte, ez bait da egoki begi laíñoztatuekin aurkeztu dadfn atsedeen-tokiko arein artean leenengo dan arduradunen artean. Ugarte txiki arek, bitan, olatuak joteren daben saietsetik, eiak dakaz lokatz bigun gaiñean; orria dakarren beste bedarrak, iraun dagianik beintzat, ez da gauza an bizirik irauteko, uíñen eragiñera ez litzateke makur- azoko ta. Orren ostean, ezpei emendik izan zuen itzulia; oraintxe bertan jagiz datorren eguzkiak erakutsiko dautzue igoera ohea mendiari gaiñak artuz.

Au esanik ezkutatu zan; ni, barriz, ixil-ixil zutitu ta bidariari urreratu naiakon, neure begiak onengan jarririk. Beingoan asi jatan mintzoz:

—Jarrai neure oiñatzai; biur gaitezan atzera, zelai-une au, ba, azken ondarreraiño doa emendik beera.

Goiz-ugatsa, aurretik íges joiana, gaillenduz eukan orduko eguntxintak; urriñetik oar bait nintzan itxas-ertzeko olatuan ukaldi-eragiñaz. Zabaldi bakartian zear genbiltzan biok, galdutako bide-zidorrera itzuli naiez ibilli ta ibilli, ta bera idoro arte alperrik dabíllela uste dauan gizonaren antzean.

Ara, íruntza eguzkiaz liskar-azo ta, leku añubetsuan bait dago, gitxi-gitxika urtzen dan unera eldu gífanean, nire mai-suak bedar zean gaiñez ipiñi ebazan gozo-gozo bere esku

biak zabalik, eta nik, ak nai ebanaz oartu nintzaneko, aregana zuzendu nitun neure matrail malkoz bustiak; eta berak egin eban, igurdízi leunez, sulezak ezaindu eustan kolore a barriro be gelditu zedin agiriko.

Ondartza bakartira iritxi giñan gero, aren ur-gaiñ ibilli ta atzera biurtzeko gai izan dan gizonik iñoiz ikusi bageko ondartzara nunbait. Antxe gerrikotu nindun besteak nai izan eban lez; eta, oi arrigarri!, landara umilbera susterretik atera ebaneko, beste bat erne zan bat-batez leenengoa erauzia izan zan lekuan.

(1) Epika oler-lanaren musa.

(2) Pieri, Pella'ko erregearen aíabak, Mike biurtu ei ziran musai geiágo egin nairik jagt ziralako.

## II KANTUA

Muiña.—*Eguna argitu zanean ur-ertzean egozan oraindik olerkari biak\ ur-gaiñez, ontzitxo bat ikusi eben andik, aingeru batek Garbitokira eroiazan arimakaz beterik.—Onein artean Dante'k Kasella bere adiskidea, musikalari aundia izana,ezo.gutzen dau.—Adi bage abesten dau Kasella'k, baila Dante'k ari entzun be, sor antzera.—Katon asarre, Garbitokira ain astiro doazalako.*

Eguzkia orduko zero-ertzean egoan, Jerusalem estaltzen dauan eguerdialdeko oboaren unerik garaienean; eta Ganges ibaitik urtenez ibillen onen bestaldetik doan gaua, eguna gaintitzean eskutik jausten jakozan Libra pixuekin. Egunsenti liraiñaren matrail larros-zurikarak, osterá, ni nengoan tokitik aundi urrezkoago emoten eben.<sup>1</sup>

Itxas-ertzean gengoan gu oraindik. Ibilli bear dauan bidean gogoá izanik, biotzez dabillen arren gorputzez geldi

dagoanaren antzera. Eta ona, Marte, an sarkaldeko iz-azalaren gaiñ, goizak ertsita bezela, gorri biurtu oi dan antzera laiño lodi artean, bardintsu agiri izan jatan níri —gaur be ikus al ba'neu!— leiaz etorren argi bat: ezeren egazkaldirik ez litzateke aren ibillí bizkorraren pareko. Eta nik, neure gidariari zerbait galdetti nairik, begiak arengandik aldendu ta barriro so-egitean, leen baiño be ditzizari ta aundiago ikusi neban. Gero, alderdi bakotxean, írudi jatanez, gauza zuri bat, ez dakit zer, ikuskatu neban; baíta azpitik be, ez-arian bai-arian zerbait zuri zana urteten somatu.

Maisuak ez eustan oindiño itzik esan, baiña bai ostera lenengo gauza zuriak egoak zirana oar-azo; orduan, ontzilaria ondo bait eban ezagutzen, oiu egin eutson:

—Makur, makur, belaunak! Ona Jainkoaren aingerua! Alkar eskuak. Gaurtik aurrera ikusiko dituzu olako Jainko-zerbitzariak. Ikus zelan ezesten ditun giza-bideak, ez dau arraunik nai ezta beste oialik be, egoak ezik, urruneko ertzak igaroteko, ikus zelan daukazan zerurantzaz jasorik, lumabetikorrakin aizeari eragiñez, oneik ez bait dabe ilkorren uleak lako aldakuntzarik jasaten.

Gero, jaincozko egaztia gugandik urrago ta urrago egin ten zalako, dizditsuagoa zirudian; eta, begiak urretik ezin so-egin eutsoen ezker, beera makartu nitun nik neureak, a, ur-gaiña ozt-oztan ebagiz ontziska baten txairo ta bizkor ondartzara etorren bitartean.

Txopan egoan zerutar ontzizaiña, ta zoriona ekarrela zirudian arpegian idatzita. Barruan jesarrita joiazan eunetik gora espirituk au abesten eben: «In exitu Israel de Aegypto», danak abots batean, salmu onen bertsoak osorik kantatuz.

Ondoren, aingeruak gurutze santuaren ezaugarria egin eutsen, eta onetan ondartzara jauzi egin eben guztiak, eta bera etorri baizen arin abiatu zan atzera. Toki aretaz miretsi eziñik zirudian an itxi eban laguntaldea, gauza barriak ikusten ditunaren antzera bein eta barriz ezker-eskuma begiratirik.

Eguzkiak alde guztietatik gezitzen eban eguna, ta jaurtia eban Akerraga zero erditik bere azlconakin, jente barriak gugana bekokia jaso ta esan euskuenerako:

—Ba'dakizue, erakus eiguzue bidea mendira igoteko.

Eta Bergil'k erantzun eutsen:

—Leku au ezagun dogula uste dozue zuek, bear bada, baiña bidariak gara, zenok zarien legez. Zuok baiño lentxoago eldu gintzazan ona, pizkat lentxoago, beste bide batetik, latz gogorretik noski, eta orain emendik igotea jolasa iruditzen jaku,

Arima areik, ni oraindiño, arnaska bai nengoan, bizirik aurkitzen nintzala oarturik, ízuaren izuz laru —its jarri ziran. Eta olibo-urraitza dakarren mezulariaren inguruan, gizatalka, olalcoaren barriak jakin-guraz, batu ta iñortxo be ortarako nagi agertzen ez dan lez, nire begi aurrean be orrelaxe metatu ziran arima doatsu guzti areik, edertzen joan bear ebelakoa be aazturik. Areitako bat ilcusi neban neu besarkatzeko asmoz urreratu nairilc; eta, guztiz maitekor etorren ezkeru, neronelc be beste ainbeste egin nai izan neban. O itzalak, itxura ezik ntsalak! Iru bidar gurutzetu nitan aren atzetik besoak, eta beste ainbestetan idoro nebazan neure-neure bular gaiñean.

Mirestea, uste dot, arpegian ageitu jatata, itzala ba irriparrez atzeratu egin zan; nik, osteru, aurrera aren ondoren, Geldi nendilla adierazo eustan abots samurrez, eta orduantxe igarri neban nor zan, eta arren eskatu neutson geldu zedilla unetxo baten alkarregaz itz-egiteko. Erantzun eustan:

—Maite zindudan gorputz ilkor nintzalarik, maite zaitut orain a erantzirik; orixe dala-ta geratzen naz; baiña zu zergaitik zoaz bide onetatik?

—Ene Kaselia,<sup>2</sup> barriru be egon nintzan lekuru biurtzeko egiten dot osteru au —esan neban—; baiña zuk, zelan luzatu dozu ainbeste?

Eta erantzun eustan:

—Ez daust iñok iraiñik egin; nai dauanean eta nai dauana gora jasoten dauan arek igaru-bidea sarri ukatu ba'daust

be, zintzoa da aren naia zuzentzen dauana. Iru illabete oneitan, egia inok eragotzi barik, ekarri dítu arek sar gura izan daben guztiak. Ni be arek artu ninduan samurki, Tiber ibaiko ura gazi biurtzen dan ondar-ertzean aurkitzen nintzalarik.<sup>3</sup> Orain be íbai aren agora zuzentzen dau bere egazkada: antxe alkartzen dira beti Akeronte'rantza jaisten ez diran ari-ma guztiak.

Eta nik:

—Lege barriren batek kentzen ez ba'dautzu oroimena edo-ta níri irriks guztiak gozartu oi eustazan maíte-eresien ekandua, arren eskatzen dautzut poztu daidazula pizkat neurre arimea, neure gorputzakin ona etortean ainbat naigabetua da-ta.

Bera orduan, biguin-biguinik «Pentsamentutik mintzo jatan maitasuna» kantatzen asi zan; samur egiazki, oraindik be aren gozotasuna durunduz bait daukat barruan.

Nire maisua, ta ni, eta aregaz egozanak, pozkarioz gainezka gengoan antza, inok beste ezertan gogorik ezpaleu bezelaxe. Gu guztiok aren notak entzun adi-adi gengoala, ona nun agertzen jakun zaar agurgarria, au oiuka:

—Zer da au, .espiritu berankorrok? Zer baldankeri, ze ardurarik-ez dozue au? Zabilte bjzkor mendira, dozuezan loikeriak garbitzera; orreik ez dautzue, ba, izten Jainkoa aitzen emoten,

Usoak ondarra naiz zoragaria pikoka, janari inguruan baturik, geldi-geldi dagozanean, oizko daben aundi-aizerik erakutsi bage, baiña izutzen ditun zerbait inguruko gerta ezkeru, ots-otsean jatea itxi oi dabenez, ardura aundiagoren batek eraginda; era berean ikusi neban nik be talde a, eratu barria nunbait, kantua lnga ta itxasaldean zear sakabanatzen, norantza doan ez dakila edo dabiltenaren antzera. Gure andik alde-egitea be etzan bizkor-ezagoa izan.

(1) Dante'ren ustez. Garbitoki mendía, Jerusalem'i bizkai' aurkitzen da.

(2) Florentzia'ko musikari ta abesle.

(3) Garbitokirako onrzia artzeko lekua, Tiber ibaiaren mugan dago.



### III KANTUA

Muiña.—*Olerkaria, barriro be Bergili'rekin alkartuz, mendirantza doa. Mendioiñera eltzean, eta egoera billa dabii tzalarik, urreratuz datorkien arima talde bat dakuse.—Miretsita begira eukezan areikana urreraturik, mendira nundik igoten dan itanduten dautse arei, ta arein esana egiñaz atzerantza dabiltzala, arima bat, Manfredo, Sikili'ko erregearena, aurreratzen jako Dante'ri.—Onek diñotsa zelan azken orduan Jainkoagana biurtu xan, eta xelan dagozan an, Garbitokira sartu bage, Elixarekin muker il ziranen arimak.*

Arima areik, errazoiak zentzaten dauan mendirantza itzuliz, bat-bateko anka-jokoak zeJaian zear sakabanatzen zitu bitartean, nik neure lagun zintzoagana jo neban. Zelan, izan be, joko neban aurrera a barik? Nok lagunduko ninduan mendian zear ígoten? Berak be ba-eban, nik uste, kezka bere barrnan. O kontzientzi garbi arteza! Okerrik txikiena jatzu kezka-íturri latz!

Arein oiñak, egite guztiei duintasuna gitxitu oi dautsen lasterketa itxi ebenean, nire gogoa, bere leen-begiztaldían murgildua egoana, jakin-gura bizitan barriro btzkorturik, begiak itzuli nebazan itxasotik zerurantza geiago nabarmentzen dan muiñera. Atzetik gorri dizditzen eban eguzkia ausita geratzen zan nire itxura aurrean, neugan bait eben oztopoa aren erraiñuak aurkitzen. Bertan-bera itxia nintzalakoan, alborantza biurtu nintzan, lurra neure aurrean baknrrik illun zala-ta.<sup>1</sup> Nire babesleak onela:

—Zergaitik zu oindiño be siñisgogor? —asi zan esaten enegana—. Ez ete do2uz siñisten zugaz nagoala ta 2u gidatzen? Arrats-bera da onezkero nire gorpua, bere barne itzal nengiala, eortzita dagoan tokian. Napole'k dauka Brñdis'eri kendu egin dautsoe. Orain, nire aurrean itzalik ez ba'da, etzattez arritu, zeruko izanak be ez bait dabe itzalik egiten bata-bestearen izpi-erraiñuz. Goi- tndarrak egin ba'dagi guk gorputzean bezela lor-oññazek, bero ta otz, jasatea, baiña ori

zelan dagian ez dauku guri adíerazten. Maketsa da gero, iru nortzutan izate bat daukanaren burubide azkengeak ulev litzakela gure errazoiak, uste dauana. Poztu zaitez, gizakumeok, egiñakín; oro ikus al ba'zengíe, Mari'k ez eukan zetan aur egiñik; eta ikusi zenduezan frutu barik irrikatzen, aal izanik, kezka lez euren barruan sekula ta beti daroen guraria aserik ikusi ba'lebe: «Aristotele ta Platon eta ainitz geiago dakardaz gogora». Orduan, bekokia makurturik, ez eban geiago ezer esan, eta kezkatu lotu zan.

Atarík atara mendiaren oiñera aldu giñean; arkaitz tut malkartsuak idoro genduzan bertan, eta eurok igoteko gitxi litzakezan bernarik azkarrenak be. Lerize ta Turbia<sup>3</sup> artean, bide bakarrena noski, ausi-abartsuena, aren aidean zubi bat da, aldatz errez zabala, igaro daitekena.

—Nok daki orain —jalki eban nire maisuak, ibi.llita pizkat bareturik—, zein alderdí dan igoteko errezena, ta zelan igon daiteken egorik bage?

Eta a, buru-makur, zein bide artu pentsatzen ziarduelarik eta nik neure begiak gorantza jaso ta mendian gaíndi znzntzen nitularik, ezker aldetik agertu jakun guregana etorren aríma tal.de bat, astiro ebiltzalako etzirala mugitzen zirudiana.

—Jaso egizuz begiak —esan neutson nik maisuari—; or dogu kontseju nok emona, zu zeurez egiteko gai ez baldin ba'zara.

Begiratu nindun orduan, eta azbegi gozoz erantzun eustan:

—Goazen arantz, eurak astiki bait datoz; zuk, oster, ene seme, beukízu sendo itxarokizuna.

Jente-talde a, guk milla bat oinkada emonda be, abailari on batek bere eskuaz jadetsiko Ieukean almenera egoalarik, mendi-egala estaltzen eben arkaitzetara guztiak joaz, bertan Iotu ta potix egin eben, alkar estu-azorik, duda-mudan da-goana ara-ona begira gelditu oi danez.

—O zuok, ondo amaitu zenduenok! —ots-egin eban Bergili'k—. Espiritu dagoneko autatuok! Zuok guztiok, nik uste, itxaron dozuen bakearren, esaidazue norantza daroan mendi onek, igon al daiteken beronen gaiñaldera; denpora galtzeak, bada, dakiana geiago samindu daroa.

Ardiak saletxetik banan-banan, biñan, irunan urten oi díran lez, besteak izukor begiak eta muturra beera jasten dabezala, ta aurrenak dagiana enparauak be egiñik, ari itsatsiz riare ta sotil, a gelditzean, naizta zergaitik ez jakin, eurak be geldituaz, olaxe ikusi neban gugana urreratzen, arpegi lotsakor eta iblli eratsu, talde bildurti ta zorionsu aretako leenengo arima. Nire itzala nigandik arkaitzera baít joian, buru egiten ebenak argia nire eskuma-aldeko Iurrean ebagia ikusi ebenean, gelditu ta zerbait atzerantza egin eben, eta eurekin etozan beste guztiak be, zergaitik jakin ez arren, beste ainbeste egin eben.

—Zuok galdetn ezta be, neuk autortzen dautzuet, emen ikusten dozuen au giza-gorputza dala; orixegaitik eten dau lur gaiñean eguzkiaren argia. Ez zaiteze arritu, baiña siñets egizue, zerutiko indarrez soil-soilki orma oni gaiñartzen saiatzen dala.

Onela mintzatu zan maisua, eta gizatalde prestu arek erantzun euskun:

—Itzul zaiteze, ta jarrai oraindik aurrerago.

Eta aldi berean kiñu egiguen esku-gaiñakaz. Euretatik bat onela asi zan esaten:

—Zareana zareala, biur eistazu zabiltzaJarik arpegia, ta gogo-emon egizu iñoiz munduan ikusi ete ninduzun.

Biur nintzan arengana, adi-adi begiratzen neutsola: zuri-gorri zan, eder eta itxura lerdeneko, baiña bepuru bata ebagirik eukan sastada batez aurki. Nik, apal-apal, ez nebala egundo ikusi autortu neutsonean, arek esan eustnn:

—Begira bada!

Eta zauri bat erakutsi eustan paparraren gaiñekaldean. Gero, barre-irrika, gaiñeratu eban:

—Manfredo nozu, Konstantza andra agintariaren billoba; orregaitik mesedez eskatzen dautzut, barriro ara biurtzean, zoazala nire alaba ederra ikusten, Sizilia'ko ta Aragoi'ko dedu ta ohore diranen ama dozu berau ta; egia esaiozu, besterik esaten baldin bada be. Sastada ilkor bategaz zaurituta neure gorputza aukita gero, parkatzean atsegiña dauan Arengana itzuli nintzan negarrez. Izugarriak izan ziran noski nire obena, baiña ontasun azkenbako danak beso-luze-luzeak ditu-ta, euretan artu oi dau Beragana biurtzen dana. Kosentza'ko artzañak, Kelemente'k atzetik aurka bidali eustanalc, orduan Jainkoaren orrialde au ondo irakurri ba'leu> nire soinazurak Benebento ondoan, zubirako sarreran legokez oindiño, arri astunen babespean. Euriak bustiten ditu orain, eta aizeak bultzatzen erreñutik kanpo, ia-ia Verde ertzean, araxe bait eban ak aldatu tortxo itzaliekin.<sup>4</sup> Aren madarikapenez, baiña, ez da iñor galtzen betiko maitasunera egundo ez biurtzeko eran, itxaropena lore berdez jazten dan bitartean beñik-bein. Egia da: Eliz Amarekin muker ilten dana, guenean damu izan arren, ur-ertz ontatik at egotea bearrezko jako, mukerkerian edo temati bizi izan zan aldia, ogetamar bider betetea, epe-muga ori otoitz gartsuz labur azia izan ezin beintzat. Begira, bada, zein zoriontsu egin nagikezun nire Konstantza onari zelan ikusi nozun iragarriaz, baita jasan bearra dodan oiñazea adierazo be, emen ba angoen erreguz asko gitxitzen da daukagun mina.

(1) Dante'k bakarrik egian geriza, soindun zalako.

(2) Bergili Brindis'en il zan, baiña Napoli'n lurra enion eutsoen Augusto'ren aginduz.

(3) Turbia, Genoba ondoko aitz ebagia.

(4) Manfredo'ren gorpua obitik ateia egin eben, eta beie azurrik sakabanatu.

#### IV KANTUA

Muiña.—*Nekez baiña mendira igoteko lekura eldurik, olerkai diak bide-zidor estu malkartsu baten sartzen dira: esku-oiñekin bide egiñez doaz aurrera, mendiak daukan leen-ordokiraiño.—Emen ezarri dira, ta Bergdi'k eguzkia zergaitik aurkitzen dan bestekaldean azaltzen dautso Dante'ri.—Onek, barriz, arkaitz itzalpean etzunik dagozan arima askoren artean, Belakua alper-ontzia ezagutzen dau.—Onek adierazten dautso zelan dagozan bertan, bizitz-burura arte, Jainkoagana bmtzea atzeratu ebenak.*

Atsegiñesz naiz oiñaze etagiñez gure almenetarikoren bat sorgortu oi danez, arima be bere baitan kiribiltzen da, ta, itxura danetik, ez dautso beste indarri men egiten; au, oster, guregan arima baten ondoan beste batek arnasa dagiala uste dabenen aurka dago; ortik, arimea zur ta lur egiñik daukan zerbait entzutean naiz ikustean, aldia gizasemeak konturatu bage doa bere bidean aurrera; bat baít da entzuten dauan indarra ta beste bat arimari oso eusten dautsona; au loturik lez daukazu, ta aske bestea. Ondo nabari izan neban nik au espiritu ari entzutean eta bera mirestean; eguzkia berrogetamar mailla gorago igona 2an, ni artaz oartu bage, arima areik, danak batera, «Or dago zuek galdetzen dozuen bidea» deadarrez asi jakuzan tokira otorri giñanean.

Nekazariak sarri, maatsak gorrizkatzen diranean, zulo aundiagoa itxi oi sasi-eskutadaz, arimak gugandik banandu ziranean guk, gidariak eta nik, igon genduan zuloa baiño. Sanleo'ra eltzen da, Noli'ra jatsi, Bismantoya'ra, tontorre-raino, oiñez be igoten da, baiña an egaz egin bear zan, ego ariñez esan nai dot eta gurari bizizko lumaz, itxaropena ixuri ta argia emoten eustan arek zuzenduta noski baiño noskiago.

Aitz zartatuen artetik zan gure igoera, alde bietatik es-tutzen ginduezan arein ormak, eta azpi latz malkorrak esku-oiñak erabílizera beartzen. Arkaitz garaiaren goiko laba-

rrera, leku edegira eldu giñanean, nik esan naban: «Ene Maisu, orain zein bide artuko?» Eta arek erantzun eustan: «Urats bat be etzaitez atzeratu; jartai zakidaz mendian gora atzetik, zuzentzaille trebe bat ager dakígun arte».

Oso garaia zan mendi-kukutza, begiekin gaintitu eziña, eta adatza orratz-laurenetik erdiunera jasten dan lerroaraiño naiko erripeagoa. Nekatua nengoan, eta oiuz asi nintzakon: «O aita samur! Biur zaitez eta ikus, astiroago ez ba'zabiltz, bakarrik gelditzen zara! ». «Ene semetxo —esan eustan—, saia zaitez onaiño etorten». Eta alderdi artatik mendia osorik inguratzen eban mail-koska bat goratxoago erakusten eustan.

Adorea bait eusten aren itzak erantsi, saia nintzan aren ondora igoten, azkenez be bere oinpean ikusiz aitz-mokor troska. An ezarri giñan biok, eguzki aldera begira, igon giñean lekurantz noskí, ibilli dan bideari so-egitea atsegingarri izan oi da-ta. Leenengotan nik beeko sakonera zuzendu nitun begiak, gero eguzkera jasorik, miretsia geratu nintzan aren izpiak gu ezker-aldetik joten ikusiaz. Laster oar zan olerkaria ni sor-lor nengoala argiaren burdia gure eta Iapar (Alcillon) artean igaroten ikuskatuz. Esan eustan:

—Kastor eta Polux,<sup>y</sup> guri goitik eta beetik bere argia bialtzen dauskun ispiliu aregaz batera ba'legoz, Zodiako ikusiko geunke, gorrizkatua, oindiño urrago ikusiko geunke Artz-izarretatik, biraka nunbait, bere oizko bidetik urtena ez baldin ba'dabil beintzat. Au zelan daiteken jakin nai ba'dozu, irudi egizu, zeure baitan batiua, Sion eta mendi au, onela dagozala lurraren gaiñean, biak daukiez osertz bardiña ta boil-erdi ez-bardiñak; ortik, ba, ulermena argi baída-rabiltzazu, laster ikusiko dozu, Faeton'ek<sup>2</sup> bere txarrerako ibilten jakin ez eban bidea naitaez doala mendi onen alde batetik eta lenengoaren alde aurkakotik.

—Egi-egiaz, ene maisu —erantzun neutson nik—, ez neban egundo orren argi ikusi adimurri nirudian alako gauzetan, orain baizen nabari, goiko borobillaren erdian dagon oboa, lur-gerri edo antzeren baten<sup>3</sup> Ekuadora deritxana, eta

beti uda ta negu tartean dirauna; ori dala-ta, emendik urrun dago ipar aldera eberrak alde berarrantza ikusi oi eben bestea. Baiña, eder ba'jatzu, leiatsu jakin nai neuke zenbat bide ibilli bearra dogun oraindik, mendi au nilc begiz iritxi daikedan baiño gorago igonik doa-ta.

Ak jardetsi eustan:

—Alakoa bait da mendia, igoten asikeran beti neketsu, baiña batek gorago ta neke gitxiago nabaitu oi dautzu. Ori-xegaitik, urtiraren barna leun-leun doan ontzia baizen azkar zoazala iruditzen jatzunean, orduantxe zagokez bide-txiorraren azkenean. Gorde ordukoxe zure atsedeen-irritsa. Ez dautzut beste ezer eskatzen, auxe bakarrik bait daukat ziurtzat.

Ak itzok ebagi besterik ez, abotsa aditu zan ondoxean:  
—Aurretik, bear bada, jarri bearra izango dozu!

Ori entzutean buruak biur genduzan biok, eta arkaitz mokor aundia ikusi genduan geure ezkerretan, aurretik ez nik ez ak autemon ez genduana. Urreratu giñan aregana, ta arkaitz ostean nor batzuk ikusi genduzan, itzalpean gizaki nagí-ustelak egon oi diran lez, etzunik eta geldi. Areititik ba, niri nekatua iruditu jacana, jarririk egoan eta belauak kurutzaturik, arpegia euron artean eukala.

—O ene jaun atsegin! —jalgi neban nik—; jar egizu begia, txakur zuria bere aizta ba'leu baiño be fardelagoa dirudin orregan.

A orduan gugana itzuli zan, aztertu gínduzan, bere berna-gaiñez begiak bialtzen euskuzala, eta iraunsi eban:

—Zoaz, ba, gorago, ain adoratsu agertzen zarean ezker,

Orduan oar nintzan ni nor neban; oraindik be arnasa iñausten eustan zerbait, baiña ez neban oztopo izan aregana urreratu nendin, eta ni bere ondo-ondoan ikusiz, oztotzan jaso eban bere burua, esanaz.

—Ondo ikusi ete dozu eguzkiak zelan daroan bere burdia zure ezker aldetik?

Aren ikara nagi ta itz laburrak erdi-edegi eustazan ezpanak irri-barretan, Gero asi nintzako esaten:

—Belakua,<sup>4</sup> onezkero ez naitzazu errukior; baiña, esaidazu: zergaitik zaukadaz emen ain jarria? Bidariren bateren zain al zagoz? Edo-ta betiki nagikeriak mende bir-artu ete? Eta arek:

—Ai, anai! Zer ete dakar gora igoteak? Jainkoaren aingeruak, ba, garbitokiko atean jarrita dagonak ez daust araiño eltzen itxiko. Leenen bearrezko da, zeruak, ni kanpo nengoala, nere bizitz-aldian emon ebazan beste bira emon dagizala neure inguruan, nik azkeneiaiaño luzatu bait nituen neure damuzko negar-zotíñak. Jainkoaren grazian bizi dan biotz batetik jagitako otoitzak lagun ez ba'letorkidaz, besteak zer balio daustie, zeruan entzunak ez ba'dira?

Olerkaria, bitartean, igonaz joian gure aurretik, au esanez:

—Zabiltza onezkero; begira, eguerdi-orratza ikutzen dago eguzkia, eta gauak be laster jarriko dau Marrueko itxas-ertzean bere oiña.

(1) Kastor eta Polux, LeoVren semeak. Bikotz Ízar-moltzia eritzen dabe.

(2) Izar-zientzia.

(3) Arrabita-gille ospetsua, baiña nagia.

## V KANTUA

Muiña.—*Mendirantz doa olerkaria, ta arima talde batekin buru egiten\ oneik, bizien arteko bat an egoala ta berau bariro be ludiratuko zala jakiñik, biran jarten jakoz oni, euren senideei gorantziak emateko eskutuz.—Beiiko salbame-nari buruz nagi ta zabar jokatu leenengo ta gero, eriotzak*



*ez ustean artu ebazanean, euren utsegiñez darnutu izanak dituzu guztiok.—An dagoz, beste batzuen artean, Cassero'ko Jakobo, Monlefelro'ko Bonkonte, eta Siena'ko Pia, guztiak olerkariari azaltzen diardue euren eriotz-zeetasunak.*

Itzal areitatik alderatua nintzan ni ordurako ta zuzendari nebanaren oiñatzak jarraituz niñoian; onetan, gibel neukan batek, atzamarrez ni adierazoz, deadar egin eban:

—Ikus! Eguzki-izpiak ez dirudi atzetik dabillenen ezkerrera emoten dauanik, eta bizi danarena da olako ibillera!

Biurtu nebazan begiak itzok entzutean, eta neuri begira ikusi nituan arri ta zur egiñik, neuri bakar-bakarrik eta nik geldierazten neban argiari begira:

—Zergaitik zeure gogoia orrenbeste kezkarazi, ibiltea be laburtzeraiño? Zuri zer, an abots ixilka, zitzi-pitzika jardunagaitik? Jarrai zakidaz, eta itxi zuzmur dagien jenteak. Iraun egizu trinko, aizeak putz eta ats emonik be burua iñoiz makur —azten ez dauan torrearen antzeko. Gizasemea beti, asmo bat beste baten gaiñ irakiten daualarik, bere jomugatik urrunduz joan oi da, bateren lerak besteren garra naiz-ta aul-azo.

Zer erantzungo nik oni, «ba-noa» baiño. Olaxe esan neutsen, gizona noizik-bein errukarri egin oi dauan margoz arpegia estaldu jatanarren.

Orretan aldaar zear geuganuntz etozan arima batzuk, bertsoz bertso *Miserere* abesten ebela. Baiña nire gorputzak ez eutsela igaroten izten eguzki-izpiei, oartu ziranean, «Oil» luze gozagaitz biurtu zan arein kantua, eta areitatik bik, mezulari legez guregana urreratuz, galdetu euskuen:

—Jar gagizuez jakitun zuen izaeraz.

Eta nire maisuak:

—Itzul zaitezue ta esaiezue bial zaituenei, egi-egiaz bai, onen gorputza aragizkoa dala. Beronen itzala ikustearren, nik susmo dodanez, euren ibillia laburtu baldin ba'dabe, erantzunik naiko daukie; dedu begioe, onurakor litzakie-ta bear daba.

Egundaiño ez neban nik leendik ikusi gau-asikeran izar-lokarik ozkarbian orren azkar ezta eguzki-sartzean dagonilleko odeiak zearkatzen arima areik batzen bizkor gorantza egiten; eta an besteakin alkaturik, gure ganantz biurtu ziran galga barik dabillen zaldi-taldea iduri.

—Gutziz aundia dozu guregana datorren moltzo ori ta eskariren egitera datorkizu apika —esan eban olerkariak—; baiña zuk jo aurrera ta zabiltzalarik egon zurt.

—O arima, jaio zifian soin-atal ber-berakin zorionera zoazan ori! —etozan oiuka—. Geldiaz egizu pitin bat zeure oinkada; begira; gutarikoren bat iñoiz ikusi ete dozun, olakoaren barria mundura eroan dagikezun. E! Zergaitik zoaz aurrera? E! Zergaitik atzera geratzen? Indarrez illak gara gu guztiok, eta pekatari azken ordura arte. Orduantxe argitu ginduzan zeru-argiak; olan damutu ta parkatuz, Jainkoaz onezkoak eginda, atera giñam bizitzatik; Beronek orain bera ikusteko irrikaz indarazten gaïtu.

Eta nik:

—Zuen betarterik, arretaz begiratu be, ez dot nik bat bera be ezagutzen; baiña ni zer-edo-zertan lagun izatea eder ba'jatzue, espiritu prestuok, esaidazue ta nik egingo dauzuet mesede orí zuzendari onen oiñatzai jarrai munduz mundu billa eragiten jatan bake agaitik.

Eta areitako batek oiú.

—Zin-egin ezta be, guztiok dogu uste ona zure naian, eziñak beztu ez ba'dagi beintzat zure gogomin ori. Nik, ba, besteok baiño leen bakarrik mintzatzen naiatzun onek, eskatzen dautzut, Romaña ta Karlo \* tartean dagoan eskualdea iñoiz ikus ba'zengikezu, lor egidazu Fano'n zeure otoitz adeitsuen bitartez ango onak eska dagieia nire onerako neure pekatu astunak garbi dagidazan. Angoa nintzan ni, baiña janaritzen ninduan odola atera zan zauri sakonak Antoner'tarren mugetan egiñak izan jatazan, antxe bai, nik ziuf-ziur nengoala uste neban tokian, Sortaldekaok agindu eben ola-xe, zuzenak eskatu baiño geiago gorroto ninduanak; nik

orraitiño, Oriako'ra eldu nintzanean Mira'rantz iges egin ba'neu, oraindik arnas-artzen antxe nengoken. Istingara jo neban eta kañaberek eta kokatz-arteak atzeragarri izan jatazan oso, ta jausi nintzan eta ikusi neban neure zanak iurrean osin bat egiten ebela.

Beste batek ondoren esan eban:

—A! Bete bekizu mendi garai ontara ekarri zinduzan guraria, zuk zeure onguraz nirea bete nai dozunez! Ni Montefeltro'koa izan nintzan, ni Bonkome nozu. Jone'k ezik besteak ez dabe nire axolarik; origaitik noa ni buru-makur onein artean. .

Erantzun neutson:

—Zer indarrek edo-ta zer zorik eraso zinduzan Kanpaldino'tik kanpo, zure illobia nun dagoan egundo ez jakiteraiño nunbait?

—Oi! —erantzun eban ak—, Kasentino oiñean doa Arkiano derítxon erreka bat, Apenino'n, Ermo gaiñean, jaioten dana. Araxe, onezkero alperrikako izena daroanera, eldu nintzan ni, eztarrian zauritua oiñez igeska ta lau odollez gorritzen. An galdu jatan ikusmena, azken-itz lez Maria izena jalgirik; an jausi nintzan eta antxe geratu zan nire gorputza bakartade gorrian. Egia bera diñotzut, eta zuk beresango dozu bizien artean; Jaungoikoaren aingeruak artu ninduan, eta infernukoak deadar: «O! zuk, zetuko orrek! Zergaitik kentzen daustazu au? Bere betierekoa daroastazu, Iapurtu daustan malkotxo batez; baiña gaiñerakoa ez dot bardintsu erabílliko.

«Ba-dakizu nola lurrun ezóa, euritan jausten dana, eguratsean bátzen dan, otzak eltzen dautson lekura igon baizen azkarki. Orobat ak be, gaitza soilki nai dauan ak batu eban adimen-oldez bere ezin-ikusia ta ke-lurruna, aizeak naasi eban bere izateari dagokion kemenez. Arana ordun, eguna urtu zanean, Pratomagno'tik mendi besanga aundira artekoa, gurmé gertatu zan; goiko zerua aizaro egin zan guztiz, ur biurtu zan aide ase, lodia; euria jausi zan, troketara lerratuz Iurrak iruntsi al Íñan ez ebana, eta errekn guztietako ur-

tiraiñak azi ta ibai nagusira oldartu ziran lez suar bizian, etzan ezer arei eutsi al izatekorik. Nire gorpu izoztuak aren iztabo mugen Arkiano aurkitu eban urez azia ta Arno'rantz eroan eban zírrika-zarraka; nik neure bularrean, oiñazeak sakaildu ninduanean, neure besoz egin neban gurutzea an-deatu zan, eta izpazterrez eta sakonez txintxilipurdi erabilli nindun ondoren; azkenez, bere ondar artean estali ta mol-tsotua gelditu nintzan.<sup>3</sup>

«A! Mundura itzul zaitezanean, eta ibilte Juzez atsedendu —jarraí eban irugarren espirituak, bigarrenak berea amaitzean—, oroi zaitez nítaz. Pia nozu, Siena'k egin nindun eta Maremma'k (itxas-padurak)zuzitu. Ondo daki ak, orduko alargun, niri jarririk bere ereztuna, ezkontzat beregandu nindinak».

(1) Arkona'ko Marka.

(2) Mira ta Oriako, Padua'tik ur dagozan alderdi bi.

(3) Iñoiz etzan geiago jakin gotpu aren barririk.

## VI KANTUA

Muiña.—*Olerkariai beste arima batzuk bidera\ oneik be euren gorputzetatik indarrez bananduak, eta azken-orduan Jainkoarekin onezkoak egiñak.—Batzuen izenak aitatzen dira.—Txeratsu artzen dau Sordello mantuarrak bere errltar Bergili.—Dante'ren mintzo larria Itali zatituaren eta onen gaitz guztiaren errudun diranen aurka.*

Zara<sup>l</sup> jokua amaituta, doazanean, txintxilimur eta buruz-beera gelditu oi da galtzen dauana, esku-aldeak gomutara-tuz eta naigabetan eurak buruan irauliz noski; irabazi ebana, ostera, pozik doa jentez inguratua, au aurretik bestea atzetik, eta irugarrena alboan, danak bera zoriondu nairik;

bera ez da gelditzen, baiña, ari ta oni entzunda be, ari eskua luza ta besteagandik aske; gisa onetan da lagun-andantik jagoten,

Olaxe nengoan ni be jentetza estuaren erdian, ona ta ara neure azbegia biurtuz, eta zarraparra artatik ni askatzeko eskatzen. An egoan arezotarra, Tako'ko Ghin basatíaien eskuz eriotza artu ebana, eta etsai-eizan ebillela ito zan bestea. An egoan erreguka, eskuak goi, Federiko Novello, baita Pisa'ko a be, Marzuko onaren barne gotorra diztir-azo ebana. Orso kontea ikusi neban, eta beste a, arimea, ez erruren bategaitik gorrotoz eta bekaitzez baiño, berak autortu oi ebanez, gorputzetik bereiztu ebana, au da, Brose'tar Kepa diñot, eta kontuz bizi dedilla emendik dalarik, Brabante ren andrea, talde gaizkiña goa gerta ez dadin gerokoan.

Alik ariñen santu eitezan euren alde besteak otoitz egiteko eskatzen eusten itzal guzti areingandik jarei ikusi nebanean neure burua, esaten asi nintzan:

—Zeure idazkunen batean, oi ene argi!, zuk argi ta garbi ukatzen dozula dirudi otoitzak ez dauala zeruko erabagiak aldatzeko indarrrik, eta jente onak alan be ez dau besterik eskatzen. Itxarobide utsa ete dabe, ala nik ez ditut ondo ulertu zuk esanak?

Eta ak niri:

—Argi dozu nik idatzia; eta onein itxaropena ez dabil oker, gauzak erizmen garbiz begiratu ezker; eritxiaren gailurra ez bait da urriagotzen maitasunezko suak emen dagozanak ordaindu bear d.abena, unetxo baten, besterik bete arren; eta nik esaera jarri neban lekuan uts.ak ez dira erreguz zuzentzen, utsa-da-ta otoitza Jainkoagandik alde-eraginda dagozantzat. Zuk, baiña, ez egizu zure eritxia ondu ezpai orren sakonare.n gain, egiaren argia ixuriko dautzunak adimena argitu dagizun arte. Ez dakit ulertzen ete daustazun: Zorione (Beatziz) dakatzut gogora; gorago ikusiko dozu, mendí onen.tontorrean, betargi ta zoriontsu.

Eta nik jardetsi:

—Jauna, goazan ariñago, orain ez bait naz Jeen legez nekatzen; eta, begira, bere aiñua emoten asia da mendia.

—Aurrera joko dogu egunaren barrena —erantzun eustan—, al doguntxo guztian; bídea osterá es da zuk uste lan-goá. Zuk, azkenera orduko, itzultzen ikusiko dozu orain gain-degi orrez estaltzen dakusazuna, ots, alderdia, zuk aren argizpiak ausi ez daikezuzan bestean. Ikus an arima bat geldi ta bakar, guri adi-adi; aretxek erakutsiko dausku bíderik laburrena.

Eldu giñan arengana. O Ionbardar arima! <sup>2</sup> Zu bai arro, iguingarri! , eta begi kinuetan aundiki, garrantzizko! Ez euskun ezer adierazten, baiña begiratzuz bakarrik beraganatzen izten euskun atsedenean legoken leoiak iduri. Arengana urreratu zan Bergíli igoteko biderik erosoena zeln zan erakuts egigula eskatuz; arek ez eutson erantzun egíndako itaunari, gure sorleku ta bizitzaz galdetu ba'eban be. Nire zuzendari maitekorra orduan asi zan esaten:

—Mantua...

Eta itzala, beregan txit batua, egoan lekutik jagi ta arengana zuzendu zan, au esanez:

—O manruar! Ni Sordello naz, zure lurrekoa!

Eta biak alkar besarkatu eben.

Ai, Itali jopu biurtua, aterpe gaixoti, ekatxik zakarre-nean ontzi lemazain bako; onezkero ez erkien andera, likitszaleena baiño! Arima guren a, bere aberriaren izen eztiá adituz bakarrik, bere urikideak jaiez ospatzen saiatu zan, eta oraín zurean bizi diranak ez dakie burruka barik bizi izaten, arresi ta arroil berberak babesten dituezanak alkarren arteko liskar lotsagarrian suntsi-azorik. Billa, doakabe orrek, zeure tzparterrez, eta so gero zeure barnera, ete dauan bakerik zure zatí batek be. Zertarako doitu eutzun galga Kansantin'ek, aulkia utsik ba dozu? A barik, ain gorria etzan izango zure lotsa. Ai! , elizkoi izan bear zenduenok, eta Kaisar I laga kaderan jarten, Jainkoak orkatzekin zentzatu ez zenduelako, bere ao-ugeletan eskuak jarri zehduezenetik! O

Austria'ko Albert,<sup>3</sup> ezikaitz eta basati biurtzen ikusiz bertan-bera laga dozuna, aren jargi-makoa estuagotu bear zendue-  
nean! Izarren epai zuzena eror bedi zure odolaren gaiñera,  
zigor barri ta distiranta, zure oiñordekoari zentzabide izan  
dakion Zuk eta zure aitak, ba, aizu egin dozue, urre-gosez  
mendiak besteratuta, eremu izan dadilla aginterriaren bara-  
tza. Zatoze ikustera, gizaseme zabar, Menteskarrak eta Ka-  
peletarrak, Menaldiarrak eta Filipeskiarrak; areik dagoneko  
goibel, eta oneñk aiar eta sumari! Erdu, anker; erdu ta ikus  
zure prestuen nausikeria, eta zigor-azo arein larkeriak. Or-  
duan dakuskezu Santaflora seguru ta nasai! Etorri ta ikus  
ñegarrez daukazu zeure Erroma, alargun eta bakarrik, gau  
ta egun deadarka: «Ene Kaiser, zergaitik ez daustazu la-  
guntzen?» Zatoz eta ikus jenteak zelan diran maite! Eta  
gutaz ezek errukitzen ez ba'zaitu, zatoz eta ikus zeure os-  
peak zelan zaitun lotsarazten. Eta lege ba jat, o Jabe  
garai!, lurtean gugaitik gurutz-untzatuia izan zifan Orri nil  
galde dagizut: Zure begi zuzenak beste aldera itzulirik al  
zagoz? Edo-ta gertakuntzaren bat ete dogu, Zuk zeure era-  
bagien. sakonean, guk ulertzen ez dogun onen baterako?  
Jauntxo gaiztoz beterik dagoz Itali'ko uri guztiak, eta alder-  
di baten sartu edozein kalekumek Markel dala uste dau.

Ene Fiorenza, pozik egon zeintek ez dagokizun itz-  
beste edo luzatze augaitik,<sup>4</sup> ain dirdaitsu ta trebe dan zure  
erriari esker! Askok biotzean dakarre zuzentasuna, eta be-  
rant erakutsi, zurtasun bage uztaira ez eltzearren; baiña zu-  
re erriak mingain-puntan daroana dozu. Askok ez dabe nai  
arrunten arazorik, baiña deitu barik erantzuten dau zure  
erriak, oiuka: «Nik neure burua eskintzen dot! » Poztu zai-  
tezj.ba, orain eta errazoiz poztu be; zu, aberats; zu, bake-  
tan; zu zogi ta zentzudun! Eta naiko zifaldari egiñak dira  
nik egia dinodala frogatzeko. Atenai ta Lakedemoni aspal-  
diko legeak emon ebezanak eta aurrerapen ain aundikoak,  
ondo bizitzeaz ikasbide bitxia emon eutzuen, zuri orren era-  
bagi sakon-zorrotzak ekarri oi dituzun orri datorkizuzanak:  
ez bait dira jaristen azillaren erdira zuk urrillean eioak. Zen-  
batetan, gogoan dogunetik, legeak, diruak, karguak, eta

ekanduak ez dira aidatu, zeure bizilegunak barriztatuz! Eta ondo oroitu ta argi ikusi ba'dagfzu, zeure burua aurkituko dozu, luma gainean aukerarik ezin idoro-ta, biraren biraz, bere miñari gozadura apur bat emon uste dauan gaixoaren antzera.

- (1) Seikoz jokutzen zana.
- (2) Mantua'ko Sordello, olerkaii ospetsua.
- (3) Iñoiz be Itali'ko gauzetaz arduratu etzann.
- (4) Irri zuiriz gainezkakako pasartea.

## VII KANTUA

Muñña.—*Bein ta barriz agur txeratsiak alkarri eginda-koan, Sordello'k arriturik dantzu Bergili dala beragaz mintzu dana.—Onek Garbitokira nundik igon daiteken errezen erakutú daiola eskatzen dautso ta Sordello bera eskintzen da ori egiteko.—Eguzkia sar-urren dago-ta, mendian edegitako ibar zabal batera daroaz, bertan gaba emon dagien.—Emen dagoz gizaseme argi-aotuak, bhi zirala bizitz-lleba ta goraberai loturik, gogamena azken-ordurarte Jainkoagana biurtu ez ebenak.—Sordello'k, eurotatik batzuk erakusten dautsez.*

Biotz-ixuri atsegin alaiak iru-lau aldiz osteratu ziran al-karran artean. Sordello'k atzeratuz, esan eban:

—Nor zarie zuek?

—Jainkoarengana igoteko iñor diran. nrimak mendi on-tara zuzendu aurretik, Oktabi'k obiratu zituan nire azurrak. Bergili nozu ni; ta nik ez neban beste ezergaitik zerua gaJdu federik euki ez nebalako baiño —erantzun eutson nire gj-dariak.

Eta bat-batez miresgarri dan gauza bat begi aurrean ikus-ten daunak lez, siñfistu ta siñistu ez ezbaian «ete da... ez



ete da» esanez, antzera geratu zan a, ta beingoan beeratu zitun begiak, eta apalik arengana zuzentzen zala, samurki besarkatu eban txikiak oratu oi daben lekutik. \*

—O zu latindarren aintza —oguzi eban—; zure ízkuntzak zer balío dauan zu bitarteko erakutsi eban, ní jaiio nintzan lekuko ospe sekulakoa! Zer adiek cdo indarrek zakarkidaz ona? Zure itzak entzuteko iñor ba'naz, esaidazu ínfernutik zatozan eta zein barrenetik?

—Naigabezko barrenak oro igaroz —erantzun eutson— eldu naz onaiño. Zerutiko indarrak daragist, eta aren lanez natorkizu. Ez egiteagaitik, ez-egiteagaitik baino galdu dot eguzki garafia ikuskatzea, zuk opa dozuna ta nik beranduegi ezagutu nebana. Toki bat dago an beean, ez goibela oiñazez, baiña illuntasunez<sup>2</sup> bai; an zinkuliñak ez dira ai-otsak, intziriak baiño. Antxe aurkitzen naz ni aurtxo errubakoak lagun ditudala, giza-errutik jagon baiño leen eriotzaren agiñak grausk-egindakoak nunbait. Antxe nago ni iru birtute doneak eder jantzi ebezanen artean eta, txar barik, au da, akats barik, gaiñerakoak ezagutu ta zintzo bete ebezanakaz. Baiña baldin ba'dakizu ta al ba'dozu, emoiguzu aztarnaren bat garbitokia egi-egiaz asten dan leku aretara alik ariñen eldu gattekezan.

Arek erantzun:

—Ez jaku ipiñi leku jakiñik, eta zilJegi jat gora igon naiz ingurumari ibilli; beraz, el naiteken lekuraiño, gidari nokezu. Baiña, ikus, beerantza doa eguna ta gabaz ibilli ezin gaitazan ezkeru, egoki izango jaku aterpe on baten billa astea. Ba-dira arimak eskumatarara, urrintxo baiña. Eder-esten ba'daustazu, arenganaiño eroango zaitut, eta gogo-beteko izango jatzu areik ezagutzea.

—Zelan ori? —izan zan erantzuna—; gabaz igon nai leukena bestek galazo edo-ta ezin igonik geratu ezin-bestean?

Eta Sordello onak lerro bat egin eban zelaian atzamarraz, au esane^:

—Ikusten? Arte auxe be ezingo zeunke igaro eguzkia sartu ondoren eta ez dautzu beste ezalc debekatuko gorantz igotea gauaren illunpeak ezik: onek, ezin-alez, naia dau lo-tzen. Beera, alan be, itzuli zaitekez eurakaz eta arat-onat ibilli aldatz biran, osertzak eguna itxituan daukan bitartean.

Orduan nire jaunak, arri ta zur, esan eban:

—Eroan gaízuz, ba, ara, gozoro egongo gareala diñozun lekura.

Apur bat aldendu giñanean andik, konturatu nintzan ni mendi-aldea arrakalatuta egoela, emen aranak zortaz eta ebatunaz beterik daukaguzan lez.

—Ara joango gara —esan eban itzalak—, aldapeak zapal-unea dagian. tokira; antxe itxarongo dautsagu egun barriari.

Zear-bide bat, leuna, lur-mokor zakar eta zelai artean, sakosta ertzera eroan ginduzana, ta erdiraiño lez beerantz jasten zana. Urrea, zidar leuna, gorri-miña ta berun-autsa, bedar-urdin, zur landu aratza, esmeralda bizia zatika lertzean, zulo-une ontako bedar eta lora ederren aldean amore emon bearrean legokez kolore bikaiñetan, txikiago dana aundia-goak azpiratu oi dauanez.

Izadiak bakarrik ez ebazan an bere kolorez gaiñak artzen, baiña milla likurta ta usain gozoz be, ezagutzen ez dan naaste bereiz-eziña osotzen ebalako. *Salve, Regtna* abesten eben an ikusi nebazan arimak bedar xean eta lora artean jarrita, leen aranera orduko ikusten etziranak.

—Orain daukagun eguzki urri au ostendu orduko —guri laguntzen euskun ara zuzendu ginduzan mantuarrak esan eban—, orreik dagozan lekuraiño ez dozue nik laguntzerik gurako. Muiño ortatik ikusiko dozuez guztien egiñak eta arpegiak, an beean euren artean ba'zengoze baiño be obeto. Gorenen jarrita dagoana ta egin bear dauana aaztu dauala dirudian arek, eta besteekin abesteko ezpanik igitzen ez dauanak, Errodolfo dau izena, kaisar-jauna izan zana, Italia illik daukien zauriak osatu eikezana ta beste esku batzuen osabidea belu izango zana. Besteak, bere begitartez bizkorraz-

ten dauanak, Moldau'k Elba'ra ta Elba'k itxasora daroazan urak jaioten diran lurraldea jaurri eban. Ottokar<sup>3</sup> eristen zan, eta umetatik bere seme Benzeslau'k baiño askoz geiago balio ebana, gero bizardo, lizunkeriz eta alperkeriz erre zana. Eta beste aur-txiki a, betarte ain onbera eban beste aregaz gutíz kutunki mintzatzen zana, igeska ta lili-orientz ezainduz, il zan. Akutsu, zelan josten dauan bularra! Ikus bestea antziaka, eskuaz zutikaturik matraillea. Aita ta suin Franzia'ren ondamera<sup>4</sup> diranenak; ba-dakie arein bizimodu zatar zikiña, ta ortik datorke alde alde zulatzen ditun nairgabe bizia. Beste a, ain sendokote oiz, eta sudur-aundiarekin batera abesten dauana, kemen gutziaz ornidua izan zan; eta ondoren gibel jezarten dan gaztetxoia izan ba'litz errege, kemen ori ontzi batetik bestera aldatua litzakean, beste oiñordekoiez ezin esan daitekera: Jakobo ta Federiko'k badaukez euren erreñuak, baiffia ez batak ez besteak ez daukie oiñordekotasunaren zatirik obeena. Adarretatik gitxitan erne oi da giza-prestatusuna, ta auxe gura dau Arek, Berari eska daiogun emon daroaskunak. Sudur-aundiarentzat be ba-doaz nire itzak, ta ez gítxiago beragaz bat abesten dauan Kepa'rentzat: ori daia-ta, dagoneko, erostaz dagoz Pulla ta Probentza. Landarea azia baiño beeragoko beste, Beatriz ta Margarite gorago nunbait, Konstantza oraindiño bere senarraz illarraintzen da-ta. Or, bizimodu laua eroan eban erregea bakarrik jarrita: Inglatera'ko Endika, bere adarretan ondorengo ohea euki ebana. An besteen artean beerago, lur-rari dautsola, gora begira dagoana, GiJlermo markesa dozu, beragaitik Alejandri ta bertako burrukak Monferrato eta Kanabestarra oindiño be negarrez daukiezanak.

(1) Belaunetan auspez.

(2) Linbua.

(3) Ottokar, Bohemia'koa, Rodolfo'gaz burrukan iñla.

(4) Felipe Edersa, Feiipe IIT'garrenaren seme ta Naparroa'ko Enrike III garrenaren suin.

## VIII KANTUA

Muiña.—*Gaba eldukeran, ereserki bat otsegiten dabe ari-mak, eta aingeru bi jasten dira zerutik, arana bertora sartu oi diran suge gaizkiñetatik zaintzeko. Olerkariak orduan ilzallakin batzen dira ta Dante'k Viskonti'ko Nino pisatavra ezagutzen dau.—Sugea dator, baiña aingeruak bideralzen jvkcz ta egoak astinduz soilki iges-eragiten dautsoe.—Konrado Malaspina Dante-gana doa bere erriko albistak eskatu nnik.—Olerkariak etxe prestu ta leiñargi a goraltzen dau.—Konrado'k, ostera, erbesteratzea iragarten dautso.*

Bazan dagoneko itxastarrai barrero be goga-miña jagi oi jaken orduan, ots, euren adiskide onberai agur-esan dautsen egunaren gomutak, biotzak samur-azten dautsezan ordua; eta erromes barria, iltera doan egunak samintzen dauala dirudian ezkillaren otsa urrunera entzutean maitez zauritua sentitzen dan ordua; orrela jazo zan nik entzutea itxi ta arimetatik bat, zutik, besteai entzun egioen eskuparistaz ikusi nebanean. Jaso ta batu zituan esku biak, begiak sortalderantz zorroz-tuz, Jainkoari esango ba'leutso lez; «Ez dot ezeren atazarik, Zu ezik». Eta gartsu baizen gozoro oiukatu eban aren aoak «Te Tucis ante», birloratu ninduana. Besteak ondoren ereserki osoa abestuz jarraitu eben ezti ta jaiera aundiz, goiko gurpil-borobillean begiak ebezalarik. Emen zorroztu, irakurle, ikusmena egia ar daizun; meia bait dozu orain oiala ta bera aldatzea ez jatzu errez izango, egiazki.

Arima-talde argitsu a gero, gora begira ikusi neban, ixillik, zerbaiten zain legez, laru ta apal; eta or, aingeru bi, goitik urtenda beera jasten, suzko ezpata bigaz, makuts eta moko-bagekoz. Orlegiak, osto erne-barrien antzekoak ziran arein jantziak, eta egoen luma berdeak aizeak zaflatu ta kulunkatzen zituan. Bata gu baiño pizkat gorago ezarri zan, eta bestea bestekaldeko ertzetik jatsi zan, arima taldea erdian geratzen zala. Argi ta garbt nabari zan arein uledi beillegia, baiña betarteak begiak lausotzen, diztira geiegian ausartzen dan aalmena legez.

—Biak datoz —esan eban Sordello'k— Maria ren altzotik, laster etorriko sugereangandik arana babestera.

Orixegaitik nik, zein bidetik etorriko zan ez nenkialako, ingurumari begiratu neban eta, izoztua, estu etzun nintzan neure lagun zintzoaren soinburura.

Sotdello'k gaiñeratu eban:

—Orain jatsi gaitez an itzal aundien artean eta eurakaz mintzatuko gara: pozgarri izango jake guztiz zuok ikustea.

Iru urrats, uste dot, jatsi nintzaia bakar-bakarrik, besterik ez, beean aurkitu nintzaneko; ni ezagutu guraz ikusi neban adi-adi begiraten nindun bat. Ordurako illunduz joian eguratsa, baiña ez aren begiak eta nireak, besteen artean leen ostonduta egoana ez ikusteraiño. Neugana egin eban, eta bidera urten neutson nik. Nino epaikari prestu, <sup>1</sup> atsegin aundia bai damostala zu gaiztetsien artean ez zengozala ikustek! Geure arteko agurtze bero bat-bera be ez genduan aazturik itxi. Gero itandu eustan:

—Zenbat denpora da, urrutiko uretan zear, mendi oiñera eldu zareala?

—Oi! —erantzun neutson—. Oiñoze-tokiak igaroz, gaurgoizean eldu naz ona ta oindiño neure bizitzan nago, emendik ibilki, bestea be irabazi dodan arren.

Eta nire erantzuna entzun-ala, Sordello'k eta arek atzerantz egin eben, bat-bateko izuak jotako jentea lez. Bata Bergili'gana itzuli zan, eta bestea, an jarririk egoan geriza bategana, oiuka: «E, Konrado! <sup>2</sup> Zatoz Jainkoaren graziaz zillegi jakuna ikusten». Gero, nigana biurtuz:

—Barrendu ezin leitekezan lez bere leen burubideak gordeten dauazan Ari zor dautsazunaren esker-on aundi-aundiz, ur zabalen bestekaldeko ertzean egon zaitezanean, esaiozu nire Jone'ri galde daiala an erru bakoai erantzun oi jaken lekuan. Ez dot uste amak onezkero maite nauaník, buruzapi zuriak <sup>3</sup> aldatu ebazanetik; oneik ba opa dauz, doakabeak, oindiñokarren be. Ortik errez ulertzen da emakumeagan maite-suak zenbateraiñoiko iraupena dauan, alkar ikustez edo

sarritako ar-emonez biztu ta irazegi ezik. Milandarren ikur-diko larrasugeak ez dauza egingo Galluralco oillarrak egingo eutsan baizen illobi ederra.

Orrela iñoan, eta arpegian eroian, irrarrira, biotzean neurri onez irakin dirakian arteztasun arduratsu aren irudia. Nire begiak, ikus-naiz, zerurantz joten izarrak, ardatzetik urrago dagon txirrinka alderdia iduri, nagiago biratzen diran lekurantza. Eta nire gidariak bota:

—Seme, zer dozu ara gora begira?

Eta nik ari:

—Iru argi zuzi areik, alderdf ontaz goi-burua sutan osorik daukenak.

Arek jardetsu eustan:

—Gaur-goizean ikusitako lau izar dizditsuak andíxek jatsi dira, oneik igonik areik egozan tokira.

Berbaz egozalarik Sordello'k beragan erakarri eban, onan iñola: «Or gure etsaia». Eta atzamarra zuzendu eban guk be arantza so-egin gengian. Aran txikiak babes gitxiago daukan aldetik suge bat agertu zan, bear bada jaki garratza EbaVi emon eutsana bera, Adi gaiztoko narraztia bedar eta lora artetik etorren, aldian batez burua itzuliz eta bizkarra miazkatuz, narrua labantzen dauan abere baten gisako. Nik ez neban ikusi, ta beraz ezin dagiket esan, zerutiko arranoak<sup>4</sup> zelan lokatu ta zirkin egin eban, baiña argi ikusi nebazan bata ta bestea ibilten. Areín ego orleiak eguratsa brintzatzen ebela oartzuz, igesik joan zan sugea, eta aingeruak egal-di bardiñean gora biurtu ziran, euren egoitzera.

Epaikariagana, onek dei egin eutsonean, urreratu zan itzalak ez eban eraso-aldi guzti aretan unetxo baten bere soa nigandik kendu.

—Gorantz zuzentzen zaitun argiak idoro daiala gorengo dizdirara eltzeko beste argizai —asi zan esaten—; Val di Magra'ko edo-ta an inguruko izpar ziurrik jakin ba' zenki, iragar eidazu; ni ba, ango jaun aundi izan nintzan aspaldi dala. Kurrado Malaspina deitzen eustien; ez naz

beiñolakoa, baiña ba al da Europa'n eurak ospetsu ez díran tokirik? Zure etxeak dauan entzuteak goratzen jaunen ize-na ta erri-aldearena, ta au ezaguna da baita berau íñoiz ikusi ez dabeneztat be. Eta ara gora eltzeko dodan guraria-gaitik zin-dagitzut zure jatorri zíntzo-prestuak ez dauala gal-du ez diru-morroaren aintza, ez ezpateaten diztira. Bai ekan-duz eta bai izatez orren ornidua bait da, buruzagi zitalak lurbira oker-azo arren, a bide artezetik doa, txarrari muzin egiñik.

Eta ak niri:

—Zoaz, ba; eguzkia ez bait da etzungo Aritoa ak, bere lau zangoakaz, estali ta artzen dauan ogean, erítxi adeitsu au, iñoren itzakaz baiño untze aundiagoakaz, zuri buruaren erdian josía izan barik, erabagita dagoan apaia bere bidea geratzen ezpadau.

- (1) Nin Visconti, GaLlura'ko epaikari, ZeedeñVn.
- (2) Konrado Malaspina, Dante etxean artu eben sendikoa.
- (3) Buru-zapi zuriak alarguntzaren ikur ziran.
- (4) Leen aitaturiko aingeru btak.

## IX KANTUA

Muiña.—*Olerkaria nekearen nekez kuku egiña, eguna-bar aurretxoan, lokartua geratzen da lo bitartean ikuskari zadortsua dau.*—*Itxartzean Garbitokiko ate aurrean aurkitzen da Bergili'gaz onek ara zelan aldatua izan dan adierazten dautso.*—*Atera urreratzen dira ta berau zaintzen nauan aingeruak, Dante'ren eskabide apalez, bekokietan zazpi P marratu ta oarkizun batzuk egiñez, zabaltzen dautse atea ta biak sartzen dira barrura.*

Aspaldíko Titon'en oe-laguna jadanik argia urratuz joian sortaldeko balkoian, bere adiskide atsegiñaren besoetatik ja-

sarritako ar-emonez biztu ta irazegi ezik. Milandarren ikur-dlko larrasugeak ez dauksa egfngo Gallura'ko oillarrak egingo eutsan baizen illobi ederra.

Orrela iñoan, eta arpegian eroian, irarrita, biotzean neurri onez irakin dirakian arteztasun arduratsu aren irudia. Nire begiak, ikus-naiz, zerurantz joten izarrak, ardatzetik urrago dagon txirrinka alderdia iduri, nagiago biratzen diran lekurantza. Eta nire gidariak bota:

—Seme, zer dozu ara gora begira?

Eta nik ari:

—Iru argi zuzi areik, alderdi ontaz goi-burua sutan oso-rik daukenak.

Arek jardetsu eustan:

—Gaur-goizean ikusitako lau izar dizditsuak andixek jatsi dira, oneik igonik areik egozan tokira.

Berbaz egozalarik Sordello'k beragan erakarri eban, onan ínola: «Or gure etsaia». Eta atzamarra zuzendu eban guk be arantza so-egín gengian. Aran txikiak babes gitxiago daukan aldetik suge bat agertu zan, bear bada jaki garratza Eba'ri emon eutsana bera. Adi gaiztoko narraztia bedar eta lora artetik etorren, aldian batez burua itzuliz eta bizkarra miazkatuz, narrua labantzen dauan abere baten gisako. Nik ez neban ikusi, ta beraz ezin dagiket esan, zerutiko arranoak<sup>4</sup> zelan lokatu ta zirkin egin eban, baiña argi ikusi nebazan bata ta bestea ibilten. Arein ego orleiak eguratsa brintzatzen ebela oartzuz, igesik joan zan sugea, eta aingeruak egal-di bardíñean gora biurtu ziran, euren egoitzera.

Epaikariagana, onek dei egin eutsonean, urreratu zan itzalak ez eban eraso-aldi guzti aretan unetxo baten bere soa nigandik kendu.

—Gorantz zuzentzen zaitun argiak idoro daijala gorenngo dizdirara eltzeko beste argizai —asi zan esaten—; Val di Magra'ko edo-ta an inguruko izpar ziurrik jakin ba' zenkí, iragar eidazu; ni ba, ango jaun aundi izan nintzan aspaldi dala. Kurrado Malaspina deitzen eustien; ez naz



beiñolakoa, baiña ba al da Europa'n eurak ospetsu ez diran tokirik? Zure etxeak dauan entzuteak goratzen jaunen ize-na ta erri-aldearena, ta au ezaguna da baita berau iñóiz ikusi ez dabeneztat be. Eta ara gora eltzeko dodan gurariagaitik zin-dagitzut zure jatorri zintzo-prestuak ez dauala galdu ez diru-morroaren aintza, ez ezpatearen diztira. Bai ekan-duz eta bai izatez orren ornidua bait da, buruzagi zitalak lurbira oker-azo arren, a bide artezetik doa, txarrari muzin egiñik.

Eta ak niri:

—Zoaz, ba; eguzkia ez bait da etzungo Aritoa ak, bere lau zangoakaz, estali ta artzen dauan ogean, eritxi adeitsu au, iñoren itzakaz baiño untze aundiagoakaz, zuri buruaren erdian josia izan barik, erabagita dagoan apafak bere bídea geratzen ezpadau.

- (1) Nin Visconti, GaUuralco epaikari, Zeedeña'n.
- (2) Konrado Malaspina, Dante etxean artu eben sendikoa.
- (3) Buru-zapi zuriak alarguntzaren ikur ziran.
- (4) Leen aitaturiko atgeru biak.

## IX KANTUA

Muiña.—*Olerkaria nekearen nekez kuku egiña, eguna-bar aurretxoan, lokartua geratzen da\ lo hitartean ikuskari zadortsua dau.*—*Itxartzean Garbitokiko ate aurrean aurkitzen da Bergili<sup>1</sup>gaz\ onek ara zelan aldatua izan dan adierazten dautso.*—*Atera urreratzen dira ta berau zaintzen nauan aingeruak, Dante'ren eskahide apalez, bekokietan zazpi P marratu ta oarkizun hatzuk egiñez, zabaltzen dautse atea ta biak sartzen dira barrura.*

Aspaldiko Titon'en oe-laguna jadanik argia urratuz joian sortaldeko balkoian, bere adiskide atsegiñaren besoetatik ja-

reiña; dirdir egien aren bekoldan, gizasemeak bere buzta-  
nez zauritu daroazan pizti otzaren irudia taiutzen eben bi-  
txiak, eta gauak gorantz joaz gu gengoan lekutik, urrats  
bi emonak zituan orduko, eta irugarrenerako be egoak bee-  
rantz makurtzen asia zan, ni, Adan'en erentzia aldean ne\*  
roian-eta, loak menderatu ninduan eta bedar gaiñean etzun  
nintzan, antxe bostok jarrita gengoan toki-toldan.

Egaberak bere kantu ituna, goiz-leen, asten dauan orduan,  
bere leenengo aien gomutaz bear bada, eta gure adimena,  
aragiz azkeago ta gogaiz ez ain astun, bere ikuskarietan doi-  
doi igarle danean, begitandu jatan niri amesetan arrano bat  
nekusala zeruan dindil, urrezko lumakaz, egoak zabal beera  
jasteko gertu; eta antxe egoala, uste izan neban, Ganimede'k  
beretarrak ítxi zituan lekua, goi-goiko batzarrerako arrapa-  
tna izan zanean. Neure artean irauliz nenbiLlan:

—Au bear bada ementxe dabil bakarrik eiztari oi daua-  
nez, eta ez dau apika beste iñun bere erpaz eizarik jasotea.

Gero iruditu jatan, bira batzuk emon ostein, oiñaztarri  
lez jasten zala izukor, suzko borobilieraiño neroiela. An gu  
biok, bera ta ni, uste neban, sutan gengoala. Ta irudiz iku-  
sitako su arek ainbestean erreten nindun ezkerro, loa eten  
bear nai ta nai ez.

Era berean itxartu zan Akile be, begi edegiak inguruka  
itzuli ta nun aurltzen zan ez ekiala, bere amak, Kiron'i  
kendurik, besoetan lokartua Skiros'era aldatu ta andik gero  
gerkarrak<sup>l</sup> atera ebenean. Bardin iratzarri nint2an ni be be-  
tartetik iges egin eustanean loak; eta laru be laru geratu  
nintzan izuaren izuz otz lotzen dan gizonaren antzera. On-  
doan neure babeslea neukan bakar-bakarrik, eta eguzkia or-  
duko goitik ebillan ordu bi baiño geiago 2Írala, ta itxasoa  
zan nire ikus-alderdia.

—Ez izan bildurrik —esaustan nire jaunak—; gomuta  
zaitez, leku onera eldu gara-ta: ez makaldu, sendotasunean  
sendotu baiño. Or, jaritxi zara dagoneko Garbitoki ondora;  
begira inguratzen dauan arresia, an sarrera be ao bat ikusten  
dan lekuan. Lendik, egunaren aurrelari dan goiz-nabarrean,

zure arimea soin-barru lo egoalarik, an beean, lorez apaindurik dagoan toki aretara, emakume bat eldu zan, esanez: «Ni Argia naz; itxi eistazu lo dagoan au eroaten, eta ariñagotuko dautsot bidea». Eta Sordello ta beste itzal sotillak an gelditu ziran; ak artu zinduzan, eta eguna argitzean, gorantz etorri zan, eta ni aren lorratzai jarraika. Emen itxi zinduzan, baiña aurretik niri sarrera edegi a erakutsi eustan bere begi zoragarriakin, eta gero a ta zure amesa batera joan ziran.

Ezpaiak argi-azo ra egia nabaritzean susmoak uste on biurtzen jakozan gizonak lez, aldatu neban nik be neure zera, ta gidaria, kezka barik ni ikusiaz, arkaitz gora igoten asi jatan. Nik be gorantza jarraitu neutson atzetik.

Ondo dakusazu, irakurle, zelan noian neure gaia gorosten; etzaitez arritu, ba, gero ta antzetsuago berau ermotu ta jazten alegintzen ba'naiatzu.

Urreratu giñan, eta lenengotan ao-zulo bat, orma bat banatzen dauan zirrikitu antzeko batera eldurik, are bat ikusi neban eta iru mailla beean ara igoteko<sup>2</sup>, kolore askotakoak, eta atezain bat oindiño ez itzik ez pitzik esan ez ebana. Eta nik neure begiak gero ta geiago zabalduaz, goragoko mailla gaiñean ikusi neban jarririk, alako bitarte nik jasan ezindakoz. Ezpata biljostua eukan eskuan, bere izpi-erraiñuak gunganantza dirdaituz; ni beraz, alperrik saiatzen nintzan aregan neure beigak jarten.

—Erantzun ortixek: zer gura dozue? —asi zan esaten—; nok zuzentzen zaitue? Kontuz gero gorantz igonaz, kalterik izan ez daizuen!

—Zeruko andra batek, gauzok jakiñik —bota eutson nire maisuak—, oraintsu esan euskun: «Zoaze ara, atea a da-ta».

—Eta arek ondo zuzendu ditu zuon oiñak —jardetsi eban atezain adeitsuak—. Zatoze, ba, ta igon gure mailla-diak.

Ara joan gintzazan; eta aitz zurizkoa zan leenengo zurgu-mailla, landua ta aratza; ni nazan lez ispillutzen nintzan

reiña; dirdir egien aren bekokian, gizasemeak bere buzta-  
nez zauritu daroazan pizti otzaren irudía taiutzen eben bi-  
txiak, eta gauak gorantz joaz gu gengozan lekutik, urrats  
bi emonak zituan orduko, eta irugarrenerako be egoak bee-  
rantz makurtzen asia zan, ni, Adan'en erentzia aldean ne-  
roian-eta, loak menderatu ninduan eta bedar gaiñean etzun  
nintzan, antxe bostok jarrita gengozan toki-tokian.

Egaberak bere kantu ituna, goiz-leen, asten dauan orduan,  
bere ieenengo aien gomutaz bear bada, eta gure adimena,  
aragiz azkeago ta gogaiz ez ain astun, bere ikuskarietan doi-  
doi igarle danean, begitandu jañan niri amesetan arrano bat  
nekusala zeruan dindil, urrezko lumakaz, egoak zabai beera  
jasteko gertu; eta antxe egoala, uste izan neban, Ganimede'k  
beretarrak itxi zituan lekua, goi-goiko batzarrerako arrapa-  
tua izan zanean. Neure artean irauliz nenbillan:

—Au bear bada ementxe dabil bakarrik eiztari oi daua-  
nez, eta ez dau apika beste iñun bere erpaz eizarik jasotea.

Gero iruditu jatan, bira batzuk emon ostean, oiñaztarri  
lez jasten zala izukor, suzko borobilleraíño neroiela. An gu  
biok, bera ta ni, uste neban, sutan gengozala. Ta irudiz iku-  
sitako su arek ainbestean erreten nindun ezkeru, loa eten  
bear nai ta nai ez.

Era berean itxartu 2an Akile be, begi edegiak inguruka  
itzuli ta nun aurkit2en zan ez ekiala, bere amak, Kiron'i  
kendurik, besoetan lokartua Skiros'era aldatu ta andik gero  
gerkarrak<sup>l</sup> atera ebenean. Bardin iratzarri nint2an ni be be-  
tartetik iges egin eustanean loak; eta laru be laru geratu  
nintzan izuaren Í112 ot2 lot2en dan gÍ2onaren ant2era. On-  
doan neure babeslea nei^kan bakar-bakarrilc, eta egu2kia or-  
duko goitik ebillan ordu bi baiño geiago 2Írala, ta itxasoa  
zan nire ikus-alderdia.

—E2 Í2an bildurrik —esaustan nire jaunak—; gomuta  
zaite2, leku onera eldu gara-ta: e2 makaldu, sendotasunean  
sendotu baiño. Or, jaritxi 2ara dagoneko Garbitoki ondora;  
begira ingurat2en dauan arresia, an sarrera be ao bat ikusten  
dan lekuan. Lendik, egunaren aurrelari dan goiz-nabarrean,

zure arrijlea soin-barru lo egoalarik, an beean, lorez apaindurik dagoan toki aretara, emakume bat eldu zan, esanez; «Ni Argia naz; itxi eistazu lo dagoan au eroaten, eta ariñagotuko dautsot bidea». Eta Sordello ta beste itzal sotjllak an gelditu ziran; ak artu zinduzan, eta eguna argitzean, gorantz etorri zan, eta ni.aren lorratzai jarraika. Emen itxi zinduzan, baiña aurretik niri sarrera edegi a erakutsi eustan bere begi zoragarriakin, eta gero a ta zure amesa batera joan ziran.

Ezpaiak argi-azo ta egia nabaritzean susmoak uste on biurtzen jakozan gizonak lez, aldatu neban nik be neure zera, ta gidaria, kezka barik ni ikusiaz, arkaitz gora igoten asi jatan. Nik be gorantza jarraitu neutson atzetik.

Ondo dakusazu, irakurle, zelan noian neure gaia goresten; etzaitez arritu, ba, gero ta antzetsuago berau ermotu ta jazten alegintzen bariaiatzu.

Urreratu giñan, eta lenengotan ao-zulo bat, orma bat banatzen dauan zirrikitu antzeko batera eldurik, ate bat ikusi neban eta iru mailla beean ara igoteko<sup>2</sup>, kolore askotakoak, eta atezain bat oindifio ez itzik ez pitzik esan ez ebana. Eta nik neure begiak gero ta geiago zabalduaz, goragoko mailla gaiñean ikusi neban jarririk, alako bitarte nik jasan ezindakoz. Ezpata billostua eukan eskuan, bere izpi-erraiñuak gumanantza dírdaituz; ni beraz, alperrik saiatzen nintzan aregan neure beigak jarten.

—Erantzun ortixek: zer guia dozue? —asi zan esaten—; nok zuzentzen zaitue? Kontuz gero gorantz igonaz, kalteril< izan ez daizuen!

—Zeruko andra batek, gauzok jakiñik —bota eutson nire maisuak—, oraintsu esan euskun: «Zoaze ara, atea a da-ta».

—Eta arek ondo zuzendu ditu zuon oiñak —jardetsi eban atezain adeitsuak—. Zato2e, ba, ta igon gure mailla-diak.

Ara joan gintzazan; eta aitz zurizkoa zan leenengo zurgu-mailla, landua ta aratza; ni nazan lez ispillutzen nintzan

bertan. Bígarrrena, gorri baiño baltzizka geiago, arri latz idorresko zan, luze ta zear arrakaJatua. Irugarena, besteen gaiñ zurkaiztua, porfid-arria iruditu jatan, zanetatik ixuri-odola baiñen gorria. Jainkoaren aingeruak onen gaiñean eukazan bere oin-azpi biak, ate-zubi gaiñ jarririk egoanak eta niri diamantekoa zirudianak.

Nire gidariak, nik gogoz jarraitzen neutsola ikusiaz, iru mailletatik gora eroan ninduan, onan esanez:

—Eska eiozu apal-apal, zabal dedilla giltzarrapoa.

Jainkoti aren oiñ doneetan auzpez jarri nintzan, eta edegi eistala arren eskatu neutson, baiña aurretik iru kolpe emon neutsazan neure bularrari. Zazpi bidar idatzi eustan bekokian P izkia<sup>3</sup> bere ezpata zuriz, eta: «Barruan zagokezanean, leia zaitex —esan eustan— orban oneik garbitzen».

Errautsa edo lur zumel erabil-barria zan aren jantzien kolorea, ta giltz bi atera zituan aren azpitik, urrezkoa bata<sup>4</sup> ta zidarrezkoa bestea, ta lenen zuriaz eta gero oriaz, edegí eban atea, nire poz aundirako.

—Giltz oneitatik batek uts-egin eta morroilloan ondo biratzen ez danean —esan euskun—, ate au ez da edegiten. Bata, bestea baiño bikaiñagoa da; besteak, alan be, ganora ta jgurdizi geiago eskatzen dauz edegi aurretik, berau baita bultz-gailluari indarra ezarten dautsona. Kepa'gandik artu nebazan nik, eta ak esan eustan geiago uts-egin nengiala atea zabalduz, itxita eukiaz baiño, nire oiñ-aurrean auzpez jausten dan jentea bada beintzat.

Gero bertatik saka egin eutson ate doneari, esanez:

—Sar zaitex; baiña gogoan izan, kanpora biurtzen dala atzerantz begitzen dauana.

Ate sagaratuen orriak, meatz sendo doiñutsuz landuak, orpo-gaiñ biratu ziranean, ez eben olan kirrinka egin ezta ain garratz agertu be Tarpeia, Metelo ona kendu eutsoenean, gero austuta itxjrik. Lenengo otsera biurtu neban bu-rua, adi-adi ta *Te Deum laudamus* entzun huditu jatan, abots nastuetan doiñu gozoz abestua. Entzun nebanak eragin be-

rezia sortu eban niregan, organuz lagunduta abesten dana aditzeak langoxea ziur asko, musikea bai ta itzak aldian baten baiño entzuten ez dirala.

- (1) UUsek eta Diomedek, bere ixil-tokitik atera ta gudura eroan eben.
- (2) Luzi edo Argia'k, grazia itxuratzen dau.
- (3) Zazpi pekatu buruak.
- (4) Urrezko giltza, autor-entzuleak daukan aginpidea.

## X KANTUA

Muiña.—*Aitx bizian egiñiko bide lakar, biurri zear olerkariak Garbitokiko leenengo goi-sapaldara eltzen dira; berton, ailz-zurizko ormetan jainkozko trebetasunez zizelkaturik ikusten dabez kondaitz-zati batzuk, apaltasun-eredu ta ikasbide diranak ain zuzen.—Onei begira dagozala, arima pillo izugarria dator eurakana, sorta aundiak lepoan dakarrezala, toki aretan arrokerizko obenetatik garbitzen diranak.*

Arimen maita-lera, irritsak erabil-bage daukien atearmailla igarorik barrura sartu-ala, malkiu- dan bidea be itxuraz lau iruditzen bait da, ak egiñiko zaratean igarri neban itxi egin ebela oster a be; eta nik neure begiak arantza biurta ba'neuz, zer izango ete neban uts orren atxaki egoki?

Urrindu ta urreratu egiten dan olatu-kara, alde batetik bestera kulunkatzen zan arkaitz brintzatuan gora igon genduan. «Emen ígurdizi ta maiñaz jokatzea egoki izango jaku —esaten asi zan nire aurrelaria—, alde batetik edo bestetik izurtzen asiz doan alderdirantz urrera gaitzean». Eta astiroagotu zituan bere oinkadak, eta illargi-larrin beeratua bere oera eldua zan, eratzan nairik nunbait, gu meargune atatik urten orduko; baiña, andik askaturik eta lur-une zabalean, mendian leenengo ingurua sartzen dan lekuan, aurkitu giña-

nean, ni nekatua ta biok, a ta ni, bidearen barri bage, lau-  
une baten gelditu giñan, eremuko bideak baiño be bakartia-  
go zanean.

Uts-muga bereízi daroan kanpo-ertzetik, bestekaldez gora  
doan murrutzarraren oiñera, iru bider lez neurtaziko giza-  
soiñaren luzerakoa, eta nire begiak jadetsi al Jeikeenez ezker  
naiz eskoi aldetik, beti bardña iruditu jatan koska-egal a.  
Gure oiñak ez eben oindiño an gaiñean urratsik emon, eta  
konturatu nintzan, inguruko ormatzar a, gora igoteko bide-  
rik ez eukana, aítz zurizkoa zala, ta ez Polikleto <sup>1</sup> bakarrik,  
baita izadia bera be bekaitzez izteko aiñako ozka txikizko  
edergailluz apaindua.

Ainbat urtez negarka opa izandako bake agintza ekarri-  
rik lurreratu ta luzaro be luzaro itxirik egon zan zerua ede-  
gi eban aingerua, geure aurrean agertzen zan egi-egiazko;  
jarfera gozo amultsuan bertan zizelkaturik, irudi ixilla emo  
ten ez ebalarik. «Ave» —Agur!— iffoala zin-egin zeikean;  
antxe egoan bai, antzertua, maitasun gurenari atea edegitean  
giltzari emon eutsana; bere egokeran baita irarrita eukazan  
«Ecce ancilla Dei» —Ona emen Jaunaren mirabea—, argi-  
zarian moldatzen dan irudi bat baizen argi ta eder.

—Or bakarrik ez egizuz begiak jarri —esan eustan nire  
maisu onberak, gizasemeak biotza dauken lekuan neukanak,  
orixegaitik biurtu. neban arpegia, eta Mariaren atzean ikusi  
neban, nire oinkadak zuzentzen ebazana egoan alderditik,  
beste edesti bat arrian irarritakoa; beraz, ni Bergili'ren aure-  
tik igaro ta arengana urreratu nintzan, begiz obeto ikusteko  
eran jarririk. An aitz zuri berberaren gaiñ zizelatuta egozan  
kutxa sagaratua —egotzi bako arazoa bildurgarri egiten—,  
burdi ta idi ekarleekin. Aintzin-aldean agiri zan jentea, da-  
nak zazpi taldetan bananduta, nire zentzuetatik bati «Ez»  
eta besteari «Bai, abesten dabe» esan eragiten eutsolarik.  
Edu berean, an antzertuta ikusten zan intzentsuaren ke au-  
rrean, ez etozala bat begiak eta sudurra euren artean baiari  
ta ezari buruz. Ontzi donearen aurretik joian, jauzika ta  
dantzai, salmulari apala, ta jazokun atan errege baiño geiago



ta gitxiago zana. Aurrez aurre, jauregi baten leioan iruditua, Mikol zurturik egoan begira, emakume amorrazia ta tristea bai'litzan.

Nengoan lekutik oiñak mugitu nitun Mikol'en<sup>2</sup> atze-kaldea agiri zan beste kondaira bat urretik ikusteko. An egoan adostua erromar agintariaren ospe gurena, onen egitsariak eragin bait eutsoen Gregorio'ri bere garaipen aundira; Trajano kaisar-jauna gogo dot aitatu. Aren galgari alargun batek eusten eutson, negar-malkoz urtua ta naigabez itoa. Aren Ínguruan, zaldunekaz beterik agertzen zan bea, ta onein gaiñ urrezko arranoak zabukutzen ziran aizetan. Etrukarriak, guzti arein erdian, adierazten edo eban: «Jauna, apen naitela egizu neure seme Íllaren eriotzaz, agaitik naigabetua bait naukazu». Eta ak erantzun bide eutson: «Itxoin, ní biurtu arte». Eta ak, artegatzen dan pertsona baten antzera: «A, ene jauna! , ta zu biurtzen ez ba'zara?». Eta berak: «Nire lekuan dagoanak apenduko zaitu». Era emakumeak: «Besteak egín legikeen onak zuri zer?, zeuk egin zeinkena zuk piper itxi ba'dagizu?». Arek orduan: «Nasai zaitez, joan aurretik, egoki da ba nik neure eginktzunai erantsun dagiedan: zuzenbideak nai ta ermkiak geldi-erazten».

Iñoiz gauza barririk ikusi bakoak<sup>3</sup> asmatu eban, izkera bitxi au; barria guretzat, emen ez bait da olakorik aurkitzen.

Ni ainbeste apaltzaunezko irudi ikusiaz gozartzen nintzalarik, egillea oroitzuz atsegiñako ziranak nunbait, «Ona nun natorren, oinkada labur etorri be —olerkariak marmar—, ainbat eta ainbat arima; oneik biaJduko gaitue goragoko mailletara».

Gauza barriak ikusteko joranez neukazan begiak arengana biurtzeko etzirn nagí agertu. Ez dot nai, irakurle, zure asmo ona auldu dadinik, Jainkoak nola nai dauan zorrak ordaintzea entzunez. Ez egiozu nekearen itxureari begirik atxiki: gogora ondoren datorkiona; gogora eizu, txarrenera jorik be, epai. aundíaren eguna baiño aruntzago ezin daitekela joan.

Itza artu ta berbetan asi nintzan:

—Maisu, gugana etorri izaten diranak ez jataz pertsonak iruditzen, ez dakit zer diran, ikusia lausotzen bait jat, Eta erantzun eustan:

—Lurrerantz makur-azten ditu euren oiñaze-min astunak, eta neure begiak be ezin ebezan lenengotan ondo be-reizi. Baiña begitu ara tinko, ta leia zaitez aitz arein azpitik datozenak begiz jotzen; arengandik aterako dozu bako-tzak zeLan bularrari txupi egiten dautson.

O kristiñau arroak, doakabe errukarriak, adimenetik gaixo ta itsu zagozenok, atzera eragLten dautzuen urrats gai-ñean bermatzen zarienok! Etzarie gogoratzen arrak gareala gu, ezeren eragozpen barik zuzentasunerantza egaz dagian zerutar mitxeletea eratzeko jaiok? Zergaitik arrotu oi da zuen espiritua, mamorro zatar batzuk besterik ez zariela, erdi-egiñik geratu zan koko-mota baten antzera?

Soru edo sapairi eusteko maitxo lez batzutan belaunak bular ondoan daukan irudi bat ikusten dan antzera, ra one-lakoak ikustean euren sasi-atsekabeaz egi-egiakzko samiña biotzeratzen dabenez, orrelaxe nekusan nik arima areik, bu-ru-belarriak areikan ipifii nebazanean. Egia, geiago edo gi-txiago makurtuak egozan, sorbalda gaiñ pixu geiago edo gi-txiago eroien neurrian; baiña jasankorren agertzen zanak be-rak be, negarrez, au ifioan itxura zanez: «Ezin daiket geiagó».

- (1) Polfklea, gerkar etilaria, ospe aundikoa.
- (2) Mrkol, Sauren alaba.
- (3) JairJcoa.

## XI KANTUA

Muifía.—*Arima balek diñotsenari jaramon egiñez, esku-ma aldera zuzentzen dira olerkariak, leen-birunda ibilleko\ eta onetan, Hunbert Aldobrandesi Santofore'ko kondeen se-*

*mea agertzen jake, ta Aligheri Oderisi ezagutzen dau> munduko ospe utsalaz mintzo jakona; probentzat Salvani'ren bariak be emoten dautsaz, an bertan bere arrokeritik garbitzen dagoana.*

«O gure Aita, zeruetan zagozana, ez eurai esitua, baiña bai an goian jarria, zeure leenengo sorpenai baiño maitasun aundiagoz; santua ízan bedi zure izena ta izaki orok goretsi bedi zure al-izatea zure jakituri onberari eskerrak emotea zuzen etá egokí dan legez. Betorkigu zure erreñuko bakea, geurez ezin dogu-ta jadetsi bera ez ba-datorkigu, ezta geure indar guztiak erabillirik be. Aingeruak oro zeuri eskintzen dautzue euren naia, osana abestuz, begie gizonak be eurena Zuri eskiñiaz. Ernoiguzu gaur eguneroko ogia, berau barik ba, eremu lakar onetan. atzerantz doa aurrenengo joan nai dauana; eta guk parkatzen dautsogun lez gaítz egin dauskunari, Zuk be, biotzbera, parka eiguzu, merezi doguna gogotan euki bage. Gure onoiemena ez egizu jarri ain errez kikiltzen dalarik, arerio zarragaz tentaldian, baiña jagon gaizuz.beragandik, ainbeste eratan esesten gaitu-ta. Azken otoi au, Jaun maitekor, ezta gugaitik egiten onezker, ez bait dogu bear, geure atzetik diranen alde baiño».

Lege onetan eurentzat eta geuretzat bide ona eskatuz joiazan itzal areik, bakotxa. noizik-bein amestu oi dan lakoxe lor edo sorta-pean, e2-bardintsu zanpatu ta nekatuak, leenengo inguruz ebiltzan danak biraka, munduko goibelduratik garbi-azo zeitezán. An beti geure onagaitik- eskatzen bada, emendik<sup>J</sup>, ze ez dabe egin al izango arein onerako, eskatuz ta egitez, gurari ona Jainko-graziaz batera daukienak? Bidezko da arei emendik eroan ebezan seta-orbanak xaurzen laguntzea. garbi ta azkar, 2eru-izarretara igon daitezkezan.

«A! Zama-arindu zaiezala laster zuzentasunak eta errukiak, egoak astindurik opa dozuenez goratuak izan zaitezen! Erakus eiguzue zein alderditik igon daiteken aríñago, zurubirantza; eta bide-zidor bat baiño geiago ete dagoan, eta orrela bá'lit2, lakar-ezagoa 2ein dogun; nigaz datorren au,

ba, Adan'en eragizko sortaz jantzirik daukagu oíndiño, ta, beronek nai ezta be, ibil-urri da igokeran».

Ni jarraika niñoianak ebagitakoai erantzundako itzok. argi ez genduan jakin noregandik etozan; baiña aditu gendun esaten: «Eskumatik. ertzez-ertz; erdue geugaz. eta aurkituko dozue aurki nor bizi bat igon daiteken ígarobidea. Eta neure buru atroa ezi ta arpegia beera eroaten beartzen nauan arkaitz-mokorra eragozpen ez ba'litzakit, ori, oindiño bizirik, ezaguna jatan ala ez jakiteko, izentatzen ez dan ori begiratuko ncuke, oiñaze ontaz errukitu dedin. Latitar ízan nintzan ni toskar aundi bategadík ernea; Gillermo Aldobrandesko izan zan nire aita; ez dakit onen izenik iñoiz entzun dozuen. Antxiñako odolak eta nire aurretikoen egintsari bikaiñak egin ninduen orren arro-putz, eta, guztion ama gogora ekarteke, gizaseme. oro arbuíatu neban; ortik il nintzan azkenez, sienarrak dakienez eta Kanpañatiko'n<sup>2</sup> umee-taralñoko guztiak be jakitun dagozanez. Ni Hunbert nozue; ta arrokeriak ez eustan niri bakarrik kalte egín, nire senitarteko guztiai be ondamendi.bardiña ekarri bait dautse berak. Egoki da, beraz, pixu au eroatea neure gaitz-zorra Jainkoari ordain dagiodan arte: bizidunen artean egin ez nebana, emen egin bear illen artean».

Ari obeto entzuteko. makur neukan burua; *eta* areitako batek. ez nigaz mintzatu zanak. tropikatzen eban pixupetik begira, ikusi ta ezagutu nínduanean, dei egin eustan, begiak doi-doi jaso ta jarririk, guztiz nekatna ebillan eta,

—Oi! , ez zara zu Orderisi —esan neutson nik—, Ago-bbio'ko dedu, ta Paris'en argitzekoa deritxen erti aren ospea?

—Anaf —esan eban ak—, boloñar Franko'k margozten dauzan kartoíak, ikusgarriagoak dituzu; berarí dagokio orain aomen oro *t*<sup>^</sup> niri zati pitiño bat bakar-bakarrik. Bizitzan ez nintzan ni orren emoilie izango, biotza menderatzen eustan guztia gaíndituko leia biziagaitik izan ez ba'litz. Emen kitutzen da olako arrokeriaren zorra; ta emen be ez nintzateke egongo, pekatu egin al izanda be, Jainkoagana biur-

tu izan ez ba'nintz. O giza-aunditasunaren burgoikeria! Labur bai irauten musker zure gorenak, garai zakarrak ez baldin ba'datoz! Zimabue<sup>3</sup> zala uste zan errege margo-alorreatan, eta orain Giotto'k arrakasta, ain zuzen aren entzutea illundua dala. Edu berean Guido batek ostu dautso besteari izkuntzaren aintza, ta onezkero bear bada jaioa da bata ta bestea abitik erauziko dítuna. Munduko ospea ez da orain emendik eta gero andik datorren aize-bolada besterik, eta izenez aldatu oi da alderdiz aldatzen danez. Zure entzutea uste dozu aundiagoa Ízango dala aragia txit zaartua zugandik jausten danean, edo ume ziñala il ba'ziña txintxirria ta popiña itxi aurretik, milla urte igaro leen nunbaít? Betikoarri begira ori aldi laburragoa da, zeruan astiro mugitzen dan inguruari begira, begien itxi-edegi bat baiño. Nire aurretik astiro astiro doanak, Toskana guztia bete eban izen aundiz orain barriz ozt-oztan zerbait esaten da Siena'n, ixilka, emengo jaun genduan, gaur emagaldua lez orduan arroa zan Florentzia ren amorrazioa suntsitua izan zanean. Zure otsomena joan-etorriko bedarraren kolorea lez da, ta bera margultzen dauana lur lakarretik erne-azten dauana bera da.

—Zure egiazko itzak biotza asetzen dauste apaltasunez, nire aundikeri-putza lurra jota itxirik; baiña, nor da oraintxe mintzoz aitatzen zenduan ori?

—Probentzat Salvani —erantzun eustan—; eta emente dago arrokeriz Siena osoa bere eskuetara ekarri nai izan ebalako. Orixegaitik dago onan, eta orrelaxe dabil atsedean barik illez gero. Olako dirutan ordaindu bearra dau emen an bestaldean ausar eta urtenegi izan danak.

Eta nik:

—Arek, damutzeko, bizkz-muga eldu arte sarreratik kanpo itxaron bear ba'dau ta ona igoten ez bada, bizi izan zan aiña urtez otoitz onak bere alde egin ezik, zelan emon jakon oni ona etortea?

—Aintzatsu be aintzatsu bizi zanean —erantzun eban—, aske ta bete-betea, ezeren lotsa barik, Siena'ko enparantzian aurkeztu zan, eta an, Karlos'ek espetxeratzean jarri eu-

tson zigorretik bere adiskidea askatzearren, zan guztiak dar-  
daraz jarteraiño lotsa-iraiñei arpegi emon bear izan eutsen<sup>4</sup>.  
Ez dot geiago esango, diñotzudana illuna dana dakidan  
arren; baiña denpora gitxi ígaroko da, zuk ulertu daike-  
zun eran uritarrak gauzea ipiñiko dautzuela. Egite orrek  
zabaldu eutsozan mugalde areik.

- (1) Dante'k lurrean dagoala idazten dau.
- (2) Hunbert il zan eraso lekua.
- (3) Zimabue, Florentzia'ko margolaria, Giotto'ren maisu.
- (4) Deabrua dakar gogoia.

## XII KANTUA

Muiña.—*Dante'k, Oderisi laga ta inguru atako goi-za-  
balean dabillega, azpian margoztuta ikusten ditu alako gi-  
zaseme ospetsurik asko, euren arrokeriagaitik ipinitako  
ainitz zigor-eredu diranak.—Bidera jatorke gero aingeru bat  
olerkariari, ta bigarren goi-aldera igoteko zurubia dagon leku-  
ra zuzentzen ditu.—Aingeruak, bere egoak astinduz baka-  
rrik, P bat alderantzen dau Dante'ren bekokitik, au leen bai-  
ño bizkorrago ta emeago aurkituz.*

Bikuztuak, buztarriari lotu idiak lez, niñoian ni zama-  
turiko arima aregaz, irakasle maiteak itxi enstan bitartean;  
baiña esan ebanean:

—Itxi eizu ta zabiltz, emen on da-ta bakotxak ekiña-  
lean, bere ontziari oialez eta arraunez bultz-erngitea—, zut  
jarri neban neure gorputza, ibilte egokiari dagokionez, nire  
pentsamentuak apal baizen lau iraun eben arren. Ibiltz ni-  
ñoian, ba, ta gogo onez jarraitzen nebazan maisuaren urra-  
tsak, Biok erakusten genduan egiazki bizkorvak giñala, esan  
eustanean: «Erats egizuz begiak, ondo etorriko jatzu-ta, bi-  
dean obeto ibiheko, oiñak nun ipinten dozuzan ikustea».

Lurrean edegitako obiak, gomutapenak iraun dagian, obiratuak nortzuk izan ziran oroiterazten dabenez ezaugarriak agertzen dabezanez lez, eta sarritan aín zuzen negarrari emon oi jako, biotz-berai bakarrik ziztatzen dautsen oroi-pen-akuluak eraginda; orrelaxe nik be neure burua, baiña irudi obez ta antzetsuagoz, menditik at luzatuz doan bide aren zabaluneak adierazota.

Alderdi batetik nekusan edozein izaki baiño beiñago ta prestuago sortua izan zana, zerutik beera jausten, oiñaztarrri lez (Luzbel). Briareo \* nekusan zerutar geziz zauritua, zetzala, beste aldetik, lur-gaiñ astun, bere soin lkor izoztua. Tinbreo nekusan, eta Palade ta Marte, izkillotua oraindik, bere aitaren inguruan, erraldoien soin-atal sakabanatuak begiratzen. Nemrod nekusan, eregi ikaragarriaren oiñean, miretsita lez, Senaar'en beragaz batera arro agertu ziran jentea' begira. O Niobe!, zu bai ikusi zindudazala begi samin-garriaz, bidean zear zeure zazpi seme ta zazpirak illak ziranen artean antzetzua! O Saul, zelan, agertzen zihan an, zeure-zeurea zan ezpataz ilda, Gelboe'k, geroztik ez euri ez iruntz jausten somatu ez eban mendian! O Arañe zoro, erdi-armiarma biurtua ikusten zindudazan zu, zeure kalterako eundu zenduan lanaren zati artean etzuna its eta goibel! O Erroboan, ozt-oztan agertzen zan emen zure irudi zema-tzaillea; baiña bildurak joa, iges ziñoiazan burdi batean, iñok be atzetik erasoten ez eutzularik.

Azpi lakarrak baita erakusten eban Almeon'ek zelan garesti ordaindu-azo eutsan bere amari zori-gogorreko edergai-llua<sup>2</sup>, agertzen eban, bai, semeak zelan oldartu ziran Senakerib'en aurka jauretxe barruan, eta itxi eban bertantxe jllik. An agertzen zan Tamiri'k egindako triskantza ta emondako ikasbide kirats lazgarria, Ziro'ri esan eutsonean; «Zu odol-egarri zihan, eta nik odolez zaitut asetzen». Ondo erakusten eban olan, nola igesari emon eutsen azpiratuak izan ziran asiriarrak, Olofernes illa izan zanean, eta baita aren sarras-ki ostean geratzen ziran ondakiñak be.

Troi ikusten neban, errauts eta naspil-ondar biurtua. O Ilion! Lur-joa ta zatar bai margozten zinduzala an bereiz-

ten zan ikurrak! Nor izan ete zan, espiritu me-zot\*rotzenari be arrimena erne azoko eutsazan itzalak eta litsak an marrazu zítuan margolari edo-ta zizel-maisua? Illak illak, biziak biziak zirudien: areik egiaz ikusi ebazanak ez eban nik baiño obeto ikusi nik buru-makur niñoiala bidean zapaldu nebana. Eba'ren seme-kumeok, beraz, arro zaiteze, ta ortz-arro bide egin; ez egizue bururik makur-azo zeuen zorigaiz-toko bitxidorra ikusteko!

Aurrera jo genduan mendíari bira egiñik, eta nire gogo artegatuak uste eban baiño geiago aurreratua egoan eguzkia bere ibil-bidean, nire aurretik joiana, beti zur, mintzoz asi zanean:

—Jaso burua, orren oldozkor joateko ordua ez da-ta. Begira: an aingeru bat, guregana etorteko gertu; ikus seigarren mirabea be itzuliz dator egunaren zerbitzutik. Begirunez jantzi egizuz arpegia ta ibilkera, gu gora eroatea eder izan dakion. Gogora eizu egun onek ez dauala geiago zirt-zart egingo.

Aren oarkizunai txit egiña nengoan ni aldia alperrik ez galtzeko, alako gaitan ezin bait eustan íllun itz-egin. Guregana etorren izaki ederra, zuriz dotore, ta aren arpegiak goizko izarra zirudian dizdizka. Besoak zabalik eta gero egoak be zabalik, esan eban:

—Zatoze; emetik ur daukazuez maillak, eta dagoneko errez igongo zarie gora. Gitxi baiño ez dira dei onetara datozenak. Gizakumeok!, gora egaz egiteko jaiok, zer dala-ta aize orren gitxik erasten zaitue?

Pendaitza mozturik egoan lekurantz eroan ginduzan; an bere egoakaz astindu eustan bekokia, bide segurua agintzen eustalarik.

Eskuma aldetik, Rubakonte gaiñean, ondo zuzenduriko uri<sup>3</sup> gaiñez nausi agertzen dan eliza kokatzen dan mendira igoteko, gora naiezko oldar latza eten oi danez, kontu-liburuak eta neurriak seguru egozan garaietan osotu zitan mailldietatik igoteko nunbait, orrelaxe biguntzen da pendiza,



beste aldetik zut-zut jasten dana; alde batetik eta bestetik, alan be, arkaitz garaia ikutuz joan bear da.

Andik aurrera barrenduz giñoiazala, abots batzuk «Beati pauperes spiritu» abesten eben, ítez adierazo ezindako modu2 abestu be. A! , obiok baí dirala bestekkoak infernu-koen aldean! Kantuz sartzen da emen, eta an beean, negar-marraska uzuz. Mailla sagaratuetan gora giñoíazan eta leen zelaian baiño aski bizkorrago nengoala íruditzen jatan; nik, ba, itaun:

—Maisu, esaidazu, gauza astuna bai kendu jatala gaiñetik, ibilten ez bait dot ia bape nekerik nabaitzen?

Erantzun eustan:

—Bekokian josita daroazuzan P-eak, kendu-ur dagozanak, leenengoa lez osorik ezereztu diranean, oiñak zeure naiari lotuak eukiko dituzu, ta neke-izpirik oartu ezeze, atsegiña izango jake gorantz egitea<sup>4</sup>.

Orduan gertatu jatan buruan zer-edo-zer daroanari jazoten jakona: buruan daroa, baiña ez daki zer, besteak dagiezan kiñuetatik zerbaitegaz konturatu arren; eskuez baliaturik igarten alegíntzen dira, billatu ta idoro, ta ikusmenak bete ezin dauan zeregiña lortu oí dau. Eskumako atzamarralc luzaturik giltzdun aingeruak bekokian irarri eustazan izkietatik sei bakar-bakarrik aurkitu nebazan; onei begi emonik, nire bidaleari barrel-zuria loratu jakon ezpan-ertzean.

(1) Eun besodun erraJdoia, Jupiter'egaz burrukatzeagaitik. zerutik amildua.

(2) Tantalo'en alaba, ilten ikusi zitun bere amaJau alabak, La tona'ri irri egin eutsolako.

(3) Florenzia.

(4) Aingeruak, Dante konturatzake, P bat (arrokería) kendu dautso.

### XIII KANTUA

Muiña.—*Bigarren inguruan bekaitzeko pekatutik gar-  
gitzen.—Olerkariak, egaz doazala, maitasunezko gertari ba-  
tzuk gomutarazten dabezan espiritu batzuk ikusten dabez.—  
Ondoren, bekaizti ta tukutsuen arimakaz topo-egiten bi-  
dean.—Bekaiztiok zurdatzez jantzirik dabiltz, eta betosko-  
lak loro ta burdiñ-areiz josirik daroez. —Siena'ko andrandi  
Sapia'gaz mintzaten da Dante.*

Mailladiaren goikaldean gengoan. Emen, bigarren aldiz dago urten-une bat, ara eltzen dana garbitzen dauan mendi aretan. An bertan karel batek bira dagi inguruka, leenen-goak lez; baiña itxiagoa dozu onen makurraren uztaia. Ez neban ikusi itzal-litsik, ezta iñoiz egon ziranen aztarreniñ be, uts ormea ta uts bidea, arriaren kolore ori-ubela.

—Jenteari itanduteko emen itxaroten ba'dogu —buru-iraulka iñoan olerkariak—, nik uste dot gure erabagia geia-go belutuko dala.

Begiak zuzendu ebazan gero eguzkira, adi-adi; eskumako alderdiz erdia egin eban igitzeko, gorputzaren ezker-aldeari bíra eragiñik.

—O argi gozo —asi zan esaten—, zeuganik entzindua naz bide barritik sartzen! Zuzen gagizuz, emen zuzenduak izan bear dogunez. Zuk galdatzen dozu mundua, zuk argi egiten bere gaiñ; errazoi berezirik aurka ez dagoanean, zure izpiak izan bear dabe bidari beti.

Emen millarri batez zenbatzen dana, orixe zan gu andik zear ibilli giñana, aldi laburrean, leiak estutzen ginduzalako; ta geugana etozala oar giñan egazka, baiña ez gendu2an ikusi, maitasunezko maira samur dei egiñez mintzaten ziran espirituak. Egaz igaro zan leenengo abotsak «Vinum non habent» iñoan argi-argi, eta geure atzetik urrindu zan gauza bardaña esanez; eta onek aldenduz joiala guztia entzutea itxi aurretik, beste bat igaro zan deadarka: «Oreste no-

zu ni», eta au be etzan gelditu. «O! —esan neban nik—, aita, 2e aots dira orreik?». Eta ni itaunka nengoalarik, irugarrenen batek iñoan: «Maita egizuez zeuen arerioak be». Eta nire maisu onak, oi:

—Bekaitzaren errua zigor-azten da inguru ontan, baiña maitasunaz erabiUiak dira zartailluaren ariak. Aurkakoen aiñako izan bear edeak; neure aburua danez, entzungo dozuz nik uste parkamenaren ígaro-bidera orduko. Baiña ezar eizuz begiak airean eta geure aurrean ikusiko dituzu arimak jarrita, ait2-zuloan zear totoriko baktotxa.

Orduan, leen baiño zabalago jarri nebazan begiak; aurrean begiratu, itzalak ikusi nitun arriaren antz-antzeko maindirakaz jantzita. Eta apur bat eurreratxoago egin genduanean, deadar au entzutea errez jakun: «Maria, otoitz gure alde»; eta «Mikel», eta «Kepa», ta «Santu guztiak».

Ez dot uste gaur Inr-gaiñ dabillen gizonen artean ain gogorrik dagoanik gero nik ikusi nebanak errukira eroango ez leukenik; arimen ondoan aurkitu ta euron egiñak argi somatu, oiñazeko malkoak jausi jatazan begietatik. Zurdatz iguingarriaz estalduta begitandu jatazan; batak besteari sorbaldez eusten eutson, eta danak egozan ormeari eutsoela. Itsuak be, nok edo zek eutsi ez daukenean, orrelaxe jarten diia elizako ateetan eskupeko eske; batak bestearen gaiñean makur oi dau burua, iñoren errukitasuna bizkorrago sortazteko, ez bakarrik euren itz-soiñuz, baita oindiño gitxiago aizatzen ez dauan soinkeraz be. Eta itsuai eguzkia eltzen ez jaken lez, bardin orain aitatzen dodazan itzalai be, ez jaken eldu gogo zeruko argia, burdin-ari batek ba zulutzen zituan danak, eta lotzen betazalak, miru basatiaz egin oi danez, iñoiz be geldi ez dagolako.

Ibiltzen niñoiala iruditzen jatan kalte egiten neutsela, niri begiratu ezin eustenai; beraz, neure aolkulari zurrigana biurtu nintzan. Ondo ekian ak zer esan nai neutson neure jokera mutuaz; eta ez eban itxaron nire itaunik, beingoan adierazo baiño:

—Mintzo zakioz, baiña labur ta zuurki.

Bergfli, egal-koska jausi arriskutsu atatik etorkidan urreratuz, ezetariko esku-bandak esitzen ez dauan atatik ain zuzen. Itzal eraspentsuak neukazan beste aldetik matraillak negar-anpuluz asetzen eutsezan aiena-intziria joscara izugarritik urteten izten eutsoela. Eureka biurtu ta asi nintzaien esaten:

—O zuok, goi-argia ikusteko ziur zagozenok, besterik ez bait da zuen guraria! Jainko-graziak garbi daizala laster zuen barru-loiak, zuen adimen-ibaia garbi jatsi dadin bertatik. Esaidazue, atsegin eta maitekor izango jat-eta, zuen artean arimen bat ete dagoan latindar dana; barari be bear bada on izango jako nik jakitea.

«O ene anai! Egiazko uriko uritar gara guztiok, baiña zu bizi zala ItahYn zear ibilli zan norbaitegaitik itaunka zatoz». Erantzun lez edo, au uste izan neban entzun, ni nengoan lekutik aurreratxoago; obeto entzun-naiez, ba, geiago urreratu nintzakon. Itxurazko bat ikusi neban beste itzalen artean zain neukana; eta iñok itanduko ba'leust «Zelan?», itsuak egin legez, okotza gora jasoaz erantzungo neuskio.

—Gora igotearren ainbat bezten zarean espiritu ori —nik ots—, niri erantzun zeustana zu baldin ba'zara, jar naizu jakitun zeure sorterri ta izenaz.

—Siena'ko izan nintzan —erantzun eban—; beste oneikaz xautzen dot emen neure bizitza txarra, Ari eskatuz mal-kotan emon daigula Bera ikustea. Sapia<sup>2</sup> eristen arren, ez nintzan. Eta ziria sartzen dautzudanik uste izan ez daizun, entzuidazu, diñotzudan lez, zoroa izan ez ba'nintz, neure urteen makoan orduko beerantz niñoialarik. Kolle'tik ur-ur egozan nire uritarrak, landan etsaiakaz batera, ta nik Jainkoari eskatzen neutson Ak erabagita eukana bete zedilla. Suntsituak izan ziran bertontxe, eta urrats garratzetara bear-tuak; jazar-aldia ikusirik, iñoiz somatu ez dodan lakoxe poz-tasuna sentidu neban; neure arpegi ausarta zerura zuzenruz, Jainkoari ots-egin neutson; «Gaur-geto ez dautzut bildurrik! », sasi-zozoak egin oi dauanez eguraldi ona agertu ordukoxe. Bakea nai izan neban Jainkoaz neure bizitz-azke-

nera, ta ez nintzateke oíndiñokarren emen egongo penitenti-bidez neure zorra ordaintzen, Pier Pettinaio'k nitaz ondo naiez errukiturik, bere otoitz doneetan gogoan euki nindulako izan ez ba'litz. Baiña, nor zara zu izan-egoeraz itaunka zoazan ori, uste dodanez begiak zabalik eta mintzatzean arnasa artzen dozun ori?

—Nire begiak be —nik erantzun— emen daukazuz oindiño jasorik, baiña denpora laburrean, txikia da-ta nik bekaitzez norbaiti begiraturik egindako makurra. Askoz aundiagoa da beeko oiñazearen aurrean niri arimea zurturik izten daustan izu-ikara, oraindik be an ikusi dodan zamak pixu astun dagist-eta.

Eta arek niri:

—Nok ekarri zaitu, ba, ona gora, gure artera, osterabeera biurtuko zareala uste ba'dozu?

Eta nik:

—Onek, nigaz dagoan eta ezer ez diñoan onek. Ni bizi naiatzu oindiño; beraz, esaidazu, gogo autatu orrek, ni bizi nazan lekuan bat-edo-batek zure alde zerbait egiteko bere oiñak erabiltea gurako dozun ala ez.

—Oi, gauza barria dantzudan au! —ak jardetsi—, eta ezagun da Jainkoak maite zaituna; lagun zakidaz, bai, zeure otoitzakaz. Eta zuek naien dozuenagaitik, eskatzen dautzut, egunen baten Toskana'ko lurraldea zapal ba'dagizu, biur daizula nire senitartean nire ospe ona. Zuk ikusiko dozuz Talamone'gan ustea daben jente uts aren artean, eta Diana'ren biila ibilli ziranak artu eben baiño be etsipen aundiagoak galduko ditu, baiña geiago galduko dabe oindiño itxas-gizonen-buruzagiak <sup>4</sup>.

(1) Oreste'k ez eban nai Pilade adiskideak bere orde z burua eskintzerik.

(2) Andra aundikia Ghinibaldo Sarazini'ren emaztea, oso bekaizti.

(3) Frantzisko Doneaien Irugarren odenakoa, guztiz Jainko-zalea.

(4) Talamone, sienatarrak opa eben portu bat; Diana zan iturburu baten izena; buru-zagiak ur-biila ebiltzanak.

## XIV KANTUA

Muiña.—*Leen esanari jarraituz, Duka'ko Gido'k Kal-boli'ko Rinier beragandik ur egoanaren zera azaltzen dautso Dante'ri, baita Arno ibarreko erri askotako oiturak be. Bere illobaren lotsakizunak eta gerenak iragarten dautsoz.—Erro-maña endekatu dalako illeta Dante'rekin: garai aretako gizaseme leiñargi ta erritar zintzo askoren izenak aitatzen dira.—Azken baten, olerkariak espiritu areingandt^ banatze-rakoan, trumoi antzeko burrundara entutzen, bekaiztientzako zigor-otsa noski.*

—Nor dogu, eriotzeak egoak eman orduko, mendiari ín-guru dagion eta begiak kxi-edegi bere naitara egiten dabe-zan ori?

—Ez dakit nor dan, baiña bakarrik ez doana ba-dakit; galde egíozu zeuk urrago bait zagoz, ta ar eizu maitekiro ítz-egin daian.

Au iñotsen nitaz alkarrí eutsela eskoi neukazan espi-ritu bik; gero, niri itz-egiteko buruak zutiturik, batak au esan eban:

—Gorputz barruan oindiño, zerurantz zoazan arima ori! Poztu gaizuz, mesedez; esaiguzu nundik zatozan eta nor na-rean, egin jatzun eskerrak ba arriturik gaukaz, leendik ikusi bako gauza da-ta.

Nik erantzun neutson:

—Tockana'n zear doa Falterona'n <sup>l</sup> jaioten dan errekazto bat, eun milla-arrí ibillita be asetzen ez dana. Orren ertzean dagon urian artu neban nik izatea; elperrekoa litzateke nor nazan zuri esatea, nire izena ez da-ta oindiño asko otsegiña.

—Zure gogoan ondo barrendu ba-dot —erantzun eustan leenengo mintzatu zanak—, Arno'z diarduzu zuk.

Eta bestea jardetsi eutson:

—Baiña, zergaitik il-azo dau onek ibai aren izena, gau-za lazgarriakaz egin oi danez?

Eta itandu jaJcon itzalak onan:

—Ez dakit; baiña bidezko da olako ibarraren izena iroltzea; bere jatorritik, bada, Peloro<sup>2</sup> jaregin zan apenin-mendi a dagon lekutik, gauza bardiñik nekez ikusten dan aiñako ugaritasunaz, ain zuzen; zeruak itxasotik artua —ibaiak daroana emendik ateraten— atzera biurtu daroan uneraiño, suge bat baizen izterbegitzat daukie onoimena, dala tokiaren zoritxarrez, dala zirikatzen dituan griña gaiztoen erruz, ibar aretako biztanleak izadia oso daukie aldatua, Kirke<sup>3</sup> jan-eragin ba'dautsez larrak. Txarri zikin artean, ezkurrez ez giza-jakiz alikatzeko oba diranen artean nunbait, zuzentzen dau leenengo bere ur-tira urria. Txakur txolñiak gizentzen ditu ondoren, beerantza jatsiz, euren indarraí dagokiena baiño be amorratuagoak, eta muturra okertu daroa areingandik nardatzaille. Jatsiaz dator, eta lodituago ta txakur geiago aurkitzen dftu, obi madarikatu ta doakabean otso<sup>4</sup> egifiik. Arla-zintzut ebagi aonetatik zear, beerago jatsiz, luki-meak maltzurkeriz ondo zanpatuak, manturioaren bildur ez diranak. Ez dot beste batzuk entzun arren esan barik itxiko; ta ondo datorkio oni, egiazko espiritu batek iragarten daustala gogoratzen ba'dau. Zure illoba dakust otso arein eiztari ibai zakarraren egalean eta izu-laborriak joak daukaz guztiak. Arein aragia bizirik dau saltzen, eta il egiten dauz gero abere zaarrak ilten diranez: asko izten dauz bizi bage, ta ber-bera dedurik bage. Odoldua dator oian baltzetik; bere leen-egoerara milla urtetan ez bturtzeko eran alakoa itxirik.

Kalte neketsualc igarten entzuten dabezanaren arpegia artegatzen dan antzera, andik-emendik arriskua datorkiolako, orrelaxe ikusi neban nik entzuteko itzulita egoan beste ari-mea, urduri ta goibel entzundako itz areik ausnartuz. Bataren itzak eta bestearen itxurak, euron izenak jakin-naiez jarri ninduan, eta eskari adeitsuz itandu neutsen. Beraz, leenengo mintzatu jatan espirtuak au gaiñeratu eban:

—Zuk nai dozu nik zuri agitea, zuk niri egin nai ez daustazuna. Baiña, Jainkoak nai dauan ezkeru zukan bere

grazia ain dizdítu ager dadin, ez dautzut ezik emongo; jakizu, ba, ni Duka'ko Gido nazala. Nire odolak bekaitzez irakín bai irakin gizaseme zorionsu bat ikusi ba'zendu, ni laru, ubel, its aurkituko ninduzun. Neure azitík artzen ditut burtxok. O giza-jente! Zergaitik ípínten dozu biotza zatikide izan ezin daiteken lekuan? Rinier da au; Kalboli etxeke aintza ta dedua, bere onoimenaren, birtutearen oiñordeko iñor be egin ez jakona. Eta ez dira bere odolekoak soilki Po, eta mendi, ta itxaso ta Reno tartean, egiari ta gogo atsegiñari buruzko iñoren onetik mozkindu diranak, muga orren barne dana bait da landara pozoitu, beraz lurra lamduta be, berandu baiño ez dira erauziak izango. Nun dagoz Luki ona ta Arrigo Manardi? Pier Traversaro ta Karpiña Guido? O erromañar sasikume biurtuak! Noiz Bolonia'n Fabbro bat ber-jaioko? Noiz Faenza'n Fozko'ko Bernardin bat, azi pitin batetiko kimu txáiro? Ez zaitez arritu, toskanar ori, negar ba'dagít, Prata'ko Gido, Azzo'ko Ugolin, gure artean bizi izandakoa; Federiko Tignoso ta onen lagunak, Traversara etxekeak eta Anastagi'tarrak (bata ta besteak itzaliak gaur), andreak eta zaldunak, egite arrigarria ta maitasuna ta gizalegea sort-erazten eben adiguriak eta txerak, an biotzak orren gaizto biurtu ziran lekuan. O Brettinoro! Zergaitik ostondu zure sendia, beste askorekin, ez kutsutzearren iges egin ebanean? Ondo dagi Bañakabal'ek ez sort-araziz; eta txarto Kastrokaro'k, eta txartoago Konío'k, alako kondeak sort-erazten leitzen diranak. Pagani'tarrak ondo ibilliko dira deabrua joan daitenean, baiña ez da origaitik aren gomutea egundo be garbi ta txukun geratuko. O Fantolin'go Ugolin, seguru dago zure izena, illun-azo daiteken endekaturik ba onezkero itxaroten ez dalako. Baiña zoaz jadaneko, negar egiteak orain mintzatzeak baiño poz aundiagoa bait dakar. Onenbestean naigabetu nau gure alkar-izketak.

Guk ba-genkian arima kutun areik, ibilliz, naigabetzen genduzala; ixilduz, beraz, bide onetik genbiltzanaren ezau-garri jakun. Gero aurrera jo ta bakarrik geratu giñanean, aizea urratzen dauan dizdiza zirudian abots bat etorri jakun aurretik, esanez: «Aurkitu nagian edonok ilgo nau», eta



ígesari emon eutsan, odeia bat-batez edegiten danear\* urrintzen dan ostotsa lez. Ta aren otsa il zaneko, ona beste bat ozkartsu tximistari azkar jarraitzen dautson trumoia bailitzan: «Aglauro<sup>5</sup> naz ní, arkaitz biurtu nintzana», eta nik orduan, olerkariarengana urreragotu nendin, atzerantz emon neban oínkada bat eta ez aurrerantz. Nare egoan eguratsa nun-naitik; ak esaustan: «A izan zan galga gogorra, gizasemea bere eginbearren muga-barru euki bearko leukena. Baiña zuok amuskiari agiñak bizi-bizi ezarten bait dautsazue, zeuon antxiñako etsaiaren amuak tira egiten dautzue, ta gitxi balio dabe beraz galgeak edo-ta etordeiak. Dei dagitzue zeruak, ta zeuon inguruan dabil biraka, bere betiko edertasunk erakutsiz, eta zuen begiak alan be lurrera begirutzen. Oro dakusanak zigor-azten zaitue, egi-egiaz.

- (1) Falterona, Apenin-mendi katea; antxe jaioten da Arno.
- (2) Peloro, mendi bat; onen azpian daulcazu SiziJia'ko lur-muturra.
- (3) Kirke, sorgiña, gizonak abere biurtu. oí ebazan.
- (4) Otsoak, fJorent2Iarrak ziran. .
- (5) Atenailco errege Zekrope'ren alaba, bekaízti zalako> aitz biurtua.

## XV KANTUA

Muiña.—Bigarrenetik irugarrengora igoten dan lekuan dagoz olerkariak.—Asarrekorren garbi-lekua.—Gora doazala, Dante'k, Duka'ko Gido'ri entzunak edesten dautsoz bere maisuari.—Dante gaiñezkaldian jausten.—Aintxiñako otzan-eredu batzuk.—Kezka laiño itsuan murgil.

Aurtxó bat lez beti ikeran dagon boronbíllean, egunaren asieratik irugarren orduaren azkeneraiño dagoan beste geratzen jakon eguzkiari, zirudianez, gabara eltzeko: an arratsaldea zan eta emen gaberdia. Izpiak arpe^i erdian zauritzen

ninduen, mendiari bira osoa emon eta zuzen bai zuzen sarkalderantz bait giñoioazan; ortan sumatu neban nik leen baiño dirdir biziagoak itsutzen ninduna, ta zergaitik zan berau ez nekialako lurmenak artua geratu nintzan; eskuak, ba, bepuru galñez jarteraiño jaso nebazan, argi geiegitik begiak jagoteko aurre-malda egin nairik.

Uretatik edo ispillutik urtendako erraiñu dirdiratua bestekaldera doan lez, jatsi zan modu-moduan urtenik, arriaren jaustetik aldenduz zokondo ber-beraz, experientziak eta antzeak erakutsi oi dauskunez, orrelaxe iduritu jatan niri be, neure aurrean dirdiratutako argi bat zala, ni zauritzen ninduna; bertatik, beraz, aldendu nitun begiak, au esanik:

—Zer da a, aita samur, alegiñak eginda be neure begiak agandik zaindu ezín dodazana, ta antza danez geugana datorrena?

—Ez zaíte arritu oindiño be zeruko familiak itsu-azten ba'zaitu —erantzun eustan—; mandatari bat dator gora igoteko zuri esaten. Laster ez jatzu nekeza izango gauzok ikuskatzea, bai osterata atsegiñago ta izatea eurok ikusteko geruago egiño jatzu-ta.

Aingeru donetsia egoan lekura eltzean, onek esan euskun samurkiro:

—Sar emendik, zurubia emen besteak baiño zut-ezago bai dozue.

Gorantz giñoioazan, andik urrinduz, «Beati misericordes» gure atzean kanatzen asi ziranean, eta «Gozartu zuk garaitu dozun orrek». Níre maisua ta biok bakarrik giñoioazan gorantza, ta uste neban nik, bitartean, aren itzez onura ateratea. Arengana zuzendu njntzan, ba, itandurik:

—Zer esan nai izan eban Erromaña'ko espiritu arek «bartzerte» ta «lagunkide» aitatuz?

Gaiñeratu eustan oraindik:

—Orain ezagutzen dozu aren griña eundienaren kaltea; etzaite arritu, ba, akar ba'dagi, negartzeko zio gitxiago euki daian gerokoan. Zuen gurariak, banandu ezker, gitxitzen

diranera zuzentzen ba'dira, ondamuak bere intzirian sua piztu-azten dau; baiña, goi-goiko boronbillaren maitasunak gorantz ba'lerioiaz zuen gurariak, ez zeunkie barruan olako izurik somatuko, an bada zenbat eta geiagotan esan «geure» bakotxak on aundiagoa dauko, ta goi-maitasun geiagok su artzen barruti artan<sup>1</sup>.

—Urriñago nago orain pozik aurkitzetik, mutu egon ba'nintza baiño be —esan neban nik— eta ezpai geiago datorkit burura. Zelan izan daiteke eukile askoren artean banandutako on batek aberatsago egitea, berau gitxi batzuk eukia izanda baiño?

Eta erantzun eustan:

—Zuk, zeure adimena lurreko gauzetan bakarrik, joserik, daukazulako, illuna ateraten dozu egi-egiazko argitik. Goian dagoan on mugabage ta esan-ezin Arek, ostrontza lez maitasuna egozten gorputz dízditsuetara; sukarrak geiago ta geiago emoteko, ta goi-matasuna geitzen dan nenrrian, geiago azten da arengan betiko balioa; beraz zenbat eta arima geiago zeruan aurkitu, maitasun geiago dago an eta, ispilluak lez, batzuk besteen gaiñ dizdiratzen dabe. Ta nire errazoiak gogo-betegarri ez ba jatzuz, Zorione ikusiko dozu ta oso-osorik beteko dautzu ak, au naiz bestea, edozein gurari. Aurrera ba zeure bidean, laster garbi geratu zaitez, dagoneko bi xautu diran lez, damuaren bitartez kendu edo garbitzen diran bost orbanak.

«Pozik itxi riozu» esateko nengoala, beste inguruan aurkitu nintzan, eta ez eustan ikusgura biziak beste ezer jardesten itxi. Orduan begitandu jatan, bat-bateko zorabio-ikusari baten lez, pertsona asko ikusten nabazala alako jauretxean; eta emakume bat sarrera aurrean, ama itxura gozoan, au iñoalarik: «Ene seme, zergaitik egin dauskuzu ori? Ona, aita ta biok zure billa ibilli gara, atsekabe aunditan. Au esanez ixildu zan, eta leen ikusten zan guztia utsaldu.

Beste emakume bat agiri izan jatan ondoren, matrailak, norbaiten aurkako asarretik ernetako atsekabeak tantaka

ixur-azo oi dauan urarekin bustiak eukazana, ain zuzen, onela ziraustala:

—Zu baldin ba'zara, bere izenagaitik jainkoen artean ainbat istillu izan zanekoa ta 2fentzi orok dizdiz dagian urilko jauna, apen zaitez gure alaba besarkatzen ausartu zan aretaz. Oi Pisistrato! <sup>3</sup>.

Eta jaunak, iruditu jatan, onbera ta irrukiar, begitu otzanez, erantzun eutsola:

—Guk zer egingo ari, gaizki gura dautsagunari, maite gaituna ezesten ba'dogu?

Jentea ikusi neban gero, sumiñak artua, mutil gazte bat arika ilten, alkarri ozen oiue egiñaz: «U ori! II ori!»; eta gaixoa, neuk ikusia, erio-suar, lurrerantz makurtuta, baiffia begiakaz zerurantz soka, atsekabe aunditan, Jaunari erreguka, bere jazarleai parka egioela eskatuz, errukia bítzu-azoten eban itxura larri aretan.

Nire arimea, beragandik kanpo egiazkoak diran gauzetara biurtu zanean, ezagutu nitun nik egin okerrak, baiña ez egin bageak. Nire zuzendari nigan iratzartuz doan baten itxurea ikusi egikeanak, esan eban:

—Zer daukazu zutik ezin egonez eta leku-erdi baiño geiago begi-ertsi ta oinkadak gurutzetuz, ardoak edo loak azpiratu dauanaren antzera ibilli zerean orrek?

—O ene aita on! —erant2un neutson—. Entzun ba'nagizu, esango dautzut agertu izan jatana, nire anak ain baldar nabari izan jatzuzaneam

Eta berak:

—Arpegi gaiñean eun karatula ba'lerioiazuz be, ez litza-kidaz gordeak izango zure pentsamentuak, naiz-ta kaskarrak izan. Atxakirik izan ez daizun izan zan ikusi zenduna, biotza edegiten ez ba'dautsazu betiereko sorburutik ixuriz datorren bake-urari. Ez neut2un itandu —Zer daukazu?— begitu bai ta ikusi ez, eta gorpu illa lez zurrun dabillenaren antzera, egon zeintezan; zeure oiñai kemena ezarteko esan neutzun bakar-bakarrik. Olaxe bizkortu bear dira nagiak,

itxartzen diranean euren egun-aldia ondo erabilten arkolo ta zuri diranak.

Illunkera etorkun gaiñ eta ba-giñoiazan geure begiak alik eta urriñen josorik, arratsalde eguzki-erraiñu dizditsuakaz auzka latzean. Eta ona, apurka-apurka gaba baizen illuna zan ke-adar bat eratu zan geugana etorrena; ez egoan lekurik ak itxi euskun begí-lauso ta aize-ezetik gordeteko.

- (1) Lur-ondasunak banatuz gitxitu egiten; ez olan, epirituzkoak.
- (2) Pisistrato Atenai'ko erregearen emaztea bee aiabea mosukatu eban gazte baten aurka ebílen, eta Pisistrato'k itz gogoz eiantzuten eutson,
- (3) Esteban Deuna, iltzailleen alde Jainkoati eskatzen.

## XVI KANTUA

Muiña.—*Iruugarren oboan mutur-zorrotzak garbitzen dabez euren pekatuak, kezko gandu naasian, infernuikoa baiño be gau iilunagoan, iukor.—Espiritu batek itz Dante'ri, ta bere burua agerteraztean, gaur-eguneko griñataz daragoio.—Olerkariak, beraz, zertatik datorren. ainbesteko ustelkeria jakin nai leuke, izarren eragiñetik ala giza-alkartearen erakundetik.—Arek, jakintsuen errazoiak emonez, erantzuten dautso.*

Ez ifernuko illunbeak, ez gau izarbage ta odei pillotuak laga oi daben zeru-azpi bahz-goibel baizen itsuak, ez daust íñoiz begi aurrean luzatu an biribilkatzen ginduzan lako zapi lodi-ítxirik, ezta niri ikutu latzagorik senti-azo be. Ezin neikezan begiak zabalik euki, ta orixegaitik nire jarraigoa, jakintsu zintzoa, urreragotu jatan eta besagaiña eskiñi bertan zutikatu nendin. Itsua biderik galdu ez daian itsu-mutillaren atzetik joan oi danez, ezek kalterik egin ez daion edo-ta bear bada oztoporen baten eriotza aurkitu, olantxe

níñoían ni be aide gazi-mingor, belun-zerbelean zear, neure zuzendariari entzunez, onan iñostena:

—Ez zaitez, otoi, nigandik aldendu.

Abotsa ba-nentzun, eta uste nebanez, danak bakea ta errukia eskatzen eutsoen pekatuak kentzen dituan Jainko-Bildotsari. Asieran «Agnus Dei» esaten eben bakar-bakarrik, danak batera ta doiñu-mail bardin-bardíñean, batasuna zaintzen ebela adierazo nairík bezela.

«Espirituak dira, maisu, nik dantzudazanak», zeaztu neban. Arek niri: «Orrela dozu, ta asarrearen morapilloa askatzen doaz». «—Nor zara zu gure ke-moltzoan zoazan ori, ta aldia oindiño egunez zenbatuko ba'zendu lez gugaz mintzaten zarean ori?». Onan utsitu zan abost bat, eta nire maisuak, ori entzunik, esan eustan: «Erantzun eta esaiozu emetik igoten ete dan». Eta nik: «O izaki, egin zinduzan Arengana eder biurtzeko garbitzen zagozana! Arrigarriale entzungo dozuz, ba'darraistazu». «Nik jarraituko dautzut zuzen jataneraiño —erantzun neutsan— eta keak ikusmenez baliatzen itxi ezean, entzumenak egingo dau aren txanda gu alkarregaz iraun-azorik».

Orduan onan asi nintzan: «Gorantza noa erioke suntsitendauan gorputz oneik, eta infernuko oiñazez jadetxi naz ona; Jainkoak bere grazian artu ta zeru-erria nik ikuskatzea gogoko ba'leu, gaur arte oitua ez dan era berezian, eriot2 aurretik nor izan ziñan ez eidazu gorde. Esaidazu, mesedez, eta esaidazu erabat bide onetatik ondo noan gora igoteko, ta 2ure itzak izango doguz gidari». Arek niri: «Lonbardar naz \*, izenez Marko; mundua ezagutu neban, eta orain olako uztairik zuzendu nai ez dauan birtutea maite izan neban. Gorago igoteko, ekin bide ortatik artez». Olan erantzun ondoren, esan eban: «An goian zagozanean, arren, deskatzut, eska daizula nire alderako». Eta nik: «Egingo daut2ut eskat2en dausta2una, baiña duda-muda batek kezkatzen daust barrua, argitu gura neukena. Leen me-emeia zana, orain astunago egin jat zure erant2unaz, ziurtasuna emoten bait daust, beste leku baten ent2unaz batera, nik eurok korapi-

lloitzen dodanari buruz. Mundua egon be birtutez oso murriz dago, zuk díraustazunez; maliziz eta griñaz asetua ta estalia. Baiña esaidazu, otoi, zergaitik dan olan, nik ikasi daidan eta beste batzueri erakutsi, batzuk jarten bait dabe zeruan eta beste batzuk lurrean».

Zizpuru egin eban oiñazeak, au entzunik, «ai! » biurtu zana; gero onela así zan:

—Anai, itsuturik dago mundua, ta ondo ikusten da zu andik zatozana. Zuok, bizi zarienok, zeruari ezarten edo-zeren errazoaia, naitaez arek igituko ba'leu lez guztia. Orrela ba'litz, deuseztua. litzateke zuekan autamen azkea ta ez litza-kizu bidezko izango ona pozik artzea ta gatxagaitik negar egitea. Zeruak asten ditu zuen mugimentuak; ez diñot danak, baiña esango ba'neu be, argia emon jatzue ona ta txarra bereizteko, ta naimen azkea, ta au leenengo zerutar burru-kaldietan nekatzen ba'da be, gero berak azpiratzen dau dana, ondo aletzen baldin bada. Naiz-ta azke, indar aundiagoari ta izate txikiagoari zagoze atxikirik; arek erne-azten dau zuokan espiritua, zeru-eragiñaren mende ez dagoana. Gaurko mundua alan be alderazten bada, zeuok zarie orren errudun eta zeuokan billatu bear dozue orren zergaitia; ta nik egi-egiaz erakutsiko dautzut ori. Barre ta negar axtean itz da-gian neskato bat lez, izan baiño leendik laztantzen dauan Aregandik urteten dau arima tolesgeak; baiña atsegin-naiak eraginda, pozgarri jakon guztira doa makurtuz bere gogo berariko. On txikien ederrera makurtzen da; emen baltza sakatua geratzen, baiña on txiki-kaskar orrein atzetik las-terka doa leia izugarriz, aitzin-bidari edo galgeak biur-eraz-ten ez ba'dabe aren griña jorana. Egoki da ortaz legeak jartea galga lez eta erabat egoki da errege eukitea egiatzko uritik bereizten dakiana, torrea beiñik-bein. Ba-dira legeak, baiña nok eskua jarri eurok bete daitezana? Iñok bere ez; danen aurretik doan artzaiñak ausnar daike, baiña apatxa ez dauko arrakaldua, eta beraz gidaria dakusan jenteak berak opa dituan ondasun areik bakar-bakarrik nai dauz; oneitan la-rratzen da, geingorik eskatu bage. Ondo ikusi zeinke, jaurtza txarrean dagoala mundua errudun egin dauan errazoaia, ta

ez zeuon izate ustelduan. Erroma'k, mundua ondu ebanak, eguzki bi euki eroiazan, bide biak ikus-azoten zituana: munduarena ta Jainkoarena. Batak bestea illundu dau, ezpatea ta gotzain-makilla alkartu dira, ta bata ta beste alkarregaz dabilzanean, gauzak naitaez oker joan bear, alkartuta egonaz ba batak besteari ez dautso bildurrik. Siñisten ez ba'daustazu, begira frutuari, bedar oro azitik ezagutzen da-ta. Adize'k eta Po'k ezkotzen daben lurraldean adeiak eta kexnenak aḁkar idoro oi eben Federiko'k burrukara jo aurretik. Orain bake-bakean, onakaz ar-emona euki naiz eurokana urreratzea lotsaz itxi dauan edozein igaro daiteke andik. Egia da, iru zaar bizi dira bertan leen-adiñak barria salatuz, eta uste dabe eurok Jainkoak luzatu egiten dauala eurai bizitza obero deitzea: Palazzo'ko Konrado, Gerardo ona ta Kastel'go Gido, frantsez-oituraz Lonbardash tolesgea deritxoena. Erroma'ko Elizak gaur, jaurlaritza bi bere kautan naastu ditulako, lupetz-artera jausi da, bere burua ta bere aginpideak loi-orbanez josirik.

—O ene Marko! —bota neban nik—. Errazoi ederrak arikzen dituzu, ta orain ulertzen dot Lebi'ren semeak<sup>2</sup> zergaitik baztertuak izan ziran erentzitik. Baiña, nor dozu Gerardo ori, zuk jakituntzat daukazuna ta enda illaren aztarna lez dirauana gizaldi basati au txarresteko?

—Zure itzak atzipetzen nabe edo zirikatzen —erantzun eustan—; toskatar izkeraz mintzatu ta zergaitik ez dakizu Gerardo onaren barririk? Nik ez dot ezagutzen beste izenordez, bere alaba Gaía'rena<sup>4</sup> ezarten ez ba'dautsot. Jainkoa izan bedi zuekin, ezin dautzuet geiago lagundu-ta. Ikus goizerraiñua ke artean agiri dana, argituz doa dagoneko. Or dago aingerua, ta joan bear dot, bera agertu biño leen.

Ondoren, itzuli zaneta ez eban ezer geiago entzun nai izan.

(1) Venezia'ko gLza-andikia.

(2) LebiVen leiñuko apaizak galazota euken lurreko ondasunak erenriz jasotea.

(3) Gaia, emakume eder ta begirune aundikoa.



Muiña.—*Oierkariak kezko odeitik urtenda, Dante'k zentzun-galtzea dauka: onetan, ondorio txarrak ekarri eutsezan triperre ta olakoen irudiak aurrevatzen jakoz.—Laugarren obora daroan mailladirako aingeruak argi itsu-aazlez dakar bere senera; obo ortaraño eltzen, baiña igon ezin, gaba gaiñ jausi jake-ta.—Egote ontan, Bergili'k Dante'ri erakusten, maitasuna dala birtute ta griña guztien asiera.*

Gogora zaitetz, irakurle, iñoiz Alpe-mendietan laiñoak arrapatu ba'zaitu, satorrak míntzez lez bertan ikusten zendula, zelan, lurrun lodi-ezea artzen asikeran, eguzkiaren biribilla motelto sartzen zala laiño itsu orretan zear; zure irudimenak olan errez aurkituko dau, nik etzan-zori egoan eguzkia ber-ikusí nebanaren iruditakoa. Edu orretan, neure miñak maisu zintzoarenakaz bíkoturik, alako odeitik, oindiño mendi-oíñera emoten ez eban eguzki-izpitara urten nintzan.

O irudimen! , noizik-beinka kanpo jazoten danaz ez konaturatzeraiño lilluratzen gaituzuna, biran milla turutek ots-egín arren, noski! Nok zirkin eragingo ete dautzu, zentzunik kilikatu ezik? Zeruan, bere2 edo bialt2en dauskun Aren nai gurenez eratzen dan argi batek igi-erazten gaitu.

Abeska geien atsegin oi dan txori bíurtu zan gaizto aren lorratza \* agertu zan nire irudimenan; eta adimena bere kautan kiribildu jatan, kanpotik etorkidan gauzarik ez artzeraiño. Gero, nire irudimen jagi-berotuan gizaseme gurutz-untzatu bat agertu zan, betarte nazka-zatarrekoa, olan orixegaitik ilten zana. Onen inguruan egozan Asuer aundia, beironen emazte Ester, eta Mardokey leiala, mintzoz ta egite<sup>^</sup> arteza bene-benetan.

Irudi au bere2-berez itzali 2anean, osatu 2an urak uts-emoten dautson purrustilla baten ant<sup>^</sup>era edo, neskatxa bat erne zan nire ikuskizunean, negar baten, onela iñoana: «O erregiñ! Zergaitik sumiñez ezerez biurtu nai izan dozu?

Labíñe<sup>2</sup> ez galtzearren zeure burua il nai izan dozu; eta, alan be, galdu dozu! Neu naz, ama, negar dagidana, zeugaitik beste inñorgaitik baiño leen»,

Bat-batean, loa ausi oi danez, argi barri batek betazal ítxiak jotean, egiz etena izan arren osorik igesten ez danez, bardin urtu ziran nire ikuskizunalc be, oizko baiño argi biziagoak arpegian jo nínduanean. Biurtu nintzan nun nengoan ikusteko, abots baten esan eustanean: «Emetik igoten da»; beste burubide gutzitik aldendu nindun onek, eta itz egistana nor neban jakin-min bizi-biziak zauritu nindulako, ez neukean atsedenic axe nor zain jakin arteño. Baiña gure ikusmena argi geiegiz eguzkiak lausotzen dauan legez, olaxe egozan nire barru-indarrak be. «Jainkozko espiritu bat da au, goragoko bidera zuzen-azten gaituna, guk otoiztu bage eta bere argiz bere burua estalirik daukana. Gugaz egin daroa gizonak agaz dagiana: bear-izana ikustean, erregu zain dago, baiña ezetza emoteko gertatzen da maltzurki. Orain, alan be, goazan aurrera, deiari erantzuki. Illundu orduko igoten saiatu gaitez, gero ba ezingo geunke egin urrengo eguna argitu arte».

Gisa orretan mintzatu zan níre aurrelaria, ta biok zuzendu genduzan geure urratsak, zurubi batera; ni aren leenmaillara eldu nintzaneko, ego-eragiña lakoa somatu neban ondoan, arpegia zaflatzen eustana, esanez: «Beati pacifici» (zoriontsuak bake-zaleak), asarre deungetik aske dagozanak!».

Orduko gure gaiñ, goi-goi, egozan gau aurreko azken-erraiñuak, eta izarrak agertzen alde guztietan.

—O ene soin-adore! , zergaitik izten nozu onela? —niñoan neure kolkorako, neure bernen sendotasuna aulduz joi-ala ikusirik.

Zurubia amaitzen zan unean gengoan; geldi bertan, ondartzara eldu dan ontzia lez. Luzatu neban belarria pizkat obo barrian zaratarik aditzen ete zan, eta ondoren maisuagana itzuliz esan neutson: «Ene aita kutun: esaidazu, ze txarkeriz garbitzen diran arimak gagozan obo onetan. Oiñak geldi dagozala be, ez beitez zure itzak geldirik egon».

Jardetsi eustan:

—Bear baiño beerago geratu dan onaren maitasuna, emen barrizatu oi da; emen bir-egiten da arraun nagia. Argiago ulertu daizun oindiño, adi zagokidaz dirautzudana artzeko, ta luzatze ontatik frutu onik jasoko dozu arean. Ez egillea ez egiña —jarraítu eban— etziran egundo egon> ene seme, berezko edo errazoizko maitasun barik; zuk ba-dakizu au. Okerrik eza dozu beti berezkoa, baiña uts-egin daike besteak, bere jomuga txarra dalako naiz oldar, bizitasun geiegizko naiz urriegizko dalako. Leenengoa ondo zuzendua ba'da, bigarrena berez joan oi da zuzen, maitasunaren errazoi ezin daiteke gaizki izan; txarto zuzendua danean, alan be, edo arreta gitxiz naiz bear leuken baiño nagiago jo onaren atzetik, egiña egillearen aurka biurtu oi jatzu. Emetik atera zeinke maitasuna dala zuengan birtute guztiren azi ta, era berean, zigorgarri litzateke egintza ororena. Maitasunak, orraitino, inoiz be bere sorburu danaren zoriona opa ez ezatea izan ezin daikenez, nobere gorrototik aske dagoz gauza guztiak; eta ulertu ezin daikangun lez, inor izan daikenilc berez, asiera dan Izakiz bananduta, inor orri gorroto izatea eziña jako edozein sentimenturi. Ortaz, ondo bereizi ba'dot orain arte, ez da beste gaitzik maitatzen urko-lagunarena baiño; eta maitasun ori iru eratarata emeten munduko basatzen. Batzuk, euren urko-laguna aurretik kendu ezker, goratuko dirala uste dabe, ta auxegaitik soil-soilki gura da, a bere gaindegitik suntsitzea. Baita ba-dira beste batzuk, euren al-izatea, grazia, dedua ta entzutea, bestea jaso ezker, gaJduko dabezala-ta bildurrez bizi diranak, onek atsekabe ta tristura izugarria sartzen dautsoela. Ba-dagoz txarkeriagaitik sumintzen diranak be, apen-guraz beterik, urkoaren ondamentia besterik nai ez dabenak. Iru eratako maitasun auxe da beeko egoitzetan zigortzen dana; ta orain beste zerbaitez jakitun ipiñi nai zaitut, munduak jentea lizunkoi erakarri daroana. Bakotxak gauza on bat bururatu oi dau naas-maas, Arimeari ori atsegingarri jako ta irrikatzen; onek eta arek alegiñak egiñik berau lortu nairik. Maitasuna belukor ta illa ba'da on ortara zuzentzeko, toki onetan damutu arren zigorra

jasaten. Beste on bat be ba-dago gizona zoriontsu egiten ez dauana; ez da zoriona, ez dauko usainki onik, on guztiaren frutu ta sustrai dank. Ortara emon maitasum gure gain dagozan iru egoitzetan zígortzen; baiña modua, errazoiztuta, irutan banatzen; au neuretzat nriken dot, zeuk biliatu daizun.

(1) Filomene, Irsis Teseu'ren semea il ebalako, uvretxindor biurtua izan zan.

(2) Labiñe, Latin erregearen ajaba; onen ama Amate'k, asarre-aldi batean, bere burua il eban.

## XVIII KANTUA

Muiña.—*Dante'ren eskariz, Bergili'k maitasunaren zer-izana azaltzen; baita arimeak zelan errazoiz eta aukeramenez ezi ta gaillendu bear ditun bere griñak, irritsak.—Bizkor dator olerkariengana nagikeritik garbitzen dagoan arima moltzo bat, eta euron aurretik doazan bik pekatu orren aurkako birtutearen eredu batzuk dakarrez gogora.—Eskala'ko Alberto'ri iragarria.—Nagikeriaren ondoren izugarviak.—Loak artuta geratzen da Dante.*

Emon eutsan azkena bere errazoiketari irakasle gurenak, eta so egistan adi-adi begietara pozik nengoanentz jakin gurarik; ni, egarri barriak oindiño be kiñatzen ninduan arren, ixillik nengoan itxura baten; barruz, ostera, niñoan: «Gogaikerri jakoz bear bada dagitsodazan itaun geiegiak». Aita egiti arek, baiña, itzez agertzen etzan nai bildurkorraz konaturirik, itz-egiteke adorea sortuz, esan neutson:

—Irakasle, ikusmena bizi-bizi jarri bait jat zure argiaz, argi dakust orain zuk errazoika margoztu naiz azaldua; ori-

xegaitik eskatzen dautzut, aíta on laztan, azaldu daistazula zer dan maitasun ori, zuk egite on, ta aurkako guztiak, ortxe bildu ta mugatzen dozuzan ezkeru.

—Zuzen neugana —ots-egin eban— zeure adimenaren argi mee-zorrotzak, eta laster ikusiko dozu zelako bide okerez dabilzan enparauen zuzendari egiten diran itsuak. Maitasunerako sortua izan dan arimea, laket jakon guztira doa ortik datorkion atsegiñak buhz-eraginda bere burua íkustean. Zure armenak egitasunaren iduria artu daroa ta zeuen barruan íraulí ta zabal-erazo, arimea adi baldin ba'dago; ta ori egítean emona ba'da, emote ori maitasuna dozu, berezko joera nunbait zeuon barruan oar-artutako atsegiñetik ernea, Ondoren, berez-berez gorantza zuzentzen dan sua \* lez, zuen izatea igoteko egiña bait da, bere gaia iraunez obeto aurkitzen dan lekura igoteko ain zuzen; orrela arimea, maite-ariz katigu, espirítuzko zirkiña dan gurariaren eskutan jarten da, ta egundo ez dau atsedetik aurkitzen maite dauan zeraz gozartu arte. Orain ulertuko dozu egia zelan ezkutuan jarten jaken maitasun oro beregan txalogarri dala diñoenai, uste dabelako bear bada maitasunaren gaia ona dala beti; ikurraz oro, alan be, ezta ona, iruditzen dan argizaia ona izanik be.

—Zure itzak eta nire adikune zorrotzak —erantzun neutson— maitasunaren guna agirian jarri dauste; orrek, baiña, duda geiagoz josi nau, maitasuna bada kanpotiko gauzetatik ba'dator eta arímeak beste era batez ezin ba'dau jokatu, zuzen naiz oker joatea ez da bere irabazia.

Arek jarki eustan:

—Nik esan dagiketzut errazoiak ikus al dauana; gaiñerantzean, itxaron Zorione'ri, fedearen auzia da-ta. Gaiez bes-telakoa dan era beragaz alkaturik dagoan izan guztik indar berarizko bat dauka beregan; au ezta egikera ezik sentitzen, ezta agertzen be egundo bere ondorenetan ezpada, landaren bizia dan orrien berdetasuna lez. Gizonak orixegaitik ez daki nundik datorkion lendabiziko argibideen ezagutzea ta opa dabezan leen-gauzekanako lera; oneik bait dagoz zue-

kan erleetan ezta egiteko joera lez, eta leen-gurari oneitan ez dago ziorik ez goralmenerako ez iraiñerako. Baiña gurari oneikaz beste guztiak tajuz atontzen diran ezker, berezkoa dozue onesgoaren ataria aolkatu ta jagoten dauan birtutea. Emetik jagiten jatzue irabazi-errazoa, maitasun onak edo txarrak onartu edo oildu ta asagotzean. Ausnarka ta gogoketaz, gauzen guneraiño eldu ziranak, konturatu ziran bai, berekiko askatasun onezaz; munduari orixegaitik itxi eutsoezan oiturazko irakatsiak. Labur, zuen barruan ixiotzen dan edozein maitasun erne bear dauala onarturik, zeuengan dago beroni eusteko ala ta indarra. Birtute guren au da Zorione'k aukeramena deritxona. Eta gogoan izan bear dozu ortaz mintzatzan ba'jatzu be.

Ia gaberdirarte belutu eban ilargiak, bakanago irudi-azten euskuzan izarrak, sua erion maskelu bat lez agertzen zala; erromarak Zerdefía ta Kortzega tartean jausten ikusten dauan eguzkiak goritzen ditun bideak zear zeruan dabiLleanean ain zuzen. Pietola, beste mantuar uriakaitik baiño geiago izentatua dan itzal sotal a, nire itaunen sortaz arindua zan orjezkero, nik bada, eurai erantzunik, errazoi argi ta lauak artu nituan dagoneko, eta lo-gutaz aratonat dabillan gizonaren antzera nengoan. Bertatik uxatu euskun, baiña, lo-gureá atzean urreratuz etorkigun jenteak. Ismeno'k eta Asopo'k gabaz ikusi oi ebezan lez, euren ur-ondoetan zear, lagun-talde suminduak urruri ta zarrapastaka bizkor, tebatarrak Bakoren laguntza bear ebenean; orrelaxe, inguru areitatik, ikus al izan nebanez, arin etozan guganantz nai onak eta maitasun zuzenak akulutako arimak. Laster alkartu ziran gugaz, ariñeketan bait etorren samalda aundi a, ta buru joiazan bik oiue egien negarrez:

—Mari mendi-aldera joan zan arin-arin; eta Kaísar'ek, Ilerdá azpiratzeko, Marsella ikutu ta gero Espaiña'ra joan abian.

—Arin! Arin! Ez bedi aldia gal maitasun urriz —garaxika iñoen besteak atzean—; gure on-egite gogoak ezetu bei Jainko-grazia.

—O jente, bear bada barruko gar urduri batele kitutu leikezuez epelkeriz on-egiteari ekin ez zeuntsoen itxitasuna zein geroratzea! Oraindik bizi dan onek, eta ez zaituet ziur atzipetzen, gora joan nai dau eguzkiak dizdiz dagienekoxe; orixegaitik esaiguzue, otoi, nun dagoan urren urteiere.

Oneik izan ziran nire zuzendariak oguzitako itzak; eta espiritu areitatik batek esan eban:

—Zatoze geure atzetik, eta aurkituko dozue igarobidea. Gu ibilleiaz aserik bait gagoz, ezin geintekoz gelditu; askets, ba, moldagaitza ba'deritxazue guk bete daroagun zuzentasuna. Ni Berona'ko Zenon Deunarenean apaiz-buru Ízan nintzan, Bizargorri onaren agintaritzapean, naiz-ta Milan'ek oin-diño samin gogoratu aren gomuta. Bada norbait oi bat dago-neko obian daukana, ta Iaster monastegi a dalata negar egin eta ango nagusi izanaz damutuko dana; bere semea ípiñi dau, ba, bertan egiazko artzaiñaren orde, gorputzez erkin eta arimaz erkiñago.

Ez dakit geiago esan ala ixillera zan, gugandik urrun samar joian eta. Itzok, orraitíño, entzun neutsozan eta eder izan jatan eurok, gogoan artzea. Ta arek uneoro babesten nauanak esan eban:

—Itzul zaitetz onantza ta ikus orreik, nagikeriari aginka dagozan bíok.

Besteen atzetik joiazan joan be, iñoelarik:

—Jentea illa izan zan edegi zan itxasoaren aurrean, Jordan'en bere oiñordekoak ikusi aurretik. Eta Ankise'ren semearen neke-leietan azkenerarte partekide izan etzan arek, berez eskiñi eban burua aintzarik bako bizta egitera.

Ostean, itzal arek, guk ezin ikusteraiño urrin aurkitzen zirala, beste pentsamentu barri batek dardaratu nindun, beste batzuk be bertotik erneaz; eta batetik bestera ibilli ta ibilli, begiak ortaz itxi jatazan, gogaia be lo biurtuz,

(1) Antxiña uste zanez, sua bere goiko borobllera igoten zan, eguratsaren astuntasuna ez bait eben ezagutzen.

(2) Pietola, mantuar auzune bat, Bergiliven asterria.

## XIX KANTUA

Muiña.—*Emen edesten da Dante'ren ames-bitarteko ikuskizun ezkututsua.—Bostgarren ingurura igoten dira olerkariak.—Negar dagie emen zekenen arimak, lurrean luze, arpegiak beera itzulita.—Adrian V'garrena aurkitzen dabe, Fieschi etxekoa. Dante'k dagitsozan itaunai erantzuten dautse.*

Alako ordua zan, egunaren beroak lurrak joa ta bear bada Saturno'k eratxia, illargiaren otza onezkero epel-arindu ezin dauanekoa; lur-aztruak euren zorion eta alabear nagusia, goiz-nabar aurretik, sortaldean dakusenean, laster illun izango ez dan bidetik jagiz, emakume min-lotu ta tartalo bat agertu jatan amesetan, begi-ezkel ta oin-oker, esku-motz eta kolorga. Ari begiratzen neutson nik; eta eguzkiak, gabeko otzak kikilduriko soin-atalak indar-azten dituan lez, olantxe nire begituak askatzen eutson miiña, ta gero txakada baten arteztu eban bere gorputza, arpegi makar mirriak ondoren koloreturik dana maitasunak nai izaten dauanez. Izketan asi zanezkoxe, kantari geunkan oso, nik neure adia aregandík nekez urrintzeko moduan. «Ni naz —iñoan abeska—, ni naz maitagarri ezti, itxastarrak ur zabalean zorazasten dítudana. Aundia da, izan be, niri entzuteak dakarren atsegiña! Neuk alderatu neban Ulises bere bide ez-ziurrean, neure kantuz; eta niri itsatsi dakidana nekez doa aurrera. Olaxe bai darakart! ».

Oindiño itxi barik eukan aoa, ari lotsa emoteko gertu egoan emakume on bat alboan gertu jatanean. «O Bergili! Bergili! Nor da emakume au?», iñoan arroputz, eta onantza etorren begiak emakume begi-gorde \* arengan bakarrik josita. Oratu eutson besteari, ta aurrekaldetik edegi eutsozan jantziak urraturik, aren erraiak erakusten eustazala: arek emostan kiratsak esnatu nindun. Zabaldu nitun begiak eta maisu ona ikusi neban, ziraustala: «Iru bider beintzat dei egin dautzut! Jagi zaitetz eta zatoz! Aurkituko dogu, ba, zu sartzeko ataka».



Jagi nintzan, eta orduko argiz beterik egozan mendi santuko inguru guztiak; eta genbiltzalarik, sorbaldan eraoten euskun eguzki barriak. Ari jarraituz, bekokia neroian makur pentsamentuz astun daukanaren antzera, zubi-uztai erdia lez beregan eginda, au entzun nebanean: «Zatoze; emetik igaroten da», era ezti txeratsuz esana berau, mundu ilkor onetan entzun oi ez dan bezeJa. Beltxarga edo kisnerenak zirudien egoak zabal, itz egin euskunak gorantz zuzendu giriduzan aitz-arte lodiaren orma bien artetik. Gero lumai eragin eutsen ni aizatzeke, ta zoriotsu dirala *qui lugent* (negar dagienak) autortuz; olakoen arimak, ziur asko, poztuak izango bait dira.

«Zer daukazu, lurrera bakarrik begiratzen dozu-ta?», asi jatan gidaria, aingeruak itxi ginduzaneko. Eta hik erantzun: «Indar biziz narakarren ikuskari barri batek ezpai ta dudaz beterik nauko, atatik neure gogaia aldendu ezin bestean euki be». «Antxiñako sorgin a<sup>2</sup> ikusi zenduan —bota eustan—, gure gaineko inguruetan negar dagienak aren erruz soil-soil intziri utsean bait dagoz; ikusi zenduan, baita, gizona zelan lokatzen dan aregandik. Naiko bekizu, ta zoaz aurrera zart edo zalapart; betiereko erregeak ardatz-gain darabiltzan ortzi-borobillen deira itzul zeure begiak».

Mirotz arrapakiria, lenen bere zangoetara begiratu, gero zaindariaren deira irauli ta azkenik tiratzen dautson arrapakiñaren irrutsak eraginda ara doan lez, orrelaxe egin neban nik be, ta arkatxean agindako bídetik, gora doanari leku egiteko, inguru edo obo barria asten zan lekuraiño ibilli nintzan. Bostgarren bira onetan aurkitu nintzanean, arimak ikusi nitun an lurreean etzunik negar egiten ebenak, aoz bera. «Adhaesit pavimento anima mea», entzuten neutsen zizpuru biziz, ozt-oztan entzutun ziran berbaz esaten. «O Jainkoaren autak, zuzentasunak eta itxaropenak zigor-ezago egiten bait dautzuez neke-miñak!, zuzen gaizuez goiko egoitzetara». «Emen ez kokatzeko segurantzaz ba'zatoze ta bidea arin aurkttu nai ba\*dozue, jo beti eskumara, kanpoko er-tzetik».

Olan otoiztu eban olerkariak eta olantxe erantzuna izan zan gure deía gu baiño zerbait aurreragotxorik; eta nik aren mintzoan ikusi naban lez gordeirik egoan zerbait, neure jaunaren begietara biurtu nebazan neureak, eta onek kiñu atsegin-tsuz erantzun eutson nire gurariak nai ebanari. Neure naierara jokatzeko aske nintzan ezkerro, oargarri izan jatazan itzak ebagi zituan gizaki arengana urreratu nintzan, onan esanez:

—Negar-ziffuka garbi-azten zarean espiritu ori, ta orrella ezik Jainkoaganaiño igon ezin dozuna, eten pizkat, neugaitik, zeure ardura nausia. Esaidazu nor izan zintzazan, eta zergaitik daukazuzan sorbaldak gorantz itzuliak, eta nai ete dozun nik zuretzat eskatzea, an bizirik urten neban tokian.

Ak erantzun eustan:

—Jakingo dozu, bai, zeruak zergaitik nai dauan gure sorbaldak arantz begira egotea; baiña lenen «scias quod ego fui successor Petri» (jakizu ni Kepa ren ondokoa izan nintzala). Ibai txairo bat doa Sesti ta Chiavari tartean, eta aren izenetik datorkit niri leiñu-titulua<sup>3</sup>. Illabete ta geiagoz ikusi neban nik, astun dala txabux aundia, loitik gordetan daunarentzat, Iumak bai dirudie beste karga guztiak. Nire bide onera biurtzea, ai ene!, berandukoa izan zan; baiña erromar artzain bilakatu nintzanean, ordun argitan jarri jatan biziaren iruzurra, An ikusineban biotza etzala baketzen, bizitza atan ezin leitekela gorago igon; onen maitasunez, ba, griñatu jatan biotza. Arima errukarri bat izan nintzan ordurarte, Jainkoagandik aldendua, diru-gosez betea; orixegaitik naz orain, ikusten dozunez, zigortua emen. Zekenkeririk dagiana emen txautzen, arima onbideratuen garbiketa bereziz, eta mendi onetan ez dago au baiffo oiñaze garratza-gorik. Gure begiok, beeko gauzai lotuegi, gorantz zuzendu etziranez, zuzentasunak orain untzaturik daukaz emen lurrean. On guztiri buruzko gure maitasuna zekenkeriak itzungi eban lez, ortik galdu ziran gure egiteak eta zuzentasunak gaukaz emen menderaturik, oin eta esku atxilo loturik; eta Jaun zuzenak nai dauan beste denporan emen egongo gara, igige ta etzunik.

Ni belauniko nengoan, eta itz-egin nai neutson; baiña astera ninoiala, a konturatu zan, niri entzutez, ni zelan nengokion apal-apal. «Zer dala-ta —esan eustan— makurtzen zara orrela?» Eta nik erantzun: «Zeure aunditasunagaitik, neure barruak ez daust izten zutik egoten. «Artez iztazurrak, eta jagi zaitez, anai —erantzun eustan—; ez eizu uts-egin: morroi bat nozu, zu ta besteak lez, aginpide bat-bakarrarenak. Iñoiz irakurri izan ba'dozuz Barri Oneko itz santu areik, *neque nubent* diñoenak, laster ulertu zeinke zergaituk nabillen onela. Zoaz onezkerok; ez dot gura geiago luzatu daikezuník, zure egonak ba eten egiten dau zuk esan zenduan elbururako garbitzen nauan negarra. Loba bat daukat an Alagia<sup>4</sup> deritxona, berez ona, gure etxeak gaiztotu ez ba<sup>1</sup> dau bere erakutsi txarrez; eta bera bakarrik da an geratzen jatana».

- (1) Zuurtasuna.
- (2) Lur-atsegiña, mundua baizen zaarra.
- (3) Lavagna, Adrian V'garreneran abizena.
- (4) Markel MalaspinaVen emaztea.

## XX KANTUA

Muiña.—*Bostgarren ingurua: zikoizkeria ta bonbonkeria.—Txiroak ela esku-zabalak.—Hugo Kapeto.—Kapetotarrak, diru-gose zakarraren eredu.—Mendia dardaraz.*

Naiak txarto burrukán dagi nai obeago baten aurka; ortik, arima ari poz emotearren neure atsegiñari gogor egiñez, belakia asetu barik atera neban uretatik. Ibilten asi nintzan, eta nire zaindaria arkaitz aundiaren aldatz gora eroian une zakarretik zear abiatu zan, arresi bati dautson ormatik joan oi danez, mundua asetzen dauan gatxa, begietatik, tantakantaka erioen arimak, ba, geiegi urreratzen ziran kanpo-

aldera. Gaiztetsia zu, otseme<sup>1</sup> zaar! , zeufe gose bizi asegaitez beste basapizti guztiak baiño arrapakin geiago egiten dituzuna! O zeruak, zeuon goraberetan daukiez, antza danez, munduko gauzalc euren zer-izate ta aldakuntzak! Noiz etorriko ete otseme au uxatuko dauana?

Ba-giñoiazan urrats geldi ta tartekatuz; eta nik, negarintzirilca nentzuzan itzalai adi-adi, au bear bada aditu neutzun esaten: «Miren gozo! », geure aurrean, erdi-zori dagoan emakume baten antzeko abots mingarriaz; beíngoan jarraituz: «Beartsua izan ziñan, bai, zuk argitara ekarri frutua jaio zan txabola arek erakusten dauskunez». Ondoren belarrietara jatan: «Fabrizio on ori, munduan griña txarréz josisia ondasun aundiak euki baiño, txirotasuna naiago izan zenduna». Itzok gozo jatazan guztiz, eta aurreratu egin nintzan, eurok esaten ebazan espiritúa ezagutu nairik. Arek orain Nikolas'en esku-zabaltasuna goraltzen ztarduan, neskatxakaz erakutsitakoa nunbait, arein gaztetasuna garbi-bidetik zuzentzearren, ain zuzen.

—O arima, ain ederto berba dagízuna! Esaidazu nor izan ziñan —ítandu neutsan—, eta zergaitik zeuk bakarrik errepikatzen dozuzan itz duiñolc. Zure berbok ez dira sari barik geldituko, mundura biurtzen baldin ba'naz bere azkennerantza egaz dagian bizi aren epe laburra beteteko.

—Esango dautzut —erantzun eustan—, ez andik etorri leikedan gozotasunagaitik, zugan il aurretik be ainbeste grazik dirdir dagialako baiño. Neu. izan nintzan gaur kristiffau lur guztiafen gaiñ geriza ain galgarria egiten dauan landara gaiztoaren sustraia, ta frutu onik ia bat be beretik ez dardarra. Baiña, Lila, Gante ta Brugia\*k al ba'lebe, laster artuko leukie apen-ordaiña, ta olan eskatzen dautsat nik dana epaitu daroan Ari. Hugo Kapeto deitua izan nintzan; neure jatorrikoak dira Felípe'tarrak eta Luis'tarrak, azken urteotan Frantzia zuzendu dabenak. Paris'eko arakin baten semea izan nintzan. AnLxiñako erregeak itzalí ziranean danak, bat ezik, zapi urdin-arrez jantzita, eskuetara etorri jatazan erreíñuko edeak, ots, zuzendaritza; olan aginpide in-

dartsuz ta adiskide askoz inguruturik aurkitu nintzan lez, koroï alarguna neure semearen buru-gaiñ jarria izan zan, errege barrien etorki sagaratua onengan asirik. Probentza'ko ondasun aundiak, nire odolekoai lotsaria kendu eutsen artean, ez eben askorik balio izan, baiña kalterik be ez eben egin beintzat; antxe asi ziran, orraitino, gogorkerik eta guzurrez euren lapurretak, eta gero, kitugaarri lez, Ponthieu, Normandi ta Gaskuña artu zítuan. Kaslos Itali'ra etorri zan eta ordain-sariz Konradin opari egin eban, eta gero zerrura bialdu eban Tomas, zor-ordaintzat au bere. Aldi bat dakust, ez urrin gero, beste Karlos bat dakarrena Frantzia'tik at, obeto erakuts-azteko bere buruari ta beretarrai. Iskillu barik dator, Judas'ek erabilli eban lantzaz bakar-bakarrrik, baiña trebe darabil Florenzia'ri sabela ustu-azteko moduan. An ez dau lurrik lortuko, pekatua ta lotsea baiño, zenbat eta ariñagoa iruditu alako galtea beretzat gauza astunagoa. Ontzitik katigu urtena zan bestea, bere alabea saltzen ikusten dot, salneurria gangaillenez egiñik, izlapurrak euren neskatx jopuakaz oi dabenez. O zikoizkeri! Zer geiagoe egin daikeguzu, neure odolekoak be zeure-zeure egin ba'dituzu, euren aragiaz ez arduratzeraino? Eta kalte egiña ta egitekoa itxuraz txikiagoa izan daiten, Anagni'n sartzen ikusten dot lis-lorea ta Kristo beronen ordezkarian atxillo egiten, ikusi daroak au bein ta barriz ixekatua, ozpiña ta beartzuna bein ta barriz emoten ikusten dot, eta lapnr biren erdian ilten. Anker dakust Pilato barria<sup>2</sup>, onek asezten ez dauana, ta epai barik jauretxera daroa bere zikoizkeria. O ene Jauna! Noiz ikusi al izango dot nik, zure sumiñaren ezkutua gozo biurtu oi dauan zigor ezkutua? Espiritu Santuaren Emazte bakar aretaz nik esaten nebana, ta azalpen billa nigana itzul-azo zinduzana, gure eskari guztiena egunak dirauño, baiña gautzen dauanean aurkako ereduak ekarten doguz. Pigmalion<sup>3</sup> dakargu gogora órduan, bere urregarri ase-eziñak azpi-suge, Inpur eta aita-iltzaille egin ebana; ta Mida zekenaren zoritxarra, bere eskari iresleari jarraitu eutsona, beti be ixeka-bide dana. Gero Akan zoroaz gogoratu giñan, eta bere ondaki-lapurreriaz, eta ementxe be

Josue'ren asarrea atzetik dabilkiola dirudi. Ondoren Safira salatu gendun, eta beronen senarra; goretsi genduzan Eliodoro ezetsi eben oiñak, eta mendi guztiari bira dagitso Polidoro<sup>4</sup> il eban Polinestor'en geren txarrak. Azkenez, oíu: «Kraso!<sup>5</sup> Esaiguzu dakizuna; ze gustu dauko urreak? Onek itz dagigu batzutan abots zoli ta arek abots apal, zelako adoreak daragiskun, indar geíagoz edo gitxiagoz; beste aldetik ez nintzan ni bakarrik, egun bitarteko jardunean, eredu onek gogorutzen genduzanen artekoa, emen urrean beste iñoren abotsik jasoten etzan arren.

Espiritu agandik urrun dagoneko, aal giñoan bidean aurrrera egiten alegintzen giñan; alako baten, zer-edo-zer lurrean suntsitzen danean lez, mendía ikaraz egoala oartu nintzan, eta otzikarak artu, iltera doana artu oi dauan lakoxeak. Egi-egiaz Delos etzan ain bortitz dardaratu, Latona'k, zeruko begi biak ekarteko bere abia antxe egokitu aurretík. Gero mendiaren inguru osoak oiuegin eban, garraxi ikaragarriz; eta maisua itzuli jatan, esanez:

—Ez ikaratu ni aurrelari nozun artean.

«Gloria in excelsis Deo» (aintza zeruetan Jainkoari) iñoen danak, ur neukazanetatik ulertu al izan nebanez, onein garraxia entzuteko beste bait nintzan. Arriturik geldi geratu giñan, kantu a lenengoz entzun eben artzaiñak lez, dardarea ta ereserkia amaitu arte. Barriro asi genduan gero geure bide santuaren ekiña, onezkero euren oituzko negarrrera itzulirik lurrean zetzen itzalai begira. Ez-jakiñak ez nau egundo jakin-min biziagoz zirikatu, nire gomutamena oker ez ba'doa, orduan zirikatu ninduan lez, jazotakoa gogora ekarriaz; eta, estu giñoizalako, ez nintzan ausartu itanduten, eta neurez be ezin neban ezertxo ulertu. Pentsati ta arpegi bako niñoian, beraz.

(1) Zikoizkeria.

(2) Frantzia'ko Felipe Ederra.

(3) Tiro'kok, bere osaba il eban, onen diruaz jabetzeko.

(4) Polínestor, Trazia'ko erregeak, Polidoo il eban. Troia'ko ondasunak eskuratzeko.

(5) Mako Kraso, erromar senatorea, oso abesatsa ta zekena.

## XXI KANTUA

Muiña.—*Bostgarren ingurua: zurkeria ta esku-zabaltasuna.*—*Lur-ikararen zergaitia.*—*Estazi ta Bergili.*

Berezko egarriak, samaritar gazteak eskér lez eskatu eban uragaz baiño egundo asetzen ez danak, oiñazetzen ninduan eta neure zuzendariaren atzetik óztopoz jositako bidean zear joateko leiak akulatzen, eta penagarri jatazan zigor areik, bidezkoák ziran arren. Eta ona, Luka'k idazten dauanez, Kristo agertzen bidez joiazan gizon biri, illobitik urtenda; orrelaxe agertu jakun guri be itzal bat, atzetik etorkiguna, guk-geure oiñetan etzunik egozan aremai begiratzan geuntsela, gu ez gintzazan oindiño aregaz konturatu, ta mintzatu jakun, esanez:

—Ene anaiok, bakea emon daizuela Jainkoak!

Atzerantz biurtu giñan abazurian, eta Bergeli'k ari egokion txera-agurra biurtu eutson. Ondoren esan eban:

—Bakez ar zaizela egiaren auzitegian, batzar zorionsuan, ni betiko mundu barrenera zokoratzen nauanak!

—Zelan! —ots espirituak, gu azkar giñoazan bitartean—. Jainkoak an goian. artzeko duin etzarien gerizak izanik, nok zuzendu zaitue bere maiJladitik?

Eta nire maisuak erantzun eban:

—Onek, aingeruak marraztuta, ezaugarriak ikusi ba'dagizuz, laster ikusiko dozu egoki jatala onakaz atsegin izatea; baiña arek, gau ta egun ariltzen dauanak, oindiño amaitu barik eukan lez egokidan aldazkadea, ta Kloto'k<sup>!</sup> bakotxari gertatu ta ezarri oi dautson. arimea, zure ta nirearan aizta, ona gora etortean, ezin leiteke bakarrik etorri, ez bait dau ikusten ezta bere burua gure antzera zuzendu be, ta ni atera ninduan infemuko zmtzur zabalabaiño aruntzagotik oni bidea erakutsi nengion, eta nire errazotak zuzen-azo daiken lekuraiño eroango dot. Baiña esáidazu, jakin ba'dakizu beiñik-bein, mendiak zergaitik

jasan zituan alako astiñaldiak, eta zergaitik bervako sustrai ezeetaraiño, antza, deadar egien batera arima guztiak?

Au entzunik, osoro emon eban Bergilík nik gura nebaren orratzean, eta itxaropenez bakarrik beteago sentidu neban neure egarria. A onela asi zan itzez:

—Mendi done onetan ez da ezer jazoten errazoi barik, edo-ta ekandutik kanpora. Edozein dardaratik aske dago leku au, ezta ezin daiteke etorri zuzenean zerutik, ez beste ezertik, izan ezik. Ez euririk, ez txingorrik, ez edurrik, ez aintzigarrik, ez iruntzik ez da jausten iru mailla txikiko atea baiño aruntzago. Ez da agertzen odei lodirik ez meazturik, ez da ikusten tximistarik, ez Taumante'ren alabarik<sup>2</sup>, an beean sarri toklz be aldatzen danez. Ez dago aizerik puzka aitatu dodan, eta Kepa'ren ordezkioak bere oiñak jarten dabean, iru mailla areik baiño gorago jagiten danik. An beean dardar-ikara izango da, gitxi-asko; baiño lur-gaiñ edo azpi gordeten dan aizeagaitik, emen ez dago egundo be dardakarik. Mendiak dardar dagi arimaren bat garbi ikusten danean, igoteko jagi ta zirkin egítean, eta orduan entzun zenduen deadar a joako atzetik. Naia dozu garbikuntzaren ezaugarri, arimeari, aske dagoneko, tokiz aldatzera daragio arek, bere gurarian indar emonaz. Lendik be ba-eban gutari ori; Jainko-zuzenbideak, baiña, bere borondate gaiñ, oiña-zean jarri azoten dautso pekatuan ipiñi ebari beste joranger. Eta nik, atsekabe ontan bosteun urtetatik gora egon nazan onek, oraiñarte ez dot borondatea aske euki toki oba batera aldatu al izateko; orixegairik entzun zenduen lur-ikararen durundia ta espirituak ikusi zenduezan mendian zear Jaunaren goralpenak abesten, alik ariñen gora Bere ondora eroan egizan.

Orrela mintzatu zan, eta, egarria aundiago ta edatean geiago gozaten dan moduan, ez dot jakingo zelan adierazo orrek emon eustan poztasuna; nire maisu jakintsuak ari:

—Oraintxe kusten dot argi emen loturik zaukiezan sarea: zelan askatzen zarien agandik, mendiak zergaitik dagian dardar eta zer dala-ta pozten zarien. Jakin-azo eistazu



orain, ondo ba'deritxazu, nor izan zintzan, eta ainbesre gizalditan zetgaitik egon zarean etzunda: atera beite guzti auzare itzetatik.

—Aldi aretan, Tito onak, goiko Errege aundiaren laguntzaz eta babespean, Judas'ek saldu ebanaren odoletik urtetzan zaurien apena artu ebanean —erantzun eban espirituak—, an beean nengoan ni geien iraunik ospetsuena jatan izenaz, entzute aundikoa nintzan bai, baiña oraindik ez neukan federik. Alako gozoa bait zan nire mintzoa, tolosarra izanda be, beregana deitu nindun Erroma'k, eta bertan merezi izan neban neure adegi ta lo-gikzak mirtoz koroituak izatea. Oindiño be Estazi deitzen eustan an bizi zan jenteak; Tebas I eresi egin neutson, eta Akil aundiari gero, baiña bidean jausi nintzan bigarren zama neroiala<sup>3</sup>. Milletik gora ixetu izan dauzan jainkozko txinpartak izan ziran keraenari su emon eutsoenak, *Eneida*'z diñot, berau izan zan-eta nire ama ta nire iñude olerki-arloan; a barik ez neban burutu zuriko bat balio ebanik be. Bergili bizi izan zan beste an bizi izatearren, urte bete geiago erantziko neuskío toki onetan neure irautearen noizkoari.

Itzok entzutean nigana itzuli zan Bergili, «Zagoz ixillik» esan naika lez, begi-kiñuz; oro, alan be, ezin naiak; irribarrera ta negarra ur-samar dagoz sortzen diran griñatik, lauzintzoenetan naiari gitxien erantzunik; nik be olaxe irribarre egin neban alkar-aituzko kíñu dagienen antzera, augaitik edo ítzala ixillera zan, eta begietara begiratzen eustala, pentsamentua geienbat adierazten lekua begiak bait dituzu, esan eban:

—Ai, eroan al ba'zendu azkeneraiño zeure agintza goragarria! —esan eban—, zergaitik, baiña, zure arpegiak erakutsi daust orain irri-barrezko oiñestu ori?

Atxillo aurkitu nintzan orduan, alde batetik eta bestetik; batak itz-egiteko ta besteak ixillik egoteko; inkesa egin neban, beraz, eta nire maisuak ulertu.

—Ez izan bildurrik —bota eustan—; itz-egin eta erantzun egiozu ain setatsu itanduten dautzunari.

Nik, bada, erantzun:

—Zurtuko zara, bear bada, espiritu zaar ori, nik egiñiko irribarreez, baiña arrimen blziagoa sort-arazo nai dautzut. Nire begiak gora 2uzen-azten dabezan au, BergiLi dozu, zuk beragandik ikasi zenduan gizasemeen eta jainkoen egfntzak bertso gorenetan abesten. Nire irri-barreak beste zergaitiren bat eukaJa uste izan ba'dozu, uxa, zeugandik ori okertzat eta siñist eizu ari buruz zuk esan zenduzan ítzetatik etorrela bakar-bakarrik.

Makurtuz joian Estazi nire maisuazen belaunak besarkatzeko; onek alan be egotzi eutsan:

—Anai, ez olakorik; ítzala zara zu, beste itzal bat ikusten dozuna.

Arek jagiaz:

—Uler daikezu zuketz zenbateraiñoko maitasunak sutarazten daustan barrua, geure uskeria aaztu ta aantzitzean, itzal bat gorputz sendotzat arturik.

(1) Kloto, Parketatik bat.

(2) Taumate'ren aJaba, ots, ostarkua.

(3) Asmotan erabilen bigarren lan au egin barik il zan BergiLi.

## XXII KANTUA

Muiña.—*Seigarren inguruan.—Estazi'ren obena on biurtzen.—Liburuan datozan nor edo pertsona argiak.—Mizkeria zigortzen da seigarren inguru ontan; zugatz mistikua.—Neurriaren eduk.*

Gure atzean gelditua zan orduko aingerua; nire beko-kitik ezaugarri bat kendu ta seigarren ingurura zuzendu zan aingerua, ta zuzentasun-egarri diranak doatsuak dirala esan

euskuna; aren abotsak au esan euskun orraitino, «úúunt» itzaz, besterik gaiferatu bage. Ni aitz-ebagi atatik aurrekoetatik baño errezago nenbillen, eta bape neke barik jarraitzen neutsen espiritu bizkor arei gorantza. Ontan Bergili asi zan berbetan:

—Birtutetik ernetako maitasunak, beste maitasun bartzuk biztu-azo oi ditu beti, bere sugarra nabari ba'da beintzat. Juvenal \*, gure artean infernuko egoitzera jatsi zan ordutik, niri eustan zaletasuna erakutsi eustana nunbait, zugaranako nire ondo-naia oralndik ikusi ez dan pertsona bati buruz sentidu leikenik eta aundiena; orrelaxe da, ba, orain laburrak iruditzen jataz mailladi oneik. Baiña esaidazu, ta adiskideiez askets eidazu neure konfiantza geiegiak galgea askatzen ba'daust, eta adiskideiez erantzun eidazu: zekeneriak, zelan idoro al ízan eban tokia zure biotz barruan, zeure ikastez ainbeste jakituriz beteta zengozala?

Itzok lenengotan, barre eragin eutsoen Estazi'ri, ta gero erantzun eban:

—Zure itz guztiak maitasun-itzak jataz niri. Egl utsa da, gauzak agertzen dtra sarri zalantzazko guzur-antza emoten dabela, benetako errazoiak gorderik dagozalako. Zure itaunak erakusten daust zuk siñisten dozula ni beste bizitzan zikoitz izan nintzala, nengoan egoitzagaitik bear bada; baiña jakizu zikoizkeria urrun egon zala nigandik, urrun bai, ta kontrako geiegiokeri au zigortua izan zan millaka illabetetan. Eta nik osabide artzeco ardurarik jarri ez ba'neu, zuk, giza-izatearen aurka sumindua, idatzi zenduzan bertsuok: «Zuk, urre-gose done orrek, zergaitik jaurtzen dozu ilkorreh leia», irakurri ta ausnartu ez ba'nit, burruka latzen inguru atan egongo nintzan oindiñokarren. Orduan gogoratu nintzan, egoak geiegi edatzearren, eskuak parrastatu leikezala, ta artaz damutu nintzan beste gatxakaz ainbat. Zenbat berbítzuko litzakezan, ezjakiñez ule-moztuak, pekatik ikasiko ba'lebe bizítzan edo eriotzako orduan damu izaten! Jakiña da, pekaturen baten aurkako lez zuzenean sartzen dan errua, aregaz batera kitutu bear dala emen; baiña

ni, euren zekenkeriagaitik zigortuak diran arima arein artean anrkitu ba'naz, an aurkitzen nintzan areik egin ebenaren aurkakoa egin nebalako.

—Baiña zuk abestu zenduanean Yokasta'ren tristura bıkotxaren burruka izugarria<sup>2</sup> —esan eban «Unai-Kantak»-en abeslariak—, ez dot uste nik, orduan, an Klio'ri zuzendu zeuntsozan deadar-oiuen bidez, ez deritxat fededunen arteko ziñanik oindiño, ta fede barik ez da naiko on egitea. Eta orrela ba'da, ze eguzkik edo argik urtu eutzuzan zeunkazan illunpeak, arrantzalearen ntzetik zeure oial-ontzia eroateko?

Eta ak jardetsi:

—Zuk leenengo Pamaso'rantz bialdu ninduzun, ango leza-zuloetan edan nengian, eta gero argitu ninduzan egiazko Jainko ezagutzeko bidean jarririk. Gabaz dabillenen antzera egin zeustan: atzean daroazu argía, zuri argirik egiten ez dautzuna, baiña ondoren jarraika datozenak argitzen, esan zenduanean: «Mendea barriztuz doa; itzuliz dator zuzentasuna gizonaren leen-egunetara, ta etorki barri bat jasten zerutik». Zeugaitik izan nintzan olerkari, eta zeugaitik, kristotar; baiña margozten dodana obeto ikusi daizun, luzatu egingo dot berau kolore onez jazten. Egiazko siñiskeraz betebeterik egoan mundua, betidaiño erreñuaren mezulariak ereiña, ta gorago aitaturiko zure itzak bat etozan izlari barienakaz, beraz askotan joan oi nintzan eurak ikustera. Gerora santu-santuak iruditu jatazan areik, eta Domiziano'k jazarturik gorriak ikusi ebezanean, arein kexuak neure malkoz laguntzen saiatu nintzan, eta an egon nintzan bitartean babesti nitun, eta arein oitura ta ekandu onak beste edozein erlejiño arbuiatzera eroan ninduan. Nik neure bertsoakaz gerkarrik Tebas'ko ibaietara zuzendu aurretik, bateoa artu neban; bildurraren ezkutuko kristiñau izan nintzan, luzaro jentil artean bizi izanik, eta epelkeri onek lareun urte baiño geiagoz laugarren ingurua ibil-eragin eustan. Zuk, ba, esan dodan ona gordeten eustan zapia jaso dozun ezker, ta gora igoteko aldirik, geiegi be, ba-dogulako, esaidazu nun aurkitzen diran gure Terentzi zaarra, Zezili ta Plauto ta

Vari, ba'dakizu beintzat; esaidazu gaiztetsiak ditan ala ez, eta zein lekutan dagozan.

—Orreik, eta Persi, ta ni, ta beste asko —erantzun eban nire zuzendariak— musak beste iñor baiño geiago janaritu eben aregaz gagoz, presondegi itsuko<sup>3</sup> leenengo inguruan, eta sarritan da autu-gai gure iñudeen<sup>4</sup> bizitoki dan mendia. Gugaz dago Euripide, ta Antifonte, Simonide, Agaton eta beste gerkar batzuk euren bekokia ereiñotzez apainduta ikusi ebenak. An ikusten dira, zuk edestutako jenteetatik, Antigona, Deifila, Argia ta Iamene, eldu zan baizen goibel; beste a be ikusten da Langia'ko iturria erakutsi ebana, an dago Tiresia'ren alaba, ta Teti, ta Deidamia bere aitzakaz.

Olerkari biak ixildu ziran. Barriro adi ingurura begira, igotaidia ta ango ormatzarrak amaitu arte. Orduko atzera geratuak ziran egunaren neskatxetatik Iau ta bostgarrena endaitzari eutsola egoan, beti gorantz zuzendurik suzko burdia, nire aurrelariak esan ebanean:

—Egoki dogula, nik uste, geure eskoi-bizkarra ertzerantz biurtzea, egin oi dogunez mendiari bira emonik.

Olaxe oitura izan zan gure ikasbide, ta bidean zear abiatu gñan duda gitxiagoz, arima duin arek be onartu bait eban gure burubidea. Eurak aurretik joiazan, eta ni bakarrik, atzean, arein itzak entzuten, olerkiaren ulermena azaltzen eustenak asko be asko. Baiña bide erdian jarrugi gendun zugatz usain leun atseginrrízko sagarrez beteriko batek laster eten ebazan aren errazoiketa gozoak; eta txapíña adarrez adar gorantz doala estutzen dan legez orrela jazoten jakon ari beeko aldean, ara igoten iñor be azartu ez zedin, nik uste. Guri bidea izten euskun aldetik, arkaitz gafiétiak beera etorren goiko adarretatik zear edatzen zan íxurki garden bat.

Zugatzera urreratu ziran olarkari biak, eta abots batek ostu artetik oiú: «Garestia da frutu au». Eta ondoren berberak: «Gaur zuentzat otoi dagian Maria'k bere aoaz batño ardura geiago erabilli eban ezteguak izan zeitezán deduzkoak eta beteak; eta antxiñako erromar emakumeak edateko ura erabilli oi eben; eta Daniel'ek muzin egin eutson

jatekoari, jakituria itabaziz. Lenengoan, urrea baizen eder izan ziran ezkurak, gosez janda, ta nektar izan zan, egarriaz, edozein erreka. Eztia ta matxin-saltariak izan ziran Bateatzaillea eremuan elikatu ebenak; orixegaitik izan zan aintzatsu ta aundi Ebanjelioak azaJtzen dauskunez.

- (1) **Juvenal, Estazi'ren garaikoa zan.**
- (2) **Yokasta'ko semeak ziran anai etsai biren arteko burruka latza, Esrazi'k abestu eban Tebaida lanean.**
- (3) **Ltnbua.**
- (4) **Musak.**
- (5) **Antigone ta Ismene, Edipu'ren alabak.**

### XXIII KANTUA

Muiña.—*Seigarren ingurua: jatunkeria.—Saloberien itxura.—Forese Donati ta beronen emaitte Nella.—Itz zorrotz eta rraunak, florentziar emakumeen aurka.*

Neure begiak osto berdeari josita neukazala, txori baten atzetik beta galdu nai dauanaren antzera, niretzat aita baiño geiago danak, esan eustan:

—Seme, zatoz bizkor, emotan jakun aldia obeto erabil bear dogu-ta.

Beingo-beingoan, biurtu neban burua, ta bertatik zuzendu nebazan neure urratsak jakintsuengana; bikain itz egien oneik, eta euroi entzuteak ez eustan ezertariko nekerik ekarten. Ontan au aditu zan negarrez abesten; «Labia mea, Domine», alako gozotasunaz, nigan batera poza ta atsekabea jagi-azorik.

—O aita laztan! , zer da entzuten dodana? —asi nintzan esaten.

Eta berak niri:

—Joan doazan itzalak dozuz, euren zorren biatxiña askatuz bear bada.

Pentsakor dabilizan erromesak, jente ezezaguna bidean aurkitzerakoan, gelditu barik eurakana burua biurtu oi dabenez, orrelaxe etorren gure atzetik ariñago etorrela, ta aurrea artu euskunean guri, arriturik lez begiratzten euskun, arima-talde ixil-eraspentsu bat. Euretariako bakotxak argige ta sarturik eukazan begiak, laru betartea, makar eta elbitz, azurrak narru-itxurea artuz. Ez dot uste Erisikton, barauaren barauz, bere unerik gorenenean be, ain igar aurkituko zanik. Nik esaten neban neure kautan: «Ona emen Jerusalem galdu eban jentea, Maria'k bere seme iruntsi ebanean». Arein begien zuloak erestunak zirudfen arri-pitxi barik; gizonaren arpegian «omo» (gizon) irakurten dabena, errez ezagutuko eban M (eme) be. Nok siñistuko ete eban, zergaitia jakin ezik, sagar baten usaiñak eta ur-pizkaten sapo-reak egoera ortara eroango ebazanik?

Areik ain goseti ikusita arriturik nengoan ni, nik ez nekian ba oindiño areik zergaitik egozan narrua ezkatatsu jarten eutsen argaltasun aretan; alan be, itzal batek bere buruaren barnenetik begiak biurtu eustazan, adi-adi begiratu ta gero, garrazika, esanez:

—Ze meséde da egiten daustazun au?

Ez neban egundo aren arpegia nik ezagutuko, baiña aren abotsak azaldu eustan antz-traiak itxuragetu ebana. Txingar onek biztu eban nik arpegia aldatua ezagutzea ta Forese'ren mosu-belarriak ikusi nebazan.

—Ai! —esan eustan—; etzaitz or arriturik gelditu, narruz kolorga jarten nauan legen-baltz igar au ikusita, ezta nik leen neukan aragi barik nagolako be; esaidazu egia zeutaz, eta zeintzuk diran jarraigo dagitzuen arima bi areik. Etzaitz gelditu nigaz berba egin barik!

—IHa ziñala be nik negartu neban zure arpegiak negargurea dakart barriro, orduan baizen atsekabe aundiz ekarri

be —erantzun neutsan—, ain itxura barik berau ikusita. Esaidazu, Jainkoarren, zek igarten zaituen orrela. Ez eidazu berba eragin, guztiz txunditua nago-ta: nekez ondo itz-egin daike, beste zerbaiten burua darabilienak.

Eta arek erantzun:

—Betíereko nausigotik indar bat jasten da atzean geratu diran zugatzera ta urera; onek meetzen nau izugarriro. Negarrez ebesten daben guztiok, neurri oro baiño urriñago sabelkeriaren menpe jarri ziranok, gosez ta egarriz garbitzen dira emen. Edateko ta jateko guraria ixiotzen sagarretik eta uretik, arein orri-gaiñez zabaltzen danetik, datorkigunak, eta inguru oni emoten dautsaguzan biretatik bein be ez da arintzen gure atsekabea. Atsekabea diñot, baiña atsegiña esan bear neuke Kristok bere odolaz erosi ginduzanean *Eli* esatera alaiki esatera eroan eban nai ber-berak garoaz zugatzera ta.

Nik jardetsi:

—Forese,<sup>1</sup> bizi obe batez mundua trukatu zenduan egun atatik, ez dira oindifío bost urte igazi. Zugan pekaturako indarra itzali ba'zan be, Jainkoaz baketzen gaitun oifiaze osasuntsuaren ordua galñ-etorri aurretik, zelan etorri zara zeu ona gora? Uste neban beean aurkituko zínudazala, aldia aldiaz ber-erosten dan lekuan.

Erantzun eustan:

—Nire Nella<sup>2</sup> ba, bere etenbako negar-malkoz lortu dauana martiritzaren asentzio gozoa edatera ain arin ekarria ba'naz. Bere otoitz samur eta biotz-intziriakaz atera nindun itxaroten dan ur-ertzetik, beste inguruetatik be askaturik. Nire alafguna, maite-maite izan nebana, on egiten bakarrago ta Jainkoarentzat kutun-atseginago dozu; Zerdeña'ko Barbagia, izan be, nik bera itxí neban Barbagia (Florentzia) baiffo garbi-lotsakorrigo da bere emakumetan. O anai samur! , zer nai dozu nik esan daizudan? Etorkizun dan koroí bat digart gaurko ordua guztiz atzera itxiko ez dauana; orduan irakastegitik galazoko jake florentziar emakume lotsagalduai bularrak erakusten ibíltea. Egon ete zan iñoiz basatirik, sa-



rrazendarrik, estalduta ibilli zeitezala eskatuz Elizak edo beste alako nagusik agindua emon bear izan ebanik? Baiña lotsa-galduko orreik ba lekie zeruak laster bialduko dautsean, aoa zabalik eukiko leukie jadanik orro egiteko; emen aurrez dakustanak, ba, ziririk sartu ez ba dagist, samín-azoko dira orain lolo abestuz poz-azoten diranai matrailletan bizirra urten baiño leen. A, anai! Ez eidazu geiago ezer gorde. Begira, ez nik bakarrik, jente guzti onek be, ikusten dau zuk eguzkiaren argia ebagiten dozun lekua.

Orduan esan neutson ník:

—Gogora ba'dakazu zu niretzat zer izan zífían eta ni zuretzat zer izan níntzan, orren gomuta bakar-bakarrik gaur samingarri izango litzakigu. Bizimodu atatik lengoan atera nindun neure aurretik doanak, aren arreba biribil agertzen zanean.<sup>3</sup>

Eguzkia izentatu neutson, eta arek aurrera:

—Oraifío lagundu nau onek, gau itsu-itsuan zear, egiazko illotz artetik, jarraika noakion aragi bene-benetako one-gaz, Onagifío ekarri nau aren laguntasunak igonez eta birak emonez zuoi, munduak okertutakuoi, bide arteza erakutsiz doan mendiarri. Lagunduko nauala diño Zorione dagoan lekuan ni be aurkitu arte, eta an berau barik geratu bearko dot. Bergili dozu au ta ori diñostana —ta atzamarrez iragarri neutson—, eta itzal a dozu beste au, beraugaitik dardaratu bait zan zure erreifíuko azken zokoraiñoko guztia, andik jaurtia izan zalako.<sup>4</sup>

- (1) Forese Donati, Dante'ren odoleko ta adiskide.
- (2) NeLla, ForeseYen ema2tea.
- (3) ILlarga, Eguzkiaren arreba.
- (4) Estazi, zerurantza doa.

## XXIV KANTUA

Muiña.—*Txibizkeria zigortzen dan seigarren ingurua.*—*Forese Bonati, Tikarda, Luka'ko Bonagiunta. Martin IV<sup>l</sup> garrena, Pila'ko Vbaldin, Bonipagi, Martxese maisua, ta besteak dagoz emen.*—*Zugatz mistiku bat. Txibizkeri ereduak.*—*Aratozte gotzona.*

Itz-egiteak ez eban ibiltea luzatzen, ezta ibilteak be ez euskun astirogoatzen gauzea; itz-egiñez asko gengiltzan, aize onak eragindako ontzia legez. Eta birritan illak zirudien itzalak begi-zuloetatik erakusten eben arrimena, oindiño ni bizi nitzala jakitean. Nik, neure itzaldiari jarraituz, esan neban:

—Itzal au, geugaítik, egingo leuken baiño astirosgo doa gorantza. Baiña esaidazu, ba-dakizu beiñik-bein, nun dagoan Pikarda; baita esaidazu, olan begiratzen dausten arimen artean pertsona oargariren bat ete dagoan.

—Nire arreba —nik ez dakit zer izan zan geiago, ederra ala ona—, onezkero Olínpo goian dago garaille, antxe bait dauka bere koroia.

Olan mintzatu zan aurrenik, gero eratsiz:

—Emen ez dago iñor izentatzea galazorik gure arpegia aragi-iztez ain aldatua dago-ta. Au —ta atzez markatu eban— Bonagiunta dozu, Argietakoa, eta a beste arpegia urriñago ikusten dana, besteak baiño ezkatatsuago dana, Eliza Ama deuna bere besoetan auki eban batena dozu. Torso'koa izan zan eta barau-egiñez kitutzen ditu Bolsena'ko zingirako aingirak eta mama gozokoak.

Beste asko izentatu eustazan banan-banan, eta izentatzean danak egozan ant2a pozik; nik ez neban beintzat eurengan somatu ezetariko iguin-kiñurik. Gosezko aginkadak emoten ikusi nebazan Pila'ko Ubaldin eta Bonipagi, eliz-jantzizigozrez ardi asko larratu ebezana. Martxese maisua ikusi neban, Forli'n<sup>l</sup> egaxri gitxiagoz edateko lekua eukirik, egundo be asetua ikusi etzana. Baiña aurrena begiratu ta gero bata

baíño bestea geiago ederresten dauanaren antzera, egin neban ník Luka'koaz, naiz-ta berak gurari bizia erakutsi, bes-teen artean, ník itz-egin nengion: Marmarka. iñoan zerbait eta ez dakit zer «Gentuka»-ri buruz, ník entzun neroianez antxe berak zuzentasunaren zauria, akituz, sentitzen eban lekuan.<sup>2</sup>

—O arima! —esan neban—, nigaz itz-egin irrikaz za-  
gozana. Ník ulertzeko eran egizu, ta zeure itzakaz zeu ta  
neu pozik izteko moduan.

—Ba-da emakume bat, oindiño zapirik ez daroana —asi  
zan esaten—, nire uria aretxek egingo dautzu atsegingarri,  
notbaitzuk artaz txarto mintzatu arren. Zu iragarki onegaz  
joango zara, ta nire mulu-mulu ta esamesetan zerbait gaizki  
ulertuko ba'zendu, egiteak argituko dautzue gauzea. Baiña  
esaidazu, ez al nago ikusten «Donne, ch'avete intelletto  
d'amore» (maite-adimena daukazuen emakumak) asten diran  
bertso barriak?

Erantzun neutson:

—Neu nozu bat, goi-argiak eragitean, ídazten dodana;  
ta olan noa adierazoz ak barman idaroki oi daustana.

—O anai! —ots arek—, ondo dakust oraín Notaro'ri ta  
Gutttone'ri ta neuri, gaur entzuten dodan idazkera barrira  
eltzen itxi ez euskun korapilloa. Ondo ikusten dot bai zuen  
lumak zelan jarraitzen daben zeatz-zeatz norbaitek esana, ta  
ori ez da jazoten gureakaz, eta arretarik aundienaz ori ikus-  
ten jarten danak ez dau idazkeran edo estiloan diferentzirik  
ikusten batetik bestera.

Eta onenbestez pozik, ixildu zan.

Nilo ur-ertzean barna negua emoten daben kurrilloak,  
batzutan saldo aundia eratzen dabe airian eta gero ariñago  
itzuliz lerroan joan oi dira; antzera an egozan arima guz-  
tiak be, arpegia itzuliz, ariñari emon eutsen, azkar bai eu-  
ren naiez eta euren argalez; eta ibilliz nekatu rik dagoan  
gizasemeak, bere lagunari aurretik joaten ítxi ta bere arnas-  
bearraren estu-larria arindu arte atzerago astiro doan lez,

Forese'k olatxen itxi eutson joaten talde doneari; biok bi-dez giñoiazala, esan eustan:

—Noiz ikusiko dogu alkar, ostera?

—Ez dakit zenbat biziko nazan —erantzun neutsan—; baiña ez da ain arin izango nire itzulia, nire gogoz ur-ertze-ra eldu aurretik ez beintzat; ni bizi izatez kokatua izan nintzan lekua, ba, egunetik egunera murriztu oi da, onetik gero ta geiago ain zuzen, eta ondamendi negargarri batera doala dirudi,

—Zoaz, ba —esan eban ak—, ikusten nago-ta ondamendi orren errurik geiena daukana; abere baten atzekoari lotua parkamenik ez dan ibarrerantz, narras, eroana da. Aberea, urratsez urrats, bizkorrago doa, beti azkarrago, azkenez astin-astin egin gorputza, ta abarrakiturik itxiaz. Gurpil areik ez dabe jirabira askorik emongo (eta zerurantz biurtu zituan begiak), nire itzak geiago argitu ezin leiketzuena zuretzat argitua ízan baiño leen. Onezkero gelditu zaitez emen, erreñu ontan garestia baita aldia ta nik asko galdu daroat zurekín ondoz ondo ibilteaz.

Burrukaldi baten adibidez, zaldizkoa batzutan, zaldi-talde artetik aurrera joan oi da trapala-trapala, leenengo erasoaldian esku artu gura-ta; espiritu a olantxe, oinkada luze, banandu zan gugandik, eta ni bidean geratu nintzan munduan maisu aundi izan ziran biakaz. Gugandik urrin egoala ta nire begiaí zail lez nire adimenari gaitz egin jakonean aren itzak ulertzea, beste sagar-ondo baten adar eze zamatuak agertu jatazan, andik ez urruti, ordurarte ez genduan ba bururik arantza biurtu. Arimak ikusi nebazan aren azpian eskuak jasoten, orritzarantza ez dakit zer oiu egiñik, ametxo negarti ta maiñ-ontzi bai'lítzan, zerbait eskatu ta eskatzen dabena lortzen ez dabelarik; baiña bere guraria geiago sustatzeko goi-goi euki oi dau gura-gaia ezkutatu barik. Gero joan ziran etsita lez, eta gu orduan zugatzera urreratu giñan, ainbat erregu ta negar-malkori muzin dargitsenera,

«Joan aurrera ona eldu barik; an, gorago dago beste zugatz bat, Eba'k aginkatu ebana, ta au aren kimu besterik ez da». Orrela iñoan ez dakit nok adar artetik. Bergili'k, beraz, Estazi'k eta nik aurrera jarraitu genduan, gu alkar estutuz, armolea gero ta geiago jagiten zan alderditik zear. «Gogora zaíteze madarikatuakaz —iñoan abotsak—; odeietan antolatuakaz, ordi, Teseu'ri euren bular bikotxakaz<sup>4</sup> erasu eutsoenakaz; baita, edatearren, aul agertu ziran ebertarrakaz be, Gedeon'ek beraz muiñoetatik Madian'erantz jatsi zanean laguntzak nai izan ez ebazanakaz.

Orrelaxe, egal bietako baten ondotik igaro giñan, jan-edate ta sabelkerizko oiu bereziak entzunez, ondoren errukarriakaz batera. Gero milla bat edo-geiago ibilli giñan bide bakartiren erditik eurrera, ara ta ona begira alkarri ezer esan barik.

«Zer pentsatzen zoaze zuok irurok bakarrik?» —esan eban bartetik abots batek, eta ni izu-ikaratu nintzan, abere gazte bildurriak egin oi dabenez. Jaso neban burua nor zan ikusteko, ta Iaba baten ez da egundo ikusi leiar edo meatz ain dizdtsu ta gorririk, au iñoan bat egoan lez: «Gora igon nai ba'dozue, bira emon bear dozue emen; emetik joaten da bakerantza joan nai dauana». Ikusmena lausotu eustan aren itxureak, neure maisuen atzera biurtu nintzan beraz, agindua artu dauan gizona dabillenez. Eta maiatzeko aize ozkirriak, goi<sup>2</sup>a iragarriz, bedar ta lora-usaiñez beterik atsemoten dauanez, olantxe somatu neban nik be aize-bafa batek bekokian joten, gozotasunaren gozoa senti-azo eustan ego-zirkifia oartzuz. Esaten entzun neban: «Doatsuak areik ainbesteko graziak argitzen dabezanak; jan-edanerako makurrak biotzean gurari geiegirik ixiotzen ez eta legezko neurrian bakarrik jan-edan galea sentit<sup>2</sup>en dabenak.

- (1) Forli'ko edale amorratua.
- (2) Aoan.
- (3) Probentzeraz idatzi eben olercarriak
- (4) Zaldi-gizonak.

## XXV KANTUA

Muiña.—*Seigarren ingurua: giza-ernetzearen teoria.*—*Gorputzean ixurtzen arimea.*—*Egurats-soinak eriotz ostean.*—*Zazpigarren ingurua: lizunkeria.*—*Garbitasunaren ereduak.*

Gure igoerak luzapenik onartzen ez eban ordua zan, eguzkiak ba Zezenari itxi eutsan orduko eguerdikoaren oboa, eta gabak Lupuari; beraz, bidez doanak, edozein zoztor aurkitu arren, aurrera jo ot dauan lez, bear-izanaren akuluak zirikatzen daualako; gu be era berean sartu giñan bide-zidor artatik, mailladia artuz bata-bestearen atzetik, au estua bait da ta banatu egiten gora doazanak. Eta zigofia gazteak, egoak zabaldu egaz egin nairik eta abia izten ausartzen ez dalako, barrero batzen dituan lez; olaxe nengoan ni be, itandu naika baiña bildurrez, itz-artzera gertu dagonaren kiñua azkenez egiñik. Nire aita maiteak, arin-arin genbiltzala be, ez eustan itxi esan barik:

—Erauzi eizu mintzo-uztaia, burdiñaraiño tenk daukazu-ta.

Orduan, ustez beterik, aoa edegi ta esaten asi nintzan:

—Zelan argaldu ete leiteke jan-bearrik ez dan lekuan?

Arek jardetsi:

—Gogoratuko ba'zendu zelan akitu zan Meleagro bere illintia ígatzean, ez litzakizu au orren ulert-gatx egingo ta gogora ekarriko ba\*zendu zelan eragitean ispilluan zeure iduria be mobidu egiten dan, uler-gaitz egiten jatzuna gauza erreza begitanduko litzakizu. Baina zure gurariak arindu daitzean, emen daukagu Estazi, ta ni beragana noa lagunrasun billa ta berari eskatzen dautsot bera izan daitela zure zauriak osatuko dituna.

—Zu zagozan lekuan betiereko ixil-gordeak adierazoten ba'dautsodaz —erantzun eban Estazi'k—, bekit akiakulu zuri ezin dautzudala ezer uka.

Eta onela asi gero:

—Nire itzak, seme, zure gogoak artu ta ausnartu ba'da-giz, argi izango jatzuz galdezka zagozana uiertu al izateko. Odol garbia, zan egartiak egundo xurgatzen ez dabena, maitik baztertzen dabena janaria lez, uts eta ikutu bage egon oi da, ta onek biotzean artzen dau gizonaren soin-atal guztien era-indarra, zanetan zear dabillenak eurotan erabarritzeko kemena daukon lez. Odol garbi a izentatzea baiño ixiltzea oba dan lekura jasten da, emen iraziz berezko ontzien beste izaki baten odolaz nastuteko. Emen nastuten dira bata ta bestea; bata artzeko gertu, ta bestea datorren leku osoari esker sortzeko gai, ta dagokion unera eldurik, a lanean asten da, leenengo gatzatuz ta bizi-azoz gero bere egitearen gai izateko lodí ta sendo egin dauana. Indar eragilleak, landara baten antzera arima egiffik, alde onekin, eratuz da-goala ta au dagoneko erata, eginaz diardu gerora be, itxas-ontto baten antzera leenen ígitu ta somatzen dauala ta gero, bertatik, aalmenak —onein azia baita— itxuratzen asten dirala. Orduan, seme, tolesgatu ta zabal-azten da gurasoaren biotzetik datorren indarra, ta jatorrizko itxura emoten dau-tse soin-atal guztiai. Baiña abere-izatek adimen-izatera zelan aldatzen dan, ez dozu oraindik ikusten. Au alako puntu gaitz bat dozu, ta zu baiño jakitunago bat be okerrean jausi zan ortaz, bere irakatsietan daiteken adimena arimatik bereizi bait eban, ez ebalako arentzat euskai egoki bat ikusten. Edegi biotza esatera noakizun egiari ta jakizu umekeian buru-muiñaren giarketa osotua dan baizen arin, leenbulzgaia aregana itzultzen da izatearen lan-eredu aregaz lilluraturik, eta espiritu barri bat ixurtzen dautso, bere al-izate ta enparauetan osoa; egintza aretan, ba, eragille aurkitzen dauana bere mamiñera erakarriz arima bat bakar egiten, bizi ta somatzen dauana, eta gogaketarako gauza dana. Ta dinotzudanari buruz gitxiago arritu zaitez, begira eguzkiaren beroa zelan biurtzen dan ardao, maatsonditik jaioten dan begi-uraz batera. Lakesi'k<sup>l</sup> liñu geiago ez daukaneas, aragitik askatu egin oi da arimea, ta jainkotiarra ta gizatiarra muiñez bemtzat beragaz daroaz. Mutu geratzen jatzuz zen-

tzunak; gomutamena, adimena ta naimena, Jeen baiño bizkor eta zorrotzago. Gelditu barik, berez jausten da arimea arrigarrero ur-ertz bietatik baten, eta an ezagutzen dau bere bidea. Tokiak esitu baizen Iaster, era-indarra zabaltzen da bere birundan, leen bere soin-atal bizieta lez, eta eguratsa egun euritsueta eguzki-printzak bertan dizdiz dagielako, askotariko kolorez apainduta agertzen danez, inguruko aireak be an dagoan arimeak muñez irarten dautson itxura a artu daroa, ta, garra iduri, espirituari jarraitzen dautso bere itxura barriak. Emendik artzen baít dau bere irudia, itzala deritxo tá arimeak gero bertan eretzen ditu bere zentzun bakotxa, baita ikusmena be. Olan itz oi dogu, olan barre, eta olan-txe malakoak eta intzirriak ixuri be, mendi zear zabiltzala ikusi ta entzun al izango zenduzanak. Gurariak edo-ta txeraniak zelan nekarazten dabezan, alaxe itxuraldatzen da itzala, eta auxegaitik zu miretsi zaitu.

Azkenengo oiñaze tokira eldu giñan; eta, eskumara biurturik, beste ardura batzuk kezkatzen ginduezan. Arresiak emen gar biziak bialtzen ditu kanporantza, ta karelak aizea botaten areik astandu ta beragandik alderatzen dauazana; beraz, zabalduetako egaletik joan bear izan genduan, eta banan-banan; ni, barriz, suaren bildur nintzan emen, eta an osteraz lezara jausiko ete nintzan.

Nire gidariak egotzi eban:

—Toki onetan ondo galgatu bear dira begiak, pausu txar bat errez emon leikegu-ta.

Orduan «Summae Deus clemenciae» entzun neban abesten sute ikaragarri aren altzoan; atzera itzultzeko gogo biziz ipiñi nindun onek, eta gar artean ebiltzan espirituak ikusi nebazan. Nik arein urratsai begiratzen neutsen, eta neureai, begiak txandaka erabilliaz. Ereserkí a amaitu ebenean, au oiukatu eben: «Virum non cognosco». <sup>2</sup> Eta, abots apal, barrero asi eben ereserkia. Au be oiuka amaitu eben: «Oianean geratu zan Diana ta Elize bota eban andik, Venus-en pozoia txastatu ebana».



Olantxe ostera be kantua, eta bein eta bein eta barriz otsegiten ebezan zindotasunak eta ezkontzeak agintzen dabenez garbiak izan ziran emazte ta senarren izena. Eta onek, uste dodanez, suak kiskaltzen dauazan denpora guztian irarungo, zauria azkenez be olako arduraz eta olako eredu osatu bear da-ta.

- (1) Lakesi, Parketatik bat.
- (2) Ajdra Mariak Gabriei aingeuari esandako berbak.
- (3) Diana garbiak bota egin eban bere ondotik Kaiipso maitagarria, maitasuna txastatu ebalako. Jupiter'ek gero Guarda biustu eban, gerkeraz Elize deritxona.

## XXVI KANTUA

Muiña.—*Zazpigarren ingurua\ aragikoi ta lizunen aurkako erreskada bi.—Gorengo mailla bizi izan ziran lizunkoi batzuk, Guido Guinizelli, Arnaut...*

Olan genbiltzala ertzetik, bata bestearen ondoz, eta nire maisu onak sarri esaten eustala: «Begira ondo; barriro diñotzut», eskumako bizkarrean zauritzen nindun eguzkiak, orduko ba bere erraiñuz sarkalde osoa zero urdiña zana zuri biurtzen, eta neure gerizaz, gorriago egiten nebazala garrak zirudiala, arima asko, ibilliaz, jazoera bakan orretan begiak josita ikusi nebazan. Au dala-ta asi ziran nitaz mintzatzen, alkarren artean esanez: «Agiri danez, onek ez dauko oitutako gorputza». Ondoren, ziur jakin nairik, arik eta geien urreratu jatazan, erreten egozan Iekutik ez urteteko arduraz beti.

—O zu, zeure lagun en atzetik zoazan ori, ez geldiena zarealako, begirunez baiño bear bada. erantzun eidazu neuri,

egarriz eta suz kiskaltzen nagon oni! Ez naz ni bakarrik zure erantzuna bear dauana, beste guzti oneik be ba indiarrak eta etiopiarrek ur freskoarena baiño egarri aundiago sentitzen dabe. Esaiguzu zelan egiten dozun orma bat eguzkiaren kontra, oindiño sartu ez ba'ziña lez eriotzearen sare barruan.

Orrela mintzaten jatan arima areitatik bat, eta nik be-ralaxe adierazoko neutsan orduan agertu zan beste gauza bari batek eroan ez ba'leust gogoia, ta au izan zan, arimak etozala suzko bide erditik zear oneikana arpegia biurturik; arri-tuta itxi ninduan onek arei begira. Alde bietatik, bizkor be bizkor guganaten ikusi nebazan, itzalak gelditu barik batak bestea mosukatzen ebala, pozik atsegin labur a zala-ta. Olan, aurkítu oi diran euren erreskada artean txiñurriak bata-besteaz, euren bideaz ziurtzeko bear bada, eta euren zoriaz. Agur txeratsuk amaitu ta leenengo oinkadea emon baizen kster, deadarka asten da bakotxa ezin geiagoan. Eto-rrri-barriak: «Sodoma ta Gomorra!», Eta besteak: «Pasifae sar bedi beiagana zezenak gozar daian bere lizun-irritsa». \* Gero, kurríloak egazka batzuk eremurantz izotzetik iges ta beste batzuk eguzkiaren galda gogorretik aldendu nairik, era berean arima batzuk ba joiazan eta beste batzuk ba etozan, eta itzuliz etozan negarrez len-kantuetara bakotxak oiukaturik ondoen egokion egoera. Eta, leen bezela, nigana urreratuz leen itandu eusten arima ber-berak, arpegikera zerbait margotuta ikusi nairik.

Nik, gurari artaz birritan konturatu nintzan onek, onela berba egin neban:

—Gozatzeko ordua datorrenean, betiko bakea jaristeko ziur zagozen arimak! Nire soin-atalak ez dira an ez musker ez bellegi geratu, emen dagoz neugaz, euren odolaz eta euren lotura-giltzakaz. Emendik gora noia onezkero itsu ez izateko egundo; an dago emakume bat grazi au eskuratu daustana, orixegaitik daroat gorputz ilkorra zuen munduan zear. Baiña zuon gogorik biziena laster bete dedilla ta maitasusez beterik dagoan eta gero ta edatuago egiten dan zeruak txe-

raz artu zagiezala, esaidazue, nik idatzi dagidan, nortzuk zarie zuok eta nor da beste laguntalde a zuen sorbaldai bizkar emonik doana.

Ez beste tankera baten, momorrotua, izutzen da menditarra, eta, oro ikusiz, mutu geratzen da, latz eta basati, urian sartzan danean, itzal areitatik bakotxa geraiu zanez, itxuratik atera Jeikenez; baiña izu-ikaratik senera ziranean, biotz jasoetan au arin bait da itzaltzen, esaten asi a leen itandu izan eustana:

—Zoiotsua zu, gure eskualdeetan, obeto ilteko, oar-ikasia eskuratzen dozuna! Gugaz *cri* datorren jenteak pekatu egin eban Kaiser jagoftik, garaille, etorri zanean, bere aurka deadarrez, erregiña deitzen eutsoen oben berbera.<sup>2</sup> Beraz oiuka doaz: «Sodoma», gaiztetsiz, entzun dozunez, eta sua azizten dabe lotsaz gorriturik. Ar-emeena izan zan gure pekatua; baiña giza-legeak zerbitzen ez doguzalako ta bai abere antzera geure griñai jarraitu, geure lotsarako ots-egiten dogu, banatzen gareanean, abere-egurrean aberetu zanaren izena. Onezkero ba-dakizuz ba gure egintzak eta ze erruz gatean zigortuak. Izenakaz bear bada nortzuk garean jakin nai ba' zendu, ez neu jakingo zuri esaten eta ortarako denporarik be ez daukagu. Neuri dagokidanez betelco dot zure gogo: Guido Guinizelli<sup>3</sup> nozu, ta azkenera baiño leen damutu nintzalako garbituten nago.

Likurgo'ren aginpide gogorpean seme bik euren ama ikustera etortean egin eben legez, egin neban nik be, naiz-ta ez ain oldartsu, nire maisuari, ta guretarren artean onenari, bere burua aitatzuz entzun neutsonean esaten, berak ez ebala iñoiz idatzi maitasunezko bertso samur lilluragarririk, eta ez entzun ez itz, bide-arlo luzea ibilli nintzan berari begira, suagaitik aregana geiago urreratu barik. Ari begira asetu nintzanean, bere zerbitzurako eskiñi neban neure burua oso-osorik, berbak indartzen zitun zin-egitez. Berak erantzun eustan:

—Zuk izten dozuz, entzuten dodanez, alako ta ain oar-garri diran aztarnak nigan, Leteu'k ez kendu ez illundu ezin

leikezanak. Baiña egiazkoak ba'dira gure zin-itzak, esaidazu zer errazoi dozun niri ainbeste maitasun erakusteko zeure itz-begirakunetan.

Nik jardetsi:

—Zure bertso leun-eztiak, gute gaurko izkuntzak dirauño, maitekor egingo dabe eurak idatzi ebazan idaztura bera be.

—O anaí! —ots arek—. Atzamarrez jakin-erazten dautzudan au<sup>4</sup> —ta aurrean joian espíritu bat izentau eban— bere ama-izkuntzaren egillerik onena izan zan. Enparau guztiak gainditu zitun bere maitezko bertsoz eta eleberrizko prosaz, eta laga itz egiten lemosindarrak aurrea artzen dautsola uste daben astaputzai, olakoak ba egfari baiño jaramon geiago egin oi dautsoe bala-bala dabilien zurrumurruari ta olan burutu oi dabe euren eretxia errazoiari edo ertiari entzun aurretik. Gisa orretan egin eben antxiñako askok Guittone'gaz, aundi-estez aundi-este, arixeri bakarrik emonez ospe ta omena, egíak azpiratu dauan arte beste batzuen meritu ta irabaziz. Eta orain, mailla ain goian aurkitzen ba'zara ta Kristo buru dan alkar-batzar itxituan sartzea zillegi ba'jatzu, esaiozu neure orde, pekaturik onezkero egin ezin dan lekuan, guk mundu onetan bear dogun «Gure Aita»-ren zati a.

Gero, atzetik etorren beste bati leku egitearren bear bada, suan gorde zan ur-barrenean arraiña lez. Ni aurreratu nint2an leen izentatu nindun arengana ta oni esan neutson nire gurariak bere ízenari toki on bat antolatzen eutsola. Eta bera, beste barik. asi zan probentzal bertsuok esaten:

«Eder-atsegin bait jat zure eskaria,  
ezin dot ezta nai be, zuri neure burua gorde:  
ni Arnaut naz, negarrez ta kantari nagoana;  
pentsakor dakust neure joanaren zorakeria,  
ta alai dakust etorteko daukodanaren eguna,

Orain, indar agaitik, eskale nagokizu,  
zurubi-gaiñera zuzentzen zaitun ezkeru,  
garaiz oroi zaitezela nire oiñaze-miñaz»

Ondoren ikuzten dauan sutan ostondo zan.

- (1) Abere-oben na2kagarria aipatzen dau.
- (2) Kuntze-pekaturia, guda-mutiliak beñ Kaisar'i egotzia.
- (3) Bolonía'ko olerkari ospetsu.
- (4) Proben2a'ko olerkari Arnaut Daniel.

## XXVII KANTUA

Muiña.—*Likiskeria: garbitasunaren aingerua.*—*Sugar ar-  
teko igaro-bidea:*—*Lurreko atsedeen-lekurako i goera.*—*Ber-  
gili'ren azken itzak.*

Eguzkia orduko, bere Egilleak odola ixuri eban uriaren  
gaiñera leen-erraiñuak dardarazten dabezan lekuan, Aztagai  
garaipean Ebro ibaia jausi ta Ganges bederatzigarren orduan  
galdatzen dan unean egoan. Eguna ba-joian, ba, gu gengo-  
zan lekutik, Jainkoaren aingeru doatsua agertu jakunean.  
Gar arterilc kanpo aurkitzen zan ur-bazterrean, eta au abesten  
eban: «Beati mundo corde», guk baiño abots askoz zolia-  
goan. Gero jaurtigi eban:

—Ezin daitele aurrerago joan, arima deunak, suak agin-  
katzen ez ba'zaitue leenago. Sar zaiteze bertan eta gorrarena  
ez eizue egin beste aldean entzungo dozuen kantuari.

Olan mintzatu jakun ur egon giñanean, eta ari entzu-  
tean illobian bizirik sartzen dagozanen antzera geratu nin-  
tzan. Esku biak alkartuta jaso nebazan neure burua babes-  
teko suari begira ta aurretik kiskaltzen ikusi nitun giza-gor-

putzak bizi-bizi irudimenera ekarriz. Nígana kzuli ziran laguntzen ninduenak, eta Bergili'k esan eustan:

—Ene seme, emen oiñazea bai egon leike, baiña ez etio-tzarik. Gomuta zaitetz! Gomuta zaitetz! Eta nik, Gerion'en gaiñetik, onez gidatu ba'zindudazan, zer ez dot orain egingo Jaínkoagandik urrago egonda? Ziurtzat eukizu, milla urte egongo ba'ziña be gar orren erdi-erdian, ule bat be ez leuskizu erreko. Eta guzurra dirautzudala uste ba'dozu, urrera zaitetz bertara ta ikusi egizu zeure eskuekaz naiz zeure jantziaren mendelaz. Uxa bildur oro, biur zaitetz onantza ta sar zaitetz sutan ziurtasun oso-osoaz.

Ni, alan eta guzti be, geldi nengoan oindiño, neure kontzientziaren aurka. Geldi ta muker nengoala ikusirik, barru-estu samar gaiñeratu eban:

—Begira, seme: orma orixe da Zorione ta zure artean dagoana.

Piramo'k, eriotz orduan, Tisbe'ren izena entzutean begiak. edegi ta begiratu eutsonetik, masastabeak ale gorriak dakazan Jegez, nire muker-egotea be bigundu zan, eta berebat nire gogoan beti barriztu oi danaren izena entzutean, jakintsuagana biurtu nintzan. Ak, buruari eragiñez, esan eban:

—Zer? Emen geratu nai ete?

Eta irripar egin eustan igali bategaz zuritzen dan umea-ri legez. Gero suaren barruan sartu zan aurretik, Estazi'ri erregu egiñik nire atzetik sar zedilla, erdian joan orde, leen bide luzean bezela. Barruan nengoalarik, leiar urtura jauzi egingo neukean zerbait ozkirritzeko, beroak an ez bait eukan neurrik. Nire aita onak, ni bLzkor-azo naita, Zorione'z rain-tzatzen jatan, esanik:

—Bere begiak ikusten nagoala dirudit,

An beste aldean abesten ebnn aots batek zuzentzen ginduzan, eta gu, adi-adi ari bakar-bakarrik, igoera egoan lekutik urten gintzazan. «Venite, benedicti Patris mei!» (za-toze neure Aitaren zoriontsuok), entzun zan an aurkitzen zan

izaki argitsu batek esaten, eta apika, eziña izan jatan berari begiratzea. «Eguzkia ba-doa —gaiñeratu eban— eta ba-dator gaba; ez zaitez gelditu bidean, oiñak zolitu baiño, sartaldea illundu aurretik».

Arkaitz artean, zuzen-zuzen ígoten zan bidea, orduko bee egoan eguzkiaren izpiak nik neure aurrean eteten neban lekurantza, eta mailla batzuk besterik ez genduzan igon, nire gidari jakintsuak eta nik, itzaliz joian gerizeagaitik, eguzkia geure atzean sartzen zala ulertu genduean. Beraz, osertzak bere zabalera izugarri guztian itxura bardifía artu ta gabak bere aginpide bete-betea lortu orduko, gutariko bakotxak oe egin eban mailla bat, gurariak baiño geiago, ba, mendiaren ízateak berak kentzen euskun igoteko aalbidea.

Auntzak, aurrenik euren jan-gosea arindu naita gañnik gañ jateko billa bizi ta bizkor ibilli ziranak, orain kerizpetan ixillik, eguzkiak erreten dauanean, zaintzaillearen maki-llaren babespean eusnar, eta gabaz txakurrak, auntzen ondoan gaubela egiñik, patari ankerren batek sakabanatu ez daizan, zaintza dagian lez, era berean gengoan gu irurok be orduan, ni auntza iduri ta eurak artzain antzera, alde batetik eta bestetik arkaitz garaiak zainduta. Kanpoko gitxi ikusi geinkean andik; alan be, izarrak oí baiño argi ta aundia-goak erakusten eustazan gítxi arek. Olan ausnartu ta olan arei begiratz, loak artu nindun; sarri, gauzak jazo baiño leen, euren albistea damoskun loa. Uste dodanez, maite-suak beti kiskaldua emon oi dauan Kiterea<sup>1</sup> mendira bere leengo printzak bialdu baiño leen, begitandu jatan amesetan landan zear joian emakume gazte eder bat zala, lorak batuz, kantari iñoana:

—Nire izena itanduten dauan edonok jakin bei ni Lia<sup>2</sup> nazana, eta biran luzatzen dodazaía neure esku aratzak lo-razko uztai luze bat neuretzat egiteko. Atsegin ízan daidan, emen apaintzen dodan ispillura begiraturik; baiña nire aizta Errakel ez da egundo be bere ispillutik aldentzen, aren aurrean jarrita egonik egun guztian. Arek poza artzen dau bere begi ederrak ikusiaz, nik neure eskuak apainduaz legez. A pozik dago begituz; ni, egiñez.

Egunsenti aurea zan dagoneko. Erromesari, ostera, etxe-ranzkoan, aberritik urrago dagoala-ta, pozgarrí jakoz goiz-izpiak; olaxe niri be: iges joiazan illunpeak andik eta emen-dik, eta nire loa areikaz, eta jagi nintzan, nire maisu aun-diak orduko jagiak zirala.

—Frutu samur arek, ainbat orriz ilkorren joranaren bi-lla doanak, gaur, bakean, aseko dau zure gosea.

Bergili'k esan ebazan itzok nigana biurtuz, eta nik ez dot bezuzarik euki alako atsegiñik emon daustanik. Gura-riak gurarien gaiñ izan nituan metaka goian ikusi nebanean neure burua, eta urrats bakotxean zirudien egoak azten ja-tazala egaz egiteko. Mailladi guztia gure azpian geratu za-nean, gu maillarik gorenengoan gengozala, Bergili'k jaso ebazan begiak nigan, eta esan:

—Aldíko ta betirreko suak ikusi dozuz, ene seme, ta eldu zara nik geiago, neurez, bereizten ez dodan unera. Oñaíño ekarri zaitut antzez eta trebetasunez; ar eizu emen-dik aurrera zeure naia gidari; onezkero, bide malkartsu ta estuetatik kanpo zagoz. Begira eguzkia, bekokian emoten dautzula; íkus bedarñoak, lorak eta zugatzak, lur onek ba-karrik dakazanak. Negarrez zugana eroan-azo ninduen begi zoragarriak zorientsu datorkizuzan bitartean, jar zaitekez edo ibilli lora artean. Ez itxaron geiago nire barbarik ez kon-tsejurik; aske, artez ta osasuntsu da zure aukeramena, ta oker bat litzateke berak diñotzuna ez egitea; nik, beraz, zeu-re buruaren jabe etsirik, koroia ta mitra domotzudaz.

(1) Venus, Kiteea deitua, jaio zan ugerteagaitik.

(2) Lia ta Errakel, Jakob'n leenengo ta bigarren emazte, *bhitz* eragLÜe ta otoizlarien eredu.

(3) Koroia. pertsonaren jabetza, ta mitra, zeure espirituaren ja-betza.



## XXVIII KANTUA

Muiña.—*Lurreko Paradisu edo atsedentegia: Leteu ibaia.—Emakumea bakanik.—TJraren eta aixearen jatorria> jainkozko basarlean.—Zelako lekua dan.*

Jadanik, egun barriaren argiak artzatu ta eragiten eban jainkozko zugazti, trinko bizia, barruz ta inguruz arakatu nairik, itxi neban geiagoko barik ur-egala ta zelaian zear abiatu nintzan astiro, nainundik usain gozoa erion lur aretan. Aize ezti betí-berak igurzten eustan bekokia, ez aizeno leun batek baiño gogorrago; onek eraginda orriak, dardarti ta gozo, makurtzen ziran danak mendi sagaratuak bere leenengo itzala bialtzen dauan alderdirantza. Baiña etziran, alan be, ainbeste makutzen txoritxoak, zuzatz-buru-kukutzetan, euren txorrotxiozko trebetasunaren ezaugarrik ez emoteraíño; areik, ba, alai ta pozkor, abesten eben leen-aize ozkirritan, osto artean eurok arturik, eta txiruliruri ta txistuketai bordoi-zurmurruz Iagundurik, Eol'ek Siroko \* aske izten dauanean Chiassi'ko zelaiko piñadietan orriz orri geitn ta ugaritzen dan zumurrua lez edo.

Dagoneko guztiz barrura eroan ninduen nire oinkada ez-ariñak aintxiñako oianean barruna, ta nundik sartu nintzan bertan ezin ikusita nengoala, ibai batek galazo eustan bidea, aurrera joteko; onek, ezkerrentza, bere uin ariñakaz, ertzean erneten ziran bedarrak makur-azten zituen. Emen garbi-garbitzat eukiak diran ur guztiak naasi ubd zerbait eukela eurengan 2Írudian beste areikaz bardiñean jarri ezker; betierako areik, izan be, ez dabe ezer ezkutatzen betidaniko itzalak illunduta joan arren, onek ez dau iñoiz izten eguzkiaren edo illargiaren izpirik igaroten. Gelditu ta begiak jarri nituan errekaiztoaren andikaldean, muelta askotako ostotza loratsua ikuskatzeko, ta antxe agertu izan jatan, arritzen gaituelako beste pentsamentu guztietatik askotzen gaitun zerbait bat-batean agertu oi jakun lez, emakume bat bakarrik kantuz joiana ta bide guztia bitxituta egoan lora artean ederrenak aukeratzen. <sup>a</sup>

—A, emakume eder! —esan neutson—, maitezko izpitan erretan zagozana, biotzaren testigantza emon oi dauan arpegikerari siñistu bear ba'dautsat! Zatoz; arren daskatzut, ur-ertzeraifio alderatu zaitezala, abesten dozuna entzun da-gikedan. Zuk gomutarazten nun egoan eta zelakoa zan Pro-serpina, bere amak galdu ebanean eta berak be oian loratsua galdu ebanean.

Emakume dantzari batek, oiñak beari josita daukazala, batak besteari aurrea artu barilc, bira osoa euren gain egin oi dauan lez, alantxe a be nigana biurtu zan lora gorri-orient gain, neskuts batek begi eratsuaic jatsi daroazanez, ta onartu eban nire eskaria, nik gozoa entzun eta itzak bereizteko moduan neugana urreraturik, bedarrak ibai aratzeko uren igurtziz bustita egozan lekuraino eldu zanean, begiaic jaso zituan neugana guztiz txeratsu. Ez dot uste Venus'en bekainpean ainbeste argiz didiz egin ebenik bere semeak zaurituta ustekabean somatu zanean.<sup>3</sup> Irripar egian zutik aurrez-aurreko ur-ertzean, lur garai arelc azi barik dakazan lorak baiño geiago bere eskuakaz estuturik. Iru pausura lez urrinduta geunkazan ibaiak; baiña Elesponto —emendik bait zan igaro Jerjes, oindino be gizonaren aundi-uste guztia galgatzen dauanaren eredu— Leandro'k ez eban ainbeste gorrotatu Sesto ta Abido tartean orroz joialako, a nik beste, orduan bíderik egin ez eustalako.

—Barria zara emen —asi jatan esaten—, eta bear bada, giza-izatearen abitzat aukeratuko leku onetan itripar egin dodalako, arritu egin zera ta susmoren bat artu; baiña «Delectasti» salmuak argituko zaitu, zeure adimena itxar-azorik. Eta zuk, aurrean zagozan eta urreratu nendilla esclatu zeustan orrek, esaidazu zer-edo-zer geiago jakin nai dozun ona etorri niaitzu ba zure edozein itauni, pozik itxi arte, erantzuteko.

—Urak —esan neutson— eta oianaren zurmurrak marmaratu daroe nire barruan siñiskera barri bat, orain ikusten dodanaren aurka zerbait daukana.

Eta arek erantzun:

—Neuk esango dautzut nundik eta zergaitik datorki-  
zun arritzen zaituna; bai askatuko dautzut esitzen zaitun  
gandua. Ber-beragan bakarrik atsegintzen dan On Garaiak,  
on egin eban gizona ta onerako ta leku au emon eutsan bere  
betiereko bakearen baitura lez. Bere erruz etzan luzaro egon  
emen; bere erruz negar-lerrenetan aldatu ebazan bere irri-  
par garbia ta tartegarri atsegiña. Enren indar guztiaz berora  
daroen uraren eta luraren lurruntzeak beean dakarrezan go-  
raberak gizonari eraso ta kalterik egin ez egitsen, mendi au  
ainbat igon zan zerurantz ta izten dauan puntutik aske da-  
go areitatik. Baiña lurraren biran aizea dabillen lez leenen-  
go kaskoan, egurats garbitan oso aske dagoan goialde one-  
tan ingurua nun-edo-nundik apurtzen ez ba'da, zirkin orrek  
eragin dagi ta oian ostotsua durunduz jarten dau, ta iñarra-  
sitako landareak aal -aundia bait dauko, bere sort-kemenez  
eguratsa asetu oi dau, ta onek, jirabira egitean, ingurura  
zabal-azten, eta olan beste lurrak> duin nola dan bere in-  
darrez edo bere zeruz, sort-azo ta ekarten ditu mueta asko-  
tako zugatzak. Ez dirudi, beraz, au entzunik, arrigarria, lan-  
dara batzuk an beean azi agiriko barik ernetea. Eta jakin  
bear dozu, zagozan zelaieta santu onek edozein muetako  
aziak dankazala ta an beean artzen ez diran frutuak daka-  
zala. Ikusten dozun ura ez da jaioten otzak erabarritzen dauan  
lurrunez janaritutako etorritik, ur-tira geitu ta galtzen dauan  
errekearen antzera, sorburu ziur ta iraunkor batetik baiño,  
zirrikitu bitatik ixurtzen dauna Jainkoaren naikunetik artu  
daroa-ta. Alderdi ontatik jasten da pekatuaren gomuta ken-  
tzen dauan indar bategaz; bestetik, egintza on guztiarena  
itzultzen dauanagaz. Leteu deritxo emen, eta beste aldean,  
Eunoe, ta ez dau ondorenik emen an baiño leen txastatzen  
ez ba'da, ta aren ao-goza beste guztien gaiñetikoa dozu.  
Ta, zure egarria dagoneko aseturik egotea gerta leiteken  
arren, geiago nik adieraztera orduko, ondorio bat emongo  
dautzut esker-zurrian: nire itzak. ez dot uste, atsegin-eza-  
goak izango jatzuzanik, agindutakoa baifio areago emoten  
ba^dautzue. Urre-aroa ta orduko zoriona beifiola abestu ebe-  
nak, Parnaso^an amestu eben bear bada toki au. Ementxe

atxitu zan errubako giza-sustraia; ementxe aurkitzen bettoko udabarria ta betiko frutua; auxe da orok aitatzen daben edari gozoa, nektar deritxona.

Atzera biurtu nintzan osoan, neure olerkariari begiratzeko; ta, ikusi nebanez irribarrez entzun ebezan azken esaldiak. Gero, emakuma ederragana itzuli nintzan barriro.

- (1) Ravena ondoan dagon piñadi ospetua.
- (2) Nor dogu emakume au?
- (3) Venus bere seme Cupido'k geziz zaurku eban, eta gero Adonis, ez maite mindu zan.

## XXIX KANTUA

Muiña.—*Lurreko Paradisua: Leteu ertzetik zear.*—*Jbildeun mistikua, ots, Elizaren garaipena.*

Maitemindutako emakume bat lez abeska, jarraitu eban mintzatzea amaitu ebanean: «Beati, quorum tecta sunt peccata!» Eta maitagarriak, oianeko itzalpetan barna, batzuk eguzkia ikusi naiez ta beste batzuk agandik igesi guraz, bakarrik joiazan lez, fbilten asi zan urez ibai ertzetik, eta ni, aren pareko, bere pausu laburrai egokiturik. Eta bion artean eun emon genduzaneko, ertzak, bardintsu, oker-une bat osotu eben, eta ni sarkaldera itzulita geratu nintzan. Orrela be ez genduan bide luzerik egin, emakumeak, nigana osoan biurturik, esan eustanean:

—Ene neba, ikus eta entzun,

Eta ona, dirdira sendo bat nabari izan zan bertatik, nunnai, basarte zabalean; tximista zala uste izan neban, baiña au datorren lez joan bait doa ta besteak gero ta geiago dizdizka irauan lez, nik niñean neure kolkorako:

—Zer da, baiña, au?

Eresi-doiñu gozo batek ots egian egurats argitsuan; eta, a ikusirik, bidezko sumíñak eroan nindun Eba'ren ausarke-riarí mormor egítera, an zeru-lurak esaneko ziran lekuan, eroana izan zan emakume bakarra ta sort-barría ezetariko ez-jakin zapirik ez jasatera; onen azpian, alan be, leiala izan ba'litz, beti-betikoz gozatuko eban esan-ezindako atsegin areitaz.

Ni, gozotasun geiagoren gosez, betidaiñoko atsegin-asi-kifien artean sor ta lor nenbillela, gure aurrean eguratsa adar orlegípean bíztutako sua iez agertu jakun, eta leengo doiñu ezti oskidatsua kantu ulerkoi biurtu zan. Oi, neskuts sagaratuak! Zuekaitik iñoiz gosea, otza, naiz gaubelak euki izan ba'ditut, orain ba-dot errazoirik naiko zuoi dei egiteko. Oraintxe bear dot, Elikona'k<sup>1</sup> ixur daistala berea ta Uranialc<sup>2</sup> urgazi bere abestalde, gauza ain garaiak bertotan adierazo daikedazan.

Zerbait arago, zazpi urrezko zugatzek irudimenean taiu-tzen eben arein eta gure artean egoan bide-arlo luzea; baiña zentzunak atzipetu oi dabezan azpegí arruntak, urrintasunez, errazoiari gaia damotsan aalmenari beronen itsaskietatik bat bera be eskutatzen ez eban lekuan, ur samar, aurkitu nintza-nean, argi-zuziak zirala konturatu nintzan eta abotsak «osana» kantatzen ebela. Goian argi egien, moltzo eder-ederean, illargi beteak gau-erdian, zeru ozkarbian, dirdir egi-ten dauan baiño be askoz argiago. Bergili onagana biurtu nintzan arriturik, eta berak be arrimen ez gitxiagoko begiakaz erantzun eustan. Gauza miresgarri areitan josi neba-zan ordun begiak; oso astiro etozan gugana, emaztegai ba-tek ibiltzan irabaziko eutsen gisara. Emakumeak deadar egin eustan:

—Zergaitik begiratzen dozuz, orren gartsu, argi biziak bakarrik, eta ez dozu aintzat artzen datorrena?

Jentea ikusi neban orduan argí-zuziai, gidariai lez, atzetik jarraika etorten, egundo izan ez dan lakoxe zuriz jantzi-ta. Urak argi egian ezkerretik, neure gorputzaren ezker-al-

dera dizdizka, ta nik neure burua ikusi neikean bertan ispillu baten lez.

Nik, neure ur-egalean, ibaiak soil-soil lagun-taldetik banantzen nindun lekua artu nebanean, gelditu nituan neure oinak obeto ikustearren, eta sugarrak aurrera egjela ikusi neban, eguratsa atzean margoztua itxirik, areik ikurrin-xingolak antza iruditzen ebezala; goiko aldean Eguzkiaren uztaia ta Delia'ren gerrikoa osotzen dabean kolore arein zazpi zerrenda nabarmentzen ziran. Atzetik etozan zur-oialak nire begiak artzen ebena baiño urriñago edatzen ziran, eta amat/bat oinkada egozan, nire eritxiz, aurrenen jóanetik. Zeaztuten dodan zerupe ederrean, ogetalau agure etozan, biñan bifian, zitoriz koroituta. Danak abesten eben:

—Bedeinkatua zu Adan'en alaben artean, eta bedeinkatuak betiren beti zure edertasunak! ».

Beste ur-egaleko bekoz beko neukazan lorak eta bedar ezeak, aukeratu areitatik aske geratu ziranean, zeruan argi batek besteari jarraitzen dautsonez, lau abere etorri ziran arein atzetik, ostantza berdez burestunduta. Sei ego eukazan bakotxak begiz beteriko lumakaz; Argo'ren begiak,<sup>3</sup> bizirik ba'litzaz, antzekoak litzakezan. Ez dot, irakusle, bertso geiago eioko aren itxurea zeazten, ba-dot bada beste arazo bat beartzen nauana, ta ezin daiket onetan Iuzaroago jardun; baiña irakur Ezekiel, ta arek margozten ditu eskualde otzetik aizez, odeiz ta suz etortzen ikusi zituan legez, eta aren idatzietan datozanez ziran an be, egoen kopuruan alan be Juan nigaz dago ta arengandik urrintzen jatzu.

Lauren arteko bide-unea gurpil biko garai-burdi batek artzen eban, leoi egodun baten samara loturik etorrena. Gorantz begira eukazan ego biak erdikoa ta albo bakotxeko iru atzarriak, eguratsa urratzean bat be ez ikutzeko moduan, ainbeste bait ziran nabarmentzen begien mendetik galtzen etzirala. Baiña, egaztia zana beintzat, urrezkoa zan, eta enparaua zuri, gorriz orbandua. Ez diñot onekin Erroma'k Eskipion afrikarra burdi ain bikaiñez omendu ebanik, ezta August bera be, eguzkiaren ederra arenaren ondoan exkasn

izango litzakela baífío; eguzkiarena nuribait, okertzerakoan, Lurrarejn eskariz, sutan jarri zana, Jupiter misteriozki zuzenkor agertu zanean.

Iru emakume etozan dantza-dantzari eskumako gupilla-ren alboan; euroatik bat sutua oso, su-barruan bertan be doi-doi ezagutuko zana; bestea, barriz, aragia ta azurrak esmeraldaz egiñak bai leukozan, eta irugarrenak edur jaisibarria zirudían. Orain emoten eben zuriak zuzenduak, gero su-kolorezkoak eragínda; ta onen abestira, egokitzen eben besteak. euren ibillia, zein ástitsu, zein bizkor. Ezkerretik, lau emakumek dantzan ekioen purpuraz jantzita euretari-ko baten igi-neurkerara; iru begi<sup>4</sup> eukazan onek buruan. Esandako talde onen ondorren, agure zaar bi ikusi nebazan bestelako soiñekoz, baiffa jokera ta ziñutan bardintsuak, txukun ta garrantzitsu. Oneítan batek Ipokrate aundi aren ikasle zala emoten eban, izadiak berari kutunen jakozanetatik bat noski; besteak aurkako egikizun bat erakusten eban ezpata dizditsu ta zorrotz bategaz, niri errekearen besteko aldetik ikusita bíldurra sartu eustana. Beste lau ikusi nitun gero itxura apalekoak, eta guztion atzetik, agure zaar bat bakar-bakarrik lo etorrena, begitarte goi-atgituaz. Eta zazpi oneik leenengo moltzokoak lez jazten ziran; ez eroien, alan be, zitori— xortarik buruan, larrosa ta beste kolorezko loraz egifiak baiño, eta zin-egin zeikean, ain urriñetik begiratu bage, danak eukezala lo-giltzak sutan. Burdia aurrez aurre gelditu jatanean, trumoi-ots izugarria entzun zan, eta jente jainko-zale areik geldi lotu ziran antxe, ibiltea galazo bai litzakien, Ieenengo ikurriñakaz batera.

(1) Elikona, musak bizí diran mendia.

(2) Urania, goitar gauzen musa.

f3) Argo, Merkuri<sup>k</sup> il eban begi askodun mamua.

(4) Oiñarrizko birtutteak.

### XXX KANTUA

Muiña.—*Luneko Paradisua: Zorione agertzen da.—  
Bergili ostondu.—Zortone'k asarre egiten Dante'ri.*

Ortziaren leen-iparraldeak, ez sartzerik, ez jagiterik, pekatuaren ezik beste illun-gandurik ez dakianak, eia an bako txari bere betebearra erakusten eutsona, beeragokoak erakutsi oi dauanez endaitzari eragiten kaira eltzeko, geldí ta tinko geratu zan; aren eta leoi-egodunaren erdira eldu ziran gizaseme santuak, burdirantza biurtu ziran euren bakezko zedarrí ta itura lez, euretatik batek, zeruko mezulari lez, «Veni, sponsa, de Libano» irutan ots-egin eban abestuz, eta beste guztiak aren ondoren. Eta zorionsuak, azken-deian, bizkor jagiko diran lez bako txia bere illobitik, aleluia kantaka birartutako aotsaz, jainkozko burdí gaiñean be, era berean, «ad vocem tantí senis» beti-betiko bizitzako eun zerbitzari ta mezulari jagi ziran. Danak iñoen: «Benedictus que venis» (bedeinkatua zatozan ori), eta, lorak jaurtíz goi ta inguru; «Manibus o date lilis plenis!» (Oi, emon esku beteka Iorak!).

Eguna urratzean ník ikusi izan dot sortaldea zuri-gorri, zeru-gaiñerakoa barriz orkarbí ta bikain; eta eguzkia urteten mosu-illun, eta begiak emetzen eben lurrunen sare artetik luzaro Lkuskatu eikeen; edu orretan, aingeruan eskutik urten eta burdiaren barru-kanpo jausten zirala lorazko odei baten bitartez, emakume bat agertu jatan zapi zuri gaiñean olibuz koroatua, gar bizizko loraz jantzia, soingaiñeko mantu musker baten azpian. Ta nire espirituak, jadanik aren aurrean izuz ikara eragin barik egonak, begiak a ezagutu aal izan baiño leen> aregandiko indar ixuriagaitik, aspaldiko maitasunaren kemen lilluiagarria somatu eban. Neure aurtzarotik urten aurretik menderatu nindun adore garaiak ikusmena zauritu baizen laster, biurtu nintzan ezkerrerantza, mutiko bat bildur danean edo-ta naigabe<sup>2</sup> dagoanean bere amagana arin jo oi dauan lez, Bergili'gana<sup>1</sup> Zuzendu nintzan, esanez:



—Izuaren izuz ipíñi ez jatan odol-pitsik ez jat geratu; ezagutzen ditut aspaldiko garraren ezaugarriak.

Bergili'k orraitíño, bera barik itxi ginduzan; Bergili aita txit samurra, neure onerako emon jatan Bergili. Gure leen-amak galdu eban guztia be, etzan izan naiko nire matrail garbiak loitu ez eitezan malkoz.

—Ez eizu, Dante, Bergili joan jatzulako, negarrik egin oindiño, beste zauri bategaitik negar egin bearra izango dozu-ta.

Ontzi-nagusi bat, beste ontzietan otsein dabillen jentea atzetik aurrera ikertu ta bakotxak bere arazoa zintzo bete daian sustatzen diarduanaren antzera, orrelaxe ikusi neban burdiaren ezkerreko saietsaren gaiñean, emen naitaez ízentatzea dan neure izenaren oiartzunera itzuli nlnztanean, Jeen aingeru-Iora-ganduak estalíta agertu jatan emakumea; ibaia- ren beste aldetik begira neukan. Minerba'ren ostoz ederturik eukan burutik jausten jakon zapiak osoro ikustea galazoten eustan arren, erregiñ jokeraz lagundua, garratz jarraitu eban oindíñokarren, itzik gartsuenak azkenerako gorde oi dauazanaren antzera:

—So eistazu ondo! Neu naz; Zorione nozu egi-egiaz. Zelan uste zenduan, mendtra igoteko duin ziñala? Ez ete zenkian gizona emen doatsu danik?

Ur gardenerantza makurtu nitun begiak; baiña, eurentan neure burua ikusiz, bedarrera zuzendu nintzan: alako lotsaz astundu eban orrek nire bekokia. Ama semeari orrelaxe iruditen jakon zorrofza, a niri iruditu jatan lez; erruki Iatzaren aoko kiratsa nabaitzen bait dau. Ixildu zan emakumea ta bat-batean aingeruak kantari: «In te, Domine, speravi» (zuga, Jauna, dot itxaroten); baiña «pedes meos»-tik etziran igaro. Itali'ko bizkar gajñetan azten diran zugatz artean, edurra aize atzilotuen eragiñera izoztu ta gogortu oi dan lez, eta gero berez lurmentzen, suak argizagia iduri, kerizpe bako lurretik aizea datorkolako, antzeko geratu nintzan ni, ez negar-malkorik ez antsirik bage, zeru-oboan eresi doiñutsuen neurri-airera beti dabesenak kantuz asi aurretír;

baiña gero, ezti ta gozo esandako itzetatik, ulertu nebanean nítaz errukitzen zírala, «Emakume, zergaitik dozu ain gogor artzen?», esan ba'lebe lez; biotza estutzen eustan leia lurrun ta ur biurtu jatan, eta naigabe aunditan urten zan bularretik, aoz ta begiz. Arek, alan be, esan dan burdiaren saiets-gaiñ zutik, espiritu jainko-zaleai zuzendu utsezan bere berbak, esanez:

—Zuok, betiereko egunean zarie jagole; ez gauak ez loak ez dautzue ezkututzen gizaldiak bere bidean emoten ditun oinkadetatik bat bera be; beraz, argiago erantzungo dot an negar dagianak ulertu daidan eta bere erruak eta miñak neurri bardiña izan daíen. Ez bakarrik gero, izaki guzti, laguntzen dautson izarraren indarrari dagokionez, elbururen batera zuzentzen daben borobil aundien egitez, baita Jainko-graziaren oparotasunagaitik be; onek lurrun garaiz bere euria eratzen dau, lurrun orreik ostera gure begiak ezin dabez jadetsi; au bere bizikoa izan zan gaztarooan, eta indar orok artan ondoren arrigarriak ekarriko zituan. Baiña lurra, zenbat eta obe-indartsuago, kaltekorrago ta basatiago biurtu oi da azí txarrez eta landu-ezaz. Aldikada batean, neure aurrean egotez eutsi neutson, eta neure begi gazte<sup>2</sup> so egiten neutsola bide artezetik eroan al izan neban neugaz; baiña neure bigarren adiñaren atadian aurkitu nintzainerako, eta beste bizitzara igaro, arek aaztu ninduan, beste maitasun batzuetara joaz. Aragitik espiritura igon eta ederrean eta onean azi nintzanean, kutun ezagoa ta gogoko ezagoa gertatu nintzakon, eta oker-bidetik zuzendu ebazan bere oiñak, osoan beintzat ezetariko agintzarik bete ez daroen guzurrezko on-irudiai jarraituki.<sup>2</sup> Ez eustan balio argitasunak eskatzeak, ez amesetan ez beste modu batean oles eginik. Ain gitxi eutsoen orreik! Bee-beeraiño jausi bait zan, eziñak ziran dagoneko bide guztiak a onik aterateko, gaiztetsitako jenteak erakus-aztea izan ezik. Beraz, ikertu neban ildakoen atari-aurea, ta onagiño zuzendu dauanari egin neitsozan neure erregu ta malkoak. Jainkoaren erabgi gurenak

ausiko ziran Leteu igaro ta dalako janaria txastatu ba'leu  
negar-malkoz ager-azten dan damu-laiña ordaindu barik.

- (1) Zorione (Teolojia) agertzean, BergiJi (Errazoa) ostendu.
- (2) Dante'k emen, bere bizitzako kezak eta goraberak diñoskuz.

### XXXI KANTUA

Muiña.—*Lurreko Paradisua: Dante'ren aguriza.—Leteu  
ibaian murgiltzen da Danle.—Zorione'ren mirabeak.*

«O zu, ibai sagaratuz bestaldean zagozan orií —asi zan  
barriro be, neugana zirzendurik artez-arte bere jtzak, ule-  
ulean jadanik ain mergstzak iruditu jatazanak; au gaiñera-  
tuz jarraian: «Esan, esan au egia dan; salakuntza ain as-  
tunari autortzak jarraitu bear dautso-ta».

Nire aalmenak guztiz laiño egozan-ta, abotsak urten bai,  
baiña bertatik ebagi zan, itz-atalak jalgiten asi baiño leen.  
Itxaron eban pizkat, eta bota eban ostan:

—Zer darabilzu buruan? Erantzun eidazu, urak ez dau-  
tzuz ba oindiño il zeure gomutapen itunak.

Nasteak eta bildurrak, biak batera, «bai» me-me bat  
atera eusten aotik, bera ulertzeko begien laguntza bear izan  
zanarren. Balestea, beronen aria ta uzaia atezu, tira geiegian  
jarri ezker, apurtu ta geziak bizitasun gitxiagoz zurian emon  
oi dauanez, nik be, era berean, karga ain astunaz abailduta,  
negar-arpulu ta auri-intziritan gaiñez egin neban, abotsa  
bere zear-bidean itorik. Ak orduan esan eustan:

—Ona maite izateko bultz-eragiten eutzuen enekiko gura-  
rien erdian, on au baiño aruntzago ez bait dago ezer nai izan  
leikenik, zer lubaki igaro ezin aurkitu dozu, edo zer katel  
aurrera egiteko itxaropena olan galdu eragin entzuna? Edo-ta

beste zer erreztasun edo obari eskiñia izan jatzun itxuratan, euren inguruan biraka ibilteko?

Intziri mergatza bota ondoren, ozt-oztan euki neban aoan otsa erantzun al izateico, nire ezpanak nekez jarririk ortarako. Negar-zotinka esan neban:

—Aurrean neukazan gauzak bidetik saiestu eusteazan oiñak euren guzur-atsegiñaz, zure arpegia gorde jataneokoxe.

Eta arek:

—Alan ixil-azo alan ulcatu orain autortzen dozuna, nabari-ezago ez litzateke zure errua. Olakoxe epaikari da ori dakiana! Baiña errudunaren aotik autorkuntza entzun ezkeru, gure auzitegian sorbatzaren aurka biurtzen gurrilla.<sup>1</sup> Zeure makurra lotsagarriago izan dakizun, alan be, eta beste iñoizkoren baten, maitagarriak kantari entzutean, kementsuago jokatu daizun, aaiztu eizu zeure negarraren zioa, ta entzun eizu, otoi; orrela jalcingo dozu nire aragi illobiratuak zelan artu-eragin bear eutzun aurkako bidea. Izadiak eta arteak ez eutzuen egundo erakutsi, gordeta egon nintzan soin-atal ederrak baiño atsegin aundiago ekarri daketzun gauzarik, orain lurrean ostendurik dagozanak ain zuzen. Eta atsegin goi-goiko arek uts-egin ba'eutzun neure eriotzaz, zer gauza ilkorrelc erakar leikezun gero zure naikuna? Gauza guzur-tien leen-kolpera gora begiratu bear zenduan, neure atzetik, arek lez ez nintzan-eta. Ez zenduzan egoak eratsi bear, kolpe barrien zain, ez dalako neskatx gazteak, ez beste ezertariko uskeri txatxar laburrak. Bígarrren naiz irugarren kolperaiño itxaron oi dau txatxo ga2teak, baiña lumak azita daulcazarenaren begi aurrean alperrik edatzen dira sareak, edo-ta azkonak jaurtzen.

Lotseak jotako munkoak, mutu ta begiak lurrean, euren oker-egiteak entzun eta ezagutuz, damututa dagozanok lez, orrelaxe nengoan ni be, ta arek egotzi eustan:

—Niri entzunaz orren garbatua za'zagoz, jaso zeure okotza ta damu biziagotan somatuko zara niri begiraturaz.

Mukerkeri gitxiagoz adar-austen da areitz zaintsua, zein ipar-aizeaz naiz Jarba<sup>2</sup> lurraldetik putz-dagiñaz, ník ipiñi ne-

bana baiño, aren aginduz, burua jasotzerakoan, «arpegi» ordez «okotz» esan ebanean, ba, igarri neban aren eztenkada zorrotza. Eta arpegia jaso nebanean, nire begiak konturatu ziran leenengo izaki areik lora-barrariatzea itxi ebela; ta nire argiak, ez ain ziur oindiño, Zorione ikusi eben nor bat bakarrean izate bi alkartzen ebazan izakiarengana biurturik. Aren zapípean, eta bestaldeko ur-egalean, begitandu jatan, bere izatea gaintitzen leen zan bezela, leen lurrean enparauak gaintitu oi ebazan legez. Damuzko asunak ordun zauritzen ninduen gogor be gogor, eta leen maite izandako gauza guztíetatik geien maite nebazanek iguín garrien begitandu jatazan. Biotza gorrikatu eustan neure utsak orren bizi ezagutzeak, eta menderatua lurrera jausi nintzan; orduan zer izan zan nitaz, ortarako bide emon eustanak ondo daki.

Biotzak gero kanpokoz oartzeko sena barriro neugandu ebanean, neure gaffean ikusi neban leen bakarrik aurkitu neban emakumea, au iñostala: «Ora eidazu! Ora eidazu!». Ibaian nengoan samaraiño uretan murgil, eta tiraka berarekin bat ni neroían; ni anazka baizen bizkor nirudian ur gaiñ. Ur-egaletik ur-ur egoaJarik, «Asperges me» entzun neban esaten, osa ezti ta samur, nik orain ez gogoratu ez idatzi ezin dodan erara. Emakume pertxetak begiak edegi zitun, besarkatu eustan burua ta uretan pulunp-azo ninduan nilc ur a txastatzeko bestean. Gero andik atera ta, garbitua, lau emakume eder dantzarien aurrera eroan nindun; oneik, nire gaiñean, bakotxak bere besoa luzatu eben.

«Emen, maitagarri, ta zeruan izar. Zorione mundura jatsi aurretik, aren mirabetzat aukeratuak izan giñean. Aren begi aurrera eroango zaitugu; baiña begi orrein barruan dagozan argí sakonak ikusi aal daizuzan, zureak zorroz tuko dabez an ondoan geien dakusen ango iru areik».<sup>3</sup>

Edu orretan esan eban abeska; ta gero, Zovione gugana biurturlik egoan leoi-bularreraiño eroan ninduen. Eta gaiñeratu eben:

Zure begiak ez beie ezeren bildurrik. Maitagarriak beñola bere geziak erauzi eutzuzan esmeralden aurrean jarri zaftugu,

Milla nai garrak baiño sutsuagoak eroan ebezan nire begiak aren begi dizditsuetara, oraindik leoian tinlco egozaretara. Eguzkia ispilluan lez, ez beste gisan, dizditzten zan izaki bikotea, zein izate onetan, naiz aretan. Gogora, irakurle, egiazko gauzakia aldakaitz iraunik aren irudia aldatzen zala ikustean, oni arrigarri ba'neritxon. Arimea izuz eta pozez gaiñezka nintzala, bazka a gozatzen neban, atsegin aundiz; nire barruan gurari barriak jagiz joiazala, beste iru emakumeak aurreratu ziran, euren jarkean egokien aunditasuna erakutsiz, gotzon-kantuzko doñuan dantzan egiñik.

—Biur, Zorione, biur zeure begi deunak —iñoen arein kantuak— zeure adiskide zintzoagana, zeu ikusteagaitik aibat urrats emon dituagana. Mesedez, eiguzu zeure betartea ari erakusteko grazia, gordeten dautsazun bigaren edertasuna gozatu dagian.

O betiereko argi biziaren dirdira! Nok, Parnaso'ko kerizpetan larutu naiz ango iturritfk edan dabenen artetik, nok ez dau usteko, adimena lausoturik, zu margoztu naita, an agertu zaiakozan letxe, zeruaren litsez ozendua, egurats azkean agiri izan ziñanean?

(1) Autortza ta damuaren auirean, erruki biurtzen zuzena.

(2) Jarba, Numidi'ko eirege izan zana.

(3) Lau erro-birtuteak indartsu ta sakonagoak izango dira teolojizkoak lagunduta.

## XXXII KANTUA

Muiña.—*Lurreko Paradhua; Ikur zugatza.*—Arranoa.—*Azeria ta dragoia.*—*Burdia mamu biurtzen.*—*Emagaldua ta erraldoia.*

Alaxe egozan nire beigak, geldi ta adi, amar urteko egarria ilteko; beste zentzunak lo-zorrotuta neukazan, ta anemen oztopeak aurkitu eroiezan aspaldido sareakaz beregana erakarten ebazan edertasun dizditsua besterik ez ikusteko. Baiña naitaez biurtu bear izan neban arpegia neure ezker-aldera, jainkosa arei au esaten entzun bitartean: «Adiegi begiratzen dozu!» eta begietan eguzkiak jotzen dabenean nabari izaten dan lausotasunak ikuste barik itxi ninduan zati baten. Baiña gero, dizdizera txikian nire begirakunea barriro be gaitu zanean (eta «txikia» diñot indarrez baztertu bear izan neban askoz aundiagoaz bardindurik), aintzazko lagunaldrea eskumarantza biurtu zala ikusi neban, dagoneko eguzkiaren argiak eta zazpi garrenak arpegian emoten eutsela.

Ezkutuen menpeko gudarí-talde bati tokia aske itxi oi jakonez eta onek, ikurrina aurrenen dala, zuzenbidea osorik aldatu baiño leen, bira emon oi dauanez, aurrera joian zeru-erreñuko gudarozte arek be, aurrera ibilli zan oso burdiak burtagari bira emon aurretik. Burpillen ondora jo eben emakumeak, eta leoiak dardar eragin burdi doneari luma bat be irabiotzen etzala. Ni ugarrizatik giatu ninduan emakume ederra, Estazi ta ni burpillaren atzetik giñoiazan, eta onek itzulia egitean inguru pitiñagoa marraztu eban. Oian zabala olan zearkaturik, oian utsa nunbait<sup>1</sup> sugeari siñistu eutsonaren erruz, aingeruen alako eresi-soiñura neurtzen nebazan nik oiñak,

Iru tirotan bear bada erauzitako gezi batek egiten dau guk aurrerantz burutu gendun bide-arloa, Zorione jatsi zanean. Guztiai «Adan» mormor egiten entzun neutsen; gero orri barik eta adarretan berdetasunez erantzia egoan zugatz bat inguratu eben. Zugatz onen adaburua gora ta zabalago jatzun, inditarrak be euren oianetan miretsia izango nunbait, goitasun ikaragarria zan-eta.

—Onetsia zu, Jeoi ori, zeure mokoz ezer be enbor oni kentzen ez dautsazulako, naiz-ta aorako gozagarri izan, beronen farututik janaritu zana gatxera makurazten danetik.

Zugatz sendoaren biran, olantxe oi ugin euskuen danak, eta izate bidun abereak erantzun:

—Era onetan iraun-azten da zuzentasun osoaren er-nemiña.

Eta leen thatu eban endaitzera biurtuz, orpo alargun<sup>a</sup> baten oiñeraiño eroan eban, egur bat besteari lotuta itxiaz.

Gure landarak, zeru-araiñen ostean dizdíz dagian aregaz nastutako argi aundia gaiñera jausten jakenean, puzkor eta urten biurtu oi jatzuz, gero bakoxtak bere kolorea artuz; eguzkiak bere zaldiak bildu orduko beste izar baten azpian, larrosa bioleta arteko margoz apaindurík, barriztatua geratu zan leen adarrak ain billosik eukazan zugatz a. Ez neban nik, aditu jente arek orduan abestu eban ereserkia, ezta ezin izan neban eresiareen doiñua osorik entzun be. Adierazo ba'nengi zelan logaletu zíran begi errukarriak Siringa'z mintzatzen entzukan, zaingoan egotea ain garesti izan jaken begi arei, ereduz marraztu oi dauan margolariaren antzeko irudituko neuke zelan loguratu nintzan neu be; baiña iñok ez leuke antz-irudituko loa, Beraz, itxartu nintzanekora nator, eta dirdai batek urratu eustala difiot loaren zapia, ta dei bat: «Jagi zaitez. Zer egiten dozu?».

Sagar-ondoaren loratxoak ikustean, aingeruai zeruan bere frutua opa eragiñik eztegu-jaiak iraun-azoten dautsela. Kepa, Jon eta Jakobo menderaturik jausi ziran eta konortera itzuli lo sakonagoak eten ebazan itzak entzutean; baiña euren laguntaldea gitxitua, Moise ta Elia barik, eta Matsna soin-gaiñekoz aldatua, aurkitu ziran; orrelaxe ni be: neure gaiñ makurtua aurretik nire oiñak ibaian zear zuzendu zituan emakume done a, ta zalantzaz beterik itandu neban:

—Nun dago Zorione?

Arek jardetsi eustan:

—Ikus egizu an, ostotza barripean, zugatzaren sustrai gaiñ jarrita. Lagun-taldea dauka inguruan: besteak gorantza doaz leoiaren atzetik, kantu gozo sakonagoak abestuz.



Eta beste ezer esan eustanik, ez dakit, begi aurrean neukan-eta beste ezeri begitua jartea galazoten eustan. Bakarbakarrik egoan, lur soillean apatx, itxura biko piztiari lotuta ikusi neban burdiaren jagole lez an itxia. Onen inguruan esilodia osotzen eben zazpi maítagarriak, ípar naiz ego-aizez seguru egozan argi areik eskuetan ebezala.

—Aldi laburrean biziko zara oian onetan, eta neugaz batera beti-beti uritar izango zara, Kristo erromar dan Erroma aretan, Orixegaitik, txarto bizi dan munduaren onerako, josi eguziz begiak burdian, eta ikusi dagizuna idatz egizu ara biurtu zaitezanean.

Olaxe itz-egin eban Zorione'k, eta nik, itzez itz aren esanera nengoan onek, arek opa lekurantza biurtu nebazan neure adimena ta begiak.

Egundo ezta bizkorrago jatsi iñestua, euria eratzan dan muga urriñeko odei goibeletik, nik Jupiter'en egaztia ikusi neban lez zugatzean beera, azala urratzen eutsola, baiña ikuririk egiteke lorai ta osto barriai. Bere indar guztiz jo eban burdia, ekaitz-aldian ontzia, uñen mende, bai ezker-saiets eta bai eskui-saiets zabutzen dan lez, makur-azirik.<sup>3</sup> Gero ikusi nebanez, jan onez barau zan azeri-eme bat garaitburdiaren seaskara egotzi zan; baiña, bere erru ezaiñakaitik, ernakume maiteak igesean ipiñi eban laster, eukazan azur me-gorriak al eben bestean. Gero, etorri zan bide bertatik, arranoa ikusi neban jasten burdi-aren oatzera, berau bere lumaz estalduta itxirik; eta alarauka dagoan biotzetik lez, abotsa urten zan zerutik, esanez: «Ai, ene ontzitxo! , karga txarra daroazu!».

Orduan lurra erdibitzen zaia iruditu jatan gurpil biren artean; dragoi bat agertu zan bertatik, buztana burdian josi ebana, eta eztena baztertzen dauan erlabioren antzo, isats pozoitsua alderatzean, ondarreko zati bat beragaz eroan eban, andik ona ibillia narras eroiala. Burdiari geratu jakon apurra, lur emokorra bedar zeez estaldu oi danez, lumaz estaldu zan, asmo on egokiz bear bada eskínitakoz, eta gurpil bata ta bestea ta iguna estaldurik geratu ziran, ao edegitik urte-

ten diran intziriak iraun daroan baiño une laburragoan. Etxe donea olan itxur-aldaturik, buruan agertu ziran bere alderdi batzutatik, iru.igun gaiñean eta bat ertz baktotxean. Idiak lez adardunak ziran leenengoak, baiña beste laurak adar bat barkarra eukien bekokian. Etzan iñoiz ikusi izan alako raamurik.

Mendi-erpiñean torrea baizen segnru ikusi neban, baita, emagaldu lotsabakoa, biran begiratzeko beti gertu. Eta aren jabe ta nagusi iñor egin ez eiten, erraldoi bat ikusi neban ondoan zutik, eta onegaz mosukatzen zan aldian batez. Arek, baiña, bere begirakun alderrai bízia nigana biurtu ebalako, maitale anker arek emakumea burutik oiñetara iñarrosi eban, eta gero, sumin saierrez betea, orduko itxura barik egoan burdia askatu ta basarte zear narrastu eban; olan ezkutatu eustazan emagaldua ta pizti barria.

(1) **Lurreko Paradisuan ez da iñor dizi, txerrenak Eba atzipetu eban ezker.**

(2) **Onaren eta txairaren zientzi-zugatza.**

(3) **Jupiter'en egaztia (arranoa), Eleizea jazartu eben Erroma'ko agimarien ikurra dozu.**

### XXXIII KANTUA

Muiña.—*Lurreko Paradisua: Zorione'ren iragarpen.—Bosteun eta amahosta.—Dante'ren azken-garhiketa.—Eunoe ibaia.*

Emakumak, zotinka, «Deus, venerunt gentes» salmu-erresi leuna asi eben txandaka abesruz, orain irurak eta orain laurak. Zorione'k errukior inkesa egiñez, oso jausia entzuten eutsen, gurutz-oiñean Maria'ri bestelakotu jakon baino be zerbait gitxiagoko arpegikeraz. Beste gizkarbiak, baiña,

Jeku emon eutsoen berba egin egian; zutik, erantzun eban \*ua baizen ixetua:

—«Modicum, et non videbitis me: et iterum», (pizkat, eta ez nozue ikusiko), ene aizta laztanok. «Modicum, et vos videbitis me» (pizkat, eta ikusiko nozue). Azkenez, zazpiren buru jarri zan eta atzetik, aren esku-kiñura, mugitu giñan ni ta gugaz geratu ziran emakumea ta jakintsua. Olan giñoiazan, eta amar oinkada ez dot uste lur gaiñ aretan emon ginduzanik, arek bere begiak neuretan josirik, betarte alaiz, esan eustanean:

—Zatoz ariñago, itz ba'dagitzut, entzuteko prest egon zakidazan.

Eta egokidanez, bere ondoratu nintzanean, jarraitu eban:

—Neba, zergaitik ez daustazu itaunik egiten, neugaz zatozala?

Nagusiari begirune aundia izanik, beragaz berba egitera koan, abotsa ez jake agiñetara eltzen; orrela jazo jatan niri be, ta me-me, tirli-tarlo asi nintzan:

—Andera, zuk ezagun dituzu nire bearkunak, baita eurai egoki jakena be.

Erantzun eustan:

—Bildur ori ta lotsa ori erantzi daizuzala gura dot aurrerantzean, eta ez itz-egtn lo dagoanak lez. Ba-dakizu, sugeak apurtu eban elontzia izan zala ta geroztik ez dala, baiña errua daukanak uste dau Jainkoaren zigorrak ez dauala iruzurren bildurrik. Ez da beti egongo oiñordelto barik lumak burdian itxi ebazan arranoa, leenengo mamu ta gero arrapakin egiñik; argi dakust nik ori, ta orixegaitik diñotzut, dagoneko ur samar dabiltzan izarrak, zoztor eta eragozpen guztitik seguru danetik ur; beta orretan bosteun, amar eta bost batek, Jainkoak bialduta, ilgo dau emagalduta ta onegaz oben dagian erraJdoia. Níre berba illunak, Temi ta Esfinge' renak lez, etzaitue zurituko, areiñenak lez bada lausotu egin oi dabe adimena; baiña egiñenak laster izango dira Naiade' nak lakuak, igarkai zail onen aria abereai ta laboreai kalte-

rik ekarri bage, askatu dabenak. Saia zaitez, ta itzok dirautzudazan lez irakatsi ba'dagiezuz eriotzara zuzen daroan bidez dabiltzanai, idazten dozuzanean, begi aurrean eukí egizu ta ez estaldu zelan ikusi dozun emen birritan erantzitako zugatza. Berau ostu naiz eranzten dauan edonok, Jainkoa iraintzen dau egitezko birauaz, sagaratua sortu bait eban bera erabilteko bakar-bakarrik. Ari agiñak ezarteko, naigabez ta gurariz bost milla urte ta geiago itxaron bear izan eban lenengo arimeak, aokadaa bere-beregan zigort-azo ebanak. Lx>tan dago zure adimena on-eresten ez ba'daki zergaitik dan zugatza ain garaia ta orren zabala bere adaburuan. Eta suster bako pentsamentuak lan egin ez ba'lebe zure adiñean Elas'ko urak lez eta aren atsegiñak itxi ez ba'zinduz Piramo lez martzuka-ondo aurrean, ainbat zeaztasunek eragínda ezaguko zeunkean Jainkoaren zuzenbidea, zugatzari dagokion debekuan ain zuzen. Baiña, zure adimena arri egiñik dakusdan ezkerro, ta ez bakarrik arri biurtua, baita lausotua be, nik esanak itsutu ta zorabiotzen zaituelarik, eurok gura dot beinik-bein, idatzirik ezta be, margozturik beintzat, eroan daizuzala zeure barruan, palmaz korokuriko bordoia eroaten dan legez.<sup>1</sup>

Nik erantzun:

—Seilluaren argizariak bertan irartzen dan irudia aldatzen ez dauanez, josita daroat zurea neure buru-muiñean. Alan eta guzti be, zergaitik doa elmenetik urrun zure itz irrikatua, aleginduago ta gitxiago ulertzen dana?

—Jarraitu dozun eskola a ezagutu daizun —esan eban— eta ikusi daizun aren dotriña zelan ibilli daiteken nire itzai jarraika, ta konturatu zaitezzen zuen bidetik jainkozkora lurretik goren bira dagian zeruraino beste bide-arlo dagoala.

Orduan nik jardetsi:

—Ez naz gogoratzen iñoiz zugandik alderatu nazanik; orrek ez daust kezkarik sortzen.

—Izan be zuk ezin zeinke gogoratu —arek niri par-irrika—; gogora zaitez, alan be, Leteu'n edan dozula; ketik atera oi dogunez suaren aztarna, aaztutze onetan argi ta on-

dorioz dator zure naimenean ba-zala errurik, beste zer batzuJe urduritzen ebelako. Aurrerantzean, baiña, uts-utsak izango dira rjire itzak, zure ulermen baldarrari eurak azaltzeko egoki jakozanak.

Eguzkiak diztíatsua go ta urratsa geldia goz jaristen eban eguerdi-aldeko ínguruua, an ta emen, osertza zelan alantxe aldatzen dana, bidean barriren naiz oíñatz-aztarnaren bat aurkitzerakoan, gudaroztearen buru doazanak geratzen diran lez, zazpi emakumak be gerizpe illun-uspel baten azkenean, Alpes'ko erreka zto izoztu gain ikusten dan lez orri berde ta adar baltizka azpietan. Aurrean, Eufrate ta Tigri ikusten nebazale begitandu jatan iturri batetik urteten eta, adiskide lez, banantzen astiro astiro.

—O argi! O giza-leiñuaren ospel! Zer ur da au emen asiera bardiñetik sortu ta gero bereiztuz doana?

Itaun ontara erantzun:

—Eska MatildeVi,<sup>2</sup> azal daizun.

Ari au askatu eban, erru guztitik jaregin nai dauanaren antzera, emakume ederrak:

—Au ta beste gauzarik asko adierazo dautzudaz onezke-ro; eta ziur nago Leteu'ko urak ez dautsazuzala aaztuten itxi.

Zorione'k gaiñeratu:

—Bear bada, gogoia illun-azoten, sarri, dauan ardura aundiagoren batek, lausotu egin dautsoz adimen-begiak. Baiña ikus Eunoie, andik datorrena. Eroaizu arengana ta, oi dozu-nez, bizkor eizu onen biotz erdi-illa.

Aiko-maikotan ez dabillen arima sotilla iduci, besteen naia bere egin daroanaren antzera, edozeín zantzuz adierazo oi dan baizen bizkor, aren ondo ipiñi nintzane koxe, emakume eder a ibiltzen asi zan, eta Estazi'ri ponpoxki esan eutson:

—Erdu beragaz.

Idazteko une gei ago ba'neu, irakurle, edestuko neuke zati bat beintzat, iñoiz aseko ez nindukean edari gozoa; baiña bigarren zati oni dagokiozan orri guztiak beteta dagozanez gero, ez daust izten urriñago joaten artearen galgeak.

Barriztua biurtu nintzan ur-txango done aretatik, kimu barriz jazten díran landarak lez, garbitua ta izarretara igoteko gertu.

(1) Tokí Santuatarra erromes doazanak, olantxe daroez euren bordoiak.

(2) MatíJde emakumearen izenak, ERzari izan bear dautsogun atxikitasuna adierazten dau.



# PARADISUA





Aurrera doa Dante, Zorione'k eskutik dauala oratn. Lurreko paradisutik zerukora zapart dagi, egi-egiazko Paradisura, jakiña. Bide-erakusle zintzoaren laguntzaz bederatzi zeruak igarotzen; borobil argi ta gardenak dira oneik, eta euron gainean dago tinko, eder, zoragarri Jaungoiko berberaren egoitza. Onen ingurumari dagoz gero zeruko jerarki ta nagusitzak, eta zoriontsuen larrosa, gauza guztien egille dan Jaunak berak zuzenean argituta.

Zirkin dagien zeruak bata-bestearen biran dabiltz inguruka, ortzi-borobil moltzo ederra egiñik, eta onek bere alde tik lurraren inguruan bira dagi. Zeruko gorputzak lurretik urriñago ta ariñago bira egiten dabe. Arima zoriontsu guztiak zeru goi-goian bizi dira, baiña txandaka lez datoz olerkariaren aurrera, Zorione aurretik daukala, maillaz zerurantz gora igoten dauan bitartean; betiko zorionera zelan igoten dan erakutsi nai dautso Zorione'k.

Bederatzi zeruak, oneik dira; Illargiaren zerua {lenen gotik laugarren kanturd), Merkuri'ren zerua {bostgarrenetik zazpigarren kantura), Venus'en zerua {zortzigarrenetik bederatzigarren kanturd), Eguzkiaren zerua {amargarrenetik amairugarren kantura), Marte'ren zerua {amazortzigarrenetik ogeigarren kantura), Saturno'ren zerua {ogetabatgarrenetik ogetaseigarren kantura), izar tinkoen zerua {ogetairugarrenetik ogetaseigarrert kantura), eta len-igikorra, edo kristal zerua {ogetazazpigarrenetik ogetabederatzigarren kantura).

Zeru-goi-goian daukagu Jainkoa, bederatzi aingeru oboz inguratua ta arima doatsuak argiz asetzen ditularik. Alngerruen maillak dakarskuz ogetamargarrenetik ogetamairugarren kantuetan. Auxe dozu Dante'ren Jainko-Antzerkia.

## I KANTUA

Muiña.—*Atsedentegi edo Paradisuaren ataurrea.*—*Adirezpena.*—*Oles-deia.*—*Suzko borobillera igotea.* *Gaudiaren ego-kitasuna.*

Gaudian zear zabaltzen da danari zirkin daragion Aren aintza, eta dizdiz dagi emen geiago, an gitxiago. Argia gogorren artzen dauan zeruan egon nintzan, eta andik jasten danak, ez jakin ez esan, ezin daitekezan gauzak ikusi nebazan; gure adimena berak nai dauanera urreratzean, sakon bai sakon barrentzen da-ta, gomutamenak ezin dautso jarraitu. Nire ulermenak, alan be, erreñu doneaz batu ta altxortu al izan dabezan zerak izango dira orain nire kantua-ren gai.

Oi Apol on! Azken-lan onetarako bíur naizu ontzi bete zeure kemenez, zeuk eskatu oi dozun gisa ereiñotz maitea merezi izateko. Parnasoko tontor batez izan jat naiko oraiñarte; oraíndik, baiña> biak jataz bearrezko, ibilteko gertzen jatanean sar aal izateko. Zatoz nire kolkora eta oiuka nire aoz Marsia soín-ataletako zerukatik atera zenduanean legez. Oi jaiakozko kemen! Lagun ba'dagidazu neure adimenean irarrita daukadan erreñu donearen itzalño bat adie razo daikedan neurriz, zure zugaitz txit laztanera eldu ta osto areikaz koroítzen ikusiko nozu orduan, orrelakoxe bait da darabildan gaia ta 2uk egingo nozu ortarako duin. Ori, aita, kaisar edo olerkari Jez garaille izateko, guztiz gitxitan lortu oi da, giza-naimenaren erruz ta lotsaz nunbait; delfikar jaikotasun geldí jabalean zorion alaia ixuri leikena bait da peneuar zugaitzaren orritza, iñok berau jadetsi naia barnean somatzerakoan. Txingar pitiñak sugar aundia ixioten. Nire ondoren bear bada, abots obeakaz, otoiztuko da Zirra'k<sup>l</sup> erantzun daian.

Bestelako unetatilc eltzen jake jikorraí munduko argontziaren diztira, baiña Iau obo iru gurutzetan alkartu daroazan agandik datorrenean, ibilli obez eta izar obarekin egiten

dau bere urteera, ta munduko argizaria \* bere modu obero ikurtu ta gírotzen dau. Eginda eukazan, andik urtenaz, an eguna ta emen gaba, ta alderdi ia guzti a dagoneko zuri egoan eta aurkako alderdia baltz Zorione ezkererantza biur-tu ta adí-adí eguzkiari soka ikusi nebanean, erne-erne be-gira bai arranoak berak ain tinko begíratzen ez dauan erara. Eta bigarren tximista leenengotik urten eta islatua gorantza doan lez, atzera bíurtu naf dauan erromesaren antzera, aren egintzaren eragiñez, begiz neure adimeneraiño eroana, neu-rea sortu zan eta eguzkian josi nebazan begiak, guk egin oi dogunetik bestera ain zuzen. An asko da laketua emen gure aalmenai izten ez jakezenetatik, toki a giza-endaren pentzutara sort-azoa izan bait zan.

Ezin izan neutson begiratuari eutsi ez asko ez gitxi in-gurumari ditzirarik ikusi bage; sutatik urten burdin goriar-ren antzera ziran, eta bat-batetan agiri izan zan egun bat beste bati erantzi ba'litzakio lez, dana al dauan Arek beste eguzki batez jantzi ba'leu lez zerua. Zorione betiereko boro-billetan begiak zoli zirauan, eta nik aregan jarten nebazan neureak, goi-aldeetik eratxita. A ikuskatuz, itxura aldatu nin-rzan baruz, Glauko<sup>3</sup> lez edo, itxasoan jainkoen Jagun egin eban bedarra gozartzean. Itzez ezin daiteke adierazo giza-aldatzea; naikoa bedi, beraz, graziak olako experientzia emon izan dautsen arein erakutsiaz.

Zuk leenengo sortu zenduan nire zatia bakarrik ba'nin-tzan, oi zerua darabiltzun maitasuna! , zuk dakizu, zeure argiaz ni jaso ninduzun orrek. Gurpillak beti-betikoz opa iza-nik bereganatzen ninduanean, zuk neurt-azo ta banatu oi dozun alkar-aitze ta egokitasunaz, irudi izan jatan orduan alako 2eru-alderdi a egnztiaren txingarrez ixetzen zala, ez euriak ez ibaiak iñoiz antolatu izan ez daben zingira itzala egiñik. Doiñuaren barritasunak eta ditzira eskerga aren zer-gaitia ezagutzeko gogo bizian sartu ninduan, aurretik ain zorrotz beiñik-bein nik egundo somatu ez nebana; arek, be-raz, neuk bezelaxe neugan ikusten ebanak, nire gurari naa-sia baketzeko, nik itandu baiño leen, bere aoa edegi ta ber-baz aidieraro eustan:

—Zeuzerori itsu-erazten zara sasi-asmakizunetan, ezetsi ba'zenduzan ikusiko zeunkena ez ikusteraíño itsuturik ain zuzen. Ez zagoz lurrean, zuk alan uste izanik be; tximistea, bere maillatik igeska, ez dabil zu baizen azkar, ona igotean.

Leenengo ezbaia aienatu ba'jatan be, itz labur maitekot aret esker, beste barri latzago baten saretua aurkitu nintzan, eta jalgi neban:

—Pozik nengoke dagoneko, arrimen aundi atatik aske; baiña orain miretsiz nago, zelan jagiten nazan gorputz utsaren urrengo onein gaiñ.

Zorione'k augaitik, deunki atsa artuaz, eta bere begiak niganantz biurturik, amak semearen biurrikerien aurrean ipiñi oi dauan arpegikeraz, jardetsi eban:

—Gauza guztiak, eurengean eta euren artean, egokitasun bati erantzuten dautse eta auxe dozu gaudia Jainkoaren antzeko egiten dauana. Ementxe dakuse izate jagia daben izakiak betiereko jakituriaren aztarrena, ta elburu onetarakoxe egiña da aitaturiko legez. Diñodan egokitasunera izaera guzttkoak doaz gitxi-asko, bestelako eran jakiña, euren jatorritik urrago edo urriñago dagozan einen; orixegaitik, askotariko tokietara igitzen dira izatearen itxaso zabalean zear, eta bako txari emon izan jako zuzen-azten dauan sena. Onek illargirantz daroa sua, ilkorren biotzaren eragille dozn, lurra estuturik beregan batu dagiana. Era adimenik eztaben izakiak ez-ezik, adimenez eta maitasunez jantziak be uztai onen barruan dagoz. Guztia eratu dauan Jainkoaren ardura errimeak bere argiz baretzen dau zerua, zer ibilkoirik ibilkoiena be dantzari dala. Arantza garoaz orain, aurretiaz erabagia danez, erauzten dauan guztiñ zorionezko jomugara zuzendu dagi ari aren indarrak. Egia da, ertian azala asmoaz bat ez datorren lez, gorra bait da gaia entzuteko, izakia be era berean aldendu egin oi da bear bada bide ontatik, olan buhzatua dalarik be, badau ala beste leku baterantza okertzeko (odei baterik sua jausten ikusi naitekenez ain zuzen), len-bultzadea guzurrezko atsegin.batek oker-azoa baldin bada. Ez dozu geiago arritu bearrik, ziurrean ba'nago, zeure igotez, mendi baten tonto-

rretik bere oiñera jatsiz doan erreka batez aiña. Arrigarria izango litzakizun, ezeren eragozpen bage, bean jarri ba'ziña, su bizia geldi lurrari josia egotea miresgarri litzaken bezela.

Au esanez, zerurantz jaso ebazan begiak,

- (1) Apol, tokiágaitik.
- (2) Egu2kia.
- (3) Glauko arrantzalea, itxas-jainko egiña.

## II KANTUA

Muiña.—*Bigarren zerua, ots, illargia.—Garbitasun-agintzaria ausi ebenak.—Jrakurleai oarkizun.—Leen-zerura igoe-ra.—Illargiaren orbanak.—Zeruen eragiñak.*

O zuok, ontziska txikian, niri entzun nairik, ur-gaiñ kantari doan nire ontziaren atzetik zatozenok, bir-itzul zeuen ondartzak ikustera! Etzaitetze sar itxaso zabalean, ni galdurik ba, bear bada, bidea galduta geratuko ziñakeze. Ni igarotzera noan ura ez da egundo be zearkatua izan. Minerba'k goi-argitzen nau ni ta Apol'ek zuzentzen eta bedaratziz musak zazpi Izarrak erakusten. Zuok, aingeruen ogirantz arpegia sasoiz jaso zenduen apurrok, emen bizi baita ogi orrekin iñoiz be geiegi estutu bage, sar zaitkeze itxaso zabalean zeuon ontziaz, neure ugarari jarraitzeko zure ugara orren ostetik ura barriro zarratzen baita. Kolko'ra<sup>1</sup> igaro ziran aintzaz beteriko gizaseme gurenak etziran zuek beste zurtuta geratu, Jason ikusi ebenean baizain biurturik.

Jainko-antzeko erreñuaren egarriak, berezko ta betiereko danak, bultzatzen gaitu zerua zirkinlca dakusazuen abia da ia-ia bardiñaz. Zorionelc goian eukazan begiak eta nik ari begiratzen neutson, eta gezi batek bear bada, erauzia dalarik, egaz zurian emoteko iraun oi dauan aldian ikusi neban nik neure burua, begiak beragandu zituan zer arri-

garri batera eroana; ak orixegaitik, nire naia gorderik euki ezinda,, neugana biurtuz, irribarts baizen eder, au esan eustan:

—Zuzen zeure adimena Jainkoagantz eskertsu. Arek bai gaitu aldatu leenengo izarrera.

Odei argitsu, lodi, tinko ta ziratu batek estali ginduza-la iruditu jatan, eguzkiak zauritutako diamante batek lez. Bere barruan artu ginduzan betiereko arripitxiak, urak argizpia bezela, allcarturik iraunaz. Ni gorputza izanik emen ezta ulertzen zelan neurrikera batek barruan artu leiken beste bat eta zelan barrendu leiken gorputz bat beste batekin; onek ixia gotu egin bear leuskigu gure izatea ta Jainkoarena alkar-batu dirala dakigulakoa ikusteko guraria. An ikusiko da fedez siñisten doguna, egiztatu barik be txít argi egiten jakuna, gizonak onartu oi dauazan leen-egi nabariak lez. Nik erantzun neutson:

—Andera: ondo-naiez beterik biotza, eskerrak damotsadaz mundu ilkorretik aldendu nauan Ari. Baiña esaidazu: zer ditut borobil onek daukazan orban illunak, an beian, lurrean batzuk, Kain'ez alegiak<sup>2</sup> edestera bultzatu oi dabezanak?

Ak irripar ariña erakutsi eban, ordoren esanez:

—Ikorren eretxia oker baldin ba'dabil zentzunen giltzak edegi ezin datsozanari buruz, onezkero ez leuskizue egi-egiaz ziztatu bear arrimenaren azkonak, ba dakizu-ta, errazoiak, gauza sentikorren atzetik ba'doa, ego guztiz motzak ditula. Esaidazu, alan be, zuk zer uste dozun gai oni dagokionez.

Erantzun neutsan:

—Emen goian aparteko itxuraz iduritzen jatana, uste dot, gorputz miaztu ta tringuetatik datorrena dala.

Ak jardetsi eustan:

—Ziurtasun osoaz ikusiko dozu guzurraren gaiñean oiñarritzen dala zure siñiskera, emongo dautzudazan kontrako errazoiak ondo entzuten ba'daustazuz. Izar asko erakusten dautzuz zortzigarren borobillak, eta izarrok zelakoan eta zen-

batean bestelako itxurak agertu daroetz. Miaztasunak edo tringutasunak olako zera lortu ba legie, kemen bardiña ie-goke guztietan neurri gitxiago edo geieagoz bananduta. Itxurazko oiñarrien frutua izan bear dabe bestelako kemenak, eta oneik, bat ezik, zure errazoiketari jarraituz, suntsiturik geratuko litzakez. Beste aldetik, zuk itanduten dozun orbanak dakazana miaztesúna ba'litz, izarbel au alderdi batetik edo bestetik bere gaiez barau egongo litzateke, edo-ta, gize-na ta giarra gai batek erdibanatzen dituan lez, au be olaxe bere larrantzean arri aldakorretan eraturik egongo litzateke. Leenengo kasuan, eguzkiaren illun-aldietan nabari izango litzateke, argiak beste edozein gorputz miaztutako lez igaroko leuke-ta. Ezta au orrela; baiña beste dalakoa be ikusi bear dogu, eta orrek be suntsitu daroala ba'dakusgu, zure eritxiaren guzurrezkoa egítaturik geratuko da. Miaztasun au alde batetik bestera ez dala igaroten jazo ba'ledi, bere aurkakoak argiari igaroten izten ez dautsan uneren baten amaitu bear dau, eta beste izpiak orduan andik dizdiz egingo dau, kolorea atzetik estaiñuz estalduta legoken leiarrean diztiratzen dan legez. Baiña orain esango dozu: argi-izpia emen, sakontasun aundiagotik zeartua dalako, beste zati-une batzuetan baiño illunago dagola. Experientzi onek aska zagikez erantzun onetatik, iñoizkoren baten berau egiten saia ba'zendiz, zuen ertietan ibaien sorburu izan oi dana. Ar eizuz iru ispillu, jar eurotatik bt zeugandik distantzi bardiñera ta bestea atzerago, ta jarri zeure begiak lenengo bietan. Arei begira, egizu argi bat dagoala zeure sorbaldan, iru ispilluak argitzen dabezana, eta iruretatik, islatua, zeugana datorrena. Níaz-ta indarra edo zolitasuna urriñengo izpian ainbestekoa ez izan, konturatuko zara irurak bardin diztiratzen dabela. Erabat, izpi beroen eragiñez edurra eratzen dauan gaia billosik geratzen dan lez, leen eukan kolore ta giro barik ain zuzen, bardin jazoko da zure adimenaz be; berau argitu nai dautzut bere dirdizeraz barrenduko zaitun argi guztiz biziáz. Jainkozko bakearen zeru barne gorputz betak<sup>3</sup> jirabira dagi aren indarrean dazta bere mamin-barru osoko izatearen errazoia. Urrengo ze-

rua, ainbat ízar daukazana, izate arek banatzen dau, beragandik ez-bardiñak diran.izan askotan, baiffa berak barne artzen ditunak. Beste zeruak, euren ez-bardintusunakaz, bako txak antolatzen dau beragan daukan adore-indarrez, bako txak dauan elburuz ta eragiñez. Lurbirako jardunkin oneik, ikusí daikezunez, olantxe doaz maillaz mailla, goikoetatik artuz beekoei bialtzen dautsen adore ta indarta. Zagoz zur, ta ikus zelan noian zuk opa dozun egirantza errazoiketa onein bitartez, gero zeuk bakarrik jakin dagizun arenganaiño eltzen. Inguru sagaratuen igiera ta indarra, errementariarentzat mailluaren ertia lez, bulzkai zori ontsuetatik dator; eta ainbat argík edertzen dauazan zeruak, berau igitu daroan adimen zorrotz sakonetik attzen dau iduria ta bere ikur biurtzen. Eta arimeak, zeuon auts barruan, soin-ataJ askori askotariko indarra emon daroatsen lez, adimenak be era berean zabal-azten dau bere ontasuna izarrez ugarituta koa, bere betetasun gaiñ biraka. Era askotara alkartzen da aren kemena bizia damotsen gorputz bikaiñetan, euretan ixuriz zuengan bizia legez. Adore orrek, etorritz datorren leiñu zorionsuarren, gorputzakaz nastauta, ñirnir dagi izaki bizidunen begi-niníetan alaitasunak legez. Ortik datoz ondoren argitik argirako bardin-ezak, ez tringutik edo-ta miaz tutik. Bera da era-oiñarria, bere ontasunari dagokionez, illunaren eta ergiaren egille.

- (1) Avgonautak, Kolko'n. arrituta, Jason beizain ikusirik.
- (2) Egurats lodiagoagaitik zirala, uste zan.
- (3) Leenengo buhkaia.

### III KANTUA

Muiña: *Leenengo zerua, ots, illargiarena.*<sup>^</sup>*-Garbitasunaren eskintzaria austen dabenak.*—*Zortontsuen ikuskaria.*—*Piccarda Donaii.*—*Zorionsunaren maillak.*—*Konstanza Kaisar-andrea.*



Eguzki arek, nire biotza lendanez maitasunean ixiotu ebanak (Zorionelc), egi eder baten taiu samurra agert-erazo eustan, erakutsiz eta jardetsiz, eta nik, dagokidan neurri ta maillan autortn ta zurutua egin naian, burua jaso neban argiro itz egiteko, baiña ikuskari bat agertu jatan, neure autorkuntzaz aztuteraiño bera artukeran erakar ninduana. Leiar garden garbiak edo-ta ur aratz bareak, baiña ez sakonegi ta ondarra illun eukiterañoakoak, gure arpegikeratik ertz-inguruak aul-aul diztiratu oi dabezanak, bekoki zurian arripitxi bat ez litzateke geure begiakaz ikusteko gatxago ízango; era orretan ikusi nebazan nilc arpegi asko itz egiteko gertu. Orixegaitik, gizonaren eta iturriaren arteko —Narziso— maitasuna biztu ebanaren aurkako obenean jausi nintzan.

Areikaz konturatu baizen laster, ispilluetan diztiraturiko arpegiak zirala uste izanik, atzera biurtu nitun begiak noranak ete ziran jakin naieaii eta ez neban ezer ikusi, eta barrero aurrerantz itzuli ta adi-adi jarri nebazan neure gidari gozoaren begi santuetan írribartsu ñirñir egian erlantzean.

—Ez zaitetz arritu —esan eustan—, zure pentsamentu umekoiz irri-barre ba'dagit be; ez dozu, ba, oindiño egi-gain ipinten oiña ta erason-zarraztak eroana zabiltz, oi dozunez. Egi-egiazko izakiak dira dakusazunak, emen, euren eskintzariak bazter itxita, zintzoki bete ez ebezelako. Alan be, míntzo zaitetz eurakaz, entzun eiezu, euren oiñak andik urriñagotzen ez dautse izten.

Eta ni, mintzatzeko gertuago zirudian itzalagana zuzendu ta total asi nintzan, gain jatorkozan gurari moltzoak ikarra eragiten dautson gizonaren antz-antzera:

—O espiritu ondo sortua, betiereko bizi-argitara txastatu ezik iñoiz ulertzen ez dan gozotasuna somatzen dozu-na! Esaidazu, mesedez, zelan deritxazun eta zein dan zure zoria.

Beingoan erantzun eustan itzalak, begi-alai ta irri-jarioz esanik:

—Gure ondo-naiak ez dautsoz atear izten gurari bidezko bati, jarraigo guztia bere antzeko nai dauanak egin da-roanak lez jokatu baiño. Munduan Jekaiame gizkarbi izan nintzan; eta zuk zeure gomutamena pizkat zorrotz ezker, ez dautzu berori lausotuko ní orain ederragoa izateak, ni Pikarda \* nazala ezagutu baiño, emen beste zoriontsu oneikaz egokituta, doatsu naz borobil astiroen dabillen onetan. Gure eraspén-zaleak, Espiritu Doneaz soilki kiskalita dagozanak, atsegin dabe Arek ipiñitako ereaz bat etortea, ta zori au, ziztríña iduritu arren, emona ta bere-zia izan jaku geure agintzari ta botuetan ardura bako izanik, batzutan eurak ausi genduzalako.

Nik erantzun neutsan:

—Zuen betarte arrigarrizkoetan, zuen leen-iduria eraaldatzen dauan jainkozko ez dakit zer batek dizdiz dagi, ta orixegaitik ez neban beingoan gogoratu, baiña orain diñostazuñak Iaguntzen daust eta zure gomuta errezago jat. Esaidazu, alan be: zuek, emen zoriontsu zarienok, goragoko beste leku bat opa dozue obeto ikusteko ta adiskide geiago egiteko?

Itzal enparauakaz batera irripar pitiña loratu zan aren ezpanetan; eta bertatik erantzun eustan alai, maitasunaren leen-suan ixetua bai zirudian:

—Neba, goi-maitasunezko indarrak ibitzen dau gure naia; onek ez dausku izten daukaguna besterik maite izaten, ezta gura izaten be. Gorago egotea gura ba'gendu, ez litzatekez gure gurariak emen alkartzen gaitun aren naiaz bat etorríko, eta borobil onetan ezin daíteke onakorik izan, maitasun espiritua emen naitaezkoa bada ta orren izana ondo ausnartzen ba'dozu. Sustraizkoa jako bizi zoriontsuari jainkozko naiarekin bateratzea, gure naimenak bat-bakar izan daitezán; orrela, ba, erreíñu onetan maillaz mail egotea atsegin jako erreíñu osoari, bere naiarekin bat egiten gaitun Erregeari lez. Gure bakea da Aren naia; a itxasoa da ta arantzua doa guztia, ak sortu dagiana lez izateak dakarrena be.

Orduan argi agertu izan jatan zeruan zergaitik dan oro Paradisu, naizta ontasun gurenaren grazia nun-nai ez izan bardin intzatu. Alan be, janari batek asetu ta beste baten galez oraindik geratzea, emetik geiago eskatu eta bestea eskertzea, jazo oi dan lez, antzean egin neban nik be kiñuka ta itzakaz, itzalak berak esanda jakin nairik zein izan zan azkeneraiño eio ez eban euna.

—Bizitza oso ta irabazi goi batek zerurik garaienean ezarri-azo dau emakume bat —esan eustan—; orren irudipean eroaten dira zuen munduan jantzia ta buru-zapia, eriotzara arte zain egon eta aren naiaz bat datorren edozein ondonaik egiñiko edozein agintzari onartu oi dauan Senarraz azken arnasa emon ezker<sup>2</sup>. Ari jarraitzearen, gazetxo nintza-Ia iges egin neban mundutik, eta aren jantzian sartu nintzan lekaime, aren araudiaren bidetik ibilteko botua egiñik. Gero, onari baiño txarrari oituago ziran gizonak itxitu gozotik erauzi ta Jainkoak daki zelakoa izan zan nire bizitza. Eta beste ditzira au, neure eskumaldean agertzen jatzuna ta gure borobilleko argi guztiz ixetzen dana, adizu ta ulert, ortaz diñodala neuetaz esan dautzudana bera. Lekaime izan zan, eta burutik kendu eutsoen buru-estalki sagaratuen itzala; Baiña berak nai-ezta, oitura on guztien kontra, egundo ez eban zapia aldendu bere biotzetik. Auxe da Konstanza aundiaren argia, onegandik bait eban sortu Suabia'ko bigarren printzeak irugarrena ta azkenengo aginteduna.

Olan itz-egin eustan eta ondoren «Ave Maria» abesten asi zan eta abestuz, ur urdin illunean gorputz astuna lez, joanez itzali zan. Nire ikusmena, aal izan neban bestean aren atzetik joan zana, a ikuspegitik galdu ebanean, bere guraririk bizienera biurtu ta oso-osorik Zorione'gana zuzendu zan; baiña au alako dizdizez jantzi zan ezker<sup>1</sup> nire aurrean, nire begiak ezin izan eutsen ain bizkor eutsi, ta onek atzeratu zituan nire itaunak.

(1) Koiso Donati'ren neba; onek atera eban komentutik Tosa'ko Roselino'ga2 e2kont2eko.

(2) Asis'ko Santa Kíara, San Frantzisko'ren aginduz Idaratarren ordenea sortu ebana.

#### IV KANTUA

Muiña: *Illargiaren zerua.—Garbilasun eskintza austen dabena.—Zoriondunen egonlekua.—Izarretara biurtzen dira arimak.—Aukeramena.—Agtntzari ausiak eta eurok zelan irau nazo.*

Jateko biren artean, biak bestelakoak eta kirrikagarriak, gizon aske bat gosez leenago ilgo litzateke euretatik bati agiñak ezarri baiño. Orrelaxe iraungo leuke bildots batek be, bildur bardiña dautse-ta, otso anker biren jan bearraren artean; edo-ta txakur bat orkatz biren artean. Orixegaitik, ni ixillik ba'nengoan, neure buruari ez dautsot akar egingo, bardin nengoan ba ni be zintzilika neure ezpaian artean, eta, bearrezko zan ezkeru, ez dot neure burua origaitik aupatuko. Ixillik nengoan ni; baiña nai nebana arpegian neukan margoturik, eta nik itauna olan tinkoagoa zan ziñez itzez adierazo ba' neu baiño be argi ta garbiago.

Zorione'k egin eban orduan Daniel'ek, zuzena etzan ankerkeria eroan Nabukodonosor'ren asarrea ibitu ebanean egin ebana, ta esan eban:

—Ondo dakust zelan erakarten zaituen naikun bik, arek eta onek, zure jakin-naia kanpotik ezer ez agertzeraiño bere kautan kiribildu arren. Zuk zeure errazoiketari diñozu: «Borondate onak ba'dirau, besteen zakarkeriak zegaitik laburtu ete daroa nire irabazien neurria? Baita ezpaian sartzeko oiñarria damotzu, Platon\*en irakatsien arauera, arimak izarretara biurtzen dirala diñoelako. Auzi onetxek dira zure naimenean bardin igaroz doazanak: baiña aurretik aztertuko dot arriskurik geienen daukan arazo garratza. Jainkoagandik urren aurkitzen dan sudunetatik Moise, Samuel, zeuk aukera nai zeunken Jon bietatik edozein, diñotzut, eta Maria be bai, ez daukez euren jarlekuak zeruan oraintsu agertu jatzuzan espirituak daukezan lekuan baiño, ezta ez dira egongo egoera orretan urte geiago edo gitxiago; guztiok ederazten dabe leenengo ingurua ta geiago edo gitxiago betiere-

ko espiritua somatu, alakoxe zorion-bizía daukie. Emen agertu ziran ez borobil ontan bizi izatea zortez jausi jakelako, zeruetan alderdirik gatai-ezena artzen dabela adierazteko baiño. \* Olan Ítz-egin bear jako zure adimenari, gero ulertduiñago egiten jakona zentzunen bitartez bakarrik artu oi dau-ta. Origaitik Idazteuna zuen aalmenai jalki jake, oiñak eta esluak Jaínkoari ezarriz. Eta Eliza Ama Deunak gaiñera Gabirel eta Mikel eta a bestea, Tobia osatu ebna, giza-itxuraz iruditzen dautzuez. Arimai buruz *Timeo* diñoana ez dator bat emen ikusten danaz, baiña asmatzen dauanez diñoala dirudi. Arimea bere ízarrera biurtzen dala diño, izateak ere eumon eutsonean andilc jausia dala uste izanik, eta bear bada aren eritxia ez da izango bere berbak iragarten dabena, orixegaitik daitekena da aren esana arbuigarri ez izatea. Deduaren eragiña ta gerena inguru oneitara biurtzen dirala baNjífiosku, aren uztaiak bear bada egiren bat erakutsi nai dau. Oker ulerturiko oiñarri onek mundu guztiari doi-doi bídea \*aldu-azo eutson, Jupiter, Merkuri ta Marte'ri dei egitera bultz-eragiñez.<sup>2</sup> Kezkaragari jatzun beste ezpaia arrisku gítxiagokoa dozu, aren gaiztakeriak ba ez zindulcez nigandik urrin eroango. Gure zuzentasuna ez dala zuzena ilkorren begi aurrean, federa daroan agiria dozu ta ez siñaustr-dongakeria. Egia au, baiña, zuen errazoimenak ondo barrendu daikena dan ezkeru, opa dozunez aseko zaitut ortaz. Ez dago egiazko gogorkeririk, au jasaten dauanak indar dagianari ezer eskintzen ez ba'dautso; arima oneik beraz ezin daitekez errurik bako joak izan, naimenak ba, gura ez ba' leu ez dau amore egiten, izan-jiteak suaz lez egin daroa mila bider gogorrek makur-azten ba'dau be. Asko ala gitxi makurtzen ba'da, indarrari men dagio, tn orrela egin eben oneik, eta toki santura biurtu aal izan eben. Osoa izan ba'litz euren naia, Lorentzo'k matxarda gaiñean edo Muzio'k bere eskuaz ain gordiña euki ebanez, onek biurtuko ebazan barriro okertu ziran bidera, euren buruak aske ikustean; baiña bakanegia dozu olako borondate sendoa. Eta itz oneikaz, bear lez jaso ba'dituziu suntsiturik geratzen da oraindik sarri kezkaraziko zinduzan errazoa. Orain, alan be, bes-

te oztopo bat zearkatzen jatzu begien aurretik, eta apika da, ez zintzakezala zeurenez urtengo ontopo ortatik, oso-osoan abailduta geldituko zintzakezala baiño. Zer ziurtzat erakutsi dautzut arima zorionsuak ezin daikela guzurrik esan, leenengo egiarí jarraika bait dabil beti, eta gero entzun zenduan Pikarda'gandik Konstantza'k zapirako leialtasuna gorde ebalá, eta au aurkako zera jatala dirudi. Askotan jazo da dagoneko, neba, galzoritik iges egiteko egokí ez dana burutu oi dala gogo ezik, Almeon i Iez, bere aitak eskatuta ama il ebanari, eta guraso-maitasunaren aurka ez joatearren erruki bage egin be. Puntu ontaz zuk jakítea nai dot indarra naiaz nastau oi dala, eta biak onela irañnak kako, atxaki ta txaplata biurtu. Ez dago nai soillík kalteari leku emoten dautsanik; alan be baietz zerbait ba-dago orretan oiñaze aundiagoetan jausiko dalakoak sartzen dautson izu-ikararen giñoan. Origaitik, Pikarda'k a esan ebanean, naimen soillari buruz esan eban, eta nik besteari. Biok, beraz, egia diñogu.

Onakoa izan bait zan egi osoa darion iturritik jaioten ibai santuaren oparotasuna; gurari biak, bata ta bestea, asetu eustazan onek.<sup>3</sup>

—Oi leen-maitalearen maitea! Oi jainkozkoa! —esan neban nik jarraian—; onen itzak asetzen nabe-ta, sutan jarten, gero ta adore aundiagoz gori-gartuz! Ez, ez da nire maite-sua ain sakona, eskerrez esker biurtzeko gai dana; baiña oro ikusi ta aal dauan Arek erantzun begi nire orde. Ondo dakust gure adtmena ez dala egundo asetzen egi arek, beretik kanpo eser ziurrik ezer ez dagoanak, argi-azten ez ba'dau. Beragan kokatzen da, piztia bere gorde-zuloan lez, jadetsi dauanerako, eta jadetsi aal dau bestela gurari oro utsal ízango litzatekez. Jaio oi da, bada, kimu bailitzan, egi-oñean zalantza, eta berez bultz-dagisku maillaz mail goierpiñerantz. Onek dei dagist, onek emoten daust ziurtasuna; ta zuri, andera, begirune ta lotsa aundiaz eskatzen, beste egi bat oraindik, niri illun agertzen jatana, argttu dais-tazula, arren. Zera jakin nai neuke: gizonak, bere agintzarrietan uts-egin ondoren, kitutu daiketzun zor.dautzuna bes-

te ondasun batzuekaz, zure aztaillu-pisuan txiki gelditzen ez diranakaz nunbait.

Maite dizdizez beteriko begiakaz so-egin eustan Zorione'k, aín jainkozkoakaz begiratu be; ni besterik eziñean, azpiratua, kemenik bage ta ia-ia kordea joana gelditu nintzan begi-makur.

- (1) Danre'ren garaian oso zabal ebillen izarren eragiña.
- (2) Teologíari buruz diardu emen.
- (3) Baita emen be.

## V KANTUA

Muiña: *Leenengo zerua, illargia. Garbitasuna zaintzeko zin-itza auú dabenak.*—*Zin-itz edo promesa onen santutasuna.*—*Trukatu leike. Bigarren zerurako igoera.*—*Mercurio<sup>y</sup>rena\ arima eragilleak,*—*Eta ongilleak.*—*Justinian Kaisarra.*

«Maitasun onen suan lurrean ikusten danarenaren suan baiño ditzikorrago agertzen ba'naíatzu, zeure begian indarra gaiditzeraíño agertu be, etzaitez origaitík arritu; zeure ikuste bete-betetik dator au; ulertuago ta bizkorrago zuzentzen bait da onaren billa. Nik argi dakust zelan dizdiz dagian dagoneko zure adimenean betiereko argiak, ak bein ikusiaz bakarrik betiko ixiotu oi dau-ta maitasuna; ta beste ezek lilluratu ba'legi zure maitasuna, au ez da besterik emengo ondasun lurkoietan dizdiz dagian txarto ezagutukoaren lorratza baiño. Zuk jakin nai dozu beste opari bategaz, utsegin dan zin-itza eukita be, ordaindu ete leiken azken-epaian arimea seguru egoteko aiña».

Onela asi eban Zorione'k kantu au; eta, bere errazoi-keta eteten ez dauanaren antzera, era onetan jarraitu eban bere írakaspen donea:

—Jainkoak, bere esku-zabaltasunean, sortzerakoan egin euskun doerik gurenena, ontasunari egokien dagokiona ta geien ederresten dana, aukeramena dozu, adimendun izaki guztiak, eta eurak bakar-bakarrik daukiena. Esanetik ondo-renak atera ba'dagizuz, orain konturatuko zara, zin-itzaren, botuaren balioa aundia dala; zuk onartua jainkoak be onartu ta bai-etsia bada, oparia esan dautzudan ondasun edo altxor a dozu, ta orrela egiten da aren egite batez. Beraz, zer emon ete daiteke orren orde? Aurretik eskiñi dozuna ondo erabilli zeinkela uste ba'dozu, gaizki zeuganaturiko ondasunakaz egite ona burutu nai dozu. Ba-dazaguzu, ba, orain puntu nagusiak dauan garrantzia; baiña EJiz Ama doneak, azaldu dautzudan egiaren kaltetan doazala dirudien askapenak eta salbuespenak eskintzen ditun ezkeru, egoki yatorztu oindiño mai-ertzean jarrita apur baten egotea; artu dozun jateko gogorrek izan be laguntasuna bear dau egosi aaj izateko. Edegi zeure adimena irakatsiz noakizunera ta sar eizu bere barruan, entzun izanak ez dau ba zientzirik emoten, barruan gordeta zaindu ezik. Opari onen barruan, mamiñean gauza bi dagoz batera; gaia da bata, egin-gaia noski, ta itunaren itxura bestea. Au ez da egundo be amaitzen, berau beteaz izan ezik, eta oneri buruz mintzatu naiatzu leen zeatz eta meatz. Orixegaitik, naitaezkoa izan jaken ebertarrai eskintzen jarraitzea, jakin bear dozunez euren opari-gai batzuk ordeaztuak izan arren be. Bestea, gaia lez agertu dautzudana, izan daiteke alakoa, beste gauz bategaz truk egiten bada be, bako egin oi ez dana. Baiña ez begi iñok aldatu bere illargi-aldi ta apetaz sorbaldan daroan sorta giltz zurioriak bira egiteke,<sup>1</sup> ta trukatzeko guztia alperrekoa izango da bertanbera itxitako gauzea, lau seian sartzen dan lez, ordeazkoan sartzen ezpada. Beraz, edozein gauzaz, bere balioa ainbat pisatuz aztagaillu guztia makur-azten daunaz, ezin daiteke kitutu. Ez begie ilkorrek txantxetan artu zin-itza; izan zaiteze leialak, eta ez zentzun bako, Jefe lez, bere leen-doaia eskintzean, oba litzakion ba onela esatea: «Txarto egin neban», zin-itza beterik, gauza txarrago bat egitea baiño; eta au baizen zentzun urriko aurkituko da bear



bada gerkarren buruzagi aundia,<sup>2</sup> onen erruz negar egin bait eban Ifigenia ren betarte ederrak, baita negar eragin be eragin eutsen agaitik alako opariz mlatzatzen entzun eben ainbat ergel eta jakituni. Izan zaiteze, kristiñauok, arduratsua-goak zeuen egiñetan; etzaiteze izan luma edozein aizetan, eta ez siñistu edozein urek garbitzen zaituenik. Or daukatzue Itun Zaarra ta Barria, ta Elizaren artzaiña, gidatzen zaituena; natko bekizue ori salbetako. Gurari txarrak beste zerbait gedartzen ba'dautzue be, izan gizonak eta ez ardi zoroak, zuen artean bizí dan judutarra ixekatu ez dadin. Ez egin zuek amaren esnea izten dauan bildotsak lez, laiño. ta alai burruka dagi bere onaren aurka».

Auxe esan eustan Zorione'k, idazten dodanez; eta gero, joranez mundua biziago agertzen dan<sup>3</sup> lekurantza biurtu zan. Aren ixiltasunak eta karrantz aldatzeak nire gogo leiatsua be ixillera erabar eban, orduko gertauta neukazan itaun bariak bide erdian itorik; eta aria geldira baiño leen aparauan emoten dauan geziaren antzera, zearkatuz giñoiazan bigarren erreifúa (Mercurio'rena).

An ikusi neban neure anderea, oso pozik, zeru artako argitan sartu zanean, eta dizdikorrako biurtu zan izarbela. Izarra aldatu ta irribartsu agiri ba'zan, zer egingo neban nik, izatez milla erataro aldakor nazan onek? Zingira nare, garden batean jauzi egin oi dabe arraiñak kanpotik dakartsen edozer gauzaren gaiñera, euren janari etsirik, gisa orretan ikusi nitun nik milla ta geiago arima dizditsu geugana etortzen, eta euretatik bakotxak onan esaten entzuten zan: «Ona emen gure maitasunak aziagotuko dauana!» Eta olaxe, bakotxa guregana eldu-ala, pozez gaiñezka ikusten zan ariraea beragandik urteniko ñirñir garbian. Oldoz, irakurle, emen asten dana jarraitu ezík, zelan asmatuko zeunken are geiago jakiteko leia larria, ta zeurenez ulertuko dozu zenbatekoa izan zan nire jakin-naia arima areik zelako egoeran aurkitzen ziran begien aurrean agertu jatazanean.

«Ondo jaioa bai, lurreko gudaritza amaitu aurretik, betiereko garaitzaren aulkia ikusteko grazia emona izan jakona! Zeru osoan gaindi barraiatzen dan argiak ixetuta gagoz.

Olan, ba, guk argiz jaztea nai ba'zendu, ase zaitetz zeure naiera»,

Au esan eustan espiritu areitatik batek, eta Zorione'k gaiñeratu:

—Itz egizu uste osoz, eta siñets jainkoari lez.

«Ondo dakust zeure argian daukazula abia, eta zuk barre egitean zeure begietatik urteten dala argia; baiña ez dakit nor zarean eta zergaitik daukazun, arima jator, ilkorrai beste erraiñu batzukaz estaltzen jaken oboko mailla».

Orixe esan neban nik leenengo itz-egin eustan arima ditzikorrari zuzentzen nintzakola, onekin leen zan baiño be argitsuago biurtu zanari. Eguzkiak bere erlantza argitasun geiegiaz ezkutatu oi dauanez, beroak lurrun beroen neurria eze-reztu daunean, poztasun larregiz bere diddiza-barruan gorde egin jatan itxura santua, eta olantxe itxitua erantzun eustan urrengo kantuan esaten danez.

- (1) Iñok ezín daiteke botua aldatu EILzaren baimen barik.
- (2) Agamenon, opari batgaitik bere alaba 'ú bear Ílan ebana.
- (3) Ekuador.

## VI KANTUA

Muiña: *Bigarren zerua, ots, Merkurio'rena,—Justin Kaisar'en bizitza.—Erromatarren kondaira.—Gibeldarren eta guelfotarren aurkako inharrosaldia.—Zoriondunak bigarren zaru-egoitzean, Vilanova'ko Erromeu.*

«Konstantin'ek,<sup>1</sup> arranoa zeru-ibilliaren aurka biurtu eban ondoren, a leenago Labina'ren senar zaarraren atzetik ibi-  
Uia ain zuzen, eun eta eun urte ta geiago iraun eben Jainkoaren egaztiak Europa'ko azken-musturrean, batetik bat urtena zan mendtetatik auzoko; eta ego sagaratuen kerizpean, andixek zuzendu eban mundua, eskuz esku, onela aldatuz neureetara eldu arte. Kaisar izan nintzan, eta Justinian nozu,

eta emen gozaten dodan leen Maitasunaren nai-izatez, legeetatik baztertu neban geiegia ta alperrekoa. Eta egintza onetan jardun aurretik, Kristogan izate bat bakarra ta ez geiagogo egoala uste neban, eta pozik nengoan alako siñiskeraz; baiña Agapito zoríonsuak, artzain guren izan zanak, egiazko federa ekarri nindun bere itzakaz. Ari siñistu neurson nik, eta aren fedeko zana orain dakust zuk ikusten dozun baizen argi, kontrako zerbait ba-dala egiazko zati bat eta guzurrezko beste zati bat. Elizari jarraitzen asiaz batera, eder izan jakon Jainkoarí lan garai a idaroki ta ats emotea, ta arí lotu nintzakon ni oso-osorik, eta neure Belisari gudaiburua- ren eskuetan jarri nitun izkilluak; oni, ostera, zeru-esku- meak guztiz egokiro lagundu bait eutson, ezaugarri izan zan niretzat aregan uste ona jarteko. Onagiño zure leen-itaunari dagokio nire erantzuna; baiña aren aiurriak beste zerbait geitzera naroa ikusi daikezun zein errazoi gitxigaz igitu oi diran írakatsi santuaren aurka, berau eurentzat artu daroenak eta erabat beroni arpegia emoten dautsenak. Ikus zenbat on-egitek egin dauan begiramenaren duingarri, erreíñua bere eskuetan izteko PaJante il zan<sup>2</sup> ordutik asita. Zuk ba- dakizu ezaugarri arek jarri ebala Alba'n bere egoitza iru- reun urte ta geiagotan, iruk iruren aurka aren alderako oin- diño burrukatu eben arte; baita ba-dakízu zer egin eban Sabindarren ebasketatik Lukrezia'ren samintasunera arte, zazpi erregeren nausigopean, ingurumari azpiraturik auzo- ko ziran errialdeak. Ba-dakizu erabat zelan jokatu eban erro- matar goragarriak eraginda Breno'ren aurka, Pirro'ren aur- ka ta beste printze ta erkalen kaltetan; origaitik, Torkuat eta Kintzi'k, bere ule zabar itxiagaitik goi-izena artu eba- nak noski, eta Detzi-k eta Pabi'k, nik atsegiñez daroan ospe ta aintza jadetsi ebenak. Berak apal-azo eban arabeta- rren arrokeria ta Anibal'en ondoren alpetar arkaitzak igaro ebezanak; zuk, Po, ortik dozu jatorria. Aren agindupean garaiJle bilakatu ziran, oraindik gazte, Eskipion eta Ponpei, eta zu jaio zintzazan muiño artetan,<sup>3</sup> garratza iruditu zan. Ge- ro zeruak, mundua bera eredu jakon bakera ekarri nai izan eban garaia ur egoala-ta, Kaiser'ek, Erroma'k orrela naita,

beretzat artu eban, eta Var'tik Rin'eraíño egin ebana Isara'k eta Era'k eta Sena'k, baita Rodano asetzen daben ibai gu2-tiak be ikusi eben. Gero Ravena'tik urten eta Rubikon igarorik egin ebana, oso ariña izan zan, miífiak eta lumak jarraitu ezinekoa. Espaiña'rantz zuzendu eban bere gudari-tal-lea, gero Durazzo'rantz, eta Farsalia'n latz jokaturik, Nil beroan be burrukaren sua gordin somatu zan. Antander eta Smoenta ikustera biurtu zan, au da, abiatu zan lekura, eta Ektor datzanera, ta ordu txarrean Tolomeu'rentzat, urrindu zan gero. Andik Juba gaiñ jausi zan iñestu giza; ta orren ostean zure sarkalderaiño jo eban, ponpeiar turutak ots-egian lekura. Urrango ikurrin-eroalearen eskuetan arek egiña Bru-to'k eta Kasio'k zaunkatzen dabe inpernuan, Modena'k eta Perusa'k origaitík negar dagiela. Keleopaterere itsak be negartzen dau, oren begietatík iges joiála, sugegorriagandiik bat-bateko eriotza gordiña aru ebalako. Ortik lortu eban Itxas-Gorriaren ikurra, oní esker ipiñi eban mundua bake osoan, Juno'ri be jauretzea itxirik. Baiña diñodan ikurriñak aurretik egiña ta aren mende egoan erreíñu ilkorren alde gero egingo ebana, irugarren agintariaren eskuetan begi aratz eta biotz garbiz begiratu ezkeru, irru ta illun geratzen da itxuraz beintzat; niri indar degistan zuzent2a bi-ziak emon eutsan ba, aítatu dodanaren eskuetan, aren asarrearari apendua artzeko aintza. Izu zaitez orain esatera noa-kizunagaitik: Tito'rekin alkartu zan gero aspaldiko peka-tuaren apenaren apena artzeko;<sup>4</sup> eta lonbardar ort2ak egal-pean arturik Eliza Ama deunari grauk egin eutsonean, Kar-lo Aundia, gaiñetik urten eta irabaziz, lagun etorri jakon. Aurrerakoan zeuk ebatzi zeinlcez oraintsu salatu nitunak, baita euren erruak be, zuen gaitz gu2tien erro 2Íranak. Onek, guztien ikurriñaren aurka jarten ditu bere lis ariak, eta arek, bere alderdiarentzat eskuratzen dau, ez da errez ortik zein dan pekatariago jakitea. Irazi beie2 gibelindarrak, irazi beiez euren iruzakuak beste ikurrin baten azpian, baiña txarto doa aren atzetik zuzenbidez okertu gura ezta dabi-llena, baita Karlo barri au beronen guelfoarrakaz erasten alegintzen ez dana be; baiña bildur bedi leoi sendoagoari

ule-adatsa erauzi eutsen erpadunarena. Sarrí negartu dabez seme-alabak gurasoen erruak, eta ezpei inok uste izan izkiliuak lisez Jainkoak trukutzen dabezanik. Izar txiki au, dedua ta entzute ona atzetik izteko alegiñak alegin egin zituenen arimaz, arima onez ederturik dago; eta gurariak ortara makurtu oi diranean, orrela bidez oker egiñik, egoki da egiazgo maitasunaren erraiñuak bizi-kemen gitxiagoz dizdiz dagiela olakoen gaiñera. Gure irabazi ta merituak, baiña, bardindu-bardinduz neurtzeak gure zorientasunaren zatia egin daroa, ez bait doguz aurkitzen ez aundiago ez txikiago. Zuzentasun bizia danak gozaten dau guban guraria ezelango pekatura geiago ez makurtzeko moduan. Armoni ta eresiots gozo bat eratzen dabe askotariko abots-oiuak, eta orrela gure bizitzan askotariko maillak eresi-ots samurra sortzen dabe goial.de oneitan, eta arri-pitxi onen barruan dirdir dagi Erromeu'ren argiak, naizta onen lan aundi-ederra esker txarrez artua izan. Baiña aren aurka jagi ziran probentzarrak ez dabe aren Jepotik irri-barrerik egin, txarto erabiliia izan oi da, ba, besteak egin dautsoezan egiteko onak nobere kaltetan biurtu oi dabezana. Lau alaba euki ebazan Erraimun Beranger'ek, eta danak erregiñak, eta au Erromeu'k egin eban, erromes apalak. Gero, guzur gaiztoak eragin eutson ari zintzo oni kontuak eskatzera, eta onek amarreko zazpi ta bost emon eutsozan, ondoren txiro ta erkin alde egiñik; eta munduak ba'leki, zelako biotza euki eban kaski ta kaski eskale emonez bere bizia, goratzen dauan baiño be geiago goratuko leuke».

(1) Konstantino'k Erroma'tik Kontantinopla'ra eroan eban aginterriko uriburua.

(2) Turno'ren eskuetan U 2an,

(3) Fiesoli mendia, Florentzia gaintxoan dagoana.

(4) JerusaJen suntsituz.

## VII KANTUA

MuLña: *Bigarren zerua.*— *Arima bizkor ongilleak.*—*Kristoren eriotza.*—*Eroapena.*—*Arimearen ezilkortasuna,*

«*Osanna, sanctus Deus sabaoh, superilustrans claritate tua jelices ignes horum malacoth*» (Aintza zuri, gudarozteen Jainko santua, or goitik bee-alde oneitako su zoriontsuak zeure diztiraz argitzen dozuzana). Olantxe entzun neutsan abesten itzal ari, bere gaiñ dizdiz bilcotxak argi egiela, Arek eta besteak euren dantzea esi eben, eta oiñeztu bizkor-bizkorra lez bat-batez ostendu jatazan urriñean. Ezpaian ni, neure kolkorako au esaten: «Esan, esaiozu!». Neure andereagaitik niñoan au, nire egarria tanta gozoka itzungi eroastana-gaitik; baiña *Zo* edo *ne*<sup>1</sup> entzunaz bakarrik nitaz osoan jabetzen dan lotsa-begirune arek loak eratsitako gizona lez raakur-azten ninduan.

Labur jasan eban Zorione'k ni olan ikustea, eta bertatik asi jatan esaten, sugar artean legoken gizaseme bat be doatsu egiteko naikoa litzakean írribarrez zorarazten ninduelarik:

—Nire eretxi uts-eziñez, pentsa eragin dautzut apen zuzena zelán zigortua izan zan zuzenki; baiña beiñola argituko dautzut pentsamentu ori. Entzun eidazu, nire itzak egin aundi baten emoitza eskiñiko dautzue-ta. Ber-bere borondatea ezelango galgaz menperatu ez ebalako, jaio etzan gizonak,<sup>2</sup> bere burua gaitzetsirik, bere etorki guztia be gaitzetsi eban, eta beraz makur aundi batean etzana egon zan gaxorik gizakia mende luzeetan, Jainkoaren Itzari, izadia bere Egilleagandik aldendua egoan lekura jatsi ta gizakia bere nor-izateaz batu eban bere betiereko maitasun-egintzaz bakar-bakarrik. Adi zagokídaz orain esango dautzudanera: Egilleaz alkarturiko izaki au, sortu zanez gero, ona ta zintzoa zan; baiña bere erruz atsegin-tokitik jaurtia izan jatzun,

bidetik, ots, egitik eta bizitik okertu zalako. Zigorra, bada, onentzat landatua izan bait zan gurutzea, artutako izatez neurtzerakoan, bat bera be etzan iñoiz au baiñen zuzen ezarri, eta era berean, izate aregaz alkartuta egoan eta au jasan eban pertsonari begiratu ezker, batek be ez eban gaiztakeri ain aundirik izan. Bestelako gauzak, orraitino, erne oi dira eglntza bat beretik; eriotza bera eder izan jaken Jainkoari ta judutarrai; beragaitik, ikara egin eban lurak, eta zerua edegi. Ez bekizu aurrerantzean illuna iruditu apen zuzen bat gero auzitegi zuzen baten bitartez apendua izan zala, esaten danean. Baiña orain dakust zure adimenak, ol-dozkunez oldozkun gogor artua, korapillo barne ain zuzen, gogo biziz bertatik jaregitea nai dauala. Zuk diñozu: «Ondo ulertzen dot dantzudana; baiña gorderik daukat Jainkoak zergaitik nai izan eban gure eroskunea, bide ortatik arean». Ezkutu au, neba, obiratua dago maite-suaz azi ez diran adimendun guzti arein begientzat. Unetxo au egiaz asko ausnartu ta gitxi ulertua dan ezker, argi esango dautzut bide ori zergaitik izan zan duin eta egokiena. Asarre oro beragandik uxatu daroen Jainkoaren ontasunak, beregan irakinka, betiereko edertasunak erakusteraiño dirdai daga. Ezetariko bitarteko barik ixuri-azten dauanak, ba, ez dau amairik, arek irartzen dauan ikurra ez bait da ezabatzen. Aganik iñoren laguntza bage dariona nske da oso-osoan, birgauzen al-izateari ez jake-ta menperatzen. Agaz batago ta atsegiño jako, izaki guztietara zabaltzen dan su sagarua agaz antzekoago danagan biziagoa da-tn. Doai guztiotatik onura artzen dau gizakiak, euroatik baiña batek uts-egitean, beera doa bere jatortasun garaitik. Pekatuak darakar morroitzara batik bat, eta on gurenaz dauan antza lapurtzen; aren argiak beraz gitxi dau argitzen eta ez da iñoiz bere duintasunera biurtzen erruak itxiriko utsunea bete ezik, atsegin eta apeta gaiztoen aurka penitentzi ta neke-nin zuzenak ezarriz. Zuen izatea, osoz pekatuan jausirik bere ernemiñean, gabetua izan zan dalako duintasunez, paradisitik jaurtia lez, eta ezin zituan barriz beregandu eurak, mee ta sustraiz ausnartzen ba\*dozu gauzea, ez andik ez emendik

ibai-arte oneitako batetik igaro ezik: edo Jainkoak, bere ontasun zabalez parkatzen eutsola, edo gizonak, bere pentzura, utsegiLeagaitik ordaintza emonik. Azter begiz kontseillu betikorren leza-barrena, alik geien zeure adiera neure itzetan jarriaz. Gizonak, mugatua da-ta, ezín leikean kitutu iñoiz be, bere apaltasunaz ezin baít eban jatsi esaneko esana ausiz jagi nai izan eban neurriraiño; eta errazoi auxe izan zan soil-soil gizonak berez ezin ebalá zor ebana bete ta albora izteko. Naitaezkoa zan, beraz, Jainkoak gizona barriz eroatea egokiozan bideetatik biztza betera, bai batetik eta bai bietatik. Baiña egiña, egillearen biotz ontasuna bertan geiago azaldu ta atsegiñago jakon lez bera burutu dauanari, mundna ikurrazten dauan Jainkoaren ontasunari be ederrago izan jakon gorantz doazan bíde guztiak saiatzea. Azken gauaren eta Ieen-egunaren artean etzan egin ezta egingo be, ez bide batetik ez bestetik, gauza ain guren eta bikaiñik, Jainkoa ba biotz-zabalagoa izan zan bera gizonari emonez gizona jagi zeitekean parkatn ba'leutso baiño; eta beste bide guztiak etziran naiko zuzentasunerako, Jainkoaren Semea aragi egíteraiño apaldu ez ba'litz. Orain, gurari guztiak asebetetik geratu daitekezuzan, punturen bat argiagotzera natorkizu, gauzak neuk lez ikusi daikezuzan. Zuk diñozu: nik ura dakust, sua dakust, aizea ta lurra, ta euron naste guztiak ustel biurtuz gitxi irauten dabe; eta gauzok, alan be, sortuak izan ziran, eta esan dana egia ba'litz, usteltzetik aske egon bear leukie. Aingeruak, neba, eta zagozan leku garbi au sortuak izan zirala esan daiteke euren izate osoan; baiña zuk ízentatu dozuzan gaikiak eta eurakaz osotu daikangun edozein gauza sortz-indarra dauan aalmen batetik artzen dabe euten itxura. Sortua izan da eurak eraten diran gaia; sortua izan zan indarra, ingurumari biraka dabiltzan izar oneitan erea ta egokitasuna ezarten dauana. Abere-piziti ta landaren arimak, aal-azpegitik dakarrez izpiak eta argi sagaratuen zirkiñak;<sup>3</sup> baiña zure bizia goitar ontasunak zuzenean arnastua dozu ta maitez mindua beran beraríz beti bera nai izateko moduan. Eta emendik atera zeinke oindiño



zeuen berbizkundera gure leen-gurasoak sortuak izan ziranean giza-aragia zelan eratuak izan zan gogora ba-dakarzu.

- (1) Zo-rio-ne, asierako ta amaierako izkiak.
- (2) Adan.
- (3) Izarren eragiña, ta emenclik abere ta Jandaren arimak ilkor diraia.

## VIII KANTUA

Muiña.—*Iragarren zerua, edo Benus'ena.*—*Maitale espi-rituak.*—*Izarbelaren izena.*—*Karla Martel.*—*Errobert, Napo-le'ko errege.*—*Era askotako gaitasunak.*

Munduak uste izaten eban arriskuan bizi zanean Zipri-na ederrak maitasun zoroa islatzen eba irugarren obo gai-ñez bira egiñik; antxiñakoak ez eben, ba, a bakarrik omen-duten euren oker-uste zaarrean opariakaz eta zin-abestiakaz, baita omendu oi eben orreraz gaiñ Dione ta Maitagarri be, ama lez a ta seme lez au, ta auxegaitik esaten eben Dido'ren altzoan jarri zala au; eta leenen aitatu dodanagandik atera eben, bai garondoaz eta bai bekokiz,<sup>1</sup> Eguskiak atsegiñez be-giratzen dauan izarraren izena.

Ez naz gogoratzen zelan igon nintzan araiño; baiña ni-re andreak aitzen emon eban aren barruan nengoaJa, au ba leen baiño ederrago egin jatan. Eta sugarrean iñarra ikus-ten dan lez eta abots bat besteagandik bereizi, bata eutsia danean eta bestea xaramelatua, ntk be argi aretan ikusi ne-bazan beste ditzira batzuk geiago edo gitxiago bizkor bira-ka ebiltzanak, betiko ikuskariaren neurrira, nik uste. Odei otzetik etzan aizerik urten, ez agiririk ez agiri etzanik, gu-gana etorten ikusi genduzan jainkozko argi areik, baldar edo apatz-geldi ez iruditzeke baizen bizkorrak, aurretik asitako

jirabirak sudun aingeruak dagozan lekuan itxirik. Eta bera barrero entzuteko gogoia inoiz be palta ez jatan alako osana edo gora! batek ots-egiten eban.,

Areitako bat, guganagoturik, soil-soil asi zan esaten:

—Danok gagoz zu omentzeko bizkor, nasai ar daizun gugandiko gozotasuna. Zerutar printzeakaz gabiltz gu biraka itzul-inguru ta era berean, zuk munduan esan zendun egarri berberaz, onan: «Zuok, zeuen adimenez, irugarren zerrua zirkinke jarten dozuenok»,<sup>2</sup> eta alako maitasun betean gagozan ezker, zuri atsegin emotearren ez jaku gozo-ezago atsedean unetxo bat».

Nire begiak, so ederrez, neure andreagan josi ta ak bere pozaren ziurtasuna emon eutsen ondoren, eskiñia izan jaken argirantza biurtu ziran, eta:

—Esaizu, nor izan? —nik itaun, txeratsu ta maitekor.

Eta, oi!, orduan bai eder-dirdaitsuago egin zala gozotasun barriaz, ni mintzatu nintzanean arek artu eban barnepoziari esker! Olaxe antz-aldatua esan eustar:

—Munduak an beean iabur euki ninluan, eta luzarago egon izan ba'nintz, etzan jazoko jazo zan beste gaitz. Zuegandik gorde naroa ene pozak dariozan argiñirñirrakaz, eta ni be eurotan nago ostendurik, ziriko (seda) arra bere oial barruan legez. Askoo raate izan ninduzun, eta errazoa zeneduan ortarako, nik beean jarraitu ba'neu, bada, orriak baiño zerbait geiago erakutsiko neuskizun neure maitasunetik. Rodano'k bere ezkerretik ureztatzen dauan ur-egal a, Sorga'rekin nastau ondoren, bere jauntzat, aldiz, itxaroten nindun, baita Ausoni bazter arek be, Bari, Gaeta ta Katona uriakaz, Tronto ta Verde itxasoan ustu io diran lekutik ara. Orduko dizdiz egian nire bekokian, tudeskar ur-egalak itxi ta gero Danubio'k bustiten dauan luralder aren koroiak. Eta Paxino ta Peloro tartean laiñotzen dan Tinakria ederra,<sup>3</sup> Euro'k emonda, ez Tirreu'gaitik, an sortzen dan sulphur-uragatik baiño, zigor aundiagoa artzen dauan itxas-kolko gainean, Karlo ta Errodolfo gandik neu bitarteko jaiio ziran

erregeen zain egongo zan, errialde azpiratuak betí kezkaraz-  
ten ditun jaurlaritzaz kaskarrak Palermo'ri onan deadar egi-  
tera eragin ez ba'leutso: «II bedi! , il bedi! » Eta nire anniak  
ori ikusi izan ba'leu aurretiaz, urrin legokean orduko Kata-  
luña'ko urrialde zikoitxa itxirik, onek gal ez egizan errial-  
de arefik, ornidu bearra dau, ba, berenez edo iñorenez, nor-  
bere ontzi zamatuari oraindik karga geiago leporatu nai ez  
ba'jako. Aren zoriak, esku-zabal izatetik zikoitz izatera ja-  
tsiak, jaurlari artzak bear zituan elburutzat euren kutxak  
betetea baiño zerbait geiago opa ebenak. Baiña zure itzak  
damosten egiazko poztasuna, uste dot, jauna, emen on guz-  
tien asiera ta amaia dagoan tokian, nik dakustan lez ikusten  
dozu zuk be, ta atsegínago be bai bear bada, zuk jainkoa-  
ren begipean berau oar-azten dozulako. Poztasun au emon  
daustazun ezkeru, jar naízu argi, zure itzak ezpaira eroan  
nabe-ta; au da: zelan azi gozo batetik frutu garratza eto-  
rri daiteken.

Au esan neutson, eta arek jardetsi:

—Egin bat adierazo ba'daiketzut, arpegia biurtuko dau-  
tsazu galdezka daukazunari orain bizkarra emoten dautsazun  
lez. Zu igonaz zatozan erreíñu osoa mugituz poz-azten dauan  
onak, nunbait, egin oi dau bere ardurea gorputz aundi onei  
eragiteraiño be zabaltzea. Eta berez oso-betea dozun adime-  
nak, ez ditu izateak bakarrik ornidu, baita euroi iraun-azo  
be berak egiten, beraz uztai onek erauzten dauan guztia au-  
rrez beroni jarritako elburura doa artz-artez, gezia bere apa-  
rara doan lez. Olan ez ba'Htz, zu igonez zoazan zeruak le-  
karkezan ondorioak ez litzatekez eresitsuak izango, suntsi-  
garriak baiño, eta ori ezin daiteke izan izar oneik mugitzen  
dabezan adimenak oso-ezak izan ezik, eta leen-izakia be oso-  
eza ezpada, areik osotu ez ebazana. Egi au geiago argitzea  
nai ete dozu?

Eta nik erantzun:

—Ez da bearrezko; eziña uste dot, ba, izadiak bearrezko  
dan ezertan uts-egitea.

Arek gaiñeratu eustan:

—Esaidazu orain: txarrago ete gizonarentzat gizartean bizi ez ba'Jitzateke?

—Bai —erantzun neutson nik—; eta emen ez dot itanduten zergaitik.

—Eta izan daiteke olnn, an beean era askotara bizi ezik, ogibide ta zeregin askotaz? Ez, zuen maisuak<sup>4</sup> idatzi ebana egia bada.

Onela joan zan ondorioka onaiño, eta azkenez amaitu eban:

—Orain ba, egizko da zuen egíñak bestelako sustraiak eukitea; bat orixegaítik Solon jaioten eta beste bat Jerjes, bat Melkisedek eta beste a, semea galdu ebana,<sup>5</sup> au airean zear egaz joialarik. Argizai ilkorrai bere ezaugarria ezarten dautsen izar-inguruen izateak ondo burutu oi dau bere egikizuna, baiña egoitzak, arena ta onena, ez ditu artez bereizten. Ortik dator Esau'k jaiotzatik Jakob'ez bereiztea, eta Kirin, Martegandik etorrela uste izateraiño aita doillor-doillorretik etortea. Sortutako izateak beti jarraituko leuke sortu ebanaren bide antz-antzekoa, Jainkoaren ardureak tar-teko lanik ez ba'legi. Orain leen gibel zeunkana aurrean daukazu; baina zugan atsegin dodala jakin daizun, ondatz bat emon nai dautzut geigarri. Izateak beti emon daroa, alabearra kaltekor ba'jako, edozein azik lez bere girotik kanpo, ondoren edo atze txarra. Eta munduak an beean, izateak eraturik daukan oiñarrira jaramon geiago egingo baleutso, jente obea eukiko zeunke, arí jarraituz, Zuok, alan be, erlejiñorantza okertu oi dozue ezpatea jazteko jaiio dana, eta errege egin oi dozue izlaritzarako egoki dana; zuen urratsak, beraz, bidetik at emonak dira.

- (1) Arrats-izar eta aitizar.
- (2) Dante'ren «Janketa» liburuan datozan itzalc.
- (3) SizLlia.
- (4) Aristotele.
- (5) Dedal, Ikar'en aita.

## IX KANTUA

Muiña.—*Iruharren zerua.*—*Gogo, aitalenak.*—*Muga-bageko iragarpena.*—*Kunilza.*—*Feltro.* *Falko.*—*Rahab emagaldua.*—*Eliz-gizonen zikoizkeria.*

Zure Karlo'k, Klementzia eder, nire dudak argitu eban zanean, bere ondorengoak zelako maltzurkeri-pean bizi izan bearko eben, iragarri eustan. Baiña gaiñeratu eban: «Zagoz ixillilc, eta doazala urteak». Nik ezin dagiket esan, beraz, zuen kalteak negar zuzena izango dabela atzetik baiño,

Eta orduko izar santu aren amasa> gauza guztira zabal-tzen dan ona lez Eguzkiak beteten dauan arengana biurtua zan. Ai, aríma afzipetu ta izaki gaiztoak!, arpegia utsalera biurtuz, biotzak gisa orretan baztertu oi dozuezanok! Baiña orra, neugana zuzendu zan dirdai areitako beste bat, niri eder izateko gogoia erakutsiz bere argitasunaren txastadura geiagoturik aín zuzen. Leen lez nigan josirik egozan Zorío-ne'ren begiak, níre gogoari jagokon on-eritxi ta txera gozoa ziurpetu eusten.

—O! emoiozu —esan neban— nire gurari biziari eska daukazu bete azkarra, espirítu doatsu orrek- Erakustazu nik dirdai daikedazala zugan neure burutapenak.

Orduan, niretzat oindiño ez-ezaguna zan argiak, leen abesari ekion barrutik murdukatu eban eder izanez gozatu oi dauanaren antzera:

—Rialto'ren eta Brenta ta Piave'ko iturri artean barraia-tzen dan italiar lurralde atsitu aretan muiño bat daukazu, ez aundia be; andixek jatsi zan zuzi bat ba2ter nreitan oker galantak egin zituana. A ta ni sustrai berberatik erne gintza-zan. Kunitza izan nintzan ots-egiña, eta dizdiz dagit emen izar onen argiak azpiratu nindualako; pozik alan be neure buruari ezarriz neure zoriaren errazoia, eta onek ez daust miñik emoten; zuen erritarrak au ez dabe bear bada errez ulertuko. Nigandik urren aurkitzen dan gure zeruko pitxi

argitsu ta samur ontaz zabal geratu zan entzute betea eta aomen ori ítzalí baiño leen eungarren urte au bost alakotu egíngo da ziur asko. Begira, bikain biurtu bear ezpadau gizonak, lendabiziz beste bat izateraiño noski! Ez dau orrela uste gaurko giza-talde Tagliamento ta Adize tartean dagoanak, eta zigortua izanik be ez da damutzen. Baiña laster jazoko danez, Padua'k kolorez aldatuko dau Vizentza bustitzen dauan zingirako ura, paduar jentea dagokiozan bear-kunetan gorbizi ta ezi-gaitz dalako, eta Sile ta Kañan alkar-tzen diran tokian be ba-dalako bat jaun ta jabe ízanik, buru-zut doana, jadanik bera atzillo artzeko sareak eioten diarduelarik. Feltro'k be negartuko dau bere artzain azpi-sugearen balzkeria,<sup>1</sup> aundia izango bait da, iñoiz Malta'n inor itxitua izan ezpaita alako gaiztakeriz. Itzala izan bearko eban ferraratar odola artuko eban upela, eta nekatua geldituko zan bere alderdiaz ona izatearren odola ixuri eban eliz-gizonarena ontzaz pixatuko ebana; eta olako doaiak lurraldeko bizi-moldeaz bat datozanak dozuz. Ispiliu batzuk dagoz goian, zuok aulki deituak; andik Jainkoaren epaiak dirdir dagi gure gaiñera, eta arek onak dagiz gure itzak.

Emen ixildu zan arima a, eta aitzen emon eustan beste arima batengana zuzendu nendin, bera leen egoan itzul-inguruan ber-jarri zan-eta. Arima zorionsu au,<sup>2</sup> lendik be maitagarriro ezagun jatana, eguzkiak jotako errubi antzera agertu jatan. An gozatuz dirdaia geitu oi da, emen barre-egiñez geitzen danez; baiña ondar-ondarrean espiritua naigabetu-ala arpegikera goibeltzen.

—Dana ikusten dau Jainkoak —esan eustan—, eta zure ikustea, arima doatsu, Arengan sartzen; zuri beraz ezin dai-tekizu ezertxo be ezkutatu. Ortik, zer dala-ta zure abotsak, sei egoz jantzirik dagozan su sagaratu arein kantuaz beti zerua poztu daroanak, ez ditu nire leiak ase-beteten? Zu nigan lez ni zugan barrentzekoa bariintz, ni ez nintzateki zure itaunen zain egongo.

Onela esaten asi jatan orduan:

—Ura ixurtzen dan ibarrik zabalena, lurra esitzen dauan itxasotik kanpo, ur-egal etsaikorren attean, ainbat zabaltzen da eguzkiaren ibilbidearen aurka, leen osertzaren birfilla zan lekuan orain eguerdía egiñik. Ibar aretan izan nintzan Ebro ta Makra artean ur-ertzeko, genobarra ta toskatarra tarte laburrean banantzen ditun lekuko. Sartzetik eta sortzetik ia-ia bidarlo bardiñera dagoz Buxia ta ni jaió nintzan uria, beñola bere odolez kaia gorri-azo ebana. Falko esaten eustan nire izena ezagutzen eban jenteak, eta zero onek neure argiduriak artzen ditu nik bereak artu nituan legez; adiñak itxi eustanez maite-sutan ni beste etziran, ba, kiskal-azo Belo'ren alaba Sikeu ta Kreusa suminduz, ez Errondopa a, Demofon'ek atzipetua, ezta Alkide be Jole euki ebanean bere biotzean giltzapetua. Emen, alan be, ez dago damurik, poza baiño; ez gomutara osterá datorren erruagaitik, oro moldatu ta eran ipiñi ebanaren jakituriagaítik baiño. Ertia miresten da emen, makifia bat bitxiz jazten dana, emen ezagutzen da gaikizko mundua beekoaren gaiñ eregita daukanaren ontasuna. Baiña zeure gurariak eroan daizuzan oso-osoz beterik, inguru ontan sortutakoak ain zuzen, egoki da beste zerbait be gaiñeratu daizudan. Zuk jakin nai dozu, nire aurrean, eguzki-erraiñuak ur garbitan lez, didiz dagian sugar orreitan, nor aurkitzen dan. An sartu zala, jakizu, Errahab<sup>3</sup> eta, gure taldearekin alkartua, maillarik gorengoenean artzen dauala argiaren aztarna. Zero ontara, zuen munduak egiten dauan kerizpea amaitzen dan leku ontara jaso izan zan beste edozein arima aske baiño leen Kristoren garaitzagaitik. Egoki zan zeruren baten geratu zedin, berak palma-adar batz eta besteaz irabazitako garaipen goenaren ikur lez, berak aldeztu bait eban Josue'ren leenengo aintz-adarra Lur Santuetan, Aita Santua onetzaz gitxi arduratu arren. Zure uriak, bere Egilieari aurrenik sorbaldak emon eutsozanaren frutua danak, eta bere bekatxez ainbat kalte ekarriak, ardiak eta bildotsak oker-azoz lora madarikatuak sortu ta zabal-azo ditu, artzaiña otso biurtu dau-ta. Ebanjelioa ta Elizguraso santuak origaitik aaztuta dagoz; Erabagiak soil-soi) ikasten dira, euron ertz-orrietatik dakusgunez. Au onesten

dabe Aita Santuak eta kardenalak; Nazaret-era ez doaz euron pentsamentuak, GabrieP ek bere egoak zabaldu zituan lekura, baiña Batikano'k eta Erroma'ko goi-taldeak, Kepa'ri jarraitu eutsoen guda-taldearen obi izan diranak, laster ikusiko dira likiskeritik aske ta libre.

(1) Alesander Movello gotzaiña.

(2) MarseLla'ko Foulke, probentzar bertsolaria. geroago Tolosa'ko gotzain izan zana.

(3) Enaab, Jeriko'ko amagaldua, Josue'k bialdtuako ikerieak bere etxean artu ebazana.

## X KANTUA

Muiña.—*Laugarren zerua edo eguzkiarena.*—*Jainko-za-leak eta jainkolariak.*—*Jaungoikoa, egille nausi.*—*Jzadiaren egokitasuna.*—*Laugarren zerura igotean gogo jakintsuak, ela eskolastikuak.*

Leen Al-Ízate esan-eziñak, bere Semearekin batera ta ba-tagandik eta besteagandik tat barik datorrena dan Maitasunarekin, adimenak sort-azo ta zabaldian begiak ikusten dabenguztia, iñok be artaz gozartu bage ikuskatu ezin dauana osotu eban egokitasun bete-betetan. Jaso ba. irakurle, neugaz batera zeure begiak goiko it2ul-ingururik gorengoentara, igiera bat besteaz gurutzatzen dan alderdirantza zuzenduz, eta an asten da atsegin artzen bere barruan iñoiz be begirakuna kendu barik ain maite dauan maisu aren egiñean. Begira andik zelan banatzen dan zearkako ingurua —Zodiakoa—, bere izarbelak dei dagitsen munduari poza emoteko atzean daroazala, eta bere bídea okertuta ez ba'lego, alperrekoa lítzateke 2eruaren eragiñetik asko, onen ia indar guztia ezerezturik geratuz lur-gaiñean. Eta alkar zutiñetik



asko naiz gitxi aldenduko balitzakez, lurbiraren egokitasunak uts-egite aundia izango leuke goian eta beean.

Zagoz orain, irakurle, zeure jarlekuan, emen marratu besterik egin ez diran gauzetan pentsamentua murgildurik, nekea baiño leen atsegiña somatu nai ba'dozu. Aurrean ipiñi dautzut janaria; orain artujzu zeure eskuz, nire ardura guztia idatzi bear dodan gaiari dagokiona ízango da-ta,

Izadiaren leen-arduradunak,<sup>1</sup> zeru-kemena munduan ipiñi ta bére argiaz aldia neurtu-azo daroanak, aitatu-barri dogun alderdíaz batera, egunero goiztarrago agertzen jakun inguru-biribillez bira egian, eta agaz nengoan, naiz-ta igonaz gogoratu ez, gizona pentsamentuaz etorri jakonean edo konaturatu oi dan legez. Eta Zoríone zan ni on batetik aundiago batera, azkar be azkar, neroiana. aren eragiña aldiz esitu eziñeko eran eroan be. Dizditsu bai izan bear ebala, berez. ni sartzera niñoian eguzki-barne ikusgarri zana, ez gero margoz, argiz baiño!

Nik asmamenari, ertiari ta ekanduari laguntzeko dei egin da be, ezingo neuke adierazo zer ikusi neban, iñoiz iruditu be bakoa dozu-ta; siñistua, baiña, izan daiteke, eta nai izana. Gure irudimena kaskarregia baldin bada goreskunde orreitarako ez da mirestekoa, ez da izan ba begirik eguzkia baiño diztitsuago dan ezer ikusi dauanik. Onakoxea bait zan emen Aita Goi-goikoaren laugarren sendia,<sup>2</sup> beti atsegin aundiz bizi dana, Aren Semea zelan sortu ta Espiritua biengandik zelan datorren erakutsiz. Eta Zoríone esaten asi jatan:

—Eskerrak, eskerrak egin aingeruen eguzkiari, bere ondo-naiez izar sentikor ontara jaso zaitulako.

Egundo etzan biotz ilkorrik egon ni baizen gertu eras-penerako ta Jainkoari osoz emoteko, esker onez bete-beterik. ni orduan lez nunbait; itz areik entzutean Arengan etzan zan guztiz nire maitasuna, Zoríone aantz-lezan lauso murgiltzeraiño. Au ez jakon mingarri izan, baiña, era zoragarrian irribarre egiñik, bere begien poz-jario dizdizak asko

tako zerez bereiztu eustan oldozkuna, gauza baten bakarrik josita neukana. Dirdai bizi ta garaillerik asko ikusi neban gugaz erdi-unea osotu ta inguruz inguru koroia egiten euskuela, aotsez gozoago begietarako dizdizari baiffo. Olaxe biratua ikusi oi dogu nolzik beiñean Latona'ren alaba (illargia) airea lodia danean, bazter-argia eratzen daben erraiñuak geldi-azorik.

Oraíntxe natorren zeru-jauregian, andik atera ezin daitezkan arripitxi aberats bikain asko dagoz, eta dizdiz arein kantua zan areitako bat. Ara gora igoteko egorik ez daukana, mutu batek onetzaz barriak emon daiozan itxaroten legokena lez dozu. Alan abeska jardun ondoren, iru eguzki gori areik buru-tinkoetatik ur-ur izarrak lez iru itzuli emon zituen gure birundan. eta niri iruditu jatazan dantzaldia amaitu barik, eresgai barria entzun arte ixillik entzuten geratzen difan emakume dantzariak. Eta alako baten barruan entzun neban esaten:

—Esker-erraiñuak. benetako maite-sua bíztu ta gero maitatuz aunditzen danak, olan ugarituagoa dizdiz bai dagi zugan, iñor barriro igon bage jasten ez dan zurubi aretan gora eroanik. egarria arintzeko bere saparrako ardaoa ukatuko leuskizunak ez leuke eukiko itxasorantz doan urak arantza egiteko ez leukaken askatasuna baiño geiago. Zuk jakín nai zeunke zelako landareak dakazan zerura igoteko indarra demotzun emakume ederra inguratzen dauan uztaiak daukazan lorak. Ni Domingo'ren artalde santuko bildotsen artekoa izan nintzan. bidea galdu ezik asko aurretatzen dabenen artekoa. Ni eskuman urren aurkitzen dan au, neure anai ta maisu izan zenduan, eta Kolonia'ko Alberto dozu. eta ni, Akino'tar Tomas. Besteak zeintzut diran ziur jakin nai ba'dozu, jarrai zuk begiakaz itzakaz diñotzudana, inguru santu onetan zear itzulia egiñaz. Grazian'en irri-barretik ernea da beste dizdiz a ango ta emongo legezko zuzenari zerbitzu bikain egin eutsonez, gozatzen bait dago paradisuán. Aren ondoan dagoan beste a, gure taldea edertzen dauana, Pedro (Lanbardo) dozu. alargun beartsuak lez, Eliza Ama doneari bere ondasunen otzurra egin eutsona. Bost-

garren argia, gureetan ederrena dana, maitasun txit betea islatzen bait dau, mundu guzria dago an beean beronen albiste-gose. Ezpiritu garaia datza beraren barruan, jakíte sakon guztiaren barne-une, egia egi bada, beste kideko barik jakitez jakitun izan zanarena (Salomon). Ikus ondoren tortxo aren argia, an beean, aragi ilkor bizi izanik, aingeruen izatean eta zerbitzuan geien ikusi izan ebana. Beste argi oso pitiñean kristiñau denporetako jagole izan zan arek irripar dagi, onen irakatsiz baliatu baít jakun Agustin. Orain adime-naren soa argiz argi ba'daroazu neure goralpenen atzetik, dagoneko zortzigarrena ezagutzeko egarria sortuko jatzu. Barruan ikusiz on guztiaz gozaten da arima santua, entzuten dautsonari munduko maltzurkeriak agiri-agirian jarten dautsozana. Bere gorputza an beean datza, Zieldauro'n, andik egotzia izan bait zan, eta martiritik eta erbeste-alditik ona etorri zan (Boezio). Begira an, urriñago, Isidoro, Beda ta Errikartaren gogo sutsuak dizdizka, azkejn onena barne-ikuntz gizonarena baifío geiago izan zana. Ori, zure begítua ortik nigana igaroten dan ori, espiritu baten argia da, bere gogarte sakon-sakonean murgildua eriotzeak etorten luzatu egiten ebala, uste ebana nunbait. Sigieri'ren argi betierekoa dozu, lastozko kalean (Paris) irakatsiz, erre-miña esnatu eben egiak adierazo ebazana.

Bertatik, dei dagiskun orduariaren antzera, Jainkoaren emaztea, bere senarrari maite izan dagian, gau-orduak kanratzera jagi oi dan orduan, eta orduari orren korapilloa ozka batetik bestera íbilli tintiñaren otsak jo artean, ots eztiak nunbait ondo giroturiko arimea maitasunez beteten dabena; olaxe ikusi neban nik aintzazko borobilla ibiltan, eta abots batek besteari an zoriona betirauntzen dan lekuan bakar-bakorrik idoro daikezan giroz ta leunez erantzuten.

- (1) Egu2kia, Tolomeu'ren eritxiari jarraituz.
- (2) Zorionsuen talde, zeruan bizi diranena.

## XI KANTUA

Muiña.—*Laugarren zerua edo Eguzkiarena: Jakinzaleak eta Jainkolariak.—Lurreko gurari ta joranen ezereza.—Zalantza ta duda bi.—Asis'ko Vrantzisko deunaren bizitza.—Dominikarrai agiraka.*

O ilkorren zentzun bako nrdurak! Aulak bai dirala lurazalez irristadan egaz eragiten dautzuen errazoiak! Nor eskuago atzetik joian, nor osabide atzetik eta nor apaizgo atzetik, índarrez naiz azpikeriz errege izatera, edo lapurretara. erriko garaztetan murgihzera edo aragi-atsegiñetara. Edo-ta alperkerira; ni, zer gnztiotatik, aske, Zorione'gaz nengoan goian, zeruan. orren aintzagarriro artua izan nintzan lekuan.

Bakotxak. leendik egoan oboara biurtuz. geldi-geldi íraun eban argi-ontziko zuzi bat letxe. Eta nik lenengo itz-egin eustan ari barruan entzun neutsan barriro irripartsu itz-egiten, gero ta dizditsuago biurtzen zalarik:

—Nik neure dirdaia aren erraiñnetatik artu daroanez, era berean. betidaiñoko argiari begira. ezagutu oi dot zure pentsamentuen jatorria. Zu zalantzaz zagoz eta nik azaldu daizudazan, nai dozu itz lau zeatzetan neure itzak, zeuk ondo ulertzeko moduan ipiñi daidazala leen esan dautzudazanok: «Asko aurreratzen da emejndik», edo-ta ots egin neban au: «Bardiñik ez dauna». Eta oneri buruz azalpen bat beintzat naitaez egin bear da. Jainko-ardurak dau munduaren jaurlaritza; onen erabagi aurrean sorturiko adimen oro azpiratua da barrenera eldu al izan orduko; bere Maiteagana bide-egin daian arek. abots zolitan odol donea ixuriz ezkindu zan Aren emazteak; eta seguru-leialago aurkitu zedin, printze bi bíaldu eutsozan lagun, gauza biotan zuzendari lez izan jakozanak (Frantzisko ta Domingo doneak).

Bata serafin-garrez bizi izan zan gori; bestea, jakituriz, kerubiñen argi-erlantz izan zan lurtean. Eurotatik bat aitatu-ko dot, naiz bat naiz bestea, bat bakarrik goretsiz biak bait dira aipatzen; arein egintzak elburu bat-batera jo ebelako. Tupino ta Ubaldo doatsuak autatu eban menditik jastendan uraren artean, bazter emokor bat dago, goi-erpiñetik beera datorrena, emen artzen dau Perusalco otza ta beroa Eguzkiaren Atetik; eta onen gibelean negartzen dabe euren buztarri astuna Nozera'k eta Gualdo'k.<sup>1</sup> Aldapa ontan, antxe patar pikeak bere ixuria gitxituz doan unean, antxe jaio zan mundura eguzki bat, Gangez gaiñ nozik bein dizdiz dagianaren antzekoa. Baiña toki ontaz mintzatzen danak ez beio esan Asia, gitxi esatea litzake-ta, Sortalde baiño, zuzen-zeatz jardun nai ba'dau bederen. Sort-lekutik urrin oindiño ez egoalarik, bere on-egite ederrez lurrari poz pitiña emoten asi zanean, alako andreari<sup>2</sup> ba, gaztetxo izanik, opatua izan zan bere aitaren naiaren aurka; ari, ezta eriotzeari be, ez dautso iñok atsegin-aterik edegiten, eta gozoko auzitegiaren aurrean *et coram patre* ari lotu jakon eta gero egunetik egunera maiteago izan eban bera. A, leenengo senar (Kristo) bage, milla ta eun urtetik gora bizi izan zan illun eta txarto ikusia, ordurarte iñok be gomitatu bage. Ez eutsan ezer balio Amiklate'ren etxean seguru aurkitu ebala esateak, onen atean oles egitean mundu guztia dardaraz euki eban arek;<sup>3</sup> ezta ez eutsan balio iraukor eta biozti izateak be, ain zuzen Maria gurutz-oñean egoala, bera abean Kristo'gaz josia zalarik. Baiña izketa gordeegian ez jardutearren, jakin eizu Frantzisko ta Txirotasuna dirala geure itzaldi luzean aitatu dodazan maitaleak. Arein eritxi bardiña ta arpegikera doatsua, arein maitasun zoragarria ta begirakunen gozotasuna, oldozkun deunen sustrai izan ziran: Bernardo agurgarria leenengo ortoztu zana ta ainbat bakeren ondoren ibilli zana, arin-aringa ibilli arren luzatzen ebala iruditzen jakona ain zuzen. O aberastasun ezezagun! Oi ondasun jori! Egidi ortozten da, Silbester ortozten da, emaztea kutun ebelako senarrari jarraituz. Andik ba-doaz aita a ta maisu a bere emazteaz eta sendi aregaz,

orduko kordoi apalarekin Iotuta egoanaz. Ez eban eratsi bere bekokia zatartua ikusirik bere burua Kepa Bernandone'ren semea zalako, ezta arrigarrero gitxi-esteko ager\* tuarren be; bestera, duin-duin bere araudi zorrotza Inozenzio'ri aurkeztu eutsen, onegandik arturik bere alkartearen leenengo onespena ta baietza. Jente txiroa gero bizi-bizi ugarituz joan zan, areik eroien bizi-moldea miresgarria bait zan, zeruko aintz-artean obeto legokena noski; eta, jakiña, bigarrenez Espiritu Santuak koroitua izan zan, Onorio'ren birtatez, artximandrita aren asmo santua. Eta, martiri egarriz, sultan arroaren begi aitzinean Kristo ta jarrai joakozanaí ots-egin eta jente a Jainkoagana biurtzeko mukerregi aurkíturik, zeregin bako ez egotearren, Itali-ko ortulco frutuak batzen itzuli zan barriro be, ta Tiber eta Arno bitarteko mendi latzean artu eban Kristo'gandik urte bían bere sointaletan eroan eban azkenengo ikurratza. Bere burua ain ezezez egin ebalako merezi izan eban sariraiño afnbat on egin ebana jasotea, Jainkoari nunbait, eder izan jakonean, bere anaiai, bidezko oiñordekoai lez, berak maiteen eban andre goraintzi eutsen, fedez maíte izan egiela agindurik; aren magal berotik egastu nai izan eban arima argi-argiak bere erreñura biurtu zedin; bere gorputzarentzat, baiña, ez eban beste obirik naí izan. Gogora orain nor izan zan, bere lagunkide leiala, Pedro ren ontzia itxas-zabal zear ipar segurantzara eroaten lan egiteko ardurea artu ebana (Domingo); au izan zan gure arbasoa, beraz arek agindua egiñez ari jarraitzen dautsonak, esan daikegu, saleros-gauza ona zatzen dauala. Artaldea, alan be, jateko barri galez dago, eta ez da gaitz an-emengo landetan zear sakabanatua izatea, eta ardi sakabanatu orreik zenbat eta urrin-barraituago ta esne gitxiagoz biurtzen dira ardokira. Batzuk ba-dira kaltearen bildur artzaiñaren inguru estutu oi diranak, baiña oso gitzi diranez ez da oial askorik bear arein jantzitarako.<sup>4</sup> Illunak ez ba'dira nire itzak eta ondo entzun ba'daustazuz; esan dodana buru-muiñean josten ba'dozu, zure guraria zati bat beintzat asetua geratzen da, ikusiko zenduan ba spildu

oi dan landerea, baita ulertu be au; *Asko aurreratzen da, bidea galdu ezik* esatean egin neban bereizkuntza.

- (1) Perusa'koak zapalduta bizi ziaan.
- (2) Txirotasuna.
- (3) Juli Kaiser, AmÍclate arrantzalearen etxean, txirotasuna pozik aurkitu ebana.
- (4) Dante'ren eritxiz, frantziskotar onak gitxi.

## XII KANTUA

Muiña.—*Laugarren zerua, eguzkiarena.*—*Dirdai bizien bigarren burestuna.*—*Domingo deunaren bizitza.*—*Frantziskotarra mokoka.*—*Bonabentura deuna ta beronen lagunak.*

Sugar bedeinkatua azken itza ebagi ta ixillera zaneukoxe, biraka asi zan txirringilla santua ta itzuli osoa emoteko oin-diño egoalarik, beste batek artu eban bere oba barru igiera igieraz eta kantua kantuz alkaturik, gure musak eta lamiñak dakarrena azpiratzen dabena nunbait, argi-izpi batek bere dirdira azpiratu oi dauan lez eresgaillu gozo areitatik urtenik. Juno'k bere neskatxa (ostarkua) bialtzen daunean odei mee batek uztai aurrez-aurreko ta kolore bardiñeko bi, barrukoa kanpokotik sort-azoz, inguratzen dauan antzera, eguzkiak lurrinak lez maitasunak urtu eban maiteder aren abotsa.iduri, Jainkoak jenteari gogorazoz Noe-kin egin itunagaitk. mundua ez dala geiago uiolatuko; betiereko larrosa-buruntza bi areik be gure biran ebiltzan inguruka kanpokoia barrukoaz bat etorrelarik.

Dantza, kirol ta beste kantuzko ta alkar dirdaitze leun maitekorren pozkarío aundiak beingoz ta naikari baten eragiñera azkenera ziranean, begiak daragoioen naira edegi naiz itxi batera egin oi diranez, argi barrien biotz batetik abots batek urten eban, eta niri, ipar-orratzak izarrerantza le2, a egoan lekurantz biureragin eustan; eta esaten asi zan:

—Ederrazten nauan maitasunak, nitaz emen ain bikainki mintzatu dan beste buruzagí a (Bonabentuta deuna) goratzera naroa. Egoki ta bidezko da, izan be, bat goraltzen dan lekuan bestea be aitatzea: gudari ízan ziran lez alkarrren ondoan, aintzak eta ospeak be bardintsu dizdiz dagiela bientzat aldi berean. Kristoren gudari-taldea, iskilluz garesti samar bir-jantzi al izan zana, astiro, susmotsu ta urri joian aren ikurrin atzetik; beti errege dan Kaiser'ak galzorian aurkitzen zan gudari-taldean ardurea artu ebanean, eta au errukiz geiago egin euskun eta ez onen duin zalako. Esan izan danez, txapeldun bigaz jagon eban bere emaztea, arein egiñez eta itzez erri bidekatua arteztu bait zan. Europa barriz apaintzen ikusten dan adar barriak erne-azteko aizeño biguna jagiten dan alderdian (España), olatuak astjn diran lekutik ez urruti; onein atzean, eguzkia bere sapero luzee-naren epean, gorde egiten da batzutan giza-begi guztien ikus-bidetik, bere egonlekua Kaleruaga doatsuak dauka, ikurdt aundiaren (Kastilla) babespean, leoia emen bait dago menderatua, berak be menderatuz, Antxe jaio zan kistar fedearen maitale gartsua, gizaseme azkar, bipil, errotsua, beretarrentzat onbera ta sugarra arerioentzat; aren arimea sortzettk doai ta ontasun biziz jantzia izan zan, ama-sabeletik. ama berberaren aoz igarle gertatua: Iturri sagaratuan bere ta fedearen artean ezkontza osoturik, emen bait ziran osasunez ornidu, aren orde z bere baietza emon eban emakumeak, amesetan ikusi eban, agandik eta aren oiñordekoengandik urten bearra zan frutu zoragarria. Eta izenetik be izango zana izan zedin, antxe goi-argitan, oso-oso bereztat artua eukan Aren jabe-izenez izendatua izan zan, Domingo deiturik, eta ni aretaz mintzo naz Kristok bere ortuan lagundu egion aukeratu eban lur-langilleari dagokioenez. Kristoren bidalia ta etxekoa dirudi ain zuzen, aregan lenengoz agertu zan guraria, ba, Kristok emon eban leenkontsejuaz bat etorrena izan zan. Sarri ixillik eta belauniko idoro eban beean bere iñudeak, esango ba'leuan: «Onetarako etorri naz». Oi, aren aita bai izan zala egiaz zoriontsu! Oi, JuanaVbai izan zala aren ama, esan nai dauanez adie-



razten baldín bada bere izena! Ez munduagaitik, Ostien-se'ri ta Tadeu'ri jarraitzen asko ta asko bertan saiatzen bait dira, egiazko mana-ren maitasunagaitik baiño, irakasle aundi egin zan epe laburrean, beingoan jarririk maastia zaintzen, au laster oritu oi da-ta maasti-zaiña nagia bada. Eta leen beartsu leialentzat onbera izan zan aulkia, orain okertua, ez bere erruz bertan jarten zanarenaren erruz baiño, ez eban eskatu sei ordez bí edo iruko lakemenik, ezta utsik legoken leenengo eliz-onik, ezta *decimas, quae sunt pauperum Dei* (Jainkoaren txiroenak diran amarrenik) be, munduaren okerrak zuzentzen jarduteko baimena baiño, inguraten zaituen ogetalau landarak dakarren azi aren bitartez. Eta gero, ikasiaz eta nai zintzoaz korapillo egifík, arin be arin abiatu zan bere apostolu-lanerako, mendi-gaiñetik be-rra amiltzen dan ixurkia antzo, eta siñausleen aldaska gaiñera jaurti eban bere oldar kementsua, biziago jakiña gibel-oldarra aundiago zan lekuan. Andik gero askotariko ibaiak sortu ziran, emendik baratz katolikua ureztaturik eta aren kimuak ortik biziago dira aurkitzen. Orrelakoa izan ba'zan, beraz, guda-burdiaren txirrinketako bat Eliz Ama Deuna jagon eta errí arteko burruka zelai zabalean garaitu ebana, bidez ederretsi zeinke argi ta garbi bestearen bikaintasuna, Tomas'ek, ni emen agertu aurretik, ainbesteko gorazarrez itz-egin dautzuna. Baiña aren oboa goi-aldeetik marratzen dauan itzul-ingurua bertanbera itxita dago, eta leen bedar ezea azten zan tokian, gaur lizuna agiri da. Bere oiñatze-tatik artez ibilli zan aren sendiak, asko aldatu bait jatzu, ak oin-puntak jarten zituan tokian orpoak jarri daroaz, eta asko luzatu bage ikusiko dozu txarto zainduaren uzta, zoragarria garautegia itxi jakola-ta uluka asten dauena.<sup>2</sup> Gure liburua orriz orri irauliko leukenak, nik uste, oindiño aurkituko leukela orri bat au irakurriko litzakena: «Ni naz egin oi nebana»; baiña ez da izango Kasal'era ezta Akasparta'rena be, oneitatik bait datoz araudiari muzin egin dautsoenak, edota berau estutu nai dabenak. Ni naz Mafforre-gio'ko Bonabentura'ren arimea, kargu aundietan egunean eguneango arazoak beti bazter itxi oi nebazana. Iluminato

ta Augustin<sup>3</sup> dagoz emen, onetxek izan ziran aurrerik ortoz-tu ziraneko beartsuak. Oneikaz dago Ugo San Bitor, eta Pedro Mangiadora, eta Pedro Hispano, an beean amabi liburuz dirdai egin ebana; Natan igarlea, ta Krisostomo gotzain-burua, eta Anselmo, ta dalako Donato, arteetatik leenengoan eskua jartea ontzat euki ebana. Emen dago Errabano, ta neu-re ondoan dizdiz dagi Jokin kalabriar abatak, igarle-garrez jantzitakoak. Gi aseme biozti a goratzera eragin dauste Tomas lekaidearen ontasun kartsuak eta itz benetan zuurrak, neu-re lagunak be neugaz batera biotz-ikutu dabezan legez.

- (1) Juana'k, Jainkoak «onartua» csan nai dau ebreoz.
- (2) Araudia ta gaiñerakoak ez beteteak dakarren uzta.
- (3) Framziskotar leenengoetako bt.

### XIII KANTUA

Muiña.—*Eguzkiaren zerua: jakintsuak eta Jainko-maita-leak.*—*Dantza barria ta kantu barria. Salomon, Adan eta Krrstoren jakituria.*—*Gizonaren arinkeria gauza sakoak ebaz-tean, munduz bestaldeko zoria epailzean batez be.*

Orain nilc ikusia errotik ezagutu nai dauanak, iruditu bei (ta euki bei irudia, nik itz dagidan artean, arkaitz irmo bai Iitzan), amabost izar bestelako eskualdeetan, edozein aire-loditasun gañditurik, zerua bizi be bizi argituko leu-kenak; iruditu bei gure ortziaren usgunea gau ta egun nai-koa jakon burdia,<sup>1</sup> endaitzak bira egitean begiz ez galtzeko moduan; iruditu bei leenengo borobilla biratzen dan gurpil-muturrean zabalduz doan adar aren aoa,<sup>2</sup> ikur bi ezarriz ze-ruan, Mino'ren alabak eiotako lore-aroa-ren antzera, erio-tza somatu ebanean nunbait, eta bata bestearen fñrñfir-izpiak artu ta biak buru-buztanka egingo ba'lebe lez bira

egiñik; olantxe eukiko dozu ni nengoan unearen inguruan igitzen zan egiazko izartzaren eta dantza bakotxaren antz-  
emoteko zer margul bat, dana egoan ba ikusi oi dogun le-  
kutik egiaz urrin Txianren<sup>3</sup> ibilli astiroa zeruetako igiera  
bizkorretik egon Ieikean lez.

An ez jakon abestu Bako'ri ez Pean i, iru nortzuri bai-  
ño, Jainko-izatedunak irurak, eurotatik bat jaincozko ta gi-  
zakizko izateduna izanik. Amaitu zan kantua, bardin batzak  
bere aldia, ta adi-adi jarri jakuzan gero izar ditzikor areik,  
arreta batetik bestera igarotean pozturik. Ondoren alkarre-  
kiko goí-argitasun arein ixil-miesa eten eban Jainkoaren  
txirotxo aren bizitza arrigarriri edestu eustanak, esanez:

—Gari-arlo bat joa izan danean, eta garaua dagoneko  
gorde, beste arloa jotera dagist maitasun eztiak. Zuk uste  
dozu, munduari ain garestí izan jakon ao-sapai elerra era-  
tzeko saietsa atera eutsan bularrean, eta beste Arengan, lan-  
taz zaurituan, erru ororen pixua garaiturik, ainbeste or-  
daindu eban leen eta gero, giza-izateak argitan euki dailcen  
guztia areitan ixuria izan zala, bata ta bestea egin eban in-  
darrari esker; eta orixegaitik, miresgarri jatzu leen esan neu-  
tzuna, bostgarren argian itxita dagoanak bigarrenik ez eba-  
la eukí baiestu nebanean. Edegi orain begiak erantzutera  
noatzunera, ta ikusiko dozu zuk uste dozuna ta nire itzak  
dirala, egiari buruz, erdi-une oboaren puntuetata lez. Ilten  
ez dana ta il daitekena ez dira gure Jaunak maitatuz sortu  
daroan gogoeta aren isla ta dirdaiak besterik, argi bizi arek  
ba, aren argontzitik jalgi ta, aregandik eta irugarren nor-  
tzuak eraten dauan maitasunetik banatzen ez danak, bere  
ontasunez dirdira.dura bialtzen dau, ispillu antzo ñirñirka,  
bederatzi zermara, bat-bakarra iraunik betidaiño guztian. Bee-  
rantz dator emendik azken-almenetara, maillaz mailla jatsiaz,  
ondoren gertakizun pitiñak baiño agiri ez dirala, eta ger-  
takizun orreik uste dot zeruak sortuak dirala, zirkin eginka,  
zilletik naiz zil-ezetik ekarriak. Onein ezkoa ta berau mol-  
datzen dauana ez dira beti era batekoak; orixegaitik, beean,  
geiago edo gitxiago agiri izaten jatzuz ikur-ereduak, eta

onela egin oi da zugatz berbera, zelako arikoa dan, igale obea edo txarragoa ekartea, eta zuek jaio oi zarie jeiñu, ganora ta molde ez-bardiñetan. Ezkoa bera izatez bete ta osoa ba'litz, eta zerua bere indar garaian aurkitu, itxurea irarten dauan argia oso-osoan agertuko litzateke; izamena alan be beti osa-eza, bere ertia daukan ertilariaren antzera jokaturik, eskuak dardar bait dagitso. Maitasun gartsuak, orraitíño, leenengo kemenaren argi bíziaz erabagi ta íkurtu ezkeru, orduan artu daroa gauzeak osotasunik bete-beteena. Olantxe egiña izan zan Lurra dagoneko, abere osotasun osoaren. duin; olantxe sortu eban Andra Maria. Ortik, ba, onartzen dot zure eretxia, giza-Ízamena ez bait zan iñoiz izan, ezta izango be, pertsona bi areíngan izan zan legez. Orain, aurrera joko ez ba'neu,. zuk esangó zeuskit: «Onek orduan zegaitik ez dau kiderik?». Baiña beste gauzá bat dirudiana ondo ikus daiten, nor zan bera pentsatu eizu ta zek eragin eutsan eskatzera, esan izan jakonean: «Eska». Zuk ulertu eziñeko eraz ez dautzut ifz egin nai, edozein zalarik be, errege izan zan a, bene-benetan errege izateko jákitufia eskatu ebana, ez gero emen goiko bultz-gailluen kopurua zein dan jakín nairik, ezta *si est dare primum motum esse* (beste batetik ez datorren leen-zirkiñik emon ete daiken), ezta zoko-ertzik ez dauknn iru-ertzekorik obo-erdian esitu leitekenik be. Esan dodana beraz ta esango dodana ulert ba'dagizuz, errege-zuurtasuna deritxo nire asmoaren geziak erakusten eban zientzi bardiñik bako ari, eta «jagi zan» itzak argiro azter ba'dagizuz, eurok ikusiko dozu erregei egozten jakezala, asko bait dituzu erregeak, baiña onak mee samar. Bereizpen onez jantzita ulertu nire itzak, olan alkar-erazo zeinkez ba len-Aitari ta gure Maiteari buruz siñisten dozunaz. Eta izan bekizu au, beruna oiñetan lez, astiro ibil zaitezcan, nekatu dan gizonaren gisaz, argi ez dakusazun bai edo ezaren biderantza, ondo bee geratzen bait da ergel ta kaiku artean, bape bereizte barik kasu baten nai bestean, baiesten nai ezesten dauana; sarri jazoten dana data, ariñegi emon eretxia guzur-aldera okertutea ta gero griñak adimena arpa artean lotzea. Txarto baiño gaizkiago

urrintzen da ur-ertzetik, egia atzemon nairLk urten zana ez bait da itzultzen joan zan legez, orri buruzko ant2e ta eria ezagutu bage, eta ontaz testigantza ederra damoe Parmenide, Meliso, Briso'k eta norantz joiazan ez ekiela ebiltzan beste askok lez, Orrela egin eben Sabelio'k eta Arrio'k, eta beste areik. Idazteunetan ezpata lez izanik bertako nabardura artezenak ezaindu ebezanak. Garia eldu aurretik sojoan ederresten dauanaren antzera, jentea ez dago lar seguru ebaztean; nik ikusi dot-eta larrosondoa negu osoan leenengo ziztakor, latz eta gero, gain jazten larrosa guri bikaiñez; baita ikusi ditut itxas-ontziak zuzen bizkorrak itxas-zear ibillaldi luzea egin ostean, kaira sarreran ondatzen. Ez uste izan Urlia anderea ta Sandia zalduna, bata ostuten eta bestea oparíak egiten ikusteagaitik, Jainko-baitan bardin ikusterik; a ba jagi daiteke, eta au, jausi.

(1) Bost Izarrak.

(2) Zaspi Izarren azken biak turut-adar eratzeko aoa dagie.

(3) Toskana'ko ibaia, astiro dabillena.

(4) Salomon'ek ez eban eskatu errege on bat izatelco bear eban zuurtasuna baiño.

(5) Sabeiio'k Irutasuna ukatu eban, eta Arrio gaitzetsia izan zan Nizea'o. IV'gn, mendean.

#### XIV KANTUA

Muiña.—*Eguzkiaren zerua: zoriontsuen dirdaria, berbiztuta gero.*—*Ñirñir bizien irugarren aro-uztaia.*—*Marte zerurako igoera.*—*Bostgarren zerua, edo Marte'rena.*—*Simsme-naren ziñopak: Marte'ren gurutzea.*—*Dante'ren birlora.*

Erditik ingurura edo ingurutik erdira igitzen da ura ontzi biribil baten, zelan eragiten jakon kanpotik edo barrutik. Supituan jarri jatan gogoan Toma'ren arima aintzatsua ixilduaz bat, aren itzetatik eta Zorione'k esanetatik erne-

ten zan antzagaitik; oni eder izan jakon aren ondoren au esatea:

— Egoki jako oni, beronek ez ítez ez pentsamentuz ez diñoan arren, beste egia baten errora jotea. Esaiozue zuen izate-mamiña barruan artzen dauan dirdaiak orañ lez iraungo ete dauan sekula ta beti; eta ba-dirau, esaiozue zelan, gero bír-egiñak zarienean, zuen begiak nekerik ez izatea jazo leitekena da-ta.<sup>1</sup>

Inguruka dantzan dagienak batzutan, biotz-ikara ta pozez, abotsa jaso ta alaitasunezko zantzoak bota oi dabezan lez, era berean erregu onbera ta adierazkor aren aurrean, atsegin barrizatua erakutsi eben obo santuak euren jirabira ta kantu miressgarrietan. An goian bizi izateko emen ilten dala-ta larri ta zinkuriñez dagoanak, an ez dau ikusi betiereko euriaren atsegiñik. Bat eta bi ta iru a beti bizi ta errege dana iruan eta bian eta batean, esitu bagea ta dana esitzen dauana, íru aldiz izan zan aúkatua<sup>2</sup> ereskitsu be ereskitsu espiritu areitako bakotxak abestua, eres-batzik bikaiñenak egin daikean baiño be edertoago. Eta bira txjkiko argirik jainkozkoenean abots apal bat entzun neban, bear bada aingeruak Maria'ri itz-egikerakoaren antzekoa, onela erantzunez:

—Paradisuko jaiak dirauño, iraungo dau dirdaika gure maitasunak gure soiñeko biran. Geure gar-kemenetik datorrena da orren argitasuna; gar-kemena zeru-ikuskaritik erreten, eta au dagokio graziak berezko on-izateari damotsona. Aragi aintzatsa ta donez jazten gareanean, gure pertsona, osoa dalako, atsegiñagoa izango da, aziagotu egingo da ba goieneko onak dubarik argitan damoskunaz; argi orrekin ikusiko dogu Bera, ta ortik aziago egin bearko dau ikuskariak, aziagotu bai onetatik bizten dan garra be, eta bardin afnbesteko garretik sortzen dan ostrintza. Baiña garjaurtika dagoan ikatza lez, a bizi ta dizditu agiri danez, gaiñetik, erdian dagoala be nabarmentzen dalarik, orrelaxe gu orain inguratzen gaitun erlantz edo dizdiz-jario au be oraindik lurpe datzan aragiak garaituko dau ikus-indarrean, eta

ezingo gaitu lausotu ainbesteko argitasunak, soin-atalak bada sendo gogorak dirake atsegindu geinkezan guztiri erfi-me eusteko.

Bat-bateko ta eretxi bardiñeko begitandu jatazan, zein bata zein bestea, «Olantxe» esaterakoan; biak erakutsi eben, bai, euren porputz ilkorrak barriz artzeko gogo bizia, ez bear bada eurakaitik, euren amak, aidak eta betiereko gar biurtu aurretik kutun izan jakezan beste izaki batzukaitik baiño. Eta or'a emea: beste erlantz bat agertu izan argitasun aretn bíran. egun-sentian osertz bezela, an egozanen gaiñez. Eta gau aurrean zeruan dirdai barriak ikuskatzen diran lez, bai agertzen ez agertzen begien aurrean, era berean us-te izan neban nik ikusten así nintzala an mamin barriak, beste inguru bietatik at obo bat egiñez. Oi Gogo Deunaren egiazko dirdai! A bai agertu jatala begi aurrean bat-batean eta diztikor, naiz-ta nik ezin jasan! Baiña orren eder ta irripartsu agertu jatan Zorione'k itxi eban niretzat ikuskari a, nire gomutamenak gogoratu ezin leikezanan artean. Nire begiak orduan ber-indartu ziran jagi al izateko ta neure andereaz batera goragoko aintzara eroana gertatu.

Besteetan baiño gorriago iruditu jatan izarraren suzko dizdizeraren bidez konturatu nintzan goragoko mailla batera igona nintzala; eta guztiona dan izkera berarizkoan esker barri oni egokion oparia eskiñi neutson Jainkoari biotz osoz. Eta etzan oindiño itzalfá nire bularrean opariaren garrá, biotz onez artua izan zala ezagutu nebanean, erraiñu bi agertu jatazan, ba, ainbat eta ain bizturiko dirdirakaz, nik esanik: «O EUos (emen Jainko), zelan edertzen dozuzan!».

Argi aundi ta txikiz apain, munduaren buru artean zuriz jazten da Galaxia (ostraillika), jalcintunak be ezmez jarten dituna; erraiñu areik Marte'ren sakonean era orretan bananduak egiten eben euren alkar-jotean obo baten laurenak dabezan ikur agurgarria. Nire oroimenak eraen senaren jita azpiratu daroa, gurutz aretan ba Kristok dizdiz dagi, nik bera adierazteko modu egokirik ez aurkitzeko eran dizdiz egin be. Gurutzea artu Kristoren jarrai doanak, baiña,

parkatuko daust esan bage izten dodanagaitik, zuritasun aretan Krísto dizdizka ikusi dagíanean batez be. Beso batetik bestera ta goitik beera argiak igitzen ziran bizi-bizi, txingar gorituz alkar aurkitu ta gaiñez jarlean. Olantxe ikusten dira emen, lerro zuzen naiz oker, azkar naiz astiro, antzirudia aldatuz, gorpuzño txikiak, luzeak naiz laburrak, zirkin egiten, gizonak noizík bein bere burua babesteko, antzez eta maiñaz gertatu dauan itzalpea zearkatu daroan etrañua bide. Eta arrabitak naiz maniurak euren ari-moltzo naasiaren naasian soiñu leun-eztia dakarren bezela, baita eresiaren jarraia bereizten ez daben areintzat be, era berean agertu jatazan argietatik ateraten zan gurutzez ereserkia ulertu ezta be ni birloratzen nindun musíka berezia. Ondo konturatu nintzan orduan goratzarre gurenez gaiñezka egoala, «Resurgi» (jagi) ta «Vinci» (garai) nigana bait ziran jaristen, baiña entzuten dauana ulertu ez dagianaren antzera. Ni aregaz poz-eztitan nengoan; ordurarte ez dot uste lotu ninduanik lokarri ain samurrek.

Ausartegiak dira bear bada nire itzak, begi ederren atsegiña gibel itxiz, eurotan begiratzuz bait guraria baretzen,<sup>3</sup> baiña edertasun betearen ezaugarri biziak, garaiagoak eta obeto josten dirala, ta ni ez nintzala areitara biurtu konturatzan danak, neure burua babestu ta gaiñ-zuritzeko autoritzen dodanagaitik erru bageko itxi ta egia diñodala ulertuko dau; atsegin santu a, ba, ez dago emendik bazter itxia, gorago igon eta zintzoagoa egin oi da-ta.

- (1) Aragia biztu ondoren jazotekoa.
- (2) Irutasun Txit Santua goratuz.
- (3) Zorione'ren begietan, jakiña.

## XV KANTUA

Muiña.—*Bostgarrena, au da, Marte'rena.*—*Siñismenaren martiriak.*—*Cacáaguida.*—*Antxiñako Firenze (Florenzia).*—*Dante'ren arbasoak.*



Nai-izate onberak, zuzen argituriko maitasuna ontan bait da beti be urtzen, zekenlceria gaitz-egitean lez, ixilla jarri eutson Hra gozo ari, zeruko eskoiak tenk ípiñi ta ixilera<sup>2</sup>ten ditun ari sagaratuak bakeraturik. Zelan mutu egongo, bidezko eskarien aurrean, mamin areik eska nengioela niri naia someko, ixiltzeko bat etorri ziranak? Ondo dator-ko azken barik miñetan egotea, ari, iraunkor ez diran gauzen maitasunagaitik, betiere-betiarean maitasun artaz gabe-tzen danari.

Ortzi aratz garbian zear, ara naiz ona, bat-bateko sua ibilli oi danez, leen ardurage egozan begiaak beraganatuz, eta tokiz aldatzen dan izarra begitanduko litzakiguna, barri-ro be piztu ta gitxi irauten dauan tokian ezer palta ez ba' litz; era berean, eskumara lu<sup>2</sup>aturiko besorik gurutz aren oiñeraiño, an dizdiz dagian argi-moltzoko izar bat iradu abia-tu zan. Diamantea etzan banandu aren kerpatik, gerriko dir-daitsua zearkatu baiño, ar-zuri edo alabastroaren atzean ar-gia zirudiela. Olaxe onbera agertu zan Ankise'ren itzala, federik merezi ba'dau gure musarik aundienak, Eliseu Lan-detan bere semea ezagutu ebanean: *O sanguis meus, o su-perinfusa gratia Dei, sicut tibi, cui bis unquam coeli ianua reclusa?* (O ene odol! O Jainko-grazi goitik ixuria! Nori, zuri lez, edegi izan jakon birritan zeruko atea?) *Enearena*, VI kantua.

Olan itz-egin eban argi ak, aregan jarri neban nik ar-dura osoa; gero neure andreagana biurturik arpegia arritu-ta geratzen nintzan aren eta onen aurrean; arein begietan irribarre leunak dizdiz egian, eta neureakaz graziaren eta paradisuaren ondarra ikutzen nebala neritxon. Ondoren, es-piritu arek, ikusi ta entzun gozotasuna emoten ebanak, bere leenengo itzai gaiñeratu eutsen nik ulertu ez nebazan gau-zak. Arek esana sakona bait zan, aren asmoa etzan arren niri itzen zentzuna estaitzea; baiña orrela izan zan aren gogaiak ba ilkorren adimen-indarra baiño gorago egozan.

Eta aren maite-su gartsuaren uztaia, bere itzak gure adi-menaren mende egoteraiño jatsi ziranean, nik lenengo en-tzun neban gauzea, auxe izan zan:

—Onetsia zara zu, iru ta bakar ori, nire ondorengoaka2  
ain onbera zarana!<sup>1</sup>

Eta jarraitu eban, esanez:

—Aintxiñako gurari atsegintsu bat, iñoiz be zuria baltz eta baltza zuri<sup>2</sup> biurtzen ez dan liburu mamintsua irakurriaz, asetu dozu, seme, míntzo naiatzun argi onen barruan, egazkada ain garairako lumaz jantzi 2Índuzan ari esker. Zuk uste dozu zeure pentsamentua leenengoa dan Arengandik eldu zala nigana, jakiña dan legez, batetik datozanez bosta ta seia, eta orixegaitik ez eidazu itandu nor nazanik eta zergaitik naiatzun moltzo alai ontako beste edozein baiño pozalaiago. Egitan zagoz: bizitz ontako txikiak eta aundiak ispilluan begiraten dabe; emen pentsamentua, pentsatu aurretik, dirdaitua dozu. Baiña betiere osoan ikuskatu ta gurari gozotan estutzen nauan maitasun sagaratu obeto goza dadin, zure abotsak tinko, sendo ta atsegingarri zure naia, zure guraria adierazo daian, nire erantzuna dagoneko gertu bait dago.

Zorione'gana biurtu nintzan ni; eta onek, ni mintzatu baiño leen entzun eustanak, irribarre egin eustan, nire irritsen egoak azi-azorik. Gero, onela asi nintzan:

—Leenengo bardintasuna iragarri jatzenetik, sentipenak eta adimenak pisu bardiña daukee zuetako bakotxetan, bere zu ta argiz argitu ta galdatzen zaituen eguzkian, oso bardiñak bait dira, ta adibide oro aiperreko dozu. Baiña ilkorren naiak eta errazoiak, zeuek dakizuezan zerak-aitik, era askotako luma-egoak daukez, eta nik orixe dala-ta ilkor na2alako, ez-bardintasun au daroat; beraz, ez dautsot eskerrik emoten biotzez baiño aita-zurreko arrera oni. Arren bai arren eskatzen dautzut zuri, arripitxi aberats bikain orri, topazi bizi onetan kokaraztuta zagoan orri, egin naizula zeure ízenaren jakitun.

—Oi ene kimu! , zain nengokizun bitartean zu ziñan nire atsegin! Ni izan nintzan zure sustrai.

Itz oneikaz asi zan niri erantzuten. Esan eustan gero:

—Zure etorkiak bere izena artu eban a ta eun urte baiño geiagotan mendiari bere leenengo kareletik jirabirak emon dautsozana izan zan nire seme ta zure aitalena. On izango da zeure egiñez arindu daizun neke luzea. Florentzia, bere aspaldiko arresi barne, oraindiño irugarrena ta be-deratzigarrena joten entzuten dana, baketan bizi zan, neurritsu ta garbi. Ez eukan beso-zirgilarik, ez koroirik, ezta inendeldun gonarik, ez pertsonak baiño be gerriko deigarriarik. Alabeak ez eutsan oindiño, jaiotean, aitari bildurrik emoten; ezkontzako adiña ta ezkontzariak ez bait ziran oindjño urrindu neurri guztitik. Ez egoan etxe utsik; Sardanapalo etzan oraindik eldu etsari baten zer egin daiken erakustera. Oindiñokarren etzan azpiratua Montemalo gure Uccellatio'oren bitartez, gorunzkoan lez beerunzkian be azpiratuko dauana. Nik ikusi neban Bellinzion Berti azurezko belarridun narruzko gerrikoaz joaten, eta bere emaztea arpegia margoztu bage ispillutik alde egiten, eta ikusi nebazan Nerli'tarrak eta Vecchio'tarrak narru-mintz soillez estaldurik pozarren eta euren andrak ardatzari ta goruari era-goioelarik. O zoriontsuak! Bakotxak ba-ekian nun eukan bere illobia, ta oraindiño bat-bera be etzan bere oian zapuztua izan Frantzia'ren<sup>3</sup> erruz. Batak kumea zaindu oi eban arduraz, eta semeari poza emotean aurretik gurasoak poz-azo zituan izkuntza erabillen; besteak, goruari uletatik tiratuz, erasiz ziarduan bere sendikoakaz troiar, Fiesole ta Erroma'ko jazoerak. Arrimena sortuko leukean orduan Zianghella edo Lapo Saltarello batek, Zinzinato ta Kornelia'k gaur legez. Ainbesteko baketan, erritarren bizimolde ain bikaiñean, uri-bizí-izate zintzo ta sukalde gozoan, erne-azo nindun ni Andra Mariak oi u aundiz deiatua, eta zuen aintxiñako batai-arran kristau egin nintzan batera, ta Kacciaguida, Moronto ta Eliseu izan ziran nire anaiak; nire emaztea Po ibarretik etorri jatan, eta andik dator zure ebizena. Gero Konrado agintariari jarraitu neutson, eta ak egin ninduan bere gudaritzako zaldun burutu neutsozan egintza onak eskertu nairik. Aren atzetik joan nintzan lege gaiztoaren aurka, erri arek bait dau indarka bereganatzen, artzaiñaren erruz, zure jabe-

tzea. An izan nintzan ni jente baldar aren bitartez mundu naltzurretik askatua, arima asko bait ditu ziztrin biurtzen mundu-maitasunak; eta martiritzatik bake ontara etorri nintzan.

- (1) Cacciaguida da mintzatzen dana, DanteYen irugarren osaba.
- (2) Iñoiz aldatzen ez dan alanberraren liburua.
- (3) Florentziarrak, euren emazteak itxi oi ebezan salerosketan Frantzia'ra joatelco.

## XVI KANTUA

Muiña.—*Marte'ren zerua\ Smhmenaren martiriak.— Aundikitzaaren arropuzkeria, Kacciaguida ta beronen aurreti-koak.—Florentzia'ko uritar zaar eta gazteak.*

O gure odol-garbiaren balio exkasa! Arro dedilla zutaz emen beian jentea, gure ondo-naia raakaltzen dan lekuan, sekula miretsiko ez nauan gauzea berau, an bada leia oker ez dan lekuan, ots, zeruan, neu errotu nadin zutaz. Egiaz laster laburtzen dan txabuxa zara, ta egunero ipingia barria ipíni ezik aldiak bere artaziakaz doatzu inguruan ebagiz. «Zu» itza Erroma'k lenengoz onartu eban eta bertakoak gaur gitxiago darabilen «zugaz» asi ziran barriro nire berbak, eta Zorjone'k, nigndik pitin bat urrinduta egoanak, irribarre egin eban, Ginebra'z idatzi dan lenutsera eztulka jardun ebanaren antzean (*Infernua*, V).

Ni asi nintzan onela:

—Zu zara nire aita; zuk damostazu arnasa itz egiteko; zuk aJaxe jaso bai nagizu, nazan baiño geiago egifrik. Ur-tximpa askoz pozten jat adimena, ta goza oi da beraz potik egin bage eroan daikelako. Esaidazu ba, ene aitalen laztan, nortzuk izan ziran zure arbasoak eta zeintzuk zure

aurtzaroan oiñatza ítxi eben urteak; mintza zakidaz San Juan <sup>l</sup> artaldeaz, zelakoa zan orduan, eta zeintzuk zíran bere artean kargurik gorenenak eukezan pertsona duiñak.

Ikatz-txingar ixetuak aizeak ikutzean biztu oí diranez, olaxe ikusi neban nilc argi a dizdiz egiten nire eskari aurrean; eta níre begientzat ederrago zalarik, aots bigun samurragoz baiña ez gaurko gure izkeran, esan eustan:

—«Agur» esan zan egun atatik nire ama —zeruan bego—, erdibituz, nire pixutik askatu, nigaz bait egoan astun, eta bere Leio'ra eldu arte, bosteun berrogetamar eta ogetamar bider izarbel au aren oiñetan su artzera urreratu zan, Nire aurretikoak eta ni jaio gintzazan, zuen urteroko jokuetan lasterka dagianak azkenengo egoitza leenengo ídoro daroan lekuan. Au jakiñez naiko dozu nire arbasoetaz, zer izan ziran naiz nundik etorriak, ixiltzea esatea baiño zuzenago da-ta. Orduan Marte ta Bateo-arri artean armak eroateko gauza ziran guztiak, orain an bizi diran bostena besterik etzan; baiña uria, gaur Kanpi, Zertaldo ta Fegghine'ko jentez nastua, odol garbikoa zan azkenengo langillearaiño. Oi! oba bai litzakela dinodan lako jentea auzoko eulcitea, eta zure nrugaldeak Galluzzo'n eta Trespiano'n ba'legoz eta ez eurok barruan euki ta Aguglion'go ta Signa'ko uritarren atsa egari, garatz eta sal-erosketarako zoli trebe ba'dira be. Munduko jenterik ustelena izan ez ba'litz Kaisar'entzat amorde, ama onbera bere semearentzat, florentziarra egin zan lez erosi ta trukatzeko, Simifonte'ra biurtuko zan, bere aitita billa ebillan lekura; Momtemurlo oraíndik Konti'tarrena izango zan, Zerchi'tarrak Ankona'ko piebanian legokez, eta bear bada Valdigrieve'n Bondelmonti'arrak. Urietako gatxen asiera pertsonen nastea izan zan beti, zeuen gorputz-gatxak janari bat beste bati ezartetik datozen lez, eta zezen itsua ariñago jausi oi da bildots itsua baiño, eta sarri ezpata batek geiago ta obeto ebagiten bostek baiño. Ikusten ba' dozu zelan beia jo eben Luni ta Urbisaglia rrak eta zelan doazan arein atzetik Chiusi ta Siniaglia, ez jatzu irudituko gauza barri ta latza zelan suntsi-

tzen diran sendiak jakiteak, uriak muga bat daukie-ta. Zuen gauzak oro eriotzera doaz, zeuok bezela; au baiña ostendu egiten jatzue naiko iraun oi dauan zerbaiten hatcuan, zuen bizia laburra bait da. Eta illargiaren goraberak estaldu ta agertzen dabezana lez itxas-ertzak<sup>2</sup> atertu barík, gisa berean dagi Alanbearrak be Florentzia'z; ez zaizula íruditu, ba, gauza arrigarri leenengo florentziarraí buruz esango dautzudana, euren entzutea aldiaren galtzarrean gordea bait datza. Nilc íkus nitun Ughi'tarrak, eta ikusi nitun Kattellini, Filippi, Grezi, Ormanni ta Alberichi'tarrak, euren gainberakoan, uritar argiak; baita ikusi nitun aundiak bai-zen antxiñakoak, SanneJla'koakaz Arka'koak, Soldanieri, Ardinghi ta Bostichi'tarrak. Ate gaiñean, zure ontzia, gaur maltzurkeri barríz zamatua bait dago, pixuaren pixuz laster urperatuko dauanean, Ravignani'tarrak egozan, oneinkandik etozen Guido kondea ta gerora Bellinzion aundiaren izena artu daben guztiak. Preso'koak ezagutzen eban orduko erria zelan arteztu bear dan, eta Galigaio'k bere etxe urrezatuan eukan orduko gudari-taldea zaíntzeko ta ezpatearen sagarra. Aundia zan dagoneko mustarelaren guda-zerrenda, Sacchetti, Giuochi, Fifanti, Barucci ta Gaili'tarrak eta artu ebezan neurrietaz lotsatzen diranak. Kal-fucci'tarrak erne ziran enborra aundi egiñik egoan orduko, baita Sizzi'arrak eta Arrigucci'arrak kargu garaietara jasoak be. Oi, zelan ikusi nebazan nik gaur euren arrokeriagaitik lur jota dagozanak! Eta urrezko goronbillak loratu erazten eben Florentzia euren egite arrigarri guztiakaz. Orrela egin oi eben arein gurasoak, eta zuen eliza buru bage geratzen zanetan batzarrera deituz loditzen eben gauzea. Igesi doazanen atzetik asarre bizitan doan leiñu arroak, eta ortzak edo-ta ziskua erakutsi daroitsenen aurrean bildots antzera otzan agertzen dana, gorantz etorren orduko, baiña etorki apaletik, beraz Ubertain Donato'ri ez jakon gogoko fzan bere aitagiñarrebak arekin senidarlekotzerik. Merkantuan egozan orduko Fiesole'tik jatsitako Kaponsako, ta orduko uritar on ziran baita Giuda ta Infangato be. Gauza siñist-ezin bat esango dot, baiña ziurra: Pera'tarren izena

eroian atetik sartzen zan barren txikira. Bari aundiaren ikur dotorea daroien guztiak, onen izenak eta ospealc dizdiz baít dagie Toma Deunaren jaian, agandik artu ebe2an tituluak eta dedu-legeak, naizta gaur erriaz naste ibilli urrezko litsez inguratua doana. An egozan orduko Gualterotti'tarrak eta Inportunitarrak, eta naroago egongo zan noski Borgo'a auzokoz baru gelditu ba'litz. Zuen naigabea jaio zan etxea, suntsitu zaituen asarre zuzenagaitik, zuen bizitza alaiari azken a emonik, arek eta aren adiskideak omendua izan zan. O Buondelmonte! Zenbat oker ekarri zenduan arekiko ezkontzatik iges egitean, besteentzat pozkario! Goibel dagozan asko, alai izango Jainkoak Ema'ri emona izan ba'zintzaz leenengo aldiz urira etorri ziñanean. Baiña idatzita egoan zubia zaintzen dauan arrí apurtu aren aurrean, opari bat egin egiala Fiorentzia'k bere azken bakealdian. Jente oneik azi eta beste batzuk oneikaz, ikusi neban nik Florentzia barealdi oso betean, eta ez eukan, ez, zetan negarrari emon. Jente orreikaz ikusi neban nik aintzatsu ta artez zure erria; lili-ikurra<sup>4</sup> ez bait eban agan egundo eroan itzulietara, ezta inki-anka ta tiraberaz gorritznta be.

(1) Florentzia uri erdian egoan toki au. Ospetsu ziran San Juan lasterketak.

(2) Itxasoaren gora-berak illargiari ezarten jakoz.

(3) Amadei sendikoa emetik sortu bait ^iran Florentzia'ko asareak.

(4) Lilia, florentziar ikurra.

## XVII KANTUA

Muiña.—*Marte: Veddaren ziñopak.—Erbesteko neke-miñak.—Dante'ren garraztasunak eta itxaropenak.—Egiaren balioa.*

Klimente'gana jo eban bezela, beretzaz zer egoan jakitearen> gurasoak oindiño euren semeakaz zuurrak izaten sustatu ta aolkatzen ditun arek;<sup>1</sup> alantxe nengoan ni be, ta ondo ulertzen eben Zorione'k eta neugaitik tokiz aldatu zan argi deun arek. Nire andereak, beraz, esan eustan:

—Laga urteten zeure gurari biziari, ta zeure barru-irudiak argi ta aratz ikurraztuta uíten daitela, ez zure itzakaz gure ezaguntza geiagotzen dalako, beste batzuk be atsegin artu dagien munduan zeure egarria adierazten oitu zaitetzan baiño.

—Oi ene landara kuntun! ainbestean goratzen zareana! Lurtar adimenak iru-zokoko baten ertz kamuts bi ez diraila sartzen ikusten dauan lez, zuk orrelaxe ikusten dozuz jazo aurretik gertakizun diran gauzak, aldiak oro bateratuta begien aurrean lez daukazuzan unera begiratuz! Arimak osatzen dítun mendira igoten edo mundu illera jasten Bergili'gaz nenbillela, itz astunak esan jatnzan neure geroko biziiaz, eta, ni alanberraren ukaldien aurrean lau-ertzekoa lez tinko nabari izan arren, ase geratuko litzake nire naizatea jakingo al ba'neu neuri dagokidan zoria, gezi aurrez ikusiak min gitxiago bait dakar.

Onela itz-egin neutsan aurretik mintzatu jatan argi berberari; eta Zorione'k nai ebanez, neure guraria emon neutsan. Ez gero zear-mearka; gure pekatuak kentzen dauazan Jainkoaren Bildotsa opari egiña izan arte, jente ergela errez jausi oi zan orretan; ez, itz garbiz ta latera artezean erantzun eban aita-maitasun arek, bere kautako irripardizdiz argitan ezkutu ta egiriko erabat dan arelc:

—Zeuen munduko mugetatik kanpora gertatzen diran jazokizunak, aurre-aurrean daukaz oro betiereko adimenak; ezin daiteke baiña emendik atera euren bear-izana, beera doan ontzi baten ibillia islatzen dan begikadatik esegita dagoan antzera. Goi-gaillurretik eta organuaren eresi oskideatsua belarrietara eldu jakun lez, datorkit begietara gertatzen jatzun aldia. Atenai'tik abiatu zan Ipolito,<sup>2</sup> bere



amorde biotz-gogor doillorragaitik, zuk be bardintsu urten bearko dozu Florentzia'tik. Au opa da ta au billatzen da dagoneko, ta egifía izango da berau laster, an Kristo egu-nero saldua dan tokian, ori gogo-emonez dabiltzanen bidez. Errua, oi danez, azpiratnai egotziko jake; baiña zigorra egíaren ziñaldari izango, dagokionari ezarria. Zuk geien maíte dozuzan gauzak itxiko dozuz, erbestearen uztaí-geziak dakarren leenengo lor-miña. Zuk ikusiko dozu zein garratza dan iñoren ogia ta zein bide latza besteen zurubitik beera ta gora ibiltea. Eta bizkargain jausiko jatzun pisurik aundiena ibar onetan leporatuko jatzun lagun-talde gaizto ta txatxo-ñukua izango, esker txarreko zoto ta errukírik eza, zeure aurka jagiko dana; baiña gerotxoago, berak eta ez zuk, negarrari egin bearko. Bere aberekeriaren zantzu bere jokabidean ekarriko, ta an gertatuko jatzu zuri onik aregandik zeurez aldendu izana. Zuk zeure iges-aterpe ta babesa Lonbardo aundiaren jauregian aurkituko dozuz; zurubi gaiñean daroa onek egazti sagaratua, ta beronek artuko zaitu guztiz tzeratsu; artu ta emon, zuon bion artean, leenengo gertatuko da, enparauen artean azken joan oi dana. Atekin ikusiko dozu jaiotean izar sendo onen eragiña artu ebana, eta beronek burutuko ditu egintza arrigarriak. Jentea ez da oindiñokarren artaz konturako, adin laburrekoa bait da; bederatzi urte dira-ta bakarrik aren inguruan biraka dabiltzala; alan be, gaskoiñak Enrike aundia atzipetu baiño leen, aren birtute-diztirak nabarmenduko dira, aren lanak eta diruari egiñiko ukoak. Oso ezaguna izango da aren aundi-izatea, bere arerioak eurak be ixi-Uik euki eziñekoak. Izan uste on arengan eta aren obarrietan; a dala-ta jente asko aldatuko da, aberatsak eta txi-roak jokaeraz besteturik.<sup>3</sup> Eroaizu au buruan aretaz idatzita, baiña ez ifiori esan...

Beste ainbat gauza edestu eustazan ondoren, entzuleei siñist-gaitz egingo jakezanak. Azkenez gaiñeratu eban:

—Ene seme, onetxek dozuz esan jatzunaren azalpenak, eta or daukazuz, urte gitxitan baiña, gorderik izango do-

zuzan lakio ta maltzurkeriak. Ez dot nai, alan be, zeure aukoei gogaikarri izan zaiakezanik, goragokoa da ba zure bizia, ta zabalagoa gizaldiz, arein gaiztakeriaren zigorra el-tzen luzatuko litzaken baiño areago.

Arima santu arek nik gertatu neutsan irazkiaren eun-  
eiotzea, ixilduz, amaira ebala erakutsi ondoren, ni asi nin-  
tzan esaten, bere duda-mudetan, pertsona aitu, zuzen eta  
maitale bategandik kontsejua irrikaz itxaroten dauanaren  
antzera:

—Ondo dakust, ene aita, zelan laprast dagian aldiak  
enegana kolpe bat neuri emon nairik, zenbat eta bat er-  
dura bakoago ta latzago diran orreitakoa; ondo litzakit, be-  
raz, aurretik iskillutzea ainbestean, olan, kutunen dodan  
Iekuz bagetu ba'níndukie be, besteak galdu ez daidazan  
neure bertsuen erruz. Beian munduan, azkenik bako garraz-  
tasuna dagon tokian, eta mendi aretan, neure andrearen be-  
gialc aren erpiñetik jaso bait ninduen, eta gero zeruan, ar-  
giz argi, ikasi dodazan gauzak esango ba'nitu, askorentzat  
sapora garratza eukiko leukie; baiña, egiaren adiskide bil-  
durtia ba'naz, lotsa naz galduko ete dodan izen ona orain-  
go aldiari aspaldikoa esango dautsoenen artean.

Toki atan nik aurkitutako altxorra irribartsu neukan  
argia aurrenik dirdaitsu egin zan, urrezko ispillu bat eguz-  
kiaren erraiñutan legez, ondoren jardetsirik:

—Norbere lotsaz edo-ta besterenez kezkatu-  
rikotzia izango da bakar-bakarrik zure itzen gordintasuna  
sentiduko dauana; baiña, alan eta guzti be, bazter egizu  
guzur oro, erakus oso-osorik zeure ikusbjdea ta itxi ezka-  
bia daukana igortzi dedtn, zure abotsak, ba, leiaz egotz ba'  
dagi kera gaiztoa, egositakoan gibel itxiko dau bizi-azku-  
rria. Aizeak lez edo egingo dau zure abotsak, gorengo ton-  
torrak gei-ago astin-azo, eta ez da izango deduari buruzko  
errazoi txikia.

Boronbil oneitan erakutsi jatzuz, baiña, mendian eta  
ibar naigabetsuan, entzute aundiko arimak bakar-bakarrik;

entzuten daunaren gogoak, izan be, ez dau uste onik ezta federik emon be, bere sustraia ezezaguna ta gordea dauan adibideari, ezta argiak ez diran zergaiti ta errazoiai be.

(1) Faeton, bere amagana joan zan, Eguzkiaren serae ete zan jakin nairik.

(2) Iraindua ta erbesteratua.

(3) Txakur Aundia, ainbatetan aitatua.

## XVIII KANTUA

Muiña.—*Bostgaren zerua\ Siñismenaren martirtak.*—*Marte'ren gurutzan dirdir dagien espirituak.*—*Jupiter'tik zerura igoera.*—*Nagusi jakitun eta zuzenak: «Diligite iustitiam».*—*Agint-arranoa.*

Espiritu doatsu a jadanik gozaten egoan bere pentzamentuetan, eta niri atsegiña ekarsten neureak, garratza gozoz arindurik, Jainkoarantza gidatzen nindun andra arek jalgi eustanean:

—Itzul eizu gogoá; pentsa zuzen-gabe oro kítutzen dauanaren urre nagoala.

Biurtu nintzan azkartzen nindun abots maitatiarengana ta aren begi doneetan ordun ikusi neban maitasun-sua ezin dagiket nik margoztu, ez neure itzetan entzingait<sup>2</sup> nazalako bakarrik, adimenak, zuzen daroan beste izakiren bat laguntzaille ezpadau, ainbat gairduten dauana birrítan eraso ezin daualako baiño. Puntu onetaz auxe esan daiket soil-soil: a ikusiaz, nire zalea aske somatu zala beste edozein zaletik, betiko dan atsegiñak, ba, Zorione'ren gain artez artez eraiñturik, betarte ederra bide, zoriontsu egin oi nindun ni be bere argi-dirdaitan.

Par-irn argiz erasten ninduelarik, berak esan eustan:

—Biur ta entzun; paradisua ez dago, ba, nire begietan bakarrik.

Eta emen be, noizik bein, grñña-zaletasuna begietan dizdizka ikusi oi dogunez, barru guztia orri loturik ba'dago beintzat, orrelaxe, arengana itzultzean, dizdiz santu aren isla ta su-laman oar nintzan oindiño itz-jarioz jarduteko gurrariz egoala. Eta esaten asi jatan:

—Goi-kemenez bizi dan zugatzaren bostgarren adar onetan egundo orria galdu barik, beti frutua dakarrenean, espiritu doatsuak bizi dira, an beean, zerura etorri orduko, abestu eutsen edozein olerkariri atsegiña emoteko beste ospe izan ebenak. Baiña begira gurutzearen besoai; areik, nik izentatuko dautzudazanak egingo dabe euren agerpena, tximista azkar batek odeian lez.

Dirdira bizkor bat ikusi neban gurutzetik igaroten Josue izentatn nebanean, izentatuz batera ain zuzen be, nik jakin ezin izan nebalarik itza ala egiña izan zan leenago. Eta Makabeu anndi izentatzean, beste argi bat ikusi neban bira-biraka, pozkarioak akulatua. Olan, Karlomaiñ eta Orlando'rentzat, argi biri jarraitu neutsen neure begiratze adikorrez, mirotzari begiak jarraitu oi dautsoen lez bere egazkadan. Nire begiak gero gurutz gaindí Gilelma ta Erre-noardo'ri jarraitu eutsen, Gottifredi dukeari ta Errobert Guiskardo'ri. Bertatik, beste argiakaz naste biraka, leen mintzatu jatan arimeak zelako zan bera be erakutsi eustan zeruko abeslarien artean.

Eskumarantz biurtu nintzan zer egín bear neban jakiteko Zorione'gan, onen itzen eta esku-erabillien bitartez; eta begi arras garbí ta eztiak ikusi nebazan, eta argikera be besteak eta berak be geienez euki oi ebanean baiño ederragoa zala. Eta gozotasun aundiagoa somatzearren, bere on-egitez egunetik egunera aurrera doala konturatzen dan gizona lege, neu be konturatu nintzan zeruazko níre inguruko ibilteak be biribil zabalago bat artzen joiaia, mirari a dizditsua-

go ikusiz. Eta epe laburrean aldatu oi danez zuri lotsa-pi-  
sutik askatzen danean emakume baten arpegia, olaxe ager-  
tu zan nire begien aurrean, itzuli nintzanean, ni bere ba-  
rruan artu ninduan seigarren izar neurrituaren zuritasuna.<sup>1</sup>

Jobe'ren sugar atan ikusi nebazan nik bertan egozan  
mañasunezko argi-ziztakak marraztu eroela, neure begi au-  
rrean, gure abezea. Jatekoz ase ondoren, ibai-gaiñ jaso ói  
diran egaztiak egaz aldra biribil luzatua eratzen dabena lez,  
alantxe, argi-barruan, bira-biraka ebiltzan kantari ta euren  
ibilkeraz oraín D. bat, gero I. bai: naiz L. bat tajutzen eben.  
Aurrena, abestuz, neurrira zirkin egien; gero, ikur areita-  
ko bat itxurazturik, pitin baten gelditzen ziran, eta ixildu.  
OÍ Pegasear<sup>3</sup> jainkoti! , asmotsua aintzaz bete ta bizi luze-  
ko egin daroazuna, ta oneik, uritarrak eta erreñuak erabat  
aintzaz jazten! Argi naizu, itxura areik nik ikusi lez adie-  
razo ta bertso labur oneitan ager dedin zure aal-izatea!

Bost bider zazpi zenbakitan agertu jatazan, lagunbako  
ta lagundun izkien artean eta nik ager-alan gogoan artu ni-  
tun arein atalak. *Diligite iustitiam* (maite egizue zuzenbi-  
dea) izan zan leen marratu aditza ta izena. *Qui iudicatis te-  
rram* (lurra epattzen dozuenok) izan ziran azkenak. Gero,  
bostgarren izkiaren M'an ondo ipiñita iraun eben, eta Jupiter'  
en izarrak, zidarrezkoa zirudian une aretan, urrez zirtatua.  
Eta beste argi batzuk be ikusi nebazan jasten araxe M'ren  
goi-aldea egoan lekura; gelditurik antxe abestet) eben, nik  
uste, erakarten zituan ona. Gero, illinti ixiotuak kaskatuz  
konta-ezin-ala txiñar motatzen diran lez, ergelak zori gaiz-  
totzat daukezanak nunbait, andik jalgi ta erneten zirala be-  
gitandu jatan milla argi, ta igon, zein geiago zein gitxiago,  
ixetu zituan eguzkiak eratu ebazan antz-antzera; eta, bako-  
txak tinko bere lekuan, arrano baten burua ta semea era-  
bat itxuratzen ikusi neban.

An margozten dauan arek ez dauka nok zuzendurik, be-  
rak zuzentzen bait dau bere burua; aregandik dator baita  
abiai itxura damotsen indarra. Beste doatsuak, lenengotan  
M eratuz naiko eukela zirudienak, zirkin laburrez osotu

eben arranoaren iduria. Oi izar leun! Zenbat eta zelako bitxik erakutsi eustezan gure zuzentasuna zuk edertzen dozun zeruaren zer bat besterik ez dala! Otoizka nago, beraz, zure zirkiñaren eta kemenaren iturri dan adímenari adierazo daiala nundik datorren zure eraiñuak lausotzen dauzan kea; mirariz eta odol-ixurtzez eregi zan jauretxean egitejn diran sal-erosketaz barriro be sumiña sortuz. O zeruko gudaritza, aurrean bai dauka nire ikus-soak! Otoitz, arren, munduan ikasbíde gaiztoa jarraituz, bide onetik saiestu diranen alde!

Ezpataz egun egin oi da gudua; baiña, zoritxarrez, emen eta an egiten, zeruko Aitak iñori ukatzen ez dautson ogia kenduz. Zuk, alan be ezabatzeko bakarrik idazten dozun orrek, gogora eizuz Kepa ta Paul, zuk lardaskatzen dozun maastiagaitik il ziranak, bizirík dagozala oindíño. Ondo esan zeinke: «Soil-soil bizi nai izan eban arengan josirik daukadaz neure gurariak, eta dantzaldi batgaitik martiritzara eroana izan zan arengan; ez dodala ezagun errantzalea, ezta Paul be<sup>3</sup>.

(1) Jupiter izartegira doa Dante.

(2) Pegaso zaJdi egoduna zan musaentzat abere sagaratua. Emen deitua Urania da ziur asko.

(3) Eztenkada latza. Kepa ta Paul ez dodaz ezagun; ererutarrfl dot maite, baiña onen irudiko urrezko florinek maiteago.

## XIX KANTUA

Muiña.—*Seigarren zerua, Jupiter: nagusi jakintsu ta zuzenak.*—*Arrano iztuna.*—*Fedearen bearra.*—*Jainko zuzenbidearen iker-eziña.*—*Fedea ta egintzak.*

Aurrean agertzen jatan, ego-zabalik, an alkaturiko ari-mak gozo betean doatsu egiten zituan irudi bikaiña. Pitxi-

gorri zirudian bakotxak; dirdir egian bertan eguzkiaren erraiñu batek guztiz ixetua, oni neure begietan dirdai azorik. Eta orain adierazo bear dodana, ez dau abots batek be aitatu, ezta iñun idatzia izan, irudimenak eztau egundo barne artu; baiña nik ikusi ta entzun neutson piku ari esaten «neu» ta «neure», gogaia «geu» ta «geure» izanik. Eta asi zan:

—Zuzen ta onbera izan nintzalako nago emen., nai-izanak garaitzen izten ez dauzan aintza onetaraiño jaso; eta jente gaiztoak be, lurrean itxi neban oroimen oso-betea, naiz eta nire egintzak ez antz-artu txalotzen dabe.

Txingar batetik bero bakarra sortzen danez, irudi atan be maítasun-txingar askok itz egien abots batez. Nik, ba, erantzun neutson:

—Oi betiereko pozaren lora betikoak, bat bakarra bai' litzan, zeuen usain oro artu ta senti-azten daustazuenak! Ebatz eidazue, mintzatuz, aspaldi gosekilla euki nauan barau aundia, lurrean ez bait dot beronentzat aurkitu janari egokirik. Ondo dakit nik, zeruan beste erriñu bat ba'da Jainko-zuzentasunaren ispillu, zuona ez daula ikuskatzen zapi baten bitartez. Ba-dakizu adi-adi nagokizuna zuri entzuteko; ba-dakizu ezbai, duda a ni ain luzaro baraurik naukana.

Mirotzak<sup>J</sup> estalik dauken gaiñeko kukutza kentzean, buaruari eragin eta egoak zaplatzen dauazan lez, bere gurea erakutsi ta txairo astinduz, bardin egiten ikusi neban nik Jainko-graziari gorazarreka egiña egoan irudi a be, an goian atsegin betean dagoanak dakizan kantuekin ain zuzen. Onela asi zan ondoren:

—Munduaren azken-mugak bere eres-neurkiñez bereizi ta beronen barruz anbait gauza ezkutu ta agiri gorde zituan arek ezin zeíkean bere aal-izatea lurbira osoan irarrita itxi, onen gaiñ aren adimena amaibako einetan kokatua izteraiño. Eta argi darakusgu au leenengo arroak, izaki guztietan beteena izan zanak; au argiaren zain ez egotearren, ez-oso-

an jausi jatzun, eta emendik ateraten da izaki txikiago oro azkenik ez daukan eta berez bakarrik neur-azten dan ontasun aren ontzi txiki dala. Gure ikusmena, beraz, gauza guztiak beterik dagozan adimenaren erraiñu besterik ez dana, bere-nez ezin daiteke ain aaltsua izan, bere astera berari agertzen jakona baiño askoz urriñago dagoala ez ulertzeko. Itxasoan baiñen nekez beregandu oi dau begiak betiko zuzentasunean zuen munduak artzen dauan iknspegia; itxas-egaletik ikusi daiteke barrena, itxas-zabalean ez ostera ta ez dago origaitik ara-ezago, sakonago dagolako ezkututzen da-ta. Ez dago argirik iñoiz naasi-azten ez dan baretasunetik ez ba'datorki-gu; emendik kanpo, barriz, ez dago besterik illunpea, aragi-geriza edo-ta beronen pozoia baiño. Onegaz naiko azaldu dautzut zuzentasun biziak gordetzen eutzun ezkutu-unea, orren askotan itandu oi zendunari buruz egin-egiñean be, onela esanez: «Indo ibai-ertzean jaioten da gizaseme bat, an ostera ez dago Kristo'z mintzaten danik, e2 Aretaz irakurri ta idazten dauanik, arein gurari ta egintzak, giza-errazoi eretxiz, onak dira, egiteko ta itzeko pekatu bage; ez bateorik artu ez federik ezagutu barik ilten dira. Nun dago gaitzesten dauan zuzenbidea? Berak siñisten ez ba'dau nun dago bere errua?» Orain ba, nor zara zu aulkian jarri naita, milla millara dagoana arra batera bakarrik eltzen jatzun ikusteaz epaitzeko? Ziurki, nigaz mee eio nai leukenak, Idazti deuna ez ba'lego zuen gaiñetik, errez sartu leike dudamudan. Oi lurtar abereak! Oi adimen baldar-rak! Leen naia, berez ona dana, berenetik, on garai danetik, ez dau iñoiz be alde egiten. Zintzoa da aregaz bat datorrena bakar-bakarrik; sortutako ezerk ez darakar, baiña berak dirdiratzuz dana sortu daroa.

Bere kumak janaritu ostean abi-gaiñ egaz biraka dabil-len burrio edo ziguña ta kumetatik jatekoa artu dauanak ama egazka pozik ikusi oi dauanez, orrelaxe jazo jatan niri be, eta orrelaxe jaso nitun begiak ainbeste arimen era-giñaz egoak mugitzen iduri zoragarriaganatz. Inguruak egi-



ñilc, abeska, iñoan: «Ulertzen ez dozun nire kantua zuretzat lez olaxe da betiko epaia zuontzat ilkorrontzat».

Espiritu Santuaren diztira argitsu areik gelditu ziranean, erromarrak munduan izukor egin ebazan ikurra oindiño be eratuz, ikur a esaten asi zan ostera:

—Erreiñu ontara etzan igon iñoiz Kristogan sinistu ez ebanik. A gurutzean josia izan zan aurretik naiz geroztik. Baiña begira, «Kristo!» oiu dagien asko, epai-egunean, Kristo ezagutzen ez daben batzuk baiño ur-ezago egongo díra Agandik eta lotsaz itxiko dítu olako kristinauak alako etiopiarrek, allcarte biak banandukeran, bata aberats beti-betikoz eta doakabe bestea. Persitarrak zer esan al izango ez ete dautse zuen erregeai, pekatu guztiak ídatzi ta daukazan libuxua zabalik ikustean? An ikusiko da Alberto ren lanen artean laster lumeari eragingo dautsona, beronen bidez Praga'ko erreíñua eremu geldituz. An ikusiko da, baita, Sena ondoan dardaratuko dan azpikeria, dirua aizu egiñaz, basurde batek zaurituta ilgo dana.<sup>2</sup> An ikusiko da eskoziarra ta inglesa zorarazten ditun arrokeri aseगतxa, euren muga-barru irautea jasan-eziña jakena. An ikusiko dira —zelan ez?— Espaiña'koaren eta Boemia'koaren lizun-keria ta bizikera bigun-guria, kemenik ifíoiz ez ezagutu ez ezagutzerik nai ezean. Jerusalem'go errena be ikusiko da, bere ontasuna L'gaz ikurtua ta aurkakoa M'gaz ikurtuko dalarik. Suaren ugartea zaintzen dauanaren diru-gosea ta doillorkeria ikusiko dira, Ankise'k bere egun luzeak amaitu zituan tokia nunbait; eta toki gitxi balio dauala aitzen emoteko, leku estuan asko adierazoko daben itz motzetan idatziko da berau. Eta danai agertuko jakez ain etorki argia ta koroi bi ezaindu dabezan osabearen eta anaiaren egintza loiak. An ezagutuko dira Portugal'koa ta Noruega'koa, Raszia'koa ta Benezia-ko diru-moldeak aizundu ebazana.<sup>3</sup> Oi Ungari doatsu, txarto zuzen-azten itxiko ez balitz! Oi Naparra doatsua, ingurumari daukan mendiaz bere burua jagongo ba'leu! Danak siñistu bear leukie onezkeron; onen zantzu lez or Nikosi ta Famagusta aienez eta garra-

xika euren piztiaren kaltetan, besteengandik alde aundirik ez daukanaren aurka.

- (1) ELzarako txoria, burua estalduta eroan oi dabe.
- (2) Prant/zia'ko Pelipe Ederra.
- (3) Esteban Urosio.

## XX KANTUA

Muiña.—*Jupiter'en zerua: Jakitun zorroz eta naguí leialena.*—*Zintzoen kantua.*—*Nagusi leialak Arranoaren iru~dian.*—*Fedea ta salbamera.*—*Jainkoaren autua.*

Mundua zabal ta nasai argitzen dauna gure borobil-er-ditik jasten danean, eguna nainundik amaituz, leen berau-gaitik soil-soil ixetu oi zan zerua argi askoz apain ager-tzen da bat-batetan, danen artean batek (euzkiak) dizdiz egiñik. Eta zeruaren egoera au burura etorri jatan mundua-ren eta bertoko nagusien ikurrak ixilJera ebanean bere piku doatsua; argi diztikor guzti areik, ba, diztitsuagoak orain-dik, nire gomutamen argeletik iges egindako kantuak oi-u-katzen asi ziran. O maitasun ezti, irripar dizditsuan batzen zareana! Zu bai gartsu iruditen zakidazala eresi-jarion arei-tan, gogoeta doneetatik bakar etozanak!

Seigarren izarra apain ikusi neban bitxi bikain garbiak aingeru-kantuak ixileratu ebezanean, erreka bateko urak beerantz doazala arriz arri atera oi daben Iako murmur-otsa entzun uste neban, bere sorburuaren oparotasuna iragarritz. Eta soiñuak kitararen idunean eta txirulak bere zulo-irri-killetak aizean artzen dauan lez bere txintotsa, olantxe, bat-batean, murmurio a arranoaren saman gora igon zan, au zuluturik bai legoan. Abots biurtu zan bertan, eta pi-kutik urten zan nire biotzak itxaroten ebazan itz binrtu-rik nik bere barruan idatzi nitunak.

—Orain adi-adi begiratu bear daustazu —asi zan esaten— eguzkiak arrano ilkorretan ikusi ta jasan oi dauan alderdia; nire irudia eratzen daben suen artean, ba, nire buruan printzak dirdi-azten dauazan suak, orretzek dira guztietatik gorenengo maillea artzen dabenak. Begi-niniaren antzeko erdian argi dagiana Espiritu Santuaren abeslari izan zan, kutxa uririk nri erabilli ebana,<sup>1</sup> orain dazau abestu eban kantuaren ederra, bere naiaren ondorena izan zan aldetik beintzat, artu izan dauan ordain-sariaren bidez. Bekaiñaren uzta eratzen dauksen bostetatik, pikora geien ureratu oi jatan arek pozt-azo eban bere semea galdu eban alar-gun beartia; orain ezagutzen dau zein garestia dan Kristori ez jarraitzea bizitza ezti onen eta bestelakoaren experintziagaitik. Eta diñodan borobillean, uztaiaren goi-aldean, jarraitzen dauan arek, atzeratu egin eban eriotzea egiazko penitentzia egitearren; orain ezagutzen dau ez dala betiko epaia aldatzen otoitz gartsuak an beean gaurkoa biarko iztea lortu arren. Ondoren datorrena, legeaz eta neugaz, asmo onaz frutu txarra emon ebana, gerkar egin zan Artzaiñari leku izteko,<sup>2</sup> ta gaur dakus bere egintza onetik etorritako gatxa ez jakola ez kaltekor, mundua egintza on origaitik sunsiturik aurkitzea jazo arren. Uztaiaren aldaarrean ikusten dozuna Gillermo izan zan, Karla ta Federiko bizi diranakaitik erosta dagian lurra negar egiten dautsona. Orain ikusten dau zelan maitemintzen dan zerua errege zintzo batekin, eta ikus-erazten dau ori biran dizdizka daukan izarne dirdaian. Nok siñistu an beean, mundu erratuan, Erri-fu troiarra<sup>3</sup> dala uztai onetan argi doneetatik bostgarrena? Orain munduak naiko ondo ezagutzen dau Jainko graziaz ikusi ezin daikena, naiz-eta aren begiak ondarra bereizteko gai ez izan.

Airean kantuz dabillen larratxoria lez, leenengo kanta ta gero ixillik egon, alaia izan jakon azken eresiz pozarren noski, olaxe begitandu jatan niri atsegin betikoak ikurraztutako irudia, Aren nai-izatez bait dozu dan guzti-guztia. Eta niñ neure duda ta ezbaiakaz, jazten dauan kolorea zear-

agertu oi dauan kristala ba'nintz be, eziña litzakidan ixil egotea; nire aoak, beraz, esan eban:

«Zer dira orreik?» indar ixil batek eraginda, eta onen atzean nik poz aundiko drízt-drízta ikusi nebazan. Gero, begia sutuagotuta, ikur doatsuak erantzun eustan, ni izularri ez eukitearren, antza:

—Gauzok siñisten dozuz zuk, dakustanez, neuk dirautzuzalako, baiña ez dakusazu euren errazoirik; beraz, siñistuak ba'dira gorderik dagoz. Gauzak euren izenez ondo ikasten dabezanarena egiten dozu, ezin dau alan be ikusi euren mamiña norbaitek azaldu azik. *Kegnum coelorum* estu darabil maitasun bizi ta itxarote aundiaren erasoak, jainkozko naia gaínditzen dauan, baiña ez gizonak gizona goitu oi dauanez, berak azpiratua izan nai dauanez baiño; eta orrela izanik, berak, bere aldetik, bere onberatasunez azpiratzen dau. Bekaiñeko uztaiaren leenengo ta bostgarren arimak arrigarrí jatzuz aingeruen eskualdea dakusulako eura-kaz edertuta. Uste dozunez etziran euren gorputzetík jentil urten, fede sendoko kristiñau baiño, au oiñez jasateko ta bestea dagoneko jasana. Bata, infernutik, norbere gogoz iñoiz be itzultzen e2 dan lekutik, gorputzera biurtu zan, auxe izanik itxaropen bizi baten saria; itxaropen bizi batena, Jainkoari berbiztu egiala erregu egiala eskatu eutsona, aren naiari eragiteraiño eskatu be. Mintzo gareanaren arima aintzatsua,<sup>3</sup> aragira biurtua, epe laburrean iraun eban bertan, lagun egin leikeon arengan siñistu ebalako, eta siñistuz egiazko maitasun-sutan ainbestean ixetu zalako, bigarren eriotzaz gozotasun ontara etorteko lain izan zan (Trajano). Besteak, eskerrak ari, izaki bat egundo bere begiz ak sorburua daukonera eldu ez dan iturri sakonetik darionari, an beean bere maite-su guztia zuzentasunean jarri eban; Jainkoak orixegaitík; eskerrez esker, begiak edegi eutsozan etorteko zan gure erospeneko, beraz siñistu eban aregan eta aurrerantzean ezin eroan izan eban jentillen izurria, ta estu artu ebazan jente siñis-gogorak. Eskumako txirrinkaren ondoan zuk ikusi zenduzan iru emaku-

me areik bateatu eben bateoa baño milla urte leenago. Oi autapen! Urrin bai dagoala zure erroa leen-errazoa osorik ikusten ez dabenengandik! Eta zuok, ilkorrok, izan arreta ebatzia emotean, guk be ba, Jainkoa ikusten dogunok, ez doguz oinLiño autatutako guztiak ezagutzen, eta gozo jaku ez-jakite ori, gure ona on orregaz osotzen bait da, Jaungoikoak nai dauana guk be nai dogu-ta.

Olan, Jainko-iduri aren bitartez, neure ikuspegi laburra argitarazteko, osakai bat emon jatan leuna. Eta abeslari onari kitara-jotzaiile onak arien dardaraz laguntzen dautson iez, kantuak atsegin geiago ekarriz, orrelaxe, arek mintzatu-aia, gogoratzen naz, argi bedeinkatu biak, betazalen alkar-zartea bateratzen dan legez, itzen neurri-otsera euren su-lamak igitu zituela.

- (1) Dabid erregea.
- (2) Kontantino<sup>k</sup>, Aita Santuari Erroma iztearren. Bizanzio'ra aldatu eban bere agint-aurkia.
- (3) Errifeu, trojar zintzoa, BergLi<sup>k</sup> diñoanez.
- (4) Gregorio Deunak Trajona'ren alde egindako erreguak.

## XXI KANTUA

Muiña.—*Seigarren zerua, ots, Satumo'rena: On-egilleen espirituak.*—*Zazpigarren zerurako igoera.*—*Zeruko mailladia.*—*Pedro Damian deuna.*—*Eliz-agintarien girgilleria.*

Barriro be adi-adi egozan nire begiak neure andraren arpegian, eta jakiña eurakaz arimea, beste edozein asmotik libre. Irribarre egistan arek.

—Baiña nik irribarre ba'nengi —asi jatan esaten—, Semele<sup>l</sup> auts biurtua izan zanean lez geratuko zintzakez; ni-

re edertasunak, ba, zenbat eta gorago igon eta argi geiago dago betiko jauregiko maiUadietan zear, ikusi dozunez, eta gírotua ez ba'litz, ikaragarrero dizdiz egingo leuke ta zure indar ilkorra, aren dizdizera, oiñaztarriak zatitzen dauan adar bat lez izango Htzateke. Zazpigarren iztasunera igon gara Leoi argitsuaren bularpean dizdiz dagianera, an beean bere eragiñetan nastaurik. Jar eizu adimena zeure begituen atzetik, eta begiakaz egin ispilluak ispillu ontan agertuko jatzun irudiari.

Neure adikunea beste zer batera zuzenru nebanean, arpegi doatsua ikusiz nire ikusmenaren atsegiña noraiñokoa izan zan, lekianak ezagutuko leuke zein leuna izan jatan zerutat jarraigoaren esana egitea, olan atsegin bat bestegaz axean emonez. Kristal barruan, mundua biratuz bere jaun argiaren izena daroan, onen azpian dongakeri oro bait dago ixillik, argiak islatzen dauan urre-koloretan ikusi neban zurubi bat gora jasotakoa, nire begiak ari jarraitzeko gauza etzirala. Baita ikusi neban zurubitik beera jasten dizdiz-moltzo ikara garria erabat, zeruko izar guztien argia andixek zabal-azten zala nik uste izanik. Eta belatxingak berez lez egun urratzean aJkartu, ego otzak berotu nairik bizi-bizi zaplatu ostean, batzuk joan eta itzultzen ez, beste batzuk urten-lekura beingoan itzultzen, eta irugarren batzuk abi-gaiñ egazkari ibiltzen... era berean dirdai ibilli zirala iruditu jatan niri be, batera etorritz koska baten gaiñ kokatu zirala, ain zuzen. Gugandik urrun geratu zan a, barriz, guztiz dizditsu biurtu bait zan, neure barrurako nifioan: «Ondo dakust erakusten daustazun maitasuna». Baiña itz-egin eta ixilduaren zelakoa ta noizkoa nik itxaroten nebana, zirkiñik egiteke gelditu zan, eta nik orduan, neure gogoz goiti, ezer ez itanduz bear nebana egin neban. Orixegaitik arek, oro dakusan Aren aurrean nire ixiltasunaren errazoia ikusten ebanak, esan eustan:

—Aska eizu zeure irrirts bizia.

Eta ni onela asi nintzan:

—Zuri erantzuteko ez nabe duin egiten daukadzan jñe-rezimentuak; baiña zuri itz-egiten izten daustanarenakaitik, zeure pozaren barne gorderik doatsu zagozan arima orrek, ezagut-erazo eidazu nigandik ain urre zergaitik ipíni zaitun, eta esan zergaitik dagoan ixillik, inguru ontan, beeragoko besteetan ain biotz-samur soíñu dagian paradisiko sinfoni ezta.

—Zuk ikusmena lez entzumena be ilkorra daukazu —erantzun eustan—; emen ez da beraz abesten, Zorione'k irribarrerik egin ez dauan errazoi berberagaitik. Zurubi santuko mailladi beera jatsi naiatzu neure itzakaz eta inguraztzen nauan argiaz zuri poz-atsegiña emotearren soil-soilki. Ni gertuago senti-azo nauana ez da izan maitasun aundiago bat, emen ba ba-dago nirea edo nire baiño gartsuago dan maitasunik, dirdirak erakusten dautzuenez; baiña mundua zaindu darabillaren naiaren zerbitzari egiten gaitun maitasun garaiak, ementxe ipiñi gaitu, ikusi daikezenez.

—Ondo ikusten dot —nik jardetsi—, argontzi sagartu! , jauregi ontan maitasun askea naiko dala betiko arretari jarraitzeko; ulergaitz egiten jat, alan be, zergaitik izan ziñan zeu bakarrik, zeure lagunen artean, zeregin onetarako autatua. Azken itzera orduko, aren argiak ardatza erdiko egiñik, gurpil bizkor irudi biratu zan; ondoren aren barruan zetzan maitasunak erantzun eban:

—Gain datorkit Jainko-argia nigan sartu ta geregan murgiltzen nauala, eta aren kemenak, neure ulermenaz batuak, neure gaiñ jaso naroa ta bere datorkidan jatortasuna bera ikusten. Emetik sortzen dizdizka naukan poztasuna, neure ikuste ain argiari, ba, dizditzen nauan argiaren argitasuna gaiñerutzen dautsot; baiña zeruan geien dirdir dagian arimeak, begiak Jainkoagan tínkoen daukazan serapiñak, ez dau ase-beteko zure eskaria, zuk eskatzen dozuna izan be betiereko erabagien leza-barrenean ondatzen da ta edozein ikusmen sortutik gordeta dago. Mundu ilkorra biurtzen zareanean, iragar egizu au, elburu ain garaira jo gurarik iñor be ibilli ez dedin. Emen dizdiz dagian adime-

na, keak lainoturik dago lurrean; ikus zelan ulertu al izango dauan an beean, zerura jasorik ulertzen ez dauana.

Aren itzak ezin argiagoak izan ziralako auzia laga ta nor izan zan itandu neutson apal-apaJik:

—Mendiak jaikitzen dira Itali'ko itxasalde bien artean, zure aberritik ez ain urrun, trumoiak batzutan, areik ain goratuak diralako, beerago ats-durundua egin oi dau, Katriá deritxon tontorra eratzen dabe, ta onen azpian eremu bat dago Jainkoaren gurtza-arazoari bakar-bakarrik eskiñitakoa.

Orrelaxe asi jatan irugarren aldiz itz-egiten. Gero, ja rraituz, esan eban:

—An asi nintzan sendo baizen gogotsu, Jainkoaren zerbitzaritzan; ortuariakaz eta orioaz errez igoraten nebazan beroak eta otzak, neure barne-oldozkunetan naastua. Itxitu arek frutu ugarí ekartsen zeru onei; orain utsik dago, ta egoki Jitzake jenteak au bizkor baleki. Toki aretan egon nintzan ni, Pietro Damian, eta Pietro Pekataria Andra Mariaren etxean egon zan, Adriatik itxas-ertzean. Ilkor bizi laburra geratzen jatan, txarretik txarragora aldatu oi dan kapela a eroateko dei egin eustenean. Kepa etorri zan eta etorri zaji Espiritu Santuaren edontzi aundia, argal eta ortozik, edozein aterpetan jatekoa eskatuz. Orafn nai dabe gaurko artzaiñak, an-emen, jaso ta eutsi dagioela, ain dozuz astunak! , eta eroan dagitsela buztana. Euren soin-gaiñekoak ez estaltzen dabez zaldiak, eta patari bi doaz narru batberaren azpian. Oi eroapen ikaragarria, ainbeste daroazuna!

Itz oneik esatean, maillaz mailugar asko ikusi nitun bira-biraka jasten, inguru bakotxean eder-bikaiñago zirudienak atan be. Argi aren inguruan gelditu zian, abosbatza osoturik; talde garaia egiaz, emen beean ezer antzekorik idoro ezin leiken lakoxea, nik beintzat ez dot iñoiz olakorik ez ikusi ez entzun egin. Ainbatean azpirataua itxi ninduan aren abarrotsak.

(1) **Jupíter'ek maitatua^ arrokeriz auts biurtua.**

(2) **Artzain gaiztoak merezitako zigorra dakar gogora.**



## XXII KANTUA

Muiña.—Zazpigarren zerua: *ezpiritu begiraleak: Benito deuna, monastegien galdura.*—Zortzigarren zerua *edo izartua.*—*Espiritu garailleena.*—*Geminis ikurra.*—*Begiralde bat izarbelai ia Lurrari.*

Izu-ikarak artua, umeak usterik geien damotsongana jo oi dauanez beti, ni be neure gidariagana biurtu nintzan, eta onek seme laru mingurua sorosi daroan ama iduri, zelan bizkorazo ba-ekian ao-otsez, esan eustan:

—Ez al dakizu zeruan zagozana? Eta zerua oso-osorik santua dana iturburu onetik datorrena? Ausnar daikezu orain zu lilluratu zinduzan leengo eresia ta nire irribarrea, deadar-otsak orrela eragin ba'dautzu, bertan joian erregua ulertu ba'zendu, il baiño leen ikusiko dozun zigorra eza-gun izango zenduan. Goi ontako ezpateak ez dau ebagiten ez leiaka ez astiroegi, naiz edo ikaraz itxaroten dabenen ustetan izan ezik> Baiña biur zaitez onezkero beste alderantza, ta espiritu errime argituak tkusiko dituzu, begirakunea biurtu ba'dagizu, dirautzudanez.

Biurtu nitun begiak, arek nai ebanez, eta eun biribil txiki ikusi nebazan, alkar arturik alkarrekiko izpiz euren edertasuna ugaltzen ebenak. Izu be izu nengoan ni, naiaren eztena barruan galgatu oi dauanaren antzera ta geiegikeriren bat esango ete dauan bildurrez itaunik egiten azartzen ez dana lez. Eta arripitxi areitatik aundi ta dizditsuena aurreratu zan nire guraria asetzeko. Gero aren barruan entzun neban:

—Zuk ikusi ba'zengi, nik bezela, gure artean dabillen maitasun-sua, adierazoko zeunkez zeure pentsamentuak; zuk, orraitio, zain egonez, zeure xede garaia luzatu ez daizun, zu adierazoten azartzen ez zarian pentsamentuari, eranrzuna emongo dautsot. Mendi a, alboko ertzean Kasino aurkitzen dana, sarri ikertua izan zan aren tontorra jente atzipetu ta txarto gertatuz, eta neu nozu an goian ainbat duin-

tzen gaítun egia lurtean iragarri eban Aren izena lenengo eroan ebana; eta neure gaiñ graziak ugari be ugari dJdziz egin bait eban, inguruko uriak mundua lilJuratu eban guruteta gaiztotik urrindu nebazan.<sup>1</sup> Beste argi oneik gizaseme otoitzari emonak izan ziran, lorak eta frutu santuak sorterazten dauazanugar bizi artaz sustatuak. Emen daukazu Makarí,<sup>2</sup> emen Erromualdo,<sup>3</sup> emen daukazuz neure anaiak lekaretzeko itxitu barruan gorde ta euren biotzak garbi zaindu ebezanak.

Eta nik erantzun neutson:

—Itz-egikerakoan erakusten daustazun txera ta zeure argi guztietan ikusi ta nabari dodan ondo-naiak aziago dagie nire zukanako uste ona, eguzkiak larrosearena lez au ak jotean al giñoan zabaltzen dalarik. Origaitik deskatzut, eta zuk, aita, ainbesteko graziaren duin baldin ba Yiaz, eidazu zure irudía estalki barik ikusteko mesedea,

Ak onela erantzun eustan:

—Zure gurari garaia, anai, azkenengo boronbillean beteko da, beste guztiena, ta nirea be antxe bait dira asetzen. An osoa, eldua ta betea da gure itxarokizun oro; an bakarrik dago zati bakotxa beti egon 2an lekuan, usgunetik at bait dago, ardatz-buru gaiñ biratzen ez dala. Araiñotzen da gure zurubia, ta orixegatik galtzen jatzu ikus-indarra. Ara goraino eltzen ikusi eban Jakob aitalenak aren mutur go-renera, aingeruz beterik agertu jakonean; baiña bera igoteko iñok ez ditu oiñak eldenduten, eta nire araudia papera alperrik txautzeko geratu da bakar-bakarrik. Abategi bat antolatzen eben ormak, koba-zulo dira orain, eta kapusaiak urun txarreko zaku. Baiña lukurreri erruduna ez da Jainkoinari ainbestean aurka dagiona, lekaideen biotza orrela 20-rarazten dauan beste frutu a beste, Eleizeak gorde daroan guztiaí ba, Jainkoarren eskatzen dauan jentearena da, eta ez senidarteko edo-ta beste duin-ezago batzuen. Ilkorren aragia argal bait da, an beean ez da naiko asiera on bat artearen ernetzetik ezkurra ekarteraiño eltzeko. Pedro urre ta zidar barik asi zan, eta ni otoitz eta barauakaz, eta Frantzis-

ko'k apaltasunaz asi eban bere ordenea. Eta bakotxaren asierara so ba'dagizu ta gero bakotxa nora eldu dan, zuria baltz biurtu dala ikusiko dozu. Egi-egiaz, Jordan atzeraka ta itxasoa igeska Jainkoak nai izan ebanean, onen osabidea baiño míresgarriago ízan zan ikusteko.

Onela esanez bere lagunakaz aU<artu zan; danak molztotunik, gorantz egaz egin eben batera, aize-biurraren pareko. Arein atzetik bultz-egin eustan niri andera ezetik ikur bat-bakarraz mailladi aretatik gora, aren kemenak azpiratu bait eban nire berezkoa, emen beean egundo be, igon eta jasten gareanean berezko indarrez, ezta ezagutu nire orduko egazkadeaz kideku leiken mugidura ain bizirik. Ai itzuli bako barmntz noizbait, irakurle, garaikunde done artara; sari bai dodaz agaitik negartuten neure pekatuak, bularra joaz, atz bat sutan sartu-atera egiteko bear zeunkean baiño be aldi laburragoan, Zezenari jarraika doan ikurra ikusi neban, itzetik ortzera aren barruan aurkitzen nintzalarik, Izar aintzatsuak! Oi argi indarrez izar; zuri zor dautzut, zareana zareala, nire asmamenaren zorrotz izate guztia! Zuekaz jαιο ta gorde oi zan bizi ilkor osoaren aita dana, leenengo aldiz toskanar aizea sumatu nebanean, eta gero, zuek bira dagizuen boronbil guenean sar al izateko grazia emon jatanean, bazter au jausi jatan zotz egiterakoan. Zuekana makurtu oi da nire arimea eskertsu erakarka dagoan egikizun ez-errezean dagokidan onbidea irabazteko.

—Azken salbabidetik ur-samar zagoz —asi zan Zorione esaten—, eta zorrotz-argi euki bear dituzu begiak. Ori dala-ta berton sartu baiño leen, begitu beerantza ta ausanar zenbat mundu jarri dautzudazan oinpean, zure biotza pozalari aurkeztu daiten zeruko ganga orretan zear, pozarren, eltzen diran arima garaitzailleen begi-aurrean.

Zazpi boronbillak zearkatu nitun begiakaz; eta boronbil au ain ezereza ikusi bait neban, barre egin neban beronen itxura ziztriffa ikustean, eta ontzat joten dot berau gixtisten dauan eretxia; beste mundua gogora dakarrenari esan leikeo egi-egiaz prestu ta zentzunduna. Ixiotua ikusi

neban Latona'ren alaba, nik urritu ta tinkotua zala uste izateko errazoa emon eusten gerizpe a barik. Zure semearen arpegia, Iperion, emen jasan al izan neban; baita ikusi neban Maia ta Dione zelan dabiltzan aren urrean eta arí inguruka. Emen agírí izan jatan Jupiter'en girotu-bearra, aitarren eta semearen artean eta ementxe egin jatan argi beroen tokiz aldatzea. Eta zazpi guztiak nabari izan jatazan aundi ta azkar diran lez, eta zelan dagozan bestelako egoeretan. Ain anker egiten gaítun lur pitiña, nik bira egitean Bikoitz betikorraz, osorik agertu jatan mendi ta itxasoz eder. Nik gero begiak biurtu nitun begi ederretara.

- (1) Benito Deuna.
- (2) Eremuan bizi izan zana.
- (3) Ravena'koa, kamaldular. ordenea sortu ebana

### XXIII KANTUA

*Muiña.—Zortzigarren zerua, izartsua.—Espiritu garai-pentsuak.—Kristoren garaitza.—Andra M.ariaren bureskunda.*

Orritza maitean txoria lez, gauzak gordeten dabezan gau-aldiak bere kuma samurren abi ondoan atsedena arturik, izaki kutun areik ikusi ta eurak zegaz janaritu aurkitzeko, lan astuna baiño atsegingarrí jakona, orri-arte edegi gaiñ aldiari aurrea artu ta, egunsentia nun erne ari adi-adi, eguzkiaren zain egon oi danez lei biziz; antzera aurkitzen zan nire anderea be, tente ta adi-adi, eguzkiak ainbeste leia erakusten ez dauan alderantza biurturik eta nik, a orren lilluraturua ta bere kautan ikusiaz, gurako leuken zerbait opa izanarren, aren zain dagoarena egin neban. Baiña tarte labu-

rra nunbait una bion artekoa, nire zain-egote ta zerua gero ta argiago ikustearen artekoa dinot. Eta Zorione'k mintzo:

—Orra or Kristoren garaitzako taldeak, eta boronbil onein jira-biratik baturiko frutu osoa!

Aren betartea, su-jatio ba'lego lez, iruditu jatan; eta alako pozez kuin-kum neukazan begiak, oba dot berau adierazo barik igarotea. Illargi bete nareetan, zerua nun-naitik edertzen daben maiteder betikoen artean Tribia'k<sup>1</sup> irripar dagian lez eguzki bat ikusi reban millaka argi-gaiñ danak piztuazten ebazala, gureak izarrakaz egin oi dauanez, eta nire begiak, argi bizi-biziari esker, muin-barrua be dizditsu-dízditsu agertzen bait jatan, ezin eben iñolaz be eroan.

—O Zorione! —ots egin neban—> biderakusle ezti, maitagarri!

Berak erantzun eustan:

—Zu azpiratzen zaituna, on-kemena ezek be gogor egin ezin leikeona. Emen dagoz jakintza ta al-izatea ainbat mendetan opa izandako zeru-lurren arteko bideak edegi ebezanak.

Sua odeitik jaregin oi danez, ezin bait da bertan egon, eta, bere izatearen aurka, beerantz oldartu ta amiltzen dan bezela, janari barriz azitako nire adimenak be, beretik nrten eta ez daki egin ebana gogoratzen. «Zabal egizuz begiak eta so eidazu nazanez; zuk ikusi dozuz nire irribarreari eusteko kementsu egin zaftuen gauzak». Aazturiko ikuskizun bat gogora ekarri naiez, ostera be gogameneratzen saiatzen danaren antzera nengoan ní, dei a artu nebanean esker on aundikoa egiaz, joana idazten dan liburutik egundo kenduko ez dana.

Abots guzti areik orain itz-egingo ba'lebe, Polinmia ta onen aiztak, euren esne gozo-gozoz aberastu ta niri laguntzera etorri ziranak, egirik pitiñena be ez leukie jaritxiko, irripar deuna abestuz ta arpegi doneak zelan dizdiz egian adierazoz. Eta orixegaitik, paradisua margoztean poema santuak zapart egin bear dau bidea ebagita aurkitzen dauanak lege; beraz, gai sakonean eta olako zama-sorta eroan da-

ben gizasemeekan pentsatzen diarduanak, ez ditu ezetsiko euren pisupean dardar ba'dagie be. Ez da ontzi kaskarrentzat ur-zabal nire branka ausartak brintzatzuz doana, ezta bere indarrak gerorakotu nai dauazan itxasleriarentzat be.

—Nire arpegiak, zer dala-ta maíte-minduten zaitu orrela, Kristoren erraiñu azpian loratzen dan baratz ederrerantza zeure begiak ez dozuzalarik? Emen dago larrosea, Jainkoaren Itza onengan aragi egin bait jatzun; emen daukazuz zitorMiliak onein usaiñaz bturtzen bait da bat bide onera.

Onela mintzatu zan Zorione; eta nik, beti erne aren esana egiteko, barriz jo neban neure begi makalen burrukarra. Odei urratua zearkatzen dauan eguzkiaren izpi artean lez nire begiak ikusia eben orduko, itzal miesape, landa loretsu bat; orrelaxe ikusi neban nik dirdai mohzo aundia, erraiñu sutsuz goitik argituta; dirdaien sorburua ikusi bage. Era orretan argitzen dozuzan indar onbera! Gora jagi zintzazan ikusi ezin zinduezan nire begiai leku egiteko, ain zuzen! Beti, goiz ta arrats, dei dagiodan lora zoragarriaren izenak erdiratu eban níre espíritua, oso-osorik, su beteagoa ikuskatu naiez; ta nire begi biak, emen beean azpiratu eban lez, an goian be azpiratu daroan izar biziaren izatea ta zolitasuna dizdiztu ebenean, zeru barrutik obo irudiko garra jatsi zan koroi lez, bere inguruan biraka ertsítu ebana. Edozein eres-soiñu, emen beean ots-dagian samurrena dala ta gogoa geien erakarri daroaskuna. trumoi-ots dagian odei urratua begitanduko litzakigu zerurik argiena apaintzen dan zafir ederra koroitzen eban lira aren soiñuaz bardiñean iplfñi ezkerro.

—Aingeru-maitasuna naz ni, gure naiaren aterpe izan zan sabeletik erneten dan aintza goena zabalazten dodana, ta biraka jardungo dot, zeruko Andera, zuk zeure Semeari jarraitu ta goi-ingurua zeure egotez jainkotzen dozun bitartean.

Olantxe adierazten zan eres-soiñu birakorra, eta beste argiak be Mariaren izena durundi azten eben. Munduko inguru geienetako erregiñ mantuak, Jainkoaren arnaspean eta

bikaintasunetan geien dirakian eta bizien agertzen danak, urruti baít eukan bere mendel barrena, ni nengoan lekutik beraz etzan ikusten aren arpegia; nire begiak orixegaitik ez euken bere semearen ondoraiño jagi zanugar koroatuari jarraitzeko indarririk. Eta besoak bere amagana luzatu oi dauazan umetxoaren antzera, beronen esneaz janaritu ondoren, jakiña, kanporantz olan iragarten dan maite-txeraz; era berean, dirdira areitatík bakotxa be gorantz zuzendu zan bere garra lagun; onek argi erakutsi eustan Mariari eutsen maitasun beroa. Ondoren neure aurrean kokatu ziran *Regina coeli* oso eztitsu abesturik; ez dot egundo atsegin aren gozoa neugandik aldendu.

«Oi! Ugaria bai dala kutxa aberats areitan gordeten dan gozotasuna, emen beean ereille onak izan ziranena! An bizi dira ta gozaten urrea itxi eben Babiloni'ko erbeste-aldian negarrez irabazi eben altxorra. Garaille agiri da an, Jainkoaren eta Mariaren Seme goi-goikoaren mende, Itun Zaar eta Barrikoekin, ainbesteko aintzaren giltzak daukazana» (Kepa donea),

- (1) **IJargiaren beste izen bat.**  
(2) **Jesukristo.**

## XXIV KANTUA

Muiña.—Zortzigarren zerua, ots, izartua: *Espiritu garailleena.*—Kepa Deuna.—Dante aztertzen, fedeari begira,

—O lagun-talde Bildots bedeinkatuaren apari aundirako aukeratua!, onek ba janaritzen zaitue zeuen naia beti aserik eukiteko moduan! Onek Jainkoaren graziz txasta ba'dagi zuen maitik jausten dana, eriotzeak bere ordua ikur-

erazo dagitson baiño leen, jar ardura olakoaren gurari nuiga eziñari ta emoiozu edaten pitin bat; zuek beii edaten dozue ak uste dauan iturritik datorren guztia.

Au esan eban Zorione'k eta arima doatsu areik boronbil biurtu ziran ardatz mugi-ariñetan, bira egitean izar buztan-dun lez gar-urtika, Eta orduarien tresnerien txirringillnk dagienez, dakusgun leenengoa geldi egonik eta azkenengoa itxuraz beintzat egazka, lora-txorta areik be, eraz beste dantzaturik, bizkor orain astiro gero ebiltzala, euren zorientasuna eder-etsi eragiten eusten. Ederrena eritxi jatanetik dirdai txit doatsua<sup>1</sup> urteten ikusi neban. Abesti oso jainkozkoz Zorione'ren inguruan jira egin eban irutan, nire irudimenak bir-esan ezin dauanez. Orixegaitik aurrera doa nire iuma ta ez dot bera zeazten, gure asmamenak ba olako lits eta berezigarrietarako, orobat diñot itzari buruz be, jarduera zakarregiak daukaz.

—O, ene aizta deun, maite-su gartsuz ain jainkoti otoi egiñik, borobíl eder ontatik banantzen nozuna!

Dirdai onetsia gelditu zanean, neure andereagana zuzendu eban bere arnasa, esan dodazan berbakaz. Eta arek erantzun eutson:

—O gizaseme aundiaren argi betiko! í oni bait eutsozan itxi gure jaunak atsegin beteko leku ontatik beera eroan zitzuan giltzak! Azter eizu berau nai dozunez fedeari begira puntu arin eta astunetan, fede au zala-ta zu ibilli bai ziñan itxasoko ur-gaiñez. Ak ondo maitatu, itxaron ta siñistu dagianik ez jatzu ezkututzen, begirakuna antxe gauza oro íkusten dan lekuan daukazu-ta; erretñu au, baiña, egiazko fedez irabazi eben ezkeru uritarrak, on eta egoki litzateke au fede ori. aintzatzera irixtea.

Batxiller ikaslea gertatu ta maisuak auzia jarri arte, ikusteko, ez ebazteko, itza artu bage ixtllik dagoan lez, ni be olaxe errazoi guztiekaz izkillotzen nintzan, bera mintzatzen zan bitartean, alako aztertzaillarentzat alako gaitan gertu ta trebe egon nendin.

—Esaizu, kistar on; azal zaitez: zer da fedea?



Au entzutean jaso neban bekokia itzolz etozan lekuran-tza; gero Zorfone'gana biurtu nintzan; onek orduan kiñu bizkorra egin eustan, kanpora jarion nengian neure barne-iturriko ura.

—Ni autortu nadln emofen jatan graziak —asi nintzan— len-ikurraren eroale garaiaz batera, egin bei nire gogaiak ondo adierazota geldi daitezala.

Eta jarraian:

—Zure anai laztanaren luma egitiak idatzi ebanez, aita, Erroma zugaz betera bide onean jarri ebanak ain zuzen, fedea da itxaroten doguzan gauzen euskarri ta ikusten ez doguzanen erakuspide; auxe deritxat níri aren Ízatea.

Orduan entzun neban:

—Zuzenean zagoz, ondo ulertu ba'dagizu, zergaitik ipi-ñi eban euskarrien artean eta gero erakusbideen artean.

Eta nik:

—Emen begietara eskintzen jatazan gauzak, an beean ain dagoz ezkutuak begientzat; arein izatea egon be itxaropen garaia oiñarritzen dan siñestean dago bakar-bakarrik eta aren ezagutza ortik euskarriarena bera da. Eta beste ai>gi bagarik sifieste ontatik atera bear dogu, aren ezagutza beraz argibidezkoa da.

Orduan entzun neban:

—An beean irakatsi bidez lortzen dana orrela ulertua ba'litz, sofistearen asmamenak eleuke bearrik izango.

Onakoak maitasun gori arek bota ebazan itzak, gero gaiñeratuz:

—Ondo neurtuak dira diru onen nastea ta pisua; baiña esaidazu berau ziskuan daroazun ala ez.

Erantzun neutson:

—Bai, ba-darpat; dizditsu ta biribil oso, ez dago beraz aren moldearen zalantzarik.

An argi egian erlantzatic bat-batez urten:

—Onbide guztia bere gain oiñarritzen dan atsegin bioz-  
kor au nundik jatortzu?

Nilc jardetsi:

—Espiritu Donearen euri joria, orrialde zaar ta barri  
gainez<sup>2</sup> zabalazoa, dozu ni zorrotz be zorrotz sendotu nauan  
silogismua, ta ez edozelan sendotu gero, beste edozein ar-  
gibide ta argumentu aregaz bardiñean jarri ezkeru, ulergairz  
eta kamuts iruditzen jataz eta.

Nik ondoren aditu:

—Orrela zuritu zaituen leen ta oraingo adierazpenak,  
zergaitik daukazuz zuk jainkozko itza lez?

Eta nilk:

—Egia darakustan siñisgarria ondoren etorri ziran egin-  
tzak dira, izadiak ba orreintzako ez eban iñojz burdiñarik  
berotu, ezta ingurarik jo be.

Erantzun jatan:

—Esaizu, nok ziurtatzen deutzu eginda areik izan zira-  
nik? Geu gara egiztatu gura dogunok, eta ez beste iñor,  
baiezten dogunak.

—Mundua kristautasunera biurtu ba'zan —nik esan—,  
mirari barik, oríxe dozu bat eta aundia be, ta besteak eu-  
nen bat be ez dabe balio orren ondoan, zu bada txiro ta go-  
sez sartu zintzazan maats-ondoa izan zan landan landara ba-  
rria sartzen eta orain sasi biurtua dago.<sup>3</sup>

Ondo eldukeran, jauregi doneko inguruetan zear «Gora  
Jainkoa» zabaldu zan ozentsu, an goian kantatzen dan eres-  
soiñuakin. Eta gizaseme arek, ni olan aztertuz adarrez adar  
dagoneko azken ostoetaraiño aurreratu arte eroan nindu-  
nak, jarraitu eban:

—Zure adimenera ixuritako graziak edegi eutzun agoa  
oraiño edegi bear zanez, onartzen dot beraz bertatík urten-  
dako; orain, baiña, egokí da azal daizun siñesten dozuna  
ta nundik jatortzun siñiste ori.

—O Aita santu, síñistu zenduana ikusten dozun espi-  
ritua! Olan irabazi al izan zeuntsen illobirantz bide egiffik

oin gazleagoai! —esaten asi nínlzan. Zuk nai dozu nik emen adierazo dagidan neure siñistearen erabidea, ta bardin erabide orren arrazoia azal daidala. Nik derantzutzut: Jainko bakar betiko bategan diñisten dot, zerua oso-osoan mugitzen dauana Bera iñok mugidu barik, maitasunez eta guran. Etn siñiste ortarako ez daukadaz argibide fisikuak eta metafisikuak bakarrik; ba-daukadaz baita argibideak Moises igarle, salmuetatik datozenak, Ebanjelioak eta zuek, Gogo sutsuak goi-argitu ondoren idalzi zenduenok emonda. Eta siñisten dot im pertsona betikoetan; eta siñisten dot izate bat bakarra ta irintasuna, iru pertsona batera diranak eta Jainko bat dana. Jainkozko izaera ta maillaz, orain diarduanaz nunbait, askotan ikurraztu daust adimena Barri Onaren irakaspenak. Emen asiera; auxe da su-txingarra gero gar bizitan luzatzen dana eta> zeruan izar irudi, nigan dirdai dagiana.

Eder jakona entzun daroan ugazaba, barri ona ekarri dautson morroia besarkatu, agurtu ta ixillik egon ezin daren antzera, abeska onetsi nindun; iru aldiz estutu nindun, ixildu nintzanean, apostoluen argiak, onen aginduaz itz-egin bai neban. Alako atsegiña emon eutsan nik esanak!

- (1) Pedvo apostolu deuna.
- (2) Testamentu Zarra ta Barria.
- (3) Elei<sup>^</sup>ea, usteldu ta irotu dana.

## XXV KANTUA

Muiña.—*Espiritu garaipenlsuak.*—*Aberriari inliri ta asgorak.*—*Jakoba.*—*Dante'ri egindako azterketa, itxaropenari buruz.*—*Joan Deuna.*—*Zerutar argia.*—*Lurtar begia.*

Iñoizkoren baten jazoko ba'litz zeru-lurrak euren eskua ipiñi ta ni urteetan aul-azo nauan olerki <sup>l</sup> sagaratu onek lo egin neban ardoki ederretik jaurtita naukan eta ni gerra

dagitsen otsoen bíldots etsai, alako ankerkeriak azpiratuko ba'ninduke, beste abots batez eta beste ule-mototsez biur-tuko naz olerkari lez eta neure bateo-iturrí gaíñean artuko dot koroia, an sartu ba riintzan arimai Jainkoa ezagut-azten dautsen fedean, eta gero Kepa'k, orixegaitik, ain ondo ertsitu baít eustan bekokia. Dirdai bat urreratu jakun ondoren Kristok ítxí zituan ordezkoetatik urten zan boronbil atatik ain zuzen, eta nire andereak, alai ta bizi, esan eustan:

—Begira, begira! Orra or, gizaseme origaitik ikertu oi dabe Galízia, an beean.

Uso bík, alkar artuta. batak eta besteak biraka ta urru-ma gozoz euren maitasuna alkarri erakutsi oi dautsen lez. ikusi nebazan nik printze aundi ta aintzatsu an goian janaritzen dauzan azkurria txalotu ta aundietsiz. Euren atsegin-gurrak amaitu abezanean. alan be. ixil- ixillík geratu ziran *coram me* (neure aurrean) egozten eben dirdai biziz nire begiak beeraturik. Orduan, irribarrez, Zorione'k esan eban:

—Arima aintzatsu, zure esku-zabalak zutik jarri eban gure basilika; ots eragiozu itxaropenari gaiñalde onetan,<sup>2</sup> zuk ba-dakizu Jesus íruroi argiago agiri izan jatzuen aibatzen iruditzen dauana. Jaso burua ta mana zaitez, ilkorren mundutik ona gora datorrenari, ba, egoki jako gure errai-ñuetan umotzea.

Bigarren dirdizetik eldn jatazan poz-itzok; nik, beraz, jaso nebazan neure begiak leen pisu geiegiz makur-azo nebazan tontor areitara.

—Zure agintariak, ba, bere ederrez, zu aurrez aurre euki-tea nai dauan lez, egoitzik ezkutuenean bere kondeakaz, jauregi ontako egia ikusiz an beean lillucatu oi dauan itxarokizunak zu ta beste batzuk be bai kemendu zaiezala, esaidazu zer dan bera, ta zelan loratzen dan zure adimenean, eta nunik jatortzun.

Bigarren argiak oindino taiu onetan jarraitu eban. Eta egazkada benetan aundian nire egoen lumak zuzendu zituan emakume j.ainkoti arek, aurrez gertatu ninduan erantzuteko, onela:

—Burrukari daragoion Elizak seme bat be ez dauka, gure gizatalde osoaren gaiñera dirdai dagian eguzkian idatzita dagoan itxaropenez baiño geiagoz; orixegaitik laketu jako Egipto'tik Jerusalem'era etortea, bere gudaritza amaitu orduko ikusi daian. Beste puntu biak, jakitearren itanduak ez diranak, birtute au zein maitagarri jatzun erakusteko baino, berarí izten dautsodaz, ez jakoz ba gatzak izango, ezta arroeritxirako be; erantzun bei, beraz, eta Jainko-graziaren doe izan daizula.

Ikasleak berak dakian gaian bizkor eta nai-ala bere maisuaren gogoá bete daroanez, aren doea ager dedin, orobat erantzun neban nik be:

—Itxarokizuna, geroko aintzaren zain egote ziur bat da; Jainko-graziak eta aurrez irabazitako on-egiñak ekarria ain zuzen. Izar askotik jatort argi au, baiña nire biotzean leenengo ixuri ebana, Jainkoaren kantari goena<sup>3</sup> izan zan. «Itxaron beie Zuregan —diño bere jainkozko abestian— zure Lzena ezagun dabenak». Eta nok ez daki, fededun ba'da? Zuk goiargitu ninduzun gero aren goi-argi berberagaz zeure idazkian; beterik nago, ba, ta besteen gaiñ dixnrit zure euria.

Mintzo nintzalarik, sutzar aren magal bizian dildil egian gar batek, bat-bateko ta sarriko, bristada iduri ondoren jalgi eban:

—Oraindik irakiten naukan maitasunak, martiritzaraiño ta guda-zelaitik urten arte jarraitu eustan kemenez, bigarrenez be zuri itz-egitea nai dau; zuri, bai, aganako atsegiñetan pozten zarean orri, ta eder jat zuk esan daistazun zera, itxaroak agíntzen dautsun gauzea.

Eta nik erantzun:

—Idazti zaar eta barriak so-aurrekoa ipiñi oi dabe, ta orixe erakusten daust Jainkoak adiskidetzat daukazan ari-mak begirutzen dabenak. Isaia'k diño bakotxa bere lurrean soiñeko bikotxez jantzia izango dala, ta bakotxaren lurra bizitzaldi samur au. Ta zure anaiak, argiago bear bada, an soiñeko zurietaz diarduan lekuan, agerkunde au adierazten dauku.

Eta itz onein amaieran, bertatik entzun zan *Sperent in te* (itxaron zugar) gure gain inguruko arima guztiak erantzunik. Euren artean gero argi eskerga batek argi egin eban: Zangurruak baleuko alako dizdiza, neguak egun bat-bateko illabetea eukiko leuke. Eta neskuts atsegingarriak etorri-barri dan lagunari ez ezetariko auleriz, omen egitearren soil-soilki baiño, dantzaldian jagi ta esku artu oi dauanez, edu orretan ikusi neban nik dirdai erraiñutua, euren maitasun kartsuari egokionez, bira egien beste biekana urreratzen. Arein kantu ta zirklñetara egokitu zan, eta nire andereak aregan josi ebazan bere begiak, emazte ixil geldia iduri.

—Auxe da gure astonaren —pelikanoareri— bular gain atsedean artu ebana,<sup>4</sup> baita auxe izan zan gurutz gainetik arazo aundirako aukeratua be,

Onela mintzatu zan nire anderea; baiña itzok esan aurretik lez gero be adi adi jarraitu eban gora begira. Nik illuntzera doan eguzkia ikustearren, unetxo baten beintzat begiak zerbait lortu nairik, ezer ikusten ez dauanaren antzera, egin neban nik azkenengo zirt-zirt aregaz; azkenez esan eustan:

—Zer dala-ta itsutzen zara emen ez dagoan gauza bat ikusi naita? Lurrean lur da nire gorputza, ta antxe egongo da besteak ainbat, gure zenbakia bardindu arte betiren beti danaren asmoarekin. Itxitu doatsu ontan ez dago soiñeko biakaz leen jagi ziran argi bi-biak ezik, eta au iragarri bear dozu zeure munduan.

Ots onetara gelditu zan birunda sutua ta bardintsu, kantu irukotxaren soiñuakin eratzen zan eres-saldo gozo-bikaiña; era berean gertatu oi da, neke edo arriskuari txiri egiteko, leen batera ura zaplatzen eben arraunak, burrun baten otsera danak gelditzen diranean. A! Zelan dardaratu

zan nire buru-muiña Zorione ri barriz begiratu nairik, an ikusi ezin izan nebanean, bere ondoan nengoan arren mundu doatsuan!

- (1) Jaínko Antzerkifl, ta Dante erbesteiatua.
- (2) Santisgo'k itxaiopena dikur, San Pedro'k fédea ta San Juan' ek maitasuna.
- (3) Dabid erregea, salniurik geiennk ondu ebazana
- (4) San Juan.

## XXVI KANTUA

Muiña.—*Zortzigaren zerua: Espiritu garaipentsuak.*—*Dante goi-maitasunean azlertua.*—*Adan.*—*Leenengo pekatua.*—*Leen-aldia.*—*Leenengo izkuntza.*—*Leenengo atsedena.*

Neure ikuste itsutuagaitik dudan nengoala, berau lausotu eban sugar dirdaikorretik abots bat jagi zan, niri oartzuz, esanik:

—Nigan galdu ikustea ostera artu bitartean, on izango da, ziur, neugaz izketan ordaindu daizun. Asi zaitez, ba, ta esaidazu norantz zuzentzen dan zute gogo; jakizu gaiñera zure ikusmena ez dagoala illik lausoturik baíño, jaínkozko eskualdetik zear zaroazan andereak, ba, Anania'k eskuan euki eban indarra dauka beakoan.

Nik bota neban:

—Betor berak nai Jez, goiz naiz berandu, nire begiak bear daben osakaia; eurok izan bait ziran beti erretan nagon suaz bera sartu zan atea. Jauregi au doatsu egin daroan ona, alfa ta omega (asíera ta amaia) dozu niregan maitasunak leun zein gogor idazten dauana.

Ta abots arek berak, neure bat-bateko lausotzean bildurra kendu eustanak, itz-egitera eragin eustan oster a be, iñostalarik:

—Galbae estuagotik igaro bearra daukazu; egoki da azaldu daizun nok zuzendu eban zure uztaia alako itu edo zurira.

Eta ník erantzun:

—Jakintzazko errazoíakaitik eta emendik jasten dan agint-eritxiz, josia izan da niregan maitasun ori; ona ba, ona danez, ozt-oztan da ezagutua; onek, bartiz, maitasuna biztu oi dau geiago edo gitxiago barne daroan ontasunaren neurrira. Beraz, on osoa aurkitzen dan mamiñera, alde aundiaz aurkitu be, ta andik kanpo aurkitzen dan on guztia aren ditziraren argi pitiña besterilc ez dalarík, beste edozein gauzara baiño leen araxe zuzendu bear da maitatzeko, adimen artatik bait dator argibide .au sustraitzen dan egia. Alako egiak adierazo eutson nire ulermenari betiereko mamin guztien leen-maitasuna erakutsi eustanak. Egille egitiaren itzak sendotzen dau berau, bere buruaz iñarduala Moises'i esan eutsonak: «Ník neuregan ikus-azoko dautzudnz osotasun guztiak». Zeuk be zeure iragarki gurenean diñostazu erabat, emengo ezkutua beste iñok baiño obeto iragarten dau-ta an been.

Eta entzun neban:

—Giza-ulermenagaitik, eta jainkozko esanari jarraituz, gorde Jainkoarentzat zuk dozun maitasunik beroena. Baiña esaidazu oindiñokarren, beste lokarririk ete dozun Arengana erakarri oi zaitunik; adieraz eiguzu olan, zenbat agiñez ozka dagitzun maitasun onek.

Ez egoan gortetik Kristoren arranoarren asmo donea,<sup>x</sup> laster bait nintzan konfuratu nundik zear eroan nai eban nire autormena. Beraz, leenari jarraitu neutson:

—Biotzari Jainkoagana biur-azoteko ziri eragingarri diran guzti areik lagun Í2an jataz goi-maitasunerako; munduaren izatea, ba, ta nirea, ni bizi naiten, eta ni lango edozein kristiñauk itxaroten dauana, Arek jasan eban eriotzeak, esandako ezagutze biziaren bidez, guzurrezko maitasunaren



itxasotik atera nabe, ta egiazkoaren ondartzan ipiñi. Betiko b.artz-zaiñaren ortua oso-osorik edertzen daben adarrak maite ditut nik Arek ona ezartzen dauksen neurrian.

Ni ixilduta batera, abesti samur gozoa entzun zeru barrera; eta nire andereak be «Santu! Santu! Santua!» Lñoan besteakaz batean. Eta argi biziak, ikusindarra mintzez mintz zearka doan dirdirarantza zuzentzen dalako, loa kentzen dauan lez, eta itxarrik dagoanak Lkusten dauana jasan eziñik, irizmena lagun ez datorkion arte, bat-bateko esna-egoteak asalaturik euki oi dauanez; Zorione'k be bardin sor ta gogor guzti uxatu eban nire begietatik, milla millakak gora dizdiz egian bere begien erniñukaz. Orregaitik, leen baiño obeto ikusi neban gero, ta ia-ia konkor zein zan itandu neban zugaz ikusi neban laugarren dirdaía. Andereak esan eustan:

—Erraiñu orren muiñean bere Egillea dakus alai be alai leen-birtuteak sorturiko leen-arimeak.<sup>2</sup>

Zugatzak aizearen aurrean burua makurtu ta gero, bezko indarrak eraginda, zutitzen diranez, nik be olaxe egin neban erdi zorabiotua ak itz egin-ala, ta gero, irakiten neukan mintzo-gurariak saka eginda, senera etorri nintzan barrero. Eta asi nintzan:

—O sagar, dagoneko elduta, sortua izan ziñana! O aita zaar, zure emazte oro alaba ta erren bai dituzu! Al dodanik eta barrukoien mintza zakídazala, eskatzen dautzut. Zuk dakusazu nire naia ta, ariñago entzutearren, ez dautzut bera esango.

Zakuan sarturiko abereak, batzutan, iraulka diardu ta aren axanpa-estu aldiak oartzen dira zorro-barnean egiten ditun eragin-ikaretatik; bardintsu, leen arimak, estalki le2 eukan argiaren bidez, antz emoten izten eustan, zelako poza eukan niri atsegiña emonez. Gero adierazo eban:

—Zuk esana izan ezta be, bereiz daroat zure naia zuk ziurtzat daukazun edozein gauza baiño obeto; egizale dan ispilluan bertan dakust orí, arek ba beretik dau argia sor-

tzen, gauza guztietan dirdir dagiana ta Ari ez dautso argi bategen be dirdai egiten. Zuk jakin nai dozu zenbat denpora dan Jainkoak baratz eder onetan ípiñí nindunetik, andera onek ementxe bait zinduzan antolatu igoera ain Iuzerako, ta zenbat denporan atsegindu zitun nire begiak, ea sumiñaldi aundiaren benetako errazoia, ta nik erabilli neban izkuntza ta neuk asmatu nebana. Jakizu, ene seme, zugatzetik jatea etzaJa izan erbesteratze ain luzearen zioa, agindua austeak bakarbakarrik baño. Zure andereak BergLli atera-azo eban lekutik, urten bage, lurrak eguzki ingutu dagizan lau milla irureun eta bi birunda egon nintzan ni lagun-talde onen írtikaz, eta lur-gain egon nintzan bitartean bederatzireun eta ogetamar bider ikusi neban eguzkia bere ibiltaldiaren argi guztietara bíurtzen. Nik erabíllitako izkuntza osotoro itzalia geratu zan Nemrod'en jentea eziña zan lanari itsatsi aurretik, giza-burutík ezer etzan ba iraunkor izan; gizonaren guraria izarrai jarraika jantzi barriz jantzi oi da. Berez sortua da gizasemeen mintzatzea; onela naiz arela izatea, baiña, zeuen jitari dagokionez itxi daroa izadiak. Linbura jatsi aurretik, U eritxon lurrean ni narozan poza dakarren on goi-goikoari, ta Eli dei egin eutsoen gero, ta olantxe izan bear dau antza, ilkonen erabillia, ader-ostoa lez dozu, ba-doana beste bat etorri dedin. Uin gainean geien jagiten dan mendian egon nintzan ni<sup>3</sup> bizi garbi ta loitsuan, leen ordutik eguzkiak bere lauren orratza aldatu oi dauanari dau-tonera arte, seigarren ordurarte.

- (1) San Juan da, cmen itaunka dagoana.
- (2) Adan, Ien-gizona.
- (3) Pekatu aurretik eta ondoren.

Muiña.—Zortzigarren zerua: *Espiritu garaipentsuak.*—*Kepa deunaren itz latzak Eliz-artzan gaiztoen aurka.*—*Zerutarren naigabea.*—*Bederatzigarren zerura igoten.*—*Leiarrezko zerua.*—*Aingeru-taldeak.*—*Leenengo gizasemea zelakoa zan.*—*Zeru ederra ta lur ustela.*

«Aintza Aitari, Semeari ta Espintu Santuarí» —asi zan zeru guztia kantari; kanta arek zorarazten nindun ni oso-osoan. Nekusana lurbiraren irri-barrea iruditzen jatan, orditzen ninduna izán be belarri-begietatik sartuz neukan. Oi atsegin! Oi poztasun jalgi-gaitz! Oi bizi maitez ta bakez betea! Oi ogasun ziur goitu-eziña! Begi aurrean ixeturik neukazan lau argiak, eta aurrenen etorri zana, biziago biurtzen asi zan, eta aren arpegikera aldatu egin zan Jupiter aldatuko litzaken lez, Marte ta bera txori ba'litzaz eta lumak alkar aldatu. Jainko-ardurak, an karguak eta zeregiñak banatu oi dabezanak, abesbatz zorionsua ixil-erazo eban, nainun entzun nebanean:

—Margoz alda ba'nendi, ez zu arritu ni mintza nazeiño guzti oneik be larutzen ikusiko bait dozuz. Lurrean dagokidan lekuan zurrupatzen daustana, Jainko-Semearen aurrean utsik dagoana, odol ta ustelezko zikin-zulo biurtu dau nire illobia; emen goitik jausi zan gaiztoa, beraz. pozik dago an beean.<sup>x</sup>

Odeiak aurka jarten jakozan arrats-beran eta goizero, eguzkiak kolore apartak trakutsi oi ditu, ta nik olakoxe margoz ikusi neban orduan ortzi osoa. Eta emakume begigorde bat bere buruaz ziur ta seguru dagoan lez, baiña iñoren akatsak entzunaz bakar-bakarrik gorri jarten danaren antzera, Zorione'ri olantxe aldatu jakon betartea; alako illunaldia nik uste dot zeruan egon zala alizate goenaren nekaldian. Ak gero izketan jardun eban abots guztiz aldatuz, aren arpegikera aldatu bage jarraitu:

—Kristoren emaztea etzan nire odoJaz asetua izan, Linoi'renaz eta Kleto'renaz, urrea metatzeko erabilli zedin, mundu ontako bizitza doatsua eskuratzeko baiño, eta Sixto'k, eta Pio'k, eta Kalixto'k, eta Urbano'k ixuri eben odola ori zala-ta negar-malko askoren ostean. Gure asmoa etzan izan, kristiñau erri talde bat jarri zedilla gure ondorengoaren eskumaldean ta beste talde bat bestekaldean, ezta niri emon jatazan giltzak bateatuen aurka burrukatu eban guduikurrin biurtzerik be, ezta ni sarri sumindu ta lotsarazten nauan doe guzurrez salduetan sillu-irudi izaterik be. Emen goitik landa oro ikusten dira otso arrapakiñak artzain-jantzitan. Oi, jainko-babes! Zergaitik zagoz lo? Gure odoletik edan naita, geratuz dabiltz Kaorsitarrak eta gaskiñak.<sup>2</sup> O asiera on, zelako. azken lotsagarrira zoazan! Baiña Jainco-ardura gurenak, Erroma'n Eszipion'egaz munduko aintza zaindu ta babestu ebanak, laster urgaziko dau, uste dodanez. Eta zuk, seme orrek, ilkor zareanez ara beera ítzuliko zara barriro be ta, edegi aoa ta ez eizu gorde nik gordeten ez dodana.

Gure aireak, zeruko Auntzaren adarrak eguzkia ikutzean, lurrun izoztuetatik matazak beerantz botaten dabezan legez, era berean ikusi neban nik, egurats garbia gorantz egiten gugaz gelditu ziran lurrun garaipentsuak. Nire soa arein bertarte atzetik joian, eta orrelaxe joan zan jarraika, erdiko usguneak, aundia bait zan, aurrerago joatea galazo eutson arte. Nire andereak, ba, gora begiratzea itxi nebala ikusirik, esan eustan:

—Beera begiak, eta ikus zenbat bira emon dituzun.

Lenengoz beerantz begiratu neban ordutik, mugitu nintzala ikusi nebanez, uztai osoan zear, leenengo giroaren erditik azkeneraiño, ta Kadiz'en ango aldetik ikusten neban Lílise'ren igarobide zoroa,<sup>3</sup> ta emengo aldetik, ondartzatik ur-samar Europa zama gozo egin zan lekua. Eta geiago be ikuskatu ta aurkituko neban lur-zatitxo onen luze-zabala, baiña eguzkiak neure oinpean bira egian ikur baten bidarlorra ta beste baten zatira.

Gogo maitemindu, neure andereagana beti joera daukanak, egundokorik bizien a ikusi opa eban; eta izadia naiz ertia sugarri ba'dira begiak liliuratu ta adimena giza-soiñean naiz berau agertzen dan margo-laukietara erakarteko, biok batera be etziralara ezer begitandu jatan, aren betarte irri-partsura begiak itzuliz jainkozko atsegiñaz gozartu al izan nebanean. Eta aren begikada leun-eztiak barreneratu eustan indarrak Leda'ren abi txairotik urrindu nindun zerurantz bizkor saka eragiñik. Aren bazterrak eta alderdiak, ur-ur lez bikain, ain dituzu sotil era batekoak, nik ez dakit zein lekuti sartu ninduan Zorione'k. Baiña, nire gurariak ikusten zítuan-eta, solaska asi jatan, poz-eztitan irribarretsu, Jainkoa gozatzen zala zirudian axen arpegian:

—Munduko izadiak —naturak— gaiñerako aro guztiak bere ingurmarí biratzen diran artean, erdian geldi aurkitzen danak, ementxe dauko bere asiera. Zeru onek gaiñera ez dau ezagutzen beste oiñarririk Jainkoaren naia izan ezik; onengan ixiotzen da maitasuna; bertotik daríon eragiñak dana igi-azten dau. Argiak eta maitasunak obo baten besarkatzen, beronek enparauak lez, eta obo au inguratzen dauanak barrendu daroa bakar-bakarrik. Aren igiera ez dau beste ezek neurtzen baiña besteak onek neurtuta dagoz, amarra erditik edo bostak neurtuta dagoanez. Eta orain ulertu zeinke aldiak zelan daukazan ontzi onetan bere sustriak eta besteetan bere adarrak. Oi atsegin-gose, ilkorrak ain barru zeuganatzen dozuzana, iñor be gai ez dala zure uin-uretatik begiak atera al izateko! Gogoa bai loratzen da gizonetan, baiña jarraiko euriak basakoran biurtu oi dauz egiazko okaranak. Fedea ta errugabetasuna umeetan bakarrik aurkitzen dira; oneik gero íges egiten matraillak jantzi orduko. Oraindik titili-potolo berba dagianak, barau dagi ta gero iruntsi, miiña askatu jakonean, edozein jateko edozein alditan. Orrelaxe baltz egiten da, goiza ekarri ta gaba izten dautzunaren alaba ederraren narrua, asieran zuria zana. Zuk, arritu ez zaitez, gogo emon lurrean ez dagoala jaseko erri-zuzendaririk, ta orren erruz bidetik okertzen dala giza-familia. Baiña urtarril oso-osan negutik urten orduko, an

beean aaztu oi dan eunenegaitik, beste obo goiagoko batzuk jagiko dira itxaroten ekatxak brankak dagozan lekuan popak jarriko dituna; ontzidiak olan zuzenduko dau ibil-bidea, ots, banda, ta loraen atzetik egiazko fmtua etorriko.<sup>4</sup>

(1) San Pedro itzez emen. Bonifazio Vllirgarrenaren aurkako iñarros-aldia.

(2) Koarsi'koa zan Juan XXirgairena, ta GaskuñVkoa Klemente V'garrena.

(3) Gibraltar, Ulise galdu zan Iekua.

(4) Italia dakar gogora.

## XXVIII KANTUA

Muiña.—*Bederatzigarren zerua, au da, kristalezkoa: Ain geruen maillak.—Jainkoaren izatasun.—Gogozko munduaren bederatzi ohoak eta mundu sumakorraren bederatzi boronbillak..—Nagusi-maillak zeruan.*

Nire gogoa paradisuraino egaztu eban arek, egia, illcor erkiñen oraingo bizitzaren aurkakoa ain zuzen, erakutsi eustanean, zuzi baten sugarra ispílluan ikusten dauanaren antzera, onegaz argittzen da-ta, sorbaldatik begiakaz edo pentsamentuaz ikusi aurretik, eta leiarrak egia diñotson ikusteko biurtu ta garragaz bat datorrela, musikea eres-zotz kolpetara lez, ikusi daroanaren antzera, orrelaxe egin nebala gogoratzen dau nire oroimenak, maitasunak bere lakioetan saretu nindun begi ederretan so-egiñez. Eta itzuli nintzeanean, zaurituak. izan ziran nire begiak, daukan igiera ondo ikuskatzen dogunean an zeruan agertu oi danaz; puntutxo bat ikusi neban argi guztiz bizitan izpikatzen ebana. eta aren diztirak jotako begiak, argitasun orren bortitzaren aurrean, itxi bearrean aurkitzen. Eta guri izarretan txikiena begitanduten jakuna, illargi lez litzakigu, izar bat beste baten al-

boan jarri ta puntu aregaz bardinkatu ezker. Bear bada, argi marraztu latño koroia ur iruditzen dan legez, itxurazten dauan lurruna lodi-usuago dalarik, puntu atatik urrun egoan suzko obo bat, bizkor-bizkor jirabera egiana, gure mundua estutzen dauan igiera baiño bizkorragoa litzakena. Obo au beste batek mugatzen eban, eta au beste irugarren batek, eta irugarrena laugarren batek, eta bostgarrenak laugarrena, ta seigarrenak bostgarrena. Zazpigarrenak jarraitzen eban onein gaiñ, ain edatua dagoanak, Juno'ren mezularia<sup>1</sup> berau barne artzeko estu ta medar izango litzakena. Gisa ortan jarraika joiazan zortzigarrena ta bederatzigarrena, ta eurotatik bakotxa astiroago igitzen zan, euren zenbakia urrunago batetik etaugar argiagoo eukan argi utsetik urrago egoanak, aren muiñean barrurago sarturik dagoalako, nik uste.

Nire anderak> ni aikolo-maikolo ta arritu-samar ikusiz, esan eustan:

—Puntu atatik dingilizka dagoz zerua ta izadi osoa. Begiratu obo art, an urrun dagoanari; ta aren zirkiña bizkorra dala, jakizu, maite-suak eraginda dabilrelako.

Nik erantzun neutsan:

—Mundua, boronbil areitan ikusten dodanez eratua ba' litz, pozik itxiko ninduke esan daustazunak; baiña sumakor dan munduan ikusi leitekez birak erdi-unetik arago ta azkarrago dabilzenak, eta ortik nire gurariak, maitasuna ta argia bakarrik muga lez daukozan jauretxe miresgarri ta aingerutar onetan, amaia euki bear ba-dau, egoki jat entzutea oindiño be, eredu jatorra ta aldakia zelan ez doazan batera; nik neurez ori ikertu naita, alperrik lan dagit-eta.

—Korapillo ori askatzeko, zure atzamarrak naiko ez izatea, ez da bape arrigarri; ain estua ba'da, iñor orretan saia ez dalako dozu.

Olan mintzatu zan nire anderea, eta ondoren:

—Ausnar eizu esatera noakizuna, ase zaitezana; zorroztu adiña auziari buruz. Aundiago edo txikiago dozuz gorputz oboak, euron atal guztietan zabal erazten dan kemena geiago edo gitxiago dan neurrian. Ontasun aundiagoak osasun era-

gin aundiago eskatzen; eta au aundiagoa ba'da, aundiagoa izan bear berau artzen gorputza, beronen zatíak era batean osoak ba'dira. Beraz, beste izatía, mundu guztia beragaz narras daroan oni, geien maite Ízan eta geien dakian oboari dagokio; auxegaitik, zuk zeure neurria koru onei ta ez oso eraturik dakusazuzan mamiñen itxureari jarten ba'dautsezu, geiagotik gitxiagora ta aundiagotik txikiagora, alkar arteko itxikidura miresgarri ta maillazkoa dagoala ikusiko dozu zeru bakotxaren eta euren adimen eragillearen artean.

Eguratsaren boil-erdia sotiJ naro geratzen dan lez Bo-lea'k,<sup>7</sup> ipar-aizeak putz dagianean, bere matrail leunagoz, leen oro ilundu eroian laiñoa txautu ta bakanduz, zeruak irribarre egin dagian nun-naitik; olantxe geratu nintzan ni be andereak bere erantzun argiak emen eustazanean eta egia, ízai bat zeruan lez, ikustera eldu nintzanean. Eta arek bere itzak azkendu-aJa, burdin goriak ez dau beste era batera dizdiz egiten obo arek ñirñir egin eben lez ezik, euren sutzarra txingar bakotxera edataz; oneik asko ta asko bait ziran, zotz (ajedrez) oJean tarte bardiñeko goran baiño millaka geiago bere kopuruak jadetxirik. Nik talderik talde osana —gora! — abesten entzuten neban, une tinkoaren gorazarrez ain zuzen uneak euren tokian daukazana ta beti eukiko dahezana, be-rean beti egon ziran lez.

Eta nire adimenaren oldozkun ezbaikorrak ikusten eba-zanak, esan eban:

—Serafiñak eta Kerubiñak erakutsi dautzuz leenengo bi-rundak. Azkar dabiltz euren kateari jarraika, alik eta geien puntuaz egokitzeke, ikusteko barriz gorago ta obeto. In-gurumari doazan beste maitasunak Jainkoaren aurreko Aul-kiak dozuz, eta eurongan amaitzen da leenengo irunakoa. Eta jakin bear dazuna da, baJcotxak egi-muin begiak barrenago sartu ta atsegiña biziago artu daroela, ulermena osoan sortuz. Oar emen: zoriontasunak ikustean daukala bere oiñarria ta ez ondoren datorren maitasunean; eta graziak eta gogo onak erne daroe^an irabaziaren neurria, au da, begiz ikustea, olan maillaz mail datorrena dala. Beste irunako udabarri betikor



ontan loratzen danak, Arito gautarrak murrizten ez dauanak, beti-betikoz abestu oi dau osana eratzen dan pozezko iru rnailetan ots dagien iru melodi ta eres-doiñutan. Mailla onetan daukazuz iru jainkosak be: leenengo, Agintedunak, eta gero, Birtuteak; irugarren sailla dozu, Aaldunena. Ondoren, azken aurreko inguru bietan biratzen dira Buruzagiak eta Goi-aingeuak. Azkenengoa, aingeruen festaz osotua da guztiz. Maillok gorantz begira dagoz danak, eta beean be eragin aundia dabe, eurak Jainkoaganantz erakarriak diran lez eurak be oro eurakana erakarritz, Eta Dionisi'k, irrika biziz jarri zalako maillok ikasí ta aztertzen, neuk lez izentatu ta bereizi zituan. Baiña Gregorío gero agandik baztertu zan, beraz, zero onetan begiak edegi ebazaneko, barreka asi zan bere buruaz. Eta lurrean egi ain ezkutua ilkor batek igarria izan baldin ba'da, arritu zaitezarik ez dot gura, emen goietan ori ikusi ebanak aurkitu eustan-eta obo ta inguru oneitako beste egia askogaz batera.

- (1) **Ortzi-adar edo ortzikua.**
- (2) **Ipar-aize onek, diñoenez, eskoi-mairail aldetik bigunago jo daroa.**
- (3) **Toma Deunaren Lrakatsiari darraitso.**

## XXIX KANTUA

Muiña.—*Leiarrezko zerua: Aingeruen maillak eta abar.*  
 —*Zer ziran aingeruak.—Izlari txarren aurkako berbak.*

Latona'ren seme biak, Aariak eta Aztagak estalita, osertz bardíñaren mugetan batera aurkitzen diranetik, goi-gingak orekan dirauala, bata ta bestea boilerdia aldatuz obo aretatik askatzen diran arte, ainbat denpora izan zan, Zorione, betargi ta ixil egon jatzun epea, ni lilluratua euki ninduan puntura soka nengoalarik.

Gero asi zan:

—Neuk dautzut esango, ta ez itandu, zule entzun nai dozuna, an ikusi bait dot nun'a ta noiz'a guztiz bateratzen diran tokian. Ez onile beretzat jaristearren, ori eziña da-ta, aren aintzazko dirdai-printzak izakietan dizdiz egiñik, «Bana-z» esan leikean bere beti-Ízatean alditil kanpo, beste iñok barru artzetik at, eder izan jakonez, maitasun barrietan iregi zan maitasun betikorra. Ezin daikegu esan aurretik lolo egon zanik, etzan izan ba ez leenik ez gerorik Jainkoak ur-gain oneitan bere ibillaldia egíterakoan. Irxura ta gai uts batera jalgi ziran, akats bage izatera, iru arilco uztai bateko iru gezi lez, Eta leiarrean, anborrean naiz berin dirdaitsuan argiaren izpiak eldu ta izan artelco berezitasunik ez daukon lez, iru-erako eragiñak be bardin dana batera ixuri eban bere jaunagandik, asiera ta izate artelco berezitasun barik. Batera sortua ta eratuia izan zan gun-mamiñan egokitasuna, eta munduaren gaiñ-gaiñean egon ziran egite utsa gertatu zanekoetan nunbait; aalmen utsa dago beeko aldean, eta erdian, alkarturik, aalmena ta egíntza, geroztik iñoiz be asazkatuko ez diranak. Jeronimo'k idatzi eban, aingeruak, gaiñeralco mundua egiña izan baiño, gizaldi asko leenago sortuak izan zirala; egi au, alan be, Espiritu Santuak argituta jardun ebenak leku askotan idatzia izan zan, eta zu konturatuko zara uste onez ba'diarduzu, errazoiak be bai, erdizka beintzat ba-dakus, onek ez bait dau buruz artzen eragilleak (aingeruak) ainbat denpora euren osotasunera barik egon leitekezanik. Zuk ba-dakizu orain nun eta noiz eta zelan sortuak izan ziran maitasunok; itzali dira, beraz, zuk leiaz opa zenduzan iru su-adore. Au olan dalarik, zenbatuz ez litzateke ogeira elduko aingeruetatik zati bat, sortu ta laster, zuen gaikien aitzin-gibela naasi ta asaldatu zala. Beste zatiak, onean iraunik, egintza au, zuk ain pozik ikuskatzen dozuna, asi eban, eta jira-bira egiteari iñoiz be izten ez dautsona. Jausiaren asiera izan zan munduaren pisu guztiaz zanpatuta ikusi zenduanaren arrokeri madarikatua. Emen ikusten dozuzanak apalak izan ziran, ainbesteko adiur-goikoz sortu ebazanaren ontasuna ezagutuz, eta auxegaitik goratua izan zan arein adimena argitzen dauan eskerrez eta euren irabazi

ta merituz, orain naímen tinko ta betea eukiteraiño. Eta ez dot nai zelantzan egon zaitezarik, arkaitz seguruan baiño: grazia artze irabazgarri dozu, zelako maitasunez artzen dozun. Aurrerantzean ondo ikuskatu zeinke batzar au gaiñerako Jaguntza barik, nik esan itzak ulertu ba'dituzu; lurrean, baiña, zuen eskoletan erakutsi oi danez, aingeruen izateak ulertu, gogoratu ta naí dauala, geiago esango dautzut, argi geratu daiten egia, naastu egiten dala an been gauzea, irakaskintza ala-olakotzat arturik. Izan-izakiak, Jainkoaren arpegiaren gozotasuna txastntu ostean, ezer be gordeten ez jakonagandik ez eben euren begirakuna nldendu, eta olan beste zer barri batek ausi barik daukie euren beakoa ta ez daukie zetan gogora ekarririk be bear bada aldendu dan gogairik; an been lorik egiteke ames egin oi da egia esaten dan ala ez dan esaten siñistu barik, naiz-ta azkenengo ontan erru geiago ta lotsa geiago izan. Zuok ez zoiaze orain bidezidor bardiñetik, eztabaidaka, ain zaroaze narras itxurazko zaletasunak, eta kezkek! Eta auxe be estura gitxiagoz artu oi da emen, Idazteuna atzera itxi edo-ta txarto adierazten danean baiño. Ez dakazue gogora zenbat odol ixuri bear dan berau munduan ereiteko ta zelako poza dakarcen apal-ap-alik aregaz bat datorrenean. Nobere burua esku biakaz jazteko, alegiñak egin daroaz arek eta onek, bakotxak bere asmake-tak burutzen, izlariak gero, Barri Ona ixildurik, esan-txaltzat artzen dabezanak. Batek diño illargiak atzera egin ebala Kristoeren nekaldikoan eta eguzkiaren argia tartetu egin zala, beera eldu zedin; beste batzuk, berez ezkutatu zala argia, ta orixegaitik espaiñarrentzat eta inditarrentzat, bardin judutarrentzat, nabariko izan zala dalako illun-aldia. Florentzia'k ez dauko ainbeste Lapi ta Bindi,<sup>2</sup> urte barruan an eta emen irakastegietatik aldarrikatzen diran era ontetako ipuin guztiak batzeko aiña; olan, jakiña, arditxo ezjakiñak aizez beterik datoz Jarratik, kaltea ez ikustea atxald Jez balio ez dautsela. Kristok ez eutson bere leenengo bialdu-taldeari esan: «IbiJ, eta otsegin munduari otso-ipuiñak»; egia emon eutsen oiñarri ta onek ots-egin eban arein aoetan, eta alan, fedea sutarazteko, autzak

batu ta burrukatzeko, Barri Ona izan ziran arean babeski ta lantza. Orain, aldarrikatzero, igesbide ta kokolokeriakaz joan oi da, ta, jenteak ba'dagi, puztu txotoa ta ez da geiag eskatzen. Baiña olako txoriak txotoaren punta dauko bere abia, ta erri zeeak ba'lekus, ikusiko leuke zelakoak diran uste ona jarririk daukien arein induljentziak; eurokaiatik azi-azo bait da lurtean ainbeste kirtenkeri, ezetariko argibide ta zentzun barik, edozelango agintzari molizotzen jentea. Onekin loditu oi da Anton doneaz doan belarri-luzea<sup>3</sup> ta oraindik lau-oiñakoago diran batzuk, ikurratz dako diruaz ordainduz, Alan be, zearmearka au naiko dedin, aurrerantzean itzul begiak bide artezerantz, zidorra ta aldia laburtzeko moduan. Izate onek maillak mail bait daukaz zenbakiak, iñoiz etzan egon itzik ez Ílkor gogairik ainbeste teraiño eltzen zanik, eta zuk gogotan artu ba'dagizu Daniel'ek iragarri ebana aren millaketen millaketan zenbaki mugatua goratzen dala ikusiko dozu. Oro dirdaitzen dauan argia arek artua da modu askotara, bera itsasten dan dizdizen laiñeko. Olan ba, ikuskariaren zolitasunari jarrai dagitson lez barne-berotasunak, maita-gozotasunaren antzeko da beroa edo epela be. Ausnar aurrerantzean betiereko aalmenaren bikaintasuna ta aunditasuna, makiña bat ispillu egin dabezana, leenango lez bat eta zatitu-eziña iraunik, ugaltzen dana.

- (1) Aíngeruak —bultz-gaiak— etziran lu2aio egon zerutik kanpo.
- (2) Lapi ta Bindi. garai atako Florentzia'n, Ízen oso ezagunak.
- (3) Eleiz-Lzlari azai-ursen aurkako esanak.

### XXX KANTUA

Muiña.—*Zeru goiena: Jainkoa, aingeruak, zoriontsuak.—Zeru-gaiñera igoten.—Jbai arrigarria.—Doatsuen larrosa,—Enrike VH'garrenaren jarlekua.*

Doi-doi *sd* milla milla-oin gugandik urrun iralcin dagi seigarren orduak eta mundu onek dagoneko zearka makurtzen bere itzala, bearago dakusgun zeru erdia aldatzen asterakoan; izar batzuk leza sakon ontara orduko galdu oi dabe euran dízitira, ta eguzkiaren raírabe txit argia aurreratuz doan neurrian, zeruak ostondu egiten ditu banan-banan izarrak, ederreneraiño> Orrelaxe izan jatan lausotu nindun puntuaren ínguru beti biraka dabillen poztazun garaipentsua be; ak barru artu daroanaren barne nengoala iruditzen jatan, baiña itzali zan nire begientzat astiro astiro ta, ezer ez nekusan ezkeru, maitasunak Zorione'gana begiak biurtzera beartu ninduan. Ontaz oraiñarte emen esan guztia goralpen bat-bakarrean sartu eskero, gitxi izango litzateke bere egitekoa beteteko. Nik ikusi neban edertasuna, ez bakarrik gurearen gaiñetik, gozatu be, nik uste, beraren egilleak soilki gozatu leikela bete-betea. Pasarte ontan gauditua dazaut neure burua; ezek baiño geiago gaiaren puntu bategaitik gauditua noski, naiz jostaillu naiz izugarri; eguzkiak. izan be. geiago lausotu oi dau ikusmen argaJa, erabat birloratzen ni be sen-galdua izten irripar samur aren gomuteak. Bizitz onetan aren arpegia, leenengoz ikusi nebanetik oraingo ikuskariraiño, neure kantuz jarraitu izan dautsot; egoki dot, alan be, itxi daidan neure olerki-lanak aren edertasunari jarraitzea, bere erti-arloaren azken-puntura eldu dan artistaren antzean.

Zeregin latza bukatu-urten dagoan nire kantuarena baiño abots zoli obe batentzat itxiaz nik neure zera, gidaria barriz asi zan izketan:

—Zeruko gorputz aundinetatik urten gara, zerura igoteko, argi uts, ulermen argi, maitasun bete, on egi-egiaren maitasu-

na, pozez gaiñezkakoa, gozotasun orotan gozoena dan poza. Emen ikusiko dozuz paradisuko gudari-talde biak, bata ta bestea; eta bata azken-epai egunean ikusiko dozun itxura ber-beraz.

Begiak tutubiotzen ditun ezusteko tximistak, gauzakirik nabarmenenak be ikusten izten ez dauskuen lez, era bardiñean esitu aindun ni be alako zapiz bezela dirdlraz inguraturik itxi nindun argitasun bizi batek, nik ezertxo be ez ikusteraiño itxi be.

—Zeru au geldi ta tinko daukan mattasunak, onako agurrez artu oi ditu ona datozenak, zuzia bere sugarrerako<sup>1</sup> ger-tu egon daiten.

Itz laburrok barneratu jatazanerako, ulertu neban, neure indarrez gaiñ jaso izan nintzala ta ikusmen barriz orní-dua somatu; nire begiak argirik dizditsuenak be eroateko gai ziralarik. Eta argi bat ikusi, erlantz islatu pareko, udabarri sorgiñez jantzitako ur-egal biren artean. Txingar bi-ziak etozan ur-tirain ortatik., lora artean nun-nai irautzen ziranak, urretan kokarazitako errubiak legez; ondoren, euren usainkiz ordituak edo, barrero murgiltzen ziran ur las-ter LiLlurgarrian; eta bat sartzen, bestea urta eten.

—Orain irakiten jarten zaitun leia gogotsua ta ikusten dozunaren barri euki-gurea bizi atsegingarriago jataz; ur onetatik, baiña, edan bearra daukazu egarri ain bizía ase-turik geratu aurretik.

Onela adierazo eustan nire begien eguzkiak, gero gaiñe-ratuz:

—Ibaia ta sartu-urtena dagien topazioak dira aren egia-ren solasurre illunak, ez gero berez gauza bete-ezak dirala-ko, okerra zeugan dagolako baiño, ikusmena ez bait dauka-zu oraindik ain goratua.

Ez dago umerik, oi baiño beluago itxartuta, amaren bu-larrerantz joten dauanik, ni, neure begian ispilluak oindiño obeak egitearren, makurtu nintzan baizen bizkor, gu euren-tan garbitu gaitezkan azkar doazan ur-ufñetan. Eta neure be-

tazal ettzak areitan busti-ala, ur lasterraren luzatasuna biribil bíurtu zala, begitandu jatan. Ondoren, koko jantzita egon zan jentea, gorderik egon zan sasi-itxuratik erazten ba'da, leen eratik txit bestelakoa agertu oi danez, antzera aldatu ziran, niretzat, poz-aundiagotuz, Jorak eta txingarrak, zeruko jauregi biak nik argi ikusteraiño. O Jainkoaren dirdira, nik egiaren erreñuko garaikunde gorena onen bitartez ikusi bait neban- Eidazu indar, zelan ikusi neban adierazo daidan!

Argi bat dago ain goian bera ikusiz bakarrik bakea aurkitzen dauan izaki a ikusgarri egin daroana; irudi bíribilean barraiaten da ta beronen itzul-íngurua gerriko zabalegia gertatuko lítzakio eguzkiari. Leen mugi-gailluaren kukutz gainean islaturiko erraiñu batez egiña dago bere azal-itxurea, bizia ta indarra andik arturik. Eta muiñoa bere oiñetan daukon uretan begiratzen dan legez, berdetasunez eta lora-pitxiz aberats danean bere burua epaiñago ikuskatzeko, antzera nik be, argi-biran zutik, milla mailla baiño geiagotan islatzen ikusi nebazan ara gora biurtu ziran arimak. Eta azken zapaldak beregan argi orren bizi-indartsua artu ba'daroa, zelako zabalera ez dau eukiko larrosa onek bere azkenengo orrietan! Etzan galtzen nire ikusmenaez zabaleran ez goieran, poz-jario aren ainbat ta alangoa oso-osorik gozatu baiño. Ur-urriñak an ez dabe ezer ipinten ez kentzen, Jainkoak bitarteko barik gauzea daroanean, berezko legeak ez dau ezer adierazo nai. Edegi ta gorantza doan betiereko larrosaren, biotzera, beti udabarri dan Eguzkia kantuz gortzarrea eskintzen dautsan arengana, itz-egín arren ixillik dagoanaren antzera, Zorione'k eroan nindun, eta esan eban:

—Begira zein aundia dan jantzí zurien aldrea! Ikus gure uriaren inguru zabala! Ikus gure zizailluak ondo beterik, ain jente gitxi bai da emen itxaroten dana! Eta jaur-aulki ttzal aretan, zuk begiak josita daukazuzan aretan, an aurretiaz gain ipiñita dagoan koroia dala-ta, zuk eztegu oneitan afaldu baiño leen, an beean onezkero aundi dan Entike<sup>2</sup> gurenaren arimea jarriko da, onek otoitz bait dagi Italia zuzendu daiten, a ortarako gertu egin aurretik otoitz

egin be. Dirugose itsuak, gaixotzen zaituenak, bere iñudea iraitzi ta gosez ilten dan umearen antzeko egin zaitue, ta orduan onako agintaria egongo da Jainko-auzitegian, bide bardiñetik ez azal ez barru joango ez dana. Baiña epe laburrean Jainkoak jasango dau bere kargu santuan, Simon aztia bere mereziz dagon lekura amildua izango da-ta Agnani'koari<sup>3</sup> beerago saka egiñik.

- (1) Zuri, ots, arimea; sugar, ots, grazia.
- (2) Envike VITgarrena, 1313'an il zana.
- (3) Agnani, au da. Bonifazio Vlirgarrena.

### XXXI KANTUA

Muiña.—*Zeru-goia, Jainkoa.—Aingeruak.—Doatsuak.—Larrosa bakuna.—Aingerutar erleak.—Bernardo deuna.—Zorione'ri otoitza.—Andra Maria, aintzaz betea.*

Larrosa bakun antzo agertzen jatan, ba, Kristok odolez bere emazte egin eban gudari-talde sagaratua.<sup>1</sup> Bestea, bartiz, egaz ikusten dauana ta maitez mintzen Aren aintza ta eder egin egiñaren ontasuna<sup>2</sup> abesten diarduana, erle-moltzo baten pareko, orain lora gaiñ gelditu ta orain gozotasuna idoroten dauan lan-unera itzuliz datorrenaren antzera, ainbat ostoz apaindu lora gaiñera jatsi ta andik itzukzen bere maitasun beti dirauarenera. Sugar bizizko betartea eukien danak, eta urrezko egoak, eta gaiñerako guztia zuri-zuri, iñundiko edurrik areikaz bardintzeko gai etzalarik. Loratik jas-tean. maillaz maik euren egadan artutako bakea ta beroa edarazten eben. Egadun moltzo ain sotilla goi ta lora tartean egokitzeak ez eban galazoten ez ikuspegirik ez dirdairik, jainkozko argiak, bada, barraiatuz, gaudi osoa besarkatzen dau, berau duin dan giñoan, ezer be ezin leikio izan-eta eragozpen ez beatzarri.



Erreiñu nare gozatsu au, jente zaar eta barrtas sarrítua, ikusiak eta maitasunak zuzentzen eban oso-osorik puntu baterantza. Oi argi irukoitz, izar batean dizdizka, olan poz-erazten dozuna, ikus zelako ekaitz artean gagozan emen beean! Basatiak, Eliza ain kutun dauan bere semeaz egunero biraka dabillen lurraldetik etorriaz, Erroma ta bertako gomutagaillu goientsuak ikuskatzean, sor ta lor gelditu ba'ziran, Letran'ek ilkor egintzak gaintitu ebazanean batez be, ni, gizakianetik jainkotiartera, aldikotik betikora etorri, Florentza'tik erri zuzen osasuntsu batera, zelako arridurak ez nindun esituko! Izin be, aren eta gogotasunaren artean eder jatan ezer aditu barik eta mutu egotea. Eta erromesa poztu oi dan lez jauretxean bere zin-itza beterik ikustean, eta etxeratzean a zelakoa zan adierazteko ustetan egon oi danaren antzera nengoarj ni be, argí bizitan zear neure begiak erabiliz, maillaz mail neroiazan, orain gora, orain beera, orain íngurumari. GoKmaitasunera bultz-eragien arpegiak nekusan, beste argi batzukaz edertuak eta euren arteko irribarre, ziñu ta jokeraz txukuntasun osoz bitxiturik.

Paradisu guztiaren itxura ta tankera begi aurrean neukazan onezkero, naiz-ta nire ikusmena oindiño une berezi baten be kokatna ez izan: atsegiñez ta olde barriz itzuli nintzan neure andereagana, nire adimena ezbaiko egoan puntu batzuetaz itandu nairik. Gauza baten urian ibilli ta beste bat jazo jatan. Zorione ikus-ustean,<sup>3</sup> zaar bat<sup>4</sup> ikusi neban sendi afntzatsu lez jantzita. Aren begi-raatraillai poz onbera erioen; aren arpegikera zan errukior, aita samur batena, ziur.

—Eta nun dago bera? —ni itaunka beingoan.

Ak erantzun:

—Zure nai-irritsak aspertzeko, aldatu egin nau Zorione'k neure lekutik; goitik nsita, irugarren obora begiratzen ba' dozu, bere mereziak ezkuratu dautsoen tronuan ikusiko dozu.

Erantzuteko asti barik, gorantz jaso nebazan neure begiak eta betiereko errenuak, bertan islaturik, egiten eutsoen koroiaz ikusi neban. Trumoiak ots dagian leku garaienetik itxasoaren ondar sakonenean legoken begi ilkorrera ez dago

nireak Zorione'gandik euken beste bidarlo; baiña ez eutsan ardura, aren irudia ez baít zan jasten niganaiño beste gorputz bat tartean jarri zalako.

—O emakume! ; zugan kementzen da nire itxarokizuna; ni salbatzearren zuk bai itxi zenduzala infernuan zeure oiñatz-ikurrak! Ainbat gauza ikusi ba'ditut, autortzen dot, ortarako grazia ta índarra zure alizate ta onberatasunetik datorkidazala. Zuk, morroitzatik askatasunera ekarri nozu zeuk ortarako aalmena zeukan bide guztietatik, zeuk ortarako kemena zeukan bitarteko guzti arek erabilliz. Zaindu begie nigan aundi-izatea zure doe beteak, nire arimea, zuk osatu dozuna, eder izan dakizun gorputzetik banatzean.

Otoitz onela egin neban; eta arek, ain urruti zirudianak, irribarre egin eban niri begiraturik; betiko iturrietarantz biurtu zan gero. Zaar santuak esan eustan:

—Zeure ibilbidea bete-betea amaitu daizun, orretarakoxe bialdu bai nabe otoitzak eta maitasun santuak, egaz egizu begiakaz baratz ontatik, begitzeak bada ikusmena gaituko dautzu jainkozko izpiraiño igoteko. Eta zeruko Erregiñak, onen maite-sutan bait nago oso-osorik irakiten, grazi guztiz orniduko gaitu, ni bere Bernardo zintzoa naz-eta.

Antxiñatik gogo dauan gure Beronika ikusteko bear bada Kroazia'tik etorri ta asetua somatzen ez danak, bera erakusten dautsoen bitartean, bere pentsamentu barruan esan oi dauanaren antzean: «Jesukristo neure Jauna, egiazko Jainko, orrela ete zan zure arpegia?», nengoan ni mundu onetan, eroan eban bizitza otoizlariagaittk, bake aven atsegifía gozartu eban aren goi-maitasun biziari begiratuz.

—Eskerraren seme —asi zan esaten—, gozatsu egotea ez jatzu errez izango emen beean begiak josita eukiaz; begira egizuz oboak urrin-urriñeraiño, Erregiñaren jar-aulkia ikusi arte, aren menpeko lefal da-ta erreñu au.

Jaso nebazan begiak, eta goizean odei-ertz sortalde alderdiak, eguzkia beerantz doanarena argitasunez gainditzen dauan legez, gisa berean edo, ibarretik mendirantza begiak zuzenduz doanaren antzera, an goi-goian ikusi neban argi-

diztiraz beste guztiak baiña geiago zana. Eta an, Faetonte'k gaizkí asko zuzendu eban burdía<sup>5</sup> itxaroten dan lekuan, zerua geiago sugartu ta alde batetik eta bestetik argia txikituz doanez, zut-oial baketsu a be bardin biziagotzen zan erdian, beste alderdíetan gero ta geiago meetu ta gitxiagotuz. Eta erdi-une aretan, ego-zabalik, milla aingeru baiño geiago ikusi nebanzan ari jai egiten, euretatik bakotxa bestelakoa zalarik bai dirdiran eta bai jarreran. Arein jolaskantuen aurrean irripar egiten ikusi neban beste santuetan begietan gozotasuna ixurtzen ebana; eta nik irudí izateko lain gaitasun idazteko ba'neuko be, aren poz-atsegiñetatik gítxiena be adierazten ez nintzateke ausartuko.

Bernardo'k, nire begiak ikusi ebazanean bere maite-gai zanarengan adi-adi josirik, arengana biurtu zituan bereak maitasun-txera biziz, nirí be ari gartsu begiratzen jarraitzeko ikusmin biziagoa sortzen eustala.

- (1) Zeruko zorionsuak.
- (2) Añgeruak.
- (3) Zorione, Teolojiaren ezaugarria.
- (4) Zarra dozu San Bernardo, otoizlarien eredu ta Andra Mariaren maitale leial.
- (5) Eguzkiaren burdia.

## XXXII KANTUA

Muiña.—*Jainkoa: aingeruak, zorionsuak.*—*Zeruko larrosaren antolaketa.*—*Ume zorionsuak.*—*Maria eta Gabriel.\**—*Zeruko Jerusalem'en bizi diran erri-guraso aundiak.*

Bere atsegiñari emonik, otoizlari arek naierara artu eban bere gaiñ maisu izatea, eta itz santu oneikaz asi zan:

—Mariak ertsi ta osatu eban zauria, emakume eder aren oiñetan dagoanak, arexek (Ebak) edegi ta zoldu eban. Iru-

garren tokiak antolatzen dauazan saiUean, Errakel jarten da aren azpian Zorione'gaz, dakusazunez. Sara, Errebeka, Judit eta abeslearen bir-amama izan zana; bere erruaz mindurik, onek esan eban: «Miserere mei»; ikusi zeinke maíllaz mailla doazala jasten; ni be, areí bakotxari bere izena emonez, larrosatik noa jatsiaz ostoz osto. Eta zazpigarren mai-Uatik beera, baita goitik araglño be, ebetar emakumak datoz urrunez urren, lorearen orrí guztiak banatuz, eurak bait dira, fedearen begi-ukaldia Kristogan josi ebenez, mailladi sagaatuak bereizten dauazan orma-arria. Lorea bere orri guztiakaz naro dagoan emengo alderditik, etorteko zan Kristogan siñistu ebenak daukazuz jarrita; beste aldean, obo-erdizko zuloz etenda dagozanetan aurkitzen dira etorrita gero Kristogan siñistu ebenak. Eta an zeruko Erregiñaren au)kí aintzatsua ta onen azpian dagozan beste zizailluak alakó berezkuntza dagie-ta, olantxe aurrez aurre dago Jon aundiarena; onek ba, beti santu, basamortua ta martiritza jasan zituan, urte bitan linboan be egonik, eta onen azpian, berezkuntza bardiña gorderik, Frantzisko, Benito, Augustin eta beste batzuk ona beeraiño, oboz obo. Mirets egizu, beraz, Jainkoaren guztitariko ardura zabala, fedearen onako ta alako iduri ta karantzez baratz au ala-berean beteko dauana, ta jakizu erreskada biak erdiz banatzen dauazan maillatik beerantza iñortxo be ez dala jarten bere-bere merezimentuz, besteenez baiño, baldintza batzukaz; guzti oneik, ba, benetako aukera euki aurretik askaturiko espirituak dituzu. Errez konturatuko zara, arpegikeraz eta ume-abotsez bardin, eurai adi-adi begiratu ta entzun ezkeru. Ezbaian zagoz orain eta, etezkoa egiñik, mutu; neuk askatuko dautzudaz, baiña, daukazuzan pentsamentu meiak estutzen dabezan lokarrietatik. Erresuma onen zabalera barruan ezin leiteke lekurik egon alan-bearrezkoentzat, goibeltasun, egarri naiz gosearentzat ez dagoanez, ikusten dozun guztia ba betiko legez dago erabagita, beraz dana dagokio alkarri erestuna atzari lez. Ori dala-ta, jente onek, egiazko bizitzara lenbaitlen eldu nairik, euren artean suster barik ez daukie geiago edo gitxiago bikain dan tokia. Erregek, beraugaitik bai dau-

ko erreñu onek bake ain aundia, naimen batek be geiago opa izan ez daiteken bestean maitasunez eta atsegíñez betea ain zuzen, arima guztiak bere begirakun samurpeaji sortu oi ditu, eurok gura daunez doai ta esker bestelakoz omidurik, eta naiko dozu orren ondorioa jakíteaz. Au argí ta ondo esana dator Idatzi Deunean, bikoitz areitan, amaren sabelean egozanetik asarreak artuak izan ziralako. Beraz, olako graziaren ule-adats koloreari begiraturuz, argi goi-goikoak koroitu bear ditu; olan, euren aldeko merezimentu barik, bestelako mailletan ipiñita dagoz, ur-ikustearen leen-zolitasunez<sup>1</sup> bakar-bakarrik bereizita. Gizaldi barrietan naiko zan erru bakotasunaz, gurasoen fedeak soilki lagunduta, salbamena lortu al ízateko. Gero, leenengo epeak bete ziranean, gizasemeak, erru bakotasuriaren egoak eukita be, indarra jaristeko bil-ebaiketa<sup>2</sup> bearrezko eben; baiña ondoren, eskerraren aldia eldu zanean, Kristoren bateo oso barik, dalako erru bakotasuna linboan dago itxitua. Ikus orain Kristoren itxurarik geien daukan arpegia; onen argitasunak bakar-bakarrik gertatu zainkez Kristo ikusteko.

Aren gaiñ poztasun betea intzutzen ikusi neban nik, goi aretan egaz egiteko sorturíko arima santuak eroana; eta ni ez nindun aurretik ikusítako ezek birloratu arek beste, ezta Jainkoaz antza eukan ezertxo ikusi be. Eta *Ave Maria, gratia plena* (Agur Maria, graziaz betea) abestuz leenengo jatsi zan aingeruak,<sup>3</sup> aren aurrean zabaldu zitun bere egoak. Jauregi zoriontsuak erantzun eutson nun-naitik jainkozko eresiarí, ta orrela dirdaitsuagoak zirudien arimn guztiak:

—O aita santu, nigaitik emen beean egotea daroazuna, beti-betikoz jarten zarean leku ezta lagarik! Nor dogu aingeru ori, gure erregiñaren begietara ain gozatsu begira dagoana? Maite-mindua dirudi, suaren pareko,

Era orretan jo neban barriro be, goizeko izarrak eguzkitik lez bere edertasuna Maria'gandik artzen ebanaren irakatsira. Eta erantzun eustan:

—Aregan dagoz, egon be, aingeru batean eta arima batean egon leikezan sua ta ederra; eta olan izan dedilla nai

dogu guk, bera baít da, Jainkoaren Semea gure gorputzaren sortaz zamatu nai izan ebanean, Mariari palmadarra eroan eutsona. Baiña jarraí orafn begiakaz neuk esango dautzudanari ta oar zaitez aginterri zuzen santu onetan bizi diran erri-guraso aundietaz. Arek biak, an goian jarten diranak, Goragarria'gandik urrago ta doatsuago, ia-ia larrosa onen sustrai bi dira. A, ezker aldetík ur daukona, aita dau, bere ao-goza azarriagaitik gíza-endak ainbat garraztasun sufriduten dauana. Eliz Ama donearen aita urtetsua daukazu askuman, lora lirain onen giltzak Kristok eskuratu eutsozana. Eta beste a, il aurretik, lantzaz eta unlez irabazitako emazte ederrak igaro bearko eban aldi zoritxarrez betetako guztiak ikusi ebazana, bere ondoan dago jarrita, auzo daukala erri esker gaiztoko, zentzungabe, ezi-gaitz eta matxin-zale bere mende euki eban buruzagi a. Kepa'ri mosuz-mosu ikusi Ana, jezarrita, pozik be pozik bere aJabari begira, osana kantatzearren begiakaz zirkiñik be egiten ez dauana; eta etxeko jaun nagusiaren<sup>4</sup> aurrez-aur Lutxí jarten da, begiak itxiz zeure ondamendira makurtzen ziñanean zure anderea bialdu ebana. Baiña lo eragiten dautzun aldia aurrera doalako, emen egingo dogu taka, alako oiala alaka soiñekoa egin oi dauan jostunak Jez, eta leenengo maitasunera zuzenduko doguz begiak, arengana begiratz aal bestean barrendu zaitzezan aren diztiran. Alan eta guzti, zeure egoai eragiñik atzera egin ez daizun, aurrera zoazalakoan, lagun izan daiketzun grazia eskatu bear dogu, erreguka, ta zuk jarraituko daustazu maite-suaz, biotza nire itzetatik aldendu ez dakizun.

Eta otottz santu au asi zan.

- (1) Graziak emondako doea, urrago edo urriñago Jauna ikustekoa>
- (2) Erdizkako bateoa.
- (3) Gabriel, goi-ingerua.
- (4) Adan, leen-gurasoa.

Muiña.—*Zeru goia.*—*Jaungoikoa.*—*Aingeruak.*—*Zoñiontsuak.*—*Oloitz donea.*—*Mariaren bitartekotasuna.*—*Jainkotasunaren ikuskaria.*

«Ama Birjiña, zeure Semearen alaba, sorkarietan apale-na ta garaiena, betidaniko erabagiren muga tinko, zu zara giza-izatea duindu zenduna, beronen egillea beronen egin biurtzeraiño duindu be. Zure sabelean ixio zan maitasuna, ta orren berotasunaz, betiereko bakean, lora au ernemindu zan. Emen, gure artean, maitasunezko eguerdi argia zara, eta an beean, ilkorren artean, itxarozko iturburu bizia. Emakume, ain zara aundi ta ainbat balio dozu, grazi bat naf izan eta zugana jo ez dagianak, bere gurariak egó barik egaz egín dagiala, nai dau. Zure onberatasunak ez dautso doanari bakarrik laguntzen, askotan aurea artu be egin daroatso eskariari, aske to gogo onez, Zuregan, errukia, eraspena, esku-zabaltasunak alkar artzen dabe izakian aurkitu daiken ontasun osoz. Onek, ba, munduko goi-maitasun barrenengotik onagiño gogokiak banan-banan ikusi ditunak indar bat eskatzen dautzu, gorago eldu daitela begiakaz gorenengo osasuneraíño. Eta nik, beretzat nai dodan baiño geiago egundo irrikatu ez dodan onek, neure erregu guztíak zuri zuzentzen dautzudaz, eta eurolc ez daiteznla ez-naiko izan zuk zeure otoitzez orren ilkor kondiziñoaren odei guztiak urtu al izateko, atsegiñ gorenengoa estalgeturik. Oindiño be, erregiña, nai dozun guztia al dozun orri, osasuntsu gorde daizuzala euren maite-txerak ikusita. Goitu beiz zure zaindaritzak giza-eragiñak. Ikus Zorione; nire eskaria onartuz, doatsuakaz alkartzen ditu bere eskuak.

Jaínko maitaturiko begi gurgarriak, otoitzean ziarduan-gan tinko, argi erakutsi eben zein eder jakozan eskari eraspentsuak; gero argi betikorrera zuzendu ziran, eta onetan ezin daiteke siñistu izakiaren begi-ikustea orren argi barren-du leitekenik. Eta nik, nai guztien azkenera elduaz niñoian

onek, muga jarri neutson bear lez neure gar biziari. Bernardo'k bizkor-azten ninduan, irripartsu, gorantz begitu nengiala esanez; baiña ní orduko ak nai eban lez nengoan, nire ikusmenak, ba, argiagotuz, gero ta geiago barrendua zan berez-berez egia dan goitiko argiaren izpiakín. Emendik aurrera, gure izkerak adierazo daiken baiño geiago izan zan ikusi nebana; gure izkera, ba, erbal ta kaden da olako ikuskariak adierazteko, ta gogamena be ez da gai ainbesteko aunditasunik bere baitan artzeko. Ames egiñez ikusten dauanaren antzera, ta amestu ostan be artutako zauskadeak iraun oí dauan lez, naizta buruan ezer ez geratu; orrelaxe nago ni be, ikuskaria osoan ía suntsitua izan arren, oraindik jarioka dago nire biotzean andik erne zan gozotasuna. Orrela, edurra urtzen da eguzkitan, eta orrela, aizeak narras eroiazan osto ariñak Sibila ren esakunakaz.<sup>1</sup> O goitiko argi, ainbat jagiten zarana ilkorren pentsamentuz gaiñ! Emon barrero be go-goarri irudi arin bat bederen, zelan agertu zintzatazan, baita indartu nire izkera be, etorteko diran belaunaldiaí zure aintzaren dizdizera pitin bat badare itxi dagioedan; 'pizkat beinik-bein gogamenera ítzultzen ba'jat, bertso oneitan ots eragiteko, apurtxo bat, obeto ulertua izan dadin zure garaipena!

Sufridu izan neban izpi biziaren zorrotasunagaitik, uste dot, galdua izango nintzala neure begiak aldendu ba'nitu agandik eta gogoan dot guztiz ausarta izan nintzala ari eutsiaz, neure ikustea alkartu bait neban amairik ez dauan dirdiaiaz. O grazi oparoa! , orixegaitik ausartu nintzan betiereko argian begiak josten, euron ikus-indarra galdu eben arten! Aren sakon barrenetan ikusi neban: antxe aurkitzen dala, osoa dan baten maitasun lokarriz esiturik, lurbira zear zabaldurik dagoana; mamiñak eta eraskiñak, eta eurok alkarren artean gaitasunez loturik, nik diñodana antz-iduri ta isla aula besterik ez dala. Korapillo onen tankera orokorra uste dot ikusi nebala, au adierazoz atsegin gozoz gainezka aurkitzen naz-eta. Unetxo batek niri aazte aundiagoa dakarst Neptuno'ri Argos'en itzala miresteak ogetabosr gizaldiz ekarri éutsona báíño. Nire gogoak olan, sorta lor, adi-adi soegian, geldi ta zofi, gero ta su-biziago egiñik. Eragin bizia



bait dagitzu argi arek, ez leuke iñok egundo egingo a itxi ta beste gauza batera begiak zuzentzea; naimenaren elburua dan ona, aregan aurkitzen da-ta oso-osorik; agandik landa, ostera, akasduna dozu an osoa dana.

Nire itzak aurrekoan, gogoratzen dodana esateko, miiña oindiño bere amaren esnetan ezkotu daroen umetxo batenak baizen naiko ezak izango dira. Ez gero nik begiz joten neban argi bizian era lau bat baiño geiago egozalako, beti be leen zana zan-eta, aren itxura bakarra ikusten begiak aberastu egín jatazalako baiño; itxura a, Lzan be, ni aldatzean, bera be niretzat aldatu egiten. Argi garaiaren muin sakon aratzean, iru kolorezko iru obo agertu jatazan eta esteria bat, eta bata bestearen dirdaia zirudian, ostrailikak ostrailikarena letxe, ta irugarrenak sua zirudian beste bietatik era berean etorria bai'litzan.<sup>2</sup> Itza bai dala labur ta aul nire gogaia adierazteko! Eta au, nik ikusi nebanez, ainbat da, baiña «gitxí» esanaz ez dozn naiko. O betiko argi, zeugan bakarrik zara, zeu bakarrik eta zeure bitartez ulertzen, erne ta ulerkor bait zara, zeugan maitatzen eta atsegintzen! Argi islatua lez zugan iruditzen jatan oboa, nik argia neure begiakaz ingurumari, barne, kolore bereziaz ikustean, geure irudia iruditu jatan itxuratua, ta nire begiak beraz antxe josiak egozan. Oboa laukitu nai ta, bear dauan oiñarria buruan eukita be, ezin berari igarrita dabillen geometra lez nengoan ni be ikuskizun barri aren aurrean; ikusi nai neban, bai, irudia zelan egokitzen zan oboroan, ta zelen barnetzen zan; baiña nire egoak etziran naiko artarako, nire gogoa bete eban dirdai batek argitu ez baleust adimena.

Indarrak uts-egiten emen asmamen garaiari; orduko alan be biraka ebiltzan nire gogo ta naimena, bear bada eguzkia ta beste izarrak darabiltzan Maitasunak lez mugi-azoak erabat.

(1) Kuraa'ko SibLla asmagiña; onek bere leza aurrean izten zitan erantzunak, eta aizeak eroaten beste orbelakaz naste.

(2) Irutasun Deunaren ikuskaria.

## AURKIBIDEA

Infernua . . . . .	.11
Garbitokia . . . . .	.129
Paradisua . . . . .	.253



